

HOMILIAK

(Bizkaieraz)

Loiolako Santutegia
Iñaki Goikoetxea

H O M I L I A K

A. B. C.

(Bizkaieraz)

Loiolako Santutegia

Iñaki Goikoetxea

A U R K I - B I D E A

Abendualdiko 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea

Jesusen kaiotza

Familia santua

Jaungoikoaren Ama Maria

Gabon ondoko 2. domekea

Epifania. Jaunaren Agerkundera

Jaunaren bateoa

Garizumako 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea
" 5. domekea

Eguen Santua

Pazko eguna. Kristo biztu da

Pazko 2. domekea

" 3. domekea

" 4. domekea

" 5. domekea

" 6. domekea

" 7. domekea. Jaunaren igokundera

Pentekostes domekea. Espiritu Santua

Hirutasun guztiz Santua

Kristoren Gorputz-odol Santuak

2. domekea urtean zehar
3. domekea urtean zehar
4. domekea urtean zehar
5. domekea urtean zehar
6. domekea urtean zehar
7. domekea urtean zehar
8. domekea urtean zehar
9. domekea urtean zehar

10. domekea urtean zehar
11. domekea urtean zehar
12. domekea urtean zehar
13. domekea urtean zehar
14. domekea urtean zehar
15. domekea urtean zehar
16. domekea urtean zehar
17. domekea urtean zehar
18. domekea urtean zehar
19. domekea urtean zehar
20. domekea urtean zehar
21. domekea urtean zehar
22. domekea urtean zehar
23. domekea urtean zehar
24. domekea urtean zehar
25. domekea urtean zehar
26. domekea urtean zehar
27. domekea urtean zehar
28. domekea urtean zehar
29. domekea urtean zehar
30. domekea urtean zehar
31. domekea urtean zehar
32. domekea urtean zehar
33. domekea urtean zehar.
34. domekea urtean zehar. Kristo Errege

Andre Maria sortzez garbia

Andre Maria zerura jaso

Jose Deuna

Santiago apostolua

San Prudentzio Arabako zaindaria

San Fermin

Loiolako Inazio santua.

Xabierko Frantzisko santua

Santu guztien eguna

1. Domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Domeka honegaz «Abendu» aldiari hasiera emoten deutsagu...

«Abenduak» latinez «Etorrera» esan gura dau...

Gabonetan Jaungoikoaren semea, haurtxo txiki eginik, zerutik lurrera, gu salbatzera etorriko jaku.

Hasi gaitezaz gaurdanik Belengo haurtxoa onartzeko gure bihotzak prestatzen.

1. Irakurgaia: Is 2, 1-5

Jaungoikoaren erreinua mundu honetara datorrenean, bakea izango da nagusi, eta herriak anaitasun pozgarrian biziko dira.

2. Irakurgaia: Erm 13, 11-14

Gure salbatzailea onartzeko gaiztakerien ilunpeak aldendu eta Jaunaren argitan bizi behar dogu.

Ebanjelioa: Mt 24, 37-44

*«Zagoze erne, beraz,
ez dakizue-ta zuen Jauna
zein egunetan etorriko dan.» (Mt 24. 43)*

Homilia:

(Vatikano-ko «Sacrosantum Concilium» Konstituziotik ideak eta berbak «ad sensum» hartuta eta egokituta).

Liturgi urtea.

Eleiza Ama Santuak, urtean zehar egiten diren ospakizunetan, Kristoren salbamen ekintza osoa, gogoratu eta ospatu gura dau.

Eta horregaitik, urte osoaren joanean, Kristo gure salbatzailearen misterio guztiak gogoratzen ditu: Jaunaren jaiotza, gabonetan; Jesusen heriotzea, aste santuan; Kristoren biztuera, pazko aldian; Jesusen zeruetara igotea eta Espiritu Santuaren etorrera, pazko ondoko ospakizunetan.

Honan, urte guztian zehar, Jesus gure jaunaren salbamen jaiak ospaturik, antzina jazotako misterioak, zelanbait, gure animen onerako, gaurkotu egiten ditugu.

Baita urtean zehar, Kristoren bizitzako gertakari honeen artean, beste jai batzuk ere ospatzen ditugu.

Eta aurrengo Jaungoikoaren ama Mariarenak, berau dalako bere seme Jesusen salbamen lanari lokarri eten ezinez loturik dagoena.

Baita Elizak, urte barruan, beste martiri eta santuen jaiak ospatzen ditu, honeek direlako, Jaungoikoak lagundurik, zeruko zoriona lortu dabenak, eta orain zeruan Jaungoikoaren goralpenak abesten dagoz, eta gure alde otoitz egiten.

Domekea.

Elizak antzinatik Kristo biztu zan eguna beti goralpen handiz ospatu izan dau. Eta egun horri «Jaunaren eguna» edo Domekea esan deitso.

Jai honetan fededunak bildu bitez, Jaunaren berba entzun ondoren, Eukaristian parte hartuz, Jesusen nekaldi eta biztuera gogoratzeko, baita Jaunari bere mesede guztiengatik eskerrak emoteko.

Horregaitik domekea fededunentzat jairik handiena da, baita alaitasun eguna, eta lanetik atsedean hartzeko une egokiena ere. Elizak gura dau domeketan, Eukaristia ospatzen danean, otoitz eta kantu eta beste erritoen bidez, fededunen talde osoak meza santuan parte hartzea.

Horretarako eliz-abestiak herrikoiak izan beitez, fededunen otoitzari laguntzeko.

Kristauak, Jaunaren berbea entzunez, fedean oinarrituak izan beitez, eta Eukaristiako mahaian Kristoren gorputzaz janariturik, fedean indartuak eta sendotuak.

Ebanjelioaren ostean abadeak bere hitzaldi edo homilia amaitzen dauanean, herri osoak, bat eginik, otoitz egin bei: Elizaren alde, herrien agintarien alde, nekeetan aurkitzen diran guztien alde, eta gizon-emakume guztien alde, mundu guztia salbatua izan daiten.

Meza santuan, Kristok gurutzean hilik, bere bizia gizakien salbamenerako emoten dauan lez, Eukaristian parte hartzen dabenak ere, euren bizitzako lan eta nekeak, Kristorenekin batera, Jaungoiko Aitari eskeindu behar deitsoez, geure bizitza osoa Jaunaren aintzarako, eta gizonak salbatzeko izan daiten..

Berba gitxitan: mezako liturgian, oraindik hemen lurrean bizi garanok, zeruko Jerusalemenean santuak egiten daben liturgian, parte hartzen dogu...

Jaunak eroan gaizala, zeruko aingeru eta santuekin batera, Jaungoikoaren goralpenak betiko abestera. Amen.

2. Domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok: Abenduko bigarren domeka honetan Joan bateatzailea Jordan ibaian penitentzi-bateoa emoten agertuko jaku eta bekatariei hots egiten: «Bihotz barritu zaitzeze, zeruetako erreinua hur dago-eta».

Gabonetan Jesus haurtxoa, munduko salbatzailea, onartzeko gure bihotzak garbitu egin behar ditugu.

1. Irakurgaia: Is 11, 1-10.

Mesias Dabiden odolekoa izango da, Jaungoikoaren Espirituz betea, Errege zuzena eta bake egilea. Mesiasen egunetan arerioak adiskidetu, eta danak bakean biziko dira.

2 . Irakurgaia: Erm 1 5, 4-9

Kristok dakarren salbamena guztientzat da, bai judutarrentzat eta bai jentilientzat, danak bihotz eta ago batez Jauna goratu daien.

Ebanjelioa: Mt 3, 1-12

*«Egun hareetan,
Joan bateatzailea judako basamortuan agertu zan,
hotseginez:
«Bihotz-barritu zaitzeze,
hur da-eta zeruetako erreinua». (Mt 3, 1-2).*

Homilia

(San Joan Krisostomoren homiliatik ideak hartuta, eta beste zenbaitenekin osotuta. B.A.C. Verbum vitae T 1. 486...)

Bihotz barritzeko bost bide.

Joan Bateatzailea, Jordan ibai ondoan, hasi zan hotsegiten: Laster dator Mesias salbatzailea. Bihotz barritu zaitzeze!.

Zer da bihotz barritzea?. Bihotza garbitzea. Bide okerra itzi eta bide zuzenetik ibiltzen hastea...

Gabonetan Mesias, munduko salbatzailea onartzeko, gure bihotz zahar zikina kendu, eta beste garbi barri bat hartu behar dogu.

Horretarako Joan Krisostomo santuak bost bide erakusten deuskuz.

1. bidea. Bihotz damua.

Hau da beste bide guztien gainerik beharrezkoena: pekatariak garala ezagutu, eta Jaungoikoari humiltasunez parkamena eskatzea.

Natan profetak Dabid erregeri esan eutsanean: «Pekatu egin dozu, Urias zure zerbitzaria hilteko aginduz, eta gero haren emaztea zuretzat hartuz».

David erregeak bere pekatua ezagutu eban, esanez: «Bai, pekatu egin dot Jainkoaren aurka.» Eta Natan profetak Dabidi: Damutu zara, Jaunak zure gaiztakeriak parkatu deusuz.

2. bidea. Lagunurkoari parkatzea.

Jesusek esan eban: «Izan ere, zuek gizonei euren hutsegiteak parkatzen badeutsezue, zuei ere parkatuko deusue zuen Aitak; baina gizonei parkatzen ez badeutsezue, zuei ere ez deusue parkatuko zuen Aitak zuen hutsegiteak». (Mt 6, 14-15)

Parkamenari buruz ezin da argiago hitz egin.

3. bidea. Otoitz egitea.

Makalak gara, guk uste dogun baino makalagoak. Eskatu indarra Jaunari, eta emongo deus. Eskatu Jaunari ez besteak menperatzea, zure grina gaiztoak menperatzea baino. Ez eskatu aberatsagoak izatea, zintzoagoak eta santuagoak baino...

4. bidea. Limosna emotea.

Limosna era askotara emon daiteke: diruduna bazara, beharrean aurkitzen diranei dirua emonez; astirik badozu, zahar eta gaixoak ikustera joanez; beti eta edozeini, mesedeak egiteko prest egonez...

Ez daigula inoiz ere ahaztu, senideei egindakoa Jaunari berari egiten deusagula.

5. bidea. Penitentzia.

Berba hau latz eta gogorra egiten jaku, baina ez da holan penitentzia egitea zer dan ondo ulertzen badogu.

Joan XXIII, Aita Santuak dino: «Pekatu egin dogun guztiok, gure bihotzak garbitzeko, penitentzia egin beharrean gagoz, eta egiazko penitentiak honangoak dira: gure eguneroko eginbeharrak ahal danik eta ondoen betetea; gure bizitzan zehar aurkitzen ditugun neke, lan eta atsekabeak, Jaunaren eskutik lez, pazientziaz eroatea; kristau zintzo lez beti bide zuzenetik ibiltzen ahalegintzea; eta, batez ere, danei on egiten gure bizitza emotea.»

Jesusen jaiotzako egunak hurreratzen diran ezker, Jaungoiko gizon egina gure bihotzetan onartzeko, gure kontzientziak garbitu daiguzan. Pekatariak garala eta, ez gaitez bildurtu...

Belengo haurtxoa ez dator gugana, Sinai mendian lez trumoi eta tximisten artean, errukizko soinekoz jantzita baino, guri bere parkamena eskaintzera..

Bihotz barritu gaitez, Mesias salbatzailea haurtxo eginik laster dator-eta.

3. Domekea.

Sarrerako oharpena

Senideok:

Abenduko hirugarren domeka honek, Jesusen jaiotzari begira jartzen gaitu. «Zu ete zara guk itxaroten dogun Mesias?», itandu eutsoen Jesusi Joanen ikasle biak.

Eta Jesusek erantzun: Itsuek ikusten dabe, hildakoak bizten dira, behartsuei barri ona hotsegiten jake...

Honeek dira Mesias salbatzailearen ezaugarriak.

1. Irakurgaia: Is 35, 1-6a.10

Isaias profetak Mesiasen garaian jazoko diran mirariak alde zuzenetik adierazten ditu: itsuak ikusiko, gorak entzungo...

Bakea, poza eta alaitasuna alde guztietan.

2. Irakurgaia: St 5, 7-10

Nekazariak euria gura dau lurra fruitua emon daian.
Guk ere nekeetan iraupenaren bidez, zeruan fruitu ugari emongo dogu.

Ebanjelioa: Mt 11, 2-11

«Itsuek ikusten dabe...

Behartsuei barri ona hotsegiten jake.

Eta zorionekoa,

niregandik galbiderik hartzen ez dauana». (Mt 11, 5-6)

Homilia

(Ideak Joachim Jeremias-en «Teologia del Nuevo Testamento» liburutik hartuta. 134-148 orrialdeetan)

Juduek uste eben, Mesias Askatzailea, errege handi, aberats, arma indarrez jantzia izango zala. Errege ahaltsu horrek Israel Herria erromatarren menpetik askatu, eta mundu zabaleko herri guztiak bere menpean jarriko zituan.

Holan Jerusalem, huri santua, lurbira guztiko nagusi eta buru izango zan. Baina, alderantziz, Jesusentzat Mesias gizon apala eta pobrea izango zan, arma eta indar bakoa, geixo, behartsu eta pekatarien laguna...

Horregaitik Jesusi itandu eutsoenean:

«Zu ete zara guk aspalditik itxaro dogun Mesias, munduko salbatzailea?»

Jesusek egiazko Mesiasen beste ezaugarri honek emon eutsezan: itsuak ikusten dabe, hildakoak bizten dira, eta behartsuei barri ona hotsegiten jake.

Baekian Jesusek honango Mesias ez ebela askok onartuko, eta horregaitik gero esan eban: «Zorionekoa, Nigatik galbiderik hartzen ez dauana.

Behartsuei barri ona hotsegiten jake. (Mt 11, 5)

Nortzuk ziran behartsuak, pobreak Jesusentzat?.

* *Zergalariak.*

Gizon honeek erromatarren lagunak ziralako, Israel Herrian baztertuta bizi ziran. Eta egoki zan baino zerga gehiago eskatzen ebelako, lapur fama ere baeuken. Fariseu garbi batek ezin eban zergalariekin inolako hartuemonik izan, eta gitxiago eurakin mahai batean jan.

* *Ez-jakinak.*

Herriko jende kultura eta eskola bakoak. Honeek, irakurtzen eta idazten ez ekielako, ez eben Jaungoikoaren Legea ezagutzen. Eta, fariseuen ustez, Jaungoikoaren Legea ezagutzen ez dauana, zelan salbatu daiteke?.

* *Bazertuak.*

Geisoak, eskaleak, inoren laguntza barik bizi direnak... Honangoen zoritxarra, ez ete zan, fariseuen ustez, Jaungoikoak pekatuakaitik emondako zigorra, kastigua?.

* *Pekatariak.*

Maria Madalena, Samariako emakumea, eta honango beste emakume galduak, herritarrentzat pekatu-bide ziranak...

Honeen lagun zan Jesus Mesias. Honeek salbatzera etorri zan Jaungoikoaren semea.

* *Eta zorionekoa, Nigatik galbiderik hartzen ez dauana.* (Mt 11, 6).

Fariseu harroak ezin eben honango Mesias apala, pekatarien laguna ezelan ere onartu; baina herriko jende apalak, bai, Jesus maite eben, eta Jesusen atzetik jendetza handia joaten zan.

Lukas ebanjelariak esaten deusku: «Zergalariak eta pekatariak pilaka joaten ziran Jesusi entzutera, eta fariseuak eta idazlariak marmarrean hasi ziran alkarrekin, esanez: «Honek ondo hartzen ditu pekatariak, eta jan ere egiten dau eurakin».(Lk 15, 1-2).

Eta Jesusengaitik mesprezios esaten eben: «Horra hor tripazaina, eta arda-edalea, zergalarien eta pekatarien adiskidea». (Mt 11, 19).

Baekien fariseuak Jaungoikoa errukiz betea zala, eta pekatari damutuei parkatzen eutsela; baina zelan damutuko zan pekatuan buru-belarri sartuta egoan zergalaria, edo pekatutik bizi zan emakume galdua?.

Baina Jesusek fariseu harroei esaten deutse: «Zergalariak eta emagalduak zuek baino lehenago datoz Jaungoikoaren erreinura». (Mt 21, 31)

Eta zuek handik aldenduak izango zarie.

4. Domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok: Gabonetako atarian gagoz...

Maria birjina, Nazareteko neskatxa gaztea izango da Jesus Salbatzailea mundura ekarriko deuskuna...

Jose, Mariaren senar garbiak Belengo haurtxoa zaindu eta babestuko dau...

1. Irakurgaia: Is 7, 10-14

Akaz, Judako erregea, arerioz inguraturik, estu eta larri aurkitzen da...
Isaias profetak esaten deutso: «Ez zaitez bildurtu. Jauna gurekin dago, eta Berak salbatuko gaitu.»

2. Irakurgaia: Erm 1, 1-7

Jesus haragiz Dabid erregearen odolekoa zan, eta espirituz Jaungoikoaren semea. Honen bidez salbatuak gara.

Ebanjelioa. Mt 1, 18-24

«Dabiden seme Jose: ez izan bildurrik, Maria, zure emaztea, etxean hartzeko... Semea izango dau, eta zuk «Jesus» ezarriko deusazu izen, horrek salbatuko dau-ta bere herria pekatuetatik». (Mt 1, 20-21)

Homilia

(Karl Rhaner-en «Homiliario Biblico» liburutik ideak hartuta)

«Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko berba emonda egoela, alkarregaz bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zan Espiritu Santuaren egitez...

Haren senar Josek, gizon zintzoa zan-eta, ez eban bere emaztea salatu nahi, eta isilka joatea erabagi eban». (Mt 1, 18-19)

Handiak izango ziran, benetan, Jose zintzoaren kezkek eta zalantzak, Maria bere emazte santua, emakumerik errubako eta garbiena, Espiritu Santuaren egitez haurdun aurkitu zanean.

Ebanjelioak dino: Josek, bere barruko larritasuna ezin gaindituz, emaztea isilka itzi eta joatea erabagi ebala.

Zergaitik emaztea itzi?. Maria, pekatuan jausi eta ezkontza nahasle zala uste ebalako?.

Beste arrazoi sakonago bat eukan Josek Maria bere emazte garbia isilka izteko. Jose apalak bere ezerezi begiratu eta pentsatu eban: Nor naz ni Salbatzailearen amaren senarra izateko? Zelan beteko dodaz nik kargu horrek berekin dituan eginbeharrak?...

Baina estualdi honetan Jaunaren aingerua agertu jakon Joseri, esateko: «Dabiden seme Jose, ez izan bildurrik, Maria, zure emaztea, etxean hartzeko». (Mt 1, 20)

Esan gura eutsan: Jose, Jaungoikoak lagunduko deutsu, eta jaioko dan Umearentzat aita legezkoa izan zaitez, zeure semea balitz lez maite egizu, eta bizitzeko behar dauana emiozu... Eta bere ama Maria, zure emaztea, zure etxean hartu egizu... Jesus umea eta bere ama izango dira zuretzat zeruak emondako erregalurik bikainenak.

Horregaitik gero aingeruak dinotso: zure emaztearen semeari zuk «Jesus», hau da «Salbatzailea» jarriko deutzazu izen. Horrek salbatuko dau-ta bere herria pekatuetatik». (Mt 1, 21)...

Maria, emakumerik apalena aukeratu eban Jaungoiko Aitak, bere Semearen ama izateko... Eta Jose, gizonik zintzoena, Jesus umea eta honen ama Maria zaindu, babestu eta begiratzeko.

Guri ez jaku, Joseri lez, aingeru bat etorriko, zer egin behar dogun, edo zelan jokatu behar dogun, esatera...

Baina aita edo ama bazara, Joseri lez zuri ere, Jaunak esaten deutsu: zaindu egizuz zure etxeakoak bide zuzenetik ibili daitez, eta ahalegindu zaitez zuen etxea maitasun habi izan daiten. Langilea bazara, zure lantegian kristinau zintzo lez, zure eginbeharrak ondo eta zintzo eta zehatz bete egizuz...

Astialedietan, danakaz lagun ona eta alaia izan zaitez, kristinau izateak alaia eta ona izatea eskatzen dau-ta...

Jaungoikoak ez deusku guri zerutik aingeru bat bialduko, baina bakoitzari gure kontzientziaren bidez berba egiten deusku, esanez: Mariak, bere semea sabelean hartu eban antzera, guk ere munduko Salbatzailea geure bihotzean onartu behar dogu.

Eta Josek, Maria eta Jesus umea zaindu zituan lez, guk ere Jaungoikoaren hitza gorde behar dogu.

Eta batez ere egia handi honetaz ez gaitez behin ere ahaztu: guk, salbatuak izan gareanok, geure ingurukoei ere, betiko salbamena lortzen lagundu egin behar deutsegula.

Jesusen jaiotza

Sarrerako oharpena

Senideok: Gaur Gabon jaia, Jesusen jaiotza ospatzeko batu gara eleiza honetan...

Aintza zeruetan Jaungoikoari Salbatzailea emon deuskulako, eta bakea lurrean gizonei, gure gaiztakeriak parkaturik, zeruaren jabe egin gaitualako...

Eukaristia honek Jaungoikoa goستن, eta senideekin bakean biziten irakatsi daigula...

1. Irakurgaia: Is 52, 7-10

Salbatzaileak bakea ekarriko dau gure artera, eta lurreko bazter guztiak ikusiko dabe gure Jaungoikoaren salbamena.

2. Irakurgaia: Eb 1, 1-6

Itun Zaharrean Jaungoikoak profeten bidez hitzegin eutsen gizonei. Itun Barrian bere Seme Jesusen bidez berba egin deusku guri.

Ebanjelioa: Jn 1, 1-18

*«Eta Hitza haragi egin zan,
eta gure artean jarri eban bere bizilekua». (Jn 1, 14)*

Homilia

Jesusen jaiotzako gertakizunak hobeto ulertzeko, Israel Herriaren aldi haretako historia, gain gaineratik bada ere, gogoratu daigun... Israelgo agintariak euren artean eukiezan hasarreak lagundurik, Ponpeio, Erromako jenerala, Jerusalemengo jabe egin zan, Jesus jaio aurretik 63garren urtean...

Handik aurrera Israel Herria Erromatarren menpean bizi zan...

Baina Erromak autonomia nahiko zabala emon eutsan Israel Herriari, euren erlijinoa, ohiturak eta legeak zaintzeko...

Herodes erregea zan garai haretan Erromako Augusto enperadoreak Palestinan jarritako agintaria....

Zesar Augustok bere agindupeko jendeak zeinbat ziran jakin gura ebalata, inperio guztian «errolatze» edo «izen-emotea» egiteko agindu eban.

Palestina izen-emote hori bakoitzak bere jaioterrian egin behar eban, eta Jose Belen-darra zan ezkerreko, Nazaretetik bere emazte Mariarekin, herri haretara joan zan... Nazaretetik Belenera 120 kilometro, lau eguneko bidea.

Maria, haurra izateko egoalako, behar bada, asto gainean joango zan. Ibilaldiaren ia azkenean, Jerusalemenera heldu ziranean, Maria eta Josek hango jauretxe ederrean otoitz bero bat Jaungoikoari egingo eutsoen...

Jerusalendik Belenera 8 kilometro besterik ez. Belen, Dabid erregeren jaioterria, garai haretan herri txikia zan, eta izen-emotera hara joandako huritarrez leporaino beterik aurkitzen zan.

Ez da, bada, harritzeko, Josek eta Mariak hango ostatuan non egonik ez aurkitzea, ez hango jendea bihotz-bakoa zalako, benetan tokirik ez egoalako, baino.

Bazan sortalderantz Belendik ez urrun, harpe edo hatxean zulatutako aterpe bat, neguan artzainak eta ardiak han gordeten ziranak. Hara joan ziran Jose eta Maria gaua igarotera.

Eta gau haretan jazo zan San Lukas ebanjelariak kontaten deuskun misterio harrigarria: «Han egozala, haurra izateko egunak bete jakozan Mariari. Eta bere lehen semea izan eban, eta, oihaletan baturik, aska batean etzun eban». (Lk 2, 6-7).

Belendik kilometro batetara dago «artzainen landa» esaten jakon larrea. Han gau haretan artzainak euren ardiak txandaka zaintzen ebezan. «Honetan aingeru bat agertu jaken eta esan eutsen: Begira, poz handi baten barri ona dakartsuet: salbatzaile bat jaio jatsue Dabiden herrian: Mesias, Jauna. Honetan ezagutuko dozue: oihaletan baturik eta askan etzunda aurkituko dozue haurra». (Lk 2, 8-12)

«Eta aingeru bakar hari, beste aingeru talde handi bat batu jakon, Jaungoikoa goresten ebela, esanaz: «Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Haren gogoko gizonei». (Lk 2, 13-14)

Aingeruak joan ziranean, artzainak honan inotsien alkarri:

Goazen Belenera, eta ikusi daigun Jaunak jakin erazo deuskun gertakari hau: «Lasterka joan ziran, eta han aurkitu ebezan Maria eta Jose, eta Haurra azkan etzuna». (Lk 2, 15-16).

Artzainak ez ziran estalpera esku hutsik joango.

Herrialde guztietan ohitura danez, haur jaio barriari eta honen amari «Zorionak» emon ondoren, opari txiki batzuk eskeinduko eutsiezan, euren barruko poza agertzeko...

Gero, Maria eta Joseri kontatuko eutsien, zelan aingeruak ikusi ebezan «Aintza zeruetan, eta bakea lurrean» abesten, eta zelan zerutar hareek adierazota estalpera etorri ziran... Eta gero abesti batzuk kantatu ondoren «artzainak Jaungoikoari aintzaka eta goraka itzuli ziran, entzun eta ikusi ebenagaitik» (Lk 2, 20).

Artzainak Belengo herrian ikusi eta entzundakoa zabaldu eben, «eta guztiak harriturik gelditu ziran, artzainak esaten ebenagaz».

«Eta Mariak gogoan jasoten zituan gauza guzti honeek bere bihotzean hausnartuz». (Lk 2, 19).

«Jainkoaren Semea gizon egin zan, eta gure artean jarri eban bere bizilekua». (Jn 1, 14)

Familia santua, Jesus, Maria eta Jose (Gabon zortziurren bitarteko domekea).

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusen Jaiotza ospatu barria dogu... Baina Gabon giroan jarraitzen dogu Errege egunera arte...

Gaur Nazaretoko sendi-familia santua, Jesus, Maria eta Joserren jaia, gogoratzan dogu.

Gure etxeak, Nazaretokoaren antzera, maitasun eta zorion habi izan daitezcan, Eukaristia honetan otoitz egin behar dogu.

1. Irakurgaia: Sir 3, 3-7.14-17a

Ben Sirak, jakitunak, aholku jakingarriak emoten ditu, familiako bizitza zelan zoriontsu egin, guri erakusteko.

2. Irakurgaia: Kol 3, 12-21

Etxeko guztien alkar maitasuna da sendian zoriontsu biziteko biderik egokiena.

Ebanjelioa: Mt 2, 13-15.19-23

Familia santua Ejiptotik Galileara etorri zanean,
«Nazaret deritzan herrian gelditu ziran biziten». (Mt 2,23)

Homilia:

(Frantziako gotzainak Familiari buruz egindako adierazpena,
laburtuta) (Ecclesia 1970).

Haurrak.

Umeak ondo heziteko (edukatzeko) aurrena eta beharrezkoena, hau da: familiako guztiak euren artean benetan maitatzea. Umeak, bere etxean aita eta ama eta beste sendiko guztiak, alkar maite dabela, ikusten badau, haurtxo hori poz eta zorionez biziko da. Baina, alderantziz, etxekoen arteko hasarreak eta eztabaidak, kalte handia egingo dautsoe, bizitza guztirako...

Ez da ahaztu behar: umeak, txikitan etxean ikusten eta ikasten dauana, ona ala txarra, bizitza guztirako gordeko dauala. Esaera zaharra da: «Umeak ikasia, etxean ikusia.»

Gazteak.

Oso gatxa da, ume izatetik, gizon edo emakume heldua izatera heltzeko bitartea. Zubi hori arriskuz betea dago...

Horregaitik gurasoek euren seme-alabei lagundu egin behar deutesie, apurka askatasun gehiago emonez, urte txar horreek ahalik eta ondoen igaroten...

Garai honetan guraso eta seme-alaben artean tira-bira larriak izaten dira, baina alkarren arteko konfidantza hausten ez bada, azkenean dana onez konponduko da.

Ezkongaiak.

Gazte bikoteak, ezkondu aurretik, alkar ondo ezagutu, eta benetan maitatzen ikasi behar dabe... Sentimendu hutsak eraginda, edo alkar ondo ezagutu barik ezkontzen diranak, gero maitasunean ez irauteko arrisku handia dauke.

Ezkonduak.

Benetan elkar maite behar dabe. Ezkonduen maitasunak oso-osokoak izan behar dau, hau da: gorputz eta arimakoa. Gorputzeko maitasuna seme-alabak sortzeko; arimakoa, ezkontide biak alkar ondo eroanaz, zoriontsu biziteko. Baita egiazko maitasunak betiko izatea berez eskatzen dau...

Egiazko maitasunak ezin dau esan: hamar edo hogeitertan maite izango zaitut, eta gero ez; edota, gazte zaran bitartean bakarrik maiteko zaitut, baino gero ez.

Egiazko maitasuna, urteak aurrerago, eta sendoago eta egiazkoago egingen da.

Ezkontzari buruzko teologia.

Fededun gareanok maitasunari buruz honan pentsatu behar dogu: Jaungoikoa maitasuna da. Maitasun osoa eta betea. (1 Jn 4, 8)

Beste maitasun guztiak Goiko Jaunagandik datoz, eta Jaungoikoa dabe iturburu...Hau honan izanik, kristau senar-emazteen maitasuna ere, Jaungoiko maitasunaren zati baten antzeko dala, esan geinke...

Horregaitik senar-emazteak, zenbat-eta euren artean gehiago maitatu, Jaunaren antzekoago, eta Jaungoikoagandik ondorago bizi dira... Jaungoikoak gure lehenengo guraso Adan eta Eba paradisuan sortu, eta gero esan eutsen: «Hazi eta ugaritu zaitetze, eta bete lurra seme-alabez». (Gen 1, 28). Ezkonduak seme-alabak sortzean Jainkoaren lankide edo lan-lagun dira...

Kristau ezkonduen bidez lurreko kristau herria hazi eta ugaritu egiten da, eta zerukoa zoriandun gehiagoz bete...

Eta amaitzeko, gaurko eukaristiako otoitz ederra esan daigun: Jainko gure Aita, Nazareteko familia santua, Jesus, Maria eta Jose, emon deuskuzu jarraibide eder; egizu, lur honetan gure familietan alkarren maitasuna izan daigula, eta gero betiereko zoriona zeruetako etxean.

Urte barri. Jainkoaren Ama Mariaren jaia Bakearen eguna

Sarrerako oharra.

Senideok: Gaur urte barriari hasiera emoten deutsagu... Danontzat zorionez betea izan daitela. Elizak Jesusen ama Mariaren irudi ederra jarten deusku gaur gure begien aurrean, urrundik bada ere, gu Mariaren antzeko izan gaitezana...

Baita, Aita Santuaren deiari erantzunez, urte barri honetan, bakearen alde otoitz egin behar dogu, gorroto eta armak isildu, eta anaitasunean biziten ikasi daigun.

1. Irakurgaia: zan 6, 22-27

Itun Zaharrean Israelgo abadeak, Jerusalemgo jauretxean elizkizunak amaitzean, «bakea zuei» esanaz, bedeinkatzen eben herria.

2. Irakurgaia; Gal 4, 4-7

Aita Jaungoikoak bere Semea emakume batengandik jaiotea erabagi eban. Emakume hori Maria da... Mariaren Seme Jesusi esker, guk orain Jaungoikoari «aita» esaten deutsagu.

Ebanjelioa: Lk 2, 16-21

*«Honan bedeinkatuko dituzue israeldarrak:
«Jaunak bere bakea agertu daizuela esanaz». (Zan 6, 27).*

Homilia:

Paulo VI. Aita Santuak «Urte Barri» egun hau, bakearen alde otoi eta lan egiteko aukeratu eban... Bakea justiziaren fruitua da. «Opus justitiae pax»... Zikina dan tokian gatzak sortzen diran lez, injustiziak eta zuzen kontrako egintzak diran lekuan, hasarreak eta guduak (gerrak) sortuko dira.

1948. urtean, munduko gerra izugarriaren ondoren, ia mundu guztiko agintariak alkaturik, beste gerra atomiko kaltegarriagorik etorri ez daiten, giza-eskubide edo deretxo honeek, danak onartu eta bete behar dabezala, erabagi eben.

Guk, kristauok, beste inork baino lehenago, mundura bakea ekarteko, giza-eskubide honeek onartu, bete eta beteazo behar ditugu.

Giza-eskubideen hitz-aurrea

Mundu honetara bakea ekarteko bide bakarra hau da: gizon-emakume guztiek, pertsonak diralako, eskubide bardinak dabezala autortzea. Giza-eskubideen zerrenda. (Danak ezin jarriz, garrantzitsuenak bakarrik).

1. Gizon-emakume guztiak, pertsona adimendunak, eta kontzientziaren jabe diralako, euren eskubideetan, jaiotzatik, bardinak dira. Eta alkarren artean anaitasunez bizi behar dabe.
3. Pertsona guztiak dauke biziteko, eta aske-libre biziteko eskubidea.
5. Ezin da inor torturatu, ez gorputzeko minez, ezta espirituzko edozelango atsekabe emonaz.
9. Ezin da inor, motibo barik, bahitu edo detenitu, ezta espetxeratu, ezta erbesteratu (desterratu) ere.
11. Epaiketa egitean pertsona guztiak dauke euren buruak defenditzeko eskubidea.
12. Inoren bizitza pribatu, familia, sekreto edo izen onaren aurka, ezin da kalterik egin.
16. Pertsona guztiak dauke, adinera heldu ezkeror, ezkontzeko eta familia bat sortzeko eskubidea eta ezkontza barruan ezkontide biak eskubide bardinak daukez.
17. Pertsona guztiak dauke, propiedadeen jabe izateko eskubidea, eta motibo barik, ezin da eskubide hori kendu.
19. Pertsona guztiak dauke euren erlijino eta eritzi politikoak eukitzeko eskubidea, baita alderdi politikoetan eta erlijino taldeetan parte hartzeko eskubidea.
23. Pertsona guztiak dauke, lanaren bidez, biziteko behar dabena irabazteko eskubidea, baita gaisotasun eta zahartzaroan behar daben laguntza eskuratzeko eskubidea.
26. Pertsona guztiak dauke hezketa-edukazino egokia hartzeko eskubidea, eta gurasoak dauke, euren haurrei zelanko heziera (edukazinoa) emon behar jaken erabagiteko eskubidea.
29. Eskubide edo deretxo honeek, beste aldetik, euren eginbehar edo obligazinoak daukez. Esaterako:
Danok biziteko eskubidea badogu, ezin da inor hil.
Danok izen onaren eskubidea badogu, ezin da inoren izen ona zikindu.

Bakearen aldeko otoitza:

Egin gaizuz, Jauna, zure bakearen zerbitzari... Gorrotoa nagusi dan lekuan, guk maitasuna ipini daigula. Hasarrea nagusi dan lekuan, parkamena... Guzurrea nagusi dan lekuan, egia... Ilunpea nagusi dan lekuan, argia.

Gabon ondoko 2. domekea

Sarrerako oharra

Senideok:

Oraindik Gabonetako jaietan gagoz. Jainkoaren Semea, zeruan Aitaren ondoan bizi zana, gu salbatzearren, gizon egin zan...

Eta Bera, sinismenaren bidez, onartu eben guztiei, Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emon eutsen...

Eta Jaunaren seme-alaba diranei, zeruaren jabe izatea ere emon deutse, bere errukiari eskerrak.

1. Irakurgaia. Sir 24 1-4.12-16

Egiazko jakinduria honetan dago: Jaungoikoa ezagutu eta maitatzean. Zorionekoak honango jakinduria lortu daben herriak.

2. Irakurgaia. Ef 1, 3-6.15-18

Jaungoiko Aitak, bere Seme Jesusen bidez, betidanik aukeratu ginduzan gu bere seme-alaba izateko...

Gero zeruko ondasunen jabe izan gaitzean.

Ebanjelioa. Jn 1, 1-18

*«Jaungoikoaren hitza onartu eben guztiei,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emon eutsen,
haren izenean sinisten badabe» Jn 1, 12)*

Homilia.

(Fedeari buruz Vatikanoko Kontzilioak han eta hemen esandakoak bilduta eta «ad sensum» idatzita. «Dignitatis Humanae» eta «Lumen Gentium» eta abar).

Gizon guztiak beharturik dagoz egia bilatzera, batez ere Jaungoikoaren egia, eta behin ezagutu ondoren, egia hori onartzera, eta egia horrek eskatzen dauan legera bizitera. Jaungoikoak gizona libre (aske) egin dau, eta ez dau nahi inor derrigortu egia hori onartzera.

Egia, berak daukan indarrez, astiro eta poliki, baina indar handiz gizonaren barrenera sartzen da.

Fedea libre dala jakiteak, ez dau esan nahi, fedeari baietza ala ezetza emotea bardin dala; bada, Jesusek esan eban: «sinisten dauana salbatuko da, eta sinisten ez dauana galduko». (Mk 16, 16)

Hau honan bada, bakoitzak pentsatu behar dau, zelanko zama-karga astuna bere kontzientziaren gainean ipinten dauan, egiari begiak itxi, eta Jaungoikoaren hitzari entzungor egiten deutsanean.

Jesusek, bere bizitzan zehar, berak irakasten eban dotrina egiztatzeko, mirari asko egin zituan, guri sinisteko bideak zabaltzeko. Halan ere, batzuk sinistu eutsoen, eta beste batzuk ez.

Baina, nor beraren errubarik, sinismenaren argira etorri ez danari, Jainko errukitsuak beste bide bat emongo deutso, betiko salbamena lortu daian, bada, egiaz eta benetan gizon guztiak salbatzea gura dau.

Jesus, Mesias, ez zan politiko diktadore baten antzera lur honetan agertu... Bere entzuleen sinisgogorkeriak min handia emoten eutsan, baina, bera salbatzera etorri zan, eta ez inor galtzera.

Jesusek hotsegin eban erreinua ez da ezpataz jasoten, egiaz eta maitasunez baino: «Nik lurretik gurutzean jasoko nabenean, guztiak Niregana ekarriko ditut.»

Fedea, Jaungoikoak guri, guk ezer merezi barik, egin deuskun balio handiko mesede-opari bat da. Horregaitik fededunok, bizitza guztian, Jainkoari eskerrak emon beharrean gagoz, gure animako begietan sinismenaren argia biztu daualako.

Sinismendunak, -dino Vatikanoko Kontzilioak- Jaungoikoari indarra eskatu beie, euren fedea eskatzen dauan erara biziteko eta horretarako behar daben laguntza otoitzean eta sakramentuetan aurkituko dabe.

Fededunak, euren inguruan bizi diran sinisbakoak, senide lez, maitasunez eta ondohiez hartu behar dabez, euren bizitza zintzo eta zuzenez munduaren argi izan daitezcan. Gauza bat sinistu eta beste bat egin, hau da gaurko egunean askoren pekatu astuna, Jainkoak ezin eroana, eta fedeari kalte handia egiten deusana.

Fedebakoak Jainkoaren argira ekarteko asko balio dau, kristauak euren artean asko maite dabela, eta batasunean bizi dirala, ikusteak.

Baita, alderantziz, fededunen arteko zatiketa eta hasarreak, sinisten ez dabenen aurrean, Jaungoikoaren aurpegia estaldu egiten dabe.

Kristo, profeta gorengoak, bere Aitaren erreinua bere hitzaren indarrez, eta bere bizitzaren testigantzaz hotsegin eban...

Haren ikasle gareanok, ebanjelioaren argia gure etxeko bizitzan eta gizartean biztu behar dogu, mundua eta munduko arazo guztiak, ebanjelioaren argitan ikusi eta konponduak izan daitezcan. (Lumen Gentium. 35 zbk.)

Jaunaren agerkundea. Epifania.

Sarrerako oharpena:

Senideok:

Gaur Jaunaren Agerkundea edo Epifania, edo bardin dana, (errege) Magoen jaia ospatzen dogu... Mesias ez zan judutarrak bakarrik salbatzera etorri, baita atzerritar, jentilak ere...

Magoak jentilak ziran, baina Jaungoikoaren izarrak argi eginik, Belengo Jaungoiko haurtxoa ezagutu eta gurtu eben.

Gure antzinako gurasoak ere jentilak ziran, baina, Jaunari esker, orain guri fedearen izarrak argi egin, eta Belengo haurtxoa Jaungoiko Salbatzailea dala, ezagutu dogu.

1. Irakurgaia. Is 60, 1-6

Isaias profetak, pozez beterik, «Jaunaren aintza» abesten dau. Mesiasen argiak mundu honetako ilunpeak argituko ditu, eta lur osoak egiazko Jaungoikoa ezagutuko dau.

2. Irakurgaia. Ef 3, 2-3a.5-6

Jesukristo, Barri Onaren bidez, judegu eta jentilen salbatzaile da. Danok gara zerurako aukeratuak.

Ebanjelioa. Mt 2, 1-12

«Orduan mago batzuk etorri ziran sortaldetik Jerusalenera, galdezka: «non da jaio-barri dan erregea?» (Mt 2, 1-2)

Homilia

(Vatikanoko Kontzilioaren «Nostra aetate» deklaraziotik ideak hartuta)

Antzina antzinatik gaur arte herri guztiak sinistu izan dabe, badala mundu honetako gauza eta arazoan artean misteriozko indar bat, eta Jainkozko «zer» bat, guk erlijinoa esaten deusaguna.

Erlijino mota guztiak itaun honeei erantzun egoki bat emon nahi deusie.:

Zergaitik eta zertarako bizi gara?. Zer da eta zergaitik heriotza?.

Zer bide hartu behar da betiko zoriona eskuratzeko?.

Zer da gure bizitza guztia inguratzen dauan misterio handi ha, guk Jaungoikoa esaten deusaguna?.

Erlijino mota guztiak, bakoitza bere aldetik, Jaungoikoaren Egiaren bila dabilta, San Paulok greziarrei esan eutsen lez: «Atenastarrok; oso jainkozale ikusten zaituet... Zuek ezagutu barik gurtzen dozuen Jainko horren barri emotera natorkizue... Guztiak bere bila dabilta, eta itsu-mustuak behintzat aurkitzen daben». (Ap Eg 17, 22-27)

Hinduistak:

Euren mito eta filosofia sakonaren bidez, Jaungoikoaren misterioa ezagutu nahi dabe, eta euren hausnarketa sakon, eta bizitza latzaren bidez, mundu honetako nekeetatik askatzea bilatzen.

Budistak:

Mundu hau igeskorra dala ikusiz, aszetikaren bidez, grina oker guztietatik askaturik, argitasun betera helduko dirala uste dabe.

Eta honeen antzera, munduan aurkitzan diran beste erlijino guztiak, zelanbait, Jaungoikoaren egia ezagutzeko bide bat zabaldu gura dabe.

Mahomatarrak.

Honeek, guk kristauok lez, Jaungoiko bakarra, ahalguztidun eta errukitsua, zeru-lurren egilea, gurtzen (adoratzen) dabe. Jesus, Jainkotzat ez bada ere, profeta handizat onartzan dabe. Jesusen ama Maria ere, ohore handitan goستن dabe... Eta lehenagoko gizaldietan kristau eta mahometarren artean guduak (gerrak) izan badira ere, gaur Kontzilio honek katoliku guztiei eskatzen deutse, joandakoaz ahazturik, alkar ondo eroan daiela, danok alkaturik, gizonen artera zuzentasuna (justizia), bakea eta askatasuna ekarri daiguzan.

Judutarrak.

Vatikanoko Kontzilio honek ezagutzen dau kristau fedearen hasiera Abraham, Moises eta profetetan aurkitzen dala...

Jesus, Mariaren semea, judegua izan zan, baita lehenengo Barri Ona zabaldu eben apostolu eta ikasleak ere. Eta gogoratu behar dogu, orduko Jerusalemgo judeguak Kristoren heriotza eskatu baeben ere, pekatu hori ezin deutsegula orduko judegu guztiei leporatu, eta gitxiago gaurko Israel herrikoei.

Eliza Katolikuak badau itzaropena, Sofonias profetak esaten dauanez: «Etorriko dala egun bat herri guztiak ago batez Jauna goratuko dabena; bada, Kristok bere bizia gizaki guztiak salbatu daitezcan emon eban.

Kristaumentzat gizaki guztiak anaiak dira. Ezin dogu Jaungoikoa guztien Aita dala autortu, Jainkoaren antzeko eginak izan diran gizon-emakume guztiekin senide lez bizi ez bagara... Jaungoikoa gizonakin hain estu loturik dago, Liburu Santuak esaten dauanez: «Maite ez dauanak, ez dau Jaungoikoa ezagutu». (1 Jn 4, 8)

Horregaitik Elizak ezin dau onartu, herri, hizkuntza, enda edo erlijinoagaitik egiten diran zatiketak...

Eta bere seme-alaba guztiei gogo biziz eskatzen deutse, gizaki guztiekin bakean bizi daitezcala, egiaz eta benetan zeruetan dagoen Aitaren seme-alabak izan gaitezcan.

Jaunaren bateoa.

(Bizkaieraz)

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesus Jordan ibaian, Joanen eskutik, bateoa hartzen ikusiko dogu...

Hogeita hamar urte ditu Jesusek, eta Barri Ona zabaltzeko lanari hasiera emon aurretik, bateoan Espirituaren indarrez jantzia izatea gura dau... Gu ere txikitan bateatuak izan gara, eta egoki da orain, handi egin gareanean, bateoko agintzariak (promesak) barritzea, Jaungoikoaren indarrez sendotuak izan gaitezan.

1. Irakurgaia: Is 42, 1-4. 6-7

Gizonen salbatzailea errukiz betea izango da. Berak argituko ditu munduko ilunpeak, pekatuen lokarriak askatuko, eta lurrera zuzentasuna ekarriko.

2. Irakurgaia: Ap Eg 10, 34-38

Jaungoikoak bateoaren bidez, gizaki guztiak salbatu gura ditu, Jesukristok ekarri euskun bakeari esker.

Ebanjelioa: Mt 3, 13-18

«Jesus bateoa harturik...Zerua zabaldu zan...Eta mintzo batek honan esan eban: hau da nire semea, nire maitea; honengan dot atsegina». (Mt 3, 16-18)

Homilia

(Frantziako gotzainek bateoari buruz egindako eskutitza)

Senide maiteok:

«Bateoa eskatzea garrantzi handiko gauza da, eta eginkizun astunak ditu berekin... Bateoak Adanengandik datorkigun jatorrizko pekatua garbitu, eta bizitza barri bat emoten deusku, Jaungoikoagandik datorren zeruko bizitza barria, eta betikoa.

Bateoaren bidez Jaungoikoaren seme-alaba egiten gara, Jaunaren herriko bizilagun, eta horregaitik zeruko erreinuaren jabegai.

Bateoa ez da ume jaio barriekin egiten dan rito edo ohitura hutsa, edo familiako jaia bakarrik.

Bateoak, aurretik, fedea Kristogan sinistea eskatzen dau, eta haurra bateoa hartzerakoan, umearen aita-amak hitz emon behar dabe euren haurra kristau giroan hezia (edukatua) izango dala»:

«Eta gura geunke» dinoe Frantziako gotzainak, «umeak bateatzean, ez haurtxoaren guraso eta sendikoak bakarrik, baita kristau herri osoak ere parte hartzea, Elizarentzat seme-alaba bat gehiago jaio dalako».

Bateoko elizkizuna. (Egoki da noizean behin eliztar guztiei erakustea)

Ongi etorria.

Abadeak elizako atarian, Eliza Amaren izenean, «ongi-etorria» egiten deutse haurraren guraso eta aita-amabixiei...

Gero itanduten deutse, ea umea Jaungoikoaren eta lagunurkoaren maitasunean hezitzeko (edukatzeko) prest dagozan; eta baietza hartu ondoren, abadeak aurrengo, eta guraso eta aita-amabixiak gero, haurtxoa bekokian gurutzearen ezaugarriaz sinatzen dabe.

Hitzaren liturjia.

Eliza barruan, irakurgaiak egin ondoren, haurraren ordezkoei zer dan bateoa eta zeintzuk diran sakramentu honen eskakizunak, azalduko jakez.

Kristau herriaren otoitza eta litaniak.

Gero herri osoak bateatuko dan haurtxoaren alde otoitz egingo dau, zeruko santuak, euskaldunak batez ere, bitarteko jarririk... Eta gero abadeak umea bularrean katekumenoen olioaz, igurtziko dau.

Sakramentua.

Bateoa hartu aurretik, pekatuari uko egitea eta sinismenaren autortza datoz. «Jainko-Semeen askatasunean biziteko, uko egiten deutzazue pekatuari eta pekatu-bide guztiei?»... Eta gero bateatzaileak itanduten dau: «Sinisten dozue Jainko Aita ahalguztiduna... Eta Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna... Eta Espiritu Santua?»...

Bateoa.

Abadeak haurraren guraso eta aita-amabixiei itanduten deutse: «Gura dozue eban haurra bateatzea, alkarrekin autortu dogun Elizaren fedean?».

Eta baietza entzun ondoren, bateatzaileak ura botatzen deutso haurrari buru gainera, esanez: «Nik bateatzen zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean...»

Eta gero krisma-olioaz igurtzitzen dau haurra buruan.

Jantzi zuria eta argia.

Azkenez sinbolo lez soineko zuria jazten deutsie haurtxoari, esanez: «Haurra, izaki barri egin zara... Jantzi zuri hau zaindu egizu garbi betiereko bizitzaraino»... Eta kandela biztuak emonez, bateatzaileak guraso eta aita-amabixiei esaten deutse: «Hartu egizue Kristoren argia... Zuei dagokizue argi hau zaintzea... zeruko etxeraino».

Eta «Gure Aita» errezatuz abadeak haurtxoaren gurasoak, aita eta amabixiak, eta eliztar guztiak bedeinkatzen ditu... Eta barruko alaitasuna agertzeko abesti pozgarri bat kantatuz bateo elizkizuna amaitzen da.

Garizumako 1. domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Garizuma santuan sartu gara...

Garizumea, Jesus biztu zan pazko jai alaietarako prestaketak egiteko garaia da...

Vatikanoko Kontzilioak esaten deuskunez, garizuma santu honetan gure bihotzak garbitu egin behar ditugu, penitentzia eta otoitzaren bidez, Kristo hilen artetik biztua pazkoetan onartzeko...

Baita garai honetan Jaungoikoarengandik aldendu diran pekatarien alde otoitz egin behar dogu.

1. Irakurgaia. Gen 2, 7-9; 3, 1-7a

Gure lehenengo guraso Adanek paradisuan Jaungoikoaren esana ez eginez, pekatu egin eta Jaunaren adiskidetasuna galdu eban.

2. Irakurgaia. Er 5, 12.17-19

Adanek pekatu eginez galdu ebana, Kristok irabazi deusku, eta gainezka irabazi ere: betiko bizitza.

Ebanjelioa. Mt 4, 1-11

«Gizona ez da ogiz bakarrik bizi... Jauna, zure Jaungoikoa, dozu gurtuko, eta bera bakarrik zerbitzatuko». (Mt 4, 4.10.)

Homilia.

Garizumari buruz Vatikanoko Kontzilioak zer dinoan.

Garizumea, pazko domekan Kristo biztuaren jairako gure arimak prestatzeko garaia da.

Horretarako kristauak otoitz gehiago egin beie, eta Jaunaren hitza gogotsuago entzun.

Garizuman, damutasunezko penitentziaren bidez, gure bihotzak garbitu egin behar ditugu, eta pekatarien alde otoitz egin, Jaunaren errukia hareek ere lortu daien.

Garizuman, penitentzia egiteko erarik egokiena hau litzateke: jan-edanean, erre, jantzi eta dibertsioetan gehiegizko gastuak kentzea, eta beste era askotako kapritxokeriak gure buruari ukatzea. (Espainiako gotzainak)

(Joan Paulo II. Aita Santuak 1979 urteko «Garizumarako deia». Ecclesia 1979-II-3)

Zuoi, kristauoi, itaun bat egin gura deusuet: Garizumea zer da?. Zer esan gura dau Garizumeak?... Eta baliteke zuek honango erantzun hau emotea: Garizumea, bijili (haragi-uzte), eta barau egiteko aroa da.

Ondo erantzuna... Baina ez da erantzun osoa. Garizumea hori baino gehiago ere bada... Barau bi aldiz egitea -hausterre eta bariku santuz- eta bijilia (haragi-ixtea) garizumako barikuetan, gauza ona da, baina oso gitxi da batez ere, hainbeste neba-arreba, bai gorputzean eta bai animean, sufritzen ikusten ditugun bitartean, bai gerra eta gosegaitik, baita beste edozer eratako kalteagaitik...

Barau egitea gauza ona da, bakoitza bere buruaren jabe izaten ikasteko, baina penitentziarik onena beste hau da: sobra dogunetik zerbait beharrean aurkitzen danari emotea, ebanjelioko alargun pobreak egin eban lez...

Gitxi bada ere emon daigun zerbait, gosez, geixorik eta beharrean aurkitzen diranentzat, daukagun guztia Jaungoikoaren esku zabaletik artua dogula jakinik.

Geure buruari gehiegikeriak eta kapritxokeriak ukatu eta daukagunetik emoten ikasi behar dogu... Gure gaurko zibilizazio honek bere propaganda eta anuntzioekin mila gauza biziteko behar ez diranak beharrezko lez gure begietatik sartzen deuskuz, eta ez gara konturatzen, badireala munduan asko eta asko biziteko behar-beharrezkoen faltan aurkitzen direanak.

Ez deigula Jaungoikoak guri esan: «Gose nintzan eta ez zeunsten jaten emon...» Lagunurkoagan Kristo bera dago gosez eta egarriz, geixo eta espetxean loturik... Kristo berari ukatuko ez geinkiona, ez deiogula lagunurkoari ukatu.

Baina garizumeak kristau herriarentzat beste hau ere esan gura dau: guk, bakarka eta taldeka, pekatariak gareala ezagutzen dogula, eta penitentziaren bitartez bihotz barritu gura dogula. Honan Kristoren nekaldi eta heriotzarako prestatuko gara...

Eta gero pazko jai alaietan Kristo biztuarekin batera geuk ere, Alleluia! bihotz betean abestuko dogu...

(Joan Paulo, zuen fedeko Aitak.)

Garizumako 2. domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Garizumako bigarren domeka honetan, Jesus mendian antzaldatua, eguzkia bezain eder, ikusiko dogu... Jesusek, gurutzean hil aurretik, bere ikasleei, zeruko atsegin-tokia zein ederra dan erakutsi gura eutsen. Baina zorion hori lortzeko lur honetan nekeak eta atsekabeak eroan behar ditugula. Gurutzetik zerura.

1. IRAKURGAIA. Gen 12.1-4a

Gure guraso Abraham dogu sinisten daben guztien Aita. Jaunak esan eutsan: obeditu deustazulako zuregan bedeinkatuak izango dira lurreko herri guztiak.

2. IRAKURGAIA. 2 Tim 1, 8-10.

Jesusen jarraitzaile gareanok zerua lortzeko bizi-tza honetako nekeak pazientziaz eroan behar ditugu gure maisuak lez.

Ebanjelioa. Mt 17, 1-9

«Jesus mendi goi batetara igo zan... Antzaldatu egin zan; aurpegia eguzkia bezain dizdizari eukan, eta soinekoak argia bezain zuri». (Mt 17, 12)

Homilia

(Joan Krisostomo santuaren homiliatik ideak eta hitzak hartuta)
(B.A.C. Verbum Vitae t.III 218-222 orrialdeak)

Jesusen mendiko antzaldatze honek, berez-berez, eskutik lez, zeruari buruz zuei zerbait esatera nakar.

Baina zer dan zerua, zein ederra dan zelan adierazo?.

Han dana da atsedena, atsegina eta poza. Han ez da enbiri, gorroto eta txarrik. Han dana da bake eta baretasuna, dana da edertasun eta argia... Baina hango argia ez da lur honetako argiaren antzekoa. Hemengoa, hangoaren aldean, kandela argia da, eguzkiaren ondoan.

Han ez da arratsalde eta gaurik, ezta hotz eta berorik. Han ez da mundu honetan lez urteen eta egunen joan-etorririk... Han betikotasuna da nagusi. Han ez da zahartzaro eta nekerik.

Zerua betiko bizitzaren etxea atseginez betea da... Hau betiko zoriona eskuratu dabenak bakarrik ulertu daikie.

Mundu honetan ilargi-argi motelean lez bizi gara; zeruan eguzki beteak argi egingo deusku.

Baina zeruko zorionik handiena beste hau da: Jaungoikoa aurrez-aurre, Bera dan lez, bere edertasun guztian, ikustea!.

Mundu honetatik betikora igarotzen gareanean, gure poza zein bikaina izango dan, nork eta zelan adierazo?. Lur honetako konparaketakin ahalegin-duko naz zerbait argitzen.

Erregearen seme gaztea, errege egiteko koroiatzen danean, jaialdi handiak egiten dira... Han ikusiko dituzue ministroak, gobernariak eta erreinuko beste handikiak Errege barria txalokatzen eta goraltzen... Jaialdi bikainagoa egingo da, gure arteko bakoitza zeruko atetik sartu, eta Jaungoikoak, aingeru eta santu guztien aurrean, errege koroiatuko gaituenean. «Zimeltzen ez dan koroia emongo deusku Jaungoikoak» (1 Pet 5,4). «Eta eguzkiak lez argi egingo dogu Jaungoikoaren erreinuan». (Mt 13, 43).

Eta orain, esan dodana egia dala adierazoteko goazen Jesus antzaldatu zan mendira. Ikusi daigun han gure Jauna edertasunez inguraturik, «aurpegia eguzkia bezain dizdizari, eta soinekoak argia bezain zuri». (Mt 17, 2). Ikusketa harrigarri hau ezin eroanik, «ahuspez lurrera jausi ziran ikasleak». (Mt 7, 6)...

Eta ikusi ebena ez zan zerua, zeruko edertasun zati txiki bat baino. Ha izan zan zeruko zoriona zulo txiki batetik ikustea lez... Eta orain, kristauok, gure arimako begiak edegi, eta zeruko edertasuna ikusi daigun... Hango bikaintasun bardinbakoa, harri-bitxiak baino ederragoa, eguzkia baino argiagoa, eta mundu honetako apaintasun guztiak baino pozgarriagoa.

Entzun egizu San Pedro esaten: «Jauna, bai ederto gagozala hemen». (Mt 17, 14). Pedrok, zeruko zorionaren zati bat bakarrik ikusiz, burua galdu eban. Zelakoa izango ete dan gure poza, zeruko Erregea bere jauregi argitsuan, mila eta milioika aingeru eta santuekin inguraturik, ikusiko dogunean!.

Mundu honetako edertasunak, txikiak eta igeskorak izanik, hain maite baditugu, zelan ez maitatuko zeruko edertasun beteak, zimeltzen ez diranak, eta gure bihotzak oso-osorik eta betiko aseko dabezanak?.

«Bada, ez dau ez begiak ikusi, ez belarriak entzun, ezta bihotzak sumatu, Jaungoikoak prestaturik daukana Bera maite dabenentzat». (1 Kor 2,9)

Garizumako 3. domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Garizumea bihotz-barritzeko garaia da...
Gaurko ebanjelioan, zelan Jesusek ardi galdu bat -samariar emakumea-
astiro-astiro eta gozo-gozo onbidera ekarri eban ikusiko dogu.
Gure bihotzeko zorion egarria Jaungoikoak bakarrik ase leike...

1. Irakurgaia. Ex 17, 3-7

Israeldarrak basamortuan edateko ur barik aurkitu ziran, baina Jaunak Moisesen bitartez hatxetik ura atera eutsen.

2. Irakurgaia. Er 5, 1-2.5-8.

Kristo gugaitik pekatari gineala gurutzean hil zan. Hari sinisten deusten salbatuko da.

Ebanjelioa. Jn 4, 5-42

Jesusek samariar emakumeari: «Mesias, Kristo deritzana, etortekoa da... Neu nauzu, zurekin berbaz nagoan hauxe». (Jn 4, 25-26)

Homilia

(Gehiena J.M. Bover-en «Vida de N.S.Jesukristo» liburutik hartua).

Jesusek, zein samur eta zein gozoro, pekatariak bide onera ekarten zituan ikusteko, gaurko ebanjelioa dogu eredu.

San Joan ebanjelariak, berak ikusitako samariar emakumearen bihotz barritzea, zehaztasun handiekaz kontatzen deusku... Horregaitik guk, ebanjelioari jarraituz, beste barik, argibide batzuk bakarrik ekarriko ditugu, emakumearen onbideratzea zelakoa izan zan garbiago ikusteko.

Danen aurretik jakin beharra da judutarrak eta samariarrak aspalditik alkarren arerio zireala.

Jesus bide luzeaz nekaturik, izerditan, iturri ondoan jesarri zan. Eguerdi beroa zan. Ikasleak jatekoak erostera herrira joanak ziran...

Jesus, artzain ona, ardi galduaren bila iturrian bakarrik gelditu zan. Oraingoan ardi galdu hori herri haretako emakume galdu bat zan. Iturrira etorren ontzia buruan uretan.

Emakumea, iturrian jesarrita egoan gizonari -judutarra zalako-, begirazun bat ere egin barik, ontzia urez bete eta bere etxerantz abiatu zan... Orduan Jesusek mesedez eskatzen deutso: «Emakume, emoidazu edateko» Baina emakumeak, erantzun latz hau emoten deutso:

«Zelan zuk, judegu izanik, eskatzen deustazu edatekoa emakume samariar nazan honi?»

Eta ur emotearen mesede txiki hori ere ukatu egiten deutso.

Baina Jesus ez zan horregaitik hasarratu, eta emakumeari iturri haretako baino beste ur ederrago bat eskeintzen deutso: betiko egarria kentzen dauan ur bizia. Emakumea zalantzan -dudan- jartzen da: egia ete da, gero, judutar honek esaten dauana?. Zelakoa ete da betiko egarria kentzen dauan ur hori?. «Jauna, emoidazu ur bizi horretatik».

Eskabide honegaz emakumearen bihotz gogorra bigundu da, eta lurra landuta dago Jaungoikoaren hazia lur onean hartzeko. Horregaitik Jesusek, bihotz barritzeko azken bultzakada emon nahirik, emakumeari honen bizitza pekataria gogora ekarri gura dutso, esanez:

«Zoaz eta deitu zure senarrari» Eta emakumeak: «Nik ez dot senarrik»

Eta Jesusek:

«Bost senar izan dituzu, eta orain daukazuna ere ez da zurea»

Esan gura eutsan: sei gizonekin bizi izan zara, baina halan da ere ez dozu zure barruko zorion egarria ase. Zure egarri hori asetzeko goragoko iturrira jo behar dozu.

Eta emakumeak:

«Badakit Mesias Salbatzailea etortekoa dala; ha datorkigunean dana irakatsiko deusku».

Eta Jesusek:

«Neu nauzu, zurekin berbaz nagoaz hauxe». Esan gura eutsan: «zu, emakume, munduko atseginen atzetik zorion bila zabilta, baina ur horreek une baterako egarria kentzen badabe ere betiko egarria kenduko deusun ura Neu naz»

«Nigan sinisten dauanaren sabeletik, betiko bizitzaraino darion iturria sortuko da». (Jn 7, 38). Esan gura eutsan: Bizitza hau bere atseginekin igeskorra da; baina nik emongo dodan bizitza betikoa da, arimaren zorion egarri guztiak asetzen dituana.

Orduan emakumea, urontzia bertan itxita, hurira joan zan, bere herritarrei iturrian Mesias aurkitu ebala, esatera...

Samariar emakume hau herritik iturrira pekatari joan zan, eta Jesusekin aurkitu ondoren, iturritik herrira bihotz barrituta itzuli zan.

Jesusek, samur-samur eta pazientzia handiz ardi galdua artzain onaren artetira ekarri eban.

Garizumako 4. domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesus itsuaren begiak argitzen agertuko jaku... Kristo da munduaren argia... Argi honetan sinisten badogu salbamen bidetik gabiltza... Baina Kristoren argi honi begiak ixten badeutsaguz, betirako galtzeko arriskuan jarten gara...

1. Irakurgaia. 1 Sm 16.1b, 6-7, 10-13a

Dabid artzaina, bere anaien artean txikiena izan arren Jaunak israeldarren errege izateko aukeratu eban... Gizonak kanpoko azala bakarrik ikusten dau, baina Jaungoikoak bihotzari begiratzen deutso.

2. Irakurgaia. Ef 5, 8-14

Jesus baztertzea ilunpetan bizitea da... Kristorengan sinisten dauana, ostera, argitan bizi da. Kristo da fedearen bidez gure arimen argia.

Ebanjelioa. Jn 9, 1-41.

«Epai batetarako etorri naz ni mundu honetara, ikusten ez dabenak ikusi daien, eta ikusten dabenak itsu gelditu daitezana». (Jn 9, 39)

Homilia

(Ebanjelioa luzea dalako, Homilia laburrago egin daiteke)

Joan dan domekan, iturriko samariar emakumearen gertakarian, Jesusek zera irakatsi gura euskun, Bera zala UR BIZIA, betiko zorion egarria kentzen dauan UR BIZIA.

Gaurko ebanjelioan Jesusek beste hau irakatsi gura deusku: Bera dala munduaren ARGIA; fedearen bidez beste munduko ilunpeak argitzen dituan ARGI BIZIA. Eta egia hau adierazoteko parabola bizi baten antzera jaiotzatik itsuaren begiak argitzen ditu...

Mirari honen aurrean, bi jarrera ezbardinak agertzen dira gaurko ebanjelioan.

1. jarrera. Itsuarena. Fedez betea.

Jesusek itsu izandakoari itaunduten deutso:

-«Sinesten dozu zuk Gizonaren Semea?»

Eta itsuak:

-«Nor da, Jauna, sinistu daidan?»

Eta Jesusek:

-«Ikusten dozuna. Zurekin berbaz dagoena, Bera da.

Itsuak orduan:

-«Sinisten dot, Jauna!» Eta aurrean ahuspeztu jakon.

Jesusek itsuari gorputzeko argiaz batera, arimako argia, fedea, emon eutsan.

2. jarrera. Farisearra.

Honek ere itsu-argituaren miraria ikusi eben. Honei ere Jaungoikoaren argiak argi egin eutsen, baina begiak itxita, ez eben eguzkiaren argirik ikusi gura izan... Itsu jaiotea ez da pekatu, baina argiari begiak ixtea, bai, pekatu da... Zer aitzakia jarri eben farisearrek ez sinisteko?:

Jesusek osaketa hau larunbatean -jai egunean- egin ebala, eta jai egunean lan egitea pekatu zala, eta pekatari zanak ezin ebala honango miraririk egin.

Beste aldetik, jaiotzez itsua ere pekatari zan, bere pekatuakatik itsu jaioa, eta «pekatari itsua», inoen farisearrak, «guri irakasten?»

Honegaitik Jesusek, farisearren bihotzeko itsumena ikusirik, esan eban:

«Ni mundu honetara etorri naz, ikusten ez dabenak ikusi daien, eta ustez ikusten dabenak itsu gelditu daitezana.»

 Kristo da munduaren ARGIA. ARGIA bizitza da, ederra da, alaitasuna da. Kristo ere guretzat betiko bizitza da, bihotzaren poza, zeruko zorion betea emongo deuskuna.

Iluna baltza da, goibela (tristeia), bizibakoa. Iluna itsua da.

«Ni naz munduaren Argia» dino Jesusek. «Nire ondoren datorrena ez dabil ilunpean; izango dau biziaren Argia» .. (Jn 8, 12)

Jesus munduaren Argia dala, orain fedez sinisten dogu, baina ez dogu geure begiz ikusten... Etorriko da egun zoriontsua Jaungoikoaren Argia bere edertasun betean ikusiko doguna... «Zeruetako erreinuan ez da gehiago gaurik izango, ezta eguzki argiaren beharrik ere; Jaungoiko Jaunak argituko ditu, eta errege izango dira gizaldi eta gizaldietan». (Apk 22, 5)

Garizumako 5. domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusek, garizuma honetako domeketan, irakatsi deusku, bera dala UR BIZIA, bera dala MUNDUAREN ARGIA... Gaur irakatsi gura deusku, bera dala BETIKO BIZIA, eta hau irakasteko Lazaro lau egunez hila, biztu egingo dau... «Nigan sinisten dauana, hilik ere, biziko da», dino Jaunak.

1. Irakurgaia. Ezk 37, 12-14

Ezekiel profetak esaten deusku, Jaungoiko ahalguztidunak, hildakoak barrero ere bizi barrira ekarriko dituala.

2. Irakurgaia. Erm 8, 8-11

Kristoren espiritua gudan bizi bada, Kristo biztu eban Jaungoiko Aitak, gu ere biztuko gaitu.

Ebanjelioa. Jn 11, 3-7.17.20-27.33-45

«Ni naz biztuera eta bizia; niregan sinisten dauana, hilik ere, biziko da; eta niregan sinistuz bizi dana, ez da inoiz hilgo». (Jn 11-25)

Gaurko ebanjelioa hain da ederra, eta San Joan ebanjelariak hain gozo eta zehaztasun samurrez kontatzen deusku, ez da erreza argitasun gehiago emoterik.

Baina zerbait esan daigun:

Jesusek, Betaniako hiru neba-arrebak bihotzez maite zituan...

Betania Jerusalendik 3 kilometro besterik ez egonik, Jesus hara sarri joaten zan. Etxe haretan aurkitzen zituan Jerusalemene falta jakozan maitasuna eta atsedena. Beste aldetik Marta, Maria eta Lazarok Jesus euren etxean pozik hartzen eben. Baina mundu honetan zorionaren erdian beti agertzen da nekeren bat, eta Lazaro geixotu egin zan, eta gainera Jesus aldi haretan Betaniatik urrun aurkitzen zan.

Bialtzen deuskie, bada, ahizta biak mezu hau Jesusi:

«Jauna, zuk maite dozuna geixo dago».

Pentsatzen eben: geixo dagoala jakitea nahiko dau osatzera etorteko, maite dau eta...

Baina ez; Jesus ez zan etorri, eta Lazaro hil egin zan...

Martak ezin dau misterio hau argitu: maite dau, eta halan da ere hilten itxi deutso...

Horregaitik Lazaro hil, eta laugarren egunean Jesus Betaniara ondoratu zanean, Marta bidera irteten jako negarrez: «Jauna, Zu hemen egon bazina, gure nebea ez zan hilgo». Kexati esan gura eutsan: zelan egin dozu hori?. Berandu etorri zara.

Halan da ere, badau Martak oraindik fede apur bat, eta horregaitik gero esaten deutso: «Nik badakit Zuk Jaungoikoari eskatzen deutzazun guztia, Harek emongo deutzula». Berba honeekaz Martak Jesusi bere nebearen alde, ez daki zer, baina zerbait egiteko eskatzen deutso; baina bere nebea biztu eiala eskatzea, gehiegi zala uste eban.

Horregaitik, Jesusek esan eutsanean biztuko, da zure nebea, Martak erantzun eutsan: «badakit azken egunean biztuko dala, baina nik orain biztutea gura dot»

Eta Jesusek: «Ni naz biztuera eta bizia; Nigan sinisten dauana, hil bada ere, biziko da; eta Niregan sinistuz bizi dana, ez da inoiz hilgo. Sinisten dozu hori?».

Eta Martak: «Bai, Jauna, sinisten dot...» Martaren fedea indartu da, sendotu da... Baina halan da ere gizakien fedea inoiz ere ez da bete-betea, eta horregaitik, Jesusek Lazaroren hilobi aurrean, agindu ebanean: «Kendu, harlosa hori!»; Martaren sinismena barriz ere zalantzan-dudan jarten da, eta dinotso: «Jauna, baina, usaina dario; lau egun baditu eta».

Eta Jesusek Martaren sinismena sendotzeko: «Ez ete deutzut esan, bada, sinisten badozu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?»

Eta gero Jesusek, ingurukoei bera zala hildakoen biztuera irakasteko, oihu handiz esan eban: «Lazaro, urten kanpora!»... Mirari hau ikusita, judutar askok sinistu eben Jesusengan... Baina abade-nagusi eta farisearrak batzarra egin, eta Jesusi bizia kentzea erabagi eben, baita Lazarori ere, ha zala eta, judutar askok Jesusengan sinisten ebelako. (Jn 12, 10-11).

Hau erantzun desberdina: Mirari bera ikusi, eta batzuk Jesusengan sinisten dabe, beste batzuk, ostera, Jesus eta Lazaro, biak, hiltea erabagiten dabe ...

Eguzki berak, izotza urtu egiten dau, eta lokatza gogortu.

Jaunaren afariko eguen santua

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusen azken afaria ospatzeko batu gara hemen kristauok, Eguen Santu honetan... Jesusek, hil aurretik, guri deuskun maitasuna erakusteko, bere gorputza emoten deusku janari, eta bere odola edari... Ez da maitasun handiagorik nork bere bizia besteen alde emotea baino

Guk orain, Eukaristia honetan, Jesusek Azken Afarian egindakoa, barrituko dogu... Gertakari handi hau maitasunez eta itzal handiz ospatu daigun.

1. Irakurgaia. Ex 12, 1-8.11-14

Israeldarrak pazko afaria zelan ospatzen eben erakutsiko deusku Itun Zaharreko irakurgai honek.

2. Irakurgaia. 1 Kor 11, 23-26

Irakurgai honek, Jesusek Azken Afarian bere gorputza jateko, eta bere odola edateko, emon euskula erakusten dau. Gero apostoluei agindu eutsen, hori bera oroigarritzat eurak ere egiteko.

Ebanjelioa. Jn 13, 1-15

«Jesusek... Munduan egozan beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituan». (Jn 13, 1)

(Gaurko liturgiak homilia laburra izatea eskatzen dau).

- Eukaristiaren erakundearen teologi-historia

Eguen santu arratsaldean, Jesus Betaniatik Jerusalemenera joan zan, pazko Afaria ospatuko eben etxera... Eta mahaian jarrita egozala, Jesus bere ikasleei hasi zan esaten: «Gogo handiz gura izan dot pazko Afari hau zuokin jatea, hil aurretik...» Eta mahaitik jagi, eta hasi zan bere ikasleei oinak garbitzen...

Gaua etorri zan...

Pazko bildotsaren afaria jan ondoren, Jesusek mahaian egoan ogi zati bat bere eskuetan hartu, eta Aita Jaungoikoari eskerrak emon eutsazan: «Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jaungoikoa, munduko erregea, lurretik ogi hau sortu dozulako. Bedeinkatua Zu, orain eta beti.»

Eta hasi zan gero ikasleen artean banatzen: «Hartu eta jan guztiok honetatik, hau neure gorputza da eta, zuentzat emongo dana».

Gero, arda-ontzia hartu, eta barriz ere Aita Jaungoikoari eskerrak eginez, bere ikasleei emon eutsen edateko: «Hartu, eta edan guztiok honetatik. Hau neure odola da eta, Itun barriko odola, zuentzat eta guztientzat pekatuak parkatzeko isuriko dana»...

Eta gero esan eutsen: «Egizue hau neure oroigarri».

Gero Jesus bere ikasleei azken aholkuak (kontsejuak) emoten hasi zan: «Ene semetxuok, ez naz zuekin luzaro egongo, baina joan aurretik agindu barri bat emon gura deusuet: maite daizuela alkar nik maite zaituedan lez... Honetan ezagutuko dabe nire ikasleak zariela, alkar maite badozue»...

«Ez dadila zuen bihotza ikaratu... Ni banoa... Zuontzat zeruan toki eder bat prestatzera noa... Baina barriz etorriko naz, eta nirekin hartuko zaituet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaitezen»...

San Joan ebanjelariak Eguen Santuko Eukaristiaren sortze hau, hitz honeekin hasten dau: «Pazko-jai aurrean, ikusi eban Jesusek etorri jakola mundu honetatik bere Aitarengana joateko ordua, eta munduan egozan beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituan». (Jn 13, 1)

Benetan afari santua:
Kristoren gorputza da jaten,
eta odola edaten.
Arima graziaz beteten,
eta zeruko ateak zabaltzen.

1. Domekea. Jesus biztu da.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Kristo biztu da!... Gurutzean josita hil zana bizirik dago...
Barri on honek bete gaizala pozez... Kristo hilen artetik biztu eban
Jaungoiko Aitak, gu ere biztuko gaitu.

Urte guztiko jairik nagusiena ospatzen dau gaur Elizak.
Alleluia! Kristo biztua goratu daigun. Alleluia!

1. Irakurgaia. Ap Eg 10,34a.37-43

Pedro apostoluak bere herritarrei esaten deutse:
«Zuek gurutzean hil zenduen, Jaungoikoak biztu egin dau, eta
geu gara mirari honen lekuko edo testigu.»

2. Irakurgaia. Kol 3,1-4

Kristo hilen artetik biztua, orain zeruetan dago...
Guk ere, lur honetan bizi garean bitartean, gure bihotzak
zeruetan euki behar ditugu.

Ebanjelioa. Mt 28, 1-10

*(Aingeruak emakumei): «Zuek ez izan bildurrik. Badakit
Jesus gurutzean josiaren bila zatozela; ez dago hemen; biztu
da, berak esan eban lez». (Mt 28,6)*

Homilia

(San Agustinen hitzaldietatik ideak hartuta. B.A.C. Verbum Vitae IV)

Poztu zaitez, zerua! Alaitasunez bete!
Kristo hilobitik biztu zan eguna da gaurkoa... Egun hau,
Kristorengan sinisten dogunontzat, eguzkia baino argiagoa da.

Egun guztiak dira Jaunarenak, baina batez ere gaurko eguna...
Begira daigun nondik etorri jakun heriotzea, eta nork ekarri
deuskun bizia...

Badakizue: heriotzea pekatuak ekarri ebala, eta bizitza Kristo
biztuak. Berak ordaindu eban gurutzean hilik guk gure pekatuakai-
tik merezi genduan zigorra...

Eta Kristo biztu dan ezker, geuk ere zeruko gauzak maite eta
gozatu behar ditugu.

Lehen pekatuaren menpean bizi ginan; orain Jaungoikoaren seme-alabak izatera heldu gara... Ez gaitazan burubakoak izan. Ez gaitazan zorionaren bila ibili aurkitu ezin dan tokian.

Mundu honetan ez da zorion beterik. Hemengo zorion zati txikiak, mila nekeren artean nahastuta aurkituko dituzu...

Begira Jesusi. Nekeak eta atsekabeak gurutzean hiltzeraino eroan zituan, baina hirugarren egunean hilen artetik biztu egin zan, eta orain bere Aita Jaungoikoaren zorion betean bizi da.

Zu ere Kristo lez bizi zaitetz, eta Kristo lez zeruko mahaian jarriko zara, Jaungoikoaren zorion-bazkarian jan eta edateko...

Jesusek dei egiten deusku: «Zatoze aingeruen aberrira, Jaungoikoaren altzoan betiko pozetan biziteko.»

Zorion hau emongo deusuedala, ez dozue sinisten?

Bizi garean bitartean, Kristoren antzera, zintzoak izan gaitazan, on egiten ez gaitazan aspertu, eta Kristoren erreinua guk ere eskuratuko dogu...

Kristo biztu zan lez, gu ez gara oraindik biztu, baina fedea irakasten deusku, Jesusengan sinisten dogun guztiok, Kristo bera buru dala, gorputz bat lez osotzen dogula, eta gorputz honen burua Jaungoikoak biztu dauan ezkerre, gu ere biztuko gaituela, betiko zorionean danok bat eginik biziteko.

Jesusek esaten deusku: «Nigan jazo dana, zuengan ere jazoko da»... Baina zuen artean norbaitek esan daike, noiz arte itxaron behar dogu?... Gure azken egunera arte.

Jesusek Lazaro biztu eban, baina barriz hiltzeko. Gu biztuko gaitu gehiago ez hiltzeko...

Gure lur honetako bizitzaren arratsaldea etorten danean, orduan gure itxaropena amaituko da, zeruan betiko poza guretzat hasiko dalako. Kristok betiko zorionera jasoko gaitu, gure pazientzia ordaintzeko.

Judutarrek Kristori gurutzean esaten eutsien: «Israelgo errege bazara, jatsi zaitetz gurutzetik, eta zukan sinistuko dogu».. Baina Jesus ez zan jatsi... Judutarrek jokoa irabazi ebela uste eben, baina Kristo hil ondoren biztu egin zan, eta orain, arerioak garaiturik, Jaungoikoaren eskuin aldean dago, nekeen orde, betiko zoriona gozaten...

Senideok: Kristo biztuaren aintza maite daigun!

Gora bihotzak! Laster gu ere aingeruen lagun izango gara.

Kristo biztuaren jai eder hau, orain itxaropenez ospatzen dogun hau, egun batean, guk ere bizturik, Jaungoiko Aitaren ondoan, Jesukristo biztuarekin batean, eta Espiritu Santuaren maitasunean, egiaz eta benetan, zeruko erreinuan ospatu daigula.

2. Domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok: Kristoren ikasle gareanok, antzinako kristauak lez, domekero batzen gara Eukaristia ospatzeko, baita alkar harturik, gure sinismena biztu eta indartzeko ere...

Gaurko ebanjelioan entzungo dogu, zelan Jesusek Tomas apostolu sinesgogorrari dinotson: «Zuk, Tomas, ikusi dozulako sinisten dozu. Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak...»

1. Irakurgaia. Ap Eg 2, 42-47

Lehenengo kristauen bitza bai harrigarria!. Otoitzean, ogi zatitzean, Eukaristian, eta alkar maitasunean, senide lez bizi ziran.

2. Irakurgaia. 1 Pet 1, 3-9

Kristauak bitza honetako nahigabeak pozik eroan behar ditu, zeruko betiko zorionaren itxaropenean.

Ebanjelioa. Jn 20, 19-31

Jesusek Tomasi: «Ikusi nozulako sinistu dozu? Zorionekoak, ikusi barik sinisten dabenak». (Jn 20, 29)

Homilia

Sinismena edo fedea zer dan eta zertarako dan.

Gizaki bakotzak bere buruari egiten deutzazan itaunik sakonenak honangoak dira:

Nork ipini nau ni mundu honetan?. Zertarako bizi naz?.

Urte batzuk bizi eta gero hil egingo naz, eta mundu honen ondoren ba ete dago beste bizitarik?.

Batzuek itaun honeentzat ez dabe aurkitzen erantzunik:

«Gizonaren halan beharrezko destinoa da, dino Jean Rostand-ek, kezkaz eta ilunpetan bizi eta hiltea!»

Baina fedea, edo sinismenak, gure bizitzako bidea argitzen deusku, irakatsiz, badala gizonak maite dituan Jaungoiko bat...

Jaungoiko hori maitasuna dala, eta honegatik bere Semea lurrera bialdu dauala, gu zeruan bere ondoan zorion betean euki gura gaitualako.

Beraz, zer da fedea?. Jaungoiko Aitak guretzat lurrera bialdu dauan bere Seme Jesusi guk sinistea. Jesus da gure sinismen edo fedearen oinarri bakarra!

Egiazko fedeak eskatzen dau, Jesus gure maisu eta eredutzat hartzea. Jesus bizi izan zan antzera gu ere bizitea...

Jesusengan gure uste on edo konfiantza osoa ipintea...
Hitz gitxitan, Jesus maitatzea...

Zela sortzen da fedea?. Ezin da esan...
Zela sortzen da maitasuna bi gazteren artean?...
Fedea buruarena baino, bihotzaren arazoa da...
Maitatzen ez dakienak, ezin dau sinistu.

Fedea, Jaungoikoak gizakiari egiten deutzan maitasun-dei bat da... Gizonak, Jainkoaren dei samur horri erantzun on bat emon daikio, edo baita ez-entzun eta gorrarena egin ere...

Honegatik fedea aske-librea da. Fedea ezin dogu guk geure indarrez irabazi... Fedea Jaungoikoak gizonari hutsean, gratis, egiten deutzan oparia da... Askotan opari hori Jaungoikoak seme-alabei gurasoen bitartez emoten deutse.

Honegatik gu Jaunari mila esker emon beharrean gagoz, guraso fededun jatorrak emon deuskuzalako...

Fedea zertarako?.

Jesusek iraskasten deusku, Jaungoikoa danon aita dala, eta honegatik lur honetan danok senide lez, alkar maitatuz, bizi behar dogula.

Jesusek irakasten deusku, bizitza hau ez dala heriotzaren amiltegian amaitzen... Jaungoikoak guretzat zeruan beste bizitza hobeago bat prestaturik daukala...

✓Fedea bake eta itzaropen emoile da. Fedea poz-iturri da.

Jaungoikoak gu, amak bere haurtxoa baino gehiago maite gaituela, eta gu pekatari izan arren, dana parkatzen deuskula jakiteak, lasaitasun zabala emoten deutso gure bihotzari...

Lurrean alkar maite dogunok, barriro ere zeruan, Jaungoikoarekin batean, alkaturik biziko gareala jakiteak, poz handia ekartzen deutso fededunaren bihotzari...

Jesusek gaurko ebanjelioan Tomas apostolu sinis-gogorrari guretzat esandako hitzak entzun daiguzan: «Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak». (Jn 20, 29)

3. Domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Kristo bizi da, eta gurekin dago, gure bizitzako ilunaldietan argi egiteko, eta gure atsekabeetan poz emoteko...

Gaurko ebanjelioan ezagutuko ditugun bi ikasle honeek ere, Kristo euren maisua gurutzean hil eta galdu ebelako, bihotz ilun joazan Jerusalendik Emausko euren etxera...

Baina Jesus biztua ikusteak pozez eta zorionez bete zituan...

1. Irakurgaia. Ap Eg 2, 14.22-28

Pedrok Jerusalengo herritarrei esaten deutse: «Nazareteko Jesus zuok gurutzean josi eta hil zenduana, Jaungoikoak hilen artetik biztu egin dau.»

2. Irakurgaia. 1 Pe 1, 18-21

Kristoren gurutzeko odol baliotsuaz erosiak izan gara...
Kristo biztua da gure itxaropenaren oinarri.

Ebanjelioa. Lk 24, 13-35

«Guk, barriz, Israel askatuko ebana bera izango zala uste genduan, baina... Jesus hareekin mahaian egoela, ogia hartu...eta emon eutsen... Orduan edegi jakezan begiak, eta ezagutu eben Jesus». (Lk 24, 21. 30-31)

Homilia

Gaurko ebanjelioko bi ikasle honeek, Jesus gurutzean josita hil ebela ikusi ebenean, guztiz lur jota gelditu ziran.

“Beren maisuarengan jarri eben itxaropena, kea lez, dana ezereztu zan.

Ezin eben ulertu, ezelan ere, jazo zana zelan jazo eitekean.

Jesus, euren maisua, behin baino gehiagotan ikusia eben, itsasoko ur harroak baretzen, gosetuei ogi gitxikin jaten emoten, itsuei begietako argia emoten, geisoak osatzen... Baita orain egun gitxi dala, Betaniako Lazaro hilen artetik bizten ere...
Jesus, euren maisuarengan, euken jarrita euren itxaropen osoa...

Honek jagiko eban barriro, orain jausita egoan Dabid Erregearen Erreinu barria...

Eta Jerusalem izango zan lurbira guztiko huriburu, eta mundu zabaleko nagusi...

Eta jende guztiak autortu beharko eben Israelgo Jaungoikoa zala, zeru-lurretan, egiazko Jaungoiko bakarra...

Baina dana amesa izan da. Ames hutsa.

Eta Kleofas eta bere laguna, domeka goizean goiz, Jerusalem itxi, eta buru makur, bihotz ilun, Emausko euren baserrira joazan, hizketa triste honeek agoan ebezala...

Eta honetan, ezezagun bat alkartu jaken bidean...

Eta hiruren artean egun hareetan Jerusalemenean jazotakoaz hizketan ebiltzala, ezezagunaren agotik honango agiraka entzun beharra izan eben bi ikasleak: «Bai, buru motelak zariela profetak esandakoa sinisteko!».

Ez eban bada, Mesiasek heriotzea jasan behar, zeruko bere erreinuan sartzeko?»

Hauxe bera da, hain zuzen, bi ikasle hareek -eta guk ere - ezin buruan sartu doguna: zerura joateko nekeak eroan behar dirala.

Bai, halan da.. Gaiztora jo barik, kontzientziak erakusten dauan bide zuzenetik ibiltea ez dá beti gauza erreza...

Eguneroko gure eginkizunak ondo betetea askotan aldapa gora egiten jaku... Gure grina makurrei aurka egitea beti gatxa da...

Honegatik esan eban Jesusek: «Nirekin etorri gura dauanak, uko egin beio bere buruari, hartu bei bere gurutzea, eta jarrai beit». (Mt 16, 24) Gurutzetik zerura. Gurutzearen balioa, Jesus hil eta biztuari begiraturik bakarrik ulertuko dogu...

Liburu Santuak esaten deusku: «Jesusekin hiltzen bagara, Berarekin biziko gara, eta nekeetan irauten badogu, errege izango gara Harekin». (2 Tm 2, 11-12)

¶Eta Santiago apostoluak dino: «Zorionekoa, tentaldiak ondo eroaten dituan gizona. Horreetan zintzo agertzen danak hartuko dau bizitzaren koroia, Jaungoikoak Bera maite dabenei agindu eutsen lez». (Sant 1, 12)

Eta Apokalipsis liburuan Jaunak Esmirnako Elizari esaten deutso: «Ez izan jasan behar dituzun nekeen bildurrik. Zagoz leial heriotzaraino, eta biziaren koroia emongo deutsut». (Apk 2, 10)

«Atletariak ez dau jokozelaian koroirik irabazten, zintzo jokatzin ez badau, eta nekazariak ere lana gogor egiten dau, gero uzta ugaria jasoteko». (2 Tim 2, 5-6).

4. Domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Pazkoko laugarren igande honetan Artzain onaren parabola entzungo dogu...

Domeka hau, Eliza katoliku osoan, abade eta erlijioso bokazinoen alde otoitz egiteko aukeratua izan da...

Jesus, Artzain onari, Eukaristia honetan alkaturik, bokazino barriak sortu, ugaritu eta santu egin daitezana, bihotzez eskatuko deusagu...

1. Irakurgaia. Ap Eg 2, 14. 36-41

San Pedrok Jerusalemgo herriari egindako hitzaldian, hiru mila lagun bateatuak izan ziran.

2. Irakurgaia. 1 Pe 2, 20-25

Kristok gurutzean hilik gure pekatuen zorrak ordaindu zituan... Guk ere Kristogaitik eguneroko nekeak eroan behar ditugu...

Ebanjelioa. Jn 10, 1-10

«Ni naz artzain ona... Ni, ardiak bizia izan daien, eta ugari izan daien, etorria naz.»: (Jn 10, 10)

Homilia

Joan Paulo Aita Santuak (1985. urtean) «Bokazioen alde» mundu guztiko katolikuei bialdutako Mezua. (Ecclesia 1985, 502-503 orri.)

«Mundu guztiko seme-alaba maiteok: Urtero lez, pazko laugarren domeka honetan, nik, Eliza osoaren Artzain nazan honek, kristau katoliku guztiei eskatzen deusuet, Jainkoari atertu barik otoitz egin deiozuela, Kristoren elizan bokazinoak sortu, ugaritu eta santu egin daitezana...

Bokazinoak behar ditugu abade izateko, bokazinoak misio lurraldeetan Jesusen barri ona zabaltzeko, bokazinoak geisoak zaindu, ume eta gazteak eskolatu, eta zaharren eta baztertuen ardura hartzeko...

Bokazinoak behar ditugu Jesus Artzain onari ondoragotik jarraitzeko. Nire mezu hau, kristau herri osoarentzat bada ere, gaur batez ere gazteei hitzegin gura neuskie, Jesusen aldetik, garrantzi handiko zerbait esateko.

Gazteok: Kristok dei egiten deutsue. Kristok, beste guztien gainetik, zuentzat maitasun apartekoa dau... Kristok zuengan itxaropen handia jarri dau... Nik, munduan zehar ibili nazen alde guztietan maitasun eta egiaren bila dabiltzan gazte jatorrak aurkitu ditut... Baina askotan, borondate oneko gazte honeek ez dira bide zuzenetik ibiltzen lagunduko deutesen gidaririk aurkitzen ez dabela-ko... Eta azkenean ilunpetan bide galdurik, biziteko poza eta itxaropena galtzen dabe...

Nik orain zuoi, gazteoi, itaun bat egin gura deutsuet. Zuen maisu eta gidari bakarra dan Kristo aurkitu dozue?. Kristo maitatzea munduko indarrik handiena da.

Gazte batek Kristoren maitasuna aurkitu dauanean, Kristorengan bere konfidantza osoa ipinten dau, eta Kristogaitik bere bizia emoteko ere prest egongo da.

Gazteok, Kristok dei egiten deutsue...

Bizibide guztiak onak dira zerura eroaten badabe, baina Jesusek bere Eliza sortzean, batzuk apostolu izateko aukeratu zituan, Eukaristia ospatu eta pekatuak parkatzeko, barri ona zabaldu eta kristau batzarrean arduradun izateko...

Bai, kristau herrian abadeak beharrezko dira, Kristo beharrezko dan lez.

Gazteok, Kristok dei egiten deutsue bere ondoren joan zaitez, berak egin eban lana zuek ere egin daizuen...

Jesusek zeruetara igon aurretik bere apostoluei esan eutsen: «Zoaze mundu guztira eta hotsegin barri ona gizaki guztiei.» (Mk 16-15)

Laster sartuko gara Jesus jaio zanetik hiru milagarren urtean, eta oraindik Jesusen barri ona ez da mundu guztian ezagutua...

Fede barik ilunpetan bizi diranak dei egiten deuskue; zatoze guri zeruko bidea erakustera! Alde guztietatik deadarka dihardun hots honi ezin deutsagu guk belarriak itxita gorrarena egin.....

Danoi eskatzen deutsuet, beti, baina gaurko Artzain onaren egunean batez ere, bokazinoen alde otoitz eta lan egiteko...

Zuoi, gotzain, abade eta katekistei eskatzen deutsuet, gazteei Kristo sakonagotik ezagutzen laguntzeko, hortik sortuko dira eta Jesusi ondoragotik jarraitzeko bokazinoak...

Eta kristau herri guztiari eskatzen deutsat, bokazinoen alde otoitz egin daiala, esanaz: Jaungoiko Aita ona, sortu egizu gure gazteen bihotzetan Kristo ezagutu, eta Haren barri ona zabaltzeko gogo bizia... Guk ere, Maria, Jesusen Amaren antzera, Kristo gehiago maitatu eta haren maitasunaren barri ona munduan sabaldu daigun».

5. Domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok: Jaungoikoak, bere erruki handian, zeruko zorionean bere ondoan biziteko aukeratu gaitu...

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku, zeruko bere Aitaren etxean bizileku asko dagoala, eta han guretzat toki eder bat prestaturik daukala...

Jesus dogu zerurako bide bakarra, ilunpetan argi egiten deuskun egia, eta betiko bizia...

1. Irakurgaia. Ap Eg 6, 1-7

Apostoluak, barri ona zabaltze lanari ezin erantzunik, zazpi diakono edo laguntzaile aukeratu behar izan zituzten...

2. Irakurgaia. 1 Pe 2, 4-9

Kristoren Eliza etxe baten antzeko da...
Kristau bakoitza etxe horren harri bizi bat lez da.

Ebanjelioa. Jn 14, 1-12

«Nire Aitaren etxean bizitoki asko da... Joan eta tokia eratu ondoan, etorriko naz barrira, eta nirekin hartuko zaituet, ni nagoen toki berean zuek ere egon zaitezen». (Jn 14,2-3)

Homilia

Domeka honetako Ebanjelioak Jesusen azken afarira erotzen gaitu.

Afarian Jesusek bere ikasleei ogi itxuran bere gorputza jaten, eta bere odola edaten, emon ondoren, azken aholku edo kontzejuak ematen deituz... Ikasleak triste egozan euren maisuak alde egingo ebalako...

Jesusek, zeruaren itxaropenez, ikasleen bihotzak alaitu gura ditu: «Ez izan bihotz larririk!... Nire zeruko Aitaren etxean bizitoki asko dago. Ni hara noa zuentzat toki eder bat prestatzera... Eta tokia prestatu ondoren, barrira etorriko naz, eta Nirekin hartuko zaituet, Ni nagoen tokian zuek ere Nirekin bizi zaitezen». (Jn 14, 1-3)

Kristoren ikasle gareanontzat, gure benetako aberria zeruko erreinua da. «Guk zeruan dogu gure aberria; eta itxaron handik itxaroten dogu Jesus gure salbatzailea». (Fil 3, 20)

Kristaua, bizitza honetan ere, Jaungoikoaren maitasunean bizi dan bitartean, zeruaren jabe dala esan daiteke, San Paulo apostoluak Kolosoko fededunei esaten deutesen lez: «Kristorekin berbiztu zarien ezkerro, zabiltze goiko ondasunen bila, han dago eta Kristo Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk...

Maite eizuez goiko ondasunak eta ez lurrekoak... Gure bizia dan Kristo agertuko danean, zuek ere agertuko zarie aintzaz beterik Harekin batean». (Kol 3, 1-4)

San Paulok mundu honetako bizilekuari «Txabola» esaten deutso, eta zerukoari Jaungoikoak egindako «Betiko Etxea».

«Badakigu, orain lurrean bizi garean txabola hau hondatzen jakunean, badaukagula zeruan beste etxe bat Jaungoikoak egina, betirako bizilekua...

Txaboletan bizi gareanok negarrez bizi gara, zeruko etxeaz jabetzeko gogo biziz...

Lur honetan bizi garean bitartean erbestean lez bizi gara, Jainkoarengandik urruti». (2 Kor 5, 1-6).

Zeruko itxaropenak gure bihotzak pozez bete behar ditu.

San Paulok esaten deusku: «Zagoze beti pozik Jaunarengan; barrero dinotsuet, zagoze pozik, hur da Jauna...

Leiala da Kristo eta betekoa dau berak emondako hitza, zerura eroango gaituala...» «Nire Aitarene etxean bizitoki asko dago», dinosku Jesusek (Jn 14, 2).

Eta San Joanek Apokalipsis liburuan esaten deusku: «Zeruan zoriondun talde handi bat ikusi neban, inork ezin zenbatu-kontatu halangoa, enda, herri eta hizkuntza guztietakoa, Jaungoikoaren aurrean zutunik, zuriz jantziak, eta palma adarrak eskuetan...

Gau eta egun Jaungoikoa gurtzen dabe...

Ez dabe izango gehiago, ez goserik, ez egarririk; ez ditu joko, ez eguzkiak, ez sargoriak...

Eta Jaungoikoak txukatuko ditu hareen begietako negarmalkoak». (Apok 7, 9-17)

Jesus da zerurako bidea. Kristok bere gurutzeko odolaz zerurako erosi gaitu. «Karu erosiak izan zarie» (1 Kor 6, 20).

Ez zarie gauza ustelkorrez erosiak izan, ez urrez, ez zilarrez, Bildots errubako eta ustelbako dan Kristoren odolaz baino.» (1 Pe 1, 18-19).

«Eta ez dogu izan beste salbatzailerik; eta ez jaku emon gizonei eguzkipean beste izenik gu salbatu gaikazanik». (Ap Eg 4, 12).

«Salbamena gure Jaungoikoarena da. Berari bedeinkapena, aintza eta esker ona gizaldi eta gizaldietan. Amen!». (Apk 7, 11-12)

6. Domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Domekea Jesus biztu zanaren eguna dogu...

Horregaitik antzinako kristauak domeketan batzen ziran alkarrekin otoitz egin, Jaunaren hitza entzun, eta ogi-ardauaren eukaristia ospatzeko.

Lurbira zabaleko fededun guztiekin bat eginik, guk ere orain eukaristia santu hau anaitasunean ospatu daigun.

1. Irakurgaia. Ap Eg 8, 5-8.14-17

Felipe diakonoa Samariara joan zan Jesus biztuaren barri ona zabaltzera... Harek egin zituan mirariak ikusi ondoren lagun askok Jesusengan sinistu eben.

2. Irakurgaia. 1 Pe 3, 15-18

Pedro apostoluak bere garaiko kristauei esaten deutse: «Ez izan bildurrik zuen fedea autortzeko. Zintzoak izan zaiteze, zuen egite onekin Jaungoikoa goratu daizuen.»

Ebanjelioa. Jn 14, 15-21

«Samariarrak gogo onez hartzen eben Felipek esaten ebana. (Ap Eg 8, 6) «Zorionekoak zuek, zuzenagatik eroan-beharrik izaten badozue» (1 Pe 3, 14). «Ez zaituet umezurtz itxiko... Nire aitari eskatuko deusatz, eta emongo deusue beste la-guntzaile bat. (Jn 14, 16-18)

Homilia

Homilia honetan gaurko mezako hiru irakurgaien argipen txiki bat égingo dogu...

1. irakurgaia.

Jesus, hilen artetik biztu ondoren apostoluei, emakumeei eta ikasleei agertu jaken, baita jendetza handi bati ere... Batzuetan Jerusalemen agertzen zan, besteetan Galileako it-sas-bazterrean, baita mendian ere...

Pedrok Jerusalemgo herriari lehenengo aldiz hitzegin eutsa-nean bost mila judeguk Jesusengan sinistu eben, geroago beste hiru milak bateoa eskatu eben...

Baina laster hasi ziran Jerusalem kristauen aurkako erasoaldiak: Apostoluak kartzelatuak izan ziran, Esteban harrika hil eben, eta Herodes erregeak Santiago apostoluari ezpataz burua moztu eutsan.

Orduan Jerusalem kristauak huria itxi eta inguruko herrietara iges egin eben... Jerusalem alde egindakoen artean, gaurko lehengo irakurra agertu jakun Felipe diakonoa aurkitzen zan. Gizon zintzo honek herrian egindako osaketa eta beste mirari askoren bidez, Samariako lurraldean Kristo biztuaren barri ona zabaldu eban, eta herritar askok sinistu eben.

Samariak Jaungoikoaren hitza onartu ebala jakin ebenean, Pedro eta Joan apostoluak hara joan ziran, bateatuen alde otoitz egin, eta eskuak jarrita Espiritu Santua hartu egien... horregaitik poz handia izan zan herri haretan.

2. irakurra.

Jesusen ikasleak laster zabaldu ziran orduan ezaguna zan mundura, Asia, Afrika eta Europara, Jesusen barri ona eroanez. San Pedro Erromara joan zan, Santo Tomas Persia eta Indiara, San Andres Asia Txikira, eta abar.

Lurralde haretan apostoluen bitartez kristau talde jatorrak sortu ziran, alkar maitatuz eta alkarri lagunduz bizirik.

Baina garai haretako gizarte ustelak ezin eban kristauen bizitza garbi eta zintzoa begi onez ikusi, eta laster hasi ziran kristauen aurkako erasoaldiak.

San Pedro Apostoluak gaurko bigarren irakurra Asia Txikiko kristauei esaten deutse: «Pertsekuzinoak dirala eta, ez izan bildurrik! Egon zaiteze beti prest jentilen aurrean zuen fedearen autormena egiteko. Zorionekoak zuek Kristoren ebanjelioagaitik erasotuak bazarrie. On egiteagaitik nekeak eroatea, ez da lotsagarri, pozgarri baino.»

Ebanjelioa.

Jesus lur honetan bizi zan bitartean, bere ikasleak, maisuarengan uste osoa jarrita, nasai bizi ziran. Baina gurutzean hilik euren irakaslea galdu ebenean, ikasleak umezurtz lez, inoren laguntza barik, bakarrik gelditu ziran; horregaitik Jesusek ikasleei adorea emon nahirik, esaten deutse: «Ez zaiteze bildurtu! Ni banao baina ez zaituet laguntza barik umezurtz itxiko». (Jn 14, 18). «Ni zuekin egongo naz munduaren azken egunera arte». (Mt 28, 20)...

Bai, halan da. Berak agindu euskun lez: Jesus gurekin dago, Liburu Santuen bidez hitzegiten deuskunean.

Jesus gurekin dago, alkar harturik otoitz egiten dogunean. Jesus gurekin dago, Eukaristian bere gorputza emoten deuskunean. Jesus gurekin dago, gosetuei, gaisoei, espetxetuei, txiroei maitasunez, gure laguntza emoten deutsegunean.

Jaunaren Igokundea. Pazko 7. domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusek zeruetara igon ebaneko jai honegaz, pazko-jaien gailurra jotzen dogu... Jesus gurutzean hil eben, baina hirugarren egunean biztu, eta gaurko egunez zerura doa, Jaungoiko Aitaren eskutik, izadi guztiaren nagusitza hartzeko...

Jesus Jaunak zerura igon aurretik bere ikasleei esan eutsen: zabaldu nire barri ona, eta egin ikasleak munduko herrialde guztietan.

1. Irakurgaia. Ap Eg 1, 1-11

Jesusen zerura igotea zelan jazo zan, erakusten deusku San Lukas ebanjelariak.

2. Irakurgaia. Ef 1, 17-23

Jaungoiko Aitak bere Semea zeru-lurretako gauza guztien jaun eta jabe egin eban.

Ebanjelioa. Mt 28, 16-20

«Aginpide osoa emon jat zeru-lurretan... Egin ikasleak herri guztietatik, eta irakatsi hareei, nik agindu deusuedan guztia beteten... Begira, ni zuekin nozue egunero, munduaren azken egunera arte» (Mt 28, 18-20).

Homilia

Pazko jaia, zerura igokundea eta pentekostes, hiru jai honeek, elkarrekin lotuta dagoz. Pazko domekan Jesus hilen artetik biztu zan. Handik berrogei egunera Jesusek zeruetara igon eban. Pentekostes egunean Jesusek ikasleen gainera Espiritu Santua bialdu eban.

Kristoren garaipena.

Lurreko agintariak Jesus zigorkatu, oinperatu eta gurutzean josita hil egin eben... Baina orain Jesus aintzaz beterik zerura sartzen da, bere Aita Jaungoikoaren eskutik zeru-lurretako agintaritza osoa hartzeko, «nagusitza eta jauntasun guztien gaineratik, gauza guztiak oinpean jarri eutsazan». (Ef 1, 21-22). «Jesusen izenera belaun guztiak makurtu daitezcan, zeruan, lurrean eta lurpean; eta mihin guztiak aitortu daien: Jesukristo Jauna dala Aita Jaungoikoaren aintzarako» (Fil 2-10-11).

Nekaldiaren ondoren, Jesusek, heriotzaren kateak hausirik, zerura igon eban, eta orain Aita Jaungoikoaren eskuma aldean dago betiko biziaren jabe izateko, eta guri ere zeruko atek zabaltzeko.

Galilearrok, zertan zagoze hor, zerura begira? (Ap Eg 1, 11).

Aingeruak esan gura eutsen:

«Zuen maisu eta jauna zerura joaten ikusi dozue... Baina zuok oraindik lurrean bizi zarie, eta Jaunak hasita itxi dauan lana zuok burutu behar dozue». «Zoaze mundu guztira eta irakatsi barri ona gizaki guztiei... Eta hareek, toki guztietan barri ona hotsegitera joan ziran, eta Jaunak laguntzen eutsen, hitza egiztatuz, egiten ebezan mirariekaz» (Mk 15, 20).

Jaunak amaitu barik itxi eban lana, apostoluak eta ikasleak jarraitu eben... Eta honeek ere guri itxi deuskue mundua ebanjelioaren espirituaz barritzeko eginbehera.

Barri onaren espiritua edo Jesusen dotrinaren mamia.

Hiru metatan batu daiteke:

1. Jaungoikoa gure Aita dala, eta horregaitik danok senide lez alkar maite behar dogula. «Agindu barri bat emoten deusuet: maite daizuela alkar nik maite zaituedan lez. Honetan ezagutuko dabe guztiak nire ikasle zariela: alkar maite badozue» (Jn 13, 34-35).
2. Mundu hau ez dala betikoa; gure egiazko aberria zerua dala. «Kristorekin berbiztu zarien ezkerro, zabilze goi ondasunen bila, han dago eta Kristo Jaungoikoaren eskuma aldean jarririk... Maite egizuez goiko ondasunak eta ez lurrekoak» (Kol 3, 1-2). «Lurrekoak apur baterako dira; zerukoak, barriz, betikoak» (2 Kor 4, 18).
3. Senideari egindako ona ala txarra Kristo berari egiten deusagula. «Nire senide txiki honeetako bati egina, neuri egin zeunsten. Zatoze Aitaren bedeinkatuok; hartu eizue zuentzat prestaturik dagoen erreinua» (Mt 25, 34-40). «Nire ikasle dalako, txiki honeetako bati baso bat ur hotz emoten deusanak, benetan dinotsuet, ez dau galduko bere saria» (Mt 10, 42).

San Leon aita santuaren hitz pozgarriekaz amaitu daigun: «Jesus zeruetara igotzea, gure igokundea ere ba da. Gaur gure burua dan Kristo Jaunak zeruetara igon dau. Badogu itxaropen, gure burua dagoan lekura gu ere helduko gareala, haren espirituaren legera bizi bagara... Kristoren zerura igokunde egun santu honetan, gu ere paradisuaren jabe eginak gara».

Pentekostes-domekea.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Pentekostes, Espiritu Santuaren domeka honetan, pazko-jaietako elizkizunei amaiera emoten deutsegu...

Jesusek, zerura igon ondoren, Espiritu Santua bialdu eutsan Elizari, laster etorriko ziran erasoaldi eta larrialdietan, ikasleen bihotzak indartzeko...

Bateoan zeruko bizitzarako jaio egiten gara; sendotzan (konfirmazinoan) Espiritu Santuak indarra emoten deusku, zeruko bide aldapatsuan, kemenik galdu barik, azken gailurreraino igon daigun.

1. Irakurgaia. Ap Eg 2, 1-11

Maria, Jesusen amarekin, otoitzean bildurik egozala, Espiritu Santua ikasleen gainera jatsi zan, haize indartsu eta suzko mihin antzera.

2. Irakurgaia. 1 Kor 12, 3-7.12-13

Kristoren ikasleak, asko izanik ere, fedez eta maitasunez, bat egiten dabe, gorputzeko atal guztiak gorputz bakar bat osotzen daben lez.

Ebanjelioa. Jn 20, 19-23

«Etxe batean bildurik egozan ikasleak, atear itxita, judutarren bildurrez. Sartu zan Jesus eta esan eutsen: hartu eizue Espiritu Santua. Eta ikasleak pozez beterik gelditu ziran, Jauna ikustean. (Jn 20, 19)

Homilia

Pentekostes egunean, ikasle guztiak, Maria Jesusen amarekin batean, otoitzean bildurik egozala, bat-batean zerutik hots bat etorri zan, haize indartsu baten antzera, eta su antzeko mihin batzuk ikasle bakoitzaren gainean gelditu ziran...

Espiritu Santuak gure arimetara isurtzen dituan doheak, dino San Paulok, era askotakoak dirala: maitasuna, poza, bakea, indarra, gozotasuna, sinismena, garbitasuna, ontasuna eta abar...

Guk, ez luzatzeko, dohe guzti honeen artean bi besterik ez ditugu hartuko, Jaunaren laguntzaz, orain agertzeko.

Espiritu-santua, indar-emoilea.

Jesusek, zerura igoterakoan, bere ikasleei esan eutsen: «Espiritu Santua etorriko jatsuenean, hartuko dozue indarra nire autorle izateko, Jerusalemenean, Judea guztian, Samarian eta lurraren azken mugaraino» (Ap Eg 1, 8).

Baeben Jesusen ikasleak barruko indarraren beharra. Jerusalemen batuta egozan, atearak itxita, judutarren bildurrez ... Baina Pentekostes egunean haren gainera Espiritu Santu indar-emoilea etorri zanean, Pedro, zutunik eta bildur barik, Jerusalemeko herritarrei hasi zan esaten: «Zuek gurutzean josita hil zenuen Jesus, Jaungoikoak biztu egin dau, eta gu gara horren testigu... Aitak agindutako Espiritu Santua berak hartu eta guri emon deusku... Bihotz barritu zaitez, eta bateatu guztiok Jesukristoren izenean, zuen pekatuen parkamenerako, eta zuek ere Espiritu Santua hartuko dozue... Eta bost bat mila gizonak Jesusengan sinistu eben» (Ap Eg 2, 14-19.4, 4).

Esteban lehenengo martiria ere «Espiritu Santuaz beterik egoan», eta Jerusalemeko judutarrak harriska hiltzen eben bitartean, belaunikaturik, bere arerioen alde otoi ez eginez, azken arnasa emon eban. Nork emon eutsen indarra antzinako kristauei, lehoi eta piztien hatzaparretan, Kristoren alde bizia emoteko?. «Ezin da, -dino Jerusalemeko Zirilo Santuak,- inor martiri izan, indar-emoile dan Espiritu Santuak laguntzarik emoten ez badeutso»...

Espiritu Santua poz-emailea.

Egiazko poza emoten daben hiru gauza, honeek dira:

1. Kontzientzia garbiak.

«Bai dohatsu, -dino lehenengo salmoak,- Jaunaren legean atsegin dauana, gau eta egun Haren legean dabilena. Ur-ertzean aldaturiko zuhaitza lez izango da; ez jako orririk igartuko, eta bere garaian emongo dau frutua...» Kontzientzia garbiaren gainean nasai lo egiten da.

2. Lagunurkoari on egiteak.

San Pedro apostoluak Jesusen bizitza zelakoa izan zan hitz gitxitan batu nahirik, hau esan eban: Nazareteko Jesusek «danei on egiten eta geisoak osatzen bere bizitza igaro eban. (Ap Eg 10, 38). Zorionekoa, on egitearen poza bere barruan sentitzen dauana!

3. Zeruko itxaropenak.

Jesusengan sinisten dogunok, badogu itxaropen, geure aldetik ahalegin apur bat egiten badogu, Jaunak zerura, bere ondora, jasoko gaituala... San Paulok esaten deusku: «Salbatuak gagoz; itxaropenean, ostera» (Err 8, 24).

«Bizi zaitez neurritz, zuzentasunez, jainkozaletasunez, zeruko zorionari itxaropenez begira» (Tit 2, 13). «Ez zaitez goibeldu (tristetu) itxaropenik ez daben gentilen antzera. Jauna bera jatsiko da zerutik, eta gu lainoetan gora eroango gaitu, eta zeruetan beti Jaunarekin egongo gara... Poztu eizue alkar hitz honeekin» (1 Tes 4, 13-18).

Hirutasun guztiz Santua.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Hirutasun guztiz Santuaren jaia ospatzen dogu domeka honetan... Aita eta Semea eta Espiritu Santua, hiru pertsonetan Jaungoiko bakarra... Guk geure buruaz ulertu ezin dogun misterio sakon hau, Jainkoak halan agertu deuskulako, sinistu daigun...

Hirutasun guztiz Santua autortuz Eukaristi batzar honi hasiera emon daiogun... Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

1. Irakurgaia. Ex 35, 4b-6.8-9

Moisesek Sinai mendian Jaungoikoa aurkitu eban, errukian aberatsa, eta parkatzeko beti prest egoana.

2. Irakurgaia. 2 Kor 13, 11-13

San Paulok Korintoko kristauei opa deutse: Jaungoiko Aitaren maitasuna, Seme Jesusen grazia, eta Espiritu Santuaren batasuna.

Ebanjelioa. Jn 3, 16-18

«Hain maite izan dau Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emon deutso... Jaungoikoak ez dau bere Semea, mundua galtzera bialdu; Haren bitartez mundua salbatu daiten baino» (Jn 3, 16-17).

Homilia

Biblia Santuko Itun zaharrean Jaungoikoari izen asko emoten jakoz: ahalguztiduna, zeru-lurren egilea, hiru aldiz santua, Jaunen jauna, gorengoena, betikoa dana, eta abar...

San Isidorok esaten deusku: «Asmatu eizuz Jaungoikoarentzat izenik gorengoena, eta Jaungoikoa oraindik goragokoa da... Ez da inor Jaungoikoa zer dan adierazo leikenik».

Eta San Agustinek dino: «Jaungoikoa zer dan ezin da esan; esan ahalak esanda ere, Jaungoikoa oraindik gehiago da... Nik, Jaungoikoa zer dan ulertu dodala, uste dodanean, orduantxe ez dot ezer ulertu»...

Hau halan izanik, ez da harrigarri, Jainkoagan misterio sakonak, geure buru txikiak ezin ulertzekoak, aurkitzea... Eta misteriorik ezkutuena Hirutasun guztiz Santuarena da: Aita Jaungoikoa, Semea Jaungoikoa, eta Espiritu Santua Jaungoikoa, baina ez hiru Jaungoiko, Jainko bakarra baino...

Zelan dan hori, guk gizakiok, gure adimen mugatuaz, ezin dogu ulertu, baina, halan da ere, Jesusek halan irakatsi deuskulako, bihotz bihotzez sinisten dogu.

Norbaitek esan lei: Aita, Semea eta Espiritu Santua, hiru pertsonetan Jaungoiko bakarra dala sinisteak, zer onura-probetxu dakar gure kristau bizitzarentzat?... Ikusi daigun:

Maitasunak, asko diranak bat egiten ditu.

Aita, Semea eta Espiritu Santua, pertsonetan hiru izanik, zergaitik dira bat jainkotasunean?. Alkar maite dabelako. Maitasunak batu egiten dau. Halan ikusten da alkar maite daben familia bateko senideen artean. Gorputzez asko izanik ere, bat dira bihotzez.

Halan bada, Aita, Semea eta Espiritu Santua, hiru pertsona jainkozkoak, zeruan familia batean lez bizi dira, eta alkar neurribarik maite-maite dabelako, pertsonetan hiru izanik ere, jainkotasunean bat egiten dira, maitasun honen indarrez.

Maitasunak, maitaleak alkarren antzeko egiten ditu.

Seme-alabak gurasoen antzeko izatea aintzagarri da... Guk ere, Jaungoikoa maite badogu, Haren antzeko izaten ahalegin behar dogu. «Izan zaiteze on-onak - esaten deusku Jesusek,- zeruetako zuen Aita on-ona dan lez» (Mt 5, 48).

Maitaleek, alkarrekin bizi nahi dabe.

Jaungoikoa maite badogu, Hirutasun guztiz Santua guregan bizi da, San Paulo apostoluak Korintoko kristauei esaten deutszen lez: «Ez dakizue zuek Jaungoikoaren etxe zariela, eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dala... Zuen gorputza ere Espiritu Santuaren eliza da» (1 Kor 3, 16; 6, 19).

Maite dabenak, etxe berean bizi gura dabe.

Lur honetan ez da gauza ederragorik senide guztiak gurasoen etxean bat eginda ikustea baino... Orain, bada, zein da gure Aitaren etxea?. Zerua... Zeru barri bat eta lur barri bat dauka Jaungoiko gure Aitak prestaturik guretzat... Han danok, baina lur honetan alkar maite izan dogunok batez ere, Jainkoaren eta alkar maitasun betean biziko gara...

Hitz gitxitan esateko: Hirutasun misterioa, maitasun misterioa da... Aitak bere Semea lurrera bialdu eban, gu salbatzeko: «Jaungoikoak hain maite izan dau mundua, bere Seme bakarra emon deutso» (Jn 3, 16).

Espiritu Santuak gu Jainkoaren seme-alaba egiten gaitu, guri zeruaren jabetza emoteko: «Eta Espirituaren bidez Jaungoikoaren seme-alaba zarielako, eta ez morroi, orain zeruaren jabe zarie» (Gal 4, 6).

Hirutasun guztiz Santua, Apokalipsisko hitzakin, goratu daigun: «Aintza eta ospe eta esker ona, aulkian jesarrita dagoen Jaungoiko hirutan bakarrari, gizaldi eta gizaldietan bizi danari. Amen» (Apk 4, 9).

Kristoren gorputz-odol santuak.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusen gorputz-odolen, Korpus jaia ospatzen dogu gaur...
 Jesusek, hilgo eben bezperan, ogi eta ardao antzean, bere gorputza emon euskun janari, eta bere odola edari... Ez da maitasun handiagorik...

Eukaristia da fededunentzat zeru biderako janari, batasunaren sendogarri, eta maitasunaren lokarri...

Eukaristiako ogia behar dan lez hartzeko, gure bihotzak garbitu daiguzan, Jaunari eta lagunurkoari gure hutsegiteen parkamena eskatuz...

1. Irakurgaia. Ex 24, 3-8

Lege zaharrean Moisesek, basamortuan altare bat eragi, eta oparien odolaz, Jaungoikoarekin elkargoa egin eban... Jesusen odola da Lege barrian gu Jainkoarekin alkartzen gaituena.

2. Irakurgaia. 1 Kor 10, 16-17

Eukaristiako mahaian ogi bera jaten dogunok, eta arda bera edaten, bat eginda bizi behar dogu.

Ebanjelioa. Jn 6, 51-59

«Ni naz ogi bizia zerutik jatsia... Nire haragia jaten dauana, eta nire odola edaten, niregan dago, eta ni harengan» (Jn 6, 51-56).

Homilia

Ejiptoko morrontzatik urten, eta bere aberrira bidean israeldarrak basamortuan gosez hiltzen ziran... Bakartade haretan Jaunak «mana» emon eutsen jateko...

Jesusek, azken afarian, «jaten egozala, ogia hartu, eta bedeinkapen otoitza eginez, zatitu, eta bere ikasleei emon eutsen, esanez: Hartu eizue eta jan, hau neure gorputza da eta... Eta ontzi bat harturik, esker otoitza eginez, emon eutsen, esanez: Edan guztiok honetatik; hau neure odola da eta, Itun barriaren odola, guztientzat pekatuak parkatzeko isurtzen dana» (Mt 26, 26-28). «Egizue hau nire orogarri» (Lk 22, 19).

Horregatik dino San Joan ebanjelariak: Jesusek azken afarian Eukaristia sortzerakoan, «munduan egozan beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituan» (Jn 13, 1).

Eta Trentoko Kontzilioak esaten deusku: «Gure Salbatzaileak Eukaristiako sakramentua eragi ebanean, gizonentzat zituan maitasun aberastasun guztiak, gehiago ezineraino, emon zituan».

Horregaitik Eukaristia izan da lehenengo gizaldietako kristau herriarentzat, erlijioaren erdigune eta bihotza.

Eukaristia batasun sendogarri.

Bigarren gizaldiko «Didaje» izeneko idaztiak esaten dau: «Senideekin hasarre dagoena ez bedi Eukaristia batzarrera etorri, maitasun sakramentu hau zikindu ez daiten»...

Eta gero jarraitzen dau: «Eukaristiako ogia lehen gari zanean, soloetan ereinda sakabanaturik egon zan, baina gero gari garau askorekin ogi bat egin da; Eukaristia ospatzera batzen diran kristauak ere bardin, gorputzez asko izanik, bihotzez bat egiten dira».

Jesusek esandakoa bete daiten: «Zure eskeintza altarera eroatekoan, gogoratzen bajatzu zure senideak badauala zerbait zure aurka, itxi eizu eskeingai han bertan altare aurrean, eta zoaz lehenengo zure senidearekin bakeak egitera; etorri orduan, eta egin zure eskeintza» (Mt 5, 23-24).

Eukaristia maitasun lokarri.

Plinio, Bitiniako gobernari jentilak, 112. urtean, Trajano Erromako enperadoreari, kristauak zelan bizi ziran adierazoteko, honan idazten deutso: «Kristauak euren kultu eginkizunak ospatzeko domeketan batzen dira, eta batzar hareetan zin egiten dabe, lapurretarik ez egiteko, ezta ezkontza-nahasterik ere; emondako hitza beteteko, eta kartzeletan dagozanei laguntza emoteko... Hitz gitxitan, beharrea aurkitzen dan edozeini laguntzeko».

Bigarren gizaldiko San Justino martiriak esaten dau: «Eukaristia da garairik egokiena, umezurtz eta alargunei, kartzeletan eta beste edozein beharretan aurkitzen diranei, laguntza emoteko».

Eta hirugarren gizaldian bizi izan zan San Zipriano Kartagoko gotzain eta martiriak kristau-batzarretara etozan aberatsei esaten deutse: «Domeketan, Eukaristia ospatzean, zuk behartsuentzat limosnarik emoten ez badozu, Jaunaren opari eskeintzen dozula, uste dozu?».

Eukaristia zeruko bidean janari.

Janariak gure gorputzean egiten dabena, hori bera egiten dau Eukaristiak gure arimetan: indartu, gogortu eta sendotu.

«Nire haragia egiazko janaria da, eta nire odola egiazko edaria... Nire haragia jaten dauanak, eta nire odola edaten, badau betiko bizia, eta nik biztuko dot ha azken egunean» (Jn 6, 54-56).

Joan Paulo II. Aita Santuak esaten deusku: «Hilgo eben bezperan, Eukaristia eragi ebanean, Kristok Elizari janari bat emon nahi izan eutsan, zerurako bidean gure indargarri izan zedin. Hau gauza harrigarria!».

Eukaristiako mahaian gizonak Jaungoikoa bera dau janari, eta Kristoren odola edari!».

2. Domekea. Urtean zehar.

Sarrerako oharra.

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesus, Jaungoikoaren Bildotsa lez agertuko jaku, munduko pekatua kentzen dauana... Jesusek, bere gurutzeko odolaz, bakeak egin zituan, Jaungoikoaren eta gizonen artean... Eta gure gaiztakerien zorrak berak ordaindurik, Jaungoikoaren adiskide, eta zeruko jabe egin gaitu.

1. Irakurragia: Is 49, 3.5-6

Jaungoikoak munduari salbatzaile bat emongo deutso, lurraren azken mugetaraino argi egingo dauana.

2. Irakurragia: 1 Kor 1, 1-3

San Paulok Korintoko kristauei Jaungoiko Aitaren grazia eta bakea opa deutse, Jesukristoren bidez.

Ebanjelioa: Jn 1, 29-34

«Ikusi eban Joanek Jesus beregana etorten, eta esan eban: hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko pekatua kentzen dauana». (Jn 1, 29).

Homilia

(Handik eta hemendik hartuta...)

Joan bateatzaileak Jesusi, «Jaungoikoaren Bildotsa», esaten deutso, «munduko pekatua kentzen dauana».

«Bildotsaren» irudia israeldarrentzat oso ezaguna, eta esan-nahi handikoa zan...

Israeldarrak Ejiptoko erbestean, esklabo lez, Faraoien menpean lan gogorak egiten bizi ziran... Jaunak Moisesi esan eutson: «Esaiezu Israelgo semeei: «Bakoitzak bildots bana hartuko dozue, sendi bakoitzak eta etxe bakoitzak berea... Bildotsa akats bakoa izango da...

Bildotsa hil eta gero, haren odola harturik, jaten dozuen etxe bakoitzeko ate-buruak eta albokoak bustiko dozuez... Zuek bizi zarien etxeetan odola izango da zuen ezaugarri... Eta Ejiptoko lehen semeak heriotzaz jotzen dodazanean, zuen ateetako odola ikustean, kalterik egin barik, aurrera joango naz, eta ez da zuen artean zigor gaiztorik izango». (Ex 12, 3-14)

Ejiptoko bildotsaren irudi honetan Eliz-gurasoak Kristoren antza ikusi izan dabe: «Kristo da Jaungoikoaren Bildotsa gurutzean bere odola isuriz, gu pekatuaren menpetik askatu, eta zerurako erosi gaituena».

Bekatuen parkamenaren teolojia.

Gizonok, pekatu eginez, Jaungoiko Aitarekin zorretan ginan... Guk geure balioz inoiz ezin ordaindu geinkean zor handitan...

Baina, Jaungoikoaren Semeak, bere borondate eta guri deuskun maitasunagaitik, gurutzean bere odola isuriz, bere gain hartu eban Jaungoiko Aitari gure pekatuen ordaina emotea...

Jaungoiko Aitak bere Semearen oparia ontzat hartu eban, eta honan gizon pekatariak Jaungoikoarekin adiskidetuak izan ziran.

Horregatik San Paulok dino: «Karu erosiak izan zarie». (1 Kor 6, 20)

Eta San Pedro apostoluak: «Ez zarie gauza ustelkorrez erosiak izan, ez urrez, ez zilarrez, Bildots errubako eta kutsubako dan Kristoren odolaz baino». (1 Pet 18)

Eta eberrarrei egindako epistolak dino: «Aker-odolak eta zezen-odolak, kutsudunak garbitzeko indarra badau, zenbatez indartsuago ez da izango Kristoren odola, gure barrua egite usteletatik garbitzeko». (Eb 9,13)

Baina Jaungoikoagandik gure pekatuen parkamena lortzeko, hau da behar-beharrezkoa: Kristok irabazitako parkamen hori, guk, damutasunaren bidez, geuretzat eskuratzea.

Arazo hau Pio XIIgarren Aita Santuak, honan argitzen dau:

«Kristok Kalbario mendian parkamen-ibai bat lez sortu eban... Ibai honetako urak munduko zikinkeria guztiak garbitzeko indarra dauke... Baina gu, geure gaiztakerien zikina garbitzera ibai horretara ez bagoaz, alperrik da guretzat ibai horretako urak garbitzeko daukan balioa.

Horregaitik, Bildotsaren odolaz garbituak izan gura daben pekatariak, damuturik, Kalbariora igon behar dabe, gurutzean jositakoaren parkamen zabala eskuratzera».

Vatikanoko Kontzilioak dino: «Jaungoiko Aitak, bere Seme Kristoren bidez, gizonekin bakeak egin zituan, eta gu arerioaren eta pekatuaren menpetik aterata, zerurako erosi gaitu...» Honegaitik guk ere orain San Paulorekin esan geinke: «Jaungoikoaren Semeak bere bizia niretzat emoteraino maite izan nau». (Gal 2,20).

«Eta Kristo danakaitik hil zan ezkerro, orain gizonaren helburua bat bakarra da: gizakia Jaungoikoaren antzeko izatea» (Gaudium et Spes, 22).

3. Domekea. Urtean zehar.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesus, Jordan ibaiko uretan bateatua izan ondoren, Galileako lurraldera joan, eta han Barri Ona zabaltzen hasi zan: «Bihotz barritu zaitetze; zeruetako erreinua laster dator eta...»

Eukaristia santua hasterakoan, bide okerretik ibili garelako, bihotzez damaturik, gure Jaunari gure gaiztakerien parkamena eskatu deiogun...

1. Irakurgaia: Is 9, 1-4

Asiriako erbestean nekepean bizi ziran galilearrei Isaias profetak esaten deutse: «Izan itxaropen!. Zuen ilunpeak joango dira, eta Jaunaren askatasun argiak alaituko zaitue».

2. Irakurgaia: 1 Kor 1, 10-13.17

Korintoko kristauak euren artean hasarraturik bizi ziran. San Paulok esaten deutse, zatiketak itxi, eta batasunean biziteko.

Ebanjelioa: Mt 4 12-23

«Nazaret itxirik, itsas bazterreko Kafarnaunera joan zan Jesus bizitera... Orduan hasi zan Jesus hotsegiten eta esaten: Bihotz-barritu zaitetze, hur dago eta zeruetako erreinua». (Mt 4, 13-17)

Homilia

Jesusen garaiko Israel Herriaren kondaira-historia zerbait ezagutzea egoki jaku, gero urtean zeharko domeketan agertuko diran gertakizunak hobeto ulertzeko...

Israel Herria luze-zabalez gure Euskal Herriaren antzeko da, eta Jesusen garaian hiru herrialdetan banaturik aurkitzen zan: Ipar aldean Galilea, erdi aldean Samaria, eta hego aldean Judea.

Galileako lurraldean Herodes Antipas, Herodes handiaren semea, zan agintari. Samaria eta Judea, ostera, Erromako Prokurore edo gobernadore baten menpean egozan.

Jesus Judeako Belen herrian jaio zan, baina Ejiptoko erbestetik itzuli ondoren, Galileako Nazaret herrian jarri zan biziten. Baina hogeita hamar urte bete, eta Jesus Jaungoikoaren erreinuko Barri Ona zabaltzen hasi zanean,

Nazaret itxi eta Kafarnaun hurira joan zan bizitera. Honegaitik Mateo ebanjelariak Kafarnauni «Jesusen herria» esaten deutso. (Mt 9, 1)

Zergaitik aukeratu ete eban Jesusek huri hau bere bizi-leku barrizat?

Zalantza handi barik esan geinke, Kafarnaun, jende askoren joan etorri eta pasa-bidea izanik, giza-talde handiei Barri Ona hotsegiteko toki egokia zalako.

Mesopotamia eta Siriatik, euren salgaiekin, Ejiptora joazan merkatariak, Kafarnaundik igaro beharra eben... Honegaitik huri honetan «adua» bat egoan, eta erromatarrek, zerga biltzaileei euren lanean laguntzeko, le-gio-gudari talde bat jarri eben.

Kafarnaun huria Galileako itsas bazterrean kokaturik egoan, eta horregaitik bertako bizilagun asko arrantzale ziran. Jende zintzo eta langilea, handi-keriarik bakoa.

Kafarnaunen ezkondua Simon arrantzalea bizi zan, gero Pedro apostolua izango zana. Bihotz handiko gizona, benetakoa, harroskoa bazan ere. «Behin Jesusek, Galileako itsas bazterrean ebilela, anaia bi ikusi zituan -Pedro eta Andres- sareak botaten, eta esan eutsen: «Zatoze nirekin, eta nik giza arrantzale egingo zaituet... Eta hareek, berehala sareak itxi, eta jarraitu egin eutsien». (Mt 4, 18-20)

Handik aurrera, Jesus Kafarnaunen Simon-Pedroren etxean bizi zan...

Santiago eta Joan anaiak ere arrantzale ziran. Jesusek dei egin, eta hareek ere, ondasun guztiak itxita, Maisuarekin joan ziran. (Mt 4, 21-22). Beste behin Jesus Kafarnaungo aduana ondotik igaro zan, eta zerga mahaian jesarrita egoan Mateori esan eutson: Jarraitu Niri, eta zergalaria zutundurik, irabazi guztiak bertan itxita, Jesusekin joan zan. (Mk 2, 14)

Jesusek Kafarnaunen mirari asko egin zituan: Pedroren amaginarreba sukarretik osatu. (Mk 1, 29-31) Teilatutik jatsitako elbarridunari osasuna emon. (Mk 2, 1-12) Oinaze gorritan egoan Erromako ehuntariaren morroia osatu. (Mt 8, 5-13). Eta abar.

Markos ebanjelariak dino:

«Geixo eta deabrudun guztiak ekarten eutsiezan, eta jendea Jesus bizi zan etxeko ate aurrean pilaka batuten zan, eta Jesusek era guztietako gatxetatik osatu egiten zituan... Eta Jesus Galileako herrietan zehar ebilen, Sinagogetan hitzegiten eta geixoak osatzen». (Mk 1, 32-39).

Orduan hasi zan Jesus hotsegiten eta esaten: «Bihotz-berri zaitetze, hur dago eta zeruetako erreinua». (Mt 4, 17)

4. Domekea. Urtean zehar.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Kristok irakatsi eban dotrinaren mamia gaurko ebanjelioan agertuko diran zoriontasunetan dago.

Zorionekoak txiroak, zorionekoak errukitsu eta bake-egileak, zorionekoak bihótzegarbi eta zuzenagaitik erasotuak... Euren da eta zeruetako erreinua...

1. Irakurgaia: Sof 2, 3; 3, 12-13

Arerioak Israelgo agintari eta jakintsuak atxiloturik erbestera eroan ebezan. Israel lurraldean herriko jende apala bakarrik gelditu zan. Honeek zintzoak eta benetako Jaungoiko-zaleak ziran.

2. Irakurgaia: 1 Kor 1, 26-31

Korintoko kristauak behartsu eta apalak ziran, baina zeruko gauzetan aberatsak eta oso jakintsuak.

Ebanjelioa: Mt 5, 1-12

Zorionekoak behartsuak, otzanak, errukitsuak, bakegileak, zuzenagaitik erasotuak... (Mt 5, 1-12)

Homilia

Zoriontasunak.

Danok gabiltza Zorionaren bila. Danok gura dogu zoriontsu bizi... Baina hau da harritzekoa: zorion hori lortzeko bidea, Jesusena eta munduarena, ez da bardina. Munduak «zuri» ikusten dauana, Jesusek «baltz» ikusten dau; eta munduarentzat bide zuzena dana, Jesusentzat bide okerra da.

«Zoriontasun» honeetan, Jesusek irakatsi eban dotrina guztia, hitz gitxitan batuta dago.

- 1 *Zorionekoak gogoz behartsu (pobre) diranak... (Mt 5,3)*
Zoritxarrekoak zuek, aberatsok. (Luk 6, 24)

San Paulok bere lagun Timoteori esaten deutso: «Ez dogu ezer ekarri mundu honetara eta, eroan ere, ez dogu ezer eroango. Beraz, zer jan eta zer jantzi izan ezkerro, badogu nahiko... Aberats izan gura dabenak, mila tentalditan sartzen dira, eta diru-gose zoro eta kaltegarriak erabilten ditu; horrek galtzen dau eta hondatzen gizona. Izan ere, diru-gosea da gatx guztien sustarra». (1 Tim 6, 7-10).

2 *Zorionekoak otzanak (bihotz onekoak eta apalak). (Mt 5,4)*

San Paulo apostoluak Erroman bizi diran kristauei honan esaten deutse: «Ez izan handi-nahi, apalen adiskide baino. Ez egin jakintsu zuen buruak. Ez itzuli inori gatxik, gatx-orde. Ahalegindu zaitzeze gizon guztien aurrean onak izaten... Menperatu egizu gatxa on eginez» (Er 12-16)

3 *Zorionekoak negar egiten dabenak. (Mt 5, 5)*
Zoritxarrekoak orain barre egiten dozuenak. (Lk 6, 25)

Jesusek, hilko eben aurreko egunean, bere apostoluei esan eutsen: «Zuek negar egingo dozue, eta mundua poztu egingo da, baina zuen tristuraldia poz bihurtuko da... Emakumea ere haur egitean, triste egoten da, baina haurra jaio jakonean, ez da oroitzen izandako estutasunaz, ume bat jaio jakolako pozez. Zuek ere orain triste zagoze, baina poztuko da zuen bihotza, eta zuen poza ez deusue inork kenduko». (Jn 16, 20-22)

4 *Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak;*
aseak izango dira-ta. (Mt 5,6)

«Zeruan Jaungoikoaren aulki aurrean zuriz jantzirik dagozanak, bizitzako nekaldi handitik datozenak dira... Ez dabe izango gehiago ez goserik, ez egarririk... Jaungoikoak txukatuko ditu hareen begietako negarrak». (Apk 7, 14-17)

5 *Zorionekoak errukitsuak; honeek lortuko dabe-eta errukia. (Mt 5, 7)*

Era guztietako erruki-egintzak: gosetuei jaten emon, geixoak ikustera joan, beharrean aurkitzen danari lagundu...«Nire senide diran txiki honeetako bati egina, neuri egin zeunsten, dino Jaunak». (Mt 25, 37-40)

«Izan ere, zuek erabilten dozuen neurritz, izango zarie neurtuak» (Mt 7, 2)

6 *Zorionekoak bihotzez garbi diranak;*
honeek ikusiko dabe-ta Jaungoikoa. (Mt 5, 8)

Kontzientzia garbi izan ezkerro, gauzak garbi ikusten dira. «Beraz zure begia argi badago, dana argitan egongo da. Baina zure begia geixorik badago, dana ilunpetan egongo da» (Mt 6, 22). Jaungoikoa ez da begiekin ikusten, bihotzarekin baino. Bihotza garbi daukanak Jaungoikoa ikusiko dau. (S. Agustin).

7 *Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme esango jake-eta. (Mt 5, 9)*

San Paulok esaten deusku: «Zuen aldetik, eta ahal dala, izan egizue bakea guztiekin... Eroan egizue ondo alkar, eta parkatu batak besteari, inork inorentzat ezer baleuka. Maitasuna da lokarririk bikainena». (Kol 3, 12-14).

8 *Zorionekoak, zuzentasunagaitik erasotuak;*
honeena da-eta zeruetako erreinua. (Mt 5, 10)

Pedro apostoluak Erromako inperiopean erasotuak ziran kristauei esaten deutse: «Zorionekoak zuek, kristau izateagaitik madarikatzen bazaituee. Ez daiala zuetan inork zigorrik izan, hiltzaile edo lapur dalako, baina hori kristau izateagaitik balitz, ez bedi lotsatu. Poztu zaitzeze nekeetan Kristoren lagun zarielako... Jaungoikoaren aintza agertzen danean ere, pozez gainezka egon zaitezen». (1 Pet 4, 12)

5. Domekea. Urtean zehar.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan bere ikasleei esaten deutse: «Zuek zarie munduaren argia... Bego biztuta zuen argia gizonen aurrean, zuen egite onak ikusi, eta zeruetan dagoen zuen Aita goratu daien...»

Senideok: gure bizitzan zehar beti argi eta garbi jokatu ez dogulako, Jaunari eta lagunurkoei parkamena eskatu deiegun.

1. Irakurgaia: Is 58, 7-10

Gose danari jaten emon, eta txiroei laguntzen badeutsazu, zure egite onak eguzkiak lez argi egingo dau.

2. Irakurgaia: 1 Ko 2, 1-5

Gure sinismena ez da giza-jakindurian oinarritzen, Jesukristoren gurutzean baino.

Ebanjelioa: Mt 5, 13-16

«Zuek zarie munduaren argia... Bego biztuta zuen argia gizonen aurrean, zuen egite onak ikusi daiezan, eta zeruetan dagoen zuen aita goratu daien». (Mt 5, 14-16)

Homilia

(Vatikano Kontzilioko «Lumen Gentium» konstituziotik ideak hartuta. 35. zenbakian)

Laikoak munduaren erdian Kristoren argi.

Kristok, bere Aitaren erreinua bere bizitza jator eta bere hitzaren indarrez hotsegin eban...

Eta Jesus zerura igon eta gero, Elizak hartu dau Kristoren lana.

Baina Eliza hori ez dabe osotzen gotzain eta abadeak bakarrik, baita laikoak ere.

Nortzuk dira laikoak?.

Kontzilioak erantzuten dau: Kristau fededun guztiak, gotzain, abade eta erlijiosoak izan ezik. (Lumen Gentium 31).

Jaungoikoak aukeratu ditu laikoak euren eguneroko bizitzan, etxean eta gizartean, Ebanjelioaren argi eta indar izan daitezcan. Sinismenean sendo eta itxaropenean alai, laikoak Jaungoikoaren seme-alabak lez bizi behar dabe, lur honetako bizitza ondo aprobetxatuz, geroko zorionaren itxaropenean fedez beterik bizi daitezcan.

Baina euren fedea ez dabe arimaren barruan gordeta euki behar. Laikoak euren bizitzako une guztietan munduko argi dirala erakutsi behar dabe, mundu honetako injustizia eta gaiztakerien aurka ahalegin guztiaz jokatzuz.

Laikoak, sinisten daben legera bizi badira, danok itxaroten dogun betiko bizitza zoriontsuaren testigu izatera heltzen dira. Eta laikoen testigantza honek munduaren aurrean indar berezia dauka, bada, abadeak ez izanik, Jaungoikoaren erreinua, euren bizitza zuzenaren bidez, mundutarren artean zabaltzen dabe.

Laikoen bizitza hau sakramentu berezi baten bidez santu egina izan da: ezkontzako sakramentuaz. Familiaren barruan, benetan kristau legera bizi badira, ezkonduen etxea kristau-eskola bizia izango da, eta onbide guztien iturria.

Ezkontideak euren bokazino berezia dauke, hau da: alkarrentzat eta euren seme-alabentzat fedearen eta Kristoren maitasunaren testigu (lekuko) izatea.

Kristau familiak, euren arteko maitasun, bake eta zorionaren bidez, oso goraki aitortzen dabe Jaungoikoaren erreinua lur honetara etorri dala, eta bizitza honen ondoren zeruetan betiko zorionaren itxaropenean bizi dirala.

Honan laikoak oker bidetik dabilzanentzat bide-erakusle dira, eta egiaren bila dabilzanentzat munduaren argi.

Beraz, laikoak, euren eguneroko lanetan ere, euren inguruan Kristoren Barri Ona zabaltzeko ardura hartu behar dabe, eta elizako lanetan, bakoitzak ahal dauan neurrian, abadeei lagun beiee. Honan danok, gotzain, abade eta laikoak batera lan eginik, Jaungoikoaren Erreinua mundu honetan zabaldu eta hazi daiten.

Honetarako laikoak erlijino jakindurian sakondu, eta Jaungoikoari Barri Ona zabaltzeko indarra eten barik eskatu behar deutsie. Hitz gitxitan: laikoak, Kristoren antzera, hitzez, baina batez ere euren bizitza zuzenez, munduaren aurrean, Kristoren argi eta testigu (lekuko) izan behar dabe.

6 Domekea. Urtean zehar.

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Lege Zaharreko aginduak eta Lege barrikoak, gaurko ebanjelioan Jesusek alkartuko ditu.

Itun Zaharreko Moisesen legeak erdi-betekoak ziran; azalari gehiago mamiarri baino begiratzen eutsoenak.

Jesusen Itun barriko legeak, ostera, oso-osokoak dira, gizona kanpo eta barrutik hartzen dabenak.

Itun Zaharreko legeak bildurra eben oinarri.

Itun Barriko Jesusen legeak, ostera, maitasun betea dabe eusgarri.

1. Irakurgaia: Sir 15, 16-21

Bide bi ditu gizonak bere aukeran: biziarena eta heriotzarena. Jainkoak gure egite guztiak onak eta okerrak ikusten ditu.

2. Irakurgaia: 1 Kor 2, 6-10

Hau da egiazko Jakinduria: Jesus gurutzean josia fedez onartzea, eta honan betiko bizia eskuratzea.

Ebanjelioa: Mt 5, 38-48

*«Entzuna dozue zelan dagoan agindua...
Nik, ostera, hau dinotsuet....» (Mt 5, 38. 43)*

Homilia

(Lehenengo zatia Vatikanoko Kontzilioko «Dei Verbum» Konstituziotik hartua.
Bigarren zatia B. Caballero-ren «Homilías» liburutik ideak hartuta).

Gaurko ebanjelioa hobeto ulertzeko Vatikanoko Kontzilioak dinoena jakin beharra da:

Jaungoikoak, bere maitasun neurribakoan, mundua salbatzea erabagi ebanean, Abraham gizon zintzoa aukeratu eban harekin Elkargoa egiteko. (Gen 15, 18). Gero, Moisesen bitartez, Israel Herria hartu eban, profeten bidez, mundua salbamen bidera ekarteko. Salbamen historia guzti hau Itun Zaharreko Liburu Santuetan idatzita gelditu da.

Itun Zaharreko eginkizunik gorengoena hau izan zan: Kristo gure Salbatzailearen etorrera aurretik preparatzea.

Itun Barriko liburuak, ostera, Ebanjelioak batez ere, salbamen hori zelan egin zan, erakusten deuskue.

Baina, Itun Zahar eta Barriko liburuak eginkizun bardina dabe, alegia: gizonei salbamen bidea erakustea... Itun Zaharrak erdi-ilunetan lez, Itun Barriak, eguzki argitan. (Dei Verbum, 14)

Lege Zaharreko Moisesen espiritua, eta Lege Barriko Jesusena.

Jesus ez zan Lege Zaharra desegitera eta kentzera etorri, hobetzera eta osotzera baino. «Ez uste izan Legea eta Profetak baztertzeraz etorri naganik; baztertzeraz ez, baina beteteraz etorri naz». (Mt 5, 17)

Lege Zaharrak agintzen eban: «Ez dozu inor hilgo».

Jesusek Lege Barriari agintzen dau, ez bakarrik, ez dozu inor hilgo, baita ere, ez dozu inorentzat bihotzean gorrotorik gordeko. Danakin bakean biziko zara, eta arerioak ere maite izango dituzu.

Lege Zaharrak agintzen eban: «Ez dozu ezkontza nahasterik egingo».

Jesusek Lege Barriari agintzen deusku: «Ez dozu zure auzokoaren emazterik izango... Emakumeari ezkontza nahasteko gogo txarrez begiratzen deutsanak, nahastu dau harekin ezkontza bere bihotzean»...

Lege Zaharrak kanpoko egiteei begiratzen eutsan, batez ere...

Lege Barriak bihotzeko asmo eta gogoak ere aztertzen ditu, «bihotzetik datoz-ta asmo txarrak: gizon-hilteak, ezkontza nahasteak, lizunkeriak, lapurretak, guzurrezko autormenak, biraoak». (Mt 15, 19)

Baina hau da, batez ere, Lege Zaharraren eta Barriaren alde handia: Moisesen Lege Zaharra bildurrean, batez ere, oinarritzen zan, eta morroi espiritua eukan... Lege Barriak, ostera, maitasuna dau eusgarri, eta gu Jaungoikoaren seme-alaba egiten gaitu.

Moisesen Lege Zaharreko aginduak harrizko oholetan egozan josiak; Jesusen Lege Barria gure bihotzetan dago idatzia, eta maitasun giro honetan ulertua izan behar da: «Maitatu egizu, Jauna, zure Jainkoa bihotz bihotzez... Eta maitatu egizu lagunurkoa zeure burua lez. Agindu bi honeetan dauka oinarri Lege osoak». (Mt 22, 37-40).

Guk, Jesusen jarraitzaile gareanok, Kristoren maitasun espiritu hau guretzat hartu, eta lege guztiak maitasun giro honetan ulertu eta bete behar ditugu, San Paulok Erromako kristauei idazten deuten lez: «Maite dauanak bete dau Legea. Maitatzea da Lege osoa betetea». (Er 13, 8-10)

7. Domekea. Urtean zehar

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Munduan zehar eta gure inguruan sarritan, bakearen ordezt, gorrotoa dala nagusi, zoritxarrez, ikusten dogu...

Jesusek gaurko ebanjelioan irakasten deuskun maitasun legea beteko bagendu, zorion eta bake ederrean biziko gintzatekez...

Eukaristia honetan danok alkar maitatzen eta bakean biziten ikasi daigula, Jaungoikoari eskatuko deusagu.

1. Irakurgaia. Leb 19, 1-2. 17-18

Jaunak, Moisesen bitartez, Israel Herriari esaten deutso: ez euki inorentzat bihotzean gorrotorik. Maite egizu lagunurkoa zeure burua lez.

2. Irakurgaia. 1 Kor 3, 16-23

Kristauok Jaungoikoaren etxe gara. Etxe hori garbi gorde daigun. Ez izan harroak, apalak baino. Gu Kristorenak gara, eta Kristo Jaungoikoarena.

Ebanjelioa. Mt 5, 38-48

«Maite egizuez zuen arerioak; egin on gorroto deusueénei, eta egin otoitz erasoten zaitueenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme-alaba izan zaitezen... Izan zaitetze, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona dan lez.» (Mt 5, 44-48)

Homilia

(Latin-Ameriketako gotzainek euren III Bileran kristau herriari egindako Mezua. Ecclesia 1979. 235-239 orr.)

Batzar honetan guk, Latin-Ameriketako gotzainok, geure buruei egiten deutsegun lehenengo itauna hau da: Gu, Elizaren artzain gareanok, Kristoren Ebanjelioak eskatzen dauan legera bizi ete gara?.

Kristoren Ebanjelioak alkar maitatzea eskatzen dau, baina guk, kristauok, Jesusen lege hau ez dogu beti behar dan lez bete. Egia da, badireala gure artean, isilean sakrifizio handiak eginez, lagunurkoari laguntzen deusienak, baita gizon-emakume santuak euren eguneroko bizitza danei on eginez emoten dabenak... Baina oraindik Ebanjelioak eskatzen dauan lez ez gara oso-osoan eta bete-betean bizi, eta honegatik Jaungoikoari eta gure senideei parkamena eskatu beharrean gagoz...

Pekatoriak gara, eta gure indarrakaz ezin dogu ezer egin... Baina gure oinarria Kristo da; Kristo hila, baina hirugarren egunean biztua.

Eta Kristoren laguntzan oinarriturik, lan egin gura dogu, gizon eta emakume guztien eskubideak errespetatuak izan daitezcan, eta dirua, sexua eta agintekeria gure gizartean nagusi izan ez daitezcan.

Gure artean, gogorkeria, zapalketa eta armen indarren gainetik, maitasunak izan behar dau nagusi... Mundu zabalean eta gure inguruan maitasunaren indarra zabaldu behar dogu... Badakigu batzuek esango dabela: «Maitasuna predikatuz, ez goaz urruti»... Baina historiari begiratuz, autortu beharra da indarkerian jasotako aginteak azkenean hondatuak izan direala, eta giza-eskubideak errespetatzen ez dabezan estatuak ez dabela irauten.

Guk Jesusek esandakoan sinisten dogu: «Hau da Nire agindua: Maite daizuela alkar, Nik maite zaituedan lez». (Jn 15, 12).

Guk, Latin-Ameriketara bizi gareanok, danakin bakean bizi gura dogu, gure kultura zaindu, eta gure ekonomia eta nortasuna indartu gura ditugu... Baina gure aberriak beste inoren satelite izaterik ez dogu gura.

Maitasunaren indarrak eskatzen dau, Latin-Ameriketara bizi garean guztiok, gure arteko haserre zaharrak bazterturik, anaitasun eta bakean bizitea... Parkatzea baino ez da gauza ederragorik... Parkatzen ez dakiena, ez da parkatua izango. (Mt 6, 12)

Bakea danok gura dogu, baina egiazko bakea ekarteko lau gauza behar dira: justizia, egia, maitasuna eta askatasuna.

- Justizia.** Zapalketak hasarrea sortzen dabe, hasarreak gerra, eta gerratik datoz hondamen guztiak. Justizia barik ez dago bakerik.
- Egia.** Guzurreta eta azpikeria nagusi diran lekuan ustela eta zikina sortuko dira. Guzurrak ilunpeak maite ditu, egiak argia.
- Maitasuna.** Maitasunatik dator alkar parkatzea, eta parkamenetik bakea. Gorrotoak dana hondatzen dau, eta maitasunak dana osatzen.
- Askatasuna.** Gizona ez da zigorrez heziten dan aberea. Jaungoikoak gizona aske-libre egin dau, eta pentsatzeko eta egiteko askatasuna kentzen badeutsazu, abereen pareko egiten dozu... Aberea zigorrez heziten da, gizona borondatez, eta borondatea librea da. Maitasuna da Kristoren indarra. Maitasunean sinisten ez dauanak, ez dau Kristogan ere sinisten.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoa gure Aita ona da, eta Berak zaintzen bagaitu, ez dogu bizitza honetan ezeren eta inoren bildurrik izan behar. Jaungoiko gure Aita bihotz bihotzez maite daigun, eta geure bizitzako estualdian Berak lagunduko deusku.

1. IRAKURGAIA: Is 49, 14-15

Jaungoiko gure Aita onak gu, geure aitak eta amak baino gehiago maite gaitu.

2. IRAKURGAIA: Jaungoikoaren aurrean zintzo eta zuzen jokatu daigun, eta gizakien eritxiakaitik ardura gitxi.

EBANJELIOA: Mt 6, 24-34

"EZIN ZARIE JAUNGOIKOAREN ETA DIRUAREN MORROI IZAN... EZ KEZKATU BIZITEKO ZER JAN ETA EDANGO" (Mt 6, 14-15)

H O M I L I A

=====

Jesusek ez deusku esaten: ezin zarie diruaren jabe izan, diruaren morroi baino.

Eta nor da diruaren morroi eta ez jabe?.

Diruaren gose-egarrion bizi dana. Dirua egitea baino beste amesik ez daukana. Diruan esperantza osoa jarten dauana. Diruak zoriontsu egingo dauala, uste dauana...

Eta zergaitik ezin da diruaren eta Jaungoikoaren morroi izan?

Holakoan bihotzean, diruz betean, Jainkoarentzat lekurik aurkitzen ez dalako...

Eta zergaitik diru-goseak hainbeste kalte?.

Dirua egiteko negozio zikinak, tratu okerrak, injustiziak, zapalketak, guzurak eta jauntxokeriak egiten diralako... Eta dirua egin eta gero harrokeria, handikeria, bihotz gogorkeria, hasarreak eta familien arteko eztabaidak ere sortzen diralako...

Dirua ugari daukanak ez dau Jaungoikoaren beharrik sentitzen. Dirua da holakoan jainko-barria, idoloa...

"Ez ibili kezkatan, esanez; zer jango dogu, edo zer edango, edo zer jantziko?" (Mt 6, 31)

Ez deusku Jesusek esaten lanik ez egiteko. Beste hau baino: ez zaiteze gehiegi estutu... Ahalegindu bai. Arduratu ere bai. Baina ez larritasunez itota bizi.

Biziteko lan egin behar dogu... Lanik egin gura ez dauanak, ez daijala jan, dinosku Paulo apostoluak... Baina eguneroko ogia irabazteko lan egin ondoren, gure geroa Jaungoikoaren eskuetan itxi daigun, eta Berak lagunduko deusku...

Adibide bat ulertzeko: geisotzen zareanean osagileari deitu eiozu, eta gero medikuak emondako erremedioak on egin deizula Jaungoikoari eskatu eiozu...

Bestaldetik, Jaungoikoak lagunduko ez baleutsu lez zeure burua estutuz, zer aurreratzen dozu?... Zeruko zure Aitak badaki zelako larrialdian aurkitzen zanean, eta zuk zeure aldetik ahal dozuna egin ondoren, zure etorkizuna Jaunaren eskuetan itxi eizu...

"Bilatu eizue lehenengo Jaungoikoaren erreinua,
eta beste horreek gehigarri emongo jatsuez".

Dana dala, esan gura deusku Jesusek: gizon-emakume guztientzat arazorik nagusia eta beste guztien gainerikoa, zeruko erreinuaren jabe izatea da, hau da: zerua eskuratzea... Eta honen ondoan bizitza honetako beste arazo guztiak bigarren edo hirugarren mailakoak dira.

Baina halan da ^{be}ere, Jainkoaren erreinuaren atzetik bagabiltza bizitza honetan ^{be}ere zer jan eta zegaz jantzi Jaunak emongo deusku.

"Nahiko dau egun bakoitzak bere nekea" (Mt 6, 34).

Jesusek hau irakatsi gura deusku: bihar zer jazo daitekeen bilurragaitik, zergaitik handiago eta nekezago egin egun bakoitzak berekin dakarren nekea?

Gaur arte ere biziteko behar doguna euki dogu, eta gaurtik aurrera ere, Jaunaren laguntzaz, eukiko dogula itxaro dogu...

Paulo apostoluak bere lagun Timoteori dinotso: "Zer jan eta zegaz jantzi behin euki ezkerro, nahiko dogu. Aberats izan gura dabenak mila tentaldietan sartzen dira, eta diru-gose zoro eta kaltegarriak erabilten ditu. Izan ere, diru-gosea da gatx guztien sustarra" (1 Tim 6, 9-10)

SARRERAKO OHARFENA

Senideok:

Gure sinismenak gitxi balio dau, egite onik ez badogu...

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: "Niri Jauna, Jauna, deika dabiltzanak, ez dira guztiak zeruetako erreinuan sartuko; zeruan dagoan nire Aitaren borondatea egiten dabenak baino".

Sinismena egite onakaz batera, kristinau zintzoa da.

Sinismena bai, baina egite onik ez, fededun ustela.

1. IRAKURGAIA: Dt 11,18. 26-28

Bide bi ditu gizonak aukeran: bedeinkapen bidea Jaunaren legea beteten badau, Eta madarikapen bidea, bide okerretik badabil.

2. IRAKURGAIA: Kor 3, 21-25. 28

Legeak ez gaitu salbatzen. Jesusengan sinisteak adiskidetzen gaitu Jaungoikoagaz.

EBANJELIOA: Mt 7, 21-27

"NIRI, JAUNA, JAUNA, DEIKA DABILTZANAK, EZ DIRA GUZTIAK SARTUKO ZERUETAKO ERREINUAN; ZERUAN DAGOAN NIRE AITAREN BORONDATEA EGITEN DABENAK BAINO" (Mt 7, 21)

H O M I L I A

=====

(Joan Krisostomo santuaren 25. homilian oinarritua)

"Niri, Jauna, Jauna, deika dabiltzanak ez dira guztiak zeruetako erreinuan sartuko; zeruan dagoan nire Aitaren borondatea egiten dabenak baino".

Jesusek esan gura deusku: otoitzik ederrenak ere, egite onik ez badogu, ez deuskula zeruko aterik zabalduko. Sinismena bai, baina egite onik ez badogu, Jaunari esango deusagu: Jauna, Jauna, ez ete genduzan, bada, zure izenean mirariak egin?. Eta Jaunak erantzungo deusku: alde nigandik, gaizkinok, ez zaituet ezagutzen!.

Hau da egin eginean ere, Paulo apostoluak irakatsitakoa: "Mendiak aldatzeko ainako sinismena eukiarren, maitasunik ez badot, ez naz ezer" (1 Kor 13,2)

Eta Jesusek Berak ere ikasleei esan eutsen: "Ez zaiteze poztu deabruak menperatu dozuezalako; poztu zaiteze zuen izenak zeruetan idatzita dagozalako baino" (Lk 10, 20).

"Nire berba honeek entzuten eta beteten dituana, bere etxea hatx gainean eregi eban gizon zentzundunaren antzeko da" (Mt 7, 24)

Jaunaren borondatea egiten dauanak gerokoan zerua izango dau bere egite onen sari. Baina, ez gerokoan bakarrik, lur honetan ere gizon zintzo eta zuzenak bake eta baretasun gozoa izango dau.

"Egin eban euria, etorri ziran uriolak, atera eban haizea, eta jo eban etxe ha; baina ez zan jausi" (Mt 7, 25)

Hau da : mundu honetako gaiztakeriak, azpikeriak, gorrotoak, burrukak eta heriotzak ez deustie gizon zintzoari kalterik egiten, Jaungoikoaren hatx gainean oinarriturik dagoalako.

Jaungoikoa gure lagun badogu, eta zeruko bidetik zuzen bagabiltza nork edo zerk ikaratu behar gaitu?.

Dirua kentzen deuskuela?. Jesusek askotan irakatsi deusku diru gosearen kalteak...

Kartzelan sartzen gaituela?. Burdinezko kateak baino, gure grina gaiztoen kateak askoz kaltegarriagoak dira...

Arerioak kalteren bat egin deuskula?. Kalte hori pazientziaz eroaten, eta arerioari parkatzen badeutsagu, zeruan Jaungoikoaren eskutik sari eder bat hartuko dogu...

Eta Jesusek bere hitzaldia honan amaitzen dau:

"Nire hitz honeek entzun bai, baina beteten ez dituana, bere etxea hondar gainean eragi eban gizon burubakoaren antzeko da. Egin eban euria, etorri ziran uriolak, atera eban haizea, jo eban etxe ha, eta jausi egin zan; eta handia izan zan haren hondamena" (Mt 7, 26-27)

Jesusek benetan holako gizonari "burubakoa" deitzen deutso, bada, gorrotoaren, lizunkeriararen eta jan-edankeriaren gainean bere bizitza eragiten dauanak, bere buruari kalte egiten deutso, eta ez beste munduan bakarrik, baita bizitza honetan ere...

Jaungoiko ahalguztidunak buruko zentzun ona emon deigula danoi, bide zuzena zein dan ikusi, bide horretatik ibili, eta gero betiko zoriona eskuratzeko... Berari aintza eta indarra, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Bihotzez bat eginik, anaitasun ederrean, Eukaristia ospatzera batu gara Jaungoikoaren izenean...

Domeka honetan Mateo zergalaria, fama txarreko gizona, agertuko jaku, bere zerga-mahaia itxi, eta Jesusekin joaten...

Ez naz zintzoei dei egietra etorri, pekatariei baino, esango deusku Jesusek...

1. IRAKURGAIA: Os 6, 3-8

Azaleko erlejinoak gitxi balio dau, dinosku Oseas profetak, Jaungoikoa bihotzez maitatzen ez badogu.

2. IRAKURGAIA: Erm 4, 18-25

Abraham gizon zintzoak, uste guztien kontra, Jaungoikoari sinistu eutsan, eta bedeinkatua izan zan.

EBANJELIOA: Mt 9, 9-13

"JESUSEK MATEO IZENENKO GIZON BAT ZERGATEGIAN JESARRITA IKUSI EBAN, ETA ESAN EUTSAN: JARRAITU EGIDAZU. ETA ZUTUNDURIK HAREK JARRAITU EGIN EUTSAN" (Mt 9, 9)

H O M I L I A

=====

(San Joan Krisostomoren 24. homilian oinarritua)

"Jesusek bidez joala, Mateo eritxon gizon bat ikusi eban zergalari mahaian jesarrita, eta esan eutsan: jarraitu egidazu".

Zergalarien bizibidea guztiz txarto ikusia zan judeguen artean. Zergalariak, Erromako legeak babesturik, lapurreta eta injustizia handiak egiten ebezan, herritarrei neurri gaineko zergak ordainduazoz... Horregaitik zergalariak judeguen begietan higuigarri eta gorrotagarriak ziran.

Beste apostoluak arrantzale ziran, ogibide pobre baina esku garbikoa. Mateoren lana, ostera, lotsagarria zan, bere bizitza osoa zinkintzen ebana... Baina Jesusek horregaitik ez eban atzera egin, eta ez zan lotsatu halako fama txarreko zergalaria bere apostoluen artean hartzeko.

Eta zerga-mahaian jesarrita egoanari esan eutsan: zatoz neugaz. Eta Mateo, berehala zutundu, eta Jesusekin joan zan... Irabazi handiko mahaia itxi eban Mateok Jesus maisu pobrearekin joateko...

"Zergaitik jaten dau zuen maisuak zergalari eta pekatariekin?"

Mateok bere lagunei azken-agurra egiteko, Jesusekin batera, beste zergalariak ere bere etxera konbidatu zituan janaldi oparo bat egitera... Eta Jesus pekatari haren etxera bai pozik joan zala, medikua geixoaren etxera joaten dan lez.

Horregaitik Jesusek fariseuen artean "tripontzi eta zurrutari" fama txarra eukan, pekatarien laguna zalako, eta honakoekin jaten ebalako (Mt 11, 19)

Baina Jesusek izen-baltz hori ontzat hartzen eban galduta ebilen ardi bat artaldera ekarteko, berak sarri esaten ebanez: Osasundunak ez, geixo dagozanak dauke osagilearen beharra...

"Ez naz zintzoei deitzera etorri, pekatarietako baina" (Mt 9, 13)

Esan gura dau Jesusek: Begira zenbat maite dodazan pekatariak, eurokaitik zerua itxi eta lurrera etorri naz, ez pekatariak beti bide okerretik ibili daitezcan, bihotz barritu eta salbau daitezcan baina... Eta pekatarien artean danok gagoz sartuta, San Paulok dinoanez: "Guztiok egin dogu pekatu, eta Jaungoikoaren adiskidetasuna galdu dogu" (Erm 3,23) .

"Opariak ez, baina errukia gura dot nik" (Mt 9, 13)

Fariseuak santutasuna azal eta itxurazko gauzetan ipinten eben, barruko gogo eta espirituari begiratu barik. Legeak eskatutako eginkizunak, zaharrengandik hartutako ohiturak eta abar, zehatz eta mehatz gordeten ebezan, baina barruko bizitasun barik. Horregaitik gauza guzti horreek hutsalak eta balio bakoak ziran; orri mardulak, bai, baina frutu bako pikondoa lez...

Eskuak garbitzea ona da, baina bihotzak garbitzea, hobe.

Otoitzak, barauak eta limosnak onak dira, baina bihotzeko damu barik, gitxi balio dabe.

Ona Jaunari opariak egitea, baina errukia eta parkamena, hobe.

11. domekea

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jesusen aginduz domeketan batzen gara kristauok eukaristia ospatzera. Abadea da batzar honen buru eta arduradun. Abadea da Kristoren ordezkoko...

Jesusek, gaurko ebanjelioan ikusiko dogunez, hamabi ikasle aukeratu zituan zeruetako erreinuaren barri ona zabaltzeko...

Senideok: eukaristia santu honen hasieran gure bihotzak garbitu daiguzan Jaunari parkamena eskatuz.

1. Irakurgaia. Ex 19, 2-6

Jaungoikoak beste herri guztien artean Israel aukeratu eban bere herri maitea izateko.

2. Irakurgaia. Erm 5, 5-11

Gu pekatari ginala, Kristo gure alde hil zan, gu Jainkoarekin adiskidetzeko.

Ebanjelioa. Mt 9, 36-38; 10, 1-8

«Jesusek hamabi ikasleei dei egin eutsen... Hotsegiteko: hur da zeruetako erreinua» (Mt 10, 1-7).

Homilia

(Apaizgo edo abade-izateari buruz teologia apur bat Vatikanoko Kontziliotik hartuta)

Bateoaren bidez, modu batera edo bestera, danok gara abade. Danok Kristo abade Nagusiaren kide gara. Baina abade-izate honek, halan esateko, adar bi ditu: Bata kristau herri guztiaren abade-izate arrunta.

Bestea abade ministeriala, guk gaur «abade» esaten deusaguna.

Bi abade-izate honeek, bata bestearentzat eginak izanik ere, bere izatez ezberdinak dira. Abadego ministeriala Jainkoaren herria zuzendu, zaindu, eukaristia ospatu, eta kristau taldearen buru izateko Kristok sortua da... (Lumen Gentium)

Kristok bere ikasleen artean hamabi apostolu aukeratu zituan lurbira guztian Jainkoaren barri ona zabaltzeko eien... Apostoluen ondorengoak dira gaurko gotzainak, eta abadeak dira gotzainen laguntzaileak.

(Roger Etchegaray (Iparralde) Ezpeletako Jaun apezpikuaren otoitza Jaunari abade bokazino barriak eskatzeko) («Herria» astekariatik hartua).

Errez esaten genduan, eta errezegi uste genduan gure artean abadeak beti izango zirala. Ziur-ziur ginan Jainkoak beti eliz-gizonak bialduko euskuzala, antzinatean basamortuan Israel Herriari Jaunak zerutik «mana» bialdu eutsen lez...

Baina azken urte honeetan abadeak gure artean gitxitzen hasi jakuzala ikustean kristau batzuk larritzen hasi dira. Beste askori, ostera, abadeen faltagatik ardura gitxi...

Jauna, ez eiguzula abade barririk bialdu guk abadeen faltarik sentitzen ez dogun bitartean, abade barrien gose-egarririk ez dogun bitartean...

Abadeak eskatzeko Jainkoari zuzendutako gure eskariak ez dira nahiko gartsuak, ez dira atertu bakoak...

Abadeak zertarako behar ditugun?.

Kristau herria eragiteko, Jesusen barri ona hotsegiteko, Jainkoaren parkamena eskuratzeko, eukaristia ospatzeko, gure azken orduan zeruko ateak zabaltzeko...

Abade barik gure kristautasuna laster makaldu eta galduko da...

Abade barriak sortzeko egin beharra guztiona da. Bokazino barriei kristau guztiok lagundu behar deutsegu: abade, irakasle, katekista eta kristau herri osoak, gehiago otoitz eginez, altareko bidea hartu daben gazteei gehiago lagunduz, abade izatea aintza handitan hartuz...

Egunen batean bai pozik gure eliza eta herrietan abade barriak ikusiko geunkezala, zerurako bidea erakusteko, Jesus gure salbatzailea hobeto ezagutu eta maitatzeko, zerura joaten laguntzeko...

Jauna, halan eskatzen deutsugu, halan gura dogu, halan zure bihotz onetik itxaroten dogu...

Badakigu, Jauna, Zuk zure artaldea ez dozula artzain barik itxiko. Eta guk otoitzean eta ahaleginetan irauten badogu, Zuk, Jauna, abade barriak bialduko deuskuzula... Halan bedi.

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Bizi garean mundu honetan, argiak eta ilunpeak, onak eta gaiztoak nahasturik ikusten ditugu...

Kristogan sinisten dogunok, mundu hobe eta garbiago bat eregiten lan egin behar dogu... Beti eta guztiei on egiten ez gaitzean aspertu. Lan eder honetan Jaunak lagunduko deusku...

1. IRAKURGAIA: Jrm 20, 10-13

Jeremias profetak arerio gogorrek bere inguruan ikusten ditu, baina ez dau bildurrik... Jauna dauka zaintzaile.

2. IRAKURGAIA: Erm 5, 12-15

Adanek, Jaunaren esana ez eginez, gizaki guztiak hondatu zituan. Jesukristok, Adanek hondatutakoa, irabazi deusku, eta gainezka irabazi ere

EBANJELIOA: Mt 10, 26-33

"EZ IZAN BILDURRIK GORPUTZA HILTEN DABENEI, BAINA ARIMA EZIN HIL DAIKENEI; IZAN BILDUR GORPUTZ-ARIMAK SU-LEIZEAN GALDU DAIKEZANEI" (Mt 10,28)

H O M I L I A

=====

(Euskal Herriko gotzainak 1986. urteko garizuman egindako eskutitzatik hartuta. "Sinesterik ezak zer?".)

GURE GIZARTEKO SASI-JAUNGOIKOAK

DIRUA.

Gure arriskua ez dago diruaren jabe izatean, dirua gure jabe izatean baino...

Dirua gauza baliotsua da alkarren artean banatzen danean... Baina Jaungoikoak dei egiten deusku ez gaitzezala dirua pilatzen ibili, txiro eta ezeukien artean banatzen baino. "Ez pilatu ondasunik lurrean... Zeruan, bai, pilatu zeuon ondasuna... Zure ondasuna dagoan tokian, zure bihotza ere hantxe egongo da eta" (Mt 6, 19-21)

SEXUA.

Berez gizakiaren aberastasun handienetako bat da. Berari eskerrak, gizonak eta emakumeak alkarren maitasunean bat egiten dabe, eta gizaki barri bat mundura ekarten... Baina gure tentaldia izaten da, sexualtasuna geure egoismorako bakarrik ipintzea, egiazko maitasunaren zerbitzurako erabili barik.

AGINTEA.

Menpekoen zerbitzurako erabilten danean, gizartearen ondasun bat da... Baina aginte hori menpekoak zapaltzeko edo norbera aberas-teko erabilten danean, hor dago gaiztakeria.

IDOLATRI TENTALDI HONEEK ZELAN MENPERATU?.

Sasi-jaungoiko honeek menperatzea ez da gauza erreza. Gure ondo-bizi-gureak sasi-jaungoiko honeek, egiazko Jaungoikoaren ordezt, eurak adoratzera erroten gaitue. Kanpotik eta barrutik tentaldi honeetan murgilduta bizi gara, eta ez jausteko, Kristoren ikasle gareanok, beste heziketa eta biziera barri batzuk hartu behar ditugu.

KONFIANTZARAKO HEZIKETA.

Mundu hau bizileku hobea bihurtzen ahalegintzea, premiñean aurkitzen danari laguntza emotea, besteengan gure konfiantza ipintea, eta honelako beste onbideak...federako oinarri sendoak dira.

DOANTASUNERAKO HEZIKETA. (Gratis emateko heziketa)

Eta laguntza emon behar dogu, mesedeak egin behar ditugu, gure egintza onen ordezt ezertxo ere itxaron barik, ezer ordezt eskatu barik.

SOLIDARITZARAKO HEZIKETA.

Gure kontsumo bizitzari begiratur, eta kapritxozko gauzetan, beharrezko ez diranetan, zeinbat gastatzen dogun, aztertuz, bihotz eta eskuzabalak izan gaitzean, gu baino pobreagoak diranakaz daukagunetik banatur.

JAUNGOIKOA GURE ITXAROPEN.

Jaungoikoak emoten deusku maitasuna nagusi aterako dan segurantz. Orain mundu honetan "zalantza artean " gabilta egiazko Jaungoikoaren bila. Baina egun batean Jaungoikoa "bera dan lez ikusiko dogu, eta gure begietako negar-arpuluak legortuko ditu" (Apk 21, 4)

Ez izan bildurrik, Jauna gugaz dago, eta Berak lagunduko deusku.

(A) 13. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Mundu honetan bizi garan bitartean, on egiten ez gaitzean aspertu...
Senideari egindako mesederik txikienak ere, bere saria izango dau zeruetako erreinuan.

Gure eguneroko lanak Jaunari eskeinduz goazen aurrera Jesusen gurutzearen atzetik. Berak sarituko ditu zeruetan gure neke eta izerdiak...

1. IRAKURGAIA. 2 Erg 4,8-11.14-16a

Sunam-go emakume batek Eliseo profeta bere etxean hartzen dau...
Jaunak egite on hau, seme bat emonaz, saritu egiten deutso.

2. IRAKURGAIA. Erm 6,3-4.8-11

Kristo hila izan zan legez, baina gero biztua, gu ere pekatuarentzat hilak izan behar dogu, Jaungoikoarentzat bizi gaitzean.

EBANJELIOA. Mt 10,37-42

"NIRE IKASLE DALAKO, TXIKI HONEETAKO BATI BASO BAT UR HOTZ EDATEKO EMOTEN DEUTSANAK, BENETAN DINTSUT, EZ DAU GALDUKO BERE SARIA" (Mt 10, 42).

H O M I L I A
=====

Gaurko lehenengo irakurgaia eta ebanjelioa alkarrekin lotuta dagoz.
Bata bestearen argipena da.

Sunam-go emakumeak, Eliseo profeta pozik hartzen eban bere etxean, Jaunaren gizona bidez handik igaroten zan guztietan, baita bihotz onez jaten emon, eta lo egiteko ohea eskeindu ere...

Emakume ha aberatsa zan, baina nahigabe handi bat eukan bihotzean: ez eukan seme-alabarik, ezta umerik eukiteko itxarpenik ere, bere senarra zaharra zalako...

Jaungoikoak emakume haren bihotz ona, seme bat emonaz, saritu eban...
Jesusek gaurko ebanjelioan gehiago ere erakusten deusku: "Nire ikasle dalako, txiki honeetako bati, baso bat ur hotz emoten deutsana, benetan dinotsuet, ez dau galduko bere saria". (Mt 10,42).

Baso bat ur emotea ez da, benetan, neke handia, baina hala ere bere saria hartuko dau Jaunaren erreinuan. Mesederik txikiena ere, Jaunagatik egiten danean, handi egiten da Jaungoikoaren begietan...

San Mateo ebanjelariak "talentuen" parabolaren dino, etxeko jaunak morroi langileari esango deutsala: "Gitxian zintzo izan zaralako, askoren buru egingo zaitut. Sartu zaitez zure nagusiaren pozetan. (Mt 5,21). Gauzarik txikiena, gogo onak egiten dau handi.

Aita Arrupe-rekin alkarrizketa.

(Pedro Arrupe Bilbon jaio 1907. Jesusen Lagundiko buruzagi 1965. Erroman hil 1991)

- Pentsatu egizu, Aita Arrupe, kalean zehar zabilzala, gazte batek itaun hau egiten deusula: Zer egin behar dot mundu triste honetan pozik biziteko. Zer erantzungo zeunskio?.

- Nik esango neuskio, pozik biziteko beharrezkoena kontzientzia garbia dala... Eta gazte hori eskolan ikasten dabilena balitz, baita esango neuskio, estudianten ahalegintzeko, hori dalako orain bere egin beharra... Eta gero zer karrera edo ogibide hartuko dauan ere ondo pentsatzeko... Diru asko irabaztean ez dagoela benetako zoriona, on asko egitean baino. On egitearen poza ez dala diruaz erosten...

- Eta itaunduten deusuna ume balitz?.

- Gaurko umea, biharko gizon edo emakumea da, eta ume horri esango neuskio, aitak eta amak umea asko maite dabela, eta gurasoen kontseju onak bihotz onez hartzeko, gero probetxuzko gizon-emakume jator eta ona izatera heldu daiten.

- Eta itaun hori familiako ama batek sukaldean egingo baleuskizu?.

- Ama horri nik esango neuskio, lehenengo bere etxeko lanak ondo beteteko... Gero bere senarra eta seme-alabak etxean pozik egon daitezten ahaleginteko... Bere eguneroko lana giza-begietan txikia eta apala bada ere, Jaungoikoaren begietan handia dala, Jaunak berak esan eban legez: baso bat ur emondakoak ere, bere saria hartuko dauala zeruetan.

- Eta lantegian lan egiten dauan etxeko aita batek itaun hori egingo baleuskizu, zer erantzungo zeunskio?.

- Nik esango neuskio, lantegiko eguneroko lana neketsua eta aspergarria bada ere, lanaren bidez bere etxekoentzat biziteko behar dabena irabazten dauala... Eta lana dala Jaungoikoak gizonari emon deusan eguneroko kurutzeara... Eta kurutzearen bidez zerua irabazten dala.

- Eta itaun hori Aita Santuak egingo baleuskizu?.

- Ez neuskio ezer erantzungo. Isildu egingo nintzateke. Zenbat eta kargua gorago, nekeak ere astunago. Jaunak indartu daijala bere egin behar astunak ondo beteteko.

Eta guztiai esnago neuskie, Jauna oso aberatsa dala. Haren ontasunak ez dauakala bazterrik. Jaunak danontzat, handi eta txikientzat, daukala zeruan gordeta sari handi, betea eta ugaria.

("Hambre de pan y Ebanjelio" liburutik hartuta)

(A) 14. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku:Ikasi egizu Nigandik, bihotz biguna naz, eta apala...

Jesusen ebanjelioa onartzeko, harrokeriak itxi, eta geure buruak beherratu egin behar doguz...

Bere burua ume txiki baten antzeko egiten dauana, hori izango da handiena zeruetako erreinuan...

1. IRAKURGAIA. Zak 9,9-10

Zakarias profetak esaten deusku, Mesias ez zala armadun errege ahaltsu bat izango, gizon apal eta humila baino.

2. IRAKURGAIA. Erm 8,9.11-23

Haragiaren menpean bizi dana galduko da. Kristoren Espirituaren bitetik dabilena, ostera, betiko biziko da.

EBANJELIOA. Mt 11,25-30.

"BEDEINKATUA ZU, AITA, GAUZA HONEEK JAKINTSUEI ETA BURUTSUEI GORDE, ETA JENDE TXIKIARI ERAKUTSI DEUTSAZUZALAKO... IKASI NIGANDIK, BIHOTZ BERA NAZ ETA APALA". (Mt 11,25,29)

H O M I L I A

=====

(Agustin Deunaren homilietatik hartuta. B.A.C. Verbum Vitae. Tom I)

Nor da harroa?, Itanduten dau Agustin Deunak.

Pekatarari dala ezagutu gura ez dauana... Norbere pekatuak ikusteko begiitsuak dituana...

Danok gara pekatari, jarraitzen dau esaten gotzain santu honek, gaurko ebanjelioko zati argituz... Ni, Jaungoikoak hala gura izan dau-eta, zuen gotzaina naz, baina hala ere pekatari nazala ezagutzen dot, eta gaurko eukaristia hasterakoan, nik ere zuokin batera, bularra joaz, Jaungoikoari neure pekatuen parkamena eskatu deustat, eta Jaunak bere erruki handian parkatuko deustazala, uste dot.

Eta gero jaunartze aurretik gure bihotzak garbitzeko "Gure Aita" otoitz egingo dogunean, nik ere zuokin batera, esango dot: "Parkatu, Jauna, gure zorrak, guk ere gure zordunei parkatzen deutsegun ezkerro". Bai, ni ere pekatari naz, eta Jaungoikoaren errukiaren beharrean nago.

Entzun egiozu San Joan ebanjeliari esaten: "Pekaturik ez daukagula esaten badogu, geure buruak engainatzen ditugu, eta ez dago egia guregan". (1 Jn 1,8)

Bai, norbere pekatuak ezagutzeko bihotzeko apaltasuna behar da.

Harroak ez dauka Jaungoikoaren parkamenik

Nor da harroa?, jarraitzen dau esaten Agustin Deunak.

Norbere burua besteen ganetik ipinten dauana. Besteak baino bera gehiago dala, uste dauana... Norbait harrotu daiteke, edo diruagatik, edo gorputzeko edertasunagatik, edo jakinduriagatik, edo baita ere beste edozer gauzagatik... Baina orain harrokeria mota bat jorratu gura neuke, eta hau da:

Ba dira harro batzuk, norbere pekatuaz ahaztuta, besteen hutsegiteei begira dagoenak... Besteen akatsak ikusteko begi zorrotza dauke, eta norbere pekatuentzatitsuak dira... Holakoak besteen pekatuak salatuz, norbere burua zuritu egiten dabela, uste dabe.

Adanek paradisuari Jaungoiko izateraino igon gura izan eban, eta bere harrokeriaz, guretzat dana galdu eban... Jaungoikoaren Semeak, ostera bere burua kurutzean hiltzeraino beheratu ebalako, guretzat betiko salbamena irabazi eban. Honegatik berak esan euskun: "Ikasi nigandik bihotz-biguna naz, eta apala". (Mt 11, 29).

Gizaki makalak garanok, ez daukagu harrotzeko biderik: egin dogun on guztia Jaungoikoak lagunduta egin dogu; eta egin dogun txarra, geure buruari bakarrik zor deutsagu.

Ez zaitezala harroa izan... Txikia eta ezereza zaralako, Jaungoikoari eskerrak emozuz... Aberatsak, jakintsuak eta handikiak harrokeriara, errez labanduten dira.

Zelan nik goratu apaltasunaren frutu onak?.

Honetarako Jesus beraren berbak ekarriko dodaz: "Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza guzti honeek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende apalei erakutsi deutsezuzalako". (Mt 11, 25).

Jaungoikoaren erreinuan "lehenengo asko, azkeneko izango dira; eta azkeneko asko, lehenengo". (Mk 13, 30). "Izan ere, bere burua goratzen dauana, beheratua izango da; eta bere burua beheratzen dauana, goratua". (Lk 14, 11).

(A) 15. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz).

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

"Ongi etorriak" danok Eukaristi-batzar honetara...

Gaurko ebanjelioan "ereilearen" parabola entzungo dogu...

Jaungoikoak gure arimetan ereindako haziak, ez dau beti frutu onik emon, arantza eta harri artean jausi dalako...

Gure bihotzeko lurra landu eta bigundu daigun, Jaunak ereindako haziak frutu ugari emon daian ...

1. IRAKURGAIA. Is 55,10-11

Jaungoikoaren hitza euriaren antzeko dala, dino Isaias profetak. Lur ganera jausten danean, lurra ernaldtu eta frutu ugari emoten dau.

2. IRAKURGAIA. Erm 8,18-23.

Izadi osoa, gizonaren pekatuagatik, ustelduta negarrez dago. Gu ere sufritzen gagoz, Kristo gure salbatzaileak noz gu zerura eroango itxaroten.

EBANJELIOA. Mt 13,1-23

"ATERA ZAN EREILEA EREITERA, ETA HAZI BATZUK BIDE BAZTERREAN JAUSI ZIRAN...BESTE BATZUK LEKU HARRITSU BATETAN...BESTE BATZUK ARANTZA ARTEAN...BESTE BATZUK LUR ONEAN. (Mt 13,4-8).

H O M I L I A

=====

("Verbum Vitae". A.A.C. II liburukian, "La parabola del sembrador").

Jesusek, ereilearen parabola honetan, Jaungoikoaren hitza gure bihotzetan zelan hartu behar dogun, erakutsi gura deusku...

Bide bazterrean, eta harri eta arantza artean jausi zan haziak, ez eban fruturik ekarri... Lur onean jausi zanak, ostera, frutu ugari emon eban... Jaunaren laguntzaz, antzinako Guraso Santuen hitzaldietan oinarriturik, parabola hau zatika argitzen hasi gaitzan.

1. "Hazi batzuk bide bazterrean jausi ziran, eta txoriak jan egin ebezan", (Mt 13,4)... "Gaiztoak kendu egiten deutsa bihotzean ereindakoa". (Mt 13,19).

Honeek dira, dino Joan Krisostomo Deunak, Jaunaren hitza entzun bai, baina gero euren bihotz gogorragatik, hazia galdu egiten dabenak.

Honelakoak ziran Jesusen entzule batzuk: "Jesusi entzun eta gero honela inoen: Deabrua dauka honek, burutik egina dago, zergatik entzuten deutsazue?" (Jn 10,19-20)

Eta San Bernardok dino: "Honelakoak bihotza gogortuta dauke. Jaungoikoari bizkarra emonda bizi dira. Ez dauke, ez Jaungoikoaren, ezta gizonen bildurrik".

2. "Beste hazi batzuk, lur gitxi egoan leku harritsu batetan jausi ziran... Eta eguzkia urten orduko, susterrik ez eukelako, igartu egin ziran". (Mt 13, 20-21)

San Gregorio Handiak honelakoakatik dino:

"Askok Jaunaren hitza pozik entzuten dabe, baita gero kristinau zintzoak izateko erabagiak hartu ere... Baina gero, aditutakoa praktikan jartzerakoan, lehenengo harrian tupust egin, eta lur joten dabe. Lur arinak dira, eta ez dauke sustarrik. Sentimentalak dira.

3. "Beste hazi batzuk arantz artean jausi ziran, eta arantzak ito egin ebezan". (Mt 13, 7). "Arantz artean ereindakoa munduko grinak eta aberastasunen lilurak, hitzaito egiten dabe". (Mt 13, 22).

Diru-goseak Jaunak ereindako hazia zelan itoten dauan, laugarren gizardian bizi izan zan Basilio Santuak, argi erakusten deusku:

"Ba dator zure etxe aberatsera, gizon pobre bat negarrez. Bere etxean goseak hiltzen dagozelako, bere semea esklabo lez, saldu beharrean aurkitzen da... Aita gaixoaren negarrak ez deutsu zuri bihotza biguntzen, eta zu aitarekin mutikoaren prezioa hasten zara diskutitzen... Aita bere errailetako seme maitea zuri saldu beharrean aurkitzen da, eta zuk mutila, animalia bat balitz lez, ahal dan eta preziorik merkeenean erosi gura dozu. Bestearen miseriaren bidez zu aberastu zara. Diru-goseak ez dau errukirik. Alde guztietan URREA ikusten dau.

4. Beste batzuk lur onean jausi ziran eta emon eben frutua. (Mt 13, 8)

Zeruen frutu ugari hartu gura badozu, dino San Gregorio Handiak, bizitza honetako nekeak pazientzia handiaz eroaten ikasi behar dozu. Mahatsa, ardaoa emoteko, dolarean zapaldu egin behar da. Garia ere lastotik garbitzeko jo egin behar da...

Munduko aberastasunak liluratu egingo zaitue, ez egizu zure burua engainatzen itxi... Zure grina makurrak gaiztakeriara bultz egingo deusue, ez egizu zure burua trokara bota...

Gizon zintzoaren bihotzeko lur onak, pazientziaz atxurtuta, eta Jaungoikoaren graziaz ongarrirituta, zeruetako erreinuan frutu ugari emongo dau. Hala bedi.

(A) 16. DOMEKEA. (Bizkaieraz).

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Lehen, gure herri eta inguruan, guztiok, edo ia guztiok, kristinau fededun ginan, baina gaurregun ez da horrela jazoten...

Guk, kristinau garanok, federik ez dauken artean biziten ikasi behar dogu...

Horretarako biltzen gara domeketan Eukaristia batzarre honetan: gure sinismena garbitu, sakondu eta indartzeko...

1. IRAKURGAIA. Jak 12,13.16-19

Jaungoikoa epaile zuzena da, eta gure pekatuak parkatuz erakusten deusku bere ontasunaren indarra.

2. IRAKURGAIA. Erm 8,26-27

Makalak gara gu, eta ez dakigu zelan eskatu, baina Espirituak irakasten deusku behar doguna Jaunari eskatzen.

EBANJELIOA. Mt 13,24-43

"ZERUETAKO ERREINUA, BERE SOLOAN HAZI ONA EREIN EBAN GIZONAREN ANTZEKOA DA... ARERIOAK GARI ARTEAN IRAKA (bedar txarra) ERREIN EBAN". (Mt 13,24-25).

H O M I L I A
=====

Euskal Herriko gotzainak, 1,988ko garizuman "pastoral idazki" bat argitaratu eben, izen-buru honegaz:

"ZELAN FEDEDUN IZAN, FEDERIK EZAK JOTAKO EGUNOTAN".

Gaurko ebanjelioaz lotuta dagoanez gero, Jauna lagun, idazki horren laburpen bat eskeinduko deusuet.

Lehenago, dinoe Euskal Herriko gotzainak, gure herrietan ez zan aurkitzen, banaka batzuk kenduez gero, Jaungoikoagan sinisten ez ebanik. Baina ba dira orain gure inguruan sinismenik ez daukenak, edo Jaungoikorik ez balitz lez bizi diranak, baita, gitxi batzuk, Jaungoikoa gizonen arerioa dala, uste dabenak...

Guk, fededunok, ez dogu aldakuntza hau bildurrez hartu behar...

Ez dogu joan diran denporen minetan eta amesetan bizi behar. Alperrik da. Joandako aldi hareek ez dira barriz etorriko...

Ezta ez dau balio, gaurko fedebako giroari begiak itxirik, ezer aldatu ez balitz lez, lehengo bide zaharretik ibiltzeak.

Gaurko fede giroa negukoa da, eta gure fedea izozturik galdu ez daiten, sinismenari eusteko beste bide barri batzuk zabaldu behar doguz.

Gaurregun kristinauok, federik ez daukenen artean biziten ikasi behar dogu, baina horretarako gure fedea sendotu, indartu eta sakondu egin behar dogu.

Zelan gure fedea indartu?.

Fedea bakarka biziz.

Fedea indartzeko bakotxak berarengandik hasi behar dau...

Ume izatetik gizon-emakume izatera igaroten danean, bakotxak askatasun osoz honelako aukera libre bat egin behar dau: Jaungoikoa ete da nire bizitzako helburua, ala dirua, agintea edo ondo bizitzea?. Zein da nire bizitzako gogorik handiena?. Diru asko irabazi, ala on asko egin?.

Itaun honeei erantzuteko Jaungoikoaren alde aukera garbi bat egiten ez dogun bitartean, gure fedea beti kili-koloka eta zalantzan egongo da. Jesukristo onartzen dogun neurrian, gure fedea ere hazi, garbitu eta sakondu egingo da.

Fedea familian biziz.

Kristinau gurasook, dinoe Euskal Herriko gotzainak, ez dozue ahaztu behar zuen eskuetan dagoela, zati handi batean behintzat, zuen seme-alaben fedea itxartu, zaindu eta sendotzeko aukera.

"Etxeko Eleiza" esaten jakon kristinau giro hori familian falta bada, gatxa izango da gero eskolan edo katekesian, ume horren fedea indartzea... Gaurko kanpoko giro hotza ikusirik, umetan etxean ikasi ez dana, gatxa izango handitan fede hori, sinisbakoen artean, eustea.

Fedea kristinauen batzarrean.

Egia da fedea kristinau bakotxaren arazoa dala, eta etxeko giro epelean loratzen dala, baina ume hori handi egiten danean, gure fedea kristinauen batzarrean indartzen da...

Horretarako alkartzan gara kristinauok domeketan Eukaristia ospatzera: danok batak besteari lagunduz gure fedea sakontzeko. Domeketako batzar honeetan Biblia Santuko hiru zati irakurtzen doguz; danok alkarrekin otoitz eta kantuan jarduten dogu; eta Eukaristiako mahai santuan Kristoren gorputz-odolaz gure arimak janaritzen doguz.

Fede-bakoen artean bizi diran kristinau askorentzat, dinoe gure gotzainak, domeketako mezea izan daiteke euren fedea indartzeko dauken laguntza bakarra. Izan ere, egia da antzinako kristinauak esaten ebena: "Gu ezin gara Jaunaren eguna ospatu barik bizi".

SARRERAKO OHARRA.

Senideok:

Gaurko ebanjelioan, Jesusen hiru parabola txiki, baina mamitsu entzungo doguz: soloan gordeta aurkituriko gordailu edo dirutzarena, harri bitxi bila dabilen merkatariarena, eta itsasora botatako sarearena....

Zeruetako erreinuaren balioa ezagutzen dauanak, daukan guztia saldu egiten dau, Jaungoikoaren zeruko zoriona irabaztearren.

1. IRAKURGAIA. 1 Erreg 3,5.7-12

Aberastasunen gainetik, bihotz on eta zentzunduna eskatu eutsalako, Jaunak Salomon Erregea bizitza luzeaz eta jakinduriaz bedeinkatu eban.

2. IRAKURGAIA. Erm 8,28-30

Jaunak gu maitatu eta bere antzeko egin gaitu, eta zeruko aintzarako aukeratu.

EBANJELIOA. Mt 13,44-52

"ZERUETAKO ERREINUA, SOLOAN EZKUTATUTAKO GORDAILUAREN ANTZEKOA DA... HARRI BITXI EDERREN BILA DABILEN MERKATARIAREN ANTZEKOA DA... ITSASORA BOTATZEN DAN SAREAREN ANTZEKOA DA". (Mt 13,44-46)

H O M I L I A

=====

Zeruetako erreinua, soloan ezkutaturik zegoan gordailuaren -dirutzaren - antzekoa da... Aurktu dauanak solo ha erosteko daukazan guztiak saltzen ditu, gero gordailuaren jabe izateko.

Jesusen parabola hau agertzeko adibide batzuk ipiniko doguz:

Tarsoko Paulok ez eban Jesus ezagutzen. Gordeta egoan Paulorentzat Jesus Mesias zala. Baita gehiago ere, Paulo Kristoren eta kristinuen arerio amorratua zan...

Baina, Damaskorako bidean, zeruko argiak jota, Jesus aurkitu ebanean, Paulok esaten deusku: "Dana pozik emon neban Jesukristo nire Jauna ezagutzagatik, eta mundu honetako gauza guztiak simaurtzat (satsatzat) daukadaz, Kristo irabaztekotan!" (Fil 3,8)

Martiriak ere, guztia emon eben, baita bizia ere, zeruetako erreinuaren jabe izateagatik...

Beste martiri askoren artean, euskalduna dalako, Igokundeko Martin santua hartuko dot eredutzat, gaurko gordailu eta harri bitxi ederraren parabola argitzeko

Xabierko Frantzisko euskaldun misiolari santua izan zan Japoniara lehenengo aldiz Jesusen Barri Ona eroan ebana,1544. urtean. Japoniar asko kristinau egin ziran...Baina 50 urte geroago kristinauen aurka erasoaldi -pertsekuzino- gogorra sortu zan,eta Nagasaki hurian kurutzean josita 26 kristinau hil ebezan. Euren artean gure Igokundeko Martin gipuzkoar martiri santua.

Frai Martin frantziskotarra kurutzean josita hil behar eban mendira kantuan joan:"Bedeinkatua,Jauna,Israelen Jaungoikoa" kantari...

Luisito,Frai Martinen 12 urteko akolitua,bere kurutzea zein zan itaunka ebilen,eta,aurkitu ebanean,mosu handi bat emon eutsan...

Pablo Miki,Jesusen Lagundiko japoniarra,kurutzean lotuta egoala,gane haretatik pulpitu batetik lez,bere herritarrei hasi zan predikatzen:"Entzun ondo guztiok. Heriotzako orduan ez da guzurrik esaten. Jakin behar dozue danok,zerura joateko ez dala beste biderik,Kristogan sinistea baino"...

Bentura izeneko japoniarrak atsekabe handia eukan bihotzean bere ama kristinau ez zalako. Hil aurretik,espetxean egoala,eskutitz bat bialdu eutsan,esanaz:

"Ama maitea; Ez nigatik negarrik egin Jesukristogatik heriotzera noalako. Hau da une honetan nire nahigaberik handiena,zuen arimak salbatzeko lanik egin barik,mundu honetako ondasunetan zuen bihotzak loturik ikustea...Barriro,ama maitea, esaten deutsut,kristinau egin zaitez,eta zeruetan barriz ere alkarrekin biziko gara".

Frai Martin euskaldunak honelako berbakaz indartzen ebazan bere martiri lagunak,Kristoren alde euren bizia emoteko:

"Honeraino etorri garan 26 kristinauok ondo pentsatu behar dogu, gu pekatari handiak izan arren,Jaunak martiri hiltako aukeratu gaituala,eta hau oso mesede handia da. Gu ganera,Jesusen antzera,kurutzean josita hilgo gaitue... Jaungoikoaren laguntzaz,geure buruak prest euki behar doguz,azken orduan gure buruak ez galtzeko.. Gure lurreko bizitza labur hau,Jaunari opari lez eskeindu daigun,japoniarrak kristo ezagutu dagien... Pentsatu daigun ez garala abereak lez biziteko jaio,zerua irabazteko baino...

Jaungoikoaren ama Mariari,gure aingeru guardakoari,eta zeruko santu guztiei eskatu daiegun,gure bizitza Jaungoikoagatik pozik emoteko grazia...Gure gorputzak ez dabez lurperatuko,basoko piztien eta hegaztien janari izan daitezcan,baina gure arimak Jaunaren erreinu zoriontsuan biziko dira betiko"...

(A) 18. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jaunak bildu gaitu Eukaristiako mahai inguru honetan...
Jesusek, gaurko ebanjelioan ikusiko dugunez, bost ogi eta arrain bi-
gaz, bost mila gizonei basamortuan jaten emon eutsen...
Jesusek egin ebana geuk ere, ahal dogun neurrian, egin behar dogu,
gure eguneroko ogia gose diranen artean banatuz...
Jaunak gure oraingo esku zabala, gero zeruan ehun halako emonaz,
ugarituko dau.

1. IRAKURGAIA. Is 55,1-3

Isaias profetak Babiloniako erbestean bizi ziran israeldarrei esa-
ten deutse: Jaunarengana bihurtu zaitzeze, eta biziteko behar dozen
jana eta edana Berak emongo deusue, eta ugari emon ere.

EBANJELIOA. Mt 14,19-21

"JESUSEK BASAMORTUAN JENDETZA HANDIA IKUSI EBAN GOSEZ... ET APOSTO-
LUEI ESAN EUTSEN: EMOIOZUE ZEUOK JATEN". (Mt 14,14-15)

H O M I L I A

=====

Jesusen ogi ugaritze mirari hau, gure oraingo mundura egokitu daigun...
Jesusek basamortuan jendetza handia ikusi eban gosez. (Mt 14,14)
Jesusek, gu bizi garan gaurko mundu honetara etorriko balitz, zer i-
kusiko leuke?.

Urtero 500 mila ume, proteinaren faltan, hilten dira gosez.

Honek esan gura dau:

Egunero 40 mila ume, bost urtetik beheragokoak, hilten dirala gosez.

Edo bardin dana:

Segundo 2 baktxean, ume 1 goseak hilten dauala.

Emoiozue zeuk jaten, esan eutsen Jesusek apostoluei. (Mt 14-16)

Paulo 6garren Aita Santuak "Populorum progressio" enziklikan esaten
deusku: "Gaurko egunean ezin dau inork itsuarena egin, lurbira zabale-
an hainbeste gizon-emakume gosez bizi diran bitartean... Ezin zenbatu
hala ume gaixo, zer janik ez dabelako, goseak hilten dituanen..."

Beste aldetik ogi gosea bakarrik kentzea ez da nahiko. Mundu eta zi-
bilizazino barri bat sortu behar dogu... Gizon-emakume guztiak per-
tsona lez, alkarren anaitasunean bizko diran mundu barria.

Herrialde aberatsak, herri pobreei laguntza emon beharrean dagoz...

Egia hau gure nikeriaz -egoismoaz - ikasi nahi ez badogu, Jaungoi-
toaren eta herri pobreen hasarrea gure ganara etorriko dala, jakin
daigun.

Eta jan eben danak asetu ziran arte. (Mt 14,20)

Gosearen arazo honi buruz Afrikan lan egiten dauan misiolari salestar batek zer esaten deuskun, entzun daigun:

"Hor European jakinen ganean egongo zariela, uste dot, egunkari, irrati eta telebisten bidez, zelako gose gorria daroagun Afrikako lurralde ur-bako honetan...

Baina zuontzat -eta nik hori ulertzen dot - Afrika han urrunean dagoan lurralde bat da... Eta gu gosez eta egarriz bizi garala jakin arren, hemengo egoera larriak, begiz ikusi ez dozuelako, ez deusue bihotzean larritasun handirik sortzen...

Zuok European gitxienez egunero hiru bider jaten dozue... Hemen askotan baten ere ez... Eta jaten dabenean ere, orriak, susterrak eta bedarrak janda kentzen dabe, edozelan, euren barruko gose larria.

Zuen seme-alabak bazkaltzean "hau ez jat gustatzen" esaten deusue nean, gogoratu egizue, zuen umeak mahai azpira botatzen dabezan ogi zatiak, hemengo umeak pozik jango leukiezala...

Eta zuen seme-alaben urtebetetzean, zein erregalu egin asmatu ezinik zabilzenean, -danetik daukielako -jakin egizue, hemen ba dirala gurasoak, euren seme-alabentzat botikak erosteko dirurik ez daukenak.

Eta zuek askotan, modatik pasatu diralako, bazterrera botaten dozuezan erropak, hemen ba dirala erropa zahar bat ere, euren gorputza estaltzeko ez daukenak...

Ez deusuet hau idazten, zuen bizitza gozoa garrazteko, edo zuen familiako zoriona hondatzeko; lujo gitxiagogaz pozik bizi geintekozela irakasteko baino... Eta zuek hor European eguneroko ogia ba daukazuelako, Jaunari eskerrak emoteko ez zaitezzen ahaztu.

Eta amaitzeko gauza bat eskatuko neuskizue: Domeketako mezan "Gure Aita" kantatzen dozuenean, ez zaitezela ahaztu, guretzat ere, Afrikan bizi garanontzat, Jaunari eguneroko ogia eskatzeko... Emoiguzu, Jauna, guztioi, zuriei eta baltzei, biziteko behar dogun eguneroko ogia".

Tominian. Touba-ko salestar misiolari batek.

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Gure fedea eraginda, bildu gara hemen Eukaristia ospatzeko...
Gaurko ebanjelioan Pedro itsas ganean ibilten ikusiko dogu, baina
haize gogorra zala ikusirik, bildurtu eta urperatzen hasi zan...
Jauna, salbatu naizu!...
Gure eukaristia honek, Jesus gure salbatzailearengan itxaropen osoa
jarten irakatsi daiskula.

1. IRAKURGAIA. 1. Erg 19,9a.11-13a

Jaungoikoa ez da haize indartsuaren, lur ikararen edo su garraren
antzekoa, haize fin gozoaren antzekoa baino.

2. IRAKURGAIA. Erm 9,1-5

Paulo apostoluak, bere herritarrak Mesias Jauna ukatu ebelako, atse-
kabe handia dauka bihotzean. Baina Jaunak ez dau Israel bere herria
betiko baztertuko.

EBANJELIOA. Mt 14,22-33

"PEDRO...URPERATZEN HASI ZAN, ETA DEADAR EGIN EBAN: JAUNA, SALBATU
NAIZU!... JESUSEK ESAN EUTSAN: SINISMEN GITXIKO GIZONA! ZERGATIK
HASI ZARA ZALANTZAN?"

H O M I L I A

=====

(Sinismenari buruz Karl Rhaner-en gogoetak. 1904-1984)

"Nik baten baino gehiagotan entzun dot esaten: -diño Karl Rhaner
alemaniar teologari ospetsuak - halakoak fedea galdu dau...
Fedea ez da diru-kartera bat lez galtzen... Baina, beste aldetik, ezin
dogu esan, fedea galdu dauanak, beti bere erruz galdu dau ala be.
Gazte aroan (15-25 urte bitartean gitxi gora behera) askok fedean
krisialdi gogorra jasaten dabe... Ez dira urte gozoak...
Txikitan etxean gurasoak esandakoa, eta eleizan abadeak eta katekis-
tak irakatsitakoa, beste barik errez onartzen da...
Baina ume hōri gizon-emakume heldua izatera heltzen danean, bere bu-
ruari itaunka hasten jako: Nik zergatik sinisten dot?...
Nik, fedearen krisialdi honetan aurkitzen danari, esango neuskio: Ez
zaitez larritu. Ez zure burua gehiegi estutu... Urteak joan hala,
gizon-emakume helduagoa egingo zara, eta erlejinoko gauzak garbiago
ikusi eta nasaiago hartuko dozuz.....
Fedea eukiteko ez da asko ikasi behar, asko maitatu baino... Fedea ez
da buruaren arazoa, bihotzarena baino...

Egia, justizia, on-egitea...maite dituanak, bide erreza dauka sinisteko. Eta alderantziz, harrokeriak, guzurak, nikeriak...Jaungoikoagandik al-
dendu egiten gaitue...

Jaungoikoak danoi, baita gaiztoenari ere, gure barru barruan abots bat emon deusku...Kontzientziaren abotsa da, beti esaten deuskuna: On dana egizu, eta oker dana, ez egin...

Sinistu gura badozu, gizon-emakume jator eta zintzoa izaten ahalegin-
du zaituz... Zure kontzientziak erakusten deutsun bide zuzenetik i-
bilten ikasi egizu...Eta krisialdi gogor hori pasatuko jatsu... Eta lehenago edo geroago, Jaungoikoaren egiak argi egingo deutsu...

Kristautasuna ez da besterik, guk, laino artean lez, maite ditugun egia, justizia, ontasuna...Jaungoikoaren argitan jartzea baino...

Zoriona maite dozu? Zorion egarri hori ez deutsue lurreko izaki guz-
tiak ere aseko, mugatuak diralako... Jaungoikoak bakarrik aseko deut-
su zure zorion egarri hori; Bera bakarrik dalako zorion bete eta mu-
gabakoa...

Justizia maite dozu? Mundu honetako guzur, zapalketa eta gaiztakeri-
en aurka jokutzen dozunean, zuk ez jakin arren ere, Jaungoiko zuzenaren
alde lan egiten dozu...

Fedeari buruz errespetoz hitzegiten dauanak, sinismenaren hazia bere
bihotzean ereinda daukala, pentsatu daiteke...

Egiaren, justiziaren, ontasunaren alde lanean dabizenak, sinismenaren-
gandik hurrerago dagozala, sinistu daiteke...

Jaungoikoagan sinistu gura dabenak, fedea ia ia eskuetan daukela, esan
behar...

Fedean zalantzan zabilzan horrek, zintzo eta jatorra izaten jarraitu
egizu...Justiziaren alde lan egizu...Zure kontzientziak argitzen deut-
sun bidetik ibili zaituz...Eta batez ere, zure fdearen zalantza eta
ilunaldi horretan Jaunari otoitz egiozu: "Jauna, salbatu naizu, ito lar-
rian nago-eta"... Eta Jaunak gaurko ebanjelioko Pedrori lez, zuri ere
esango deutsu: "Sinismen gitxiko gizona! Zergatik zalantzan?"

Eta zure arimako itsaso harroan barealdi gozoa egingo da...

Eta fedea Jaunaren opari-erregalu bat dan ezkerre, ez zaituzela Jau-
nari eskerrak emoteko ahaztu"...

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Ongi etorriak danok eukaristi batzar honetara...Jauna gugaz dauku... Gaurko ebanjelioan Kanaan jentil herriko emakume bat agertuko jaku, Jesusi bere alabearen osasuna eskatzen.

Emakume hau jentila izan arren, fede handikoa zan, eta Jesusengandik bere alabearen osasuna lortu eban...

1. IRAKURGAIA: Is 56, 1.6-7

Jaunak Israel herrikoak bakarrik ez, baita arrotzak eta jentilak ere onartzen ditu, zuzenak badira.

2. IRAKURGAIA: Erm 11, 13-15. 29-32

Jentilak onartu arren, Israel herriak Jesus Mesias ez eban onartu. Baina egunen batean judeguak ere Kristoren salbamen bidean sartuko dira.

EBANJELIOA: Mt 15, 21-28

"BAINA TXAKURKUMEAK ERE JATEN DABEZ, EUREN NAGUSIEN MAHAITIK JAUSITAKO OGI APURRAK" (Mt 15-27)

H O M I L I A
=====

Gaurko ebanjelioan agertu jakun kanaandar emakume hau ez zan judegua, jentila baino. Halan eta guztiz ere Jesusek emakume arrotz honen fedea goratu egiten dau, esanez: Emakume, handia da zure sinismena...

Guk gaurko egunean itaun hori beste honetara egin geinke: Salbamera kristinauena bakarrik ete da?. Bateatuak bakarrik salbaten ete dira?.

Itaun honi Karl Rahner alemaniar teologo ospetsuak honan erantzuten deutso:

"Jaungoiko Aitak bere Semea mundua salbatzera bialdu ebanetik, Kristogan sinistea da zerurako bide argi, zuzen eta bakarra...

Baina honek ez dau esan gura, Kristorenak ez diran beste erlejinoetan dana oker eta guzur danik... Beste erlejinoetan ere egiazko Jaungoikoaren zantzu eta arrastoak ere aurkitu daitezke.

Egiatzko Jaungoikoa ere Itun Zaharrean Israel herriari ez jakon dana bat-batean eta argitasun betean agertu...

Antxinate haretan, munduaren hasieran, gizonak Jaungoikoagan eben ezaguera argi eta garbia, gizaldien joanean, ilundua eta okertua izan zan, eta hemendik mila moduko erlejino ezberdinak sortu ziran.

Baina halan eta ere, guk orain ez dogu pentsatu behar kristau ez diran beste erlejinoetan dana eta guztiz ustelduta dagoenik.

Eta hau hiru motibogaitik:

1. Jaungoikoak egiaz eta benetan gizon-emakume guztiak salbatzea gura dau. Eta danei emoten deutse salbamen hori lortzeko laguntza.

Salbatzeko bide hori zein eta zelakoa dan guk askotan ez dakigu, baina danei emoten deusela ziur dakigu...

2. Kristoren erlejinoa ez dabenak gaurko munduan askoz gehiago dira kristinau diranak baino... Guk ez geunke pentsatu behar Kristo zerutik lurrera etorri eta kurutzean hil zala, gitxi batzuk bakarrik salbatzeko... Honan pentsatzen dabenak Jesusen kurutzeko odolari salbamen balio gitxi emoten deusala esan geinke...

3. Gizakiak normalean bere inguruko erlejino giroan aurkitzen dau Jaungoikoa... Landareak ere ez dira neguko hotzetan loratzen, udabarriko giro epelean baino. Erlejinoa ere, honen antzera, bere inguruko sinismen giroan loratuko da... Hau holan bada, halako lurralde batean kristau ez dan erlejino bat nagusi bada, erlejino hori askorentzat Jaungoikoa aurkitzeko bide egokia izan daiteke...

Kristoren erlejinoa naturazko erlejinoaren betegarri eta osagarri da.

Honek ez dau esan gura Kristoren fedea dogunok ez dogula Kristok ekarritako barri ona mundu guztian zabaldu behar... Kristoren salbamen graziak ahalik eta gizon-emakume gehiengana heldu behar dau.

Baina beste aldetik ez daigula uste guk ezagutzen dogun Eleiza dala salbatzeko bide bakarra...

Mundu honek irauten daueneraino lur honetan erlejino asko izango dirala uste izatea, ez da oker pentsatzea. Mundu guztian zehar guztiok kristau izango garean egun eder bat etorriko dala pentsatzea zoragarria litzateke, baina ez egia.

Guk geure erlejinoan sendo iraun, beste erlejinoentzat errespetoa gorde, eta guztiok Kristo ezagutu eta salbau gaitez an otoi egin daigun*.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eukaristi batzar honetan Kristo gure artean dago...

Gaurko ebanjelioan Jesusek bere ikasleei itaun hau egingo deutse:
Ni, nor nazala dino jendeak?.

Eta Pedrok erantzungo deutsa: Zu, Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea.
Nor da Jesus gu bakotxarentzat?. Erantzuna gure bihotzak emon behar dau...

1. IRAKURGAIA. Is 22,19-23

Norbaiti etxeko giltzak emotea, etxearen jabe egitea lez da. Jesusek Eleizaren giltzak Pedrori emon eutsazan.

2. IRAKURGAIA. Erm 11,33-36

Jaungoikoaren esku zabala eta jakinduria bai dirala handiak. Jaunenak dira zeru-lurreko gauza guztiak... Aintza Berari betierean.

EBANJELIOA. Mt 16,13-20

"JESUSEK HONAN ITANDU EUTSEN BERE IKASLEEI: GIZONAREN SEMEA NOR DALA DINO JENDEAK?... ETA SIMON PEDROK ERANTZUN EUTSON: ZU MESIAS ZARA, JAUNGOIKO BIZIAREN SEMEA". (Mt 16,13-15)

H O M I L I A

=====

"Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea".

Pedroren autormen honek zer esan gura dauan argitzeko, judutarrentzat MESIAS izenak zer esan gura eban, gan-ganetik bada ere, agertu daigun...

Israel Herria Dabid erregearen garaian, (10 gizaldi Kristo aurretik), bai armetan, baita beste ondasunetan ere oso aberatsa zan... Salomon, Dabiden semeak, Jerusalem asko gehiago edertu eban, Jaungoikoarentzat eleiza miragarri bat eginez...

Baina hurrengo gizaldietan Dabiden erreinua zati bi egin zan, eta (4. gizaldian K.a. Nabukodonosor Babiloniako erregeak Jerusalem armen indarrez hartu, hango eleiza ederra erre, eta bertako bizilagunak loturik Babiloniarara katigu eroan zituan... Ziro erregeak, Babiloniako jabe egin zanean, israeldarrei euren aberrira itzultzeko baimena emon eutsen, eta honek pozaren pozez Jerusalem huria eta eleiza hondatua barriz eragi ebezan...

331. urtean Kristo aurretik, Alejandro Handiak Palestina konkistatu eban, eta israeldarrak Greziako erlejinoa eta ohiturak hartzera behartu ebezan...

Zapalketa honen aurka (166. urtean K.a.) makabeotarrak armetan jagi ziran, eta euren aberria atzeritarren eskuetatik askatu eben...

Baina geroago israeldarrak, euren artean ezin konponduz, erromatarrei laguntza eskatu eutseen, eta Ponpeio erromatarra, hasarre honeekaz baliaturik, (63. urtean K.a.) Palestinaren jabe egin zan, Israel Erromaren menpean lotuta jarririk....

Giro honetan jaio eta bizi izan zan Jesus...

Israel Herriak Salbatzaile bat eskatzen eutson Jaungoikoari, erromatarrek garaitu, aberri zapaldua askatu, eta Dabiden erreinua bere indar eta edertasun guztian barriro jasoko eban Mesias Askatzailea zerutik lurrera bialduz.

Mesias hori errege handia izango zan, abade nagusi, profetarik goren goena, lurbira guztia zigor gogorrez epaituko ebana... Mesias horrek arerio guztiak menperatu ondoren, Jerusalem mundu zabaleko huriburu egingo eban, eta lurreko errege guztiak Jerusalemgo Jaungoiko bakarra ahuspez gurtuko eben....

Honango Mesias errege ahaltsuaren eretxia oso zabalduta egoan, baita Kristoren ikasleen artean ere. (Lk 24-21; Ap Eg 1,6). Ogiak ugaritzen ekianak, ez ete zituan Israel lurrera ondasunak ugari ekarriko? Hildakoak biztuten zituanak, zelan ez eban erromatarren gudarostea garaituko? Geisoak gorputzeko gatxetik askatzen ebazanak, ez ete eban Israel Herria atzeritarren erpetatik askatuko?...

Baina Jesusek irakasten eban Erreinua ez zan holangoa... Mesias ez zan errege ahaltsu handi baten antzera etorriko, apal eta txiro bano. Mesias Salbatzailea ez zan aberastasunez inguraturik biziko, pobre eta behartsu bano... Mesias Erregeak ez zituan herriak zigor gogorrez epaituko, maitasunez eta errukiz bano...

Mesias Salbatzaileak, Isaias profetak 600 urte aurretik iragarri ebanez, "Gizon guztien nekeak bere ganean hartuko zituan, eta gizonen pekatuakatik alderik alde izango zan zulatua, eta bere bizia pekatuen ordaingarri emongo eban". (Is, 53...).

Honango Mesias apal, bakezale eta errukiz betea, -Jesusek Pedrori esan eutsanez-, ez dabe haragi munduzaleak eta odol harroak onartzen, zeruko Aitaren Espitua daukenak bano...

(A) 22. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Gaurko Barri Onean Jesusek, geure eguneroko kurutzeta hartu, eta bere atzetik joateko esango deusku...

Horretarako Jaunaren laguntza behar dogu, eta indar hori, batez ere, Eukaristian aurkituko dogu...

Pekatari gareala ezaguturik, Jaun errukiz beteari, gure hutsegiteen parkamena, bihotzak damuturik, eskatu deiogun...

1. IRAKURGAIA. Jr 20,7-9

Jeremias profetak, egiak esaten zitualako, arerio asko bere aurka jaso zituan... Halan da ere, bere profeta lanean zintzo iraun eban.

2. IRAKURGAIA. Erm 12,1-2

Geure arimak bakarrik ez, geure gorputzak ere Jaunari eskeindu behar deusaguz, mundukeriak utzi, eta Jaunaren nahia egiteko.

EBANJELIOA. Mt 16,21-27

"JESUS BERE IKASLEEI ADIERAZOTEN HASI JAKEN, BEHARREZKOA ZALA, BERA JERUSALENERA JOATEA, HAN NEKE HANDIAK JASATEA... HILA IZATEA, ETA HIRUGARREN EGUNEAN BIZTEA". (Mt 16,21)

H O M I L I A
=====

NEKEAREN BALIOA.

(Joan Paulo II.aren "Salvifici Doloris" Carta Apostolicatik ideak hartuta. Ecclesia 1984. 201 orri.)

Guri, gizaki makalak garalako, oso aldapa gora egiten jaku nekea eta kurutzeta onartzea...

Horregatik, Jesusek bere ikasleei esan eutsenean, beharrezkoa zala Mesiasak Jerusalemenean "neke handiak eroatea, eta hila izatea", Pedrok erantzun eutson: "Jaungoikoagatik, hori ez, Jauna!. Ez jatsu holangorik jazoko!". Baina Jesusek, Pedrori begiraturik, esan eutson: "Kendu zaitetz nire aurretik, Satanas!. Zure gogoetak ez dira Jaungoikoarenak, gizonarenak baino". (Mt 16,21-23)

Guk ere, Pedroren antzera, ezin dogu nekearen eta heriotzearen "zergatia" ulertu... Zergatik nekea?. Zergatik heriotzea?...

Itaun honi erantzun bete bat fedeak bakarrik emon leioke, eta benetan sinismen handia behar da nekearen balioa ulertzeko... Gizonaren gogoetak eta Jaungoikoarenak ez datoz batera, "zergatik nekea" ulertzeko.

Baina halan da ere, fedeak lagunduta, zerbait argitzen hasi gaitez. Bide ilun honetan Jaunak lagundu deigula.

Nekea eta poza.

Jesus, Jaungoikoaren Semeak, bide bi zituan aukeran gizonak salbatzeko: pozaren bidea eta nekezko bidea. Bide bi honeek bardin balio eben gizonak Jaungoikoaz adiskidetzeko... Halan da ere, beretzat kurutzeko bidea aukeratu eban gu zerura eroateko: "Kristo Jesus, Jaungoiko izanik, menpeko egin zan, kurutzeko heriotzeraino". (Ef 7,6-8)

Jesus, gure salbatzaileak, bere bizitza osoa besteen minak arintzen igaro eban: geisoak osatzen, gose ziranei jaten emoten, triste aurkitzen ziranei poza emoten... Baina halan da ere, -hau da harritzekoa- beretzat kurutzeko heriotzea aukeratu eban, guri betiko bizia emoteko...

Jesulentzat, egiazko zoritxarra ez da gorputzeko bizia galtzea, zeruko betiko zorion bizia galtzea baino....

Jesulentzat, egiazko nekea ez da gorputzeko nekea, Jaungoikoagandik aparte bizitzea baino...

Neke-minen salbamen balioa.

Jesusek, bere kurutzeko heriotzearen bidez, gure pekatuak parkatu, eta guri zeruko atea zabaldu euskuzan.

Jesus errubakoak, gure pekatuak beregan hartu zituan, guk geure gaiztakeriakatik merezidu genduan zigorra, Jaungoiko Aitari ordaintzeko. "Pekaturik ezagutu ez ebanak -dino San Paulok- gugatik pekatu egin zan, guk, Harekin bat eginda, Jaungoikoaren salbamena lortu daigun... Jaungoikoak, Kristoren bitartez, bere adiskide egin gaitu... gizonei pekatuen kontua eskatu barik". (2 Kor 5,18-19)

Nekeen bidez zerura.

Jesusek ez zituan beretzat nekeak hartu, nekeak maite zitualako. Nekeak, nekeagatik maitatzeak ez dau zentzunik... Jesusen bizitza kurutzean amatu izan balitz, porrokaldirik (frakasorik) handiena izango zan... Jesusek bere ikasleei Berak kurutzean hil beharra zuala esaten eutsenean, gero beti amaitzen eban esanez: "Baina hirugarren egunean biztuko naz".

Horregatik, Kristoren kurutzea ez da hilobi ilunean amaitzen, pazko domeka pozean baino... Kurutzetik zerura...

Eta gu ere, Kristoren antzera, Haren nekeetan lagun bagara, zeruetako aintzan ere, Haren lagun izango gara... Eta San Paulok dionez: "Nire eritxian, oraingo neke-lanak ezar gitxi dira, gero zeruetan guregan agertuko dan aintzaren aldean". (Erm 8,17)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Eukaristiako mahaia, maitasun eta batasun janaldia da...

Kristoren gorputz-odolaren misterioa ospatzeko, gorrotoak baztertu, eta anaitasunean bizi behar dogu.

Hauxe izango da Jesusek gaurko Ebanjelioan irakatsiko deuskuna: danok bakean eta anaitasunean bizitzen...

1. IRAKURGAIA. Ez 33,7-9

Profetaren zereginik nagusia hau da: gaiztoak bide okerretik zuzenera ekartea. Honan bere arima salbauko dau.

2. IRAKURGAIA. Erm 13,8-10

Lagunurkoa maite dauanak ez deutso kalterik egiten. Senidea maite dauanak Jaungoikoaren legea beteten dau.

EBANJELIOA. Mt 18,15-20

"ZURE ANAIK HUTSEGITEN BADEUTSU, JOAN ETA HASERRE EGIOZU BAKARREAN. ENTZUTEN BAZAITU IRABAZI EGINGO DOZU ZURE ANAIA". (Mt 18,15)

H O M I L I A

=====

A D I S K I D E T Z E A .

(Espainiako gotzainen pastoral eskutitza. 1975. urtean)

Kristoren ikasle garanok, Jaungoikoarekin eta gure senideekin bakeak egitea behar beharrezkoa dogu... Adiskidetzea ez da lan erreza... Alde askotan hasarreak, alkar ezin ikusiak eta gorrotoak ere ikusten doguz, baita Kristoren jarraitzaileen artean ere.

Bihotza adiskidetu.

Gizonak euren artean adiskide egiteko, aurretik guk geure bihotzak baketu behar doguz, gorrotoak gugandik aldentuz... Bada, Jesusek esan ebanez, ur zikin guztien iturria geure bihotza da: "Etorri ere, bihotzetik datoz asmo txarrak: gizon hiltzeak, ezkontza nahasteak, lapurretak, guzurrezko autormenak, biracak... Gauza honeek dira gizona zä-kintzen dabenak". (Mt 15,19-20)

Sendiak adiskidetu.

Gure bihotzaren ondoren, geure etxeak baketu behar ditugu, guraso eta seme-alaben artean sortzen diran tirabirak, hasarre barik, konfidantzazko alkarrizketa sakon baten bidez, gauzak konponduz.

Horretarako etzekoen artean alkar maitasuna behar da, alkarren hutsegiteak parkatu, eta urak, lehenbait lehen, bere onera ekarteko.

Maitasuna bizi dan etxean, poza eta zoriona nagusi izango dira...

Gizartea adiskidetu.

Antzinako gorrotoak ahaztu, alderdikeriak utzi, eta gure herrian adiskide bizi gaitezak danok lan egin behar dogu...

Helburu hau lortzeko giza-eskubideak zaindu behar ditugu, eta politikan nahiz erlejinoan eritxi bardinekoak ez izan arren, alkarren errespetoan biziten ikasi behar dogu... Gure artera bakea eta adiskidetasuna ekarteko, justiziak izan behar dau nagusi: lantegietan langileei zor jaken lan-saria emonaz, osakidetzan danontzat osasun bide bardinak zabalduz, kulturaren eskoletako atea danontzat bardin atea zabalik eukiz...

Gizarteko taldeen artean eztabaidak sortzen diranean, arazoak eta tirabirak, gorroto barik, justizian eta bakean askatzen ikasi behar dogu.

Kristinauen eginbearra.

Adiskidetze bide honetan, Kristoren ikasleok, gure eginbear berezia dogu... Fededunok, gure gizartean sortzen diran eztabaidak, Ebanjelioaren espirituan erabagiten ikasi behar dogu. Eta hau da Kristok eskatzen deuskuna: justiziaren alde, gogorkeriara jo barik, maitasunez lan egitea.

Paulo VI.ak esandakoa gogoratu daigun: "Hau da kristinauen jokabidea, kalte egin deuskunari parkatzea, Jaungoikoak Kristoren bidez guri parkatu deuskun lez". (Ehortatio. 1974)

Fededun baxotxa bere inguruan batasun eta bake-egile izan behar dau... Egia maite daigun, justizia izan bedi gure bidea, alkar maitasunaren helburura heldu gaitezak...

Danok bat egin

Adiskidetze bide honetan danok alkarturik lan egin behar dogu: agintari eta menpekoak, eretxi bateko eta bestekoak... Gorrotoak zatitu egiten gaitu, maitasunak bildu... Bat egiten gaituezan gauzak gehiago dira, zatitzen gaituezanak baino... Danon artean lan eginez gure herria jasoko dogu.

Gure adiskidetze lanak, Andra Mariaren babespean jarrita, Jaungoikoak zerutik bedeinkatu daizala, alde guztietan eta beti bake egile izan gaitezak... "Zorionekoak bake egileak, Jaungoikoaren seme-alaba izango dira-ta". (Mt 5,9)

(A) 24. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jesusek, bere gorputz-odolaren mahai inguruan batu gaitu...

Maitasun sakramentu honetan parte hartzeko, gure bihotzetatik hasarre txikienak ere kendu egin behar doguz...

Guk zelan parkatzen dogun, halan Jaunak guri parkatuko deusku...

1. IRAKURGAIA. Sir 27,33;28,1-9

Kendu gorrotoa, eta parkatu lagunurkoari, Jaunak guri parkatzea gura badogu...

2. IRAKURGAIA. Erm 14,4-9

Jaungoikoa hilen eta bizien jauna da... Jaunarentzat bizi gaitez, eta Jaunarentzat hil ere.

EBANJELIOA. Mt 18,21-35

"ZUEI ERE BARDIN EGINGO DEUTSUE ZERUETAKO NIRE AITAK, ALKARRI BIHOTZEZ PARKATZEN EZ BADEUTSAZUE". (Mt 18,35)

H O M I L I A

=====

Gaurko ebanjelioan entzun dogun parabola honen esan-nahia hain argi eta garbi dago, ez dogu argitasun gehiagoren beharrik: guk geure senideari ez badeutsagu parkatzen, Jaunak guri ere ez deusku parkatuko. "Bardin egingo deutsue nire zeruko Aitak -diño Jesusek- alkarri bihotzez parkatzen ez badeutsazue". (Mt 18,35)

Guztiz handia zan morroiak bere nagusiarekin zeukan zorra: hamar mila talentu. Talentu bakoitzaren balioa gure gaurko miloi batena baino gehiago zan. Morroiak ahalegin guztiak egin arren, bere bizitza osoan ordaindu ezingo eban zorra. Baina nagusiak errukiturik dana parkatu eutsan... Halan da ere, morroi honek ez eutsan parkatu gura izan ehun denarioren zor txikia eutsan bere morroi lagunari...

"Parkatzea -diño Agustin santuak- guk Jaungoikoarekin egiten dogun hitzarmen edo pakto bat da: Guk parkatzen badogu, Jaunak ere guri parkatuko deusku... Baina guk parkatu nahi ez badogu, Jaunak ere ez deusku parkatuko"...

"Senideak kalte handia egin deutsu?, itanduten dau Joan Krisostomo santuak, Handiagoa egin deutsazu zuk Jaungoikoari. Senideari parkatzea gauza gatxa dala, uste dozu?. Zure arima betiko galtzea gogorra goa izango da..."

"Eta nor da Jaungoikoarekin zorretan ez dagoanik?. Nor da bere senideari zer edo zertan parkatu behar ez deutsanik?..."

"Jaunak agintzari (promesa) bat egin deutsu. Zein?. Zuk zure senideari parkatzen badeutsazu, nik zuri betiko bizia emongo deutsut"..

Eta barriz ere Agustin santua izango da berba egingo deusku-na. Gotzain santu honek Hiponako bere eleiztarrei, Jesusen otoitza "Gure Aita" agertzerakoan, honango hau esaten deutse: "Laster, senideok, meza honetan jaunartze aurretik berba honeek esango doguz: "Parkatu gure zorrak, geuk bere gure zordunei parkatzen deutsegun ezker".

"Parkatu gura ez dozun horrek, konturatzen ete zara zer esaten dozun?. Zeure senideagaz hasarre bazagoz, zelan ausartzen zara berba honeek esaten?. Guzurtia zara. Baina Jaungoikoak zure bihotza eta asmoak ikusten ditu... Parkatu zure senideari, eta orduan, bai, bihotz betean berba horreek esan ahal izango dozuz; bestela ez..."

"Eta ez egizu esan parkatzea "ezina" dala,.. Parkatzea gauza gatxa da, bai, baina "ezina" ez. Jaunak ez dau "ézin" danik agintzen. Parkatzea behar beharrekoa dozu, zuk ere parkatua izatea gura badozu..."

"Jesusek, kurutzean josita egoala, bere arerioei parkatu eutsen... Baina zuk esango dozu: Jesusek parkatu eikean Jaungoikoa zalako... Egia da... Baina Esteban martiriak ere bere hiltzaileei parkatu eutsen, eta ez zan Jaungoikoa."

Zeinbat aldiz parkatu behar?.

Pedrok Jesusi itandu eutsanean: Jauna, eta nik senideari zeinbat bider parkatu behar deutsat?. Harria urrun botako baleu lez, esan eutsan, zazpi bider?. Baina Jesusek erantzun eutsan: "zazpi bider ez, zazpi hamar bider baino". Esan gura eutsan: beti...

Eta gai honi buruz, San Lukas ebanjelariak esaten deusku, Jesusek bere ikasleei esan eutsela: "Egunean zure senideak zazpi bider huts egiten badeutsu, eta beste zazpi bider etorten bajatsu "damu dot" esanaz, parkatu egiozu". (Lk 17,4)

(Gehitu gura bada). Zelan parkatu?.

Inork kalte egin badeutsu, justiziaz, kalte hori desegiten ahalegintzea, ez da parkamenaren aurkakoa... Baina, kontuz! Justizia eskatzetik gorrotora pasatzea erreza da-eta.

Inork kalte egin badeutsu, kalte egin deutsun pertsonagaitik "antipatia sentitzea" ez da parkamenaren aurkakoa. Baina hemen ere, kontuz! "Antipatia sentitzetik" gorrotora errez laban egin leike-eta...

Dana dala, guztiz eta osoro parkatzeak Jaungoikoaren antzeko egiten gaitu: "Maite egizuez zuen arerioak; egin on gorroto deutsuenei, eta egin otoitz aurrean zarabilezen alde, zeruetan dagoan zuen Aitarene seme-alabak izan zaitezten". (Mt 5-44-45)

(A) 25. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

"Jaunaren errukiaz lurra dago beterik". (Sal 32,5)

"Handia da Jaunaren maitasuna zeruetaraino". (Sal 107,5)

Jesusek, gaurko mahastiko langileen parabolaren, hau irakatsi gura deusku: Jaungoiko gure zeruko Aita esku-zabala eta errukiz betea dala, eta bere mahastian lan egiten badogu, guk ez merezi arren, zeruetako erreinua emongo deuskula...

1. IRAKURGAIA. Is 55,6-9

Jaungoikoa errukiz betea da... Gaiiztoa bide okerretik aldenduten bada, Jauna errukituko jako.

2. IRAGURGAIA. Flp 1,20-27

Kristinauak Kristo bere maisua bizi izan lez bizi behar dau, gero Kristorekin batean zeruan biziteko.

EBANJELIOA. Mt 20,1-16

"ALA, EZIN EGIN ETE-DAIKET NIREAZ NAHI DODANA?. ALA, NI ONA NAZALAKO, ZURE BEGIA OKERRA IZANGO ETE DA?. (Mt 20,15).

H O M I L I A =====

(Karl RHANERen HOMILIARIO BIBLIKOn oinarritua)

Zein da mahastiko langileen parabolaren esan-nahia?.

Jaungoikoaren bihotza zein ona eta zein zabala dan gizonei erakustea...

Mahastira azken orduan lanera joan ziran langileak, ez eben denario bana hartzerik merezi, baina, halan eta ere, mahasti jabeak, esku-zabala zalako, irabazi ez eben denarioa emoten deutse...

Jesusen garaiko judutar askok, uste eben, Jaungoikoa, bere legea beteten ebenei, zerua emotera behartuta egoala. Gizonak Jaungoikoari esango baleutso lez, nik zure legea bete dot, eta honen orde, Zuk ziri betiko zoriona zor deustazu... Ez, Jaungoikoa ez dago inogaz zortetan...

Mahastira lehenengo orduan joan ziran langileak lez, ezin dogu Jaungoikoaren erabagien aurka marmar eginez ezer esan, mahastiaren jabeak justiziaren legeak hausi balitu lez: "Zergatik bardindu dituzu azken horreek gurekin, egun guztiko beroa eroan dogunokin?". Hori ez da justizia.

Jaungoikoari justizia eskatzen hasten bagara galduak gara, bada, justizia aldetik begiraturik, guk zer merezi dogu?.

Lehenengo orduko langileen antzera, Jaunari justizia eskatzen hasi baino, hobe dogu, Jaungoiko errukiz betearen eskuetan gure etorkizuna iztea...

Halan egin eban lapur onak. Harek ba zekian, justiziaren aldetik, ezin ebala bere oker eginen parkamenik irabazi... Baina, azken orduko langile honek, kurutzean josita egoala, Jesus kurutzekoari eskatu eutsan: "Jauna, gomuta zaitez nitaz zure Erreinura joaten zaranean". Eta berehala Jaun onaren ahotik hartu eban erantzuna: "Benetan dirautsut: gaur neugaz batera izango zara paradisuan". (Lk 23, 42-43)

Lanera joateko deia egitea mahasti jabearen eskuetan dago, eta Jaunak dei hori gizon-emakume guztiei egiten deutse. Gure esku dago dei horri baietz erantzutea.

Danok, aurrengoak eta azkenak, mahastian zintzo lan egiten badogu, Jaunagandik denario banaren saria, zerua, hartuko dogu, ..

Eta egia esan, gure joandako bizitzari begiratu eta gero, gure kontzientziak esaten deusku, ez garala mahastian lehenengo orduko langileak izan... Ez dogu gure bizitza zuzenagatik asko harrotzeko biderik....

Apaltasunez eta esker onez, gure bizitzaren iluntzean, mahastiko jabearen eskutik denarioa hartzerakoan, benetan autortu beharra izango dogu: "Jauna, morroi hutsal batzuk izan gara. Egin behar genduna egin dogu". (Lk 17, 10)

Eta zeruko mahastiko jabearen eskutik entzungo dogu: "Ederto, morroi zintzo eta leiala!. Gitxian zintzo izan zaran ezkerro, askoren buru jarriko zaitut; sartu zaitez zure jaunaren pozetan". (Mt 25, 23)

"Jaunaren errukiaz lurra dago beterik". (Sal 32, 5)

"Handia da Jaunaren errukia zeruetarino". (Sal 107, 5)

(A). 26. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz).

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jesusen hitza entzuteko, eta bere gorputz odolak hartzeko, batu gara domeka honetan Eukaristiako mahai inguruan.

Gaurko ebajelioko parabolari, seme bi ipintzen deuskuz Jesusek gure begien aurrean... Batak berba gogorrak ditu aitarentzat, baina gero, damuturik, aitak esandakoa egiten dau... Besteak, ostera, berba politak esan ondoren, ez dau aitaren esana peteten...

1. IRAKURGAIA. Ez 18,25-28

Pekataririk handiena izan da ere, bide txarretik alde egiten badau, Jaunak parkatuko deusola, dino Ezekiel profetak-

2. IRAKURGAIA. Flp 2,1-5

Alderdikeriak eta handikeriak alde batera itzirik, apaltasunez, alkarren maitasunean biziteko, eskatzen deutse Paulo apostoluak Filipoko kristinauei.

EBANJELIOA. Mt 21,28-32

"JESUSEK FARISEAR ETA IDAZLARIEI ESAN EUTSEN: EGIAZ DINOTSUET: ZERGALARIAK ETA EMAGALDUAK ZUEK BAINO LEHENAGO DATOZ JAUNGOIKOAREN ERREINURA". (Mt 21,31)

H O M I L I A
=====

(Homiliako ideak handik eta hemendik hartuta).

Jesusek, gaurko seme bien parabola labur honetan, zer irakatsi gura deuskun, argi dagoala, uste dot.

Seme zaharrenak agoz "ezetz" erantzun eutsan aitari, baina gero, damuturik, aitak agindutakoa betetera joan zan. Hitzez gogorra, baina egitez jatorra.

Bigarren semeak, ostera, "banoa, Jauna" erantzun eutsan berba samurrekatz aitari, baina gero ez zan mahastira lanera joan. Hitzez ederra bigarren seme hau, baina egitez alperra...

"Seme bi honeen artean nork bete eban aitaren agindua?" itandu eutsen Jesusek bere inguruko farisear eta idazlariei.

"Lehenengoak," erantzun eutsen honeek.

Eta Jesusek: zuek zarie bigarren semearen antzekoak, hitzak politak daukazue, baina egite ustelak... Orri ederrak ikusteko, baina fruiturik ez jateko.

Halangoak ziran, izan ere, Jesusen garaiko farisear eta idazlari asko.

Jaungoikoaren Legean jakitunak ziran. Egunero eleizan eta kaleetan otoitz luzeak egiten ebezan. Legean agindutako barauak zehatz beteten ebezan. Eleizari zor jakozan hamarrenak garbi ordaintzen ebezan. Eta beste mila ohitura eta arau txiki-miki asko ardura handiaz gordeten ebezan... (248 agindu "baiezko", eta beste 365 "ezezko" bete behar ebezan).

Baina itxura eder honen azpian, harrokeria zan nagusi hareen bihotzetan; eta euren buruak santutzat harturik, beste guztiak pekatariak zirala, uste eben.

Honeengatik esan eban Jesusek: "Zoritxarrekoak zuek, idazlari eta farisear itxura zaleok!. Hilobi zurituak dirudizue; kanpotik ederrak, baina barrutik hil hazurrez eta ustelkeriaz beteak". (Mt 23, 27)

"Zergalariak eta emakume galduak zuek baino lehenago datoz Jaungoikoaren erreinura". (Mt 21, 31)

Lapurrak eta emakume galduak ez dira Jaungoikoaren erreinura etorriko, pekatuan bizi diralako; Jaungoikoaren hitza entzun, bihotzean onartu, eta, damaturik, bide gaiztotik alde egin ebelako baino.

Ebanjelioak zabalduak, hor daukaguz eredutzat, Zakeo eta Mateo zergalariak, eta Maria Magdalakoa, San Markosek dinoanez, "zazpi deabru" bere gorputzean eukazan emakume galdua. (Mk 16, 9)

Eta, alderantziz, Jesusek ezin zituan eroan, santu itxuradun farisear harroak. Honeek, euren zintzo aurpegiaz, Jaunaren hitza entzuteko bihotzeko ateak itxi egiten ebezan, damu beharrik ez balebe lez.

Guretzat ikaspena.

Jesusek ez deusku seme bien parabola labur honetan, hirugarren semearen eredurik agertzen, baina guk, Jaunaren baimenaz, honan bete geinke: Hirugarren semeak aitari "baietz" erantzun eutsan, baita gero mahastira pozik lanera joan ere. Hitz eta egiteetan, bietan eder.

Esan gura dot: otoitz egitea ona eta beharrezkoa dogu Jaunaren laguntza eskuratzeko. Eukaristian domeketan ahal badogu parte hartzea egoki jaku gure fedea indartzeko... Eta abar...

Baina gauza eder honeekin batera, beste honango gauzak ere egitea eskatzen deusku: geure etxean eta inguraun bake egile izatea, triste dagozanei poza emotea, edozein beharretan aurkitzen diranei gure laguntza eskeintzea... Hitz gitxitan: danei eta alde guztietan on egitea... Hirugarren seme honen antzera, hitzetan eder eta egiteetan ederrago, goazen lanera gure Jaunaren mahastira, eta zeruko gure Aita onak emongo deusku saritzat altzora: "neurri zabala, betea, eragina eta gainezkakoa". (Lk 6, 38) Hala bedi.

(A) 27. DOMEKEA URTEAN ZEHAR.

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Eukaristiako batzar honetan, gure eguneroko neke, lan eta pozak Jau-nari eskeindu behar deusaguz, Berak zerutik onartu, zuzendu eta be-deinkatu daizan...

Jesusek gaurko ebanjelioan, mahastiko nekazari gaiztoen parabola gure begien aurrean ipiniko deusku... Langile hiltzaile hareek mahasti jabearen semea hil egin eben... Horregatik mahastiko nagu-siak gaizto hareei merezidu eben zigorra emon, eta bere mahastia bes-te langile zintzoagoi emon eutsen...

1. IRAKURGAIA. Is 5,1-7

Lege Zaharrean Israel etxea Jaungoikoaren mahasti aukeratua zan, baina, mahats gozoak emon beharrean basa-mahats garratzak emon eba-zan.

2. IRAKURGAIA. Flp 4,6-9

Egizaleak, jatorrak, garbiak eta maitagarriak bagara, Jaunaren bakea gudan biziko da.

EBANJELIOA. Mt 21,33-43

"MAHASTIKO NEKAZARIAK ETXEKO JAUNAREN SEMEA HIL EBEN... JAUNGOIKO-AREN ERREINUA ZUEI KENDU EGINGO JATSUE, ETA FRUTU EKARRI DAGIAN HERRI-ARI EMONGO JAKO". (Mt 21,39-43)

H O M I L I A

=====

Jesusek Jerusalemenean, hilgo eben aurreko egunetan, eztabaida gogorrak izan zituan Israelgo agintari eta farisearrekin; eta burruka giro honetan jarri behar dogu mahastiko nekazari gaiztoen parabola hau. Parabola honetan Israel Herriko teologi-historiaren laburpen bat agertzen jaku...

Itun Zaharrean Jaungoikoak Israel Herria bere herri maitetzat au-keratu eban, honango Elkargo hau eginaz: "Zu Israel nire herri maitea izango zara, eta Ni izango naz zure Jaungoiko bakarra"...

Gizaldietan zehar, aldiz aldizka, Jaunak profetak bialtzen zituan be-re herrira Elkargo hau gogoratzeko, eta bide zuzenetik aldentzen ba-ziran, zuzenera ekarteko... Baina Israel Herriak ez zituan beti Jau-naren mandatariak onartu, eta profeta askok heriotza latza eroan e-ben: Amos profeta hila izan zan, Mikeas amiltegitik behera bota eben, Isaias bi zatitan eginik, eta Jeremias harrika hil eben, Ezekias pro-fetak Babiloniako erbestean bizitza galdu eban, Zakarias zatikatua izan zan.

Azkenez Jaungoikoak, bere erruki handian, bere Seme maitea bialdu eban Israelgo bere mahastira Salbamenaren Barri Ona hotsegitera, eta hau ere kurutzean josiko eben...

"Horregatik dinotsuet Nik -esaten deutse Jesusek herriko agintariei-Jaungoikoaren erreinua zuei kendu egingo jatsue, eta frutua ekarri dagian beste herri bati emongo jako". (Mt 21,43)

Honan bada, Vatikanoko Kontzilioak irakasten deusku, Eleiza dala orain Israel Barria, Jaungoikoaren herri maitea. (L.G.9)

Zer da Eleiza?

Eleiza zer dan erakusteko Liburu Santuak bardintza asko ekarten deuskuz.

Eleiza, Jaungoikoaren ardi-taldea da, eta artalde honen artzain bakarra Kristo da, artzain ona, ardien alde bere bizia emoten dauana. (Jn 10)

Eleiza, Jaungoikoaren soloa edo lur landua da, eta solo horretan zeruko Jaunak mahasti bat landatu eban... Kristo bera da egiazko mahatsondoa, eta gu mahats-aihenak... Eta mahats adarrak mahatsondotik moztuta badagoz, fruturik emoten ez daben lez, halan guk ere, Kristogaz bat egiten ez badogu, ez dogu zerurako fruturik ekarriko.

Eleiza, Jaungoikoaren etxea da, Jaungoikoaren sendia-familia bizi dan etxea, eta etxe horren oin-harria Kristo bera da. (Mt 21,42)

Eleizea, Jerusalen barri, gure ama da, bere bizia guri emoten deuskuna. (Gal 4,26)

Eleizea, Kristo maite-maite dauan emaztea da... Eta hain maite dau, bere bizia kristinau-herriaren alde emongo dau...

Eleizea, Kristoren gorputz mistikoa da. Esan gura dogu: gorputzeko atal edo zati guztiak, asko izan arren, gorputz bakar bat osotzen daben lez, bardin, Kristogan sinisten dogun guztiok Kristorekin bat egiten dogu, Kristo gorputz horren buru dalarik. (1 Kor 12,12)

Eleiza hau, kredoan autortzen dogunez, "bat, santu, katoliku eta apostoluena" da, Pedroren ondorengoak eta gotzainak zaindua, eta Kristogan sinisten dogun guztiok osotutakoa.

Kristoren Eleiza hau, mundu honetan bizi dan bitartean, erbestean lez bizi da, eta neke eta tentaldien artean, Jaungoikoaren laguntzaz indarturik, zerurako bidean beti aurrera doa, kurutzearen bidetik, iluntzerik ez daukan beti argitara heldu arte. (L.G.9)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Domeketako eukaristia, bere kantu alaiekin, guretzat zeru txiki baten antzeko izan behar leuke...

Jesusek gaurko ebanjelioan irakatsiko deusku zeruetako erreinua, errege batek bere semearen ezkontzako jaietan ospatu eban afari alai, zoragarri baten antzekoa dala...

Danok gagoz jatordu horretara deituak... Zeruko afari handi horretan danontzat dago lekua...

1. IRAKURGAIA: Is 25,6-10a

Israelgo Jaungoikoak, aldien azkenean, janaldi handi bat dauka atondua, Jaunarengan euren itxaropena jarri daben guztientzat.

2. IRAKURGAIA: Flp 4,12-14

Filipoko kristinauak diru laguntza eman eutsoen Erroman preso egotan Pablori, eta honek eskerrak emoten deutsez, beragaz hain esku-zabalak izan diralako.

EBANJELIOA: Mt 22,1-14

"ZERUETAKO ERRENUA, BERE SEMEAREN EZTEGUAK OSPATZEN ZITUAN ERREGE BATEN ANTZEKOA DA... BATZUK EZ EBEN ETORRI NAHI IZAN... EZTEGU LEKUA BEHARTSU, ELBARRI, ITSU ETA ERRENEZ BETE ZAN" (Mt 22,1-9; Lk 14,21).

H O M I L I A
=====

(Gaurko "ezteguetako afarira deituen" eta joan dan domekako "mahastiko langileen" parabolak, ba dauke alkarrekin esan-nahi bardinik, hau da: Jaungoikoaren deiari ez deutsoela danak baiezko erantzunik emoten... Horregatik gaurko parabola hau, Agustin eta Gregorio Handi santuei jarraituz, beste ikuspegi batetik aztertuko dogu).

"Zeruetako erreinua, bere semearen ezkontzako ezteguak ospatzen zitu-
tuan errege baten antzekoa da. (Mt 22,2).

Jesusek parabola honetan zeruko zoriona, afari eta jai handi, pozgarri batekin bardintzen dau. Errege batek bere semearen ezkontzarako atondutako jai zoragarriarekin...

Zeruko ezteguetan janaririk gozoenak, edaririk bikainenak, alaitasunik pozgarrienak, guretzat izango dira... Zeruko jaietan dana izango da poza, maitasuna eta zoriona...

"Ez dau, ez begiak ikusi, ez belarriak entzun, ezta bihotzak somatu, Jaungoikoak prestaturik daukana, Bera maite dabenentzat" (1 Kor 2,9).

Guk pentsatu eta asmatu geinken baino askoz goragokoa eta beteagoa da zeruko zoriona.

"Bialdu zituan morroiak ezteguetarako deituei etorteko esatera".

Zeruko ezteguetara danok gara deituak... Zeruetako erreinuan danontzat dago lekua. "Jaungoikoak gizaki guztiak salbatzea gura dau" eta danok zeruetako zorionaren jabe izatea. (1 Tim 2,4).

"Baina deituak ez eben ezteguetara etorri nahi izan...Eta bata bere lurretara eta bestea bere sal-erosketara joan zan" (Mt 22,5).

Zein da, itanduten dau Gregorio santuak, herriko handikiak erregearen jaira ez joateko asmatu eben atxakia?... Euren aberastasunak, eta negozioak.

Lurreko ondasunak, diño santu honek, ez daitezela zure bihotzaren jabe egin... Lurreko ondasunak aldi batekoak dira, eta zerukoak betikoak. Lurreko ondasunak biderako dira, zerukoak azkenerako... Nik ez deutsuet aginduko mundu honetako ondasunak erabat izteko, kontuz ibilteko baino, mundu honetako aberastasunekin engainaturik zerukoak ez daiguzan galdu, gaurko parabolako deituei jazo jaken lez...

"Morroiak bideetara urten, eta aurkitu ebezan guztiak batu ebezan, behartsu, elbarri, itsu eta herrenak", "Eta eztegu-lekua bazkaldarrez bete zan" (Mt 20,10; Lk 14,21).

Honeek, bai, pozik joan zirala errege semearen ezkontzako ezteguetara. Munduak baztertu dituenak, herriko jende apalak, honeek dira zeruko zorionera doazanak. Honangoentzat bada leku ugari zeruetako erreinuan... Herriko handiki eta aberatsak, ostera, lurreko ondasunekin aseturik bizi diranak, ez dabe zeruetako ondasunen gose egarririk sentitzen. Nahiko zerurik dauke mundu honetan...

Kale bazterretako pobreak, geisoak, herrenak, mundu honetako ondasunik ez daukenak, honeek, bai, bihotza garbia dabela Jaungoikoaren deiari baietz erantzuteko.

Honetan ere egia da Jesusek esandakoa: "Zorionekoak gogoz behartsu diranak, eurena da eta zeruetako erreinua" (Mt 5,3).

"Zorionekoak Jaunaren zeruko mahaira deituak".

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Kristinauak, lurreko eta zeruko herritarrak gara...

Zerua da gure helburua, baina lurreko bizitza da, betiko zoriona eskuratzeko bidea... Horregatik fededunok, zerua eta lurra, biak alkartzen ikasi behar dogu... Lurreko agintarien legeak, eta Jaungoikoarenak, bienak, bardin bete behar doguz...

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: emon lurreko agintari Zesarri, Zesarrena; baita emon Jaungoikoari, Jaungoikoarena.

1. IRAKURGAIA. Is 45, 1.4-6

Jaungoikoak Ziro Persiako errege jentila aukeratu eban, Babiloniako erbestean bizi ziran israeldarrak, euren aberrira ekarteko.

2. IRAKURGAIA. 1 Ts 1, 1-5b

Paulok Tesalonikako kristinauak goratzen ditu, sinismen egiteetan, maitasun lanetan, eta itxaropen sendoan, gartsuak diralako.

EBANJELIOA. Mt 22, 15-21

"EMOIOZUE, BADA, ZESARRI, ZESARRENA, ETA JAUNGOIKOARI, JAUNGOIKOARENA".
(Mt 22, 21)

H O M I L I A

=====

(Homilia honetako ideak Vatikanoko Kontziliotik hartuak dira.
"Gaudium et Spes" eta "Dignitatis Humanae"tik).

Herri-agintariak eta Eleizea.

Lur honetako arazoak eta zerukoak, politika eta Eleizea, gauza bi desbardinak dira. Bakotxak bere eginbehar bereziak ditu. Politika, mundu honetako arazoak konpontzeko asmatua da; Eleizak, ostera, geroko bizitzari begira jarten gaitu...

Baina, halan izanik ere, bada bien artean nahiko hartuemon eta zerikusirik. Bada, biak, gizarte bordinaren zerbitzurako eginak dira... Eta horregaitik, zenbat eta bien artean hobeto konpondu, hainbat eta gizatearen onerako izango da.

Eleizaren eginbearra.

Eleiza ez da agintera etorri, zerbitzera baino... Eleizak hau bakarrik gura dau, Jesusek emondako lana aurrera erotea: Zoaze mundu gutzira eta zabaldu Barri Ona. (Mk 16, 15)

Eta ez daiala inork pentsatu, mundu hau betikoa ez dala-eta, zeruko zorionaren begira gagozalako, lur honetako arazoak baztertu egin behar doguzala... Alderantziz baino, gure fedea lur honetako eginbeharrek hobeto betetzera eroan behar gaitu.

Eleizak lur honetan dan ontasun, edertasun eta zuzentasun guztia, babestu eta bultzatu egin behar dau... Eleizak ez dau beste gogorik, mundu honetan pertsona guztiak senide lez maitatu ondoren, zeruetan ere, Jaungoikoaren zorionean, bat egin daigula.

Erlijino askatasuna.

Ezin da inor, nahitaez, erlijinoa hartzera behartu. Baita alderantziz ere, ezin jako inori erlijinoa eukitea galera. Kristinauak badauka, beste edozein gizonak lez, bere kontzientziak eskatzen deutsan erara Jaungoikoa adoratzeko eskubidea... Eleizak herri agintariei haxe bakarrik eskatzen deutse: Kristoren barri ona zabaltzeko askatasuna.

Eta estaduko legeren batek askatasun hau ukatuko baleu, fededunak esan behar dau: "Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena, eta ez gizonena". (Ap Eg 5, 29)

Erlijinoa eta politika.

Eleizak mundu honetan, gizartearen "kontzientzia" lez izan behar da. Kontzientzia da gizon bakoitxari zer dan zuzena eta zer dan okerra erakusten deutson argia...

Halan bada, Eleizak gizartean injustiziarik, zapalketarik, edo beste edozein gaiztakeriarik ikusten badau, Lege Zaharreno profetak lez, salatu egin behar dau, giza-eskubideak beti zainduak izan daitezcan...

Vatikanoko Kontzilioak herri-agintariei mezua.

Herri-agintariok:

Zuen lana estimagarria da. Zuok emondako lege zuzenak onartzen doguz... Baina ez egizue ahaztu: Jaungoikoa bakarrik da Handia. Bera da zuen aginpide eta zuen legeen oinarri eta iturria... Bera da gizon emakume guztien Aita... Horretarako etorri zan, Kristo, bere Semea lur honetara: gizaki guztiok senide garala irakastera...

Ez egizue Eleizaren bildurrik izan... Eleizak Askatasuna ez dau besterik nahi... Askatasuna sinisteko, eta sinismen hori zabaltzeko. Askatasuna, Jaungoikoa maitatu eta zerbitzeko... Eleizak bere seme-alabei, legeak betez, herritar leialak izaten irakasten deutse. Gorrotoak aldendurik, bake-zaleak izaten...

Vatikanoko bigarren Kontzilio honek, bere azken egunean, zuoi herri agintarioi eta zuen menpekoei, bere adiskidetasuna, bere zerbitzuak espirituzko indarrak eskeintzen deusuez, baita bere bedeinkapena bialtzen...

(1963ko Abenduaren 7an)

(A) 30. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaieraz).

SARRERAKO OHAPENA.

Senideok:

Eukaristiako batzar honetan Jesus gurekin dago...

Jesus gure irakasleak gaurko ebanjelioan esango deusku: Jaungoikoa maitatzea eta lagunurkoa maitatzea, gauza bat eta bardinak dirala.

Ezin dala Jaungoikoa benetan maitatu, gure senidea maite ez badogu.

Hau da kristinau fedearen mami eta sustarra.

1. IRAKURGAIA. Ex 22,20-26

Maitasuna, egiteetan agertu behar da: alargun, umezurtz eta txirgei, Jaungoikoaren izenean, lagunduz.

2. IRAKURGAIA. 1 Ts 1,5c-10

Tesalonikako kristinau taldearen fede eta izen ona, inguruko herrietan zabaldu da. Paulok honegatik Jaungoikoari eskerrak emoten deutzoz.

EBANJELIOA. Mt 22,34-40.

"ZURE JAUNGOIKO JAUNA BIHOTZ-BIHOTZEZ, ARIMA GUZTIAZ IZANGO DOZU MAITE...ETA ZURE LAGUNURKOA, ZEURE BURUA LEZ"...(Mt 22,37-39)

H O M I L I A
=====

(Frantziako gotzainak "maitatzea zer dan" egindako adierazpenetik ideak hartuta) ("Ecclesia" 1970.1, 522 zenb. (2297) 33 orr)

Maitatzea zer da?.

Bihotza beteten dauan lagun bat aurkitzea, da maitatzea...

Maitasuna aurkitu dauanak, zoriona aurkitu dau...

Maitasuna galdu dauanak, dana galdu dau...

Benetan maite dauanak, maitearen zoriona, norbere buruarena baino gehiago, nahi dau...

Maitasunak betikoa izatea eskatzen dau... Aldi baterako bakarrik maite dauanak, ez dau benetan maitatzen...

Haurtzaroko maitasuna.

Umeak bere etxekoen artean maitasun beroa aurkitu behar dau...

Haurtxoak, bere aita-amak alkar asko maite dabela ikusten badau, eta etxeko guztiak zoriontsu bizi dirala sentitzen badau, ume horrek berez-berez, inork irakatsi barik, maitatzen ikasiko dau... Baita alderantziz ere, haurrak etxean maitasunaren pozik ez badau ikusten, bizitza guztirako jota geldituko da... Umeak sexu gaietan itaunak egingo ditu. Itaun horrei, misteriorik egin barik, umeak ulertzeko moduan, erantzun errez eta egoki bat emon behar jake.

Gazteen maitasuna.

Haurrak maitagarriak dira..Baina ume hori gazte izatera heltzen danean,orduan sortzen dira buruhaustekak.

Gazteak,bere bihotzean maitasun egarri bizia sentitzen dau,baina maitasun hori,adin horretan,gehienetan ameslari edo erromantikoa izaten da...Gazteak jakin behar dabe,bizitza guztirako laguna zelangoa aukeratzen daben,euren geroko zoriona ala zoritxarra,aukeratze horretan dagoala.

Ezkonduen maitasuna.

Senar-emazteen maitasuna,lagun biren arteko maitasuna baino askoz goragokoa da... Ezkontza,alkarrekin bizitzeko,Jaungoikoaren eta gizartearen aurrean,hartzen dan maitasunezko konpromiso bat da. Eta seme-alabak dira maitasun horren frutu bedeinkatuak.

Ezkonduek bizitza barri bat hasten dabe,eta horregatik ezkondu aurretik benetan maitatzen ikasi behar da... Maitasuna oso ahuskorra,errez galtzen dan,gauza da. Horregatik senar-emazteak,euren eguneroko arazo txikietan,batak bestearen poza eta zoriona bilatzen ikasi behar dabe...

Senar-emazteak ezkontza egunean,altare aurrean, alkarri promesa hau egin eutsoen:"Nik maiteko zaitut,bai zorionean,eta bai zoritxarrean; bai osasunean,baita geisoaldian,betirako".

Agintzari hau egia izan daiten,Jaungoikoaren laguntza behar da,baita ezkonduen ahaleginak ere.

Jaungoikoa maitasuna da.

San Joan ebanjelariak Jaungoikoa zelangoa dan guri erakusteko,hau esaten dau:"Jaungoikoa maitasuna da". (1 Jn 4,20)...Hori holan izanik,Jaungoikoa zelangoa dan,benetan maitatzen ikasi dabenak bakarrik,jakin leikie...Maitatzen ikasi ez dabenak,Jaungoikoaren maitasunari ez deutsoe bihotzik zabalduko...Jaungoikoaren maitasunean sinisten dauanari bide barri zabaltzen jako:salbamen bidea.

Ez da Jaungoikoaren bihotzaren antzekoagorik,alkar maite daben gizon-emakumeen bihotza baino...Maitasuna zapaltzen danean,gizona ere baztertua izaten da,eta Jaungoikoa ukatua.

Maitasuna,zenbat eta beteago eta sakonago bizi izaten dan,gizona hainbat eta bikainago egiten da,eta Jaungoikoagandik ondorago aurkitzen. Maitasunik-ezak,mundu hau goibel-triste eta gozotasun bakoa bihurtzen dau. Jaungoikoa eta senidea maite dituanak,ostera,mundu hau alaiago eta zoriontsuago egiten dau,eta kristau fedearen mamia zein dan aurkitu dau.

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Gaurko Barri Onean Jesusen agotik, farisearren aurka berba gogor eta bildurgarriak entzungo doguz...

Ez gaitez an gu, farisearren antzera, itxura zaleak izan: kanpotik eder eta barrutik ustel...

Gure erlijinoa ez daitela itxurazkoa bakarrik izan, egiazko eta benetakoa baino.

1. IRAKURGAIA. Mal 1,14b-2,2b.8-10

Jaungoikoa hasarre dago Israelgo abadeekaz, Jaunaren Legea zabaldu bai, baina beteten ez dabelako.

2. IRAKURGAIA. 1 Ts 2,7b-9.13

San Paulok Tesalonikako kristinauak asko maite ditu, Jaungoikoaren hitza entzun, eta bihotz onean hartu dabelako.

EBANJELIOA. Mt 23,1-12

"EGIZUE, BERAZ, IDAZLARI ETA FARISEARRAK ESANDAKO GUZTIA, BAINA EZ EGIN, HAREEK EGITEN DABENA". (Mt 23,3)

H O M I L I A
=====

(Jochin Jeremias-en "Teologia del Nuevo Testamento" liburutik ideak hartuta).

Harritzekoa da Jesusen jokabidea: pekatari eta emakume galduak onartzen zituan bitartean, farisearrak eta lege-idazlariak - Jesusen garaiko gizonik jainkozaleenak - ezin zituan begi onez ikusi...

Ezer esan aurretik jakin beharra da, Jesusek, gaurko ebajelioan entzun doguzan hitz gogorak, ez ebazala farisear guztientzatesan... Baziran orduan farisearren artean jaungoikozale zintzorik asko, Jaungoiko egiaz maite ebenak, Gamaniel eta Nikodemo esaterako.

Baina haren artean bazan talde bat, santu itxurak eginez, eta Moisesen Legea atxakiatzat harturik, Jesusen maitasun eta errukiaren Lege Barriari, bihotzak itxi, eta aurka egiten eutsoenak.

Honeentzat dira gaurko Ebanjelioan irakurri ditugun Jesusen hitz gogorak... Behar bada, lau ebanjelioetan aurkitzen diran hitzik gogorrenak.

Jesusek farisearrak gogor hartzen ditu:

Zuok, farisearrok! Moisesen Legeko agindu eta ohiturarik txikienak ere, ardura guztiaz beteten dozuez, baina Lege horren agindurik handienak, "maitasuna" eta "errukia", alde batera izten dozuez.

"Edariak iraztean eltxoak hartu eta gamelua iruntsi egiten dozue"
(Mt 23,24)

"zuok, farisearrok! Limosnak emon, otoitz luzeak egin, eta Legeak agindutako barauak zehatz beteten dozuez, baina dana jendeak ikusteagatik egiten dozue... Hilobi zurutuak dirudizue; kanpotik ederrak, baina barerutik ustelkeriaz beteak". (Mt 23,27)

Jesusek errukiz betearen agotik halango berba gogorak entzuteko, zer zan farisearren pekatua?... Bihotzeko harrokeria, eta azaleko itxurakeria...

Jesusek, Legea beteteko farisearrak egiten ebezan ahaleginak, onartzen ebazan...

Jesusek, farisearren limosnak, otoitz eta barauak, ez ditu txartzat hartzen... Baina Jesusek farisearren harrokeria eta itxurakeria, ezin zituan inondik ere eroan...

Farisearrak uste eben, eurak bakarrik zirala santuak, eta beste guztiak pekatariak... "Ni ez naz - dino parabolako farisearrak - besteak langoa, lapurrak, okerrak eta ezkontza-nahasleak". (Lk 18,11)

Farisearrak ziur egozan, Moisesen Legea betetearen ordainez, zerua merezidu ebela, Jaungoikoa eurakin zerua emoteko zorretan balego lez.

Farisearrak uste eben, euren santu itxurakaz, gizonak lez, Jaungoikoa ere engainatuko ebela... Baina "Jaunak bihotzak ere ikusten ditu". (1 Er 16,7)

Farisearrak txartzat hartzen eben Jesusek pekatari damutei - zergalari eta emakume galduari - hain errez parkamena emotea, eta gero euren lagun egitea. "Horra hor - esaten eben Jesusegatik - zergalarien eta pekatarien adiskidea". (Mt 11,19)

Ez da pekatari, Jaungoikoagandik gehiago aldentzen dauanik, bihotzeko harrokeria baino... Harroak besteen pekatuak ikusteko begi zorrotzak ditu, baina berenak ikusteko itsua da... Eta pekatari ez badauka, zergatik Jaungoikoari parkamenik eskatu?...

Apalak, ostera, San Pauloren antzera humiltasunez autortzen dau: "Jesukristo pekatariak salbatzera etorri da lurrera, eta pekatarien artean aurrena neu naz". (1 Tm 1,15)

"Bere burua goratzen dauana, beheratua izango da; eta bere burua beheratzen dauana, goratua". (Mt 23,12)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Fedea da kristinau arimen argia. Eta gure fede hau indartzeko batu gara eleiza honetan...

Jesusek gaurko ebanjelioan bost neskatxa zentzunbako, eta beste bost zentzundunen parabola, erakutsiko deusku...

Gure arimako argia bizturik bizi gaitezaz, Jauna datorrenean - gitxi- en uste dogunean izango da - zeruko ezteguetara sartzeko prest egon gaitezaz.

1. IRAKURGIA. Jak 6,13-17

Jaunaren legeen bidetik dabilena, benetan jakintsua da, eta Jaunaren poza eta bakea izango ditu.

2. IRAKURGAIA. 1 Ts 4,12-17

Jesus hil baina biztu zan lez, Jesusengan sinisten dabenak ere, piztuak izango dira.

EBANJELIOA. Mt 25,1-13

"NESKATXA ZENTZUNBAKOAK ARGI-ONTZIAK HARTU EBEZAN, BAINA ORIORIK EZ EUREKIN... ZENTZUNDUNAK, BARRIZ, ARGI-ONTZIEKIN BATERA ORIOA ERE HARTU EBEN ONTZIETAN". (Mt 25,3-4)

H O M I L I A
=====

Kristinau zintzo baten bizitza, mundu honetan gagozan bitartean, honelangoak izan behar dau: "Bai, baina oraindik ez"... Esan gura dot: zerura joateko itxaropena bai, Baina zeruan aurkitu arte, ziuarta- sunik, ez...

Ez gaitezala, gaurko parabolako neskatxa zentzunbakoan antzeko izan, geure bizitzaren azkenean, Jauna datorrenean, argi-ontzietan orio barik aurkitu ez gaitezaz... Neskata hareek ez ziran zentzunbakoak loak hartu zitualako - zentzundunak ere lo gelditu ziran - baina bai, ontzietan oriorik hartu barik, lotan jarri zirialako... Orioa parabola honetan, Jaungoikoaren grazia eta adiskidetasuna da.

Kristinauak ez dau Jaungoikoaren bildurpean bizi behar, beti ikaraka, gure Jauna epaile zorrotz-gogorra balitz lez... Baina beste aldetik ere, ez dogu geure buruaz konfidantza gehiegi hartu behar, santu hut- sezinak bagina lez... Jauna adiskide dogula, nasai lo egin geinke.

"Etzun orduko, bake osoan loak nau hartzen", dino salmogileak. (Sal 4)

Kristinauok, zerura joango garan itxaropenean, pozik bizi behar da-
gu... Baina zeruko portura heldu arte, kontuz!...

Ziurtasunik ez, lur honetan bizi garan bitartean edozer okerkeria
egin, eta betiko galdu gaitkezalako.

Baina itxaropena bai, nigatik kurutzean hil zanak, nik eragozpenik
ipintzen ez badot, zerura jasoko naualako.

Ziurtasunik ez, ariman makalak gara, eta gitxien uste dogunean, jausi
gaitkezalako.

Baina itxaropena bai, gure indarra Jaungoikoa dalako.

Ziurtasunik ez, santurik santuena ere, azken orduan, galdu daiteke-
elako.

Baina itxaropena bai, pekatarririk gaitzoena ere, lapur ona lez, azken
orduan damutzen bada, salbau daitekeelako.

Alde batetik, Jaungoikoari errukiari begiraturaz, gure bihotzak nasaitu
egin behar doguz, gure Jauna parkamen hutsa dalako.

Baina beste aldetik, gure izate makalari begiraturaz, kontuz! ibili
behar dogu, errezegi jausten garalako.

Gure barruari begiraturaz, gure bihotzean aingeru bat eta deabru bat
bizi dirala, esan leike.

Aingeru bat, zerurako bidean lagun egiten deuskuna.

Deabru bat, gu betiko hondamendira eroateko, beti lanean dabilena.

Alde batetik, gure bihotzeko asmo onei begiraturaz, gaurko ebanjelioko
neskatxa zentzundunen antzeko garala, emoten dogu.

Baina beste aldetik, gure egite okerreari begiraturaz, neskaxa zentzun-
bakoan antzeko garala, esango geunke, gure betiko salbamena, edozelan-
go gauza txikigatik, arriskuan ipinten dogu-eta.

San Mateok, erne egoteko esaten deusku: "Jauna gure bizitzako kon-
tua eskatzera noz etorriko dan, ez dakigulako", (Mt 25, 13)

Jauna etorriko dala ba dakigu; noz etorriko dan, oster, ez.

Eta San Paulok esaten deusku: "Ordua da lotatik iratzartzeko. Ba doa
gaua, ganean dogu eguna. Kendu daiguzan ilunpetako egintzak... Ez i-
bili jan-edankerietan, ez lohikerietan eta nasaikerietan, ez hasarre
eta alkar ezin-ikusietan. Hartu egizue Kristoren argia. (Er 13, 11-13)
Eta Berak sartuko zaitue zeruko ezteguetara.

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jaun onak guri gorputzeko biziaz ganera, arimako beste dohe asko ere emon deuskuz; lur honetan bizi garan bitartean, eurekin lan egin, irabazi eta frutu ugari emon daigun.

Ez gaitzean gaurko parabolako morroi alperraren antzeko izan...

Bizitzaren iluntzean Jaunaren agotik, entzun daigula: Ederto, morroi zintzo eta leiala; sartu zaitetz zure Nagusiaren pozetara...

1. IRAKURGAIA: Es Za 31,10-13.19-20.30-31

Etxeko andra langile eta maitagarria, Jaunaren legean zuzen dabilena, goratua izango da alde guztietan.

2. IRAKURGAIA: 1 Ts 5,1-6

Argiaren seme-alabak lez, erne bizi gaitzean Jauna datorrean pozik onartzeko.

EBANJELIOA: Mt 25,1-6

"EDERTO, MORROI ZINTZO ETA LEIALA!. GITXIAN ZINTZOA IZAN ZARALAKO, ASKOREN BURUZAGI EGINGO ZAITUT; SARTU ZAITEZ ZURE NAGUSIAREN POZETARA". (Mt 25,21).

H O M I L I A
=====

"Nik ez dot kalterik egiten"... "Nik ez deutsat inori txarrik egin", Honango berbak entzuten dira askotan, baita kristinauen agotan ere...

Baina gaurko parabola aztertu eta gero, ez dot uste hori esanda, nasai gelditu gaitkezanik...

Morroi alperra.

Hirugarren morroiak, nagusiaren eskutik talentu bat hartu ebanak, ez eban diru hori mozkorretan eta nasaikerietan gastatu. Ez eutson inori diru horregaz kalterik egin... Irabazitan ipini barik, zulo bat egin, eta gorde egin eban!...

Baina alperkeria horregaitik, nagusiaren agotik, honango berba gogorak entzun behar izan zituan: "Morroi gaizto eta alperra!. Zoaz kanpoko ilunpeetara!...

Jaunaren begietan, on egin geinkenean, on hori ez egitea, kalte egitearen antzeko da, eta morroi alperraren ordaina irabazi dau.

Horregaitik, eukaristiaren hasieran, Jaungoikoari parkamena eskatzen deusagu, ez bakarrik "gogapen, hitz eta egitez" pekatu egin dogulako, baina baita ere "egin beharrak egin ez doguzalako".

Ederto, morroi zintzo eta leiala!:

Beste morroi biak, ostera, nagusiak txalotu egin zituan, lanari ekin, eta hartutako talentuekatz, beste hainbeste irabazi ebelako: bost talentu hartu zituanak, beste bost; eta bi hartu zituanak, beste bi.

Talentu bakotxa dirutza handia zan; orain gure arteko hamar miloi baino gehiago balio eban bakotxak...

Geuk ere, Jaunagandik ez doguz talentu gitxi hartu: gorputzean bizia, osasuna, sendia, lagunak... Eta ariman fedea, eukaristia, pekatuen par-kamena, zerura joango garan itxaropena...

Eta nagusiak esaten deusku: lur honetan aurkitzen zarien bitartean lan egin, heriotzako orduan esku-hutsik aurkitu ez zaitez...

Gitxian zintzoa izan zaralako, askoren buruzagi egingo zaitut.

Jesusen berba honeekaz gure bihotzak jaso daiguzan:

Lana gitxi da, saria, ostera, handia...

Lana aldi batekoa da, saria, ostera, betikoa.

Lana mundu honetan, atsedena zeruetan.

"Nire eritxian, dino San Paulok, oraingo neke-lanak ezer gitxi dira, gero gugan agertuko dan zeruko aintzaren aldean" (Er 8,18).

Sartu zaitez, nagusiaren pozetara.

Tomas santuak dino: "Poza gure bihotza baino txikiagoa danean, orduan esaten dogu, poza gure bihotzera sartu dala ... Baina poz hori gure bihotza baino handiagoa danean, orduan esaten dogu, gu sartu gara la poz horretara"...

Norbait itsasora sartzen danean, alde guztietatik urez inguraturik aurkitzen dan lez, gu ere zeruetan alde guztietatik Jaungoikoaren zorionez inguraturik eta aserik biziko gara...

Gure bizitzaren iluntzean, Jesus gure nagusiaren agotik berba pozgarri honeek entzutea merezidu daigula:

"Ederto, morroi zintzo eta leiala!. Sartu zaitez zure nagusiaren pozetara". Hala bedi.

(A) 34. DOMEKEA URTEAN ZEHAR. (Bizkaeraz)

JESUKRISTO GURE JAUNA, DIRAN GUZTIEN ERREGE

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Eleiz-urteko azken domeka honetan, Kristo Erregerean jaia ospatzen dogu...

Kristo ez da mundu honetako errege eta lehendakarien antzekoa.

Kristoren erregetza bake, parkamen eta maitasun erreinua da...

Kristo ez dator inori lurreko erregetza kentzera, zeruko erreinua guztioi emotera baino.

1. IRAKURGAIA: Ez 34,11-12.15-17

Jauna artzain ona da... Bere ardiak maitasunez larratzen ditu. Sakabanatu eta galduak batu, eta bere artegira ekarten ditu...

2. IRAKURGIA: 1 Kor 15,20-26a.28

Jesus biztuak, heriotzea garaitu dauan lez, gu ere biztuko gaitu. Jaungoiko Aitak, zeru-lurretako gauza guztiak bere Semearen menpean ipini ditu...

EBANJELIOA: Mt 25,31-46

"GIZONAREN SEMEA... BERE JAUN-AULKI OSPETSUAN JESARRIKO DA; ETA HERRI GUZTIAK HAREN AURREAN BILDUAK IZANGO DIRA". (Mt 25,31-32).

H O M I L I A
=====

(Ideak eta esaldiak Giuseppe Ricciotti-ren "Vida de Cristo" liburutik hartuak. 723-729 orr.)

Jesus Palestinan, Erromako inperioaren bazter batean jaio zan... Erromatarrak judutarren lurraldeari desprezioz "esklabo-herria" esaten eutsoen...

Jesus lur bazter honetako Nazaret herri txikian bizi izan zan... Ez eban herritik urten, ez Jerusalemenean ikasketak egiteko, ezta bere garaiko gizon jakintsu, politiko edo armagizon ospetsuekin hartu-emonik eukiteko...

Hogeita hamar urtetan bere etxeke aroztegian lan egin eban, leihua eta ate zaharrak konpontzen... Bere herrian inortxok ere ez ekian nor zanik, bere inguruko bi edo hiru pertsonak izan ezik...

Eta bapatean, gazte zala, bere etxea itzi, eta jendeen aurrean predikatzen hasten da, eta gauza harrigarriak esan eta egiten...

Ez dauka armarik, ezta dirurik bere lan barrian lagunduko deusarik. Bere herritarrak burua galdu dauala uste dabe...

Beti jende pobreen artean bizi da: baserritar, arrantzale eta esku langileen artean... Geixoak eta pekatariak maite ditu, eta honangoen alde mirari harrigarriak egiten ditu...

Bere jarraitzaileen artean hamabi gizon aukeratzen ditu, berak irakasten dauana, mundu guztian zabaldu dagien...

Zer predikatzen dau?. Harrigarria!

Munduak ontzat hartzen dauana, Jesusentzat txarra da... Eta munduak maite dituan dirua, ospea eta handikeriak, Jesusek gorroto ditu...

Eta beste aldera, munduak gorroto dituan pobretasuna, apaltasuna eta obeditzea, Jesusek predikatzen ditu...

Jesusen erreinuaren eta munduaren erreinuaren artean burruka gogorra dago... Munduko erreinuaren aldekoak, bakotzak bere buruaren alde jokatzeko, bezteak baztertuz... Jesusek, ostera, bere erreinukoei agintzen deutse: lagunurkoa norbere burua lez maitatzeko, txarto eginari ondo eginez erantzuteko, lehenengo izan gura dauana, azkenengo izateko...

Eta dotrina hori predikatzen ebalako, kurutzean josi eben...

Baina hirugarren egunean biztu egin zan, eta gaur egun Jesusek gure artean inoz baino biziago irauten dau...

Sokrates, Julio Zesar eta Napoleon, bizi izan ziran bitartean, euren ikasle eta gudarien aldetik maitatuak izan ziran... Baina hil eta gero, gaur idolo hareen alde nork emongo leuke bere bizia?... Kurutzean hildakoaren jarraitzaileak, ostera, gaur ere milaka eta miloika kontatzen dira mundu zabalean...

Gaur ere Jesus "burruka-ikurrina" da gizonen artean... Orain ere burrukarik gogorrenak Jesusen inguruan jokatzeko dira... Batzuk maite izango dabe, euren bizia emoteraino. Besteak, ostera, Jesusen izena ere lurretik kendu gura izango dabe, guztiz galtzeraino...

Baina Jesus ez dator inori erreinuak kentzera, danoi zerruko erreinua eskeintzera baino, gaurko ebanjelioak erakusten dauan lez: "Orduan erregeak honan esango deutse bere eskumaldekoei: zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue, zuentzat munduaren sortzetik prestatu dagoan erreinua" (Mt 25,34).

Andra Maria. Sortze garbia.

(Bizkaieraz)

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jaungoikoaren Ama Sortze Garbiaren jaia ospatzen dogu gaur...

Andra Maria, izaten hasi zan une beretik, Adanen pekatutik guztiz garbi, eta graziaz betea gertatu zan.

Jaungoikoaren Semeak ezin eban, bere ama izango zana, pekatuak zikintzen itxi...

Andra Maria Sortze garbiak, bere Semearen aurrean gure alde otoitz égin daiala, pekatu guztietatik garbituak izan gaitez.

1. Irakurgaia: Gn 3, 9-15.20

Adan eta Ebari paradisuan pekatu egin ondoren, Jaungoikoak salbatzaile baten agintzaria egin eutsen. Salbatzaile horren ama, Maria izango zan...

Ebak heriotza ekarri euskun lez, Mariak betiko bizitza dan Jesus ekarri deusku.

2. Irakurgaia: Ef 1, 3-6.11-12

Jaungoikoak, bere erruki handian, bere seme-alabatzat aukeratu gaitu. Eta seme-alaba garealako baita zeruaren jabe ere. Jaunari eskerrak.

Ebanjelioa: Lk 1, 26-38

«Aingeruak esan eutsan Mariari:

Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». (Lk 1, 28)

Homilia

Elizak beti sinistu izan dau, Andra Maria, Jaungoikoaren Ama, bere Seme Jesusen merezimenduei esker, izaten hasi zan une beretik, pekatu zikin guztitik, garbi izan zala.

Laugarren gizaldian bizi izan zan Joan Krisostomo santuak (344-407) Mariagaitik dino: «Ezin dogu Mariaren omenez gorralpen handiagorik esan, Jaungoikoaren Ama dala baino.... Jaungoikoak zeru, eguzki eta lur ederragoak egin eikezan, baina bere Seme Jesus baino gizon hobeagorik ez, ezta bere Semearen Ama baino emakume ederragorik».

Eta gizaldi berean bizi izan zan Siriako Efren santuak, Jesuskristorekin alkarrizketan dino: «Zu, Jesus, eta zure ama, guztiz eder egindako bakarrak

izan zarie. Zugan, Jauna, eta zure amagan ez da aurkitzen ezelango zikinik»
Eta gero Andra Mariagatik esaten dau: guztiz garbia dala, erru eta ustel bakoia, zikin eta pekatu guztitik garbi zaindua.

Eta bosgarren gizaldian Alejandriako Zirilo santuak dino: «Etxegile batek beretzako etxe bat egiterakoan zelan berari baino lehenago bere arerioari itxiko deutso etxe haretan biziten?». Esan gura eban: Jaungoikoak Mariaren sabela egin eban beretzat bizileku, zelan itxiko eutsan arerioari etxe hori zikintzen?...

Euskal Herriari buruz jakin daigun euskaldunok Maria Sortze Garbiari izan deusagun maitasun beroa era askotara azaldu dogula.

Bernard Etxepare. Hau izan zan euskaraz inprentan argitaratu dan lehenengo liburuaren egilea. (1.545garren urtean). Abade honek bertsoan Andra Mariari esaten deutso: «Zu bait zara grazia ororen ama eta iturburua. Bertute on guztien tesorera handia. Egundaino pekatutan makulatu bakoia».

Nafarroako Iratxe komentuan 11garren gizaldian Sortze Garbiaren jaia aintza handiz ospatzen zan, eta hemendik Nafarroa osora debozino hau zabaldu zan... 14garren gizaldian, behintzat, jai hau Nafarroa osoan Meza entzun beharreko zan.

Bizkaian *Bilboko alkateak* 1620garren urtean huritarren izenean zin hau egin eban: «Jaungoiko gure Jaunari bere ama Mariaren aurrean zin dagiot, Andra Maria Jaungoikoaren Ama guztiz santua, jatorrizko pekatu barik sortua izan zala, beti babestea». Eta zin bardina egin eban Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1.736garren urtean, Gernikako arbolapean batuta.

Gipuzkoa. Gipuzkoako Batzar Nagusiak izan ziran Euskal herrian aurrelari, Mariaren Sortze Garbia babestean.

1.626garren urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiko aldunak zin hau egin eben: «Maria guztiz santua, Birjina eta Jaungoikoaren Ama miragarria, aingeru eta gizonen Erregina, izaten hasi zan une beretik, guztiz garbia eta errubakoa izan zala, beti babestea».

Azkenez, Pio 9garren Aita Santuak, Eliza katoliku osoaren eritziak bildu ondoren, 1.854garren urtean, Andra Maria sortzetik guztiz garbia izan zala, fedeko egiazat onartua izan behar zala, adierazi eban, hitz honeen bidez: «Maria Birjina zoriontsua, sortu izan zan une beretik, jatorrizko zikin guztitik gordea izan zan, Jaungoiko ahalguztidunaren grazia berezi baten bidez, eta aurrez ikusitako Jesukristoren merezimentuei esker».

Guztia ederra zara zu, Maria.
Sortzetik zarala errubakoa.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Andra Maria zerura jasoaren jaia ospatzeko batu gara fededunok gaur altara honen inguruan...

Jaungoiko Aitak Nazaretoko neskatxa gazte Maria aukeratu eban bere Semearen ama izateko. Eta Maria birjina, Jaungoikoaren ama zalako, gorputz eta arimaz zerura jaso izan da, bere Seme Jesusen ondoan goiko erregin izateko.

1. IRAKURGAIA: Apk 11, 19; 12, 1-6a. 10 ab

Apokalipsis liburuan emakume bat agertzen da eguzkiz jantzia, ilar-gia oinpeko, eta hamabi izarreko koroia buruan. Mariaren irudi da.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 20-26

Adanek heriotzea ekarri euskun lez, Kristok betiko bizia emoten deusku. Kristoren ama Maria da, eta horregaitik zerura jaso.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-56

"BEDEINKTUA ZU EMAKUMEEN ARTEAN...ETA BEDEINKATUA ZURE SABELEKO FRUTUA" (Lk 1, 42)

H O M I L I A

=====

Vatikanoko Kontzilioak "Lumen Gentium" Konstituzinoan (57-59 zenb) Maria, Jaungoikoaren amaren, bizitza osoa gure begien aurrean ipinten deusku.... Honela diño:

"Gure salbamen egintzan, Andra Maria, bere sortze garbitik heriotzararte, beti bere seme Jesusekin bat eginda agertzen da.

Maria, Espiritu Santuaren egitez bere seme Jesus sabelean eukala, Isabel bere lehengusina ikustera joan zanean, Joan Bateatzaileak, bere amaren sabelean, pozez salto egin eban...

Belenen Jaungoikoaren Amak bere seme jaio barria artzainei eta magoei erakutsi eutsen... Eta berrogei egun geroago Jerusalemgo eleizan Mariak bere semea Jaunari aurkeztu eutsan; eta orduan Simeon zaharrak aditzera emon eutsan ezpata batek alderik alde bihotza zulatuko eutsala...

Jesus gaztea Jerusalemgo eleizan galdu ebenean, Mariak eta Josek ez eben semearen erantzuna ulertu; eta Mariak gauza guzti honeek bere bihotzean gordeten ebazan...

Nazaretoko etxea itzi eta Jesus barri ona predikatzen hasten danean, Maria bere semearen ondoan aurkitzen da.

Galileako Kanako ezteguetan, Jesusek bere amaren eskabideari erantzunez ezkonbarrien lotsaz errukiturik ura ardao bihurtu eban, honela bere mirariei hasiera emonez...

Birjina zorientsuak bere semeagaz eukan batasuna kurutzeraino eroan eban, eta kurutzearen oinetan, Jaungoikoaren nahia beteteko, zutik egon zan, bere semeagaz batera neke saminak eroanez, eta Semearen opariekkin batera, amaren bihotzeko nekeak ere alkartzuz...

Eta Kristo Jesusek kurutzean hil urren egoala, Joan ikasleari Maria amatzat emon eutsan, berba honeen bidez: "Andrea, horra hor zure semea".

Pentekostes aurretik, apostoluak otoitzean bildurik ikusten ditugu, Espiritu Santua eskatzen, emakume batzuekin eta Jesusen Amarekin, eta Haren senideekin batera.

Azkenez, Birjina errubakoa, jatorriko pekatutik garbi gordea, lurreko bizitzaldiaren ondoren gorputz eta arimaz zeruko aintzara jasoa izan zan, zeru eta lurren jaun eta jabe dan bere Seme Jesusen antzeko eginik, Maria izadi guztiaren Erregin izan zedin"...Honeraino Vatikanoko Kontzilioak.....

1,950. urtean Pio XII. Aita Santuak, Andra Maria gorputz eta arimaz zerura jasoa izan zala fedeko egitzat sinistu beharra zala, erabagi eban, berba honeen bidez:

"Jaungoikoaren Amaren aintza goratzeko, Eleizaren eta kristinau guztien poz eta alaitasunerako, Jesukristo gure Jaunaren aginpidez, Pedro eta Paulo eta neure izenean, autortzen dogu, adierazten dogu eta erabagiten dogu, kristinau guztientzat sinistu beharreko egia dala: Jaungoikoaren Ama guztiz garbia, Maria beti birjina, munduhonetako ibilaldia amatu ondoren, gorputz eta arimaz zeruetara jasoa izan zala".

Homilia hau, Lisieux-ko Teresa Deunaren berbakaz amaitu gura neuke.

"Andra Mariaren omenez esaten diran hitzaldiak -diño berak- fededunen onerako izan daitezkan, Mariaren bizitza benetan zelangoa izan zan, erakutsi behar leukie, ebanjelioak esaten dauanari jarraituz, eta ez amesetan egindako Mariaren bizitza predikatuz...

Andra Maria, gure antzera, fedearen bidetik ibili zala, esan behar da, eta honan gu ere Ama Birjinaren antzeko izaten ahaleginduko gara...

Andra Mariaren goralpenak esatea ondo dago, baina ez da nahiko... Jaungoikoaren Ama maite izan behar dogu, eta haren antzeko izaten ahalegindu".

San Jose, Andra Mariaren senarra

Sarrerako oharpena.

Senideok:

Jose Deunaren eguna ospatzen dogu gaur...

Jose, gizon zintzo eta apala, Nazareteko familia santuaren zaindaria izan zan, baita gaur Eliza osoaren zaindari ere...

Langileen eredu eta heriotza onaren laguntzailea... Santu handi honek zeruko betiko zoriona eskuratzen lagundu deigula.

1. Irakurgaia. 2 Sam 7, 4-5a. 12-14a. 16

Jose Deuna, Dabid erregeren ondorengoa zan... Eta honen legezko- seme Jesusengan bete ziran Natan profetaren hitzak.

2. Irakurgaia. Erm 4, 13. 16-18. 22

Abrahan, sinismen handiko gizona zalako, Jaungoikoak bedeinkatu egin eban... Jose Deuna ere, Jaunagan itxaropen osoa ipini ebalako, Nazareteko sendi santuaren buru jarria izan zan.

Ebanjelioa. Mt 1, 16. 18-21. 24a

«Jakobek, barriz, Jose sortu eban, Mariaren senarra, eta Mariarengandik jaio zan Jesus, Kristo deritzana». (Mt 1, 16)

Homilia

Historia hutsari begiratzen badeutsagu, Jose Deunaren bizitzari buruz zehaztasun gitxi aurkituko ditugu...

Antzinako eliz-idazle batzuk uste dabe Belenen jaio zala, beste batzuk, ostera, Nazareten edo Jerusalem.

Judutarren ohitura zan lez, gazterik, 18 urte inguru zituala, Nazareteko neskatxa gazte batekin ezkondu zan. Maria zan neskatxaren izena... Jose eta Maria, senar-emazteak, Nazareten bizi zirala, Belenera joan beharrean aurkitu ziran, Erromako Enperadore Augustoren «izen-emote» agindua beteteko, eta han egozala jaio zan Mariaren seme Jesus, Mesias, munduko salbatzailea.

Herodes erregeak, umea hil gura ebalako, Josek, bere emazte Maria eta Jesus haurtxoarekin, Ejiptora ihes egin eban, eta han bizi izan zan Herodes erregea hil zan arte.

Ejipton bi-hiru urte igaro ondoren, hirurak Nazaretera itzuli ziran, eta Galileako herri txiki haretan Josek, aroztegian lan eginez, bere sendiarentzat eguneroko ogia irabazten eban.

Pobre, baina bai zoriontsu biziko zirala aita-ama eta Jesus gaztea Nazareteko etxe pozgarri haretan!. Jose etxeko-jaun, Maria etxeko-andra eta Jesus Jainkoaren semea aitari eta amari obeditzen, eta hirurak maitasunez bihotz bat egiten...

Jose noiz hil zan ere ezin dogu ziur jakin... Baina, badakigu, Jesusek 13 urte zituala, Jose bizi zala. Bada, San Lukas ebanjelariak esaten deusku, garai haretan, judutar zintzoen ohiturari jarraituz, hirurak, Jose, Maria eta Jesus, Jerusalemenera joan zirala, eta hango elizan Jesus galdu egin jakela...

Beste aldetik, ia ziur esan daikegu, Jesus 30 urtegaz barri ona zabaltzen hasi zanean, ez zala Jose bizi. Horregaitik Jesusen 13 eta 30 urteen bitartean jarri behar da Josereren heriotzea... Benetan heriotza santua Jose Deunarena, Jesus eta Mariaren besoetan!

Guri ere santu honek, Jaungoikoagandik, heriotza on eta santu bat lortu deigula.

Jose Deunaren jaiera -debozinoa- han, eguzki aldeko kristauen artean, antzina-antzinatik, asko zabaldua egoan...

Santu honenganako maitasuna gure artera karmeldar eta frantziskotarrak ekarri eben...

Eta santu apal eta maitagarri honen jaiera gure artean, sua sasian lez, berehala zabaldu zan...

San Mateo ebanjelariak Jose Deunagaitik gizon «zintzoa» zala esaten deusku. (Mt 1, 19). «Zintzo» hitzaz Bibliak «birtute-askobatera» esan gura dau. «Zintzoa» da egi-zalea dana; guzurrik eta azpikeriarik ez dauana...

Gizon maltzurak, subeak eta azeriak (lukiak) ez dira zintzoak... «Zintzoa» da, emondako hitza beteten dakiena... Bere kontzientziak eskatzen deutsan bidetik zuzen dabilena... «Zintzoa» da, bere eguneroko eginbearrak zehatz betetzen dituen, eta lagunurkoari, ahal dauan guztian, laguntzen deutsana.

Guk ere gizon eta emakume apal, zuzen, langile danari «zintzoa» esaten deutsagu... Honangoa zan Jose, Nazareteko arotz santua, Jaungoikoaren eta gizonen begietan.

(A) SANTIAGO APOSTOLUA. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Santiago apostoluaren eguna ospatzen dogu gaur...

Santiago, bere anaia Joanekin, Galileako itsas bazterrean sareak konpontzen ebilen. Jesusek dei egin eutsan: Zatoz neugaz... Eta Santiagok, eukan guztia itxita, Jesusi jarraitu eutsan, eta heriotzaraino jarraitu ere.

Santiago izan zan apostoluen artean lehenengoa Jesusen alde bere bizia emon ebana.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 4,33... 5,12...

Apostoluak kementsu emoten eben Jerusalemenean Jesus biztuaren autormena... Eta honegatik Herodes erregeak Santiagori ezpataz burua moztu eutsan.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4,7-15

Jesusengaitik bere bizia emoten dauana, Jaungoiko Aitak biztuko dau, gero zeruan Jesusekin batera bizi daiten.

EBANJELIOA: Mt 20,20-28

"EGUN HAREETAN, HERODES ERREGA ELEIZTAR BATZUK AURREAN ERABILTEN HASI ZAN. ETA SANTIAGO, JOANEN ANAIA, EZPATAZ HILTEKO AGINDU EBAN" (Ap Eg 12,1-2).

H O M I L I A
=====

Santiago apostolua Joan ebanjelariaren anaia zan, Zebedeo eta Salomeren semea... Zebedeo aita Galilea itsasoko arrantzalea zan, eta anaia biak euren aitagaz batera lan egiten eben...

Behin anaia biak aitarekin sareak konpontzen lanean ebilzan... Eta Jesusek beragaz joateko dei egin eutsen: Zatoze neurekin... Jazoera hau zelan izan zan Mateo ebanjelariak kontatzen deusku:

"Jesusek, Galileako itsas bazterrean ebilela, anaia bi ikusi ebazan, Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak, itsas ontzian sare-konpotzen, euren aita Zebedeorekin, eta dei egin eutsen: Zatoze neurekin, eta nik giza arrantzale egingo zaituet. Eta hareek berehala ontzia eta aita itxi, eta jarraitu egin eutsoen" (Mt 4,19-22)....

Anaia biak odol-beroak ziran... Egun batean Jesus, bere ikasleekin, Jerusalemenera bidez joala Samariako auzo batean sartu zan; baina hango herritarrak ez eutsoen ostaturik emon gura, Jerusalemenera joalako. (Samariarrak eta judutarrak alkarren arerioak ziran).

Santiago eta Joanek, hori ikusirik, Jesusi esan eutsien: Jauna, gura badozu esango dogu zerutik sua jatsi daitela herri hori erretoko.

Baina Jesusek hasarre egin eutsen, esanaz: "Ez dakizue zelako espiritukoak zarien... Ni ez naz gizonak galtzera etorri, salbatzera baino... Eta beste auzo batetara joan ziran". (Lk 9, 51-58)

Beste behin, Zebedeotarren ama Salome, bere seme biek, Jesusengana joan zan, eskabide bat egitera... "Jesusek itandu eutsan amari: Zer gura dozu?. Eta amak: Nire seme bi honek jesarri daitezela bata zure eskumaldean eta bestea zure ezkerrealdean zure erreinuan."

"Eta Jesusek: Ez dakizue zer eskatzen dozen. Gauza izango zari nik edango dodan kaliza edateko?... Eta hareek: bai, gauza gara."

"Jesusek orduan: Nire kaliza edango dozue, baina nire eskumaldean edo ezkerrealdean jesarreko eskubide hori ez dago nire esku inori emotea; hori nire Aitak erabagiten dauanentzat da" (Mt 20, 20-23)(Mk 10, 35-40).

Jesukristo zeruetara igon ondoren apostoluak Jesusen agindua beteteko munduko lau alderdietara zabaldu ziran, barri ona predikatzera...

Santiago Jerusalemene bertan gelditu zan hango kristinatu barriak zaintzeko... Baina Herodes Agripa erregeak -Belongo umeak hil zituanaren bilobak- ez zituan bere menpeko kristinatuak begi onez ikusten, eta Santiagoren heriotzea zelakoa izan zan, San Lukasek berba gitxitan kontatzen deusku: "Herodes erregeak, judutarrei poz emotearren, Joanen anaia Santiagori ezpataz burua moztu eutsan". (Ap Eg 12, 1-2)

Antzinako tradizio zahar batek dino: Santiago hiltzeko auzitegira eroan eban salatariak, apostoluaren adorea eta kemena ikusirik, dea-darka, bera ere Kristorena zala autortu ebala, eta halantxe Santiagori parkamena eskatuz, berak ere bizia Kristoren alde emon ebala.

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Gipuzkoa eta Bizkaiko zaindari,Loiola-ko Inazio Santuaren jaia ospatzen dugu gaur...

Inazio gaztea hogeita hamar urterarte pekatari handia izan zan... Baina gero Jaungoikoaren graziak eraginda santu izatera heldu zan.

Loiolako gure zaindari santu honek lagundu daigula zerutik,betiko zoriona lortzen.

1. IRAKURGAIA: Dt 30,15-20

Bide bi ditu gizonak bere aurrean:onerako ala gaiztorako bidea. Onerako bidea aukeratzen badogu,Jaunak bedeinkatuko gaitu.

2. IRAKURGAIA:1 Kor 10,31-33;11,1

Gure bizitzako eginbehar guztietan Kristoren antzera jokatu behar dogu,dana Jaungoikoaren aintzarako eginez.

EBANJELIOA: Lk 9,18-26

"NIREKIN ETORRI NAHI DAUANAK,UKO EGIN BEIO BERE BURUARI,HARTU BEI EGUNERO BERE KURUTZEA,ETA JARRAITU BEIT". (Lk 9,23)

H O M I L I A

=====

(Loiolako Inazio Deunaren bizitzaren laburpena).

Iñigo edo Inazio,Azpeitiako Loiola torre-etxean jaio zan 1,491.urtean... Hogeita hamar urterarte,berak autortzen dauanez,gazte pekataria izan zan:"Fedea ez neban galdu,baina pekatu bidetik nenbilen,eta harrokeria eta haragikeriazko pekatuetan sarritan jausi nintzan"...

Iruñeko gazteluan zauritua izan ondoren Loiolako bere etxera ekarri eben "biziteko esperantza handi barik"... Bere burua heriotzaren aurrean ikusi ebanean,"eleizakoak" hartu ebazan...Baina San Pedro bezperan osasunak onera egin eutsan,eta indarrak hartzen zituan birtartean,Jesukristoren eta santuen bizitzak irakurten hasi zan.

"Gau batean -berak kontatzen dauanez- itxarrik nengoala,Andra Maria Jesus umearekin garbi-garbi ikusi neban,eta ikuste honegaz igarotako bizitza pekatariatz hain nazka eginik geratu nintzan,lehen ariman pinitaturik neukazan haragizko irudipen guztiak kendu jatazala,uste neban"

Bizitza barria hasteko lehenengo Arantzazura joan zan,Andra Mariari bere burua eskeintzera,eta handik Katalunyan Montserrateko Amarengana. Han komentuko fraile batekin bizitza guztiko autortza egin eban, eta gero ondoko Manresa herrira baztertu zan,urte betean bere pekatuen penitentzia egiteko asmoz.

Inazioren gogorik beroena hau zan: Jesus bizi izan zan lurraldean bere bizitza osoa igarotea... Horretarako itsasoz Jerusalemgo bidea hartu eban, baina lurralde haretan mahometarrak ziran nagusi, eta barriro Bartzelonara itzuli beharrean aurkitu zan.

Orain zer egin?. Bere bizitza barriari zer bide emon?.

Lagunurkoen arimek on egiteko abade egitea izango zala egokiena, pentsatu eban, eta horretarako Bartzelonan latin ikasten hasi zan.

Gero ikasketak amaitzeko Alkala eta Salamankara joan zan. Baina unibertsitate honeetan hereje ete zan susmo txarrez, erasoaldiak eta kartzelak ere ezagutu izan behar zituan.

Bake bila, munduko unibertsitate ospetsuenera, Parisera, joan zan... Hemen aurkitu zituan Inaziok bere lagunak onenak: Pierre Fabre Saboiarra, eta Xabierko Frantzisko nafar euskalduna, gero India eta Japoniako misiolari ospetsua izango zana...

Parisen egoala osasuna galdu eban, eta indarrak sendotzeko Azpeitia-ra etorri beharrean aurkitu zan... Bere jaioterrian hiru-lau hilabete egin ondoren, Erroman bidea hartu eban, han Pariseko lagunekin biltzeko asmoz... Erroman Paulo III. Aita Santuarengana aurkeztu ziran, hamaika lagun artean "Lagundi" barri bat sortu nahi ebela Eleizaren buruari aditzera emonez...

Azkenean, gora behera askoren ondoren, 1,540. urtean "Jesusen Lagundia" izenaz Eleizak "ordena" barri bat onartu eban... Handik aurrera Inazio beti Erroman bizi izan zan, berak sortutako Lagundiari laguntzen, Konstituzio eta legeak idazten, bere Lagundiko semeak munduko lau aldeetara zabaltzen...

Ian honetan hamasei urte eroan ondoren, Jesusen izena agoan ebala, bake-bakez bere arima Jaungoikoaren eskuetan itzi eban... 1,556 urteko uztailek 31 egun zituan, eta Inaziok 65 urte.

Gipuzkoako Batzarre Nagusiak, 1,620. urtean Zumaiian bilduta, Loiolako Inazio dohatsua Gipuzkoako zaindaritzat aukeratu eban... Eta hirurogei urte geroago Bizkaiko Batzarre Nagusiak, Gernikako arbolapean bilduta, ago batez, Inazio Santua Bizkaiko zaindari izendatzea erabagi eban....

Gipuzkoa eta Bizkaiko zaindari zaran Loiolako Inazio Santua, bedein-katu egizuz zerutik zure zaindaritzapean dozuzan herriak.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Iruñeko zaindari eta seme dan Fermin gotzain eta martiri santuaren jaia ospatzen dogu gaurko egunean...

San Fermin izan zan Iruñeko hurian lehenengoa Kristoren barri ona zabaldu eban misiolari neka-ezina.

Fermin gure santu handiak guk Kristogan dogun sinismena sendotu eta indartu daiala...

1. IRAKURGAIA: Is 61, 1-3a

Hau da Jaungoikoak bialdutakoaren eginbeharra: bihotz urratuak sendotu, eta Jaunaren salbamen eguna zabaltzea.

2. IRAKURGAIA: Ef 4, 1-7. 11-13

Kristoren ikasle gareanok, bakotxa bere mailan eta eginkizunean, batasunean eta alkarren maitasunean bizi behar dogu.

EBANJELIOA: Jn 12, 24-26

"GARI GARAUA LURREAN JAUSI ETA HILTEN BADA, FRUTU UGARI EMOTEN DAU" (Jn 12, 24)

H O M I L I A

=====

Euskaldunen Kristo aurretiko erlejinoa.

(Joxe Migel Barandiaran-ek Copenhage-ko Kongresoan irakurritako txostenetik hartua. "Obras completas", 5. lbk. 436-446 or.)

Euskaldunen erlejinoari buruz zerbait adieraztekoan hiru Kultur Aro berezi behar dira: Kultur Arkaikoa, Megalitikoa eta Epigrafi-koa.

Kultur Arkaikoa.

Historia-aurreko aro honetan euskaldunak ehiztari ziran, eta euren bizitza haitzulo edo harpeetan egiten eben.

Orduko euskaldunak hatx-zuloetako hormetan bisonte, mamut, basurde, hartz eta beste basa-pizti askoren irudiak grabatuta itxi ebezan.

Baina irudi horreek ez dira errez eta argi ikusteko lekuetan aurkitzen, zuloako txoko eta ilunpeetan baino... Honek esan gura dau, jakitun askoren eritxiz, irudi horreek amuleto lez, ehizan suerte ona egokitzeko eginak dirala.

Kultur Megalitikoa.

Lau-hiru mila urte Kristo jaio aurretik, euskaldunak ehiztari izatetik artzain izatera etorri ziran, eta euren hilak "dolmen" edo "trikuharri" hobietan lurperatzen ebezan... Dolmen honeen sarrera beti eguzki sortalde begira egoan. Eguzkia zan, askoren ustez aspaldi haretako euskaldunen jainko nagusia. Euskaldunak, indoeuropeoengandik ikasita, Eguzki Jaun Handiaren omenez jai ospetsuak egiten ebezan.

Kultur Epigrafikoa.

Erromatarrek gure lurraldean agertu ziranean -Kristo jaio aurretik 200 urte edo- guk euskaldunok, geure izaerari uko egin barik, haren zibilizazio eta erlejinoa gureganatu genduzan... Erromatarrek jainko txiki askotan sinsten eben. Hemendik datoz garai haretako hilobi harrietan ikusten diran jainkotxoek euskal izenak: "Bai Gorritxo", "Aher Belste", "Lakurbegi" eta abar...

Kristautasuna.

Kristoren erlejino barria, erromatarren bitartez, bide bitatik etorri jakun Euskal Herrira: Frantzia aldeko Tolosa-tik, eta Mediterraneo itsas aldeko Tarragonatik...

Antxinako elezahar batek kontatzen deusku, hirugarren gizaldian edo, Saturnino edo Sazernin Frantziako Tolosa hurian kristinau talde barri baten buzu zala.

Gotzain santu honek bere ikasleen artean Honesto izeneko gizon santu eta fededun sutsu bat eukan... Saturninok Honeste abade egin eta Pirinio mendietara bialdu eban hango jentilen artean Kristoren barri ona zabaltzera...

Honesto Iruñera heldu zanean, Kristoren barri ona zabaltzen hasi zan. Eta erlejino barria onartu ebenen artean aurrengoena Eugenia eritxon emakume bihotz oneko bat izan ei zan. Andra honek bere senar Firmo, huriko senatorea, Kristogan sinisterra ekarri eban, Baita bien seme Fermin hamazortzi urteko mutil jatorra ere.

Honestok Fermin gaztearen balio eta fede bizia ikusirik, abade egin, eta Iruñean bertan urte batzuk abade eta gotzain lanetan ibili ondoren, Galia-ko (gaur Frantziako) lurraldera misiolari bialdu eban, Tolosa, Agen, Auvernia, Amiens eta beste hurietan Kristoren barri ona emotera. Azkenez Amiens hurian bertako gotzain zala, Fermin martiriak Kristoren alde bere odola emon eban.

(A)

PRUDENTZIO SANTUA

(Bizkaieraz)

ARABAKO ZAINDARIA

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Arabako zaindari Prudentzio santuaren jaia ospatzen dogu gaurko egun honetan...

Bakezale eta bakegile izan zan gure zaindari santu honek, gure herrira eta mundu guztira bakea eta alkartasuna zerutik ekarri daijala, danok bihotz batez anaitasun ederrean bizi gaitezana...

1. IRAKURGAIA: Jr 1, 4-9

Jaungoikoak Jeremias gaztetatik profeta izateko aukeratu eban, eta lan horretan lagundu eutsan.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 5, 14-20

Jaungoikoak Kristo Bere semearen bitartez Berekin adiskidetu gaitu, eta adiskidetasun horretan bizi behar dogu.

EBANJELIOA: Mt 23, 8-12

"BERE BURUA GORATZEN DAUANA, BEHERATU EGINGO DAU JAUNGOIKOAK, ETA BERE BURUA BEHERATZEN DAUANA, GORATU" (Mt 23, 12)

H O M I L I A

=====

(Croisset-en "Año Cristiano"tik hartuta. Apirila 28. 464 or.)

Arabako zaindari Prudentzio santuari buruz, gauza argi eta garbi gitxi heldu da guganaino. Baina halan da ere, historia eta elezaharra buztarturik, zerbait baino gehiago ere, esan daikegu.

Prudentzio santua Gasteiz ondoko Armentian jaio zan seigarren gizaldian...

Oraindik gazte zala, bere guraso, lagun eta zituan guztiak itxi, eta Duero ibai aldeko bakar lekura baztertu zan, han Jaungoikoagaz bakarrik otoitz eta penitentzi bizitza egiteko...

Alde haretan bizi zan orduan Saturio izeneko bakarzale santu bat, eta honen menpean jarri zan Prudentzio santutasun bidean aurrerapen handiak egiteko. Zazpi urte edo egin zituan Prudentziok bakar leku haretan, bere maisu santuaren ondoan, otitz luzeak eta penitentzia latzak eginez...

Saturio hil zanean, Prudentzio, bakartadea itxita, Kalahorrako hurira joan zan, lurralde haretan bizi ziran jentilak Kristoren federa ekartera.

Pagano asko ekarri ei zituan Prudentziok bere lan eta berbaldi-ekz Jesusen artaldera. Horregaitik ospe eta entzute handia lortu eban Prudentziok huri haretako kristinauen artean.

Baina Prudentzio apalak bere izen handia ezkutatzeko, Kalahorratik Tarazonara alde egin ei eban, eta hango eleizan sakristau kargu apala hartu, munduko gorespenetatik ihes egiteko.

Baina argia daukanak argi egin behar, eta herri haretako gotzaina hil zanean, herriko kristau taldeak Prudentzio sakristaua aukeratu eban eleizaren buru izateko...

Prudentziok jendeen arteko hasarre eta eztabaidak konpontzeko berariazko esku egokia eukala dinoe.

Osma-ko hurian bertako gotzain eta eleiz-gizonen artean aspaldiko eztabaidak ei egozan. Ezin alkarrekin bakeak egin. Hara joan zan Prudentzio bihotzak baketzera... Eta antzinako elezahar batek dinoenez, gure gotzain santua bakeak egiteko herriko atera heldu zanean, eleiz-dorreko kanpaiak berez inork bultzatu barik, pozez alai jotzen hasi zirala.

Bakeak egin, eta hiru egun barru Prudentziok herri haretan bere arima santua Jaungoikoaren besoetan itxi eban.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Nafarroako zaindari eta misio lurraldeetako zaintzaile dan Xabierko Frantzisko santuaren jaia ospatzen dogu gaurko egunean.

Ezin sinistekoak dira euskaldun misiolari honek Kristoren barri ona zabaltzeko hamar urtetan eroan zituan lanak. India, Ozeania eta Japoniaraino zabaldu eban Kristoren fedea...

Xabierko gure santu honek gure sinismena zaindu, sendotu eta indartu daiala.

1. IRAKURGAIA: Is 52, 7-10

Jaunak bere herria askatuko dau, eta munduko bazter guztiak ikusiko dabe Jaunaren salbamena.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 9, 16-19

Jaunak, San Paulo lez, aukeratu eban Xabier mundu zabalean barri ona zabaltzeko.

EBANJELIOA: Mt 28, 16-20

"ZOAZE ETA EGIN IKASLEAK HERRIALDE GUZIETATIK; BATEATU EIZUEZ AITAREN ETA SEMEAREN ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN" (Mt 28, 19)

H O M I L I A
=====

(Xabierko Frantzisko santuaren bizitzaren laburpena)

Aragoa-ko mugak zaintzen dagoan Xabierko gazteluan jaio zan Frantzisko 1.506. urtean. Bere ama baztangoa zan Maria Azpilkueta-koa, eta aita Joan Jatsu Nafarroa Beherekoa...

Egun ilunak ziran Nafarroako erreinuarentzat aldi haretakoak. Don Fernando Katolikuak azpikeriaz eta armen indarrez Nafarroaz jabetu, eta Kastillari lotu eutsan. Xabierko gaztelua Nafarroako askatasunaren alde jokatu ebalako, bere horma lodietan ia lurre-raino beheratua eta murriztua izan zan...

Frantzisko, etxeko semerik txikiena, bere etorkizunari begiratze-ko, 18 urte gaz, Parisera joan beharrean aurkitu zan. Holan armen indarrez ezin zana, jakituriaren bidez bere etxearen izena jasoko eban.

Pariseko unibertsitate ospetsuan Loiolako Iñigo gipuzkoarrarekin aurkitu zan... Iñigo bere asmoa aurrera erodateko lagun bila ebilen.

Asko kostatu jakon Loiolakoari Xabierkoaren "buztin gogorra" biguntzea, baina behin eta berriz Jesusen esana errepikatuz: "Eta gizonari zer mundu osoa irabazita ere, bere arima galtzen badau?", Frantzisko oso-osorik eta betiko Jaunaren eskuetan ipini zan.

Bost lagun eukazan Inigok Jaungoikoaren aintzarik handienerako lan egiteko prest egozanak, eta eurakaz Parisen 1.534. urtean "Jesusen Lagundia" izeneko talde bat sortu eban. Erroman Aita Santuaren bedeinkapena hartu, eta lagun hareek mundu guztira zabaldu ziran...

Xabier Indian.

Lisboako portuan itsasoratu eta Afrikako hego-aldea zeharkatuz, hamasei hilabete barru Indiako Goa hurian aurkitu zan...

Peskeria izeneko itsas bazterrean uzta ugari batu eban...Xabier misiolariak Europako bere lagunei idazten deutse: "Hilabetean hemen 10.000 bateatu dodaz. Besoak nekatuta daukadaz hainbeste bateatzeaz".

Lurralde haretan misiolari barriak itxi, eta Xabier urrunagoko lurraldera doa, Indonesiara Jesusen barri ona zabaltzera: Malaka, Anboino, Ternaten... urte bi emon ebazan ebanjelioa predikatzen.

Xabier Japonian.

Lurralde haretan egoala jakiten dau han urrunean lurraren muga aldean bazala Japonia izeneko herri jakitun bat Kristoren barririk hartu ez ebana, eta hara doa Xabier itsasoz Kristoren barri ona hotsegitera.

Urte bitan zehar Yamagutxi, Kagoshima, Bungo, Kioto eta beste huri askotan Kristo Salbatzailea predikatzen dau. Indian bateoak sarekadako egiten bazituan ere, hemen Japonian amuz banaka banaka kristinau egin behar.

Xabierren heriotzea.

Baina Xabierren arimak salbatzeko egarria ezin da asetu... Japonian egoala Txinako lurralde zabalaren barri jakiten dau, eta hara doa Xabier, lagun barik, bere itxaropen bakarra Jaunagan ipinita...

Eta Txinara begira, Santzian irlan, Frantziskok bere arima dohat-sua, bere amak irakatsitako hizkuntzan otoitz eginez, Jaunaren eskuetan itxi eban. 1.552. urtea zan, eta Xabierrek 46 urte zituan. Harrigarria eta ia ezin sinistekoa da Xabierko semeak hamar urtetako misiolaritza Jaungoikoaren alde eginiko lana...

Nafarroako zaindariak bere herria zerutik bedeinkatu daiala.

(A) SANTU GUZTIEN OROIPENA. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Santu guztien egun honetan, zeruan dagozan gure sendiko, lagun eta adiskideen jaia ospatzen dogu...

Hareek zeruko zoriona lortu dabe... Guk ere, Jaungoikoaren erruki handian, hareen zoriona eskuratuko dogula, uste dogu...

Eukaristia honek biztu daijala gure bihotzetan, zerura joateko e-garria, eta gure senideekin alkartzeko gogo bizia...

1. IRAKURGAIA. Apk 7,2-4.9-14

San Joan ebanjelariak zerua ikusi eban, herri eta hizkuntza guzti-etako lagunez beterik, Jaungoikoa goratzen...

2. IRAKURGAIA. 1 Jn 3,1-3

Jaungoikoaren seme-alabak bagara, Jauna zeruan aurrez aurre, bere edertasun guztian ikusiko dogu.

EBANJELIOA. Mt 5,1-12a

"TALDE HANDI HANDI BAT IKUSI NEBAN ZERUAN, INORK EZIN ZENBATU HALAKOA; HERRI ETA HIZKUNTZA GUZTIETAKOA". (Apk 7,9)

H O M I L I A
=====

(Ideak handik eta hemendik hartuak)

Senideok:

Poztu gaitezen eta alaitu santu guztien jai honetan, bada, gaurko ospakizuna ez da altaretan ikusten doguzan santuena bakarrik, baita zeruetan, Jaungoikoaren ondoan, aurkitzen diran zoriondun guztiena ere...

Betiko zorientzuen artean izango dira, baita ere, gure etxeko, lagun eta adiskideak... Gurekin bizi izandakoak, eta orain zeruetako erreinuan, Jaungoikoaren errukia goratzen, betiko pozetan aurkitzen diranak.

Jaungoikoa bakarrik santua.

Jaungoikoak bakarrik dauka berekin santutasun betea. Jaun ahalguztiduna bakarrik da "Hiru aldiz santua". Hau autortzen dogu eukaristian "Zu bakarrik santua" esaten dogunean... Zeruko beste santu guztiak, Jaungoikoagandik hartu dabe - halan esateko - euren santutasun zati txikia.

Horregatik gaurko jai honetan, danen ganetik, Jaungoiko Bera goresten dogu, bere santuetan hain harrigarri agertzen dalako. "Miragarria da Jaungoikoa bere santuetan". (Sal 67,35)

Zeruko santuak gure eredu

San Joan ebanjelariak Apokalipsis liburuan esaten deusku, zeruan "talde handi bat ikusi ebala, inork ezin zenbatu (kontau) halakoa, enda, herri eta hizkuntza guztietakoa, Jaungoikoaren aurrean zutunik, zuriz jantziak, eta palma adarrak eskuetan" (Apk 7,9). Euren artean baziran martiriak eta autorleak, ezkonduak eta ezkonbakoak, ume errubako, gazte eta zaharrak, pekatari damutuak eta santuak... salbatuak ziralako, Jaungoikoaren errukia goresten.

Eta ez kristinauak bakarrik, baita, zelan ez, euren kontzientziak erakutsitako bide zuzenetik ibiliz, Jaungoikoa, euren erara, gurtu eta maitatu eben beste guztiak ere...

Honeek dira gure jarraibide eta eredu... Honeek betiko zoriona lortu ehen lez, guk ere, Jaungoikoaren erruki azkenbakoan, betiko erreinua lortu daigun.

Santuak zeruan gure alde otoizka dagoz.

Zeruko santuak, diño Zipriano martiri Deunak, Jaungoikoari atertu barik, otoitzean dihardue, munduko arriskueta gu galdu ez gaitazan.

Eta Agustin Santuak esaten dau: "Kristinau herriak, Eukaristian bat eginik, martiri santuen jai aintza handitan ospatzen dau, gu zeruko bizilagunen antzeko izan gaitazan, eta euren irabaziak gureganatuz, zerurako bidean, gure laguntzaile izan daitezan.

Eta gaurko Eukaristian otoitz egin dogun lez: "Zeruan horrenbeste laguntzaile daukaguzan ezkerro, guk ere Jaunaren errukia eta parkamena lortu daigun!"

Eta gaurko homilia hau ez neuke gura amaitu, zeruari buruz, Bernardo Deunaren hitzaldi bat ekarri barik.

"Ene, zeruaren edertasuna! Jaungoikoa Bera dan lez, bere bikaintasun guztian ikusten dana... Toki zoriontsu haretan, santuak eguzkiak baino ederrago, argi egiten dabe; eta betiko pozez koroiatuak dira.

Ene, bakearen erreinua! Zoriondun danak alkar maite maite daben, maitasun erreinua... Ene, toki alaia! Jaungoikoa ikustiaz, gu garan guztia, pozez zoraturik, geratuko garana.

Ene, aberastasun guztiekin apaindutako Jaungoikoaren erreinua! Negar herri honetan zugana joateko gurari biziz beterik gagoz. Han ez da egun eta gaurik. Han betiko argia dan Jaungoikoak argi egiten dau...

Ikusi daiguzan, gure bihotzeko begiekaz, hango bizilagun guztiak: aingeru, profeta, apostolu, martiri eta beste santu guztiak, zorionez ganezka, Jaungoikoa goratzen... Eta guk ere, gure bihotzak gora jaso, eta zeruko itzaropenez beterik, esan daigun: "Zorionekoak Jaunaren etxean bizi diranak". (Sal 83,5)

A U R K I - B I D E A

- Abendualdiko 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea

Jesusen kaiotza

Familia santua

Jaungoikoaren Ama Maria

Gabon ondoko 2. domekea

Epifania. Jaunaren Agerkundera

Jaunaren bateoa

- Garizumako 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea
" 5. domekea

Eguen Santua

Pazko eguna. Kristo biztu da

Pazko 2. domekea

" 3. domekea

" 4. domekea

" 5. domekea

" 6. domekea

" 7. domekea. Jaunaren igokundera

Pentekostes domekea. Espiritu Santua

Hirutasun guztiz Santua

Kristoren Gorputz-odol Santuak

2. domekea urtean zehar
3. domekea urtean zehar
4. domekea urtean zehar
5. domekea urtean zehar
6. domekea urtean zehar
7. domekea urtean zehar
8. domekea urtean zehar
9. domekea urtean zehar

10. domekea urtean zehar
11. domekea urtean zehar
12. domekea urtean zehar
13. domekea urtean zehar
14. domekea urtean zehar
15. domekea urtean zehar
16. domekea urtean zehar
17. domekea urtean zehar
18. domekea urtean zehar
19. domekea urtean zehar
20. domekea urtean zehar
21. domekea urtean zehar
22. domekea urtean zehar
23. domekea urtean zehar
24. domekea urtean zehar
25. domekea urtean zehar
26. domekea urtean zehar
27. domekea urtean zehar
28. domekea urtean zehar
29. domekea urtean zehar
30. domekea urtean zehar
31. domekea urtean zehar
32. domekea urtean zehar
33. domekea urtean zehar.
34. domekea urtean zehar. Kristo Errege

Andre Maria sortzez garbia

Andre Maria zerura jaso

Jose Deuna

Santiago apostolua

San Prudentzio Arabako zaindaria

San Fermin

Loiolako Inazio santua.

Xabierko Frantzisko santua

Santu guztien eguna

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Abendualdiko lehenengo domeka honegaz, eliz-urte barriari hasiera emoten deutsagu...

Abendua itxaropen aldia da... Gabonetan etorriko jakun Salbatzaileari itxaroten bizi behar dogu. Gaurko ebanjelioak aginduko deuskunez, egon gaitez an erne, Jauna gure pekatuetatik askatzera datorrenean, guk gure bihotzeko atea zabaldu, eta salbauak izan gaitez an.

1. IRAKURGAIA: Is 63, 16-17; 64, 1, 3-8

Israel herriak pekatu egin dau, eta profetak herriaren izenean Jau-nari parkamena eskatzen deutso, eta Salbatzailea bialtzeko eskatu.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 1, 3-9

Antzinako kristauak, itxaropenez beterik, Jaunaren etorreraren be-gira bizi ziran. San Paulok dinotse: Jaungoikoak agindutakoa beteko dauala.

EBANJELIOA: Mk 13, 33-37

"JAUNAK ATEZAINARI ERNE EGOTeko AGINDU EUTSAN... ZAGOZE; BERAZ, ERNE; EZ DAKIZUELAKO ETXEKO NAGUSIA NOZ ETORRIKO DAN" (Mk 13, 34-35)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.aren 1978 urteko homiliatik ideak hartuta)

Bizi garan mundu honetan gauza bi ditugu egin beharrekoak: Jainkoa eta gizona. Eta biak alkarrekin lotuta dagoz, kristau garanontzat.

Fededunok danen aurretik, gora, Jainkoarengana begiratzen ikasi behar dogu; baina baita gero lurrera, gizonengana begiratzen.

Egia bi honeek Jesukristok, "Jainko-gizon-eginak", argi eta garbi irakasten deuskuz. Jainkoa gizon egin zan, gu gizonok jainkotu gai-tezan.

Jainkoa bere izatez "hil-ezina" izanik, giza haragia hartuta, hil egin zan, gu gizonok iztez hilkor garanok, aingeruen antzera zeruan betiko bizi gaitez an.

Jainkoaren Semea zero goitik lurrera jatsi zan, gu gizonok lurretik zerura jasoak izan gaitez an. Zeruko jauna morroi egin zan, gu morroi garanok zeruko jaun izatera heldu gaitez an. Lehenengo zana azkenengo egin zan, gu azkenengo ginanak lehenengo izan gaitez an.

Abenduak "etorrera" esan gura dau. Gure pekatuetatik askatuko gaituan Salbatzailea noz etorriko dan begira bizi behar dogu.

"Zagoze erne", esaten deusku gaurko ebanjelioak, "Salbatzaileak datorrenean lo aurkitu ez zaiezan"...

Salbatzailea gure atean joka dabil. Baina gure arimako atea barrutik bakarrik zabaldu daiteke. Eta kanpoko aldetik ate joka dabilen Jaungoikoari guk ezetza emoten badeutsagu, alperrik litzateke Jauna gure atean joka ibiltea... Eta alperrik bakarrik ez, baita gure kalterako be, Jaunaren deiari gorrarena egiten deutsagulako.

Abendu santu honetan Jesusen etorrera prestatzeko ahaleginu gaituzan:

Eguneroko otoitzaren bidez Jaunarengana gure bihotzak jasoten. Gure etxekekin maitasunez samurrago eta gozoagoak izaten. Gure auzoetan bake-egile eta laguntza-emon-zale izaten. Gure inguruko zahar, gaiso eta ezinduei ikustaldi bat egiten. Txarto egin deuskula uste dogunari, bihotzez parkatzen...

Kristinau zintzoentzat urte guztiak, bizitza osoak izan behar leuke abendu, Kristo onartzeko garaia.

Behin betiko kristinauok jabetu gaituzan, ezin dala Jaungoikoa maitatu, gizona maitatu barik. Eta lurrean gizonok bakean eta alkarren maitasunean bizi gura badogu, Jaungoikoaren legea betetea beharrezko dala.

Lan honetan Andra Maria, Salbatzailearen amak lagundu deuskula...

Jaungoikoaren ama, Nazaretoko etxearen isilpean, otoitzean eta lanean, bere Semearen jaiotzari itxaroten egoan, noz bere sabeleko frutua munduan agertuko.

Guk be, profetak hainbeste gizaldiz adierazo eben Mesiasen zain bizi behar dogu. "Ai! Zeruak urratu eta jatsiko bazina!..."

Eta meza honetan Gure Aita abestu ondoren, guk be abadeaz batera otoitzean esango dogu: "Jesukristo gure Salbatzailea noz etorriko dan zain gagozala". "Zeurea dozu erregetza; zeureak ospe eta indarra, orain eta beti".

Zatoz, bai, Jauna. Zatoz mundua pekatutik askatzera (Apk 22,20).

SARRERAKO OHARPENA

Abendualdi hau Jesusen jaiotzarako prestaera egiteko garaia da...
 Joa n bateatzaileak gaurko barri-onean esango deusku: Garbitu eizue z damuaren bidez zuen bihotzak, Salbatzaileari bide barriak urratzeko. Zuzendu bide okerrak Jaungoikoak bialdutakoa onartzeko...
 Senideok: Eukaristia batzar hau hasterakoan, Jaunari gure pekatu eta hutsegiteen parkamena eskatzeko, prestatu gaitezaz.

1. IRAKURGAIA: Is 41, 1-5, 9-11

Isaias profetaren berbak pozgarriak ziran Babiloniako erbestean bizi ziran israeldarrentzat: "Zuen morroialdia amaitu da. Laster zeun aberrira itzuliko zarie".

2. IRAKURGAIA: 2 Pe 3, 8-14

Irakurgai honek Jaunaren azken etorrerari buruz berba egiten deusku. Baina guk, Kristogan sinisten dogunok, "Zuzentasun bizileku diran Zeru barriak eta Lur barriak itxaroten doguz".

EBANJELIOA: Mk 1, 1-8

"JOAN AGERTU ZAN BASAMORTUAN...:BIHOTZ BARRITZEKO BATEOA HOTS EGITEN: URRATU EIZUE BIDEA JAUNARENTZAT, ZUZENDU HAREN BIDE-ZIDORRAK" (Mk 1, 3-4)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak Bartzelonako estadioan egindako hitzaldian oinarritua)

Senideok: Kristoren jarraitzaile garanok, Kristok irakatsitako bide-tik ibilten ikasi behar dogu. Kristorenak danak munduaren argi eta gatz izan behar dau...

Vatikanoko kontzilioak eskatzen dauan lez, gure fedea indartu egin behar gaitu, gure familiarentzat, gure gizarte eta aberriarentzat ditugun eginbeharrak, ondo beteteko. Gure sinismenak sendotu egin behar gaitu giza-eskubideak ahalegin guztiaz babesteko.

Gizaki guztiei senide lez laguntzen. Gizaki guztiak, zuriak eta baltzak, politikan nahiz erlijinoan gure aldeko ez izan arren, e-guzkipeko izakirik gorengoan diralako, errespetatzen...

Bizi garean mundu honetan gauza asko oker eta zikin dagoz, eta guk, kristauok, oker dagoena zuzentzeko, eta zikin dagoena garbitzeko lan egin behar dogu.

Eta garbitu be kanpotik eta barrutik garbitu behar da...

Baina mundua kanpotik garbitzeko, aurretik gutako bakotxak geure burua garbitu behar dogu...

Eta zelan geure buruak garbitu?

Kristoren antzeko izanez eta biziz. Kristok lez beti on eginez. Gure nikeria eta egoismoaren susterrak kenduz. Gure bihotzak makurkeria eta zitalkeria guztietatik garbituz. Kristauak beti eta alde guztietan, egiaren, zuzentasunaren eta bakearen alde jokatu behar dau.

Guztiok autortu behar dogu, geure buruak ez baditugu engainatu gura, gure egintza onak urriak eta gitxiak dirala, eta geure makalaldiak asko eta ugariak. Gure asmoak askotan onak eta zintzoak izan arren, egunero gure bizitzan mila eratarata hutsegiten dogu. Horregaitik egunero, astero, hilero eta beti, zerbait zuzendu beharrean gagoz; zerbait gehiago geure buruak garbitu beharrean, geure bihotzak hobetu beharrean aurkitzen gara.

Eta gure barruko garbitze hori zelan egin?

Geure kontzientziari eta Kristori begiratu.

Alde batetik geure kontzientziak pekatari garala esaten deusku...

Baina bestetik, Kristok, damutzen bagara, parkatuko deuskula agindu deusku.

Geure fedean aurkitu behar dogu indarra, Kristoren antzera gu be pazientzia eta eroapen handiko izateko, egi-zale, zintzo, zuzen, asmo eta egiteetan garbiak izateko.

Eta Kristoren indar hori, guk kristauok, sakramentuetan, eukaristian batez be aurkitzen dala sinisten dogu. Horregaitik batzen gara domeketan elizan domeketan eukaristiako oparia eskeintzeko; Kristoren Kalbarioko odola Jaungoiko Aita onari eskeinduz, gurutzeko irabaziak gureganatzeko. Honan, Kristok lagunduz, etxean eta herrian, lanean eta toki guztietan, barrutik eta kanpotik hobeak eta zintzoagoak izango gara.

Eta ez ahaztu, Kalbarioko gurutze azpian Kristoren ama Maria egoala, nekez aserik, bere Semeari gure alde bere atsekabeak eskeintzen...

Jainkoaren Amak lagundu daigula gure kristau konpromisoak zintzo eta zalantza barik beteten...

"Que Deu us benedixi" (Azken berboki katalanez esan zitudan)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Aurreko domekan Jaunaren bidea atontzera deitzen ginduzan liturgiak. "Zagoze beti pozik", esango deusku gaur San Paulo apostoluak, "badator Jauns, salbamenaren barri ona ekartera, Jaungoikoaren parkamena gizonen eskeintzera..."

Kristauok gure salbatzaileari itxaroten pozik eta uste onez beterik bizi behar dogu.

1. IRAKURGAIA: Is 61, 1-a. 10-11

Munduko salbatzailea honetarako dator mundura: txiroei barri-ona emotera, bihotz urratuak osatzera, herri guztiei zuzenbidea irakastera.

2. IRAKURGAIA: 1 Ts 5, 16-24

Kontzientzia garbiak eta Jaungoikoaren adiskide izateak, poz handia sortzen dau fededunen bihotzetan.

EBANJELIOA: Jn 1, 6-8. 19-28

"AGERTU ZAN GIZON BAT, JAUNGOIKOAK BIALDUA: JOAN EBAN IZENA..."

AUTORMENERAKO ETORRIA ZAN: ARGIAREN AUTORMEN EGITERA, HAREN BIDEZ GUZTIAK SINISTU EIEN" (Jn 1, 6-7)

H O M I L I A

(Vatikanoko "Gaudium et Spes" konstituziotik ideak hartuta)

Gizakia Jaungoikoagaz bat egiteko jaioa da. Eta honetan dago gizonaren bikaintasunik gorengoena: Jaungoikoagaz bat eginda bizitea.

Gu Jaungoikoaren maitasunez sortuak izan gara, eta Jaunaren maitasunetik bizi gara. Eta maitasun hori onartu, eta Berarengan konfiantza osoa jartzen dogunean, orduan gu egia bete-betean bizi gara.

Baina gaurko egunean asko dira Jaungoikoagaz dogun barruko batasun hori ukatu eta baztertu egiten dabenak...

Badira Jaungoikoa garbi-garbian ukatzen dabenak. (Ateoak)

Badira ukatu ez, baina Jaungoikoari buruz gauza garbirik ezer ezin jakin daikegula, uste dabenak. (Agnostikoak)

Badira gizona hain gora jasotzen dabenak, Jaungoikoa baztertzeraino.

Badira Jaungoikoa hain gogorra eta zorrotza egiten dabenak, ebanjelioetako Jaungoiko samurraz zer-ikusirik ez izateraino.

Badira baita beste batzuk, bizitza honetako zereginetan hain buru-belarri sartuta bizi diranak, Jaungoikoaz gogoratzeko astirik be ez izateraino...

Euren bihotzetatik, gogo txarrez, Jaungoikoa baztertu gura dabenak, euren kontzientziaren aurka jokutzen dabe, eta horregaitik errudun ez dirala ezin esan...

Halan be, jarraitzen dau kontzilioak esaten, gu, fededunok, gai honetan, zati batean behintzat, errudun izan gaitekez: edo gure erlijinoko heziketan nahiko sakondu ez dogulako, edo gure fedea besteen aurrean egoki agertzen jakin ez dogulako. Edo baita be, gure erlijinoak eskatzen deuskun lez, bizi ez garalako.

Honan guk fededunok, Jaungoikoaren aurpegia erakutsi eta agertu beharrean, askotan ilundu eta ezkutatu egin dogu.

Kristau guztiok, geure sinismenak eskatzen dauan lez bizi garanean, sinisten ez dabenen aurrean, Kristoren testigu gara...

Eta batez be kristau ezkonduak, euren seme-alabentzat, fedearen eta Kristoren maitasunaren lekuko izan behar dabe. Kristau familiak, fedean bat eginik, euren etxeko maitasun eta zorionaren bidez, munduaren aurrean, argi eta garbi agertzen dabe, Jaungoikoaren erreinua mundu honetan be hasi dala, eta zeruko zorion betearen itxaropen pozgarrian bizi dirala...

Halan bada, laikoak, euren eguneroko lan eta eginbeharren artean be, euren bizitza zuzenez, eta euren lanak ondo betez, munduko artean, Kristoren barri-onaren zabaltzaile dira. Eta eginbehar hori hobeto beteteko, bakotzak ahal dauanez, erlijinoko egietan sakondu egin behar dau, Jaungoikoari goiko jakinduria sarritan eskatuz. (L. G. 35)

Elizak badaki Kristoren dotrina giza-bihotzak sentitzen dauan zorion egarria asetzeko gai dala. Jaungoikoak ez dau gizona txikiago egiten. Alderantziz, gizona Jaungoikoaren antzeko egiteraino jasoten dau.

Guk badakigu, Agustin santuak dinoanez, Jaungoikoa bakarrik dala giza bihotza ase eta bete leikeena: "Jauna, zuretzat egin gaituzu, eta gure bihotza ezin-egonean dago, Zugan atsedean hartu arte".
(Gaudium et Spes 21)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusen jaiotzako gabon jai pozgarriak gainean ditugu...

Nork lagunduko deusku Andra Mariak baino hobeto jai honeetarako gure bihotzak prestatzen?

Salbatzailea mundura ekarri euskun Nazaretoko birjinak, eta honen senar Jose deunak lagundu deiguela Belengo Umeari "ongi etorririk" BEROENA EGITEN:::

=: IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 1-5. 8-12. 14-16

Natan profetak Dabid erregeari esan eutsan: Zuk ez, zure semeak jasoko deutso Jerusalem eliza eder bat Jaungoikoari. Eta zure semeen semeengandik sortuko da Kristo salbatzailea.

2. IRAKURGAIA: Er 16, 25-27

Antzinatek gordeta egon dan misterioa, gure egunotan agertu da: Jaunak ebanjelioaren bidez gizaki guztiak salbau gura dituala.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

"AINGERUAK ESAN EUTSAN MARIARI: POZTU ZAITEZ GRAZIAZ BETE HORI... SEME BAT IZANGO DOZU...GOI-GOIKOAREN SEME DEITUKO DEUTSE" (Lk 1)

H O M I L I A

(Vatikanoko Lumen Gentium konstituzinotik ideak hartuta)

Jaungoiko guztiz ahaltsuak, mundua salbatzeko garaia bete zenean, bere Semea bialdu eban, emakumeagandik jaioa, guk Jaungoikoaren seme-alaba izatea hartu gengian (Gal 4, 4-5).

Jaungoikoaren Semea zerutik lurrera etorri, eta Espiritu Santuaren egitez Maria Birjinagandik gizon egin zan...

Maria Birjinak, aingeruak esanez, benetan Jaungoikoaren Semea bere ariman eta gorputzean onartu eban, eta horregaitik benetan Jaungoikoaren eta Salbatzailearen ama lez ezagutua eta agurtua da.

Errukiaren Aitak, bere Semea gizon egin aurretik, Mariak misterio hau ontzat hartu egiala gura izan eban. Honan, emakume batek (Ebak) heriotzea ekarri euskun lez, beste emakume batek (Mariak) bizia emotea erabagi eban.

Misterio hau goren-gorengo mailan, Jesusen Ama Mariarengan bete da, gauza guztiak barri egiten dituan bizitza, Jesus Jaungoikoa, munduari emon deutsalako.

Eta Jaungoikoaren Ama izateko behar diran dohe guztiekaz jantzia izan dalako.

Horregaitik ez da harritzeko elizaren guraso santuak sarritan, Jaungoikoaren amari buruz hitz egitean, guztiz santua dala, pekatu barik guztiz garbia dala, esatea, Espiritu Santuaren egitez izaki barria egina izan balitz lez...

Bere bizitzako lehenengo unetik santutasun guztiz ederrez apaindua izan zalako, aingeruak Nazaretoko neskatxa garbia graziaz betea zala esanez agurtu eban. Eta Mariak Jaungoikoaren aingeruari erantzuten deutso: "Hona hemen ni Jaunaren zerbitzaria; izan bedi zuk dinozun lez".

Honan Maria, Adanen alabea, Jaunaren albistea hartu ebanean, Jesusen ama egina gertatu zan. Eta Jaunaren zerbitzari lez, bere Seme Jesusen salbamen lanerako eskeindu zan. Eta Jesusegaz batera, eta Jesusen menpean, Jaungoiko ahalguztidunaren graziaz gizonak salbatzeko bere laguntza eskeindu eban.

Horregaitik eliz-gurasoak uste dabe, Maria ez dala izan Jaungoikoaren eskuetan geldi-geldian egon zan norbait, bere fede eta obedientziaz gizonen salbazinorako lan egin ebana baino.

Ireneo santuak dino: "Maria bere obedientziaz, bai beretzat, baita gizon-emakume guztientzat salbamen-bide izan da":

Eta antzinako eliz-guraso ez gitxik autortzen dabe: "Ebaren ez-obedientziaren korapiloa, Mariaren obedientziaz askatua izan zan, eta Eba birjinak bere ez-sinisteaz lotu ebana, Maria birjinak bere sinisteaz askatu ebala".

Eta Maria Ebaren ondoan ipiniz, Mariari "bizidunen ama" deitzen deutsie, eta sarriagotan autortzen dabe; "Heriotzea Ebagandik etorri zala, eta bizia Mariagandik".

Maria, Jaungoikoaren Ama dalako, bere Seme Jesusen ondoren, aingeru eta santu guztien gainera goratua izan da. Eta antzinako gizaldietatik hasi, eta gaur arte Jaungoikoaren Ama izenaz goratua izan da.

Eta bizitza honetako arrisku eta estualdietan, fededunak Jaungoikoaren Amaren laguntza eskatzen dabe, esanez: "Zure mantupean gordeten gara, Jaungoikoaren Ama santua! Entzun gure eskariak, eta arrisku guztietatik atera gaizuz, Birjin ahaltsu eta bedeinkatua!".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Salbatzailea Belenen Maria Birjinagandik jaio jaku...

Aingeruak pozez beterik abesten dabe: "Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Haren gogoko gizon-emakume guztiei"...

Jaungoiko handia ume txiki eginik agertu jaku. Goazen artzainakin batera gure Salbatzailea gurtzera...

1. IRAKURGAIA: Is 9, 2-4, 6-7

Isaias profetak esaten deusku: argi handi bat ikusi da. Umetxo bat jaio da. Askatzailea etorri jaku. Gure bihotzak pozez bete daiguzan.

2. IRAKURGAIA: Tt 2, 11-14

Neurriz, zuzentasunez eta Jainkozaletasunez biziz, Jesus gure salbatzailea itxaropenez beterik hartu behar dogu.

EBANJELIOA: Lk 2, 1-14

"BELENEN EGOZALA, MARIAK BERE LEHENENGO SEMEA IZAN EBAN, ETA OIHALetan bildurik, ASKA BATEAN ETZUN EBAN" (Lk 2, 7)

H O M I L I A

(Joan XXIII. gogapenak Belengo haurtxoaren aurrean)

Umeen antzera txiki egiten dana, horixe da handiena zeruetako erreinuan... Belengo umetxoaren txikitasun eta pobretasunak, mila sermoi ederrak baino sakonago jotzen naue bihotzean, eta negar gurea etorten jat...

Badakit nik, gizon jakintsu harroak, gizonik zintzoena izanik be, ezjakina eta pobrea bada, baztertu egiten dabela. Baina Jaungoikoarentzat ez da holan. Belengo umeak ez dauka handikeriarik, ezta jakintsu itxurarik be. Apaltasuna eta pobretasuna hartu ditu beretzat. Txikia eta ezereza da. Baina halan da guztiz be Jaungoikoa da. Munduaren egilea da.

Apaltasuna, hau da birtuterik ederrena eta maitagarriena Jaungoikoaren begietan, baita gizonen aurrean be. Gizon harroa Jaungoikoarentzat barregarri da, eta gizonen begietan nazkagarri. Jakituria, agintea eta dirua ez dira gizona handi egiten dabenak, zintzotasunak eta eguneroko lanaren duintasunak baino.

Harrokeriak bihotza puztu egiten dau, apaltasunak, ostera, bere benetako egira ekarri.

Apala gitxigaz pozik bizi da. Zer aberastasun dauke Mariak eta Josek Belengo estalpean?. Biziteko behar dabena, larri larri, besterik ez. Baina han alkarren arteko maitasunik eta bihotzeko pozik ez da falta. Harroak, osterak, beti gehiago eta gorago bizi gura dabe, eta holan euren barruak ezin betez, triste bizi dira.

Pozik bizi gura badozu, apala izan zaitez. Goiko mailetan bizi gura daben harroak azkenean guztien hankapera jausten dira; bizi diran bitartean ez bada be, bai, ziur hil ondoren. Bai, gizon bat baino gehiago ikusi ditugu, hil ondoren bere izena guztien hankapean zikinduta.

Belengo umetxoagandik ikasi daigun, ez, Jaungoikoa danez, mundua ezerezetik egiten, ez izarrei argia emoten, ezta gizonen errege eta agintari izaten be, pobretasun, apaltasun eta isiltasunean biziten baino.

Nik gurago dot astotxo apal baina langilea izan, hor goian eguzkiari begira hegaz harro dabilen arrano (agila) handikia baino.

Gurago dot nik baratzeke lurra izan, erregeen koroietakoko urrea baino. Lurrak frutua emoten dau eta probetxugarri da, baina urre ederrak, begientzat distiratsu bada be, ez dau fruturik emoten.

Gure bizitzan ez dogu begiratu behar gauza handiak eta goi mailakoak egiten ditugun ala ez; eguneroko lan txikiak zelako maitasun eta gogo onez egiten ditugun baino.

Hauxe da gure bizitza osoan gogoan euki behar geunkeena: aberats nahiz pobre izan, jakintsu nahiz ezjakin, osasuntsu nahiz gaixo, Jaungoikoak ipini gaituan lekuan eta mailan gustura bizitea.

Zelan bizi?. Jaungoikoak gura dauan eran.

Noz arte?. Jaungoikoak gura dauan arte.

Bide guztiak onak dira zerura eroaten bagaitue.

Baina hemen Belengo Umetxoaren aurrean, ahal bada niretzat behintzat, bide pobrea, isila eta apala gurago dot, zerura bardin eroaten banau".

(B) FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Nazareteko familia santua: Jesus, Maria eta Joserren jaia ospatzen dogu gaur...

Jose, etxeko jaun eta buru.

Maria, etxeko andra langile eta apala.

Jesus haurra, aitaren eta amaren esanak egiten zintzoa.

Nazareteko sendi santua ez zan aberatsa, ezta handikia be, baina, bai, maitasunaz zoriontsua..

1. IRAKURGAIA: Sir 3, 3-7. 14-17

Aita eta ama goratzen dituana Jaungoikoak bedeinkatuko dau, eta holangoari Jaunak zoritxar egunean lagunduko deutso.

2. IRAKURGAIA: Kol 3, 12-21

Familiako bizitzan maitasunak izan behar dau nagusi, eta haserre txikiren bat sortzen danean, parkatzen jakin behar da.

EBANJELIOA: Lk 2, 22-40

"JESUS UMEA HAZI ETA INDARTU EGITEN ZAN... ETA JAUNGOIKOAREN GRAZIA HAREN GAINEN EGOAN" (Lk 2,40)

H O M I L I A

("Familiaris Consortio" exhortatio Apostolica-tik ideak hartuta)

Jaungoikoa maitasuna da, dino San Joan ebanjelariak (1 Jn 4, 8)

Jaungoikoa bakarrik da maitasun betea eta azkenbakoa; eta Jaunaren maitasunetik datoz zeru-lurreko beste maitasun guztiak...

Jaungoikoak, gizona eta emakumea egin zituanean, alkar maitatzera deitu zituan. Eta harrezkero hau da gizakiak bizitza honetan daukan eginbeharririk gorengoena: alkar maitatzea...

Jaungoikoa da maitasun guztien eredua.

Jaungoikoak gizakia maite izan dau, eta heriotzaraino maitatu be. Ezkonduak be bardin, heriotzaraino alkar maitatu behar dabe...

Bai dala ederra, dino Tertulianok, senar-emazteen alkartasuna; Jaungoikoak bedeinkatua, Elizak onartua eta aingeruak zeruko Aitarenganaino jaso... Ezkonduak gorputzez bi izanda be, maitasunez bat egiten dabe; eta bai gorputzez eta bai arimaz be, haragi bat eta espiritu bat dira.

Jaungoikoak gure lehenengo guraso Adan eta Ebari esan eutsen: Hazi eta ugaritu zaiteze, eta lurra bete (Gn 1, 28)

Horregaitik ezkonduen alkar maitatzetik seme-alabak sortzen dira, eta ezkonduak kristauak badira, seme-alabak mundura ekarri bakarrik ez, baita elizako familian sartzen dabez.

Kristau ezkonduen eginbeharrak.

Kristau familiak "maitasun-habi" izan behar dau. Etxeko guztiak: guraso eta seme-alabak, eta beste sendikoak, maitasunean bat eginik bizi behar dabe, eta maitasun hori geroago eta beroagoa izan daiten ahalegin guztiaz zaindu behar dabe. Maitasunik bako sendia tristea da.

Maitatzea naturak berez eskatzen dauan gauza da, eta Jaungoikoak sendiko maitasun hori bedeinkatu egiten dau betiko iraun daian.

Betiko ez dan maitasuna, ez da egiazkoa. Horregaitik maitasunez egindako ezkontzak betiko izatea eskatzen dau; eta seme-alaben onak be eskabide hori sendotzen dau...

Etxeko maitasuna zaintzeko, askotan, sakrifizio handiak egin behar dira. Gure familietan egunero sortzen diran eztabaidak, parkameneren bidez, gairiditzen ikasi behar da...

Familiak ez dau bere barruan itxita bizi behar. Etxeko guztiak, bakotzak ahal dauanez, mundu guztiko senideengana bihotzak zabalik euki behar dabez. Mundu guztia familia bat da. Horregaitik gure senide geiso, gosetu, zahar eta ezinduei, ahal dogun guztian, lagundu egin behar deutsegu...

Aberriaren eta elizaren etorkizuna familian oinarritzen da. Horregaitik gizartean sendiaren eskubideak ahalegin guztiz zaindu behar dira. Gurasoena da, eta estaduarena, euren seme-alabak zelan edukatuak izan behar diran erabagiteko eskubidea.

Azkenez:

Nazaretoko sendi santuak: Jesus, Maria eta Josek izan behar dabe kristau sendiaren eredu eta espilu...

Jesus, Jaungoikoaren Semea, urte luzeetan Nazaretoko herri txikian ezkutaturik bizi izan zan, bere aitaren eta amaren esanak egiten...

Mariak gure etxeko andrai irakasten deutse otoitzean eta isilean eguneroko lanak santu egiten...

Josek gizon zintzo eta langileak, bai pozik eta ardura handiaz zaintzen zituazala Maria eta Jesus arrisku guztietatik...

Jesus, Maria eta Josek gure etxeak bedeinkatu daiezala, batasun eta maitasunean beti pozik bizi gaitezana.

ERROMAN: San Pedroren ondoan 1981. urtean
Joan Paulo bigarren Aita Santuak.

(B)

URTE BARRI

(Bizkaieraz)

JAUNGOIKOAREN AMA MARIAREN JAIA
BAKEAREN EGUNA

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaur urte barriari hasiera emoten deutsagu. Danontzat zorionez betea izan daitela...

Elizak Jesusen Ama Mariaren irudi ederra ipinten deusku gaur gure begien aurrean, urrundik bada be, gu Mariaren antzeko izan gaitezana.

Baita, Aita Santuaren deiari erantzunez, urte barriko hasiera honetan bakearen alde otoitz egin behar dogu, gorrotoak eta armak isilduz, anaitasunean biziten ikasi daigun.

1. IRAKURGAIA: Zen 6, 22-27

Lege Zaharreko abadeak, Jerusalemgo eliz-nagusian elizkizunak amaitzean, "bakea zuoi" esanez bedeinkatzen eben herria.

2. IRAKURGAIA: Gal 4, 4-7

Aita Jaungoikoak bere Semea emakume bategandik jaiotea erabagi eban. Emakume hori Maria da.

EBANJELIOA: Lk 2, 16-21

"HONAN BEDEINKATUKO DOZUEZ ISRAELDARRAK: JAUNAK BAKEA AGERTU
DAIZUELA ESANAZ" (Zen 6, 27)

H O M I L I A

(Paulo VI.ak Bakeari buruz egindako hitzaldia, 1973 urtean)

Urte barriari sarturik, beste urte baten atean aurkitzen gara. Eta gure lehenengo hitza betikoa da: Bakea. Bakearen alde danok lan egin behar dogu...

Munduko azken gerra negargarria amaitu zanean, danok esaten genduan: gehiago gerrarik ez. Bakean bizi gaitezana. Baina bakean biziteko gerrak sortzen dituezan suster gaiztoak atera egin behar ditugu: injustiziak, agintekeriak, giza-eskubideen zapalketak, hirugarren munduko gosea, handiak txikia oinperatzea, eta abar... Bestela gerrak barriz be sortuko dira...

Ekonomia eta zientziaren gaintetik, giza-pertsonak izan behar dau eguzkipean dan balorerik gorengoena. Gizakia beti errespetagarria da, ez jakintsua, osasunduna edo lanerako gai dalako, pertsona dalako baino.

Eta guk kristauok gizona errespetatu bakarrik ez, baita maitatu be egin behar dogu, Jaungoikoaren antzeko dalako, eta Jesusek irakatsi euskunez, guztiok anai-arrebak garalako...

Maitasuna eta bakea, gauza bi eder honeek buztarturik bizi dira. Bakea maitasunaren frutu gozoa da...

Mundu guztiko estaduen agintariak, ONU izeneko batzarrean alkarturik, azalpen hau izenpetu eben: "Gizaki guztiak jaiotzaz aske-libre eta bardinak dira, eta senide legez alkarragaz bizi behar dabe".

Antzinako esaera-zaharra ez daitela egia izan: "Gizona gizonarentzat otso"...

Gaurko egunean ez dau inork gerrarik gura, eta hau aurrerapen handia da... Armak, egia esan, oraindik indar handia dauke, baina bake zaleak geroago eta indar handiagoa hartzen hasi dira...

Gizakien eta estaduen arteko eztabaidak gerra barik konpondu daitezkeezala uste dabenak, geroago eta gehiago dira...

Gure arteko bakotxak bakea maite, eta bakearen alde lan egin behar dau, eta honan gizarte osoan bake-zaleak ugarituko dira, eta mundu guztira bake-zaletasuna zabalduko da... Eta egunen batean, zorionez, bakean bizi ahal izatea egia izango da...

Kristautasuna bakearen eskola.

Jesús gure maisuak esan euskun: "Zuok guztiok anai-arrebak zarie" (Mt 23, 8) Baita beste hau be esan euskun: "Egin besteei hareek zuei egitea gura zeunkien guztia" (Mt 7, 12)

Fededun garanok gizon guztiak maitatzeko motiborik handiena hau da: Jaungoikoa danon Aita dalako. Aita baten seme-alabak alkarren artean neba-arrebak dira. Horixe autortzen dogu "Gure Aita" otoitz egitean. Eta danok senide bagara alkar maitatu eta alkarregaz bakean biziten ikasi behar dogu...

Jesusek baita beste hau be irakatsi euskun: "Zure eskeintza altare-ra eroaterakoan gogoratzen badozu zure senideak badaukala zerbait zure aurka, itxi egizu zure eskeingai han bertan altare aurrean, eta zoaz lehenago zure senideagaz bakeak egitera; etorri orduan, eta egin zure eskeintza" (Mt 5, 23)

Eta azkenez, gure irakasle Jesusek esan euskun, bakearen alde lan egiten badogu, zorionekoak izango ginala: "Zorionekoak bake-egileak, Jaungoikoaren seme-alaba izango dira eta" (Mt 5, 9)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Oraindik gabonetako jaietan aurkitzen gara.

Jaungoikoaren Semea, zeruan Aitaren ondoan bizi zana, gu salbatzeko, gizon egin zan. Eta sinismenaren bidez onartu eben guztiei, Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emon eutsen...

Eta Jaungoiko seme-alaba diranei, zeruaren jabe izatea be emon deutse, bere errukiari eskerrak...

1. IRAKURGAIA: Sir 24, 1-4. 12-16

Egiazko jakituria honetan dago: Jaungoikoa ezagutu eta maitatzean. Zorionekoak honango jakituria lortu daben herriak.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-8. 15-18

Jaungoiko Aitak bere Seme Jesusen bidez, betidanik aukeratu ginduzan gu bere seme-alaba izateko. Gero zeruko ondasunen jabe be izan gaitetzan.

EBANJELIOA: Jn 1, 1-18

"JAUNGOIKOAREN HITZA ONARTU EBEN GUZTIEI, JAUNGOIKOAREN SEME-ALABA IZATEKO ESKUBIDEA EMON EUTSEN, HAREN IZENEAN SINISTEN BADABE"

(Jn 1, 12)

H O M I L I A

(Fedeari buruz Vatikanoko kontzilioak esandakoak bilduta)

Gizon-emakume guztiak beharturik dagoz egia bilatzera, Jaungoikoaren egia batez be; eta ezagutu ondoren onartzera; eta gero egia horrek eskatzen dauan legez bizitera.

Jaungoikoak gizona aske-libre egin dau, eta ez dau inor derrigortu gura egia hori onartzera. Egia, berak daukan indarrez, astiro eta samur, baina indar handiz, gizonaren bihotzeraino sartzen da....

Fedea libre dala jakiteak ez dau esan gura, bardin dala fedeari baietza ala ezetza emotea, Jesusek, bada, esan eban: Sinisten dauana salbauko da, eta sinisten ez dauana galduko. (Mk 16, 16)

Hau honan izanik, bakotxak pentsatu behar dau, zelango karga astuna bere kontzientziaren gainean ipinten dauan, egiari begiak itxi, eta Jaungoikoaren hitzari entzungor egiten deutsanean.

Jesusek bere bizitzan zehar irakasten eban dotrina egiztatzeko, mirari asko egin zituan, guri sinismen bideak zabaltzeko. Halan da be, batzuk sinistu eutsien, eta beste batzuk ez.

Baina, norbere erru barik, sinismenaren argira etorri ez danari, Jaungoiko errukitsuak beste bide bat emongo deutso, betiko salbamena lortzeko, bada, Jaunak egiaz eta benetan gizaki guztiak salbatzea gura dau...

Jesus Mesias ez zan lur honetan politiko diktadore antzera agertu. Bere entzuleen ez-sisteak min handia emoten eutsoen: baina bera salbatzera etorri zan, eta ez inor galtzera.

Jesusek erein eban erreinua ez da ezpataz jasoten, egiaz eta maitasunez baino: Nik lurretik gurutzean jasoko nauenean, Niregana ekarriko dodaz gauza guztiak.

Fedea, Jaungoikoak guri ezer merezi barik, egin deuskun balio handiko mesede-opari bat da. Horregaitik fededunok bizitza guztian Jaungoikoari eskerrak emon beharrean gagoz, gure arimako begietan sinismenaren argia biztu daualako.

Sinismendunak, dino Vatikanoko kontzilioak, Jaungoikoari indarra eskatu beie, euren fedea eskatzen dauan erara biziteko; eta horretarako behar daben laguntza otoitzean eta sakramentuetan, eukaristian batez be, aurkituko dabe....

Fededunak, euren inguruan bizi diran sinisbakoak, senide legez, maitasunez eta samurtasunez hartu behar dabez, euren bizitza zintzo eta zuzenaz, munduaren argi izan daitezana...

Gauza bat sinistu eta beste bat egin, hau da gaurko egunean askoren pekatu astuna, Jaungoikoak ezin eroana, eta fedeari kalte handia egingiten deutsana...

Fedebakoak Jaungoikoaren argira ekarteko asko balio dau, kristauak euren artean asko maite dabela, eta maitasunean bizi dirala ikustek.

Baita alderantziz be, fededunen arteko zatiketa eta haserreak, sinisten ez dabenen aurrean, Jaungoikoaren aurpegia estaldu egiten dabe...

Kristo, profeta gorengoak, zeruetako erreinua bere hitzaren indarrez, eta bere bizitza zintzoaren testigantzez, zabaldu eban. Haren ikasle garanok, ebanjelioaren argia gure etxeko bizitzan eta gizartean biztu egin behar dogu, mundua eta munduko zeregin guztiak, ebanjelioaren argitan ikusi, aztertu eta konponduak izan daitezana. (L G 35)

(B)

JAUNAREN AGERKUNDEA. EPIFANIA

SARRERAKO OHARPENA

(Bizkaieraz)

Senideok:

Gaur Jaunaren Agerkundera edo Epifania, edo bardin dana, Errege Magoen jaia ospatzen dogu.

Jesus Mesias ez zan judeguak bakarrik salbatzera etorri, baita atzerritar edo jentilak be. Magoak jentilak ziran, baina izarrak argiturik, urrundik Belenera etorri, eta Jaungoiko haurtxo egina ezagutu eta gurtu eben.

Gure antxinako gurasoak be jentilak ziran. Baina orain guri, Jaunari eskerrak, fedearen izarrak argi egin deusku, eta Belengo haurtxoa gure salbatzailea dala ezagutzen dogu.

1. IRAKURGAIA: Is 60, 1-6

Mesiasen argiak mundu honetako ilunpeak argituko ditu, eta lur osoak egiazko Jaungoikoa ezagutuko dau.

2. IRAKURGAIA: Ef 3, 2-3a. 5-6

Jesukristo Berri Onaren bidez, judegu eta jentilentzat salbatzaile egina da. Danok gara zerurako aukeratuak.

EBANJELIOA: Mt 2, 1-12

"ORDUAN MAGO BATZUK ETORRI ZIRAN SORTALDETIK JERUSALENERA ITAUNKA: NON DAGO JAIIO-BARRI DAN JUDEGUEN ERREGA? (Mt 2, 1-2).

H O M I L I A

("Gaudium et Spes" Konstituzinotik ideak hartuta)

Kontzientzia da gizakia Jaungoikoarengana daroan argia.

Gizonak bere kontzientziaren sakon sakonean lege bat aurkitzen dau. Lege hori ez deutso gizakiak bere buruari emon. Eta halan da be, jarraitu egin behar deusala ikusten dau.

Kontzientziaren abots honek bihotzeko belarrietan dei egiten deuaku, esanez: Ona dana egizu, eta txarra dana baztertu.

Bada lege bat Jaungoikoak gizon-emakume guztien bihotzetan idatzia, eta lege horri obeditzean dago gizon-emakume guztien duintasuna. Eta bizitzako azken egunean gizona lege horren neurrira epaitua izango da.

Kontzientzia gauza sakratua

Kontzientzia da gizonaren barrugunerik ezkutuen eta sakratuena...

Kontzientziaren bakartadean gizakiak Jaungoikoagaz bere hartu-emonak ditu. Eta Jaungoikoaren abotsa kontzientziaren tokirik ezkutuenan be entzuten da....

Gizon-emakume guztiak, Jaungoikoak emondako lege hori kontzientziaren bidez ezagutzen dabe: eta hau da lege horren mamia: Jaungoikoà eta lagunurkoa maitatzea. (G. S. 16)

Gizonak bere kontzientziaren bidez Jaungoikoaren legeko aginduak ezagutzen ditu, eta bere egite guztietan kontzientziak erakusten deutson bidetik ibili beharra dauka, bere helburu dan Jaungoikoaren-gana heldu arte.

Baina kontzientzia ilundu daiteke eta galdu.

Gizakia egiaren eta onaren bila ez dabilenean, kontzientziaren argia ilundu egiten da, eta orduan gizonak bere duintasuna galdu egiten dau...

Bere bihotzetik gogo txarrez Jaungoikoa eta erlejinoko gauzak baztertu egiten dituen, bere kontzientziaren kontra jokutzen dau, eta ez erru barik (G. S. 16, 19)

Adibide bat.

Xabierko Frantzisko euskalduna izan zan 1549. urtean Japoniara heldu zan lehenengo misiolaria. Xabierrek Europako bere laguneri gutun batean kontatzen deutse, zelan berak Japoniako jentilei esaten eutsen:

"Egin daigun gizon bat basoan jaio eta bizia; irakurtzen eta idazten ez dakiena, eta beste inongo gizonekaz be hartu-emonik inoz izan ez dauana... Basoan jaio eta basoan bizitako gizon horri itanduten badeutsazu: ea gizonak hiltzea, lapurretan egitea, inori kalte egitea eta abar, txarto eginak diran ala ez...

Basati horrek emongo leuskizun erantzunetik argi ikusiko zeunke, holango menditar horrek, inork be irakatsi barik, Jaungoikoaren legea ezagutzen dauala...

Nork irakatsi deutso zer dan zuzena eta zer okerra, Jaungoikoak baino?. Jaungoikoak bere legea bihotz guztietan idatzita itxi dau.

Eta jentila izan arren, kontzientziaren argiak erakutsirik, lege hori beteten dauanak, azkenean Jaungoikoa aurkituko dau".

(Xabierren gutunak 1552. urtean)

(B)

JESUSEN BATEOA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko Barri Onean Jesus Jordan ibaian Joanen eskutik bateoa hartzen ikusiko dogu.

Hogeita hamar urterarte Jesus Nazareteko herrian ezkutaturik bizi izan zan. Orain ageriko bizitzari, bateoaren bidez, hasiera emongo deutso.

Bateoa da guretzat be zeruko bizi barriaren hasiera...

1. IRAKURGAIA: Is 42, 1-4. 6-7

Isaias profetak orain erakusten deuskun Jaunaren zerbitzaria Jesus Mesias da. Fede bako itsuak argitu, eta pekatupean giltzape-tuak askatuko dituana.

2. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 34-38

Pedro apostoluak dino: Jaungoikoak jentilak be zerurako onartzen dituala. Jesusek bere bizitza danei on egiten igaro eban.

EBANJELIOA: Mk 1, 7-8

"JOANEK HONAN HOTSEGIN EBAN...NIK UREZ BATEATZEN ZAITUET...
JESUSEK, OSTERA, ESPIRITU SANTUAZ BATEATUKO ZAITUE" (Mk 1, 7-8)

H O M I L I A

Lehenengo hiru gizaldietako kristinau-gaiak bateoa hartzeko zein benetan prestatzen ziran, Erromako Hipolito martiriak kontatzen deusku. Martiri hau hirugarren gizaldiko lehenengo aldian bizi izan zan. Garai haretan Kristoren jarraitzaileak Erromako inperio-pean ikaragarritzko erasoaldi gogorak jasaten ebezan.

Hipolito martiriak kontatzen deusku:

"Kristorengan sinisten dauan batek, isilpean eta agoz ago, jentil pagano bati Jesus Nazaretarra nor zan kontatzen deutso. Zein gizon ona izan zan Jesus. Harek irakatsitako dotrina zein ederra dan...

Baina gero kurutzean josita hil egin ebela eta abar...

Gauza honeek entzunda gehienak barre eta burla egiten deutsoe.

Baina norbaitek entzundakoa gogoz hartzen dau, eta Jesus Nazaretarrari buruz zerbait gehiago jakiteko gogoia agertzen dau.

Orduan borondate oneko gizon edo emakume hau, isilpean, kristinau batzarrerara eroaten dabe. Eta batzarrekoak pertsona bat edo bi aukeratzten dabez, kristau-gai barri honi gure fedearen barri zabalagoa emoteko.

Otoitz egiten be irakasten jako, baia txiroei laguntzen, gaixoak ikustera joaten. Berba gitxitan Jesusen antzera biziten.

Ikasbide honetan hiru urte eroaten ditu. Eta proba ona emoten badau, bateorako prestaketak egiten hasten da.

Bateo eguna gehienetan Jesus biztu zan Pazko jaia izaten da. Bezperan bateoa hartu gura dabenak, danak batera, otoitz eta barau egiten dabe. Eta fedearen autorpena egin ondoren, jantzi zuriz bateo lekura joaten dira.

Eta han hiru aldiz Hirutasun guztiz santuaren izenean uretan sartzen dira, eta gotzainaren eskutik bateoa hartzen dabe, Eta bateoaz batera Jaungoikoaren seme-alaben grazia be bai, eta euren pekatu guztien parkamena.

Honan kristinau barri honeekaz Eleiza osoa pozten da, eta alaitasun hori agertzeko jai txiki bat egiten dabe".

Baina Konstantino Erromako enperadorea kristinau egin zanean, 313. urtean, kristinauen aurkako erasoaldiak amaitu ziran. Eta pertsona askok, enperadorearen ederra irabazteagaitik, fede barik, bateoa eskatzen eben.

Itxurazko kristinau honeekaitik Ambrosio santuak dino:

"Hemen dator gizon handiki bat eleizara, enperadorearen aurrean kristinau lez agertu gurarik, bere izena eta ondasunak handitzeko asmotan. Gizon maltzur honek, itxurak eginez, bateoa eskatzen dau; eta gizonen aurrean belaunak makurtzen ditu, baina bere bihotza ez dau Jaungoikoaren aurrean belaunikatzen".

Orduan kristinauak, edo hobeto esateko bateatuak, asko ugaritu ziran, baina fedea ez eban asko irabazi.

Gaurko egunean be bada nahiko kezkarik bateoari buruz eleiztarren artean. Frantziako gotzainak itanduten dabe: ea bateoa eskatzen daben guztiak bateatuak izan behar diran. Eta erantzuten dabe: "Ume jaio barriak bateatu aurretik jakin beharra dala, ea haurraren gurasoak, testiguen aurrean, berba-emoten daben, euren umea kristinau lez hazi eta edukatuko dabela. Bestela ezin dala bateatu... Bateoa ez dalako gizartean "ondo ikusia" dan ohitura bat; bizitza guztirako lotura bat baino: kristinau lez biziteko konpromisoa".

(B)

GARIZUMAKO 1. DOMEKEA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka honegaz garizumari hasiera emoten deutsagu...

Garizuma santua pazko jaietarako prestaerak egiteko berrogei eguneko aldi salbagarria da.

Otoitzari apur bat gehiago lotuz, eta alkar hobeto maitatuz, Jesus biztuaren pazko jai alaietarako gure bihotzak garbitu behar ditugu.

1. IRAKURGAIA: Gn 9, 8-15

Lurra ito eban uriolaren ostean, Jaunak gizakiaz errukiturik esan eban: ez dot gehiago lurra hondatuko dauan uriolarik bialduko.

2. IRAKURGAIA: 1 Pe 3, 18-22

Noe kutzari eskerrak uriolatik salbau zan legez, gu be bateoaren bitartez, salbatuak gara, Kristo biztuari eskerrak.

EBANJELIOA: Mk 1, 12-15

"ESPIRITUAK BASAMORTURA EROAN EBAN JESUS, ETA BERROGEI EGUNEZ EGON ZAN BASAMORTUAN" Mk 1, 12-13

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak 1981. urteko garizumarako egindako homilia)

Garizuma benetan maitatzeko garaia da. Elizak garizuman kristau guztiei otoitz apur bat gehiago egiteko dei egiten deutse, baita Jaunari gure pekatuen parkamena eskatzeko be. Berba gitxitan: bihotz barritzeko.

Jesus biztuaren pazko jaietan Jaungoikoaren aurrean garbi, eta Haren begietan atsegingarri agertu gaitezan.

Hausterre edo errauts egunean lehen esaten euskuen: "Gogoratu eizu hauts zarala, eta hauts bihurtuko zarala". Bai, gogoratu eizu ez zarala mundu honetara beti hemen biziteko etorri, eta gitxiago oraindik bizitza honetako zereginen artean nahasturik, betiko bizitza arriskuan ipinteko.

Gogoratu eizu, Jaungoikoagandik zatozela, eta Jaungoikoagana zozazela. Gogoratu eizu, zerurako bidean, poz eta nekeen artean, beti aurrera egin behar dozula...

Eta hau da Jesusek irakasten deuskun zerurako bidea: "Bere gurutzera hartuta Nigaz ez datorrena, ezin daiteke Nire ikasle izan".

Eta hau da baktxaren gurutzeta: gure eguneroko lanak, pozak eta nekeak Jaunagaitik pazientziak eroatea...

Bai, garizuma benetan maitatzeko garaia da.

Lehenengo eta beste guztien aurretik Jaungoikoa bihotz-bihotzez maitatzeko garaia.

Garizuma itxaropen garaia be bada, geure pekatuak damutu, eta zeruko Aitagaz bakeak egin, eta zerua guretzat dala gogoratu, pozez biziteko garaia.

Baina ez da nahiko Jaungoikoagaz bakeak egitea, geure senideak be maitatu behar ditugu... Garizumako aldi santu honetan kendu daiguzan betiko gure bihotzetatik nikeriak, haserreak, alderdikeriak, harrokeriak, guzurak eta alkar ezin-ikusiak. Eta bihotz on eta zabalez alkar maitatzen hasi gaitezan.

"Lege barri bat emoten deusuet", esan eban Jesusek, "alkar maite daizuela, nik zuek maite izan zaituedan lege" (Jn 15, 12)

Bai, garizuma benetan maitatzeko garaia da.

Gure arteko baktzak halango parabolako samariar errukitsuaren antzeko izan behar dau, geure bizitzako bide bazterrean zaurituren bat, edo nekeetan dagoan edozein aurkitutakoan, lehenbailehen laguntza emoteko...

Garizumako aldi santu honetan geure kontzientzia aztertu daigun, maitasun lege hau zelan beteten dogun ezagutzeko...

Gure lagunurkoa hor bazterturik dagoan txiroa da, ogean dagoan gaixo hori da, etxean bakarrik aurkitzen dan zahar hori da, beste edozein zelango nekeen artean aurkitzen dan gizon edo emakume hori da...

Eta egiazko maitasuna ez da bihotzeko sentipen edo samurtasun hutsa bakarrik. Egiazko maitasuna laguntza emoten dakiena da.

Zabaldu, senideok, zuen bihotzak Jaungoikoaren izenean benetan maitatzeko. Zabaldu zuen eskuak txiroei laguntzeko, gaixoei poza emoteko, zaharrei itxaropena eskeintzeko...

Hau da garizuma santu honetan Jaungoikoak eskatzen deuskun benetako penitentzia: Egiaz eta benetan maitatzea. Hau eginez Jaungoikoak bedeinkatuko zaitue, baita neuk be Jaungoikoaren izenean.

Joan Paulo bigarrenak.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Senideok:

Kristauak zeruko itxaropenean pozik bizi dan gizakia da.

Jesusek gaurko ebanjelioan apostoluei mendian zeruko edertasunaren zati txiki bat erakutsi gura izan eutsen, mundu honetako neke-lanak pazientziaz eroaten ikasi eien.

Lanetik atsedenera, gurutzetik zerura, heriotzatik betiko bizitzara, hau da gaur Jesusek mendiko antzaldatzean apostoluei, eta guri, irakatsi gura deuskun ikasgaia.

1. IRAKURGAIA: Gn 22, 1-2. 9a. 15-18

Abrahan, Jaunaren esana beteteko, mendian bere seme bakarra Isaak opari eskeintzeko prest egon zan. Jaungoiko Aitak bere Seme bakarra Kalbario mendian gugaitik eskeindu eban.

2. IRAKURGAIA: Erm 8. 31b-34

EBANJELIOA: Mk 9, 1-9

"JESUSEN JANTZIAK DISTIRATSU, ZURI-ZURI BIHURTU ZIRAN...ETA PEDROK ESAN EUTSAN JESUSI: BAI EDERTO GAGOZALA HEMEN" (Mk 9, 3-5)

H O M I L I A

(San Leon Aita Santuaren homilietan oinarritua)

Jaungoiko Aitak mundua, bere Semearen gurutzeko heriotzaren bidez salbatzea erabagi eban. Eta Kalbarioko gurutzearen aurrean apostoluek bildurrez fedean hondatu ez eitezana, Jesusek Pedro, Santiago eta Joan beragaz hartu. eta mendi handi batera eroan zituan.

Eta han mendiko bakartadean antzaldatu egin zan: Jesusen aurpegia eguzkia bezain distizari egin zan, eta Haren soinekoak argia bezain zuri.

Jesusen aintzaren edertasuna Jesusen gorputzean agertu zan. Eta edertasun hori ikusteaz hiru apostoluen zoriona hain handia izan zan, Pedrok pozaren pozez burua galduta lez, esan eban: "Bai ederto gagozala hemen. Hiru txabola egin daiguzan".

Ez eban Pedrok gauza okerrik eskatu. Jesusegaz batera beti hantxe bizi gura izatea, eskabide zuzena zan.

Baina Jesusek Pedroren eskabidea ez eban onartu, gurutzearen bidez mundua salbau behar zala erabagita egoalako.

Geuk be zeruko poza eskurtu gura badogu, Kristoren bidetik ibili behar dogu, bizitza honetako neke-lanen bidez zerua irabazten dala jakin eta ikasiz. Gurutzea da zerura igoteko zurubi edo eskilara.

Zeruko itxaropenak bizitza honetako gure lanak arindu eta gozatu egiten ditu.

Pedro, zeruko zorionaren zati txiki bat ikusiz, zoratuta lez geratu bazan, zelangoa izango ete da gure poza, zeruko erregea bere edertasun guztian aintzaz inguraturik geure begien aurrean agertzen danean?.

Nork eta zelan adierazo lei zeruko zoriona zer eta zelangoa dan?

Jaungoikoa aingeru eta santuz inguraturik bere errege-aulki ospetsuan ikustea. Iluntzerik ezagutzen ez dauan betiko egun argitan bizitea. Heriotzaren bildur barik betiko bizitzaren jabe izatea... Hauza miragarri guzti honeek fedearen argitan hausnartuz, nor ez da zeruko pozaren gogo biziz biziko?.

Zeruko zorionaren poza zein bikaina dan sarriago gogoratuko bagendu, ez gintzatekez hain errez mundu honetako ondasunetan hain bete-betean sartuta biziko.

Zeruetako zorionaren poza zein bihotz betegarri dan gehiago sakonduko bagandu, bizitza honetako atseginekaz ez geunke hain errez geure buruak engainatzen itxiko.

Baina zeruetako sari handi, eder hori eskuratzeko, bizi garan bitartean, lan egin behar dogu, San Paulok irakasten deuskunez: "Lana gogor egiten dauan nekazariari dagokio frutu ugari jasotea, eta kirole-tan be ez dau inork saririk jasoten, aurretik gogoz jokatu ez badau" (2 Tm 2, 5)

Gora, bada, bihotzak, ene senideok. Goiko saria handia eta betikoa da. Hemengo lana, ostera, txikia eta aldi batekoa.

Zeruetan Aitaren ondoan dago Jesus, gure Eroslea, lehen gurutzean josia, baina orain zeru-lurretako errege egina.

Koroia dauka eskuetan, lur honetan zintzo jokatzen dauanari, betiko zorionaren saria emoteko...

Berari eskerrak, aintza eta gorespentak, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eliza otoitz egiteko toki santua da. Horretarako batzen gara domeketan elizan: Jaunari gure eskariak jasoteko.

Gaurko ebanjelioan Jesus, Jerusalemgo elizatik tratulari eta diru-LARIAK botaten agertuko jaku, esanez: Jaunaren etxea otoitz etxe da, eta zuok merkatu etxe egin dozue.

Senideok: gure bihotzak damuaz garbiturik, Eukaristi santua eskeintzen hasi gaitezan.

1. IRAKURGAIA: Ex 20, 1-17

Jaunak Moisesi Sinai mendian hamar aginduen legea emon eutsan.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 1, 22-25

Kristoren gurutzea munduarentzat zorakeria da, baina zerurako aukeratuentzat, Jaungoikoaren indarra.

EBANJELIOA: Jn 2, 13-25

"JESUSEK LOKARRIEKAZ ZIGOR BAT EGIN, ETA ELIZATIK BOTA ZITUAN DANAK (Jn 2, 15-16)

H O M I L I A

Salomon erregeak Jaungoikoarentzat Jerusalemene eliza handi, eder bat eragi eban. Baina Babiloniako Nabukodonosor erregeak, Kristo jaio aurretik 586. urtean, dana erre eta hondatu eban. Eta gainera Jerusalemgo bizilagunak atxilotuta, Babiloniara eroan zituan.

Berrogei urteren buruan, israeldarrak Babiloniako erbestetik euren aberrira itzuli ziranean, Jerusalemgo eliza barrero eragi eben, baina lehengoa baino apalagoa

Jerusalemgo eliza horrek "Santuen Santua" izeneko toki ezkutu, sakratu bat eukan "Alkartasun Kutxarentzat" egina. Baita Jaunari opariak eskeintzeko urrezko altare bat be.

Dana hiru patio aterpedunez inguraturik egoan: gizonen, emakumeen eta jentilen patioakaz.

Jentilen patio honetan bilgots, zezen, uso eta beste abere mota asko salgai aurkitzen ziran, baita herri-dirua, eliz-diru trukatzeko dirularien mahaiak be. Jentilen patio hau zezenen orroaz, ardien beekaz eta dirularien deadarraz, otoitz etxe baino sal-erosketa plaza gehiago zala emoten eban.

Halango lotsabakokeria ezin eroanez, Jesusek zigor bat harturik, ardi, idi eta dirularien mahaiak itzuliz, elizaren aterpetik danak bota zituan.

Jerusalengo eliza eder honek gure fedeko egia handi eta pozgarri bat ekarten deusku gogora: geure arimak be Jaungoikoaren etxe eta eliza dirala. San Paulok Korintoko kristauei dinotse: "Ez dakizue zuok Jaungoikoaren etxe zariela eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dala?. Jaungoikoaren etxea santua da, eta etxe hori zuok zarie" (1Kr 3,16-17)

Egia da: Jaungoikoa azken bakoa danez, toki guztietan dago, baita pekatarien arimetan be; baina Jaungoikoaren adiskide direnen arimetan, Jauna beste era berezi-aparteko batera bizi da.

Jaungoikoaren grazian eta adiskidetasunean biziteak gure arimak jaungoikotu egiten ditu, ez gu Jaungoikoaz bardinak eginik, (hori ezin dalako), baina bai gu Jaungoikoaren antzeko, adiskide eta eliza egiten gaitualako.

Antzinako kristauak fedeko egia hau euren bihotzaren barru-barruan josirik eukien. Antiokiako Inazio martiri santuak sarri esaten eban: Ni "teoforo" naz, Jaungoikoa neugaz daroat.

Horregaitik San Gregorio aita santuak dinosku: Begira, kristaua, zein gauza handia dan Jaungoikoa guban bizitea. Errege batek zure etxera etorri gura dauala esango baleutsu, zelan zure bizilekua garbitu eta txukunduko zeunken!

Orain, bada, Erregeen Erregea guban bizi da. Garbitu daigun gure arima zikinkeria guztitik, eta apaindu daigun onbide ederrenakaz.

Jaungoikoaren grazia honek gure arimak bakarrik ez, baita gure gorputzak be santu egiten ditu. Horregaitik elizak fededun hildakoen gorpuei be kanpo santuan lur emoteko agintzen dau.

"Ez dakizue", dino San Paulok, "zuen gorputzak be Espiritu Santuaren eliza dirala?"(1 kor 6, 19)

Pekatu egiten dauanak Jaunaren etxea zikintzen dau. Ez atsekabetu Jaunaren Espiritua. Kendu zuokandik garrazkeria, beroaldi, haserre, birao, burruka eta beste gaiztakeria guztiak. Izan zaiteze alkarren artean onak eta errukitsuak; alkarri parkatuz, Jaungoikoak zuoi Kristorengan parkatu deutsuen legez" (Ef 4, 30-32)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko domeka honetan Jaungoikoak guretzat daukan errukia eta maitasuna zein handiak diran ikusiko dogu...

Jaungoiko Aitak bere Seme Jesus ez eban mundura gizakiak galtzera bialdu, salbatzera baino...

Jaunak bere Seme bakarra emon deusku gure pekatuen zorren ordaingarri, gurutzearen bidez salbatuak izan gaitazan...

1. IRAKURGAIA: 2 Kro 36, 14-16. 19-23

Pekatu egin ebelako Jerusalemgo bizilagunak Babiloniara katigu eroanak izan ziran. Baina Jaunak errukiturik Ziro erregearen bitartez euren aberrira itzuli zituan.

2. IRAKURGAIA: Ef 2, 4-10

Jaungoikoak gu, maitasun handiz maite izan gaitualako, bere Seme bakar Jesusen bidez salbau gaitu.

EBANJELIOA: Jn 3, 14-21

"HAIN MAITE IZAN DAU JAUNGOIKOAK MUNDUA, BERE SEME BAKARRA EMON DEUTSO...JAUNGOIKOAK EZ DAU BERE SEMEA MUNDUA GALTZERA BIALDU; HAREN BIDEZ MUNDUA SALBAU DAITEN BAINO" (Jn 3, 16-17)

H O M I L I A

Nikodemo fariseu jakintsua, bildurtia bazan be, gizon zintzo eta gogo onekoa zan. Jesus ezagutu nahirik, Nazareteko profeta gazte, barriarengana gauzez etorri zan, honegaz berbaldi bat egitera.

Jesusek, Nikodemogaz zeruko gauzei buruz luze berba egin ondoren, hau esan eutsan: "Hain maite izan dau Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emon deutso. Jaungoikoak ez dau bere Semea mundua galtzera bialdu, Haren bidez salbau daiten baino" (Jn 3, 16-17)

Azken berba pozgarri honeek, Jesusek askotan esaten zituan; eta guretzat, pekatari garanontzat, bihotz nasaigarri eta itxaropenez beteak dira...

Behin Jesusi, Jerusalemenera bidez joala, Samariako herri batean, ez eutsoen ostaturik emon gura izan. Orduan Santiago eta Joanek haserre, Jesusi zerutik sua jasteko eskatu eutsoen herri ha erreteko. Baina Jesusek erantzun eutsen: "Ni ez naz gizonak galtzera etorri, salbatzera baino" (Lk 9, 55)

Beste behin ezkontza-nahasten aurkitutako emakume bat ekarri eben Jesusen aurrera. Harrika hil gura eben.

Baina Jesusek, emakumearen alde jarri, eta harrika hil gura ebenei, esan eutsen: "Zuen artean pekaturik ez daukanak, bota deiola lehenengo harria".

Eta gero emakumeari: Ez zaitu inork galdu?"

Eta emakumeak: "Ezta neuk be, ez zaitut galduko. Zoaz, eta aurretantzean ez egin pekaturik" (Jn 8, 7-11)

Paulo apostolua lehenengotan, dakigunez, Jesusen eta kristauen arerio amorratua izan zan. Entzun deiogun berari Jauna zelan errukitu jakon kontatzen:

"Jesukristo pekatariak salbatzera etorri zan lurrera, eta pekatarien artean lehenengoa neu naz. Lehenago Kristoren arerio izan nintzan. Baina Jauna errukitu jatan, eta Jaungoikoak bere grazia gainezka isuri eban nire gainera. Horregaitik lortu neban errukia, Jesukristok niregan niregan erakutsi eian lehenengo bere bihotz handia, eta ni eredu izan neinten Harengan sinistu eta betiko bizitza lortuko dabenentzat" (1 Tim 2, 13-17)

Azkenez, Lisieux-ko Teresa Santa maitagarriari, bere humore onez, Jaunaren errukiak kantatzen entzungo deusagu:

"Gure Jaunak osatu ezin dan gatx bat daukala, esango neuke nik. Bihotza dauka gaixorik, eta begiak itsututa. Guri deuskun maitasunak, gure pekatuak ez ikusteko, begiak itsutu deutsoz.

Mundu honetan izan daiteken pekatarririk bihotz gogorrena izanda be, hil aurretik bihotz-bihotzez parkamena eskatzen badeutso, Jaunak, lehenagoko pekatuei ez-ikusia eginik, gaiztakeriarik handiena be parkatuko deutso.

Jaunak ez daki matematikarik. Damutzen bagara, gure pekatuak zenbat izan diran, ez daki kontatzen.

Baina, horretarako, Jaunaren errukian gure konfiantza osoa ipinita, bihotza irabazi behar jako. Bihotza da gure Jaunaren alderik samurrena"

(Santa Teresita, "Consejos y recuerdos")

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Garizumako azken domekara heldu gara...

Kristoren heriotzea eta biztuera ospatzeko gure bihotzak atondu behar ditugu...

Jesus, Jaungoikoaren Semeak, bere bizia gure onerako emon eban. Baina hirugarren egunean biztu, eta orain Jaungoiko Aitaren zorionean dago.

Gu be, Kristoren antzeko bagara, beragaz batera zerura jasoak izango gara...

1. IRAKURGAIA: Jr 31, 31-34

Lege Zaharrean Jaungoikoak maitasun Alkargoa egin eban Israel herriagaz. Lege Barrian bere odolagaz Alkargo barri bat egingo dau kristau herriagaz.

2. IRAKURGAIA: Eb 5, 7-9

Jesusek gu salbatzeko bere Aitaren esana egin eban, gurutzean gurutzean bere bizia gugaitik emonaz.

EBANJELIOA: Jn 12, 20-33

"GARI-GARAUAK LURREAN HILTEN BADA, GARAU UGARI EMOTEN DAU... ETA NIK, LURRETIK GORA JASOKO NAUENEAN, NIGAN BATUKO DODAZ GUZTIAK" (Jn 12, 24)

H O M I L I A

(Agustin santuaren Joanen Ebanjelioari egindako komentarioetatik)

"Gari-garaua lurrera jausi eta hiltzen ez bada frutu barik gelditzen da; baina hiltzen bada garau ugari emoten dau"(Jn 1, 24)

Jesusek bere buruagaitik esan eban hori. Bera zan, gurutzean hilik, ez Israel herria bakarrik, baita mundu zabaleko jentilak be, Bereganatu zituana.

"Nik lurretik gora gurutzean jasoko nauenean, Niregana batuko dodaz guztiak" (Jn 12, 32)

Deabruaren maltzurkeriak garaiturik, Kristo, gurutzean hila baina gero biztua, zeru-lurreko errege egin da; eta bere odolaz zeruko atea guri zabaldu deuskuz, Hari sinisten deutsonak betiko bizia euki daian" (Jn 3, 15)

Lehen Israel herria zan Jaunaren herri aukeratua. Orain mundu zabal osoa da Jaunaren herri salbatua.

"Bere bizia maite dauanak galdu egingo dau; eta bere bizia gorroto dauanak mundu honetan betiko bizitzarako gordeko dau"(Jn 12, 25
Harrigarria da Kristoren esaldi hau. Zelan ulertu?

Mundu honetako gauzak: aberastasunak, atseginak, goralpenak eta abar, bide okerretik maite badituzu, zure burua betirako galdu dozu.

Baina mundu honetan pekatu-bide diran gauzak gorroto badituzu, zure burua zerurako gorde dozu. Inoz jazoko balitxaku martiriei gertatu jakena: fedea ukatu edo bizia galtzea, gurago izan behar dogu Jaungoikoa maitatuz hiltea, Jaunaren haserrean bizitea baino. Hau da Jesusek esan gura deuskuna: gaiztakeriaren bidetik ibiltea arima galtzea galarik, eta alderatziz, bide zuzenetik ibiltea arima irabaztea dala.

"Nire zerbitzari izan gura dauanak jarraitu bekit; eta Ni nagoan tokian egongo da nire zerbitzaria be" (Jn 12, 26)

Zer da Kristori jarraitzea?

San Pedrok erantzungo deusku: "Kristok nekeak eroan zituan zuokaitik, bere urratsei jarraitzeko eredua zuoi itxirik" (1 Pet 2, 21)

Eta zer da Kristok bere jarraitzaileei emongo deutesen saria?

Kristo beragaz zeruan bizitea, eta Jaungoikoaren erreinuan betiko zoriona gozatzea...

Kristoren zerbitzari dira, norbere buruaz ahazturik, Kristoren antzerantz bizi diranak...

Gose danari ogia emoten badeutsazu, errukiturik bihotz onez emiozu, eta ez jendeak ikusi zaizan. Eta beste edozelango laguntza emoten badozu be, "ez daiala jakin zure esku ezkerak, eskumeak egin dauana"

Honan laguntzen dauanak Kristo berari laguntzen deutso, eta Jesusek esandakoa beretzat hartu lei: "txiki honeitariko bati egindakoa, neurri egin zeunsten"

Gure egite on guztietan Kristok izan behar dau gure eredu: "Gizonaren Semea ez da besteen zerbitzuak hartzera etorri, besteak zerbitzera baino" (Mt 20, 28)

Eta hau esatean ez eizue pentsatu nik gotzain eta eliz-gizonengaitik bakarrik esaten dodala; baita zuontzat be, ume, zahar, gazte eta ez-konduentzat be bardin dinot, zuen bizitza zintzoaz Jauna zerbitzen dozuen guztiontzat. Zuontzat Jaunak zimeltzen ez dan koroï eder bat atondurik dauka zeruetan... Berari aintza eta gorespenak gizaldi eta gizaldietan.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eukaristia ospatzean abadeak honango berbak esaten ditu meza erdian: "Saldua izan zan gau haretan, ogia hartu, bedeinkatu, zatitu eta bere ikasleei emon eutsen"...

Saldua izan zan gau hori gaurkoa dogu...

Jesusek, hilgo eben aurreko egunean, maitasun ezaugarri handiena emon gura izan euskun, bere gorputza janari, eta bere odola edari guretzat emonaz...

1 IRAKURGAIA: Ex 12, 1-8. 11-14

Itun Zaharrean israeldarrak, Ejipton morroi bizi zirala, bildotsaren odolak heriotzatik atera zituan. Itun Barrian Kristoren odolak askatzen gaitu betiko heriotzatik.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 11, 23-26

Jesusek, bere gorputza ja nari, eta bere odola edari guretzat emotean, esan eban: Egizue hau nire oroigarri. Eukaristia ospatzen dogun bakotxean Jesusek egindakoa barriztatzen dogu.

EBANJELIOA: Jn 13, 1-15

"IKUSI EBAN JESUSEK ETORRI JAKOLA MUNDU HONETATIK BERE AITARENGANA JOATEKO ORDUA, ETA MUNDUAN EGOZAN BERETARRAK MAITE IZANIK, AZKENERAINO MAITATU ZITUAN" (Jn 13;1)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak Irlandako katolikoei egindako hitzaldia)

Eukaristiako ogiaren egia.

Jesusek, hilgo eben aurreko egunean, guretzat eukan maitasuna zein handia zan adierazoteko, bere gorputza ogi antzean, eta bere odola ardau antzean, emon euskuzan, gure arimen janari eta edari izan daitezana...

Ene janari santua! Kristo bera dogu janari eta Jesusen odola edari. Gure arima zeruko graziaz beteten da, eta gu zeruaren jabe egiten gara...

Baina sinisten dogunaren eta egiten dogunaren artean bardintasuna egin behar da. Gauza bat sinistu, eta beste bat egin, holangorik ezin dau Jaungoikoak onartu. Gure sinismena eta bizitza, biak batera buztartuten ikasi behar dogu.

Eukaristia domeketan ospatzen dogunok, Kristoren antzeko eta Bera-
gaz bat eginik gagozala, gure eguneroko bizitzan erakutsi behar do-
gu. Eukaristiak egunero eta hobeak izatera indartu behar gaitu. Egune-
ro eta Kristoren antzekoagoak, etxean maitagarriagoak, auzoan lagunt-
za emonkorragoak, gure eguneroko lanetan zintzoagoak. Bestela Euka-
ristiako Ogia Egia dala ukatu egiten dogu.

Jaunaren gorputza hartzen dogunok gure agoan beti egia euki bahar
dogu. Gizon eta emakume guztien eskubideak itzal eta errespeto handiz
zaindu behar ditugu. Bestela Eukaristiako Ogia ez da Egia.

Eukaristiako mahaira inguratzen garanok izan behar dogu: esku eta
bihotz zabalak, leialak, langileak. Gure lagunurkoa, nahiz aberatsa,
nahiz pobrea izan, bardin maite behar dogu. Ez deusagu geure burua-
ri eta geure etxeko eta lagunei bakarrik begiratu behar, baita be-
mundu zabaleko bizilagun guztientzat gure bihotzak zabaldu behar di-
tugu.

Jesusek bere gorputza eta odola emoterakoan, azkeneraino eta ezin
gehiagoraino, gu maite izan ginduzan. Eta orain guk maitasun horri
gure maitasunaz erantzun behar deusagu, gure senedeak maitatuz...

Eukaristiako Ogiaren Egia honetan agertzen da: gure guraso, senar-
emazte eta seme-alabakaz etxean gozoagoak eta maitagarriagoak ba-
gara. Harrokeriak, haserreak, "neuk bakarrik daukat arrazoia" eta
beste holango pentsaerak baztertzen baditugu.

Baita Eukaristikoko Ogia Egia dala autortzen dogu arerioakaz bakeak
egiten baditugu, kalte egin deuskunari parkatzen badeusagu, gure
artetik gorrotoak kentzen baditugu...

Eukaristiako Ogia ez da Egia, eta ez dau onik egiten, geure etxeko
ogitik gose danari emoten ez badeusagu, etxeko zaharrak baztertzen
baditugu, estualdian aurkitzen danari laguntzen ez badeusagu.

Eukaristiako Ogiaren Egia autortzen dogu fedez sinisten doguna gu-
re eguneroko bizitzan benetan egiten badogu. Fedea zelango, bizitza
halango, dino esaera zaharrak. Eta halan izan behar dau. Hau egiten
badogu, orduan, bai, Eukaristiako Ogia Egia izango da guretzat.

Jaunaren bedeinkapena hartu eizue.

Bigarren Joan Paulo Aita Santuak.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Kristo biztu da. Aleluia! Kristau herriak urte guztiko jairik handiena ospatzen dau gaurko domekan...

Gurutzean hil eta hobiratua izan zan Jesus, hirugarren egunean aintzaz beterik hilen artetik biztu da...

Gurutzea ez da heriotzean amaitzen, zeruko pozetan baino...

Kristo biztu da. Aleluia! Geu be Beragaz eta Bere indarrez biztuko gara. Poztu gaitezán.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 34a-43

Pedro apostoluak autorten deusku: Kristo biztu da, eta geu gara horren testigu.

2. IRAKURGAIA: Kol 3, 1-4

Kristo biztu da, eta geu be Kristoren indarrez biztuak izango gara. Gabiltzan zeruko ondasunen bila.

EBANJELIOA: Jn 20, 1-9

"IKUSI EBEN ETA SINISTU; ORDURARTE EZ EBEN ULERTU LIBURU SANTUAK DINOENA; BIZTU BEHAR EBALA HILEN ARTETIK" (Jn 20. 8-9)

H O M I L I A

(San Gregorio Handia Aita Santuaren homilian oinarritua)

Jesus biztuaren pazko egun hau, urte guztiko jairik nagusiena, eta ospakizunik alaiena dogu kristaudentzat.

Biztu da Kristo! Poztu gaitezán! Aleluia!

Jaunak bere heriotz aurretik esandakoa bete da gaur: "Ni lurretik gora gurutzean jasoko nabenean, guztiak Niregana batuko dodaz".

(Jn 12, 32)

Ebanjelioko emakumeak usain gozoekaz hilobira joan ziran.

Geu be haren antzera, geure egite onen usain gozoekaz, goazen Jesus biztuarengana. Eta hareek lez geuk be hilobian aingeruak aurkituko ditugu, guri esaten: "Ez dago hemen! Biztu da!"

Kristo izan da hilen artetik biztutakoen artean lehenengoa.

Geu be, Haren ondoren eta Haren indarrez, egun batean biztuak izango gara. Kristauok poztu eta zeruko zorionaren itxaropenean pozik bizi gaitezán.

Bai, Kristo biztuaren jaia gure jaia be bada, Kristok bere biztuaren bidez guri be bere bizia emon deuskulako.

Bizitza bi dira. Bata lurrekoa, ezagutzen doguna; eta bestea zerukoa ezagutzen ez doguna.

Lurrekoa hilkorra da. Zerukoa, ostera, betikoa. Lurreko bizitzak azkenean heriotza dakar. Zerukoak, ostera, bere bidearen azkenean betiko zoriona dauka. Eta zorion honen atea Kristok zabalduko deuskuz. Kristo hil eta biztuak.

Baina gure artean norbaitek esan lei: Bai, Kristo biztu da Jaungoikoa dalako, baina gu ez gara Kristoren mailakoak...

Egia dinozu, baina jakin beharra dozu, Jesus bakarrean hil bazan be, ez zala bakarrean biztu. CREDOKO "Santuen Alkartasunak" hori irakasten deusku. Fedeko egia honek esaten deusku fededun guztiok gorputz bat osotzen dogula. Eta gorputz horren buru Jesus bera dala, eta gu gorputz horren atal edo zati garala.

Halan bada, gorputz horren buru dan Kristo biztu dan ezkerro, zatiak be biztu behar dabela. Itxaropen honetan oinarriturik, fededunok pozik bizi behar dogu.

Kristo biztuak guretzat beste ikasbide bat be badauka...

Gogoratu daigun Kristo gurutzean egoanean, zelan juduak barreka eta irainez esaten eutsoen: "Israelgo errege bahaz jatsi hadi gurutzetik"

Orduan Jesus gurutzetik jatsi izan balitz, ez euskun guri bere pazientziaren ikasbide-ejenplorik emongo.

Apur bat luzaroago itxaron eban, arerioen irain, barre eta hitz gaiztoak pazientziaz eramanez. Eta gurutzetik jatsi ez zana, gerotxoagō hilobitik biztu zan. Eta gaur milioika jarraitzailek adorutzen dabe...

Senideok: Kristoren biztueran alaitasunez jai egin daigun. Pazko jai eder hau zeruan ditugun gure etxeko eta lagunekaz bat eginik ospatu daigun.

Bide zuzenetik ibili gaitezkan, gero guk be, biztu ondoren, Jaungoikoaren edertasuna zeruan ikustea merezi daigun...

Jaungoiko Aitak, bere Semea biztu ebanak, gure bihotzetan zerura joateko gurari bizia biztu daiala. Zeruko erreinuan, Jesus biztuagaz batera, errege izango gara eta, gizaldi eta gizaldietan.

Hala bedi.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Harritzekoa da gaurko ebanjelioan agertzen jakun Tomas apostoluaren sinisgogorkeria: "Nire hatzamarra Jesusen untze-zuloetan sartzen ez badot, ez dot sinistuko"...

Eta Jesusek: "Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak"...

Guk Jesus biztua ez dogu ikusi, baina halan da be, ikusi eben testigui sinisten deutsegu.

Zorionekoak gu, geure sinismenean sendo irauten badogu...

1. IRAKURGAIA: Ep Eg 4, 32-35

Lehenengo kristauak bat ziran bihotzez eta gogoz, baita lurreko ondasunetan be.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 5, 1-6

Jesukristogan sinisten dauana Jaungoikoaren seme-alaba da.

Jaungoikoa maite dauanak Haren aginduak beteten ditu.

EBANJELIOA: Jn 20, 19-31

"TOMASEK: HAREN ESKUETAN UNTZE-ZULOAK IKUSTEN EZ BADODAZ, EZ DOT SINISTUKO" (Jn 20, 25)

H O M I L I A

(Pedro Arruperen homilia Erroman bildutako lekaide-lekaimeei)

Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak.

Atzoko fedea zelangoa izan zan, eta biharkoak zelangoak izan behar dauan azterketa egitea oraingoz itxi daigun. Gaurko egunean eta orain gure sinismenak zelangoak izan behar dauan sakontzen hasi gaitezan.

1. Gure fedearen oinarria Ebanjelioa da.

Ebanjeliora jo behar dogu, Jesusek irakatsi eban Ebanjeliora; eta ez gero guk geure nahikeriaz, soineko politikaz jantzi dogun ebanjelio gozora. Geure gustura moldatu dogun sasi-ebanjelioa baztertu eta egiazko Jesusen dotrinara zuzendu behar ditugu gure bizitzak.

Eta Ebanjelio huts eta garbia hau da: Jesusek gure bizitza osoa Jaungoikoari emona izatea eskatzen dau: Jaungoikoa bihotz osoaz maitatuz, eta lagunurkoari ahalegin guztian lagunduz.

Hau da Ebanjelioaren mami eta bihotza. Eta hau beteten dogun neurrian gara Kristoren benetako jarraitzaileak.

Gaurko gure kristautasunari, burdin zaharrari lez, ugerra sortu jako, eta agoa amustu. Ebagiteko balio daian, ugarra garbitu egin behar dogu, eta agoa zorroztu.

2. Gure fedearen bigarren oinarria hau da : kristauok munduan mentaturik bizi behar dogu.

Kristoren jarraitzaileak munduko zizinkeria, gaiztakeria eta injustizia guztiak garbitzen lan egin behar dogu.

Kristauak bere inguruko lagunen artean eta alde guztietan, honango asmo eta eretxiak erein behar ditu:

a. Pertsona guztiak, zuriak eta baltzak, aberatsak eta txiroak, gizonak eta emakumeak, bardinak garala, eta eskubide bardinak daukaguzala.

b. Giza-eskubideak, ekonomia eta beste balore guztienagainetik zaindu behar dirala.

d. Gizaki guztiok askatasunean libre bizi behar dogula, alkarren begirapen edo errespetoan biziz, lurrera bakea ekarteko.

e. Besteen aberriak onartuz, bakotxak bere jaioterria maite izan behar daukela. Baina betiko aberria zerua dala inoz be ahaztu barik.

f. Bakotxak bere kontzientziak erakusten deutsan bideari, zintzo eta engainu barik jarraitu behar deutsala. Kontzientzia dalako Jaungoikoak gizonari emon deutson onbiderako argia.

Hirugarren oinarria: kristau izateko era barri bat asmatu behar da.

Datorren gizaldiko kristautasuna zelangoa izango dan ezin dogu orain guztiz asmatu, baina zerbait jakin daikegu, eta horretarako gure gazteak atondu behar ditugu.

a. Datorren gizaldiko kristautasuna eta eliza ez da eliz-gizon eta abadeena bakarrik izango. Sekularrak be gaurko egunetan baino askoz gehiago eliz-lanetan lagunduko dage.

b. Datorren gizaldian kristau lez agertzen diranak gaur baino gitxiago izango dira, baina zintzoagoak eta benetakoagoak.

d. Fededunen eta federik ez dabenen artean ez da burrukarik izango. Biharko fededunak fedebakoen artean biziten ikasi beharko dabe.

e. Biharko Eliza pobreagoa izango da, apalagoa eta baztertuagoa... Berba gitxitan: Kristoren antzekoagoa.

(B)

PAZKO 3. DOMEKEA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Biztu zan egunean Jesusek, bere ikasleen erdian agertuz esan eutsen: Bakea zuekin. Bakea da guztiok maite doguna...

Haserreak eta gorrotoak baztertuz, bakotxa bere kontziagaz bakean, etxeko eta auzokoakaz bakean, mundu guztiaz bakean bizitea, hau da Jesus biztuak bere ikasleei, eta guri be, opa deuskun egiazko bakea.

1. IRAKURGAIA: AP Eg 3, 3-15. 17-19

Pedrok Jerusalemgo israeldarrei dinotse:: Zuok gurutzean josi zenduen Jesus Jaungoikoak biztu egin dau. Damutu zaiteze.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 2, 1-5a

Jesusek pekatariak Jaungoikoagaz adiskidetu ditu. Jaungoikoa maite dauanak Haren aginduak gordeten ditu.

EBANJELIOA: Lk 24, 35-48

"JESUS BIZTUA BERA AGERTU ZAN IKASLEEN ERDIAN, ETA ESAN EUTSEN: BAKEA ZUEKIN" (Lk 24, 36)

H O M I L I A

Jesus biztuak, lehenengo bider agertu jakenean, bere ikasleei esan eutsen: Bakea zuekin.

Bakea hitza Liburu Santuetan sarritan agertzen dan dana da.

Aingeruak Belenen abestu eben: "Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Haren gogoko gizonei"

Jesusek be, bere 72 ikasleak barri-ona zabaltzera bialdu zituanean, esan eutsen: "Etxe batean sartzen zarienean, hau izan bedi zuen lehenengo hitza: bakea etxe honetan"

Liburu Santuak "Bake" hitzaren barruan beste gauza asko be sartzen ditu: osasuna, zoriona, nasaitasuna, ondo-izatea eta abar.

Bake barik ez dago zorionik, ezta bizitzeko pozik...

Bake barik ez da zorionik, ezta biziteko pozik be.

Zer eta zelangoa dan Jaunaren bakea.

1.971. urtean Japoniako Kyoto hurian, mundu zabalean bizi diran 22 erlijinotako ordezkariak (budistak, judeguak, kristauak, mahomatarrak, hinduistak eta abar) batu ziran bakearen alde otoitz egin, eta erabagi batzuk hartzeko.

Eta 22 erlijino desberdinetako ordezkariak oinarri honeetan ados etorri ziran.

1. Giza-familia osotzen dogun guztiok jakin behar dogu, mundu zabal-
leko gizon-emakume guztiak jaiotzaz bardinak garala, eta gizaki guz-
tiak eskubide bardinak ditugula.
2. Pertsona bakotxa, eta bakotxaren kontzientzia, gauza santu eta
sakratuak dirala, eta horregaitik beti eta alde guztietan errespetatu
egin behar dirala.
3. Armen indarra ez dagoela arrazoiaren eta giza-eskubideen gaineratik.
Eta maitasunak, zintzotasunak, leialtasunak eta beste espirituzko
indarrak, azken batean, gorrotoak eta egoismoak baino indar gehiago
dabela.
4. Aberatsen eta indartsuen gaineratik, pobreen, baztertuen eta zapal-
duen alde lan egin behar dogula.
5. Txarkeria eta gaiztakeria guztien gaineratik, azkenean, ontasunak
eta zintzotasunak irabaziko dauanaren itxaropenik ez dogula galdu
behar...

Gero danok batera, orain arte bakearen aurka egindako hutsegi-
teak apalki autortu ebezan, esanez:

"Erlijinoa maite dogun gizon eta emakume guztiok, apalki autortu
beharrean gagoz, gure erlijinoak eskatzen dauanaren kontra jokatzuz,
ez dogula askotan eta behar dan bestean bakearen alde lan egin: eta
orain arte bakeari egin deusagun saldukeria, zuzendu eta ordaindu
beharrean gagozala".

Eta bakearen alde otoitz eginez, amaitu eben ekitaldia.

Hinduistak "Upani shad" izeneko Liburu Santutik hartuta, honan o-
toitz egin eban:

"Goiko Jaunak lagundu deigula, danok alkar maitatuz, bakean biziten.
Soloetako bedarrak, eta basoetako zugaitz eta lendareak, mundura ba-
kea ekarten lagundu daiskuela".

Mahomatarrak "Koran" liburu santutik hartuta eskari hau egin eban:
"Goratu daigun Jaungoikoa, diran guztien Jaun errukiz betea. Lagun-
du eiguzu eta zuzendu beti bake-bidetik zintzo ibili gaitезan".

Amerindioak bere bake-pipa eskeinduz, honan eskatu eban: "Bake-pipa
hau zuei eskeintzen deusuet, danok bakean bizi gaitезan. Oi Espiri-
tu Handia! Pipa hau izan bedi gure artera bakea ekarteko".

Eta homilia hau ezin dogu amaitu Jesusek bakearen alde esandakoak
gogora ekarri barik: "Bakea zuekin. Zorionekoak bake-egileak, Jaun-
goikoaren seme-alaba izango dira eta". (Mt 5, 9)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan artzain onaren parabola entzungo dogu...

Domeka hau, abade izateko, erlijioso, lekaime bizitzarako eta misiolari izateko bokazinoen alde otoitz egiteko eguna dogu.

Jesus artzain onari entzun deiogun esaten: "Artzain onak bere bizia ardien alde emoten dau".

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 4, 8-12

Jesus hila eta biztua da gure salbatzaile bakarra.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 1-2

Jaungoikoaren seme-alaba gara, eta zeruan Jaunaren antzeko izango gara.

EBANJELIOA: Jn 10, 11-18

"NI NAZ ARTZAIN ONA. ARTZAIN ONAK BERE BIZIA ARDIEN ALDE EMOTEN DAU" (Jn 20,11)

H O M I L I A

(Ars-ko parroko santu Joan Bautista Vianney-ren katekesistik ideak hartuta)

"Zer da abadea?.

Jaungoikoaren ordezkoi, Jaungoikoaren tokian dagoan gizona.

Zoaz, dinotso Jaunak abadeari, nire Aita Jaungoikoak ni zerutik lurrera bialdu nauan lez gizonak salbatzera, era berean bialtzen zaitut zu gizonak zeruratzera.

Abadea, bada, Jesusen ordezkoi da. Abadea Jaungoikoaren eskubideak akaz jantzita dagoan gizona da...

Abadeak pekatuak parkatzen dituan ez dau esaten: "Jaungoikoak parkatzen deutsu", beste hau baino: "Nik parkatzen deutsut".

Mezea emoten dauanean be ez dau abadeak esaten: "Hau Jaunaren gorputza da", beste hau baino: "Hau neure gorputza da".

Abadearen bitartez datoz gugana zeruko zorion, grazia eta doe guttiak.

Izan be, zuok mundu honetara etorri zinanean, nork emon eutsuen, bateoaren bidez, Jaungoikoaren bizi barria?. Abadeak.

Zeruko bidetik zuzen ibilteko nork emoten deutso zuon arimei eukaristiako janaria?. Abadeak.

Zuen arima pekatu astuna eginez, Jaungoikoaren grazia galduta, hiltera baletor, nork barrero biztuko dau?. Abadeak.

Eta heriotzako orduan arimea Jaungoikoaren aurrera garbi agertu daiten, nork garbitzen dau Kristoren odoletan?. Abadeak.

Jaungoikoaren mesede bakar bat be ez dozue gogora ekarriko, irudi horren ondoan abadearen antza ipini barik.

Munduan gauza handirik bada, abadea da.

Zerura joan arte ez dogu jakingo abadea zer dan.

Jaungoikoaren mesede guztiak ez litzatekez ezertarako izango, abaderik ez bagendu...

Egin daigun, Jaungoikoaren grazia eta mesede guztiak urrezko etxe batean gordeta dagozala. Zertarako geunke urrez betetako etxe hori geurea izatea, etxe horretako atearen giltzarik ez bageunke?.

Halan bada, zeruko ondasunen giltzea abadeak dauka. Abadeak zabaltzen deusku atea...

Jaungoiko maitearen ondasunen arduradun, atezain eta banatzailea, abadea da... Jaungoikoaren urrengo, abadeak ditu eskubide danak...

Inork, elizako sagraioa erakutsiz, itanduko baleutsu: Zer da kutxa txiki hori?. Zer dago horren barruan?. Zuk erantzungo zeunskio: Hori Jaunak bere janariak gordeten dituan lekua da.

Eta nork banatzen ditu horko janariak? Mahaira nork zerbitzen ditu arimen bizigarri diran zeruko janariak?. Abadeak.

Eta janari hori zer da?. Kristo gure Jaunaren gorputz jaungoikozkoa.

Ene Jaungoikoa! Zeinbat maite izan gaituzun, abadeari ogi zatitxo bat, Jaungoikoaren gorputz bihurtzeko ahalmena emoterakoan!...

Abade bat ikustean hauxe esan behar geunke: Horra hor ni Jaungoikoaren seme-alaba egin nauena.

Bateo santuaz niri zeruko atea zabaldu deustana. Nik pekatu eginda koan barrero garbitzen nauena. Nire arimari zerurako bidean jaten emoten deustana...

Abade bat ikustean Jaungoikoaren maitasuna goratu behar geunke, gizon hilkorrari halango eskubide miragarriak emon deustazalako!!!

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus biztua da gure fedearen oinarri sendo bakarra.

Jesusegaz maitasunean bat eginda bizi bagara, Jesusen espiritua guregana etorriko da, eta bere bizi ugaritik gu be biziko gara.

Jesusen laguntza barik adar igartuak gara. Jesus gure alde badogu ez dogu ezerean bildurrik euki behar.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 9, 26-31

Paulok bihotz barritua izan ondoren Jerusalengo bidea hartu eban, apostoluak ezagutzeko asmoz.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 18-24

Hau da Jesusen agindu nagusia: alkar maitatzea. Eta egizko maitasuna egiteetan agertzen da.

EBANJELIOA: Jn 15, 1-8

"NI NAZ MAHATSONDOA, ETA ZUOK MAHATS-AIHENAK... NIGAZ DAGOENAK FRUTU ASKO EMOTEN DAU" (Jn 15, 5)

H O M I L I A

(Paulo VI.ak Filipinasen 140,000 kristauen aurrean izan eban homilia)

Senideok: Nik zuen aurrean Jesusen izena autortu behar dot.

Jesus Jaungoikoaren Semea da, izaki guztien artean lehenengoa, gauza guztien oinarria, historia eta munduaren ardatza eta erdigunea. Jesus da gure bizitzako lagun eta adiskidea.

Jesus da gure arimako gose eta egarriarentzat zeruko ogia, eta ur bizien iturria. Gu legez, eta gu baino gehiago, Jesus txikia izan zan, txiroa, apala, langilea, nekez betea eta eroopen handikoa.

Jesusek sortu eban erreinuan, pobreak zoriontsu izango dira. Hango bizilagunen artean bakea biziko da. Erreinu haretan, bihotz garbiak eta negar egiten dabenak goratuak eta poztuak izango dira. Pekatariak parkatuak. Jesusek erakutsi eban erreinuan danok senide lez, alkar maitatuz biziko gara.

Ni Jesusi buruz berbaz hasten nazanean, ez dakit zelan amaitu.

Jesus da zeru-lurraren arteko zubia. Jesus da Mariaren Semea, eta Maria emakume guztien artean bedeinkatuena.

Zeru azpian aurkitu daiteken izakirik samurrena, amarik onena eta eta errukiz beteena.

Baina ez dogu Jesus goratu behar Bera hain goragarri dalako baka-
baia gure alde egin ebanagaitik be. Jesus gurutzean hila, gure sal-
batzaile eta erosle izatera etorri da...

Baina zuen artean batek baino gehiagok itaun hau egin lei: Jesusen
dotrinak gaurko gizarteko arazo eta eztabaidak konpontzeko balio
ete dau?. Zer egin lei gaur Kristok gure alde?.

Jakin behar dozue, Jesusek lur honetan ez ebala zeruetako erreinua
bakarrik zabaldu. Jesusek jaten emoteko ogiak ugaritu zituan, eta
gaur be Jesus, bere dotrina eta jarraitzaileen bidez, ogi ugaritzearen
miraria barritzen dabil.

Kristok mundu barri baten oinarriak ipini zituan Jaungoikoa guztion
aita dala irakatsi ebanean. Honan gizon-emakume guztiak, bardinak
eta senide garala irakatsi eban.

Baita Jesusek esan eban mundu honetako aberastasun eta ondasun guz-
tiak Jaungoikoak guztientzat sortu ebazala, eta, egoismoak baztertu-
rik, guztion artean banatu behar ditugula.

Jesusek, gure eguneroko lana, gizona Jaungoikoaren lankide edo lan-
lagun egiteraino jaso eban. Jesusek bere agindu nagusia "alkar mai-
tatzean" ipini eban, eta agindu hori beteten dogun neurrian, mundu
hau hobea izango da...

Zuoi, gazteoi, esaten deutsuek:

Gaurko mundu hau egoismoz betea da. Munduan ekonomiak agintzen dau.
Zuok gizonaren duintasuna urre eta zidarraren gainetik dagoela ikasi
eta irakatsi behar dozue.

Zuoi, langileoi, esaten deutsuet:

Zuen buruak gora jasoteko ahaleginak egizuez. Zuen eskubideak de-
fenditu egizuez, baina gorroto barik. Nazareteko arotza Jose izan
bedi zuen eredu eta espilu.

Zuoi, behartsuei, esaten deutsuet:

Jesus pobrea eta pobreen laguna izan zala. eta pobreak zorioneko
izango zirala irakatsi ebala. Biziteko behar dana eskuratzeko lan
egizue, zuen seme-alabak gero bizimodu hobe bat lortu daien.

Zuoi, aberatsoi, esaten deutsuet:

Jesusek zuontzat berba gogorak esan zituan. Baina baita esan eban:
basu bete ur bihotzez emondakoak, bere saria izango ebala zeruetan.

Etorri da ordua zuon begi-bihotzak zabaldua, gizartera bardinta-
sun anaikorragoa ekarteko. Huxe da, senideok, nik Jesusen izenean
zuoi adierazo gura neutsuena. Jaunak bedeinkatu zaiezala.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan behin eta berrero bere agindu barria irakatsiko deusku: Maite eizue alkar, Nik maite zaituedan lez.

Baina benetan maitatzea ez da beti erreza izaten...

Senideok: Gure haserrealdi, eta maitasunaren aurka egindako pekatuakaitik, Jaunari parkamena bihotzez eskatu deiogun.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 25-26. 34-35. 44-48

Juduak bakarrik ez, baita jentilak be Jaungoikoak salbatzeko bidean ipini ditu. Kornelio jentilak bateoa eskatzen dau.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 4, 7-10

Maite daigun alkar, dinosku Joan ebanjelariak. Maite ez dauanak ez dau Jaungoikoa ezagutzen.

EBANJELIOA: Jn, 9=17

"HAU DA NIRE AIGINDUA: MAITE EIZUE ALKAR NIK MAITE IZAN ZINDUEDAZAN LEZ" (Jn 15: 12)

H O M I L I A

(J. A. Pgolaren "Nazaretoko Jesus" liburutik ideak hartuta)

"Jesusen eritxian Maitasuna da Jaungoikoaren eta gizon-emakume guztien aurrean erabili behar dogun Lege Nagusia.

Jaungoikoa maitatzea eta lagunurkoa maitatzea, maitasun bi honeek lokarri estuz lotu ditu Jesusek: "Maite eizu Jauna, zure Jaungoikoa bihotz-bihotzez eta gogo-gogoz...Eta lagunurkoa zeure burua lez. ez da hau baino agindu handiagorik".(Mt 12, 30-31)

Baina egia esan, ez ditugu agindu bi honeek nahastu behar, Jaungoikoa maitatzea eta lagunurkoa maitatzea maitasun bi bardinak balira lez. Jesusentzat, Jaungoikoa maitatzea beste maitasun guztien gaineratik dago. Gizon-emakume guztien artean inork be ezin dau Jaungoikoaren lekua bete...

Gizakiak daukan lehenengo eginbeharra Jaungoikoa maitatzea da, Jaunaren borondatea egitea; Jaunak erakutsitako bidetik zuzen ibiltea.

Hau da agindurik gorengoena.

Baina, gizon-emakume guztiok, Jaungoikoaren seme-alaba garalako, alkarregaz senide gara, eta Jaunak maite dituan seme-alabak, geuk be maitatu behar ditugu. Horregaitik, Jaungoikoari deusagun maitasuna, senideei deusagun maitasunean agertzen da.

Maitasuna zabalean eta sakonean.

Lagunurkoari deutsagun maitasuna gizon-emakume guztietara zabaldu behar da: erlijinoan, politikan, eta gizarte arazoetan guk legez pentsatzen dabenengana, baina baita beste eritxi bat dabenentzat be.

Horregaitik kristauak ez dau itandu behar: nor da lagunurkoa?.

Beste hau baino: Nor dago estualdian, lagundu deiodan? Gauzak honan-
go zabalean hartuta, maitasunak ez dauka mugarik.

Eta maitasuna sakonean hartuta, Jesusek bere burua ipinten deusku ikabidetzat: maitatu eizue alkar nik maite izan zinduedazan lez. Ez da maitasun handiagorik, nork bere bizia adiskideengaitik emotea baino. (Jn 15, 12-13)

Maitasunaren urrezko jokabideak.

Kristoren benetako jarraitzaile danak, bere bizitzako jokabidetzat esaldi honeek hartu behar ditu:

"Egin besteari, harek zuri egitea gura zeunken guztia" (Mat 7, 12)

Edo honen antzeko dana: "Ez egin inori harek zuri egiterik gura ez dozunik" (Tob 4, 15)

Edo hobeto esanda: "Maitatu eizu lagunurkoa zeure burua legez" (Mk 12, 31). Eta "zure burua legez" esatean dana esanda dago., Gure buruari, bada, gauzarik onenak opa deutsaguz.

Maitasuna doan-gratis.

Egiaz eta benetan maite dauanak, maitasun horren orde ezker eskatu barik maitatu behar dau. Maite gaituana bakarrik maitatzea, ez da Jesusentzat egiazko maitasuna. Nikeria edo egoismoa be izan daiteke:

Nik senideari mesede bat egingo deusat, gero harek niri beste mesede bat eginaz itzultzekotan.

"Izan be" dino Jesusek, "maite zaituezanak bakarrik maite badozuez, zer sari zor jatsue Jaunaren aurrean? Jentilak be ez ete dabe beste horrenbeste egiten?.

Bihotz oso eta betean maitatu daigun guztiok alkar, zeruetako Aitak gu maite gaituan legez...

Ez daigun berbaz eta agoz bakarrik maitatu, egitez eta egiaz baino.

Norbaitek ondasunak baditu, eta bere senidea premian ikusirik, ez badeutso laguntzen, zelan izan lei bere barruan Jaungoikoaren maitasunik?.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Egun honetan Jaunaren zerura igokundea ospatzen dogu...

Jesus Jauna, hilen artetik biztua, berrogei egunez bere ikasleei agertu ondoren, orain Aitarengana doa, zeru-lurretako jaun eta jabe izatera. Baina Jesus ez da bera bakarrik zeruratu. Gu be, Jesusen ikasle garanok, zerura jasoak izango gara, aintzaz beterik, Haren ondoan beti biziteko.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 1, 1-11

Jesus biztua, bere lur honetako lana amaitu ostean, bere ikasleen aurrean zerura igon zan.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 17-23

Jaungoiko Aitak bere Seme Jesus biztu eta zerura jaso dau, diran guztien jaun eta jabe egiteko.

EBANJELIOA: Jn 20, 19-23

"GALILEARROK, ZERTAN ZAGOZE HOR, ZERURA BEGIRA? (Ap Eg 1, 11

H O M I L I A

Aita Pedro Arrupe bilbotarrak, Jesusen Lagundiko Buruzagi izan zanak, kontatzen deusku:

"Gogoratzen naz, behin trenez bidaiia luze bat egitean, nire ondoan hiru gazte kirolzale jesarri zirala. 18 urtekoak edo izango ziran.

Futbol partidua irabazi ebela eta, euren entrenatzaileagaz pozik etozan. Hizketaldia moteldu zanean, entrenatzaileak itandu eutsen:

Ea, mutilak, kolejioa laster itxiko dozue, eta gerorako zer plan dozue?. Hareen arteko batek, asko pentsatu barik, erantzun eban: Ez dakit. Ez dot oraindik ezer pentsatu. Hori oso konplikaus da.

Bigarren batek zera esan eban: Ni be zalantzan nago. Balitake burt-sa korredore edo merkatari izatea. Dirua non gehien irabazten dan ikusiko dot.

Azkenean, hirugarren mutilak, lotsatuta lez, honan erantzun eban: Ni be dudan nago. Baina baliteke Afrikara edo joatea hango jente atze-
ratuei laguntza apur bat emotera. Nik gazte nazan bitartean zerbait probetxuzko egitea gura neuke.

Erantzun honegaz beste lagunak, begi handiekaz harriturik, begiratu eutsoen. Ez eben ezer ulertzen.

Eta nik neure barrurako esan neban: Hori, mutila, hori!. Gora begira bizi da hori!

Gazte ha kristinaua zan ala ez, nik ez dakit; baina Ipar Amerike^a tako bizitza atsegina itxi, eta Afrikara joateko gogoia, ez eutsan ez, lurreko egoismoak sortuko, goragoko norbaitek baino.

Eta Aita Arrupek gorago aitaturako liburuan, honan jarraitzen dau idazten: Hiru gazte honeen ispiluan garbi ikusten dira bizitzari buruz jendeak dituan hiru ikuspegi edo jarrera ezbardinak:

Lehenengo jarrera:

Gero ni zer izango nazan?. Ez dakit. Ez dot ezer pentsatu. Hori oso konplikatua da.

Bigarren jarrera:

Nik gero zein bide hartuko dodan?. Dirua non gehien irabazten dan, bide hori hartuko dot. Holangoen amesa aberatsa izatea da. Diruan ipinten dabe zoriona.

Hirugarren jarrera:

Nik bizi nazan bitartean txiro eta baztertuen alde zerbait probetxugarri egin gura neuke... Holakoak dira gora begira bizi diranak.

Holakoak Paulo apostoluaren aholkua beteten dabe: "Zabilze goiko ondasunen bila. Han dago Kristo Jaungoikoaren eskumaldean jesarrita. Maite eizuez goiko ondasunak eta ez lurrekoak" (Kol 3, 1-2).

Zertan zagoze hor gora begira?.

Berba honeek esan eutseezan aingeruak, Jesus zerura zelan igoten begira begira egozan ikasleei.

Eta Agustin Deunak honan argitzen deusku pasarte hau:

Senideok: Gora bihotzak zerura begira!. Guk ez dogu oraindik, gaur Jesusek lez, zeruetako aintza eskuratu; baina egunen batean, Jesusen kurutzeko irabaziei esker, zeruetan gure Salbatzailearen ondoan aurkituko garala, itxaropena dogu. Gora begira bizi gaitezan!

Bizi garan bitartean, Jesusen atzetik, geure eguneroko lanak, handiak eta txikiak, pazientziaz hartu daiguzan, itxaropenean pozik, eta ezbeharretan eroan handiko izanik (Err 12, 12)

Ez daiguzala gure bihotzak mundu igeskor honetako atseginetan lotu, zeru gaineko pozetan baino. Apurtu gaiztoaren lokarriak, eta, orduan bai, gure arimak askaturik zeru gainera egaz egingo dau.

Gora begira bizi gaitezan!

(B)

PENTEKOSTE DOMEKEA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Berrogeita hamar egunetan ospatu ditugun Pazko jaiak, Espiritu Santuaren etorreraz amaitzen ditugu.

Zeruetara igon eban Jesusek, bere Espiritua bialtzen deutse ikasleei bildur barik Barri Ona mundu guztian zabaldu daien,

Espiritu beronek, gu be indartu gaizala, munduaren aurrean Kristoren autorle zintzo izan gaitezana.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 2, 1-11

Espiritu Santua ikasleen gainera zelan etorri zan entzun daigun.

2. IRAKURGAIA: Kor 12, 3b-7. 12-13

Kristinau taldea bere arteko emaitzetan ezbardina bada be, bat dā Espirituan.

EBANJELIOA: Jn 20, 19-23

"SARTU ZAN JESUS, ETA IKASLEEN ERDIAN ZUTUNIK; ESAN EUTSEN: HARTU EIZUE ESPIRITU SANTUA" (Jn 20, 22)

H O M I L I A

("Dominum et Vivificantem" enziklitatik ideak hartuta. Joan Paulo II. 1986 urtean)

Espiritu Santua, Jaun eta Bizi-emoilea, Hirutasun guztiz Santuaren hirugarren pertsona da...

Hirutan bakarra dan Jaungoikoa, bere barruko bizitzan maitasuna da. Aita eta Semea alkarren maitasun azkenbakoan bizi dira, eta Espiritu Santua maitasun horretik datorren jainkozko pertsona da.

San Paulo apostoluak irakasten dauanez, Espiritu Santuaren emaitzak asko dira: Maitasuna, poza, bakea, bihotz-zabala, alkarren zerbitzua, bihotz-biguna, leialtasuna, samurtasuna, bere buruaren jabe izatea eta abar (Gal 5, 22-23).

Guk gaurko egun honetan emaitza guzti honeek ezin aztertuz, gitxi batzuk bakarrik aitatuko ditugu:

Bizi-emoile da Espiritu Santua. Zeruko biziarena.

Jesusek Nikodemori esan eutsan lez: Jaungoikoaren erreinuan sartzeko barriz jaio behar dozu.

Eta Nikodemok harriturik:

Harek, nire otoitz-liburuari begiraturaz, itandu eustan: Zer da hori? Eta nik: otoitz egiteko liburua.

Eta berak: Baina zer da otoitz egitea? Eta nik: Jaungoikoagaz berba egitea. Eta gazteak harriturik: Baina, zuk Jaungoikoagaz berba egiten dozu, ala? Zelan da hori? Eta nik: Egia esateko, nik ez dot gorputzeko begiekaz Jaungoikoa ikusten, bai fedearen bidez. Eta gazteak: Orain gitxiago ulertzen dot.

Eta nik fedea zer dan honan irakatsi neutsan: Begira, gazte, guk egazkin honetatik ikusten etxeak, bideak, zubiak eta abar, gizonak eginak dira... Baina mendiak, itsasoa, eguzkia, izarrak eta abar, ezin ditu gizonak egin...

Hara, gazte, egazkin honek orain istripu bat izango baleu, biharko egunkarietan hiru-lau lerro ipiniko leukiezin, esanaz: Egazkin istripu bat izan da, eta hainbeste lagun hil dira... Eta akabo.

Gu ez gara ezer. Gizonaren kaskartasunak Jaungoikoaren handitasuna ezagutzera garoaz. Eta zu harriturik utziko zaituan zerbait gehiago ere esango deusut: Jaungoiko handi hori hain on hutsa da, gu gaitik haurtxo txiki bat egin zan".

James-Berson Irwin, 1871. urtean ilargira lehenengo heldu zan astronautak kontatzen digu:

"Ilargian igaro nituan orduak nire bizitzako oroigarrienak izan ziran, Jaungoikoa nire ondoan sentitzen nebalako. Gizona zeinbat eta lurretik gorago, hainbat eta Jaungoikoagandik ondorago ikusten da.

Ilargian nengoala, gu bizi garan Lurra kanika baten antzeko txiki ikusteak, inpresino handi bat egin eustan. Gizona gorputzez oso txikia da, baina espirituz oso handia.

Ilargian nengoala, Lurrari begiraturaz, pentsatu neban: Halan ikusiko dau Jaungoikoak gu bizi garan mundua... Eta pentsamentu honek zirrarara handia egin eustan...

Irwin astronautak Biblia txiki bat eroan eban aldean, eta Ilargian egoala 120. salmoa irakurri eban: "Nire begiak mendi santuetara jasoten dodaz. Handik etorriko jat behar dodan laguntza".

Lurrera jatsi zanean, Jaungoikoari eskerrak emon ondoren, hau esan eban: "Ni Ilargian egon naz, eta kristau nazanez, sinisten dot, orain bi mila urte inguru, Jaungoikoa zerutik lurrera etorri zala.

Eta orain be guri laguntzen deuskula, badakit".

(B)

KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Korpus eguna , edo Jesusen Gorputz eta Odol Santuen jaia ospatzen dogu gaur.

Jesusek hil bezperan, ogi itxuran, bere gorputza emon euskun zeruko bidean janari , eta bere odola edari izan daitezana.

Ni naz ogi bizia zerutik jatsia, esan eban Jesusek; ogi honetatik jaten dauana betirako biziko da.

(Urtero lez, gaurko Korpus jaia, Caritas-en eguna da, maitasunaren eguna. Zabaldurik daiguzan gure bihotzetako maitasun ateak txiro eta behartsuei laguntzeko)

1. IRAKURGAIA: Ex 24, 3-8

Jaungoikoak Israel herriagaz "alkargo" bat egin eban zekorren odolaz izenpetua. Eta herriak baieztu eban: beteko dogu Jaunak agindutako guztia.

2. IRAKURGAIA: Eb 9, 11-15

Lege Zaharrean aker eta zezen odolaz garbitzen ziran israeldarrak. Lege Barrian Kristoren odolak garbitzen gaitu gure pekatuetatik.

EBANJELIOA: Mk 14, 12-16. 22-26

"JESUSEK OGIA HARTU...ETA IKASLEEI EMON EUTSEN, ESANEZ: HARTU EIZUE: HAU NIRE GORPUTZA DA... GERO KALIZA HARTU...ETA EMON EUTSEN: HAU NIRE ODOLA DA" (Mk 14, 22-23)

H O M I L I A

Ipar-Ameriketako Estatu Batuetako Filadelfia hirian, nazioarteko Eukaristi Kongresua ospatu zanean, lurralde haretako gotzainak gutun bat egin eutsen euren eliztarrei, izenburu honez:

Eukaristia eta giza-familien goseak.

Gutun horretan Ipar-Ameriketako artzainak hauek idatziak dituzte:

"Eukaristiak "eskerrak amotea" esan gura dau. Eta benetan, Jaunak guri egindako mesede guztiakaitik eskerrak emoteko biderik egokiena, Eukaristia da.

Eukaristia Maitasun sakramentua da, batasunaren lokarri. Kristok bere gorputza janari eta bere odola edari emoten dauan afari santua.

Eukaristia hartzen dogunean, gure arima Jainkozko graziaz beteten da, eta gu zeruko jabegai egiten gara.

Gorputz eta arimako gosea.

Danok sentitzen dogu era bateko edo besteko gosea.

Gorputzeko gosez gainera, gizakiok arima eta bihotzeko gose-ēgarriak sufritzen ditugu. Diruak, aginteak, gorputzeko atseginak, lehelengotan halan uste izan arren, geroago gure barruko zorion gosea ezin dabela ase, konturatzen gara. Gure arimako gose hori Jaungoikoak bakarrik ase leike, Agustin santuak dinoan lez: Jauna, Zuretzat eginak gara, eta gure bihotzak ezin-egonean dagoz, Zugan atseden hartu arte.

Jesusek Eukaristian gugaz bizitea gura izan dau.

Jesus era askotan gugaz bizi da.

Jesus gugaz lagunurkoan dago. Alkarturik otoitz egiten dogunean, Jesus gure artean dago. Sakramentuetan be Jesus gugaz dago. Baina batez be Eukaristiako Sakramentuan egiaz eta benetan Jesus gugaz dago, bere gorputza janari, eta bere odola edari guri eskeintzen.

Honan asetzen ditu Jaungoikoak gure bihotz barruko goseak.

Era askotako goseak.

Jaungoikoaren gose. Beste gose guztien gaineratik gose hau ez badogu asetzen, Jaunagandik urrun bizi gara. Eukaristia dogu Jaunagaz bat egiteko biderik onena. "Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauana, Nigan dago, eta Ni harengan" (Jn 6, 56)

Ogiaren gose. Bai, gorputzeko ogiarena. Milaka asko dira munduan, umeak batez be, gosez hiltzen diranak. Mundu honetako ondasunak Jaungoikoak danontzat emon arren, guztiz txarto banaturik dagozalako.

Eukaristiak behar gorrian aurkitzen diranei laguntzera bultzatu egin behar gaitu.

Askatasun eta justiziaren gose. Munduan okerkeria gehiegi, eta era askotako zapalketak dagoz. Eukaristiak senide guztiei, baina batez be pobre eta zapaldui laguntzera eroan behar gaitu.

Maitasunaren gose. Badira mundu zabalean gerrak eta gorrotoak, handikeri eta egoismoak ugari. Eukaristiak alkar maitatzera eta alkarri laguntzera bultzatu behar gaitu, hau dalako Jesusen agindu nagusia: alkar maitatzea.

Jesusen gose. Gu animan oso makalak gara, eta gure barruko grina okerrak lotzeko Jesus eukaristikoaren beharizana dogu: Nire haragia jaten eta nire odola edaten dauanak, badauka betiko bizia.

Eukaristiako ogiak lagundu daigula gure arima eta gorputzeko gosea asetzen".

(Filadelfiako Eukaristi Kongresua, 1974. urtean)

(B)

2. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan ikusiko dogun legez, Andres eta Joan izan ziran Jesusen lehenengo ikasleak...

Maisu, itandu eutsoen Jesusi, non bizi zara?

Eta Jesusek: zatoze eta ikusiko dozue...

Eta egun haretan ikasle bi hareek Jesusegaz gelditu ziran.

Jesusen ikasle izateko hau da beharrekoena: Jesusen ondoan bizi, bere antzeko izateko...

1. IRAKURGAIA: 1 Sm 3, 3b-10. 19

Jaunak Samuel mutikoari, gaueko isiltasunean, dei egiten deutso. Baita Samuelek Jaunaren deiari zintzo eta leial erantzun be...

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 6, 13c-15a. 17-20

Kristaua Kristoren gorputz-zati, eta Espiritu Santuaren eliza da. Ez daigula eliza hori haragikeriaz zikindu. Kristoren antzera bizi bagara, Berak biztuko gaitu...

EBANJELIOA: Jn 1, 35-42

"JOANEK, JESUS HANDIK EBILELA IKUSIRIK, ESAN EUTSEN: HORRA HOR JAUNAREN BILDOTSA... ETA IKASLE BIAK, HORI ENTZUNIK, JESUSI JARRAITU EUTSOEN" (Jn 1, 35-37)

H O M I L I A

Zer da zuretzat gaur Jesusen jarraitzaile izatea?

Honango itauna egin jaken euskal eliz-barruti bateko (Bilboko) kristau gazteei. Rta hona hemen eurak emondako erantzunak:

1. Gazte batek (mutilak) erantzuten dau:

"Zuk itanduten deustazu nor dan Jesusen benetako jarraitzailea?

Nik itaun hori beste era honetara egingo neuke.

Jesus gaur gure artera bizitera baletor, nortzuk izango lirateke Kristoren benetako jarraitzaileak? Eta erantzuna erreza dala, uste dot: egizaleak, azpikeria bakoak, gogo oneko gizon eta emakumeak, euren bihotz eta itxaropena zidar eta urrean ipinten ez dabenak. Gaixo, zahar eta estualdietan aurkitzen diranai laguntza emoten dakienak.

Honangoak izan ziran Jesus lurrean bizi zanean haren ikasle eta lagun izan ziranak; eta honangoak izan behar leukiela, uste dot, gaur be Jesusen benetako jarraitzaileak.

2. Beste batek (neskak) honan erantzuten dau:

"Gaurko egiazko kristaua da: Jesusen esana entzuteko bere bihotza zabalik daukana. Kristok esandakoa entzun, eta gero egiteko prest dagoena. Benetako kristaua da: Jaungoikoa gure Aita dala sinisten dauana. Kristo gure anaia zaharrena dala ezagutzen dauana... Jesusek eskatu eban lez, lagunurkoa bere burua lez maite dauana. Eta maitasun horrek eraginik, munduko atsekabeak, goseak eta beste txarkeria guztiak kentzen ahalegintzen dana!"

3. Hirugarren honek (30 urtekoak) honan erantzuten dau:

"Egiazko kristaua ez da, nik ez dot inor hil, nik ez dot ezer lapurtu esan, eta honegaz nasaitzen dana. Kristoren egiazko jarraitzailea ez da, bere burua santutzat hartu, eta besteak kondenatzen dituana.

Benetako kristaua bere pekatuak ezagutu eta autortu behar ditu; eta apaltasunez Jesusen erruki handian bakarrik bere pekatuen parkamena itxaron behar dau...

4. Laugarren batek beste erantzun hau emoten dau:

"Nik gaurko egunean benetako kristaua izateko lau baldintza edo kondizino ipiniko neukez:

a. Jaungoikoa gure Aita dala sinistea, eta Jaungoikoaren seme-alaba zintzoak legez biziten ahaleginak egitea, Jaungoiko Aitagaz konfiantzazko hartuemonak eukiz...

b. Jesus gure anaia dala sinistea, eta zerutik lurrera pekatariak salbatzera, eta ez kondenatzera etorri zala benetan sinistea...

d. Gizaki guztiok pekatua makurturik bizi garala ikustea. Guk uste dogun baino makalagoak garala sinistea; baina halan be gure indar eta itxaropen guztia Jaunagan jartzea...

e. Jesusen antzeko izaten lan egitea. Kristok gaixoak, pekatariak, txiroak maite zituan. Geuk be, Jesusen benetako jarraitzaile izan gura badogu, gure senidea, batez be neke-minetan dagoena, maitatu behar dogu, eta berari ahalegin guztiaz lagundu...

Hau da, nire ustez, gaurko egunean Jesusen benetako jarraitzailea izatea".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek, Simon eta Andres anaiak, ikusi zituen itsasoan sareak botaten. Eta esan eutsen: Zatoze Nigaz, eta nik giza-arrantzale egingo zaituet.

Eta hareek, berehala sareak itxi, eta Jesusegaz joan ziran...

Bokazinoa, Jesusek gizon-emakume bakotxari egiten deusan "DEIA" da. Mundu honetan bizi garean bitartean, danai on eginez, Jesusen antzera bizi gaitezaz.

1. IRAKURGAIA: Jn 3, 1-5. 10

Jaunak ninibetarrai, euren pekatuaz damaturik, penitentzia egin ebelako, parkatu egin eutsen.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 7, 29-31

Mundu honetako gure bizitza laburra da, eta ez dogu lurreko ondasunetan loturik, bizi behar.

EBANJELIOA: Mk 1, 14-20

"JESUSEK, SIMON ETA ANDRES, SIMONEN ANAIA, IKUSI ZITUEN ITSASORA SAREAK BOTATEN, ETA ESAN EITSEN: ZATOZE NIGAZ, ETA GIZA-ARRANTZALE EGINGO ZAITUET" (Mk 1, 16-17)

H O M I L I A

Jaunaren "deia" edo "Bokazinoa" zer dan, teoria askogaz baino adibide batzuen bitartez hobeto ulertuko dogula uste dot...

Horregaitik gizon-emakume batzuk euren bihotzetan Jaunaren "dei" hori zelan sumatu daben agertu gura neuke.

1. Ana Mari Azedo Gorostidi, emakume nafarra.

-Zelan izan zan, Ana Mari, zure bokazinoa?

-Nik aspalditik neure barruan sentitzen neban, ni bizi nazan bitartean, Jesusen eta senideen alde gauza handiren bat egin behar neba-lala. Nik ezin dot ulertu, besteei lagundu barik, bakotxak bere buruan bakarrik pentsatuz, egoista lez, inor bizi daitekenik.

Mundu honetan bizi garan urte apurrak besteei on egiteko aprobetxatzen ez baditugu, bizitzeak merezi ete dau?

-Zergaitik joan zinan misiolari Afrikako Zaire-ra?.

-Ez nintzan ni abentura bila joan, Jesusen antzera danai on eginez bizitza emotera baino. Batez be txiro, gaixo eta ezjakinen alde lan egin gura neban.

-Eta Zairen zein lurraldetan lan egin dozu?

-Pigmeoen artean. Pigmeoak gorputzez oso txikiak dira, baina arima handikoak, bake-zaleak, buruz argiak eta bihotz zabalak.

-Gatxa izan ete zan zuretzat, Ana Mari, pigmeoen bizi modura egitea?

-Euen hizkuntza ikastea, bai, asko kostatu jatan, baina euren bizi modura egitea ez hainbeste. Jaungoikoak lagundu deust pigmeoak maitatzen, eta maitasunak dana konpontzen dau.

2. Parik Peyton (Errosario Gurutzadaren sortzailea)

-Zergaitik egin nintzan abade? Neuk be ez dakit.

Irlandan jaioa naz. Nire gurasoak baserritar kristau zintzoak ziran; baina gure lurrak seme-alaba guztiei jaten emoteko beste ez eban emoten, eta horregaitik Ameriketara joan beharrean aurkitu nintzan.

19 urte nituan. Ordurako abade izateko gogoia be banukan. Baina Ipar Ameriketako aberastasunak eta hango bizitza gozoa ezagutu nituanean, abade izateko gogo guztia joan jatan. Hango munduaz zoraturik geratu nintzan: dirua, jolasak, osasuna, gaztetasuna... Niretzat zerua ziran. Abade izateko zelan gauza pozgarri hareek itxiko nituan, bada?

Tuberculosis gatxak jota gaixotu egin nintzan. Behin abade lagun batek ni ikustera etorri jatanean, esan eustan: osasuna emoteko Andra Mariari eskatu eiozu. Zure onerako bada, Jesusen Amak bere Semeagandik mesede hori lortuko deustu...

Osatu nintzan... Eta orain, abade eginik, hemen nabil alde guztietan Andra Mariaren debozinoa zabaltzen.

3. Julia Alonso (Logroñokoa)

Nire gurasoei Afrikara misiolari joan gura nebala esan neutsenean, nik etxetik alde egitea, asko sentitu eben: baina, negarrez bazan be, baietza emon eustien. Baina nire lagunak esaten eusten: zoratu egin zara ala?. Hemen European bizitza atsegina dozu, lana be badozu... Eta Afrikara joan gura dozula hango miserian bizitera?... Afrikan 18 urte egin dodaz, eta egia esan, ez da de-

retxorik, gu hemen hain gozo biziteko, han gosez hiltzen diran bitartean. Europako lagunak eta bizitza erreza ixtea asko kostatzen da, baina han zure bizitzak zentzun bat dauka: pobreei on egitea. Hemen bizitza osoa dibertsioetan alperrik galtzea, benetan tamalgarri da.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eukaristia santua ospatzeko alkartu gara eliza honetan...

Jesusek, hitzez irakasten ebana, gero bere bizitzan egiztatzen eban: gaixoak osatuz, pekatuak parkatuz, danei on eginez, bere bizitza gure alde emoteraino.

Jesusen ikasle garanok, ez daigula gauza bat sinistu, eta gero beste gauza bat egin. Sinisten doguna, gure eguneroko bizitzan, danei on eginez, agertu behar dogu.

1. IRAKURGAIA: Dt 18, 15-20

Jaungoikoak Lege Zaharrean gizonei profeten bidez berba egiten eutsen: Moises, Isaias, Jeremias, Joan Bateatzailea eta abar, profeta handiak izan ziran.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 7, 32-35

Bai ezkonduak, baita ezkonbakoak, danok, geure bizitza santuaren bidez, Jauna goratu behar dogu.

EBANJELIOA: Mk 1, 21-28

"JESUSEK HARRITURIK EUKAZAN DANAK BERE IRAKATSIEKAZ; ITZAL HANDIZ IRAKASTEN EBAN ETA" (Mk 1, 22)

H O M I L I A

Zergaitik irakasten eban Jesusek "itzal handiz"?

Berbaz irakasten ebana, gero bere bizitza zintzoaz eta egiteekaz baieztatzen ebalako: Gaixoak osatuz, itsuak argituz, gosetuei jaten emonez... Edo, gaurko ebanjelioan ikusi dogunez, deabru zikinak uxatuz... Beti on eginez bizitza emon ebalako.

Berbak haizeak eroaten ditu, baina egiteak bihotzean josita geratzen dira.

Geuk be, Jesusen ikasle garanok, geure maisu eta gidariaren antzera jokatu behar dogu, geure bizitza zintzoaren bidez, sinisten ez dabenen aurrean, fedearen bizkorgarri izan gaitezcan; Vatikanoko Kontzilioak eskatzen deuskun legez: "Kristau guztiak, euren fedea eskatzen dauan legez bizi badira, fedearen zabaltsaile dira". Eta beste leku batean dino: "Fededun guztiak barri onaren zabaltsaile baliotsuak dira, fedea eskatzen dauan bidetik badabiltza" (L. G. 35 eta G. S. 17)

Hau hobeto ulertzeko bi eredu, biak euskaldunak, ekarriko dodaz:

1. Xabierko Frantzisko santuak bere gutun batean kontatzen dau, behin bera Malakan egoala (gaurko Wietnam ondoan), Japoniako gizon merkatari bat etorri jakola kristau izan gura ebala, eskatuz. Frantziskok itandu eutsan, ea bera Japoniara joango balitz, hango jendeak Jesusen dotrina onartuko eban.

Eta Angerok (halan eban izena) erantzun eutsan: japoniarrak ez zirala berehala kristau egingo, aurretik Jesusen dotrina barriari buruz itaun asko egin arte. Baina batez be, begira-begira egongo zirala, ea nire bizitza nik irakatsitakoaz bat etorren ala ez, ikusteko.

Eta baietz ikusten baeben, urte t'erdi baino lehenago japoniar asko kristau egingo zirala... Eta Halan jazo zan.

2. Bigarren eredua Igokundeko Martin gipuzkoar martiri santuarena da. Hau be Japonian jazo zan.

Xabierko Frantzisko hil ondoren, frantziskotarrak joan ziran Japoniara Jesusen Lagundikoei laguntzera, eta haren artean baita gure Martin martiri santu gaztea be.

Japonian frantziskotarren lehenengo lana gaixoetxe bat egitea izan zan. Eta han egoan lan eta lan Martin beste misiolarietaz batera, gaixoak zaintzen...

Japoniako gizon handiki bat fraileen gaixoetxe ondotik igaro zan, eta Europatik etorritako gizon hareek zelan bizi ziran, eta zer egiten eben jakin minez, fraileen gaixoetxera sartu zan.

Eta frai Martin gaztea lepraz jositako gaixo bati zornez betetako zauriak garbitzen ziharduen. Japoniar handikia frai Martini begira begira jarri jakon, eta ikusten ebanaz harriturik, eskuaz hiru aldiz burua jo, eta hasi zan esaten: "sate, sate, sate", japoniako hizkuntzan esan gura dauana: "zer da hau, zer da hau, zer da hau?"

Eta frai Martini ea hori egunero egiten eban, itandu eutsan; eta baietza entzun ebanean, pentsatzen jarri zan: fraile gazte honek beste mundu bat badala sinistuko ez baleu, ez leuke holangorik egingo. Eta Tono (holan eban izena) bere etxeko guztiekaz kristau egin zan.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus gaurko ebanjelioan herrian gaixoak osatzen, eta barri ona zabaltzen, eta gero bakartadean otoitz egiten ikusiko dogu.

Geuk be, gure maisuaren antzera, otoitza eta lana alkartzen ikasi behar dogu. Otoitz egin eta lan egin, hona hemen kristauen egin-behar bi gorengoena...

1. IRAKURGAIA: Job 9. Job 7, 1-4. 6-7

Job santuak, pazientzia handiko gizonak, bere neke eta lanen artean, Jaungoikoari bere zoritxarra agertzen deutso.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 9, 16-19. 22-23

San Paulo apostoluak Jesusen barri ona zabaltzearren, nekerik handienak be eroan gura ditu.

EBANJELIOA: Mk 1, 29-39

"JESUSEK ERA GUZTIETAKO GATXETATIK OSATU ZITUAN... ETA GOIZEAN GOIZ LEKU BAZTER BATERA JOAN ZAN, ETA HAN OTOITZEAN HASI ZAN" (Mk 1,29)

H O M I L I A

"Lana eta otoitza" hau da San Benito abatak bere lekaideei emondu eutsen zeregina: "Ora et labora". "Otoitz eta lan egizu"

Joan Paulo bigarren Aita Santuak be, bere hitzaldieta n sarri esaten deusku: kristauok gauza bi buztartzen ikasi behar dogula: zerua eta lurra, Jaungoikoa eta gizona, lana eta otoitza...

Kristauen ezaugarria gurutzea da, baina gurutzeak egur bi ditu: bata zutunik zeru gora begira, eta bestea etzunda, lur zabalera begira. Jesusek alde bi honeek, berdinean-orekan, eusten irakatsi euskun.

Ezin da zerura begira egon, lurrera begiratu barik; ezta alderantziz be, ezin da lurrera begira egon, zerura begiak jaso barik.

Kristau bizitza ezin da lurreko eta zeruko bizitzan erdibitu. Gure lurreko bizitzak, otoitzaren bidez, zerukoagaz loturik egon behar dau. Eta itxaroten dogun zeruko bizitzak, lanaren bidez, mundu honetako eginbeharrak hobeto egiten irakatsi behar deusku.

Luther King, Ipar Ameriketako gizon beltzen eskubideen zaintzaile gartsuak, gero bere odolaz bere jokabide zuzena sinatuko ebanak, bere lankideei esaten eutsen:

"Guk baltzok gure eskubideak zurien artean onartuak izan daitezala gura dogu. Horretarako gauza bi egin behar ditugu: Lehenengo eta danen aurretik, Jaungoikoari otoitz egin behar deusagu gure erabagi eta lanak aurrera erodateko indarra eskuratzeko.

Eta gero ahalegin guztiak egin, bihotz eta gogo guztiaz, gure eskubideak defenditzeko.

Zuek uste dozue Jaungoikoari otoitz egin, eta beste barik, gure arazoak konponduko dirala? Ez, horixe!

Bai, otoitz egin behar dogu Jaunaren laguntza eskuratzeko, baina Jaungoikoak burua emon deusku pentsatzeko, eta eskuak lan egiteko.

Eta Jaunak, guk otoitzean eskatzen doguna, gero lanaren bidez lortzea gura dau.

Eta eritzi bi honeek, biak okerrak dira:

Lehenengoa: Gizonak, Jaungoikoaren laguntza barik, dana lortu daikela pentsatzea.

Eta bestea: Guk ezer egin barik, Jaungoikoak dana egingo dauala pentsatzea.

Alferkerian egon, eta guk ezer egin barik, Jaungoikoak dana emongo deuskula uste izatea. Hau ez da sinismena, siniskeria baino"

Loiolako Inazio santuak be, guretzat idatzita itxi eban:

"Arazoren bat sortzen danean, lehenengo otoitzaren bidez, Jaungoikoarengana jo behar dogu, dana Jaungoikoaren eskuetan balego lez...

Baina gero, gizonengana jo behar dogu, dana gizonen eskuetan balego lez"

Lehenengo otoitz egin Jaunari laguntza eskatzeko, eta gero lan egin ahalegin guztiaz, gura doguna eskuratzeko.

(B)

6. DOMEKEA URTEAN ZEHAR (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Jesusen garaian legenardunen (lepradunen) bizitza bai zala tristea. Ezelango eta inoren laguntza barik, herritik kanpora, bakartadean, bizi behar.

Honango legenardun batek Jesusi, belaunikaturik, osasuna eskatu eutsan. Baia Jesusek, errukiturik, eskaria entzunik osatu be...

Jaunak gure Eukaristia honetako eskariak entzun, eta eskatutakoa emon deiskula.

1. IRAKURGAIA: Leb 13, 1-2, 44-46

Moisesen legeak lapradunak herritik kanpora bizi zeitezala agintzen eban

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 10, 31-11,1

Kristauak Kristoren antzeko izan behar dau. Nonahi eta beti bere egite onakaz Jaungoikoa goratua izan daiten.

EBANJELIOA: Mk 1, 40-45

"LEGENARDUN BAT ETORRI JAKON JESUSI, ETA, BELAUNIKATURIK, ESAN EUTSAN: GURA BADOZU, GARBITU NAIKEZU...ETA JESUSEK, ERRUKITURIK: GURA DOT; GARBI GELDITU ZAITEZ"(Mk 1, 40-41)

H O M I L I A

Ebanjelioa entzun dogu:

Legenardun, lepradun bat, badator Jesusengana, eta, belaunikaturik, eskatzen deutso: Jauna, gura badozu garbitu naikezu...

Jesusen garaian lepraz kutsatutakoa, hilda egoan bizia zan. Lepradunak herritik kanpora bizi behar eban, eta norbait urreratzen bajakon, "zikina naz, zikina naz" deadar egin behar eban, jendea bere ondotik aldentzeko...

Israeldarrak lepra edo legenarra Jaungoikoak pekatuakaitik emondako kastigutzat hartzen eban. Baina Jesusek ez eban holan pentsatzen.

Gaurko legenardunak Jesusi, arrenka eta belaunikaturik, osasuna eskatu eutsanean, Jesusek errukiturik, eskua ipini, eta esan eutsan: Gura dot. Garbitu zaitez. Eta berehala garbi gelditu zan.

Gaurko egunean, zorionez, zientziaren aurrerapenari eskerrak, lepra gatxa menperatua izan da. Lepradunak osatzen dira.

Baina bada beste gatx bat, legenarra baino ez hobea, gure gizartean bazterketa eta zapuzketa negargarriak sortzen dituana: S.I.D.A. esaten jakon gatxa.

Entzun daigun Sidaz kutsatukoakaz lan egiten dauan Katalunyako lekaime batek esaten deuskuna:

"Sidaz kutsatutakoak, euren gatxaren barri jakiten dabenean, "shock" psikologiko gogorra hartzen dabe, eta bizitza guztirako lur jota gelditzen dira. Euren izakera gutia aldatzen da. Euren buruai emoten deutse gatxaren errua, eta ez dabe inoren pozbiderik hartu gura izaten...

Beste aldetik sidadun gaixoa bere etxeko, lagun eta ingurukoak be, gehienetan baztertu egiten dabe. Eta pertsonaz inguraturik bizi dan arren, sidaz kutsatutakoa bakartade baltzean bizi da.

Ez daki zer egin, ez daki nora jo. Inongo argi bako ilunpeak ditu inguruan...

Egoera triste honetan, etxeko eta lagunien maitasun beroa behar-beharrezkoa dau. Eta askotan sidadunari lagunik handienak be iges egiten dautsoe...

Gitxi batzuk, halan be, euren gatxa onartzeraino etorten dira, eta guri, eurekaz lan egiten dogunei, euren pazientzia eta eroapen onagaz, harrigarritzko ejenplo onak emoten deuskuez...

Guk hemen -dino lekaime honek- Bartzelona inguruko herri txiki batean, sidaz kutsatutakoak zaintzeko etxetxo bat konpondu gura izan genduan, baina herri guztia gure aurka jarri zan, eta proiektu hori bertan itxi behar izan genduan.

Kristau fededun batek zelan egin lei holangorik?...

S.I.D.A. ez da Jaungoikoaren kastigua.

Sidadunak maitasun eta errukiaz hartu eta zaindu behar dira, Jesusek bere garaiko legenardunak hartzen zituan legez".

(B)

7. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesus gaixo elbarria osatzen, eta pekatuak parkatzen agertuko jaku..

Nork parkatu leiz pekatuak, Jaungoikoak izan ezik?

Nasaitu daiguzan bihotzak eta Jaunari eskerrak emon, pekatuak parkatzeko eskubiea Elizari emon deutsalako...

1. IRAKURGAIA: Is 43, 18-19. 21-22. 24-25

Israel herriak pekatu egin eban, baina damutu zanean Jaunak parkatu egin eutsan.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 1, 18-22

Jaungoikoa leiala da, eta emondako berbea beteko dau.

EBANJELIOA: Mk 2, 1-12

"SEME, PARKATUAK DITUZU ZURE PEKATUAK" (Mk 2, 5)

H O M I L I A

(B. CABALLEROEN "Homilias a-b-c" liburutik ideak hartuta)

"Kristau fedea irakatsita, pekatuen parkamenari buruz, oinarri sendo bi ipini behar ditugu.

Lehenengoa:

Pekatuena parkamena lortzeko behar-beharrezko da egindako pekatu guztien damua izatea. Egindako txarkeriak ez baditugu gorrotatzen, alfer-alferriko gauza da Jaunari parkamena eskatzea.

Bigarrena:

Gaurko ebanjelioan entzun dogun legez, Jaungoikoak bakarrik parkatu daitez pekatuak. Baina Kristok pekatuak parkatzeko eskubide hori Elizari emon deutso. Eta orain Elizak, Kristoren izenean, pekatuak parkatzeko ahalmena dauka...

Baina jakin beharra da, pekatuak parkatzeko erak edo moduak ez dirala Elizan beti bardinak izan. Gizaldietan zehar aldatu egin dirala...

Gauzak garbi ipini daiguzan.

Penitentziako sakramentua bera ezin da aldatu, Jaungoikoak halan ipinia dalako...

Baina penitentzia hori egiteko erak edo moduak, bai, aldatu daitezke, eta aldatu dira.

Aurretik esan beharra da, orain arte kristauen artean izan dan ohitura edo ekandua : bakarka abadeagaz autortzea, gauza ona dala, eta onuragarri halan gura dabenentzat. Ohitura horregaz jarraitu daike, eta on asko egingo deutso.

Baina holan banaka egiten dan penitentzia baino, taldeka, alkar harturik, prestaera egoki baten bidez Jaunari danok batera parkamena eskatzea, hobea dala esan behar.

Eta taldeka, fededunak alkaturik egiten dan penitentzi hau, era edo modu bitara egin daiteke.

Lehenengo era edo modua:

Danak batera autortzeko prestatu, danok batera Jaungoikoari parkamena eskatu, eta gero bakarka abadeari pekatuak autortu...

Bigarren era edo modua:

Danok batera autortzeko preparatu, danok batera Jaungoikoari parkamena eskatu, eta gero danak batera abadearen bidez Jaungoikoaren parkamena hartu.

(Penitentzia egiteko bigarren modu hau ezin da Elizaren baimen bariarik egin, beharraldi edo preminarik ez dan bitartean behintzat)

Dana dala, Suediako gotzainak irakasten dabena beti egia izango da: pekatu astunik bada, zelan edo halan, agertu beharra dala, Penitentzia benetako sakramentua izan daiten.

Halan be, danen gainetik jakin beharra da: Eukaristia dala sakramentu guztietan nagusiena, eta autortza edo penitentziako sakramentua beti Eukaristiara begira ipini behar dogula.

Eukaristiako sakramentua da pekatuen parkamena lortzeko biderik egokiena. Altareko mahaiian, bada, Aita Jaungoikoari bere Seme Jesusen odola eskeintzen deutzagu, mundu guztiko pekatuak parkatzeko balio dauana.

Gogoratu daigun meza-emoileak kaliza sagaratzean esaten dauana: "Hau nire odola da eta, zuentzat eta guztientzat pekatuak parkatzeko isuriko dana".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gogor egin jaken lehenengo kristauei, Moisesen Lege Zaharra itxi, eta Jesusen Lege barria onartzea. Ohitura zaharrak itxi eta barriak hartzea.

Sinai mendiko Lege Zaharra trumoi eta tximisten artean emona izan zan. Bildurgarria zan. Jesusen Lege Barria, ostera, errukiz betea agertzen jaku, eta maitagarria da.

Moisesen legea ona zan, baina Jesusena hobea, lege zaharraren gailur eta betegarria.

1. IRAKURGAIA: Os 2, 14b. 19-20

Korintoko kristauak alkarren artean zatiturik bizi ziran. San Paulok idazten deutse Espirituagan batasunean biziteko.

EBANJELIOA: Mk 2, 18-22

"EZTEGUETARA DEITUAK SENARBARRIA EUREKAZ DAGOAN BITARTEAN EZIN LEIKIE BARAURIK EGIN. ARDAU BARRIENTZAT ZARAGI BARRIAK"(Mk 2, 19)

H O M I L I A

(J. A. Pagolak "Diario Vascon" agertutako homilietan oinarritua)

Joan Bataiatzailea eta Jesus.

Joan Bateatzaileak eta Jesusek, biak, Jaungoiko berbera predikatzen eben. Baina Joanen hitzaldiak Jaungoiko epaile zorrotzari begira egozan. Sinai mendiko trumoi eta tximist arteko Jaungoiko ikaragarriari.

"Aizkorea zugatzaren susterrari ipinita dago. Frutu onik ez dakarren zugatza ebagia eta sutara jaurtia izango da. Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa. Garia garautegian batuko dau; lastoa, ostera, inoiz amatauko ez dan sutan erreko dau" (Mt 3, 10, 12)

Inork ez dau Jaungoikoaren eskuetatik iges egingo...

Bihotz barritu zaitze, gainean dozue Jaungoikoaren erreinua.

Prestatu bideak Jaunari, zuzendu bidezidorrak hari.

Jaungoikoaren haserreari iges egiteko penitentzia egin beharra da.

Bestela danok galduko zarie.

Jesusen mezua, ostera, beste era batekoa da.

Jesusen dotrina ez da bildurgarria, maitagarria baino.

Jesus ez dator aizkorea eskuetan, pekatariei merezi daben zigorra emotera. Jesusek parkamena dakar, pekatari damutuei bakea eta poza emotera.

Jesus ez da, Joan Bateatzailea lez gamelu narroz jantzita agertu, barau eta penitentzia predikatzen.

Jesusek, bere herri eta inguruko beste edozein pertsona lez, jantzi eta jaten eban. Jesus ez zan, Joan Bateatzailea lez, basamortuan bizi, bere herriko jende artean baino. Jesusek bere bizitza danei on egi-ten eta zeruko bidea erakusten emon eban.

Bateatzailearen Jaungoikoa epaile zorrotz eta estua da.

Jesusen Jaungoikoa, ostera, aita errukiz betea da, pekatarien laguna. Bere pozik handiena parkatzea dana.

Jesusek predikatzen dauan zeruetako erreinua, ez da urrunean dagoan zerbait, gitxi batzuk bakarrik lortu ahal dabena. Geure ondoan daukagu zeruko gure Aita, ez guri geure okerkeriak gogora ekarteko, parkatzeko baino...

Jesusek predikatu eban zeruetako erreinuan danontzat dago lekua, guk geure bihotz gogorraz galtzen ez badogu, behintzat.

Gaur be geure artean bat baino gehiago Jaungoikoagandik aldendu da, Joan Bateatzailearen hitzaldi latza bakarrik entzun daualako.

Orain arte Jaunagaz izan dituan hartu-emonak bildurrezkoak bakarrik izan diralako. Holangoentzat Jaungoikoa epaile estu, zorrotz, zuzena da; eta ez Aita maitagarria, damutzen bagara, parkatzeko beti prest dagoana.

Honangoen arriskua hau da: Joan Bateatzailearen erlijino latza baztertu, eta Jaungoiko errukiz betearen maitasuna probatu barik, dana bazterrean itxi, eta eskuak utzik ezer barik gelditzea.

Jaungoikoa zuzena dala egia da, baxotxari berea emoten deusana.

Baina egia handiagoa da (halan hitz egitea egoki balitz) Jaungoikoa gure Aita dala, Aita samur, errukitsua, gu salbatzearren gurutzean hil zana, eta danok zerura eroatea gura dauana.

(B)

9. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeketan astero fededunak Euskaristia ospatzeko batzen gara...

Egia da asteko egun guztiak Jaunarenak dirala, Jaunari eskeiniak, baina domekea da kristautentzat Jaunari emondako egun apartekoa, Eukaristia ospatu eta lanetik atsedeen hartzeko eguna...

Alkartu gaitez orain Jaunaren aurrean, irakurgai, otoitz eta kantuz Meza Santuan esku hartzeko.

1. IRAKURGAIA: Dt 5, 12-15

Zapatua zan judeguintzat Jaungoikoari eskeindutako egun berezia, otoitz egin eta lanik ez egiteko eguna.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 6-11

Gizakiak geure indarrez makalak gara. Gure indarra Jaungoikoagandik datorkigu.

EBANJELIOA: Mk 2, 23-3, 6

"ZAPATUA GIZAKIEN ONERAKO EGIN EBAN JAUNGOIKOAK...GIZONAREN SEMEA ZAPATUAREN JABEA BE BADA" (Mk 2, 27-28)

H O M I L I A

Zapatua eta Domekea.

Zapatua zan israeldarrentzat, Moisesek aginduta, jai egiteko eguna.

Biblia Santuko Deutoronomio liburuak dino: Moisesek Jaungoikoaren izenean agindu eutsala Israel Herriari: "Izan gogoan zu be esklabu zinela Egipton, eta Jaunak atera zinduzala handik esku indartsuz. Horregaitik agindu deutsu Jaunak zure Jaungoikoak zapatua atsedeen eguna gordeteko" (Dt 5, 14-15)

Kristautentzat, oster, domekea da orain aste azkeneko egun handia Jaunari eskeindua; Eukaristian esku hartu eta lanetik atsedeen hartzeko egun berezia.

Lehenengo kristauak, ia danak judeguak izanik, zapatua hartu eben jai egiteko. Jerusalengo elizan eta herrietako sinagogetan alkartzen ziran Biblia irakurri eta otoitz egiteko.

Baina apurka-apurka, jentilak be kristau egiten ziran neurrian, Kristo biztu zan eguna, hau da domekea, hasi zan indarra hartzen. Eta azkenez Konstantino Enperadoreak, kristau egin zanean, agindu eban, Kristo biztu zan eguna, domekea, jai egun lez ospatzeko.

Igande edo domekeari buruz Vatikanoko Kontzilioak zer dinoskun entzun daigun:

"Astero Elizak Jaunaren eguna, edo domekea, ospatzen dau; eta egun horretan Kristo biztu zaneko jaia gogoratzen.

Horregaitik Jaunaren eguna, edo domekea, esaten jako.

Egun horretan fededunak alkartu beitez Jaunaren hitza entzun, eta Eukaristian esku hartzeko, Jesus Jaunaren heriotzea, biztuera eta aintza gogoratu, eta Jaunari eskerrak emoteko...

Horregaitik fededun guztientzat igandea edo domekea jai egun nagusia da, alaitasun eguna; baita lanetik atsedean hartzeko egun egokia be. (S.C. 106)

Elizak gogo biziz gura dau, fededunak Eukaristiako misterio honetan ez daitezela ikusle mutuak lez egonean egon; gogoz eta zaletasun handiz parte hartzea baino; ototitz, irakurgai eta abestien bidez danak bat eginik, fedean eskolatuak eta biztuak izan daitezcan (S.C. 48)

Baina jakin beie mezan parte hartzeko erarik onena hau dala: meza-emoleak berak jaunartu ondoren, beste kristau guztiak be Jaunaren gorputza komuninoan hartzea (S.C. 55)

Eukaristiak Jaungoikoa gehiago maitatzera eroan behar gaitu, baita lagunurkoari ardura gehiagoz laguntzera be.

Eukaristiak Andra Maria eta zeruko santuekaz bat egiten gaitu, baita gure aurretik joan diran etxeko eta lagunekaz be...

Eukaristian Elizaren aberastasun guztiak bat egiten dabe, hau da: Jesukristo berbera, ogi bizia, gizon-emakume guztientzat salbamenerako bide dana.

Kristau guztiak euren buru eta lanakaz batera Eukaristian Kristogaz batera eskeindu behar dagez, Jaungoikoa goresteko, eta gizonak salbatzeko izan daitezcan"

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Beste domeketan lez, gaur be eliza honetan Jesusen inguruan alkartu gara, Eukaristiako oparia Ait̃a Jaungoikoari eskeintzeko.

Gaurko ebanjelioan San Markosek esango deusku, jende talde handia alkartzen zala Jesusen inguruan, jateko be astirik ez emoteraino.

Hemen gure alkarte honetan Jesus gure artean dago. Geu be Jesusen inguruan alkartu gaitez, mezako opari santua Jaungoiko Aitari eskeintzeko.

1. IRAKURGAIA: Gn 3, 9-15

Jaungoikoak gure lehenengo gurasoei paradisuari, pekatu egin ondoren, salbatzaile bat eskeindu eutsen.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 13- 5,1

Jesus hilen artetik biztuak gu be biztuko gaitu. Bizitza honetako nekeak ezer ez dira, itxaroten dogun betiko aintzaren ondoan.

EBANJELIOA: Mk 3, 20-35

"JENDE TALDE HANDIA BATU ZAN JESUSEN INGURUAN, ETA EZIN EBEN JANALDI BAT BE EGIN JESUSEK ETA IKASLEAK" (Mk 3, 20)

H O M I L I A

Gaurko ebanjelioari begiraturik, Jesusi buruz, bere entzuleen artean hiru jarrera ezberdinak ikusten ditugu.

1. jarrera:

Jesusen esanak oso-osorik eta bihotz garbiz onartzen ebezanak. Honelangoak ziran gehienak. San Markos ebanjelariak esaten deusku jendetza handia alkartzen zala Jesusen inguruan, eta jateko be ez eutsiela astirik emoten. Gogo oneko pertsonak ziran honeek, Jesusen dotrina eta mirariekaz pozez zoraturik egozanak.

2. jarrera:

Nazareteko Jesusen senide artekoena. Honeek ezin eben buruan sartu Jose herriko arotzaren semeak, nondik harturik eukan mirariak egiteko indarra. Eta ez-ikasia izanik, nondik eukan halango jakituria. Honeek burua galdu ebala uste eben.

3. jarrera:

Jesusen arerioena. Honangoak, Jesusek egiten zituan mirariak ezin ebezan ukatu. Jesusek bere mirariak eguzki argitan, danen aurrean, egiten zituan: itsuei begiak argitu, legenardunak garbitu, elbarriak osatu, itsasoa baretu eta abar...

Baina Jesusen arerioak, argiari begiak itxita, esaten eben: deabrua dauka horrek; eta deabruaren laguna dalako egiten ditu horrek deabrukeria horreek.

Gaur be Jesusi buruz gure artean hiru jarrera ezbardin aurkitu leiz.

1. jarrera:

Jesusen dotrina onartzen dabenak. Bihotz on eta zabalez Jesusen jarraitzaile izan gura dabenak. Jesusen agindu nagusia, alkar maitatzea, benetan bete gura dabenak, Vatikanoko kontzilioak irakasten dauan legez: "Kristauak Kristoren antzeko izan behar dau, maitasun lege barria betez" (G.S. 22)

2. jarrera:

Jesusen dotrina bihotz onez hartu eta txalotuten dabe...Baina gero Kristoren antzera biziteko gogorik ez dabenak. Kristautzat dauke euren burua, baina konpromiso barik. Honangoen fedea bide batetik doa, eta bizitza bestetik...

3. jarrera:

Jesusen dotrina baztertzen dabenak.

Honangoak Jesusek predikatu eban dotrina "alkar maitatzea" balio bakoa dala, uste dabe.

Mundu honetan onean eta maitasunez ez dala ezer konpontzen, esaten dabe. Mundu hau garbitzeko indarkeria eta borroka behar dirala, dinoe.

Honan pentsatzen dabenak, hasiera batean, arrazoia dabela, emoten dau... Baina gero, epe luze batean, gorrotoaren gainean jasotako etxea jausi egiten dala, erakusten deusku historiak...Halan dino esperientziak...

Vatikanoko kontzilioak dinosku: "Mundua salbatuko dauana ez da gorrotoa ezta gogorkeria be. Gorrotoak gerrak sortzen ditu eta dana hondatzen"

"Bakeaz dana irabazten da. Gerraz dana galtzen" (Paulo VI.ak)

(B)

11. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan Jaungoikoaren erreinua soloan ereiten dan haziaren antzekoa dala, esango deusku...

Gizonak ez daki zelan, baina lo dagoan bitartean, hazia erne eta hazten goraka doa, frutua emon arte.

Gizonak ez, Jaungoikoak baino, emoten deutso indarra haziari erne eta frutu emon daian...

1. IRAKURGAIA: Ez 17, 22-24

Ezekiel profetak, Jaungoikoaren herria zedro zugatz handi bategaz bardintzen dau. Zedro horren muskil-kimu txiki bat zugatz handi egingo da, bere adarrak lur osora zabaltzeraino.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 5, 6-10

Mundu honetan bizi garan bitartean, Jaungoikoa fedez, ilunpetan lez, ikusten dogu. Bizi gaitez an orain zintzo, gero Jauna bere edertasun guztian ikusteko.

EBANJELIOA: Mk 4, 26-34

"JAUNGOIKOAREN ERREINUA LURREAN HAZIA EREITEN DAUAN GIZONAREN ANTZEKOA DA; HAZIA ERNETEN DA ETA HAZTEN DOA, ETA GIZONAK EZ DAKI ZELAN" (Mk 4, 26-27)

H O M I L I A

Aita Pedro Arrupe bilbotarrari kazetari baten honango itauna egin eutsan:

-Aita Arrupe, zu hainbeste urtetan Japonian misiolari izan ondoren, lurralde haretan hain kristau gitxi egin dirala ikusiz, zer eretxi dozu?

Eta Aita Arrupek erantzun:

- Jaungoikoaren hazia gizon-emakume guztien bihotzetan ereinda dago, nahiz fededun izan ala ez izan; nahiz erlijino bateko ala besteko izan; baita erlijino bakoa bada be.

Jaungoikoaren hazia bide-galduen eta gaizkileen bihotzetan be, ereinda dago. Egiaren, Maitasunaren eta Zorionaren egarria danok sentitzen dogu, eta hori zelan edo halan, Jaungoikoaren hazia da. Guk gizonaren bihotzaren sakon-sakonean ereinda dagoan hazi txiki, ezkutu hori, bilatu eta aurkitu egin behar dogu.

Guk, kristauok, ideolojiak eta pertsonak ez nahasteko kontu handia euki behar geunke.

Pertsona bat bere pentsakeran bide okerretik ibili daiteke, baina gizaki hori bihozduen pertsona da, eta maitasunez eta ontasunez, bide onera etorriko dan itxaropena inoiz be ez dogu galdu behar...

Bihotzak irabazteko maitasuna da bidea, eta maitasunera heltzeko pertsona hori, bere eretxi eta guzti, onartu behar da...

Bai, Jaungoikoak gizonen bihotzetan erein dauan haziak, guk ez dakigu zelan, baina bere frutua emongo dauala, nik egiaz eta benetan sinisten dot:

Eretxi bardina edo antzekoa dauka Karl Rhaner-ek, Alemaniako teologo ospetsu honek.

"Gizakiak bere barruan sentitzen dauan beti bizitzeko egarri hori, Jaungoikoak ereina da. Eta itxuraz Jaungoikoa baztertu dauanak be, Egia, Maitasuna eta Zoriona onartzen baditu, Jaungoikoa be, bere modura, onartzen dauala, nik esango neuke.

Fedeari errespetoz begiratzen deutsanak be, bere bihotzean sinismenaren hazia ereinda daukala, pentsatu daiteke.

Kontzientziak erakusten deutsan bidetik ibiltzen ahalegintzan danak be, Jaungoikoaren graziak lagunduta, betiko salbamena lortuko dauala, nik esango neuke...

Elizaren tradizioan, Ambrosio santugandik hasi eta Vatikanoko kontziliara arte, bada dotrina bat irakasten dauana:

Pertsona bat, bere kontzientziak erakusten deutsan bidetik zuzen badabil, bateatua ez bada be, Jaungoikoaren grazian bizi da, eta holangoak betiko salbamena lortuko dau. Beste modu batera esateko: Holango pertsona Jaungoikoaren aurrean zintzoturik dago, santu egina, eta Espiritu Santuaren jauretx-eliza da

Holango pertsona zintzoari "kristau anonimoa" deitu, edo beste izen bat emon, bardin da...Nik, behintzat, holan pentsatzen dot"

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus hobeto ezagutu, eta gure fedea indartzeko, alkartzen gara domeketan Eukaristia ospatzera...

Gaurko ebanjelioan Jesus itsasoko olatuak baretzen ikusiko dogu...

Ikasleak bildurturik Jesusi dei egin eutsoen: Maisu!, galtzera goaz, eta zuri ardurarik ez?

Eta Jesusek haizeari: Ixo! Isilik hago!... Eta itsasora barealdi ederra etorri zan...

1. IRAKURGAIA: Job 38, l. 8-11

Jauna da zero-lurretako jabe. Jaungoikoak ipini deutzaz mugak itsasari.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 14-17

Jesusen jarraitzaileak Kristoren antzera bizi behar dau: pekaturako hilda, eta zerurako bizia.

EBANJELIOA: Mk 4, 35-40

"IKASLEAK, JESUS IRATZARTU, ETA ESAN EUTSOEN: MAISU! GALTZERA GOAZ... JESUSEK AGINDU EUTSAN HAIZEARI: IXO! HAGO GELDI! (Mk4, 38-40)

H O M I L I A

(Agustin Santuaren homilietatik hartuta)

Agustin Santuak irakasten deusku, gure arimako grina gaiztoak, itsasoko ekatxaren antzeko dirala. Mozkorkeria, harrokeria, haragikeria, lapurretak, haserrea, guzurak eta beste joera makurrak dirala gure ariman olatu gaiztoak harrotu, eta gure ontzia galtzeko arriskuan ipintzen dabenak.

Eta bere pentsaera argitzeko adibide bat ipinten deusku santuak: Zure aurka inor txarto berba egiten entzun dozu?

Berehala odola berotu jatsu. Ekátza hasi da. Haizeak gogor jotzen dau. Olatuak astindu dira. Zure arerioaren aurka bengantza egarria sortu jatsu...

Zure haserreari atea zabalduz, mendekua (bengantza) hartzen badozu, zureak egin dau. Zure ontzia ito da. Tentaldian jausi zara.

Zergaitik hondatu zara? Zure ontzian lo dagoan Kristo iratzartu ez dozulako. Ikasleak lez zuk be dei egiozu Jesusi: Maisu!, Ito larrian nago! Galtzera noa! Salbau naizu! Eta maisuak olatu gaiztoen artetik onik aterako zaitu.

Mendeku edo bengantzaren su hori zure bihotean irakiten hasten danean gogora eizu, Kristok, gurutzean josten eben biartean, zeruko Aitari arerioen alde parkamena eskatu eutsala: "Aita, parkatu eiezu, ez dakie zer egiten diharduen eta" (Lk 23, 34)

Eta orain parkatu gura ez badozu, zelan aurkeztuko zara Jesus epailearen aurrean? Berak, bada, esan eban: "Zuok gizonei parkatzen ez badeutsezue, zuoi be ez deutesuez parkatuko zuen Aitak zuen hutsegiteak"

Eta Jesus zure epailea zugaz haserre badago, galdua zara, zure ontzia betiko hondatu da.

Eta, haserreagaitik esan dodana, beste edozelango tentaldiakaitik be bardin esan daiteke. Gizon makala mila modutara tentatua eta zirikatua dalako.

Tentaldia sortu da?. Horra hor haizea.

Bildurtu zara?. Horra hor olatuak.

Itoteko arriskuan zagoz?. Arin, arin, iratzartu egizu Kristo! Dei egiozu: Jauna, Jauna, salbau naizu! Eta ziur egon zaitez, zure ariman bare aldi handia izango da. Dei egiten ez deutsanak, ostera, zelan baketuko dau bere arimako itsaso gaiztoa?

Eta Kristok itsasoari agindu eutsan: Ixo! Hago geldi!

Eta gelditu zan haizea, eta barealdi ederra sortu zan.

Haizeak eta itsasoak Kristoren esana egin eben, eta zuk ez?

Izan zaitez itsaso eta haizearen antzeko. Olatuak Jesusen agindura baketu ziran; eta zu Jesusen agindua entzuteko gorra zara.

Itsasoko olatu harroak baketu ziran, eta zure arimako grina gaitoak ez dira baketuten.

Zergaitik?

Kristori dei egiten ez deutsazulako... Kristori estualdian dei egiten badeutsazu, salbauko zaituala, ziur egon zaitez...

Zure ontzi gaixoa itsaso zabalean olatuak astinduta, lema galduta, belak urratuta, ito larrian dagoanean, gizonen laguntza alferrik danean, salbatzeko bide bat bakarra dozu, Jaungoikoari otoitz egitea.

Zure ariman lo dagoan Kristo iratzartu egizu, laguntza eskatu eiozu, eta itsasoa bareturik, zure ontzia, bakez eta zorionez, zeruko portu zegurura helduko da.

(B)

13. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Handia da fedearen indarra Jaunaren aurrean...

Jesusek odoljariodun emakumeari esan eutsan: Alaba, zure sinismenak osatu zaitu... Eta gero neskatile hilaren aitari: Zuk sinistu bakarrik, eta zure alabea biztuko da. Eta halan jazo zan...

Eta Jesusek, hilak bizteko indarra baebala ikusirik, guztiak harriturik gelditu ziran.

1. IRAKURGAIA: Jak 1, 13-15. 2,23

Beti biziteko egin eban Jaungoikoak gizona. Heriotzea pekatuak ekarri eban.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 8, 7-9. 13-15

Paulok Korintoko kristauei Jerusalemgo txiroen alde limosna eskatzen deutse. Kristo zeruetan aberats izanik, lurtean gugaitik txiro egin zan.

EBANJELIOA: Mk 5, 21-43

"JESUSEK ESAN EUTSAN: ALABEA, ZURE SINISMENAK OSATU ZAITU...ETA JAIORI: EZ IZAN BILDURRIK; ZUK SINISTU BAKARRIK" (Mk 5, 34-36)

H O M I L I A

(Sinismenari buruz Karl Rhaner-en ideak, "Creese en Dios" liburutik hartuta)

Jesusek, mirariak egin aurretik sinismena edo fedea eskatzen deutse bere ikasleei: "Alabea", esan eutsan odoljariodun emakumeari: "Zure sinismenak osatu zaitu". Eta sinagogako buru Jairori: "Ez izan bildurrik, zuk sinistu bakarrik".

Geuk be Jesusen salbamen indarra gureganatzeko, sinistu egin behar dogu. Gure fedea indartu.

Baina, zer da fedea?

Fedea edo sinismena, maitasunaren antzera, sentidu egiten da, baina zer dan argitzea ez da gauza erreza.

Nik ama bati itanduko baneuskio: Zuk, andrea, zure seme-alabak maite dituzu? Zelan ez ba. Bai, horixe, erantzungo leuke. Baina oster a be itanduko baneutso: Baina, maitasun hori zer da? Ezin erantzunez, isildu egingo litzateke.

Fedea edo sinismena aske-libre da.

Ezin da inor nahi eta nahiez sinistera derrigortu.

Baina fedea aske-libre dala adierazteak, ez dau esan gura, sinistu ala ez sinistu bardin danik.

Sinismenak aztertzen dituan gauzak hain dira astunak, eta gizakia-
rentzat hain larriak: "Jaungoikoa bada? Bizitza honen ostean bada
beste bizitzarik?...

Honango arazoen aurrean, begiak itxita, arduragabez jokatzeko dau-
nak, ezin da errurik ez daukanik esan.

Fedea Jaungoikoak guri doan-gratis emondako oparia da.

Sinismena ez da guk, teologia asko ikasiz, eta gure ahalegin eta in-
darrez lortu daikegun zerbait. Fedea, Jaungoikoak guri, guk ezer me-
rezi barik, egindako oparia da.

Baina gizonak, Jaungoikoak eskeindutako opari hori, bihotz zabalez
onartu lei, edo bihotza itxiz, zapuztu. Onartzen badogu Jaungoiko-
aren adiskide egiten gara, eta Jaunaren ederra irabazi dogu.

Fedeari zelan gure bihotza zabaldu?

Gure fedearen oinarri bakarra Jesus da. Jesus Belenen jaioa, guru-
tzean hila eta hirugarren egunean biztua.

Jesusengan sinistek maila bi ditu:

Lehenengo maila: Jesus ezagutu.

Biblia Santuko lau ebanjelioak irakurriz, Jesus zein gizon on, leilal,
zintzo eta samurra izan zan, ezagutuko dozu.

Geixoak osatu, pekatarietara parkatu, danei on eginez bere bizitza emon
ebala, jakingo dozu. Ez da munduan Jesus baino gizon maitagarriago-
rik sortu, ezta sortuko be....

Bigarren maila: Jesus maitatu.

Jesus hotz-hotzean ezagutzea ez da nahiko. Jesus maitatu egin behar
dogu, Jesusen dotrina guretzat hartu; Jesus bizi izan antzera geu be
bizi; Jesusengan gure konfiantza osoa ipini.

Orduan, bai, sinismena guretzat poz eta bake iturri izango dala.
Zidarra eta urrea baino estimagarriagoa.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus Nazaret bere herrian ez zan onartua izan, eta ez eutsoen sinistu. Jose arotzaren semeak zer jakin lei?, esaten eben.

Eta Jesus bere herritarren sinisgogorkeriagaitik, harriturik eta mindurik geratu zan...

Geuk be, Jaunaren hitza entzutean, ez daigula gorrarena egin...

1. IRAKURGAIA: Ez 2, 2-4

Ezekiel profeta ez zan bere herritarren artean onartua izan, bihotz gogorrekoak ziralako.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 12, 7-10

Paulo apostoluak bere buruagaitik dino: Nire argaltasunean indartu naz, Kristok indartzen naualako.

EBANJELIOA: Mk 6, 1-6

NAZARRETARRAK EZIN SINISTU EBEN JESUSENGAN... ETA JESUS HARRITURIK EGOAN HAREEN SINISGOGORKERIAGAITIK" (Mk 6, 1-6)

H O M I L I A

Fedean krisialdiak.

Ume izatetik gizon-emakume heldura izatera heldu bitartean, gazte askok euren fedean krisialdi gogorak izaten dabez...

Umeak txikitan bere guraso eta abadeak esandakoa, beste barik, sinistu eta onartu egiten dau... Baina ume hori hazi eta gizon-emakume heldua egiten danean, bere buruari honango itaunak egiten hasten da: Nik, gure amak edo abadeak eta katekistak esandakoa, zergaitik sinistu behar dot?

Eta itaun honi erantzun egoki bat aurkitu arte, gazte honen fedea krisialdi gogorrean aurkituko da.

Adibide batzuk.

Joan Angel Belda, gotzain bilbotarrak, berak gaztetan igarotako krisialdia honan kontatzen dau:

"Unibertsitatean, ikasle nintzala, fede-krisialdi gogorra izan neban. Ordurarte fedea dotrina bat sinistea, eta lege batzuk betetea zala, uste neban. Halan irakatsi eusten. Baina gero, Jesus Nazaretarra nire adiskide lez onartzea eta maitatzea zala, ikasi neban.

Honek, Jesusengan sinistu. eta Beragaz bat eginik bizitera eroan ninduan"

Euskal politikari ezagun batek (Jose Antonio Ardantzak), bere gaztako fede krisialdi buruz, hau dino:

"Seminarioan abade izateko asmoz estudiatzen nengoala, fedeari buruz itaun sakonak egiten hasi nintzen. Nire buruari esaten neutsan: Zer egiten dok hik hemen seminarioan fede barik?...

Baina gero, gizon betera heldu nintzanean, duda eta zalantzak apur-apurka gaingitu nituan, eta ostera be nire lehenengo fedean sendotu nintzan" (Diario Vasco 1983-VI-3)

Joxe Migel Barandiaran abade jakintsuak be, gaztetan fedeko krisialdi latzak jasan zituala, behin baino gehiagotan, autortu izan dau...

Sinismenerako bideak

Lehenengo pausoa. Sinistu nahi izatea.

Gizaki guztiok geure bihotzetan zorion egarria sentitzen dogu...

Danok zorionaren atzetik gabiltza. Baina mundu honetako izakiak, mugatuak izanik, ezin dabe zorion egarri ase. Danok zorion betea emongo deuskun zerbaiten edo norbaiten bila gabiltza. Bilaketa horren babespean Jaungoikoak geure bihotzean lanean dihardu.

Jaunaren bila dabiltzanen lehenengo pausok askotan garratzak eta latzak izaten dira. Bide horretatik ibilitako batek (Paul Claudel frantziar idazle ospetsuak) esaten deusku:"Arimako borrokak, gizonen arteko gerrak baino askoz be gogorragoak izaten dira.

Bigarren pausoa. Zintzo izatea.

Kontzientziak bakotxari eskatzen deutsan bidetik zuzen ibili. Egoismoak baztertu eta lagunurkoari lagundu. Lanean bakotxak nor bere egin beharrak ondo bete. Etxean eta kanpoan maitagarria izan. Maitasuna non, han da Jaungoikoa.

Hirugarren pausoa. Sinismena Jaunari eskatu.

Harrokeriak baztertu, eta apal-apalik otoitz egin, berba honeekaz edo antzekoakaz: Jauna, Zu bazarala egia bada, lagundu eidazu, edo : Jauna, argitu nire burua Zu ezagutzeko; berotu bihotza maitatzeko.

Sinismena Jaungoikoaren oparia, guk merezi ez duguna, dala ez da inoiz ahaztu behar. Opariak ez dira irabazten, eskerrik asko esanda humiltasunea onartu baino.

(B)

15. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek emon eutsan hasiera Barri Onaren zabaltze lanari.

Eta gero, Jesus zerura igon zanean, Honen ikasleak jarraitu eben maisuaren lana.. Orain Elizan Kristoren ikasle guztiok Barri Onaren zabaltzaile izan behar dogu; eliz-gizonak lehenengo, eta kristau sekular guztiak gero...

Eginbehar hau zelan bete behar dogun Vatikanoko bigarren kontzilioak irakatsiko deusku.

1. IRAKURGAIA: Am 7, 12-15

Amos profeta bialtzen dau Jaunak Israel Herrira profeta hitza zabaltzera.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-14

Jaungoiko Aitak gu bere seme-alaba ordeko egin gaitu, Jesukristo bere Semearen bitartez.

EBANJELIOA: Mk 6, 7-13

"JESUS HAMABIAK BINAKA BIALTZEN HASI ZAN... ETA HAREEK JOAN ETA BIHOTZ BARRITU ZAITEZELA HOTSEGIN EBEN" (Mk 6, 1-12)

H O M I L I A

(Vatikanoko Kontzilioko "Apostolicam Actuositatem" dekretotik ideak hartuta)

Sekularrak, Jaungoikoaren eta Elizaren alde lan egitea, kristau izate beretik sortzen dan eginbeharra da, eta honango lanik ez da Elizan falta behar.

Liburu Santuak erakusten deuskue, zelan antxinako lehenengo kristauasekularrak, Asia aldean eta European Kristoren barri ona zabaldu eben: "Jerusalengo kristau sekular batzuk, Fenizia, Txipre eta Antiokiarraino heldu ziran, jentilei be Jesus Jaunaren barri emonez, eta asko bihotz barritu ziran eta fededun egin" (Ap Eg 11, 19-21)

Gaurko egunotan sekularren lan hau, lehenagoko garaietan baino beharrezkoagoa dala esan daiteke, eliz-gizonak gitxitu egin diralako, eta honeek ugari izanda be, sekularrak heldu daitekezan leku askotara, abadeak ezin heldu diralako.

Jesusen barri ona danon artean zabaldu behar dogu.

Hau da Elizaren eginbeharra: Kristoren barri ona mundu guztira zabaltzea, gizaki guztiak salbau daitezcan.

Sekularrak munduko zereginen artean bizi behar dabe; eta honeen eginbehar berezia hau da: lur honetako arazoak ebanjelioaren espirituan girotzea, munduaren aurrean euren bizitza zuzenaz, Kristoren testigu izan daitezcan. Sekularrak munduaren gatz eta orantza (lebadura) izan behar dabe, mundua salbatzeko.

Sekularrak Elizaren alde lan egiteko eginbeharra bateotik dator. Bateoaren bidez guztiok Kristogaz bat egiten dogu; eta sakramentuen bitartez, eta Eukaristiaren bidez batez be, fededunak Jainko-maitasunez beteten dira, eta gero maitasunez beterik, danei on egiten bizi behar dabe...

Eta hau da izan be, Jaunak emon euskun agindurik nagusiena; eta Kristoren erreinua zabaltzeko biderik egokiena: alkar maitatzea.

Agindu hau beteten dogun neurrian, egiaz Jaungoikoaren testigu gara munduaren aurrean, eta Jesukristoren benetako autorle.

Sekularren santutasuna zelangoa.

Sekularrak, ezkonduak batzuk, besteak ezkongak eta alargunak, euren eguneroko zereginetan Jesusen antzera bizi behar dabe: gizon-emakume guztietan Kristo ikusiz, munduko arazoetan zuzen jokatzuz, eta lur honetako aberastasunen esklabo bizi barik, zeruko ondasunen itxaropenean pozik biziz...

Sekularrak, Jungoiko maitasunez beterik, danei on egiten ahalegindu beitez. Bihotz oneko izan, norbere eginbeharra ondo bete, zintzotasuna eta egia maitatu... Onbide honeek dira sekularrentzat santutasunerako bideak.

Andra Maria sekularren eredu.

Sekularren eredu Andra Maria apostoluen erregina da. Andra Maria sekularra izan zan, ezkondua eta alarguna; eta mundutarren artean beste edozein emakume legez bizi izan zan. Etxeko zereginetan egunero lanpetua, baina bere Seme Jesusegaz beti bat egina. Honan, beste izaki guztien gaineratik, bere Seme Jesusi mundua salbatzen lagundu eutsan.

Eta orain be, zeruetara jaso izan arren, gure ama danez, bere seme Jesusen senide garanok, maitasun samurrez zerutik zaintzen gaitu, zeruko bidean arriskuz beterik ikusten gaitu eta...

Sekularrak Jaungoikoaren ama Maria maite-maite izan beie, eta Jaungoikoaren alde egindako lanak Mariaren mantupean ipini, bera da eta bere Semearen ondoan gure zaindaririk onena...

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek askotan kristau herria arditalde bategaz bardintzen dau. Ardiak eliz sekularrak dira, eta artzainak eliz-gizonak.

(Joan dan domekan sekularrei buruz Vatikanoko Kontzilioak esanda-koak ekarri genduzan gogora). Domeka honetan artzainei buruz Kontzilioak esaten deuskuna, entzungo dogu...

Baina aurretik gure bihotzak garbitu daiguzan, Eukaristia ospatzeko atondu gaitezan.

1. IRAKURGAIA: Jr 23, 1-6

Zoritxarrekoak ardiak galtzen dabezan artzainak. Ardiak ondo zainduko dabezan artzainak sortuko ditu.

2. IRAKURGAIA: Ef 2, 13-18

Jesusek bere gurutzeko odolaz juduen eta jentilen artean bakeak egin zituan, baita gizonen eta Jaungoikoaren artean be.

EBANJELIOA: Mk 6, 30-34

"JESUSEK ERRUKI IZAN ZITUAN... ARTZAIN BAKO ARDIAK LEZ ZIRAN ETA"
(Mk 6, 34)

H O M I L I A

(Vatikanoko "Lumen Gentium" Konstituzinotik ideak hartuta)

Jesus Jaunak, Aitari otoitz egin ondoren, hamabi apostolu aukeratu zituan, Beragaz bizi, eta Jaungoikoaren erreinua zabaltzeko. Eta talde horren buru Pedro ipini eban. (L.G. 19...)

Kristok apostoluei emondako lan honek munduaren azken egunera arte iraun behar dau. Horregaitik apostoluak, hil aurretik, euren ordezkioak itxi ebezan, eurek hasitako lana aurrera eroateko...

Apostoluen ondorengoak gaurko gotzainak dira. Honegaitik gotzainei entzuten deusanak Kristori entzuten deutso, eta gotzainak baztertzen dituenak Kristo baztertzen dau, baita Kristo bialdu eban Aita Jaungoikoa ba (L.G. 20)

Jesukristok, zeruetara igon ebanean, ez zituan lurreko bere seme-alabak umezurtz itxi... Orain be Kristo gotzain eta abadeen bitartez gure artean dago (L.G. 21)

Eliz-artzainen lehenengo eginbearra: kristau herria zaintzea

Eliz-artzainak ardi-zaintze-lanean, Kristo Artzain Onaren antzeko izan behar dau... Jesus ez zan besteen zerbitzuak hartzera etorri, zerbitzera baino, eta bere bizia ardien alde emotera (Jn 10, 11)

Eliz-artzaina, bera be makala dan ezkerro, okerreko bidetik dabiltzanakaz errukiz betea izan bedi...Bere eliztarrak seme-alabak lez maitatu beiz...Eta bere ardien alde otoitz eginez, Jaungoikoaren hitza zabalduz, eta, batez ere, danakin bihotz oneko izanez, bere taldeko ardiak ardura handiz zaindu beiz; bizitzaren azken egunean bere eginbearra zelan bete dauan, Artzain Nagusi dan Jaunari, kontu estua emon beharko deutsal, jakinik. (L.G. 27)

Eliz-artzainen bigarren eginbearra: kristau herria santu egin.

Eliz-artzainak, herriaren alde otoitz eta lan eginez Kristoren santutasun betea modu askotara eta ugari ereiten dabe...

Jaungoikoaren hitza hotseginez, Jaungoikoaren indarra zabaltzen dabe, fededun guztiak salbatzeko.

Sakramentuen bidez, fededunak Jaungoikoaren seme-alaba, eta kristau herriko bizilagun egiten dabez...

Sendotzaren bidez, fedea indartu eta sendotu...

Autortzaren bidez, pekatarietara Jaungoikoaren errukia eta parkamena emon.

Baina batez be, Eukaristiako sakramentuaren bidez, fededunen arimak Kristoren gorputz-odolaz janaritzen dabez, arimak graziaz beterik, betiko bizitzaren jabe egin daitezaz...

Mezako oparian, abadearen bitartez, fededunen otoitzak Kristoren gurutzeko irabaziekaz alkartzaz dira, Jauna gorestekoa eta gizonak salbatzeko, munduaren azken egunera arte...

Eliz-artzainak euren bizitza akats-bakoaz, eliztarrentzat eredu argi eta ikasbide oneko izan beitez; predikatzen dabena sinistuz, sinisten dabena zabalduz, eta zabaltzen dabena euren bizitza zuzenaz egiztatuz...

Honan, kristau herri osoa, artzainak ardiekatz batera, betiko bizitzaren zorionera helduko da (L.G. 26)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioko Jesus jendearen gorputzeko gosea asetzen ikusiko dogu...

Jesusen jarraitzaile garanok, geure maisuak lez, geure senideen gorputz eta arimako gose biak asetzen lan egin behar dogu.

Eukaristian Jesusek bere gorputz eta odola emongo deuskuz, gure arimako egarria asetzeko...

1 IRAKURGAIA: 2 Erg 4, 42-44

Eliseo profetak, Jaungoikoaren ahalmenez, jendeari jaten emoteko ogiak ugaritu zituan.

2. IRAKURGAIA: Ef 4, 1-6

San Paulo apostoluak espetxetik Efesoko kristauei idazten deutse, bakean eta alkarren maitasunean biziteko.

EBANJELIOA: Jn 6, 1-5

"JESUSEK OGIAK HARTU ETA BANATU ZITUAN, ETA DANAK ASE ZIRAN"
(Jn 6, 11-12)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak Brasilen Sao Pauloko kirol-zelaian, 150,000 kristauen aurrean esandako homilia 1980. urtean)

Seme-alabok:

brasilgo lau aldeetatik etorrita hemen alkartu zarie. Batzuk hemen bertan jaiok zarie; beste batzuk, ostera, kanpotik huri honetara lan-bila etorriak, zuen seme-alabentzat etorkizun hobe bat aurkitzeko asmoz...

Kristok eta Kristoren Elizak ez dau besterik gura, hemen jaiok eta kanpotik etorriak, kristauak eta beste erlijinotakoak, danok senide lez, alkar maitatuz eta lagunduz, bizi behar dogula.

Hau dalako Jesusen ebanjelioak irakasten deuskuna: "Maitatu eizu Jaungoikoa bihotz-bihotzez, eta lagunurkoa zeure burua lez"

Kristoren Elizak txiroen alde batez be lan egin gura dau, guztiok giza-duintasunari dagokion lez, bizi gaitez. Etxe-bizitzak, eskolak, lana, gaixotegiak...danontzat behar ditugu, gizakiak lez, bizi gaitez.

Elizak pobreei irakasten deutse euren buruak zaintzen, eta euren eskubideak defenditzen. Elizak gizon-emakume guztiei esaten deutse: alkar maitatu eizue... Baina maitasun honek ez dau justizia baztertu behar... Maitasunak bere susterrak justizian sakondu behar ditu. Justizia barik ez dago maitasunik... Justizia bako maitasuna guzur hutsa eta ustela da.

Bakea zabaltzera etorri naz zuengana. Gizon-amakume guztien arteko justizia eta bardintasuna zuen artean zabaltzera...

Mundua aurrera doa. Gaur, orain hamar urte baino aberastasun gehiago dago, baina aurrera joate hau bardina izan ete da? Nik ezetz esango neuke. Gitxi batzuk gehiegi aberastu dira, beste asko pobretasun gorrian bizi diran bitartean.

Gizarte hau ez dago ondo egina. Aldatu egin behar da, ekonomian, kulturen eta bizibidean, bardintasun gehiago izan daiten.

Baina, aldaketak egiterakoan ez dozue gogorkeriara eta anaien arteko burrukara joan behar. Behar diran aldaketak arin eta laster egin behar dira, baina brasildarren artean haserre eta odol isurtzerik sortu barik. Maitasunez eta anaitasunez bakotxak bere eskubideak defenditu behar ditu. Iraupenez dana irabazi eta lortu daiteke. Gerraz eta gorrotoaz dana galtzen da. Danok, Kristok irakatsi euskun legez, senide gara, eta neba-arrebak lez bizi behar dogu, dana galdu gura ez badogu.

Zuok. kristau zarienok, gizarte garbiago bat eta herri hobe bat sortzeko lan egin behar dozue. Zuen fedea argia eta indarra emon behar deutse, ames eder hau egia izan daiten. Hau da zuen eginbeharra: gizarte zuzenago eta garbiago bat eragitea.

Gure gaurko Jesukristoren ondoan egote honek egia handi hau irakatsiko al deusku: Elizak bere ebanjelioaren bidez, zuen herrian eta familietan bizi gura dauala.

Zuok, Sao Paoloko bizilagun guztiok, eta pobreenak batez be, jakin behar dozue: Jaungoikoak maite zaituela, eta zuok be Jaungoikoa maite behar dozuela. Hau da zuen eta gure pozaren iturri gordea: Jaungoikoak danok, guztiok maite zaituela, kristau diranak eta ez diranak, Askok, muga barik maite zaitue, eta hau da gure pozaren iturri agortzen ez dana, egia handi hau jakitea.

Hartu eizue Jaunaren eta nire bedeinkapena.

(B)

18. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAK OHARPENA

Senideok:

Mundu honetako gauzak guztiak batera ipinita be, ezin dabe gure arimako gosea ase.

Mundu hau ez da betikoa. Eta azkenean danak itxita hemendik joan beharko dogu. Jaungoikoa bakarrik da betikoa. Jaungoikoa bakarrik da gure arimako egarria kenduko deuskuna.

1. IRAKURGAIA: Ex 16, 2-4. 12--'

Jaungoikoak basamortuan israeldarrei "mana" emon eutsen jateko.

2. IRAKURGAIA: Ef 4, 17. 20-35

"EGIZUE LAN HONDATZEN EZ DAN JANARIAGAITIK::: JAUNGOIKOAREN OGIA DA MUNDUARI BIZIA EMOTEN DEUTSANA" (Jn 6, 27-32)

H O M I L I A

(Frantziako 117 gotzainak Lourdesen alkartuta, hango katolikoei gutun hau egin eutsen 1976. urtean)

Gaurko mundua arriskuan dago. Gizon-emakume askori Jesusen ebanjelioan sinistea aldazgora egiten jake. Baina halan be, gure bizitzari zentzun bete bat emoten deutsana Jesusen ebanjelioa da. Geure egia, justizia eta zorion amesak asetzen dituana.

Kristogan sinisten dogun guztiok: gotzinak, abadeak eta sekularrak, danok, Jesusen barri on hau geure inguruan ezagutzera emon behar dogu. Eta Jesusen barri onaren mamia hau da: Jaungoikoak gizon-emakume guztiak sabau gura dituala, guztiok betiko zoriontsu bizi gaitetzan.

Eta geure herri, auzo eta alkarteetan Jesusen barri ona era askotara ezagutzera emon daikegu: umeei katekesia irakatsiz, gaixorik dagozanak zainduz, elizari bere beharretan lagunduz, kanpotarrei atterpe emonez, beti eta nonahi bihotz on eta zabaleko izanez. Inor nekeetan ikusi ezkerro, han egon behar dogu kristauok atsekabetuei laguntzen, eta euren penak gozatu eta arintzen.

Guk, kristauok, geure fedea irakasten deuskun legez biziten ikasi behar dogu: justiziaren alde lan eginez, kalte egin deuskunari partatuz, aberastasunak, esklabo egiten gaitualako, ez gehiegi maitatuz.

Gaurko gizarte nasai honetan ebanjelioaren legera biziz, lanez itota bizi arren egunero zerbait otoitz eginez...

Kristauok, gaurko mundu gaizto honetan bihotzak zikindu barik biziten ikasi behar dogu.

Gure gaurko mundu honetan Kristogan sinistea ez da gauza erreza. Askok Jaungoikoagandik iges egiten dabe. Beste batzuk dirua eta atseginak hartu dabez jaungoikotzat. Baina, halan be, egiazko fedea hau da: Kristo aurkitu, ezagutu eta maitatzea.

Asko poztu gara gazte askok, baita hain gazte ez diranak be, Biblia Santuan Jaungoikoaren hitza irakurri eta gogoz hausnartzen dabela, jakin dogunean.

Umeentzat katekesia be behar-beharrezkoa dala, uste dogu. Eta kristau katekesiaren helburua hau da: haurtxoak txikitatik Jesus ezagutu eta maitatu daiela lortzea. Frantziako lurraldean hainbeste katekistak egiten daben lan neketsuagaitik geure eskerrik beroena.

Ebanjelioa zabaltzeak beste eskakizun bat be badauka: Eliza ezin da bere fedea otoitzean eta liturgian ospatu barik bizi, eta Eukaristia da ospakizun guztien gailurra eta betea.

Eukaristia Kristo bizia hartzea da. Bere gorputza jatea, eta Itun Berriko bere odola edatea. Eukaristia gure arimentzat indarra eta poza da. Horregaitik Eukaristia kristaudentzat behar-beharrezko da. Zuoi, Frantziako katolikoei hitz egiten deusuegu. Gu Lourdesera zuen alde lan eta otoitz egitera etorri gara.

Fededun garan guztiok, Andra Mariak legez, Jaungoikoaren barri ona geure bihotzetan pozez hartu behar dogu, eta gero geure inguruan zabaldu; Jaungoikoaren erreinuaren albiste alaia mundu zabalean ezagutua eta onartua izan daiten.

Gaurko gure mundua, aberastasunez inguraturik bibi arren, arimam triste eta poz barik bizi da. Bizitzeko poza emongo deutson itxaropen bat behar dau.

Gu, fededunok, Kristoren barri onaren poza gure bihotzetan hartu ondoren, goazen geure barruko poz hori geure inguruan zabaltzen. Kristo geugaz daukagu.

Frantziako gotzainak Lourdesen alkartuta

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek, ogiak ugaritu ondoren, bere jarraitzaileei esan eutsen: nire bila zabilze basamortuan nik emondako ogitik jan eta ase zarielako. Eizue lan hondatzen ez dan ogiagaitik...

Janari hori guk orain Eukaristian hartuko dogun Kristoren gorputza da. Hau da betiko bizia emoten dauan ogia.

1 IRAKURGAIA: 1 Erg 19, 4-8

Elias profeta Jezabel erregina gaiztoagandik basamortura iges doa. Jaunak emongo deutso jatekoa eta edatekoa.

2 IRAKURGAIA: Ef 4, 30 - 5, 2

Jaungoikoaren seme-alaba garanok, haserreak baztertu eta maitasunean bizi behar dogu.

EBANJELIOA: Jn 6, 41-52

"ZUEN GURASOAK BASAMORTUAN JAN EBEN ETA HIL ZIRAN... NI NAZ OGI BIZIA ZERUTIK JATSIA" (Jn 6, 49-51)

H O M I L I A

(Aita Pedro Arrupek Ipar-Ameriketan Filadelfia Nazioarteko Eukaristia Kongresuan esandako hitzaldia, 1976. urtean)

"Jesus Jauna, egun zoragarri honetan milaka kristau hemen alkartu gara Zu Eukaristian, ogi-ardau itxurapean, adoratzeko, goratzeko eta zuri eskerrak emoteko...

Bai, ederto eta pozik gagozala hemen! (Mt 17, 4)

Baina, guk hemen Jesus Eukaristian adoratzeko dogun bitartean munduan gerrak jota asko hiltzen dira, beste asko neke-minetan aurkitzen, baita beste asko gose eta kultura faltaz sufritzen be.

Guk orain eta hemen gure begien aurrean inor gosez, sufritzen eta hiltzen ikusten ez badogu be, hau da zoritxarrez benetako egia: munduko beste lurralde askotan jendea nekez bizi eta gosez hiltzen dala.

Eta guk, hemen gagozanok, zati batean, badogu horren erantzun beharra! Eukaristian hartzen dogun Jesusek, egunen batean esango deusku: Ni gose nintzanean zuk niri jaten emon ete zeunstan? Eta ni egarri nintzanean zuk edaten emon ete zeunstan? Nire senide bati bati egin, neuri egin zeunstan (Mt 25, 40)

Guk, nekeetan ikusten doguzan senideen aurrean itsuarena egiten badogu, geure fedea ukatzen dogu.

Santiago apostoluak esaten deusku: Zertarako dau batek "nik sinisten dot" esatea, gero egintza onik ez badau? Egin daigun anaia edo arrebaren bat jantzi barik eta eguneroko ogi barik dagoela, eta zuen arteko batek esaten deusala: berotu zaitez eta ase, Gorputzerako behar dauanik emoten ez badeutsazue, zertarako litzateke hori esatea?(Snt 2, 14-16)

Eukaristiako ogia ezin dogu kontzientzia garbiz hartu, gu geure egoismoan, bihotzak senideentzat itxita, bizi bagara, geure buruan bakarrik pentsatuz.

Anai-arrebok: egia esan daigun. Hemen gagozan guztiok gaur goizean geure gosaria hartu dogu, eta ez jaku biziteko behar dogunik ezer be falta. Orain Eukaristiako ogia alperrik hartuko geunke, neke-minetan aurkitzen diranei laguntzeko prest ez bagengoz...

Gaixorik, negarretan, eta bazterturik bizi diranetan Kristo ikusten ikasi behar geunke. Eta maitatzea ez da berba politikak esatea, laguntza emotea baino....

Orduan, zer egin behar dogu?, itanduko deustazue.

Itxi daigun alde batera oraingoz, nazioarteko erakunde, politikagizon eta agintariak zer egin behar daben adierazotea. Orain eta gaur zer egin daikegun pentsatu daigun...

Gitxi bada be, bakotxak berak al dauana egin daiala. Apurka apurka gauza handiak egiten dira. Maitasunak ez dau mugarik: txiroei legundu, gaixoak ikustera joan, gosetuentzat geure limosna emon, haserretuen artean bakeak egin, edonon eta edozeini mesede egiteko prest egon.

Honek guztiok bakarka begiratu ezkeru gauza txikiak dira, baina on asko ekarten dabenak.

Eukaristian Kristok guri deuskun maitasuna erakutsi deusku.

Eukaristiako Kongresu honen egin beharra hau da: Kristoren maitasun hori gizon-emakume guztien artean zabaltzea.

Bake-zale, bihotz-oneko, mesede egile izan gaitезan, Jaungoikoaren eta geure senideen maitale. Honan haserre eta gorrotoz beterik dagoen gaurko munduaren aurrean, gu Kristoren lekuko-testigu izango gara.

Eta Eukaristiako Jaunak gure etxeak, lanak eta nekeak bedeinkatuko ditu"

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Fedeagaz batera bateoa dogu salbatzeko sakramenturik beharrezkoena. Baina Eukaristia dogu sakramentu guztien gailurra eta gorengoena. Gaurko ebanjelioan Jesusek esango deusku: Nire haragia jaten dauana, eta nire odola edaten, betiko bizia dauka, eta Nik biztuko dot azken egunean.

1. IRAKURGAIA: Es Za 9, 1-6

Jaungoikoaren jakituriak jateko eta edateko ugari eskeintzen deutse guztiei, bizi daitezana.

2. IRAKURGAIA: Ef 5, 15-20

Bide okerrak itxi, eta Espirituaren bidetik ibili gaitezana. Jaungoikoari beti eskerrak emonez.

EBANJELIOA: Jn 6, 51-59

"NIRE HARAGIA EGIAZKO JANARIA DA, ETA NIRE ODOLA EGIAZKO EDARIA"
(Jn 6, 55)

H O M I L I A

(Eukaristiari buruz Santo Tomas teologoaren ideak)

Bizitza bi ditu gizakiak: bata gorputzarena, eta espirituarena bestea. Gorputzeko gauzak zelan jazoten diran ikusi ezkerro, espiritukoak zelan jazoten diran hobeto ulrtuko ditugu, biak antz handia dabelako.

Bateoaren bidez zeruko bizitzarako jaioten gara...

Sendotzaren bidez gure arimako bizitza hazi eta indartu egiten jaku. Pekatu eginez gaixotzen bagara, autortzak gure arimako gatxak garbitu eta osatu egiten ditu.

Eukaristia, zerurako bidean gose eta egarriz makalik jausi ez gaitezana, gure arimaren janari eta edari da. Itun Zaharrean Jaungoikoak Israel herria basamortuan "manaren" bidez janaritu eban legez, Itun Barrian Jesusek guri, zerura bidean goazeno, bere gorputza emoten deusku janari eta bere odola edari (Jn 6, 58).

Eta gorputza jan barik hil egiten dan legez, geure arima be, Eukaristiako ogi barik ezin da bizi.

Eukaristia gure arimen janari eta edari da.

Lur honetako bizitzan janariak eta edariak gure gorputzetan egiten dabena, hori bera egiten dau Eukaristiak gure espirituko bizitzan.

1. Eukaristiak gure arimako bizitzari "eutsi" egiten deutso.

Gure gorputza jan eta edan barik gosez eta egarriz hil egiten dan legez, era berean geure arima be Eukaristiako ogi barik ezin da bizi.

2. Eukaristiak gure arimako indarrak, eguneroko lanean galduak, barritu eta sendotu egiten ditu.

Gure eguneroko hutsegiteekaz arimaren indarrak gitxitu eta makaldu egiten dira. Eukaristian Jesusek bere gorputz-odolak gure alde opari eginik, eskeintzen ditu, gure pekatuen barkamenerako.

3. Eukaristiak gure arimak zeruko pozez beteten ditu.

Osasun onak daukanak, jaten dauanean, janarien gozoa sentitzen dau.

Arima santuak be bardin, jaunartzerakoan Jaungoikoaren poza nabaitzen dau. Eta jaterakoan janarien gozoa ez sentitzea, osasunarentzat seinale txarra dan leez, era berean Eukaristiako ogia jateko gogorik ez sentitzea, arimea makal dagoenaren ezaugarri txarra da.

4. Eukaristiak Kristogaz alkartu egiten gaitu.

Nire haragia jaten dauana eta nire odola edaten Nigan dago eta Ni harengan.

Eukaristia hartzean fededuna Kristogaz bat egiten da, Kristoren bizitzatik bizi da. Baina, hau da Eukaristiako eta gorputzeko ogiaren aldea: guk lurreko ogia jaten dogunean, ogi hori asimilatu edo geure gorputz-zati egiten dogu. Eukaristiako ogiaz, ostera, alde-rantziz jazoten da: Kristok gu bere gorputz-zati egiten egiten gaitu.

Jerusalengo Zirilo santuak ederto argitzen deusku, esanaz: Kristo Bizitza da. Eta jaunartzen dogunean, Kristoren gorputz-zati edo kristotu egiten gara gu.

Eukaristia sarri hartu behar da.

San Ambrosiok dino: Eukaristiako sakramentu hau gure arimen janari da. Eta gure gorputzeko janaria egunero hartzen dogun legez, gure arimen beste janari hau be, ahal badogu, egunero hartu behar geunke.

Eta Agustin santuak dinosku: Hartu eizu egunero arimaren janari hau, egunero on egin daizun, eta bizi zaitez egunero hartzea merezi izateko eran.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusen aurrean Eukaristia honetan aukera sakon bat egin beharra dogu. Nor da egiaz eta benetan gure bihotzeko jaun eta jabe? Jaungoikoa ala dirua? Jaungoikoa ala munduko atseginak? Jaungoikoa ala gizonen aintza eta agintea?

Gaurko ebanjelioan Pedrok lez Jesusi esan deiogun: Jauna, Zu itxita, norengana joango gara? Zuk daukazuz betiko biziaren hitzak. Zu zara Jaungoikoaren santua.

1. IRAKURGAIA: Jos 24, 1-2a. 15-17. 18b

Israeldarrak lez guk be egiazko Jaungoikoa ala mundu honetako sasi-jainkoak, aukeratu behar ditugu.

2. IRAKURGAIA: Ef 5, 21-32

Senar-emazteen arteko maitasuna, Jaungoikoak guri deuskun maitasunaren antzeko da.

EBANJELIOA: Jn 6, 61-70

"SIMON PEDROK ERANTZUN EUTSAN JESUSI: JAUNA, ZUK DAUKAZUZ BETIKO BIZIAREN HITZAK. GUK BADA KIGU, ZU ZARALA JAUNGOIKOAREN SANTUA"
(Jn 6, 68)

H O M I L I A

(Aita Pedro Arruperen "Este Japón increíble" liburutik hartuta)

Aita Pedro Arrupe bilbotarrak, berak idatzitako liburu batean kontatzen deusku, Japonian bera misiolari zala, "Zen" izeneko bontsoen monastegi bat ikustera joan zala...

Bontzo gazte hareen maisua nire laguna zan, dinosku Arrupek, eta bere hitzaldi bat entzutera konbidatu ninduan, baita nik pozik baietz erantzun be...

ETA "Zen" maisua zutunik, lurrean jesarrita egozan bontzo gazteei, honan hasi zan irakasten:

"Begira, gazteok, eta entzun ondo:

Mundu honetako gauza guztiak gure onerako eginak dira, gure gorputzak dituan egin beharrak beteteko. Jantziak gure gorputza estaldu eta hotzetik zaintzeko. Janari-edariak, gure gorputzak lanean galdutako indarrak barritu eta sendotzeko. Mihina alkarregaz berba egiteko.

Eskuak lan egiteko, Oinak batetik bestera ibilteko...

Gauza baxotxa zertarako egin dan, hartarako erabili behar da.

Eta orduan dana zuzen doa eta ondo dabil. Baina bide zuzenetik okertzen bagara, gure bizi osoa hondatuko dogu...

Mihina guzurak esateko, eta eskuak lapurretan egiteko, eta oinak bide okerretik ibilteko erabilten baditugu, orduan, bai, ziur galduko garala.

Lagun gaiztoengandik iges egin behar geunke txakur amurratuengandik lez... Egin daigun sugegorri pozoidun bat aurkitzen dozula bedar artean. Zer egingo zeunke? Zure etxera eroan? Halangorik egingo bazendu halango batean haginka egingo leuskizu, eta zu hilgo zindukez.

Halan bada, gure bihotz barruko grina gaiztekez ez gaitezela jolasean ibili. Euren gogota libre ixten badituhu, suge pozoidunak baino kaltegarriagoak dira...

Egin daigun egun batean ehizan basora joan zarala, eta tximino bat bizirik etxera ekarri dozula. Habe batetik kateaz lotuten badozu, tximinoak, jo ta ke, ahalegin guztiak egingo ditu kateak ausi, eta barriz be basora iges egiteko. Azkenean ezin dauala katea ausi ikusten dauanean, nekatuta, lur jota, zure esanera jarriko da...

Holangoak dira gure barruko grina basati gaiztoak be. Hezi arte lan handia emongo deusue, baina gure buruari obeditzen ikasten dabenean, orduan barruko bake handia lortuko dozu.

Gorputzeko atseginen atzetik dabiltzanak, begira noren antzeko diran. Aizto zorrotz-zorrotz bat agoan hartuko ete zeunke, haren puntan ezti spur bat dagoalako? Hori egingo bazendu mihina moztu eta saman aiztoaren punta zorrotza josteko arrisku handian jarriko zinake. Zorua izan behar hori egiteko!

Kontuz, bada, gorputzeko atseginetik! Eztia lango gozoak dira, baina gozoki hori aizto baten puntan dago, eta hil egiten dau.

Zure eskuetan gasolina ontzi bat badaukazu, kontuz suaz, erre ez zaitazan. Arriskutik alde egitea kosta egiten da, baina jausi gura ez badozu, amiltegitik apartau zaitetz.

Mendi puntara igotea neketsu da, baina goian haize garbia dago.

"Argitasunera" heldu gura dauanak, bihotza nahikeria guztitik garbi euki behar dau"

Eta, zer da "Argitasunera" heltzea?, itandu neutsan gero nik "Zen" maisuari, esaten deusku Aita Arrupek. Esango neuskizu, esan eustan berak, neuk be banenki! Hau penagarria!, amaitzen dau Aita Arrupek, honango gizon zintzoak Jesus gure Salbatzailea ez ezagutzea!

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Egiazko erlejinoa ez dogu kristauok kanpoko ohitura eta itxurakeri-
etan ipini behar, bihotz barruko asmo eta gogo onean baino...

Fariseuak itxura-zaleak ziran, azaleko antzari, barruko egiari baino
gehiago begiratzen eutsielako.

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: "Ez da ezer kanpotik sar-
tuz, gizona zikindu leikenik; barrutik, asmo txarrez ateratzen danak,
zikintzen dau gizona"

1. IRAKURGAIA: Dt 4, 1-2. 6-8

Jaunaren aginduak betetea askotan aldatz gora egiten jaku, baina ge-
ro barruko poza eta Jaungoikoaren adiskide izatea emoten deusku.

2. IRAKURGAIA: St 1, 17-18. 21b-22. 27

Jaunaren hitza entzun bakarrik ez, bete be egin behar dogu,
lagunurkoari lagunduz.

EBANJELIOA: Mk 1-8a. 14-15. 21-23

"GIZONAREN BIHOTZETIK ATERATZEN DIRA ASMO TXARRAK... HONEEK ZIKINT-
ZEN DABE GIZONA" (Mk 7, 21-23)

H O M I L I A

Fariseuak erlejinoko gauzetan kanpoko, azaleko, itxurei garrantzi
handia emoten, barruko, bihotzeko asmo eta gogoak alde batera baz-
tertuz. Horregaitik Jesusek gaurko ebanjelioan esaten deutse: "Zuok,
Jaungoikoaren aginduak bazterrean itxi, eta gizonen ohiturak gorde-
ten dituzue!"

Jesulentzat, ostera, barruko bihotzak, kanpoko azalak baino askoz
gehiago balio dau. Baita gehiago be, barruko asmoa da, kanpoko
egintza ona ala txarra egiten dauana.

"Zure begia (asmoa), dino Jesusek, argi badago, zure gorputz osoa
be argitan egongo da. Baina zure begia (asmoa) gaixorik badago,
zure gorputz osoa be ilunpetan egongo da".

Guk, gizonok, ezin dogu besteen asmo eta bihotzik ikusi, baina Jau-
nak ilunpetan dagoena be eguerdiko argitan ikusten dau. Salmogileak
dino: "Ilunpea ez da zuretzat ilun, gaua be zuretzat egun argi da.
Ilunpea eta argia zuretzat argi" (Sal 139, 12)

Itun Zaharrean kontatzen da Jaunak Samuel profetari esan eutsala: Aukeratu eizu Belengo herrian, Jeseren semeen artean, errege bat nire Israel herriarentzat.

Joan zan Samuel Belenera, eta Jeseren semerik zaharrena Eliab gazte eder, dotorea ikusirik,, pentsatu eban: Hauxe da Jaunak erregetzat aukeratua. Bainak esan eutsan: "Ez begiratu horren itxura eta luze-ari. Gizakiak itxurari begiratzen deutso, baina Jaunak bihotzari.

Eta anaia zaharrenaren ordez, Dabid txikiena Israelgo erregetzat izan zan gantzutua.

Jaunak barru eta kanpo, dana ikusten dau.

"Nora joango naz zure espiritutik urrun? Nora iges egin zure aurretik? Zerura igonda be, zu hantxe zagoz! Hilan lekura joanda be, Zu bertan

Jaungoikoak alde guztietatik inguratzen gaitu.

San Paulok Atenasko Areopago enparantzan han egozan bizilagunei honan berba egin eutsen: "Atenastarrok, oso jainkozale ikusten zaituet. Jaungoikoa gutako baktxarengandik ez dago urrun. Izan be Jainkoagan bizi gara, eta Berarengan dogu ibiltea eta izatea" (Ap Eg 17, 28)

Jaungoikoak gu barru eta kanpo, alde guztietatik ikusten gaituela gogoratzea, guretzat zuzen ibilteko lagungarri da.

Jeronimo santuak dinosku: Bide okerretik gabiltzanean, Jaungoikoak ikusten gaituela gogoratuko bagendu, ez genduku Harek gura ez dauanik egingo".

Basilio santuak be honen antzeko zerbait esaten deusku: "Tentaldian ez jausteko hau da biderik egokiena, Jauna begira daukagula jakitea".

Don Bosko santuaren bizitzan irakurtzen da, bere ama Margaritat sarritan esaten eutsala: " Zoan lagunekaz jolastera, baina Jaungoikoak ikusten zaituala, ez ahaztu". Eta guzurren batean harrapatzen ebanean, amak esaten eutsala: "Begira, gero, Jaungoikoak zure barrua be ikusten dau".

Eta Liburu Santuak Esaera Zaharretan gogoratzen deusku: "Zure egite guztietan euki Jauna gogoan, eta Berak eroango zaitu bide zuzenetik" (Es Za 3, 6)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek bere bizitza osoa ganei "on egiten" igaro eban: gaixoak osatu, gosetuei jaten emon, pekatariei parkatu...

Horregaitik jende pilo handia etorten zan Jesusengana, on-ona eta maitagarria zalako...

Gaurko ebanjelioan jendea ikusi dogu Jesusengaitik harriturik esaten: "Honek ondo egiten dau dana".

1. IRAKURGAIA: Is 35, 4-7a

Isaias profetak esaten deusku, Mesias profeta handiak lurrera bakea, poza eta zoriona ekarriko dituala.

2. IRAKURGAIA: St 2, 1-5

Sinismen hutsak ez dau ezer balio egintza onik ez badauka. Berba politsk be alperrekoak dira, laguntzarik emoten ez badogu.

EBANJELIOA: Mk 7, 31-37

"ETA JENDEAK HARRITURIK ESATEN EBAN: HONEK (JESUSEK) ONDO EGITEN DAU DANA" (Mk 7, 37)

H O M I L I A

Senideok:

Gaurko ebanjelioan entzun dogun lez, jendeak harriturik Jesusengaitik esaten eban: "Honek dana ondo egiten dau"

Eta Pedro apostoluak Kornelio erromatar gudalburu jentilari, Jesus zelangoa izan zan berba gitxitan adierazoteko, esan eutsan: Nazareteko Jesusek bere bizitza osoa danei on egiten emon eban.

Eta Jesusek berak be guri agindu euskun: Izan zaitezte on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona dan lez.

Horregaitik santuak be, Jesusen antzeko izan nahirik, on-onak izaten ahalegindu ziran.

Esandakoa argitzeko hiru santu ekarriko dodaz gogora:

Salesko Frantzisko santua. Hain gozo eta maitagarria zan santu hau, jendeak esaten eban: Zein on izango dan Jaungoikoa, Frantzisko Saleskoa hain ona danean. Eta santu honek inor haserre ikusten ebanean, esaten eutsan: Euli gehiago harrapatzen dira ezti tanta bategaz, upela bete ozpinegaz baino.

On Bosko santuak bere ames bat kontatzen deusku:
"Bederatzi urte nituala ames bat egin neban: Zabaldi batean ume asko jolasean eta biraoka ikusi nituan. Biraoak entzutean ni ukabilka josten hasi nintzan. Orduan itzal handiko gizon bat agertu jatan, esaten: Gogorkeriaz ez, bigun-bigun eta maitasunez ekarri behar dituzu umetxo horreek.

Geroago begiratu, eta mutiko hareen ordez zelaian otsoak, hartzak eta inon diran piztiak ikusi nituan. Gero etxeko-andra zoragarri bat agertu jatan, esaten: Izan zaitez apala eta gozoa, eta aldatuko dira... Barriro begiratu neban, eta pizti hareen ordez, bildotsak ikusi nituan".

Joan 23. Aita Santuari buruz, idazlari batek itaun hau egiten deusku: Zergaitik Anjel Jose Roncali Aita Santua danak maite eben?

Jakitun handia zalako?. Ez.

Hizlari bikaina zalako?. Ezta ere.

Aita Santu bedeinkatu honek ez dakit nik zer misterio eukan, baina, berba egiten hasi baino lehenago, bera ikusita bakarrik, ontasuna alde guztietatik eriola, nik esango neuke.

Haren aurpegi beti alaia, haren ezpanetako irri-barre gozoa. Zein maitagarri umekaz, gaixo eta jende apalakaz. Santu diranak alde guztietatik ontasuna daroe, larrosak euren usain gozoa inguruan zabaltzen daben lez.

Aita Santu izendatua izan aurretik, Bulgarian egoala, Anjel Roncali bere etxekoei gutun batean dinotse:

"Ni hemen nago egunero ahal ditudan on txikiak egiten: danak bakean bizi, danakaitik ondo berba egiten, beharrean aurkitzen danari laguntzen, kalte egin deustanari parkatzen.

Bizitza honetan gauza guztiak euren alde honetik ikusten ikasi behar ditugu. Nik holan egiten dot eta oso pozik bizi naz. Danakaz maitagarri izan, ahal dogun guztian mesedeak egin, eta itxi txoriei abesten. Hau da alai biziteko biderik onena.

Batzuk esaten ei dabe ni gehiegi optimista nazala. Baina nik zer egin neike? Nik gauza guztiak bihotzaz ikusten ditut. Guztiekaz ona izan gura dot".

Eta Aita Santu izentatu ebenean, sarritan esaten ei eban: "Ni hiltzen nazanean, jendeak hau bakarrik gura neuke nigatik esatea: "Gizon ona izan zan"

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus ez zan profeta handi bat bakarrik izan, ezta mirarigile harrigarri bat bakarrik be.

Jesus juduak itxaroten eben Mesias zan, Jaungoikoaren Semea, munduko salbatzailea. Baina Mesias hori ez zan errege ahaltsu bat izango; neke eta atsekabeen artean mundua salbauko ebana baino.

1. IRAKURGAIA: Is 50, 5-9a

Mesias salbatzailea atsekabez betetako morroi zerbitzari baten antzera etorriko da. Baina Jauna dau lagun, eta ez dau inoren bildurrik izango.

2. IRAKURGAIA: St 2, 1-5

Fede hutsa, egintza on barik ustela da. Sinismena egintza onakaz egiazkoa dala, agertu behar da.

EBANJELIOA: Mk 8, 27-35

"NI NOR NAZALA DINO JENDEAK?... Eta PEDROK ERANTZUN: ZU MESIAS ZARA" (Mk 8, 27-29)

H O M I L I A

("100 españoles y Dios" Gironella-ren liburutik hartuta)

Idazle batek 100 gizon-emakumeei honango itaun bi egin eutsezan:

- Zuk Jaungoikoagan sinisten al dozu?
- Zuk Jesus Jaungoikoa dala uste al dozu?

Hona hemen hiru pertsonen erantzunak:

Magdalena Castañer de Gironella. Etxeko-andrea.

"Txikitan mojen ikastetxe batean edukatua izan nintzan. Kolejio haretako legeak oso estuak ziran. Errezuak azken bakoak.

18 urte gaz, guztiz asperturik, erlejinoko gauza guztiak baztertu nebazan. Baina halan be, Ebanjelioen liburua pozik irakurten neban.

Bizitzan aurrera joan, eta orain azkenean haxe garbi ikusi dot: gizon batek (Jesusek) arma eta diru barik, gogorkeriara jo barik, munduan egin dan iraultzarik handiena egitea, hori guztiz ezina dala. Jesus gizon hutsa baino zerbait gehiago be bada.

Nire bizitzan zehar bide bi honeen artean askotan aurkitu izan naz: sinistu ala ez sinistu? Baina azkenean "ez-bai" askoren ondoren, hau da garbi ikusi dodana: "Ez-sinistek" urten-biderik ez daukan zulo ilun batera narokala, eta Jesusengan sinistek bakarrik salbauko narokala".

Fernando Díaz Plaja. Kasetaria.

"Jaungoikoagan sinistea ez da, nire ustez, arrazoi zientifikoetan oinarrituta dagoan zerbait... Sinistea maitamintzearen (enamoratzearen) antzeko zerbait da.

Mutil gazte bat ez da neska bataz maitamintzen, aurretik buruaz kalkulatz, neska horrekin enamoratzeak zer bentaja ekarriko deusan.

Mutil bat halako neskarekin maitemintzen da, bihotzak hori eskatzen deusalako. Neska hori barik ezin bizi dalako.

Gizaki guztiak eta alde guztietakoak sinistu izan dabe gure gainerik, zerbait edo norbait badala.

Zeru goitik, Jaungoiko begiz begiratz, bai dala gauza barregarria, hiltzera galduta dagoan gizon harroak, bere destinoaren eta bere geroaren jabe dala, pentsatzea.

Jesus Jaungoiko ete dan itanduten deustazu?

Jaungoikoa ez balitz izan behar leuke. Guk, gizon kaskarrok, Jaungoikoarengana eroango gaitun norbaiten beharra dogu.

Urrutiko Jaungoiko ahalguztidunari errespetoa zor deusagu, baina Jesusi, ezagutu ezkeronahi eta nahi ez, maitasuna emongo deusaggu.

Jesusen dotrina baino ederragorik, ez da mundu honetan orain arte irakatsi. Baina guk, kristuok, tamalez, ez dogu gure maisuaren dotrina gure bizitzan mamitzen.

Joan Gich. Arte-kritikoa.

"Jaungoikoagan sinisten dodan itanduten deustazu?

Mundu unibertso hau, eguzki izarretatik ikasi, eta lora txiki eta mikrokosmos-eraino hain egoki eta ederto egina dago; kasualitatez, inork eratu barik, berez egin dala, nik ezin dot buruan sartu -Jesukristo Jaungoikoa dala, sinisten ete dodan?

Jesusen pertsona hain gorengoa da, bere morala hain gainerikoa da, ezin da beste gizonakaz bardindu. Jesusek irakatsi eban dotrina hedonista izan balitz, hau da haragiaren gustukoa, gizonak pozik hartuko eben. Baina, Jesusen dotrina beteten hain gatxa izanik, gizonak onartzea, ulertu ezina egiten jat.

Chesterton idazle famatuak ederto esan eban: Kristok mendiko hitzaldian garbitzen ez dauan jaboia eskeindu eban. Garbitzen ez dauan jaboia, zelan saldu? Mirari hori Jesusek egin eban. Kristoren dotrina, gure instintoen hain kontrako izanik, alde guztietan zabaldu da. Ba ete da mirari harrigarriagorik?

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek bere iksleei esan eutsenean: Gizonaren Semea hil egingo egingo dabe, Markos ebanjelariak esaten deusku, ikasleak ez ebela ezer ulertu. Zelan leiteke, pentsatzen eben, Mesias munduko salbatzailea, hila izatea?

Geuk be, ikasleen antzera, geure neke eta atsekabeen zergaitia ez dogu ulertzen...

Eukaristia honek neke eta gurutzearen balioa ezagutzen lagundu deigula.

1. IRAKURGAIA: Jak 2, 12a. 17-20

Gizon zintzoak ez dauka inoren eta ezeren bildurrik. Jaungoikoak arerioen eskuetatik aterako dau.

2. IRAKURGAIA: St 3,16, 4-3

Alkar ikusi-ezinak eta haserreak, gerrak sortzen dabez. Apalak, errukitsuak eta zuzenak, ostera, bakea ereiten.

EBANJELIOA: Mk 9, 30-36

"GIZONAREN SEMEA HIL EGINGO DABE, BAINA HIRUGARREN EGUNEAN BIZTUKO DA. IKASLEAK, OSTERA, EZ EBEN ULERTZEN ESATEN JAKENIK" (Mk 9, 31)

H O M I L I A

Blas Paskal (1623- 1662) fisikan eta matematiketan jakintsu handia, 24 urte ebazala, elbarriak jota gaixotu egin zan, eta 39 urte gaz kristau zintzo lez santuki hil zan...

Gaixorik egoala, "Jaungoikoari osasunaz ondo baliatzeko otoitza" idatzi eban. Hona hemen eskabide horren zatirik nagusienak. Harri-garriak dira, benetan, kristau jator honek bere neke eta atsekabeen artean egindako gogoetak:

"Jauna, bihotz on eta maitagarria, kristau egiazkoa nazan ezker, neure bizitzako gora-behera guztietan nire Aita eta Jaungoikotzat ezagutzen zaitut.

Ez zara gitxiago maitagarri nekeak eta atsekabeak bialtzen dituzunean, poza eta parkamena emoten dituzunean baino...

Osasuna emon deustazu orain arte zu zerbitzeko, eta nik oker erabili dot. Orain gorputzeko gaixoaldi hau emon deustazu, bide zuzenetik ibilten ikasi daidan.

Egia da, nire osasuna txarrerako erabili dot. Eta orain gatxaldi hau bide zuzenera etorteko bialtzen deustazu. Egizu, Zuk lagundurik, gaixotasun hau nire arimaren onerako izan daitela.

Ene Jaungoikoa! Nik badakit gorputzeko neke honeek gure arimak lur honetako atsegin galgarrietatik askatzeko Zuk bialtzen dituzula.

Nik goresten eta bedeinkatzen zaitut, Jauna, nire bizitza guztirako, mundu honetako atsegin eta osasunaz gozatzeko ahalmena, nire gorputzari kendu deutzazulako.

Egizu, Jauna, nire bizitza osoan zehar zure borondate santua onartu daidala. Zabaldu, Jauna, nire bihotza, eta garbitu nire barrua gaiztakeriaz zikinduta dago eta.

Nire bihotzean munduak agintzen dau, eta zure aurpegia ez dot eza-gützen. Egizu, oraindik hasi eta heriotzera arte geratzen jatan bizia nire pekatuak garbitzeko izan daitela...

Zuk esan zenduan: "Zorionekoak negar egiten dabenak, poztuak izango dira eta". Baina nik, munduzaleak lez pentsatuz, beste hau esaten dot: Zorionekoak dirua eta mundu honetako ondasunak ugari daukezanak. Zorionekoak ospe eta izen handia daukezanak. Zorionekoak osasun ona daukenak.

Eta zergaitik pentsatzen dot holan?

Diruak, osasunak eta fama handiak mundu honetako atseginak gozatzeko gai egiten gaituezalako.

Osasuna gauza ona dala pentsatzen dot, ez osasunaz lagunurkoari hobeto eta gehiago lagunduko deutzadalako; osasunak, mundu honetako labankerietan nahasturik, pekatu bidetik ibilten lagunduko deustalako baino.

Jauna, nire bihotz ustel hau garbitu egizu. Eta gaixorik nagoala be, nire gorputzeko nekeen bidez, Zu goratu zaidazala, egizu.

Zugaz bat egin naizu. Nire nekeak zure nekeak izan daitezela, nigan bizi eta nigan sufritzen dauana Zu izan zaitez.

Ene Salbatzaile hori! Nire bihotz eta ariman sartu zaitez, Zugaz bete eta ase naiten. Zure nekeetan neuk be parte hartu daidala egizu, gero Zure betiko aintzan be Zugaz batera bizi naiten, baita Aitagaz eta Espiritu Santuagaz, gizaldi eta gizaldietan. Amen".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Bekaitza edo enbidia gaiztakeria askoren iturri zikina da.

Marmar-gaizto, ezin-ikusitako eta haserre askoren sortzailea.

Jesusen ikasleak be, gaurko ebanjelioan ikusiko dogunez, ez egozan joera gaizto honetatik garbi.

Gaurko Eukaristian, txikikeriak alde batera itxi, eta Jesusen antze-
ra bihotz zabalak izaten ikasi daigula.

1. IRAKURGAIA: Zenb 11, 25-29

Moises bihotz zabalekoa zan. Herritar guztiak profeta balira hobe,
esaten eban.

2. IRAKURGAIA: St 5, 1-6

Santiago apostoluak aberatsei dinotse: Zuen ondasunak ustelduta da-
goz. Langileei emoten ez deusazuen saria Jaunak eskatuko deusue.

EBANJELIOA: Mk 9, 37-42. 44-47

"MAISU, ZURE IZENEAN DEABRUAK BOTATEN IKUSI DOGU GUGAZ EZ DABILEN
BAT, ETA GUK GALAZO EGIN DEUTSAGU. BAINA JESUSEK: EZ GALAZO"

(Mk 9, 38-39)

H O M I L I A

(Agustin eta Basilio santuen homilietan oinarritua)

Senideok:

Gaurko ebanjelioan entzun dogun lez, Jesusen ikasleak ez eben begi
onez ikusi, eurekaz ez ebilen batek mirariak egitea, eta eragotzi gura
eutsoen. Baina Jesusek: Ez eragotzi. Gure aurka ez dagoena gure alde
dago eta.

Ebanjelioko zati honek Agustin eta Basilio santuei bekaitza edo enbi-
dia zer dan guri erakusteko bidea emoten deutse.

Bekaitza edo enbidia zer da?, itanduten dau Agustin santuak.

Besteen ona ezin ikustea. Besteen ona ikusi eta guk pena hartzea.

Bekaitza edo enbidia daukanak, besteen zoritxarrean poztu egiten da,
eta besteen zorionean goibeldu, tristetu.

Harrokeria gure bihotzaren jabe egiten danean, berehala bekaitza,
enbidia sortzen da. Ez dogu gura beste inor gu baino gehiago izate-
rik.

Eta enbidiaren iturri zikin honetatik, marmar gaiztoak, ezin ikusi-
ak; azpi jokoak, haserreak eta beste gaiztakeri asko sortzen dira.

Enbidia daukanak infernua dauka barruan. Horregaitik esaten dogu:
enbidiz erreta dago.

Senidea gaixotu da?, Bekaiztia poztu egiten da.

Senidea osatu da?, Bekaiztia goibel, triste ikusiko dozu.

Bekaiztiak inor gaioan ikusten badau, behera botateko ahalegin guz-
tiak egingo ditu. Eta lehen goian egon dana, orain guztien hankapean
ikusten badau, sekulako poza hartuko dau.

Bekaitza-enbidia bihotz txikiaren seinale da, dinosku Basilio san-
tuak.

Zer kalte egiten deutsu zuri bestea zorionean ikusteak?

Zenbat eta bestea gorago ikusi, zuk hainbat eta pena handiagoa
hartzen dozu.

Bekaiztiak gauzarik onenak be begi txarrez ikusten ditu:

Gizon zintzo bat ikusten badau, hipokrita dala, esango dau.

Jungoikozale bat ikustean, fanatikotzat joko dau.

Bihotz eta eskuzabal bat ikusten badau, etxe hondatzailea dala
dala zabalduko dau.

Baina hau da enbidia daukanaren zoritxarra! Bekaiztia ezin da bes-
teen aurrean enbididun lez agertu; lotsagarri litzateke hori. Eta ho-
rregaitik bere bihotzeko gaiztakeria bere barruan egosi beharrean aur-
kitzen da; eta honek bere barrua irakiten, lehertu beharrean ipinten
deutso. Ez da oinaze makala!

Zergaitik hil eban Kainek bere anaia Abel?. Enbidiagaitik.

Zergaitik saldu eben Ejiptora Jakobena semeak euren anaia Jose? En-
bidiagaitik.

Zergaitik hil eben fariseuak Jesus gurutzean? Enbidiagaitik. "Bae-
kian Pilatok, dino Mateo ebanjelariak, bekaitzaz ekarri ebela Jesus
hilteko. Jesusek egiten zituan sendaketa eta mirariak ezin ebezan
fariseuak begi onez ikusi.

"Zertan gabilta?", esaten eben fariseuak; gizon honek ezaugarri
asko egiten ditu. Eta honetan ixten badogu, danak sinistuko dabe
Beragan. Eta bizia kentzea erabagi eben.

Guk enbidia ez dogu hain pekatu gaiztotzat hartzen, baina bere on-
doren ustelak agirian dagoz: Jaungoikoaren Semea gurutzean hilteraino.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoak hasieran gizon eta emakume egin zituan, alkar maitatu, eta maitasun horren frutu lez, semè alabak sortzeko.

Alkar maitasuna da sendi-familiaren suster eta oinarria.

Maitasun bako ezkontzat ez dau luzaro iraungo. Baita alderantziz, maitasuna bizi dauan sendia zorioneko izango da.

Jaunak gure familietan alkar maitasunaren hazi ona ugari erein dai-ala.

1. IRAKURGAIA: Gn 2, 18-24

Jaungoikoak hasieran gizon eta emakume egin zituan, alkarren maitasun-ean bizi, eta zerupeko gauza guztien jabe izateko...

2. IRAKURGAIA: Eb 2, 9-11

Jesusek bere heriotzaren bidez salbau gaitu, eta orain Bera aingereuen gainetik zeruan aintzaz beterik dago.

EBANJELIOA: Mk 10, 2-16

"HORREGAITIK GIZONAK AITAMAK ITXIKO DITU, ETA EMAZTEAGAZ ALKARTUKO DA, ETA BIAK HARAGI BAT IZANGO DIRA" (Mk 7-8a)

H O M I L I A

(Frantziako gotzain batzordeak "Familiari buruz" egindako adierazpena. 1970. urtean)

"Zer da maitatzea?, itanduten dabe Frantziako gotzainak.

Maitatzea da gure bihotza zorionez beteten dauan pertsona bat aurkitzea. Maite dauanak norbere buruaren gainetik maitearen zoriona gura dau. Gure bizitza osoa maitasun aukera eta lotura bat da.

Maitasuna aurkitu dauanak zoriona eta salbamena aurkitu dau...

Maitasuna galdu dauanak, ostera, dana galdu dau.

Maitasuna bere izatez betikoa da. Egiaz eta benetan maite dauanak, ezin dau esan: hiru urterako bakarrik maite zaitut, eta gero ez.

Maitasuna gure bihotzetan berez sortzen dan gauza da...

Maitasuna ez da beti bardin agertzen. Maitasuna gaztetan erromantikoagoa da, ameslariagoa. Gero urteakaz maitasuna helduagoa, sakonagoa eta egiazkoagoa egiten da.

Umeak.

Umeak ondo hezi-edukatzeko lehenengo eta beharrezkoena hau da:

familia osotzen daben guztiak alkar maitatzea. Aita eta ama eta etxe-ko beste guztiak alkarregaz ondo eroan, eta alkar maite dabela umeak ikusten badau, haur hori bere etxean zoriontsu biziko da.

Baita alderantziz be: etxekeen arteko haserreak haurrari bizitza guztirako kalte handia egingo deutso, maitatzen ikasi ez daualako...

Umetan sexu jakin-nahia agertzen da, eta gai horri buruz umeak itandu egiten dau. Erantzuna beti egia izan behar da, umeak ulertzeko moduan.

Gazteak.

Ume izatetik gizon-emakume heldua izaterako zubia arriskuz betea da. baina gurasoen maitasun eta pazientziak eragozpen guztiak gaindituko ditu.

Gazteak sexu gaietan egiazko argibide-informazio guztia eskuratze-ko eskubidea dauka. Baina informazio hutsa ez da nahiko. Argibide-ekaz batera, gaztearen bihotza bere buruaren jabe izan daiten atondu behar da. Baita gizarteagaz dituan konpromesurak beteten be ikasi behar dau, ezkondu eta gero familiari eusteko gai izan daiten.

Ezkongaiak.

Gazte bikoteak, ezkondu aurretik, alkar ondo erooten eta maitatzen ikasi behar dabe. Sexu-instintu hutsak eraginda ezkontzara doazanak, batasunean ez irauteko arrisku handian dagoz.

Ezkonduak.

Benetan alkar maitatu behar dabe. Maitasun honek osokoak izan behar dau: gorputz eta arimakoa. Eta bizitza guztirakoa. Egiazko maitasunak, bai zorionean, baita zoritxarrean be, bardin irauten dau.

Maitasunari buruz kristau pentsaera.

Maitasun betea, eta maitasun guztien iturria, Jaungoikoa da. Eta senar-emazteen maitasuna Jaungoikoagandik dator, eta Jaungoikoaren maitasunaren zati bat dala, esan geinke.

Horregaitik senar-emazteak alkar maitatuz, lehenengo euren bihotzeko egarria asetzen dabe, eta gero maitasun horrek Jaungoikoa be maitatzera jasoten ditu.

Eta ezkontzako sakramentuan santu egindako maitasun hori, Jaunak zerutik bedeinkatzen dau, alkartu diranak diranak euren eginbeharrak hobeto bete daiezan.

Ez dago eguzkipean Jaungoikoaren bihotzaren antzekoagorik, gizonaren bihotza baino. Eta zenbat eta egiaz eta gehiago maitatu, hainbat eta Jaungoikoagandik ondorago aurkitzen gara!"

(B)

28. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioak badauka zer esanik, kristau izena daroagun guztiontzat.

Gatxa dala, esango deusku Jesusek, ondasunetan ustea dabenak, Jaungoikoaren erreinuan sartzea. Errezago da gamelu bat jostorraz-begitik sartzea, aberats bat Jaungoikoaren erreinuan sartzea baino.

Aberastasunak gure bihotza lurrera begira ipinten deuskue, hemengo ondasun igeskorak, zerukoak baino gehiago maitatuz.

1. IRAKURGAIK: Jak 7, 7-11

Jaungoikoaren jakituriak esaten deusku, lurreko aberastasunak ez dirala ezer, zeruko ondasunen aldean ipini ezkerro.

2 IRAKURGAIA: Eb 4, 12-13

Jaungoikoaren begiak dana ikusten dabe, baita gure asmo eta gogapen ezkutuenak be.

EBANJELIOA: Mk 10, 17-20

"ERREZAGO DA GAMELU BAT JOSTORRATZ-BEGITIK SARTZEA, ABERATS BAT ZERUKO ERREINUAN SARTZEA BAINO" (Mk 10, 25)

H O M I L I A

(Joan Paulo II. Aita Santuak Ipar-Ameriketan Boston-go stadium zelaian gazteei egindako hitzaldia, 1979. urtean)

"Gazte maiteok:

Gaurko ebanjelioko gazte honek benetan itaun sakona egin eutsan Jesusi: Jauna, zer egin behar dot betiko bizia lortzeko?

Eta Jesusengandik honango erantzun labur baina zorrotza entzun eban: Zatoz eta jarraitu niri. Baina gazte hari aurpegia ilundu egin jakon eta nahigabez joan zan, ondasun askoren jabe zalako.

Zuok, gaurko gazteok be zuen barruan honango itaunak egiten dozu- ez: Zelan bizi behar dogu?. Zertarako bizi gara?. Bizitza honen ostean ba ete da beste bizitzarik?. Eta zer egin behar dogu bizitza hori eskuratzeko?.

Jesusek gazteei eta danoi esaten deusku: Zatoz Nigaz! Nire maitasunean iraun eizu!

Jesusi jarraitzea aukera bat egitea da: Kristoren antzeko izateko aukera. Jesusen maitasun legea beteteko aukera.

Gaurko mundua, zientzia, teknika eta ondo biziteko gaur doguzan ugaritasun guztien gainera, Egiaren egarri da. Maitasun eta Alaitasun gehiago nahi ditu...

Zuok, katoliku zarien gazteok, badakizue gorrotoak eta egoismoak bizi garan mundu hau hondatzeko arriskuan ipinten dabela.

Arazo honen aurrean, batzuk begiak itxi, eta ez-ikusia egiten dabe. Beste batzuk euren egoismo itsuan arazoetatik iges egin gura dabe.

Beste batzuk, azkenez, koropilo guztien askapena, gogorkerian ipintzen dabe.

Baina nik, Jesusen izenean, maitasunezko aukera bat eskeintzen deusuet. Eta Jesusengandik datorren maitasun aukera hau egiten badozue, Kristok Jaungoikoarengana eroango zaitue: txiro, gaixo eta barkartadean diranei laguntza emotera; edo behar bada, abade edo erlijioso izatera. Dana dala, hau edo hori aukeratzen dozuela, zuen bizitza Kristoren antzeko izan daitela.

Gogoratu eizue Kristok, era batera edo bestera, maitasun zerbitzura dei egiten deusuela: hau da, Jaungoikoa eta lagunurkoa zerbitu eta maitatzera...

Eta ostera be ebanjelioko gaztearengana gatozen.

Harek be Jesusen deia "zatoz neugaz" entzun eban, baina arpegia ilundu egin jakon, eta triste joan zan, ondasun askoren jabe zalako. Geuk be, ondasun askoren jabe izateak zoriontsu egingo gaituela, errezegi pentsatu geinke. Baina ebanjelioko gazte honetan garbi ikusten dogu, aberastasun ugariak Jesusen deia entzun eta Berari jarraitzeko eragozpen eta atzerabide handiak dirala.

Gazte hau ez egoan Jesusi "bai" eta bere buruari "ez" esateko presatuta. Maitasunari "bai" eta igeskeriari "ez" esateko erabagita.

Egiatzko maitasunak asko eskatzen dau. Jaungoikoaren nahia egitea aldatz gora da, baina aldatzaren azkenean barruko poza dago. Bizitza beteak emoten dauan poza aurkituko dozu...

Gazte maiteok! Beti aurrera!. Kristoren laguntzaz, eta otoitzaren bidez, Jesusen deiari baietza emongo deusazue.

Jesusen maitasunari, egia eta pozari zabaldu bihotzak. Ez daizuela Jesusengandik bihotz ilun eta triste alde egin".

(Hitzaldi honek stadium zelaiaren egozan milaka eta milaka gazteen eskuetatik "ordu laureneko" txaloak irabazi zituan)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Ni ez naz besteen zerbitzuak hartzera etorri, esango deusku gaurko gaurko egunean Jesusek, besteak zerbitzera baino, eta nire bizia askoren salbamenerako emotera.

Gaurko homilian entzungo dogunez, izan dira, bai, gizon-emakume asko euren bizia senideen alde emon dabenak...

1. IRAKURGAIA: Is 53, 10-11

Jesus, Jaungoikoaren zerbitzariak gugaitik heriotza jasan eban gu salbatuak izan gaitezana.

2. IRAKURGAIA: Heb 4, 14-16

Goazen uste osoz gure abade nagusi dan Jesusengana bere errukia lortzeko.

ABANJELIOAN: Mk 10, 35-45

"GIZONAREN SEMEA EZ DA ETORRI BESTEEN ZERBITZUAK HARTZERA, BESTEAK ZERBITZERA BAINO, ETA BERE BIZIA ASKOREN EROSPEN-SARI EMOTERA"
(Mk 10, 45)

H O M I L I A

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesusek Beragaitik esaten deusku: "Gizonaren Semea askoren salbamenerako bere bizia emotera etorri da".

Badira, zorionez, gaurko gure egunotan be, Kristori jarraituz, euren bizia senideen alde emon dabenak.

Eredu gitxi batzuk bakarrik gogoratu daiguzan.

Martin Luther King.

Ipar-Amerikarra, gizon beltzen eskubideen alde bere bizia emon ebana.

"Gizon-emakume guztiak", esaten eban Luther King Jaunak, "zuriak eta baltzak, eskubide bardinen jabe izanik, alkarren anaitasunean eta bakan bizi daitezana, lan egin gura neuke. Badakit nik, baltzen alde jarten banaz, zurien haserrea sutuko dodala, eta horregaitik hila izan naitekela. Baina halan bada be, baltzei egiten jaken injustizien aurka, heriotzera arte, ekin gura neuke".

Eta halan izan zan. 1968. urtean Memphis hurian balaz zulaturik hila izan zan.

Maximiliano Kolbe. Poloniarra.

Munduko bigarren gerra biztu zanean, aleman naziak Auschwis-ko kontzentrazio zelaira eroan eben.

Heriotz-zelai haretatik prisioneru batek iges egin ebalako, ordaintan, beste prisioneruen artean hamarretik bat, tokatzen jakona, hila izango zan.

Heriotzarako aukeratuen artean seme-alabak zituan ezkondu bati tokatu jakon hila izatea. Orduan Maximilianok zelaiko agintari nagusiari esan eutsan: Bardin bada, prest nago ni ezkondu horren ordezkilteko. Horrek emaztea eta seme-alabak ditu, eta nik ez.

Maximiliano Kolbe, fraile frantziskotarra, aste bi "bunker" batean ezer jan eta edan barik egon ondoren, "azido muriatiko" iniekzinoz hila izan zan. Gaur santuen altaretan dago.

Monseñor Oskar Romero. Salvatore-ko gongotzaina.

Ertameriketako Salvatore nazinoan 14 familia dira hango ia lur guttien jabe. Aberats gitxi honeen menpean harria zapalduta bizi da.

1932. urtean herria bere eskubideen alde jagi zanean, militarrek 30.000 herritar hil ebezan.

Oskar Romerok, herria gosez egoala ikusirik, bildur barik dei egin eban: Hilten banabe be, Salvatoreko herriari egiten jakon zapalke-taren aurrean, ez naz isilduko.

1980. urtean Monseñor Oskar Romero elizan meza emoten egoala, altare aurrean tiroka hil eben.

Kalkutako Ama Teresa. Yugoeslabian jaioa.

Gazterik lekaime sartu, eta Indiako Kalkuta hurira misiolari joan zan. Eta hango jendeen miseria ikaragarria ezagutu eban.

400,000 pertsona dira Kalkutan zer jan eta etxe barik, kale gorrian bizi diranak. Kale bazterretan egunero ehundaka hilak ikusten dira goseak, tifus edo kolerak jota.

Ama Teresak lurtean abandonatuta aurkitzen dituanak bere aterpera eroaten ditu zaintzeko, edo behintzat hil aurretik maitasun apur bat emoteko. Ama Teresa 1980. urtean "Bakearen Sari Nobel" izentatua izan zan:

Indiako txiroen alde bere bizia eskeindu dauan lekaime honen agotik sarri entzuten dira honango gauzak: "Pobreen alde zerbait egiten edo emoten dozuenean, limosnagaz batera bihotza be emoizue".

(B)

30. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus gaurko ebanjelioan, jaiotzaz itsu bati begietako argia emoten ikusiko dogu.

"Jesus, Dabiden Seme, erruki zakidaz", deadar egiten eutsan itsuak Jesusi. ETA Jesusek: "Zure sinismenak osatu zaitu".

Sinismena edo fedea Jaungoikoak guri doan-gratis emon deuskun arimen begien argia da. Guk be, Jerikoko itsuak lez Jesusi dei egin deio-gun: Jauna, Zu barik ariman itsuak gara. Fedearen argia emoiguzu!

1. IRAKURGAIA: Jr 31, 7-9

Jeremias profetak Israel herriari dinotso: alaitu zaitetz. Jaunak bere herria salbauko dau.

2. IRAKURGAIA: Eb 5, 1-6

Jaungoiko Aitak bere Sene Jesus abade nagusi egin eban, gure pekatuen orde z opariak eskeintzeko.

EBANJELIOA: Mk 10, 46-52

"JESUSEK ITSUARI ESAN EUTSAN: ZOAZ, ZURE SINISTEAK OSATU ZAITU"
(Mk 10, 52)

H O M I L I A

Sinismena edo fedea arimaren argia da.

Ez-sinistetik sinismenerako bidea askotan luzea eta aldatz gorakoa da. Baina gogo eta asmo onez argi-bila dabilenak, azkenean, bidearen buruan Jaungoikoa aurkituko dau.

Argibide bat ipini daigun:

Jaques eta Raissa Maritain senar-emazteak, neke eta zalantza askoren artean, zelan Jaungoikoa aurkitu eben, Raissa Andreak berak kontatuko deusku:

Hamasei urte nituan. Gaztetan gauzak garbiago ikusten dira, eta ni be neure burutik pentsatzen hasi nintzan.

Pariseko unibertsitatean ikasle nintzan, Sorbona famatuan. 1914. gerra aurreko urteak ziran. Garai haretan zientziazko deskubrimentu handiak egin ziran; eta nik, beste askok lez, zientziaz dana eskue-tan eukiko genduala, uste neban.

Geologia ikasi neban, baita fisiologia, botanika eta enbriologia be.

Honan izadian, naturan, zer jazoten zan jakin neban. Baina hau ez zan niretzat nahiko.

Nik naturan "zer" jazoten zan bakarrik ez, baita "zergaitik" hori jazoten zan, jakin gura neban...

Behin nire irakasle bati (Lapique eban izena) itandu neutsan: Zuk, jauna, arrautze batetik txitak zelan ateratzen dan irakatsi deuskuzu, baina nik jakin gura neuke "zergaitik" edo "nork" emoten deutsan arrautze horri, halango bero-gradutan jarri ezkerro, txita bizia ateratzeko indarra?

Eta irakasleak erantzun eustan: Zuk hori halan dala jakin eizu. Zergaitik halan jazoten dan, zure jakin-gura hori, mistikuen ames zoro bat besterik ez da. Erantzun kaskar honegaz Sorbonako irakasleengan neban konfiantza osoa galdu neban.

Baina nik beti "Zergaitik, zergaitik" itaun hori neure buruari egiten neutsan. Eta inork be ez eustan erantzun egokirik emoten...

20 edo 21 urte nituala nire ikaskide lagun bat ezagutu neban. Mutil zintzoa zan. Beti eta edozeini laguntza emoteko prest egoan. Poeta zan, baita filosofo be. Jaques Maritain zituen izen-abizenak. Harek be nire "zergaitik" hori buruan satuta eukan. Biok Egiaren bila genbiltzan. Zergaitik eta zertarako bizi gara? Ona ala gaiztoa izatea bardin ete da?. Non dago Egia?...

Behin nik Jaquesi esan neutsan: Egia non dagoan, eta mundu honetan zertarako gagozan ezin badogu jakin, hobe dogu geure buruak hil, eta akabo. Ni ilunpe honetan ezin naz bizi...

"Egi-bila" honetan nenbilela Leon Bloy jakintsuaren liburu bat irakurri neban. Liburu haretan honango zerbait esaten eban: Egia jakiteagaitik bizia emongo neuke. Justizia maite dot. Jaungoikoaren bila nabil.

Jaquesek eta biok gutun bat egin geuntsan, guk be problema bardina geunkela adierazoz. Harek berehala erantzun euskun, esanaz: Gazte maiteok: ni zaharra naz, baina hil aurretik zuek ezagutzea gura neuke. Triste dagoenari poz apur bat emotea, hori da nire atseginik handiena. Zatoze nigana.

Joan ginan, bada, Leon ikustera. Oso pozik hartu ginduzan bere etxean. Oso pobre bizi zan. Gu ez ginala kristauak esan geuntsan. Eta gero itaun hau egin geuntsan: Munduko aberastasunak itxi, eta hain pobre biziteko indarra nondik ateraten dozu?. Nork emoten deustu bihotzeko poz hori?. Leonek erantzun euskun: Fedeak. Jaungoikoak. Hori da nire indarra eta poza... Leon guretzat profeta bat izan zan. Jaungoikoak bialdutako argi bat. Handik urte betera Pariseko eliza txiki batean bateoa hartu genduan. Leon izan zan gure aitabitxi. Ez dot sekula halango pozik sentitu". Raissa Maritain.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Idazlari batek itandu eutsan Jesusi: Zein da Jaungoikoaren legeko agindurik nagusiena?. Eta Jesusek erantzun eutsan: Hau da lehenengoa, maitatu eizu zure Jaungoikoa bihotz-bihotzez...

Baina gero jarraian esan eutsan: Eta bigarrena horren parekoa da: Maitatu eizu lagunurkoa zeure burua lez. Agindu bi honeetan biltzen da erlijino guztia.

Gaurko Eukaristia honek lagundu daigula Jaungoikoa eta lagunurkoa zertxobait gehiago maitatzen.

1. IRAKURGAIA: Dt 6, 2-6

Moisesek Israel heriari dinotso: maitatu eizu Jaungoikoa bihotz-bihotzez, zorioneko izan zaitezaz.

2. IRAKURGAIA: Heb 7, 23-28

Jesus da abade nagusi eta santua, bere gurutzeko odolaz gu salbau gaituana.

EBANJELIOA: Mk 12, 28-34

"HAU DA LEHENENGO AGINDUA: MAITATU EIZU ZURE JAUNGOIKOA BIHOTZ-BIHOTZEZ. ETA MAITATU EIZU LAGUNURKOA ZEURE BURUA LEZ"

(Mk 12, 29-33)

H O M I L I A

(Paulo VI. Aita Santuak Bogotako Eukaristi Batzarrean egindako hitzaldia, 1968. urtean)

Senide, seme-alaba eta Kristogan lagun guzti maiteok:

Bogotako Eukaristi Batzar honetan berba bi esan gura deusuedaz.

Eukaristia maitasun lokarri da. Jesusek Eukaristia eragin ebanean, gugaz bat eginik bizi gura izan eban; bere gorputza janari, eta bere odola edari emoteraino.

Baina Eukaristiaren ogiaz bizi garanok, gure maitasuna senideengana luzatu behar dogu. Eukaristiagaitik bizi danak maitasunaren alde lan egin behar dau. Maitasuna da danok senide lez biziteko emongo deuskun indarra.

Eta maitasuna esaten dodanean, lehenengo eta aurrengo, Jaungoikoa maitatzea esan gura dot. Baina Jaunari zor deusagun maitasun hori gure inguruko gizon-emakume guztiengana zabaldu behar dogu.

Baina hemen zagozen guztioi esaten deutsuet: Maitasuna egintza onakaz alkartu barik, agoko berbetan eta bihotzeko sentimentu hutsetan ipinten badogu, ez dogu mundu barri bat eregiko...

Maitasuna eta justizia.

Maitasunak aurretik justizia eskatzen dau, bakotxari berea emonez, danok bardintasunean bizi gaitezaz.

Askok, gazteak batez be, uste dabe ez dala gure gizartean justizia nagusi izango gogorkeriara jo barik. Badakit nik, gogorkeriara jo dabenen asmoak, askotan, onak eta zuzenak izan dirala, baina halan be, gu hemen adierazo beharrean gagoz, gogorkeria ezin dala Kristoren ebanjelioagaz alkartu, eta ez dala egokia gure artera justizia ekarteko.

Gizartean egin behar diran aldaketak, barrutik egin behar dira: herriari eskolen bidez kultura emonaz, lana eta bizibideak eskeinduz, aginpidean parte hartzen erakutsiz, danok gizakiari zor jakon duintasunean bizi gaitezaz...

Bat-batean eta indarrean egiten diran aldaketak askotan herriaren onerako baino, txarrerako gehiago izaten dira.

Zuoi, kultura dozuenoï eskatzen deutsuet:

Egia maita ezazue. Zuok zarie Egiaren zabaltzaileak. Irakatsi zuen herriari gizaki eta kristau lez askatasunean biziten.

Zuoi, langileoi, eskatzen deutsuet:

Zuen eskubideak defenditzeko alkartu zaitezze. Justizia eskatu eizue, baina gorroto eta odolik isuri barik.

Zuoi, agintarioi, eskatzen deutsuet:

Herriaren onaren alde lan egizue. Entzun herriaren deadarrak, ogi eske, justizia eske, euren eskubideen eske.

Egin lehenbailehen herria jasotzeko egin behar diran aldaketak: txiroen alde, baztertu eta zapalduen alde. Jakin eizue aldaketa honeek lehen bere garaian egin izan balira, ez zala gaur hainbeste odol isuriko...

Zuoi, familiako gurasoi, eskatzen deutsuet:

Zuen etxeak, maitasunean, zeru txikiak izan daitezala. Zuen etxe bako-txa maitasun-habi izan behar leuke.

Eta guztoï eskatzen deutsuet: Gizarte barri bat eragin gura badogu, alkarren maitasunean oinarritua izan daitela. Lan honetan Kristo da gure eredu, bide-erakusle eta gurrelari".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan emakume alargun txiro bat ikusiko dogu Jerusalemgo elizan txanpon bi diru-kutxara botaten.

Txanpon bi gauza hutsa gizonen begietan, baina Jesusek esango deus-KU: Emakume alargun honek diru-kutxan beste guztiak baino gehiago itxi dau.

Jaunak kanpoko itxurari baino, barruko bihotzari gehiago begiratzen deutso.

1. IRAKURGAIA: 1 Erg 17, 10-16

Sareptako andra alargunak Elias profetari, berak jateko eukanapurra eskeindu eutsan. Baita Jaunak alargunaren oparia ugari bedeinkatu be.

2. IRAKURGAIA: Eb 9, 24-28

Kristoren gurutzeko opari bakarra nahiko izan zan, gizaki guztien pekatuak parkatzeko.

EBANJELIOA: Mk 12, 38-44

"ALARGUN GAIKO HONEK, DIRU-KUTXAN BOTATEN DABEN BESTE GUZTIAK BAINO GEHIAGO BOTA DAU" (Mk 12, 43)

H O M I L I A

(Joan Krisostomo-ren homilian oinarritua)

Handia da Jaunaren begietan limosnaren balioa. Urak sugarra itoten dau, dino Liburu Santuak, eta limosnak pekatuak parkatzen.

Eta Daniel profetak Nabukodosor erreagi dinotso: Jauna, garbitu eizuz zure gaiztakeriak limosna emonez.

Eta aingeruak Tobiasi esan eutsan: Limosnak heriotzatik gorde eta pekatu guztien parkamena emoten dau.

Eta gaurko ebanjelioa argituz, Agustin santuak dinosku: Emakume alargun txiro harek txanpon bi, huskeri bat, emon eban elizari laguntzeko, baina Jesusen eretxiz beste aberats askok baino gehiago emon eban. Zergaitik hori? Maitasunez emon ebalako. Jaungoikoak ez dau begiratzen zenbat emoten dogun, zelango maitasun eta gogo onez emoten dogun baino. Gizonak kanpoko itxurari begiratzen deutso, baina Jaungoikoak barruko bihotzari.

Limosna emotea zer dan.

Limosna ez da diru emotea bakarrik, dino Joan Krisostomo santuak. Dirua badozu behartsuen artean zabaldu eizu. Inor gaixorik badago zoaz ikustera. Zure lagunen bat oker bidetik badabil, bide onera etortzen lagundu eiozu. Edozelango mesede bat egitea, limosna egitea da.

Limosna zelan egin behar dan.

Limosna egitean, dino Jesusek, ez ibili turuta jotzen, itxurazaleak kaleetan egiten dabenez lez jendearen txaloak irabazteko; zuk limosna egitean, ez bei jakin zure esku ezkerak, zer egin dauan eskumak, eta ezkutuan be ikusten dauan zeruko Aitak emongo deus ordaina.

Eta Paulo apostoluak Korintoko kristauei idazten deutse: Emon daiala bakotzak bere kontzientzian erabagi dauana, baina ez gogo txarrean, eta behartuta lez. Alai emoten dauana maite dau Jaunak (2 Kor 9, 7)

Limosnak zergaitik pekatuak parkatzen dituan

Diru-emote hutsa ez da benetako limosna emotea. Diruagaz batera bihotza be emon behar da.

Gogoratu eizu, txiro, gaixo eta baztertuetan Kristo bera dagoala, eta limosna emoterakoan Kristo berari emoten deusazula. Honan egiten badozu, zuk Kristori limosnea emoten deusazu, eta Kristok zuri, ordainetan, bere grazia emongo deus, eta parkamenaren zerua.

Halan irakasten deusku Jesusek "etxe-zain argiaren" parabolan:

"Zuon diruaz limosnak eginik, irabazi eizuez adiskideak zeruetan; eta bizitza amaitzean Jaungoikoak betiko bizilekuan hartuko zaitue.

Eta Joan Krisostomo deunak dino: Zure limosna zeruetan Jaungoikoaren aurrean dago, eta zure alde otoitz egiten dago, damuturik, bihotz barritu zaitez.

Ez da urik gorputzeko zikinak hain ondo garbitzen dituanik, limosnak arimako pekatuak langorik.

Pobreak dira, dino santu honek, gure ongilerik handienak. Hartzen dozuna gehiago da, emoten dozuna baino.

Dirua emoten dozu, eta zerua hartzen. Lurra emoten dozu, eta zerua irabazten. Limosna eginez lur honetan, dirutza handia izango dozu zeruetan, han ez da lapurrik ostuko deusunik. (Mt 6, 20)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jauna noiz etorriko dan zain egon behar dogula, esango deusku gaurko ebanjelioak. Baina ez bildurrez eta ikaraz, pozez eta itxaropenez baino.

Jesus, zeru-lurretako jabea, aintzaz beterik, mundua epaitzera dato-
rreanean, bakotxari norberak irabazitakoa emongo deutso.

Egun handi haretan geu be zerurako aukeratuen artean izan gaitezaz,
eskatuko deusagu Eukaristia honetan gure Jaunari.

1. IRAKURGAIA: Dan 12, 1-3

Munduaren azkenean hildakoak biztuko dira: zintzoak betiko zorione-
rako, eta gaiztoak betiko lotsarako.

2. IRAKURGAIA: Eb 10, 11-14. 18

Kristok bere gurutzeko opariaz, gu santu egin gaitu, eta orain zerue-
tako erreinuan Jaungoiko Aitaren eskumaldean jarrita dago.

EBANJELIOA: Mk 13, 23-32

"ORDUAN, GIZONAREN SEMEA HODEI ARTEAN AHALMEN ETA AINTZAZ BETERIK
ETORTEN IKUSIKO DOZUE" (Mk 13, 26)

H O M I L I A

(Vatikanoko II. Kontziliotik hartuta. "Lumen Gentium")

Munduaren azkenari buruz Vatikanoko II. Kontzilioak zera irakasten
deusku:

"Kristorengan sinisten dogun guztiok, gauza guztiak munduaren azkenean
barri egiten diranean, zeruko aintzan izango dogu zorion betea.

Munduaren barritzea, bada, erabagita dago.

Baina justizia bizi dan zeru barriak eta lur barriak datozen bitarte-
an, ume-egiteko-minez dagoan emakumea lez bizi gara, Jaungoikoaren
seme-alaben agertaldi beteari itxaroten. (Erm 8, 19)

Kristogaz bat eginik, Jaungoikoaren seme-alaba izena daroagu, baita
izana be. 1 Jn 3, 1)

Oraindik ez gara Kristogaz Jaungoikoaren aintzan agertu. Baina gizaldi
guztien azkenean, gure bizia Kristo dena agertzen danean, gu be Hare-
gaz batean aintzaz beterik agertuko gara, eta Kristo Jaungoikoaren
antzeko izango gara, Bera dan lez ikusiko dogu eta. (Jn 3,2)

Bizi garan bitartean, Jaungoikoagandik urrun gagoz, erbestean lez. (2 Kor 5, 6) Eta Espirituaren doeak orain badaukaguz be, geure barruan negarrez gagoz, noiz Jaungoikoaren seme-alaba izatea bete-betea lortuko dogun, eta noiz Kristogaz egongo garan, gurari bizian.

Maitasun honek indar egiten deusku, gugaitik hil eta biztu dan Harrentzat, geroago eta ondorago, bizi gaitez an (2 Kor 5, 15) Horregaitik ahalegintzen gara Jaunari atsegingarri izaten (2 Kor 5, 9) Eta Jaungoikoaren armak jazten ditugu deabruaren maltzurkeriei gogor egiteko.

Eta Jauna noiz etorriko dan ez egunik, ez ordurik, ez dakigun ezker, Berak agindu euskun lez, zain egon behar dogu beti, mundu honetako bizitzaren azkena jatorkunean, zeruko ezteguetara sartzea, eta zeruetako aukeratuen artean aurkitzea, merazi daigun. Morroi gaizto eta alperraren antzera betikougarretara amilduak izan ez gaitez an. (Mt 25 31-46)

Baina aintzaz betetako Jaunagaz zeruetan gu be errege izan aurretik, Kristoren auzitegian agertu beharra dogu, bakotxak berea hartzeko, ona ala txarra, bere gorputzaren bidez egin dauanaren legera. (2 Kor 5, 10) Eta azkenez "ona" egin dabenak betiko bizitzarako biztuko dira, eta "txarra" egin dabenak, hondamendirako. (Jn 5, 29)

Beraz, oraingo lan eta nekeak gero zeruetan guregan agertuko dan aintzaren aldean, ezer ez dirala jakinik, fedean sendo, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko dan, beti zain egon behar dogu. (Tit 2, 23) Honan bizi bagara Kristo biztuak gure gorputz ezerez hau, bere gorputzaren antzeko egingo dau.

Halan bada, gizaldi guztien azkenean, Jauna aintza handitan, aingeruekaz batera, mundua epaitzera etorriko da. Eta heriotzea hondatuta, zeru-lurreko izaki guztiak bere oinazpian ipiniko ditu. (1 Kor 13, 14)

Eta Kristok bere erreinua Jaungoiko Aitari emoten deusanean, Jaunaren aintzazko etorrera burutua izango da"

JESUKRISTO GURE JAUNA DIRAN GUZTIEN ERREGE

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Liturgi urtearen azken domeka honetan, Kristo Erregeren jaia ospatzen dogu.

Baina Kristoren erregetza ez da mundu honetako erregeen antzekoa. Kristoren erreinua, bake, maitasun eta parkamenaren erreinua da.

Kristo ez da inori mundu honetako erreinua kentzera etorri, zeruetako erreinua danoi emotera baino.

1. IRAKURGAIA: Dn 7, 13-14

Mesiasi zeru-lurretako nagusitza dagokio, eta Haren erregetzak ez dau azkenik izango.

2. IRAKURGAIA: Ap 1, 5-8

Jesukristo, hilen artetik biztuak gu maite gaitu, eta Beragaz batera zeruetan gu be errege egingo gaitu.

EBANJELIOA: Jn 18, 33-37

"PILATOK JESUSI: ERREGE ZARA, BERAZ?. ETA JESUSEK PILATORI: BAI, ERREGE NAZ. BAINA NIRE ERREGETZA EZ DA MUNDU HONETAKOA" (Jn 18, 36-37)

H O M I L I A

("Quas Primas" Enziklikatik ideak hartuta)

Kristo Erregeren jai hau Pio XI. Aita Santuak eragi eban 1925. urtean "Quas Primas" izeneko Enziklikaren bidez. Eta honango hau esaten deusku eliz-dokumentu honek:

Itun Zahar eta Barriaren lekue askotan Mesias Errege agertzen da:

Jesus jaio aurretik Gabriel aingeruak Mariri esan eutsan: Seme bat izango dozu, eta Jaungoiko Jaunak Haren aita Dabiden errege-aulkia emongo deutso, eta Haren erregetzak ez dau azkenik izango (Lk 31-33)

Izarraren atzetik etorri ziran magoak be, Jerusalemene itandu eben: Non dago jaio barri dan juduen erregea? (Mt. 2,2)

Gurutze buruan be idazkun hau ipinita egoan: Jesus nazarretarra, juduen erregea. (Jn 19,19)

Kristo zergaitik dan Errege?

Arrazoi bi ditu Kristok Errege izena eta izana beretzat hartzeko.

1. Jaungoikoaren Seme izanik, jainko-izate osoa berari zor jakolako. Kristo Jaungoiko danez lurreko eta zeruko izaki guztiak Berak eginak dira, eta horregaitik Kristo diran guztien jaun eta jabe da.
2. Kristok bere gurutzeko odolaz, gu erosi eta deabruaren menpetik atera gaitualako, San Pedrok bere lehenengo epistolari dinoskun lez: Ez zarie gauza ustelkorrez erosiak izan,- ez urrez, ezta zidarrez - Bildots erru eta zikin bako dan Kristoren odolez baino. (1 Ped 1, 18)

Kristoren erreinuko Lege Nagusia

Kristok bere menpeko ei erreinuko Lege Nagusi bat emon eutsen: Agindu barri bat emoten deusuet: Maite eizuela alkar alkar, nik maite zaituedan lez. Honetan ezagutuko dabe guztiak nire ikasle zariela: alkar maite badozue. (Jn 13, 34-35)

Kristoren erreinuko arerio bakarra Satanasen erreinua da: Harroke-riaren, gorrotoaren eta guzurraren erreinua...

Kristo Errege dala hobeto ulertzeko gizon santu batzuen autor-
menak ekarriko dodaz:

Ambrosio santuak esaten deusku: "Jakituria maite badozu, Jesus da azken bako jakituria. Ontasuna maite badozu, Jesus da ontasun hutsa.

Egia, bizia eta maitasuna maite badituzu, Jesus da hori eta askoz gehiago".

Loiolako Inazio santuak Portugaleko jesuita gazteei idazten deutse: Ona da infernuaren bildurra, zeruko itxaropena hobea, baina ontasun guztietan onena Kristo gure Erregea maitatzea".

Pio XI. Aita Santuak gorago aitatu dogun "Quas Primas" enziklikan esaten deusku: "Ez da izan munduan, ezta izango be, Jesukristo baino maiteago izan danik".

Eta Joan XXIII. Aita Santuak dino: "Kristo da gizaldi guztietako fruturik ederrena. Zerurako bidean galdu ez gaitez an Jesus da gidari bakarra. Ilunpetan ez biziteko egiaren argi bakarra. Betirako ez hiltēko bizitza bakarra. Jesus maitatu barik, nire bizitzak ez dauka zentzunik":

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Andra Maria Sortze Garbiaren jaia ospatzeko etorri gara gaur eukaristia honetara. Andra Maria, bere Seme Jesusen irabazien bidez, Adanen jatorrizko pekatu barik sortua izan zan...

Jaungoikoaren ama izango zanak ezin eikean edozelango pekatuaren zikinik beragan euki...

Andra Maria, Jaungoikoaren ama sortzez garbiak, gure alde zeruetan otoi egin daiala...

1. IRAKURGAIA: Gn 3, 9-15. 20

Gure lehenengo guraso Adani, paradisuari pekatu egin ondoren, Jaungoikoak salbatzaile bat eskeindu eutsan. Salbatzaile hori emakume baten, Mariaren bitartez, etorriko zan.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-6, 11-12

Jaungoikoak gu, bere maitasun hutsez, zerurako aukeratu gaitu, Kristoren irabaziei eskerrak. Eta aukeratuen artean lehenengoa Maria izan zan.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

"AINGERUAK MARIARI ESAN EUTSAN: POZTU ZAITEZ GRAZIAZ BETE HORI. JAUNA ZUREKIN: SEME BAT IZANGO DOZU, ETA GOI-GOIKOAREN SEME DEITUKO DEUTSOE" (Lk 1, 28-32)

H O M I L I A

(Elias Moradela, Granadako parrokoaren homiliatik hartuta. "Vida Nueva" 1981. Hirtean, 47. 1659-1660 orr)

"Maria, Jesusen ama, Nazaret herriko neska gazte bat zan; txiroa, langilea eta apala... Jaungoikoaren grazia eta maitasunez betea...

Hamabost-hamasei urte zituala Maria, Jose izeneko mutil jator batez ezkondu zan, alkar maiteminduta egozalako. Egun batean, zerutik jatsitako aingeru batek Mariari Jaungoikoaren ama izango zala, esan eutsan. Eta birjinaren sabelean Jaungoikoaren Semea gizon egin zan... Baina Maria, Jaungoikoaren ama zala-eta, ez zan harrotu... Nazaretoko bere etxe pobrean, ezer gertatu ez balitz lez, Mariak bere eguneroko lanari ekin eutsan.

Ama izateko sasoi heldu jakonean, bere senar Josegaz Belenera joan beharra izan eban, eta herri haretan egoala, estalpe zahar batean abere artean, bere semea mundura ekarri eban.

Gero, Herodes erregeak umea hil gura ebalako, Ejiptora iges egin beharrean aurkitu zan. Eta bi-hiru urte erbestean igaro ondoren, bere senar eta umeagaz, Nazaretoko bere etxera itzuli zan; eta han isil eta humil, Mariak, herriko beste edozein emakumek lez, eguneroko zereginetan lan egiten eban: etxea garbitu eta txukundu, bazkaria prestatu, erropak garbitu eta abar...

Nazaretoko familia, Jesus, Maria eta Jose, ez zan aberatsa, ezta jakintsua be; baina hirurak maitasunez bihotz bateko izanik, bai zoriontsu eta pozik bizi zirala! Nazaretarrak esaten eban: Joseren emazte Maria, bai emakume maitagarria dala!. Eta bere semea, bai mutil jatorra!.

Mariaren seme Jesus, hogeita hamar urtegez herriz-herri Jaungoikoaren Barri Ona zabaltzen hasi zanean, bere amak, beste emakume batzuekatz batera, bere semeari ahal eban guztian laguntzen eutsan.

Mariak, bere semearen mirari harrigarriak ikusten zituanean, gauza guzti hareek bere bihotzean gordetzen zituan.

Baina, Jerusalemgo agintariak Jesusen aurka jarri ziranean, Mariaren semea preso hartu, eta gurutzean josi eban. Orduan be han egoan bere ama, gurutzearen oinetan zutik, bihotza alderik alde zulataturik, bere neke-minak gure salbamenerako bere semearekin batera eskeintzen.

Eta bere semea hirugarren egunean biztu, eta zeruratu zanean, ama apostoluen ondoan geratu zan, bere semearen jarraitzaileei laguntza emoten...

Eta Mariaren bizitza azken aldera heldu zanean, semeak bere ama besoetan hartu, eta gorputz eta arimaz, zeruko aintzara jaso eban, han izaki guztien erregin lez koroiatzeko.

Eta orain Maria Jaungoikoaren erreinuan bere seme Jesusen ondoan dago, atertu barik bere Semeari gure alde eskatzen, berak hartu dauan zeruko zoriona, guk be lortu daigun.

Maria da gure eredu bizitza honetan, bere antzeko izan gaitzean. Maria da gure lagun eta zaindari zeruko bidean.

Maria da gure ama ona bere seme Jesus Jaungoikoaren ondoan.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Andra Maria, Jaungoikoaren Amaren gorputz eta arimaz zerura jasotzearen jai ospatzen dogu gaurko eukaristia honetan.

Jaungoiko Aitak Nazaretoko neskatxa apala aukeratu eban bere Seme Jesus gizon egindakoaren ama izateko.

Eta Maria Birjina, Jaungoikoaren ama dalako, gorputz eta arimaz zeruratua izan zan, bere seme Jesusen ondoan zeruko erregin izateko, eta handik gure alde otoitz egiteko.

1. IRAKURGAIA: Apk 11, 19a; 12, 1-6, 10

Apokalipsis liburuan emakume bat agertzen da eguzkiz jantzia, ilargia oinpeko, eta hamabi izardun koroia buruan. San Joaneke Eleizarentzat esaten dauana, guk Mariagaitik esan geinke.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 20-26

Adanek guztioi heriotza ekarri euskun lez, Kristok betiko bizia emoten deusku. Kristo izan zan hilen artetik biztutako aurrena, gero bere ama Maria izan zan zerura jaso.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-56

"BEDEINKATUA ZU EMAKUMEEN ARTEAN, ETA BEDEINKATUA ZURE SABELEKO FRUTUA" (Lk 1, 42).

H O M I L I A

(Paulo VI.aren "Marialis Cultus" Exhortatio Apostolikatik ideak hartuta. 1974. urtean)

"Eleizaren liturgi urtean asko dira kristinatu herriak Mariaren omenez ospatzen dituan jaiak. Eta honeen artean lau dira gorengoak.

Abenduak 8, Maria Sortze Garbiaren jaia.

Urte barria hastean, Maria Jaungoikoaren amaren eguna.

Martxoak 25, Jaungoikoaren Semea Mariaren erraietan gizon egin zan eguna.

Abuztuak 15, gaurko eguna, Andra Maria gorputz eta arimaz zerura jaso izan jaia. Mariak zeruko zoriona bete-betea eskuratu eban eguna.

Maria, Jaungoikoaren ama zalako, gorputz eta arimaz guztiz garbi, eta graziaz bete izan zan, eta orain zeruan bere Seme Jesusen ondoan izaki guztien gainetik aintzaz beterik aurkitzen da.

Kristinau herriak beti eta alde guztietan Jaungoikoaren ama Mariari gurtza edo kultu berezia emon deutso. Eta Mariaren gorentasun berezi honen sustarra hau da: Jaungoikoaren ama dalako. Horregaitik Maria Jaungoikoaren alaba maiteena, eta Espiritu Santuaz beterik dagoan Egoitza da. Eta grazia honegaitik Maria zeru eta lurreko izaki guztien gainerik jarria da.

Jaungoiko Aitak, bere maitasun neurribakoan, Maria maite izan eban, eta maite izan ebalako "Mariagan gauza harrigarriak egin zituan"

Jaungoikoak Maria maite izan eban bere Semearen ama zalako, baina baita be gure ama dalako. Eta gure ama danez, orain zeruetan gure alde otoizka dago, geuk be betiko zoriona lortu daigun.

Baina Mariari deusagun maitasun-debozinoa zuzen ulertu behar da.

Kristo dogu Jaungoikoarengana joateko bide bakarra. Kristo da gure eredu eta maisu bakarra. Eta guk geure bizitzan Jesusen antzeko izaten ahaleginak egin behar ditugu, Kristoren espiritua geure espiritu egin arte.

Baina Eleizak, Espiritu Santuak lagundurik, Andra Mariari deusagun debozinoa, (Salbatzaileari zor deusagun maitasunaren menpean), balio handikoa dala autortzen dau, gure arimetan Kristoren bizitza barritu eta indartu daigun.

Eleizak Mariari eskeintzen deusagun gurtza edo kultua, eta maitasuna honetarako bakarrik dira: Mariaren Seme Jesus Jaungoikoa goratzeko, eta kristinau guztiok Jaungoikoaren borondatea egitera gu bizkortzeko.

Ebanjelioko halango emaku ha gogoratu daigun. Emakume harek jende artetik deadarka esan eutsanean: "Zorionekoak Zu ekarri zintuan sabela, eta Zu hazi zintuen bularrak", Jesusek beste hau erantzun eutsan: "Zorionekoak, bai, Jaungoikoaren hitza entzuten eta beteten dabenak" (Lk 11, 27-28)

Erantzun honek guri be Jaungoikoaren bide zuzenetik ibiltea eskatzen deusku, Jesusek esana guretzat egia izan ez daiten: "Niri, Jauna, Jauna, deika dabiltzanak, ez dira danak zeruetan sartuko; zeruetan dagon nire Aitaren nahia beteten dabenak baino" (Mt 7, 21)

Honek esan gura dau: Andra Mariari deusagun jaiera edo debozinoa ez dogula hainbestean gure errezu, kantu eta goralpenetan ipini behar, Mariaren antzera maitagarri, apal, zuzen eta zintzoak izatean baino.

Maria zerura jasoak bere Seme Jesusen nahia beteten lagundu daigula".

(B)

SAN JOSE

ANDRA MARIA BIRJINAREN SENARRA (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Nazareteko familia santuaren buru, Jose Dohatsuaren jaia ospatzen dogu gaur.

Jose gizon zintzoa, Mariaren senar garbia da. Jesusen aita-ordekoa, Eleizaren zaintzailea. Langileen eredu. Heriotza onaren zaindaria.

Jose gizon santu eta apalak bere antzeko izaten lagundu deiskula.

1. IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 22

Natan profetak esaten deusku Dabid erregearen ondorengoaren artetik jaioko zala Mesias. Jose Dabiden odolekoa zan.

2. IRAKURGAIA: Err 4,13. 16-18. 22

Jaunak Abraham zintzoari zin egin eutsan: lurraren jabe eta herri askoren aita egingo zaitut. Jose Dohatsua Eleizaren zaindaria da.

EBANJELIOA: Mt 1, 16. 18-21. 24a

"JAKOBEK JOSE SORTU EBAN, MARIAREN SENERRA" (Mt 1, 16)

H O M I L I A

Jose Dohatsua zelango santu handia izan zan erakusteko, Mariaren senarrari buruz santu batzuen hitzak gogora ekartea litzaketela biderik egokiena iruditu jat.

Bostgarren gizaldian bizi izan zan Pedro Krisologo eleizaren irakasle santuak, Jose Deunari buruz honango hau dino:

"Ebanjelio santuak dino Jose dohatsua gizon "ZINTZOA" zala. Zer esan gura dau "ZINTZOA" izateak?. Gizon on-ona zala, akats-bakoa, onbidez betea.

Eta ezkondu aurretik "ZINTZOA" bazan, gero bere emazte Mariaren ikasbide eta ejemplo onak ikusirik, "ZINTZO" izate honek goraka handiagoa egingo eban. Orduan Jose gizonik "ZINTZOENA" zala guk esan behar".

Sienako San Bernardino sermoilari sutsuari Jose Deunaren goralpenak abesten entzun deiogun:

"Jose Dohatsuaren santutasunak zelan ez eban ,ba, askoz eta beti gehiago irabaziko, Nazareteko etxean Jesusen ondoan hainbeste urte-tan bizi izanik?.

Jesus haurraren berbak entzun, Haren ikasbide onak ikusi, Jesus gazteagaz harostegian lan egin eta gero, ba ete da gizonik eguzkiaren ondoan egonda, honen berotasuna sentiduko ez dauanik?. Jesus eta Mariaren ondoan bizi eta gero, zelan ez izan santua, eta zeruko ondasunez betea?".

Klarabaleko Bernardo santuak dinosku:

"Beste santuei Jaungoikoak batetan edo bestetan gure zaindari izatek ardura emon deutse. Halan dogu San Blas eztarriko gatxetan zaindari, Santa Luzia begietako minetan, San Antonio abata abereen izurrietan. Baina Jose Dohatsuari -halan emoten dau jardunak- Jaungoikoak gure behar eta ezbehar guztietako zaindaritza emon deutsalara, esan geinke".

Avilako Teresa Deunak be honen antzeko zerbait esaten deusku: "Pozik idatziko neukez, ahal baneu liburu batean, Jaungoikoak Jose Deunaren bitartez, niri egindako mesede guztiak. Eta sinistu gura ez dauanak proba egin daiala, eta ikusiko dau, zein gauza ederra dan Jose Deuna maite izatea.

Urtero nik bere jaia datorrenean zerbait eskatzen deusat, eta eskatutakoa beti emon deust. Eta esaten deusat: Aita Jose Dohatsua, nire eskaria zuzena ez bada, egizu, nire bihotzeko santu horrek, nik eskatutakoa nire onerako izan daitela".

Gerson gizon jainkozaleak dino:

"Aita batek bere semeari mesederen bat eskatzen badeutso, aitaren eskaria seme jator batentzat, bete beharrekoa da. Halan ba, Jesusek mundu honetan bizi izan zan bitartean, bere aita ordeko Joseren eskariak zintzoki egiten bazituan, zelan orain zeruan ez ete ditu beteko?".

Liborioko Alfontso santuak mesede handi bat eskatzen deutso Jose Deunari:

"Gaurko jaian gauza asko eskatu behar geunskioz Jose Santu handi honi, baina eskaririk ederrena hauxe litzateke: Heriotza on eta santu bat lortzea. Jose Deuna heriotza onaren zaindari dala badakigu. Jose Dohatsua izan zan heriotzarik ederren eta gozoena. Jesusen eta Mariaren besoetan hiltzea, bai dala heriotza on eta santua, benetan".

(B)

SANTIAGO APOSTOLUA.

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Santiago apostoluaren eguna ospatzen dogu jai honetan.

Santiago, bere anaia Joan eta aita Zebedeogaz, Galileako itsas bazterrean sareak konpontzen ebilen. Eta Jesusek, handik igarotean, esan eutsan: zatoz Neugaz. Eta Santiagok eukan guztia itxi, eta Jesusi berehala jarraitu eutson. Eta heriotzaraino jarraitu be. Santiago apostolua izan zan lehenengoa Jesusen alde bere bizia emon ebana...

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 4, 33; 5,12

Apostoluak Jerusalemen kementsu emoten eben Jesus biztuaren autormena. Eta horregaitik Herodes Agripa erregeak Santiagori ezpataz samea moztu eutson.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 7-15

Jesusegaitik bizia emoten dauana Jaungoikoak biztuko dau, eta zeruan Jesusekin biziko da.

EBANJELIOA: Mt 20, 20-29

"HERODES ERREGEAK JOANEN ANAIA SANTIAGORI EZPATAZ SAMEA MOZTU EUTSON"(Ap Eg 12, 1-2)

H O M I L I A

Jesusek, zerura igon aurretik, bere ikasleei esan eutsen: Zoaze mundu guztira, eta hotsegin Barri Ona gizaki guztiei (Mk 16, 15).

Pedrok, pentekoste egunean Espiritu Santuak indartuta, jerusalendarrei honan berba egin eutsen: Zuok gurutzean hil zenduen Jesus biztu egin dau Jaungoikoak; eta geu gara horren testigu. Bihotz barritu zaitez, eta bateatu Jesukristoren izenean. Eta egun haretan hiruren bat mila lagun Kristoren ikasle egin ziran (Ap Eg 2,32).

Eta apostoluak herrian egiten ebezan mirariak ikusita, Pedroren bigarren hitzaldian bost mila gizonak bateoa eskatu eben (Ap Eg 4).

Harrigarria zan, benetan, lehenengo kristinau hareen alkar maitasun bizitza: Guztiak bat ziran bihotzez... Ondasunak saldu eta danen artean banatzen ebezan. Eta egunero fededunen taldea ugaritu egiten zan (Ap Eg 2, 43. 4, 32).

Baina laster hasi ziran Jerusalemgo agintariak Jesusen ikasleen aurka esku latza erabilten. Apostoluak espetxean sartu ebezan. Esteban diakonoa harrika hil eben.

Tarsoko Paulo zan kristinauen areriorik gogorrena. Egun larri hareetan kristinatu asko Samaria, Fenizia, Txipre eta Antiokiaraino sakabanatu ziran, lurralde hareetan Jesus Jaunaren barri emonez. Eta asko bihotz barritu eta fededun egin ziran. (Ap Eg 11, 20)

Apostoluak arrisku guztien artean Jerusalemenean geratu ziran.

Gero lau-bost urteko bakea etorri zan, eta kristinauen taldea geroago eta handiagoa egiten zan, Espiritu Santuak eraginda.

Baina 42garren urtean Herodes Agripak, Belengo haurtxoak hil zituaren bilobak, barrero kristinauen aurkako sua biztu eban, eta judeguei poz emotearren, Joanen anaia Santiagori ezpataz burua moztu eutsan.

Herodesek Pedro be kartzelan sartu eban, pazko ostean hilteko asmoz, baina aingeru batek Herodesen eskuetatik atera eban.

Orduan apostoluak eta beste ikasleak munduko lau aldetara zabaldu ziran, Jesusen barri ona herri guztietan ereinez.

Apostolu guztien azken albiste zehatzik ez da heldu gugaraino, baina orain adierazoko dodan antzekoa izan zala, esan sinistu daiteke.

Pedro Erromaraino heldu zan, eta huri hareetan Neron enperadorearen aginduz kurutzean josita bere bizia Kristoren alde emon eban.

Joan apostolua, Jesusen ama Mariarekin, Efesoko hurira bizitera joan zan, eta azkenean Patmos ugartearen zahartzaro ederrean hil zan.

Andres, Europako Danubio ibai aldean Kristoren sinismena zabaldu ondoren, Patras herrian gurutzean josita hil eben.

Felipek Asia Txikiko bizilagunei Jesusen dotrina irakatsi ondoren, martiritza irabazi eban.

Matias Afrikako Etiopiaraino heldu ei zan, han martiritza lorturik.

Bartolomek, Arabia, Persia eta Armenian predikatu eban, eta hau be martiri hil zan.

Tomas Indiaraino joan zan, eta han lantzaz zulatuta bere bizia emon eban. Judas Tadeo eta bere anaia Simonek, Sirian, Mesopotamian eta Persian Kristoren ebanjelioa zabaldu eben. Biak martiri hil ziran. Mateo zergalari eta ebanjelariak, batzuen ustez, Persia aldean predikatu eban, bertan martirien koroia irabaziz...

Apostolu honeek dira gure fedearren oinarriak, Kristo bizituaren testiguak. Kristoren alde euren bizia eta eukien guztia emon ebenak.

Eta apostoluen artean lehenengo martiria Santiago izan zan.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gipuzkoa eta Bizkaiko zaindari Loiolako Inazio santuaren jaia ospatzen dogu gaur.

Inazio gaztea, hogeita hamar urterarte pekatari handia izan zan. Baina gero, Jaungoikoaren laguntzaz, santu izatera heldu zan...

Loiolako seme gure zaindari santu honek zerutik guri be betiko zoriona eskuratzen lagundu daigula.

1. IRAKURGAIA: Dt 30, 15-20

Bide bi ditu gizakiak bere aurrean aukeran: onerako ala txarre-rako bidea. Onerako bidea hartzen badogu Jaunak bedeinkatuko gaitu.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 10, 31-33; 11, 1

Geure bizitzako zeregin guztietan Kristoren antzera jokatu behar dogu, dana Jaungoikoaren aintzarako eginez.

EBANJELIOA: Lk 9, 18-26

"NIGAZ ETORRI GURA DAUANAK; UKO EGIN BEIO BERE BURUARI; HARTU BEI BERE GURUTZEA; ETA JARRAITU BEIT (Lk 9, 23)

H O M I L I A

Loiolako Inazio Parisen bere sei lehenengo lagunekaz ikasten ebi-lela, Azpeitiara bere jaioterrira etorri beharrean aurkitu zan.

Bidaia honen zehaztasunak Inaziok berak kontauko deuskuz.

"Parisen urdailetik txarto aurkitu nintzen, eta medikuak esan eusten ez neukala osatzeko beste biderik, neure jatorriko haizeak hartzea baino.

Horregaitik neure lagunak erosi eusten zaldi txiki baten gainean neure lurraldera joan nintzan. Eta Gipuzkoako mugara heldu nintzanean, betiko bidea bazterturik, bakartiago zan mendikoa hartu neban.

Eta honan Azpeitiara, iluntzean, inork ezagutu barik heldu nintzan, eta Madalenako ospitalean ostatua eskatu neban. Urrengo egunean etxez-etxe limosna eskatzen hasi nintzanean, ezagutua izan nintzan, eta Loiolako nagusi nire anaia Martinek, arren eta arren, Loiolako dorre-etxera bizitera joateko eskatu eustan.

Baina erantzun neutsan, ez nintzala etxe aberatsetan biziteko etorri, jendeari zerurako bidea erakustera baino,

Etorri eta berehala umeei kristinau dotrina irakasten hasi nintzan, baina nire anaiak kontra jarrita ez zala inor etorriko esan eustan. Baina nik batekin nahiko nebala erantzun neutsan. Eta hasi banintzan hasi, jende piloa entzutera etorten jatan, baita neure anaia bera be. Kristinau dotrinaz gainera domeka eta jaietan arimek laguntzeko predikatu egiten neban, eta niri entzutera urrunetik be etorten ziran.

Herrian zabaldurik egozan gehikeria batzuk be kentzen ahaleginu nintzan. Gipuzkoako legeetan kartetako "jokoitsuak" eragotzita egozan, jolas honeetan diru gehiegi jokatu eta familia asko betiko zorretan geratzen ziralako. Nik justiziaren bidez, lege eragotzita egoana, egitan be kendua izatea lortu neban.

Bazan herrian beste gehiegikeria bat be:

Gipuzkoan ezkondu bakoak burutsik ibili izan dira beti, eta ezkonduak burua estalduta. Baina asko ezkondu barik, beste gizonen ohe-lagun egin, eta burua estaltzen dabenak. Eta hemendik kalte asko sortzen da. Ohitura hau be kentzen ahaleginu nintzan".

Baina baeukan Inazio berak be Loiolako jaiotetxean zerbait garbitu baharra. Berak kontatuko deusku:

"Gure etxeko "lehenengo mailako bat", (ez dau emoten honenik) bere amorantearekin bizi zala jakin neban. Emakume ha gauero atzeko atetik gure etxera sartzen zan. Nik gau batean, begira egonik, emakume haregaz aurkitu, eta esan neutsan: Zer egiten dozu hemen?. Eta emakumeak zer jazoten zan esan eustan. Eta nik handik bialdu neban".

"Bazan Azpeitian beste ohitura makur bat be, eta hau zan: Herriko alper batzuk, lanerako sasoikoak izan arren, lanik egin barik limosna eskatuz bizi ziran. Nik agintariei lege bat emonarazo neutsen, agintzen ebana: Urtero herriko gizon bi aukeratuak izango ziralara atez-ate limosna eskatzeko, eta honeek biok bildutakoa egiaz pobre ziran artean bakarrik banatuko zala. Honan alperrak ezin izango ziran limosnaz bizi, eta benetako txiroak lagunduak izango ziran".

Hiru hilabete inguru egin ebazan Inaziok azpeitiarren artean, dotrina irakatsi, bakeak egin eta danei ejemplo ona emonez. Eta lehen pekatu-bide izan bazan be, oraingo bizitza santuaz, gaztetan herrian emondako eskandaluak, garbiturik itxi ebazala, esan geinke.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko jaia fededun guztietan pzez betea da.

Zeruko santu guztien jaia egun berean ospatzen dogu.

Zerukoen artean izango dira ziur gure etxeko eta adiskide asko be.

Ez ditugu altaretan santuen koroaz jantzita ikusten, baina, bai, zeruetako erreinuan Jaungoikoaz gozatzen dagoz, betiko zoriontsu.

1. IRAKURGAIA: 7, 24, 9-14

Joan ebanjelariak zeruan ezin zenbatu halango zoriondunen taldea ikusi eban, Jaungoikoa gurtu eta goraltzen.

2. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 1-3

Jaungoikoa zeruan bere edertasun betean ikusiko dogu, eta Beraren antzeko izango gara.

EBANJELIOA: Mt 5, 1-12a

"ZORIONEKOAK GOGOZ BEHARTSU DIRANAK... ZORIONEKOAK OTZANAK.. ZORIONEKOAK ERRUKITSUAK"...(Mt 5, 3-7)

H O M I L I A

(San Bernardoren homilia Santu guztien egunekoa)

Senideok:

Santu guztien gaurko jai hau, eliz urteko ospakizunik ederrenetariko bat da. Zein apostolu, zein martiri, zein santuren jaia ospatzen dogu gaur?. Ez honena edo harena, Santu guztiena baino. Bai, zeruko santu guztiak alkaturik ospatzen ditugu gaur.

Eta zergaitik jai eder hau?.

Zeruko santuak ez dauke gure otoitzen beharrik, ezta gure goralpenen interesik. Bestaldetik, gure ospakizun honek ez dau zeruko santuen zoriona gehiagotzen. Hareek Jaungoikoa ikusten aintzaz eta zorionez beterik dagoz.

Bai, guzti hau egia da. Baina gu, bai, hareen otoitzen preminan aurkitzen gara, zerurako bidean gure laguntzaile izan daitezan.

Nik, Bernardok, jai honetan nire bihotz barruan halango deseo bizi bat sentitzen dot, eta zera da: Hareek zeruan daukaten zoriona neuk be egunen batean eskuratzea.

Eta ni be egunen batean, Jaungoikoaren erruki handian, zeruko erreinuan hareen lagun izango nazala pentsatzeak, poz handia emoten deust bihotzean.

Noiz alkartuko gara barrero be zeruan, Jaunaren ondoan, gure guraso, lagun eta adiskideekaz batera poz betean?. Noiz biziko gara hareekaz batean Jaungoikoaren amaibako erreinuan?.

Gaurko Santu Guztien jai honek gure bihotzetan zerura joateko nahi bizia sortu behar leuke. Han zeruan, Jaungoikoaren etxean, bai zoriontsu bizi dirala hango arima dohatsuak. Gaurko jaiak zeruko santuek biziteko poza gudan indartu behar leuke.

Lege Zaharreko guraso santuak, profeta zintzoak, apostolu jatorrak, martirien taldeak, euren bizitza santuaz Jaungoikoa goratu eben autorleak, birjina garbiak, pekatari damutuak; eta Jaunaren lagun izan ziran beste hainbeste kontatu ezin halango santu, altaratan ez dagozanak.

Itxartu gaitez, anaiok, eta Kristogaz biztu eta poztu gaitez. Zeruko ondasunak opa daiguzan, eta ez lurrekoak. Gure guraririk biena zeruan bizitea izan bedi. Gure etxeko eta lagunak han goian guri itxaroten dagoz.

Bizitza igeskor honetan ez daukagu segurantzarik, ezta atsedunik. Bai, pozgarri izango dala, benetan, zeruan barriz be gure maiteekaz alkartzea, eta betiko zorionean danok batera bizitea!

Betiko ondasun harrigarri hau lortzeko zeruko santu guztien otoitzak lagunduko deuskue.

Eta zuok, zeruetan zagozen gure lagunok, gure lurreko arriskuak ezagutzen dozuez. Gure haragia zein makala dan, eta gure arerioak zein indartuak, ondo dakizue. Zuok be lehenago aldi batean, gu orain lez, arrisku eta tentaldi bardinetan aurkitu zinien.

Nik aingeruen otoitzen indarrean sinisten dot, baina konfiantza gehiago dot zuengan, zuok be gure haragi makalean bizi izan zinielako.

Egoki da, anai-arrebok, jai honetan pozez beterik zeruko santuei "Zorionak" emotea, betiko erreinuaren jabe egin diralako. Eta ordainetan hareek be gure alde otoitz egingo dabe, gu be egunen batean, eurek batean, Jaungoikoaren ondoan bizi gaitez.

Orduan, bai, hareek eta gu, Kristo Salbatzaileagaz aurkitzen garanean, danok alkarturik Jaungoiko santua goratuko dogu...

Berari aintza eta gorespenak, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

A U R K I - B I D E A

Abendualdiko 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea

Jesusen kaiotza

Familia santua

Jaungoikoaren Ama Maria

Gabon ondoko 2. domekea

Epifania. Jaunaren Agerkundera

Jaunaren bateoa

Garizumako 1. domekea
" 2. domekea
" 3. domekea
" 4. domekea
" 5. domekea

Eguen Santua

Pazko eguna. Kristo biztu da

Pazko 2. domekea

" 3. domekea

" 4. domekea

" 5. domekea

" 6. domekea

" 7. domekea. Jaunaren igokundera

Pentekostes domekea. Espiritu Santua

Hirutasun guztiz Santua

Kristoren Gorputz-odol Santuak

2. domekea urtean zehar
3. domekea urtean zehar
4. domekea urtean zehar
5. domekea urtean zehar
6. domekea urtean zehar
7. domekea urtean zehar
8. domekea urtean zehar
9. domekea urtean zehar

10. domekea urtean zehar
11. domekea urtean zehar
12. domekea urtean zehar
13. domekea urtean zehar
14. domekea urtean zehar
15. domekea urtean zehar
16. domekea urtean zehar
17. domekea urtean zehar
18. domekea urtean zehar
19. domekea urtean zehar
20. domekea urtean zehar
21. domekea urtean zehar
22. domekea urtean zehar
23. domekea urtean zehar
24. domekea urtean zehar
25. domekea urtean zehar
26. domekea urtean zehar
27. domekea urtean zehar
28. domekea urtean zehar
29. domekea urtean zehar
30. domekea urtean zehar
31. domekea urtean zehar
32. domekea urtean zehar
33. domekea urtean zehar.
34. domekea urtean zehar. Kristo Errege

Andre Maria sortzez garbia
Andre Maria zerura jasoa
Jose Deuna
Santiago apostolua
San Prudentzio Arabako zaindaria
San Fermin
Loiolako Inazio santua.
Xabierko Frantzisko santua
Santu guztien eguna

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka honetan Elizak abendu aldia hasten dau...

Abenduak latinez "etorrera" esan gura dau...

Jaungoikoaren Semea gabonetan zerutik lurrera etorriko jaku, pekatariak salbatzera, eta gizaki guztiak Jaungoikoaz adiskidetzera.

Abenduko egunak poz-egunak dira... Zutundu zaitezte, esango deusku gaurko ebanjelioak, laster dator zuen askatasuna...

1. IRAKURGAIA: Jer 33, 14-16

Mesias munduko salbatzailea Dabiden odolekoa izango da, eta lurra zuzentasun eta pozez beteko dau.

2. IRAKURGAIA. 1 Ts 3, 12-4.2

Bihotz garbia eta alkar maitasuna dira Jauna gabonetan hartzeko prestaerarik onenak.

EBANJELIOA: Lk 21, 25-28. 34-36

"ZUTUNDU ZAITEZE ETA JASO ZUEN BURUAK; LASTER DATOR ZUEN ASKATASUNA" (Lk 21, 28)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.aren hitzaldia 1983. urteko abendurako)

Senideok: Abendua Jesusen jaiotza gabonetan gogo beroz eta alaitasunez onartzeko prestaketaketak egiteko garaia da...

Adanek paradisian pekatu egin ebanean, ez eban Jaungoikoak gure lehenengo gurasoa bertan behera hondaturik itxi. Salbatzaile bat bialduko eutsala agindu eutsan....

Jaungoiko Jaunak. abrahamegaz lehenengo, eta Israel Herri osoagaz geroago, "Alkargoa" eginez, Salbatzailearen agintzari-promesa hori barriztau ... Eta gizaldietan zehar, profeten bidez, Salbatzailearen itxaropen hori, beti bizturik euki eban....

Itun Zahar guztia honetarako izan zan: Mesias salbatzailearen itxaropenari eutsi, eta honen etorrera prestatzeko.

Abendu pozgarri honek Jaungoikoaren errukia eskatzera, bihotz barritzera, eta Salbatzaileari "ongi etorria" egitera daramagu.

Gora bihotzak, jaso buruak, laster dator gure Eroslea.

Abenduko giroa poz eta alaitasun giroa da.

Salmogileagaz geuk be esan daigun: "Goazen pozik Jaunaren bila" Eta neuk be dinotsuet: Goazen pozik, Marisgaz bat eginik, Jaungoikoaren bila".

Abendua poz garaia da.

Jaungoikoaren Semea Mariaren erraietan gizon egin zanean, aingeruak Nazaretoko birjinari esan eutsan: "Agur, Maria". Esan gura eutsan: "Poztu zaitetz, Maria, Jauna dago zugaz".

Zelangoa izango ete zan Mariaren poza eta itxaropena, munduko salbatzailea bere sabelean bizi zala jakin ebanean!...

Jauna gugaz be badago.

Gugaz bizi da. Mariaren antzera geu be Jaunaren etorrera itxaroten pozez beterik bizi gaitezana...Eta gero etorritakoan gogo onez hartu behar dogu. Honetan be Maria hartu behar dogu eredutzat.

Zelango maitasunez hartuko ete eban Mariak bere seme jaio barria besoetan Belengo estalpean! Geuk be "otoitzean bero eta gorlapentan alai" hartu behar dogu Belengo haurtxoa gure bihotzetan.

Bizitza osoa abendu da.

Gure lur honetako bizitzak beti abendu izan behar leuke.

Jesus haurtxoaren Belengo etorrera, lehenengo etorrera da. Bigarren etorrera munduaren azkenean izango da. Bigarren etorrera hori itxaroten bizi gaitezana, ez bildurrez eta ikaraz, uste on eta pozez baino.

Oraingo Belengo haurtxoa munduaren azkenean epaile lez agertzen danean, haren agotik berba pozgarri honeek entzuteko gai egin gaitezana: "Zatoze nire Aitaren bedeinkatuok. Hartu eizue munduaren hasieratik zuentzat atondurik dagoan erreinua".

Halan bada, abendua otoitz egiteko, bihotzak barritzeko, eta Jaunari itxaroten egoteko garai egokia da...

Alaitasuna behar-beharrezkoa dogu, Andra Mariagaz batera Belengo Haurtxoari ongi etorria egiteko...

Poztu eta alaitu gaitezana, laster dator gure askatasuna!

(C)

ABENDUKO 2. DOMEKEA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Abendualdiko bigarren domekan gagoz...

Gabonetako jaietara begira aurrera goaz...

Jaungoikoak ekarriko deuskun salbamenaren begira bizi gaitezaz...

Joan bateatzaileak gaurko ebanjelioan esango deusku: "Zabaldur bideak Jaunarentzat... Bihotz barritu eta damutu zaitezte, zuen pekatuen parkamenerako".

1. IRAKURGAIA: Ba 5, 1-9

Babiloniako erbestean esklabu lanetan bizi ziran israeldarrei Baruk profetak esaten deutse: Poztu zaitezte: Laster dator zuen askatasuna.

2. IRAKURGAIA: Flp 1, 4-6. 8-11

Paulo apostoluak Filipoko kristauak maite-maite ebazan, fedean zintzoak ziralako. Alkarren maitasunean beti iraunteko eskatzen deutse.

EBANJELIOA: Lk 3, 1-6

"JOANEK JORDAN INGURU GUZTIAN, BIHOTZ BARRITZEKO BATEOA HOTSEGITEN EBANJELIOA, PEKATUEN PARKAMENERAKO"(Lk 3, 3)

H O M I L I A

("Catecismo de la Iglesia Catolica"-tik ideak hartuta)

Bateoaren bidez gizakiak Kristoren bizitza barria hartzen dau... Baina bizitza hau buztinezko ontzietan daroagu, eta pekatu eginez galdu daiteke. Jesus da orduan gure arimen osagilea...

Penitentziako sakramentura datozenak, Jaungoikoaren errukiagandik euren pekatuen parkamena lortzen dabe...

Horregaitik "Parkamenaren Sakramentua" esaten jako, abadearen bitartez, Jaungoikoak parkamena eta bakea emoten deutsalako...

Baita "Adiskidetze Sakramentua" esaten jako, Jaungoikoak pekatariak bakeak egin, eta bere adiskide izatea emoten deutsalako.

Jaungoikoagaz bakeak egin dituan pekatariak prest egon behar dau Jaunaren deiari erantzuteko: "Zoz lehenengo senideagaz bakeak egitera". (Mt 5, 24)

Danok egin dogu pekatu. Joan apostoluak dinosku: "Pekaturik ez dogula egin esaten badogu, geure buruak engainaten ditugu".

Pekatuak parkatzeko sakramentua, bateoa da.

Bateoak bizitza barri bat emoten deusku: zeruko bizitza.

Baina bateoak emoten deuskun bizitza barri horrek, ez deusku guri pekaturako dogun joera makurra kentzen. Horregaitik lur honetako gure bizitza geure arimako arerioakaz dogun burruka da.

Eta, Jaungoikoak lagunduta, gure bizitza beti eta beti barritu beharrean gagoz, zeruko betiko bizitza eskuratu arte.

Jesusek bihotz barritzera dei egiten deusku: "Ordua bete da, laster dator Jaungoikoaren erreinua. Bihotz barritu zaitzeze, eta sinistu barriona" (Mt 1, 15)

Baina bihotz barritze hau ez da gure ahaleginez lortu geinken zerbait. Jaunaren lana da hori. Jaunak doan (gratis) emondako opari hutsa.

Jaungoikoaren graziak lagundurik, guk, Jaunak guri deuskun maitasunari, geure maitasunaz erantzun behar deusagu.

Anbrosio santuak dino: "Elizan bihotz barritze eta pekatuen par-kamenerako bide bi dagoz: Urarena bata, eta negar-anpuluena bestea. Urarena da bateoa; eta negar-anpuluena penitentziako sakramentua.

Jesusek ez deutso gorputzeko laztasun, barau eta beste penitentziei hainbestean begiratzen... Gurago dau barruko penitentzia, bihotz barritzea eta oker egindakoaren damua.

Eta hau da barruko penitentzia: Geure bizitza osoa Jaunarengana begira jartzea; geure bihotz osoaz Jaunarengana itzultzea; pekatua eta pekaturako bideak baztertzea; txarto eginak gorrotatzea; eta geure bizitza okerragaitik damutzea...

Jaunaren laguntzaz, geure bizitza aldatzea be eskatzen dau, Jaungoikoak bere erruki handian parkatuko deuskula sinistuz.

Gizakien bihotza gogorra da, eta gure lan eta ahalegin hutsez ezin dogu bigundu. Baina alde batetik, Jaungoikoak guri deuskun maitasuna ezagutu; eta bestetik, geure bihotzak zikinduta ikusiz, geure bihotzak bigundu eta barrituko dira, gure pekatuak gorrotatuz, Jaungoioagandik aldentzen gaitualako.

Jesus gure pekatuakaitik gurutzean josita begiratu daigun...

Odol horrek badauka indarra mundu guztiko pekatuak parkatzeko...

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Abendualdiko hirugarren domeka honetan, Sofonias profeta agertuko jaku, esaten: Poztu zaiteze eta alaitu, Jaunak maite zaitue eta salbauko...

Eta Paulo apostoluak: Zagoze beti pozik, barriro dinotsuet: Zagoze pozik...Laster dator Jauna gu salbatzera. Poztasun honegaz, bihotzak damaturik, gaurko eukaristia ospatzen hasi gaitezan.

1. IRAKURGAIA: So 3, 14-18

Poztu gaitezan, dinosku Sofonias profetak, Mesias Jauna, gure Jaungoikoa gugaz dago, eta salbauko gaitu...

2. IRAKURGAIA: Flp 4, 4-7

Zagoze beti pozik, laster dator Jauna... Egin otoitz eta Jaunaren bakea bego zuekin.

EBANJELIOA: Lk 3, 10-18

"JOAN BATEATZAILEAK BATEATZERA ETORKOZAN TALDEEI ESATEN EUTSEN: EMOIZUEZ BIHOTZ BARRITZEARI DAGOKIOZAN FRUITUAK" (Lk 3, 7-8)

H O M I L I A

("Catecismo de la Iglesia Catolica"tik ideak hartuta)

Pekatuak, Jaungoikoari egiten deusagun iraina eta nahigabea da...

Guk, pekatu aztuna eginez, Jaungoikoagaz ditugun hartu-emonak apurtu egiten ditugu, eta Jaunaren adiskidetasuna galtzen...

Pekatuak, baita be, pekatariak Elizarekin dituan hartu-emonak moztu egiten ditu.

Jaungoikoak bakarrik parkatu leiz pekatuak... Baina Jesusek pekatuak parkatzeko eukan ahalmen hori, gizonei emotea erabagi eban, Jaungoikoaren izenean parkamena emoteko...

Autortzako sakramentuaren historia.

Elizaren lehenengo gizaldietan, bateoaren ondoren, pekatu aztun bereziren batean jausten ziranak, (adibidez: fedea ukatzean, giza-hiltzean, ezkontza nahastean...) penitentzia luze eta gogor baten ostean lortzen eben pekatuen parkamena...

Eta gainera bizitza osoz behin baten bakarrik emoten jaken pekatuen parkamen hori.

Baina geroago, zortzigarren gizaldian, Irlanda-tik etorritako misiolariak lehengo penitentzia gogorak asko bigundu ebezan, eta gainera, pekatuen parkamena baten baino gehiagotan emoten hasi ziran.

Dana dala, lehen eta orain pekatuen parkamena lortzeko gauza bi behar dira:

Pekatoriaren aldetik, Jaungoikoaren graziak lagunduta, txarto eginda-koaren damua, pekatu aztunen autortza, eta pekatuen ordaina edo penitentzia betetea.

Jaungoikoaren aldetik, Elizaren bitartez, pekatuen parkamena hartzea. Eta badakigu Jaunaren pozik handiena parkamena emotea dala...

Pekatuena damua.

Era bitakoa izan daiteke:

Maitasun damua: Jaungoikoa gauza guztien gainetik maitatzetik sortzen dana... Damu honek pekatu arin edo txikiak parkatzen ditu; baita aztunak be, gero lehenbailehen autortzeko erabagia hartzen bada.

Bildur damua, infernuko bildurretik sortzen dana... Damu hau parkamenerako hasiera ona izan daiteke, gero, Jaungoikoaren graziak lagunduta, parkamen sakramentua hartzen bada.

Baina jakin behar da bildur-damu honek ez daukala pekatuak parkatzeko berezko indarrik... Halan be, penitentziako sakramentua hartzeko prestaera egokia izan daiteke.

Agosko autortza.

Pekatoriak, berak egin dituan pekatu aztun guztiak, ezkutuenak be, Jaungoikoaren ordezkoiari autortu beharra dauka.

Pekatu arin edo txikiak abadeari autortzea ez da beharrezkoa, baina oso ona eta onuragarria da...

Pekatuena ordaina edo penitentzia.

Askotan, pekatu eginik, Jaungoikoari bakarrik ez, baita lagunurkoari be, kalte egiten deusagu. Esate baterako: lapurretan egindako kaltea jabeari bihurtu behar jako; norbaiten kontra esandakoak zuri-tu egin behar dira...

Parkamenak pekatua kentzen dau, baina ez pekatuaz egindako kalteak. Honeek ordaindu egin behar dira...

Abadearen eginbeharra.

Abadeak, artzain onaren antzera, ardi galduak Jaunaren artegira ekarteko ahaleginak egin behar ditu; eta Aitarene etxetik iges egindako semea, etxera itzultzean, errukiz eta pozez beterik hartu behar dau. Abadeak pekatuari Jaungoikoaren parkamena, bakea eta poza emon behar deusaz.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Abendualdiko Jaunaren etorreraren azken domekea ospatzen dogu gaur...
Gaurko liturgiak Andra Mariarengana garoaz...

Jesusen jaiotzako egun alaietan, Andra Mariak bere seme Jesus umea hobeto ezagutzen eta gehiago maitatzen lagundu deigula...

(Baita gaur Caritasen eguna dogu...Gu baino pobregoa diranentzat laguntza emon daigun...Honan gabonetan danok poz handiagoa izango dogu)

1. IRAKURGAIA: Mt 5, 2-5a

Mikeas profetak Mesias Belengo herri txikian jaioko zala iragartzen deusku... Baita Mesias bakezale izango zala be.

2. IRAKURGAIA: Hb 10, 5-10

Jaungoikoaren Semeak, zerutik lurrera etortzean, bere Aitari esan eutsan: "Hona ni hemen, Aita, zure nahia beteteko. Gizakiak salbatzeko gurutzean hiltzeko be prest nago.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-45

"MARIA JAGI ETA ARIN ARIN MENDI ALDERA JOAN ZAN... HIRU HILABETE EGON ZAN MARIA ISABELEGAZ" (Lk 1, 39- 56)

H O M I L I A

(J. A. Pagolak "El Diario Vasco"n idatzia)

Egiazko kristau zintzoaren ezaugarri bat hau da: preminan aurkitzen danari laguntza emotea...

Horixe egin eban Mariak Jaungoikoaren ama izaten hasi zan unetik.

"Mariak jakin ebanean bere lehengusin Isabel sei hilabeteko haurdun egoala, Nazaret itxi eta arin-arin mendi aldera joan zan, Judako herri batera; eta Zakariasenean sartu, eta Isabeli agur egin eutsan...

Hiru hilabete inguru egon zan Maria Isabeli laguntzen... Eta gero Nazaretoko bere etxera itzuli zan"

Bada gaurko egunean maitasuna agertzeko bide bat guk galdu behar ez gendukena, erraza, eta guztiok egin daikeguna: "bizitzen lagundu", "mesede txikiak egiten ez aspertu".

Bakarrik aurkitzen danari lagun egin, triste dagoena poztu, geisoak ikustera joan, zahar eta minusbaliduei jaramon egin... Eta holango beste asko "biziten laguntzea" da.

Gaurko gizarteak, gazte osasundunak, gorputzez indartsuak, adorez beteak gura ditu... Eta besteak baztertu.

Geisoak klinikara, zharrak erresidentzietara, gaiztoak gartzelara, minusbaliduak eta drogazaleak eurentzat egindako etxe berezietara...

Honan osasun betearen jabe diranak, ezelango eragozpen barik, bizitza atsegina gozatu daikee...

"Normala" ez dana, era batera edo bestera, hona edo hara, baztertu egin behar da, besteak "normalak" diranak euren bizitza bete betean bizi daien...

Honan dana zuzen eta behar dan "ordenean" jarten da...

Ospitale eta zaharren egoitzetako zerbitzariak diruz ondo ordaindu, geisoak eta zaharrak egoki zainduak izan daitezcan.

Eta gu lagun onez inguratu. Nik zuri mesede bat egin, gero zuk niri beste bat egitekotan. Eta honan gure bizitza problema handi barik aurrera eroan geinke.

Guzti hau ondo dago. Halan bizi dira asko, ahal dabenak, behintzat. Dana eskuetan dauke. Ez jake ezer falta. Ondo bizi dira.

Baina pozik bizi ete dira?.

Zerk edo nork emoten dau biziteko poza?.

Pozik eta ilusinoz biziteko ez dira gauza harrigarriak egin behar. Norberak ahal dauanez, danei on egin, danakin ondo eroan, danakaitik ondo berba egin, mesede txikiak badira be, danei lagundu.

Honan dabilenak barruko poza eskuratuko dau, inork ezin kenduko deutzan poza.

Jesusengan sinisten dauanak badaki diruak ez dauela barruko pozik emoten, ezta harrokeriak eta handikeriak be. Kontzientzia garbiak, eta danei on egiteak baino.

Basu bat ur hotz edateko bere senideari emoten deutzanak, ez dau galduko bere saria zeruetan, dino Jesusek.

Triste ikusten dozunari berba gozo bat esan, danakaitik beti ondo berba egin, ezinduta aurkitzen dozunari lagundu... Eta honango beste mesede txiki asko, basu bat ur emoteak lez, maitasunez egiten badira, Jaungoikoaren begietan eukiko dabe bere saria.

Maitasunez egiten dan mesedea, bi aldizko mesedea da.

(C)

JESUSEN JAIOTZA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusen jaiotzako egun alai honetan zorionik beroenak guztioi. Poztu gaitezán . Belengo estalpean gure Salbatzailea jaio jaku. AINTZA ZERUETAN Jaungoikoari, eta bakea lurrean Jaunaren gogoko gizonei...

1. IRAKURGAIA: Is 9, 2-4. 6-7

Poztu zaiteze, dinosku Isaias profetak, etorri jaku gizaki guzti-entzat Jaungoikoaren salbamena.

2. IRAKURGAIA: Tt 2, 11-14

Itun Zaharrean profeten bidez berba egin euskun Jaungoikoak.

Itun Barri an bere Seme Jesusen bidez. Berau dogu gure pekatuen parkatzailea.

EBANJELIOA: Lk 2, 1-14

"BELENEN EGOZALA MARIK BERE LEHENENGO SEMEA IZAN EBAN" (Lk 2, 6-7)

H O M I L I A

(Joan Krisostomo santuak Jesusen jaiotzan egindako homilia)

Lurbira osoa pozez beteten dauan Jesusen jaiotzako jai ederra heldu jaku. Zerua urratu da, eta lurra aingeruen erregea berarengan hartu dau.

Gu, orain arte gure arerioen menpean gengoanok, askatuak izan gara.

Lehen Jaungoikoaren morroi ginanok, orain Haren seme-alabak gara.

Zerua galdu genduanok, orain betiko zoriona irabazi dogu...

Gure arteko gorroto eta haserreak bazterturik, gugana Jaungoikoaren bakea eta zoriona etorri dira.

Hau bai dala jai zoragarria!

Jaungoikoa zerutik lurrera jatsi da, gizonak lurretik zerura jasoak izateko.

Lurreko gizonak eta zeruko aingeruak, danak alkaturik, jai honetan bardin pozten dira.

Jaungoiko ahalguztiduna, zeru-lurra ezin hartu dabena, gure antzeko gizon txiki egitea, hau, bai, badala benetan harrigarria!

Jaungoiko ahalguztiduna, haragi eginik, lurrean jaio zan, gu, gizaki txikiok , espirituz Jaungoiko eginik, zerurako jaio gaitezán.

Jaungoikoaren Semea emakume bategandik, Maria birjinagandik, jaio zan, gu Jaungoikoaren seme-alaba izan gaitezana...

Gure guraso Abraham egun hau ikusita pozez bete zan, eta gu zelan ez gara poztuko?

Zelan, bada, gu pekatari gaiztook, Jaungoikoaren seme-alaba izateraino jasoak izan gara?. Eta gure pekatuakaitik Jaungoikoaren arerio, ginanok, zelan guri, guk ezer merezi barik, Jaunak bere parkamena eta bakea emon deuskuz?

Hau zelan izan dan oraintxe irakatsiko deusuet.

Jaungoikoa, aingeruak egin aurretik, bera bakarrik zorion betean bizi zan. Ez eukan ezere eta inoren beharrik...

Bere ontasun neurribakoan lehenengo aingeruak egin zituan...

Geroago baita mundu hau be. Eta munduan gizona ipini eban, lurreko izaki guztien nagusi eta errege izan eiten. Jaungoikoa zeruan nagusi dan lez, halan lurrean egin dau gizona danen jabe.

Jaunak Adan atseginezko paradisuan ipini eban. Han ez eban heriotzarik ezagutuko, ezta neke eta atsekaberik be.

Baina gure lehenengo guraso Adanek, Jaungoikoak egimdako mesede guztiak ahaztuta, arerioari gehiago sinistu eutsan, bere Jaungoiko Egileari baino. Eta pekatu eginik, lurreko paradisua eta Jaungoikoaren adiskidetasuna, biak batera, galdu zituan.

Baina halan be Jaungoikoak, hain esker txarreko gizona ez eban bere eskutik itxi, eta Salbatzaile bat bialduko eutsala agindu eutsan...

Eta profetak alde aurretik iragarri ebenez, Salbatzaile hori emakume bategandik jaioko zan, guri zeruko ateak zabaltzeko. Baruk profetak esan ebenez: "Jaungoikoa gure lurrean agertu da, eta gizonen artean bizi da" (Bar 3, 38)...

Orain, senideok, gure fedea biztu daigun...

Belenen jaio zan Jaungoiko Haurtxo berbera, orain hemen Eukaristian daukagu. Bihotz berroz eta itzal handiz Eukaristian Bera hartzera urreratu gaitezana... Zeruko zorionean sartzen garanean hango ederrenak ez dira aingeruak eta santuak izango, zeruko Errege dan Jaungoiko Bera baino... Belengo haurtxoak guretzat toki eder bat betiko zorionean atondu deigula. Amen.

(C)

FAMILIA SANTUA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus, Maria eta Jose, Nazareteko sendi-familia santua ekarten deusku gaur liturgiak, gure sendien eredu edo ikasbidetzat...

Nazareteko etxea ez zan ondasunez aberatsa, baina bai maitasunez eta zorionez...

Diruak ez dau etxea zoriontsu egiten, alkarren arteko maitasun eta bihotz-onak baino...

1. IRAKURGAIA: Sir 3, 3-7. 14-17a

Sirak jakintsuak esaten deusku, gurasoak maite dituen Jaungoikoak bedeinkatu eta zoriontsu egingo dauala.

2 IRAKURGAIA: Kol 3, 12-21

Maitasuna da etxeko guztiak bat egiten dituan lokarririk bikainena.

EBANJELIOA: Lk 2, 41-52

"JESUS NAZARETERA JATSI ZAN GURASOAKAZ, ETA HAREEN MENPEAN JARRAITU EBAN" (Lk 2, 51

H O M I L I A

(Italiako gotzainek "Familia"ri buruz egindako pastoral idazkia)

Familiaren oinarria maitasuna da.

Ezkontza ez da lantegi bat jasoteko gizon-emakume bikote batek egiten dauan alkarte edo soziedade bat. Familiako bizitzaren giro eta susterra maitasunak izan behar dau. Eta maitasun horrek urteak joan ahala, sakonagoak eta egiazkoagoak izan behar dau.

Senar-emazteen arteko maitasuna bitarikoa da: arimakoa eta gorputzekoa. Arimakoa alkar maitatzeko, eta gorputzekoa seme-alabak sortzeko...

Ezkontza sakramentu bat dala irakasten deusku elizak. Senar-emazteak alkar maite, eta seme-alabak be maitatuz, Jaungoikoa be maitatzen dabe. Eta gero Jaunaren maitasun hori euren inguruan zabaltzen dabe. Ezkonduen bizitza, alkar maitatuz, santutasun bidea da...

Ezkonduak euren eguneroko otoitzak, lanak eta neke-pozak Jaunari eskeinduz, Kristoren antzeko egiten dira...

Euren eguneroko otoitzak, lan eta neke-pozak Jaunari eskeinduz, ezkonduak Kristoren antzeko egiten dira...

Jaungoikoa maitasuna da, eta ezkonduak alkar maitatuz, Jaungoikoaren maitasunaren zati baten antzeko dira... Ezkonduak maitasunaren bidez Jaungoikoagaz alkartzeko dira, eta munduaren aurrean Jaungoikoaren maitasunaren ezaugarri edo seinale dira.

Kristok gizaki guztiak maitatu, eta bere bizia guztien alde emon eban lez, kristinau ezkonduak be bardin, euren bizitza guztian zehar, heriotzara arte, alkar maitatu behar dabe. Horregaitik dino San Paulok, ezkontza "Misterio handia" dala.

Norbaitek esan lei, holango maitasuna "Utopia" hutsa dala, hau da: ames hutsa. Baina Vatikanoko kontzilioak dinosku: "Senar-emazteen maitasuna Jaungoikoaren maitasunagaz bat egiten da, eta Kristoren salbamen indarrak aberasten, ezkontideak Jaungoikoarengana joan daitezkan, eta aita-ama izatearen egin-beharretan laguntza eta indarra izan daien (G S 48).

Kristo onartzea gurutzua onartzea da. Urteak irakasten dabe ezkontzako bizitzan ez dirala nekeak faltako, eta askotan bai astun eta larriak be. Une estu horreetan ezkonduak Kristoren gurutzuearen indarrera jo behar dabe...

Ezkonduak San Paulok esandakoa gogoratu beie: "Eroan ondo alkar, eta parkatu batak besteari, inork inorentzat ezer baleuka. Jaunak parkatu deusuen lez, parkatu zuok be. Eta guzti horreen gainetik, ostera, izan egizue maitasuna, hori da eta lokarririk bikainena" (Kol 3, 12-14).

Familiari buruz Vatikanoko kontzilioak hau irakasten deusku: "Kristinau ezkontideak, ezkontzako sakramentuaren bidez, alkarri santu egiten laguntzen deutsoe... Ezkonduen etxeak eleiza txiki bat izan behar dau, aita eta ama, euren berba eta ejemplo onen bidez, seme-alabentzat fedearen lehenengo predikari izanaz (L G 11).

Baita beste hau be esaten deusku: "Ezkonduak euren eginbehar astunak beteteko birtute edo indar berezi baten beharra dauke. Egunero sortzen diran nekeak erodateko, alkar maitasuna, bihotz zabalatasuna eta pazientzia handia behar dabe. Birtute honeek Jaunari egunero aspertu barik otoitzean eskatu behar deutsoez" (G s 48)

BAKEAREN EGUNA

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Urte zaharra joan jaku, eta barriari hasiera emon deutsagu...
Guztiontzat zorioneko izan daitela.

Gaurko eukaristia honetan, Aita Santuaren deiari erantzunez,
munduko bakearen alde otoitz egingo dogu. Aingeruak Belenen abes-
tu eben bakea gure artera eta mundu guztira zabaldu daitela.

Andra Maria Jaungoikoaren amak, gure otoitz apalak bere Semea-
ren aurrera jaso daizala.

1. IRAKURGAIA: Zenb 6, 22-27

Orain entzungo dogun irakurgai hau, Lege Zaharreko abadeak eleiz-
kizunen azkenaldian herriari emoten eutsoen bedeinkapena da.

2. IRAKURGAIA: Ga 4, 4-7

Mariagandik jaiotako Jesusi eskerrak, gu orain Jaungoikoaren
seme-alabak gara, baita zeruaren jabe be.

EBANJELIOA: Lk 2, 16-21

"AINGERUAK JAUNGOIKOA GORESTEN EBEN, ESANEZ: AINTZA ZERUETAN
JAUNGOIKOARI, ETA BAKEA LURREAN HAREN GOGOKO GIZONEI" (Lk 2, 4)

H O M I L I A

(Donostiako gotzain Jose Maria Setienek 1991. urtean abendurako
egin eban Pastoal Idazkitik zatiak hartuak)

Guztiok bakea gura dogu...

Jaungoikoa, Isaias profetak dinoanez, "Bakearen Jaungoikoa" da.
Eta Jesusek irakatsi euskun bake-egileak zorioneko izango dirala,
Jaungoikoaren seme-alabak diralako. (Mt 5, 9)

Gaurko teknika eta zientzi aurrerapenak, eurak bakarrik, gitxi
balio dabe gure artera bakea ekarteko, bide honetan Jaungoikoak
laguntzen ez badeusku... Baina baita egia da, Jaungoikoak gure la-
guntza eskatzen dauala, gure lurrean bakea eta anaitasuna bizi dai-
tezan...

Bakea ekarteko aurretik justizia behar da bakotxari berea emote-
ko, eta gero maitasuna behar da alkarren errespetoan biziteko.

Guzurra, gorrotoa eta injustiziak dira bakearen areriorik handi-
enak. Jaungoikoa da gizakien zaindaririk onena. Jaungoikoa baztert-
zen danean, zabalik dago atea gure senideen aurka gaiztakeriarik
handienak egiteko be.

Bakea danontzat, inor baztertu barik.
San Paulok Erromako kristinauei idazten deutse: "Ez itzuli gatxik, gatx orde...Eta zuen aldetik, ahal dala, bizi bakean guztiekaz".

Jesusek bere jarraitzaileei danak maitatzeko agindua emon eutsen: "Izan be maite zaituenak bakarrik maite badozuez, zer sari zor jatsue zeruetan? (Mt 5, 46).

Kristoren bakeak danak hartzen ditu bere barruan: lagunak eta arerioak, pertsonak eta herriak...

Bakea ames eta eginbeharra. Kristinauok ondo dakigu bake oso eta betea inoiz be ez dogula lortuko mundu honetan...Baina baita badakigu bakearen hazia ereinda dagoela mundu honetan. Eta guk frutua emon daian lan egin behar dogu, ahal dogun indar guztiaz injustiziaren, gorrotoaren eta guzurraren aurka jokatzu.

Kristinauok gaurko munduaz bat eginik bizi behar dogu, eta gu bakearen aurrelari eta egile izan behar dogu, alkar errespetatuz eta maitatuz, eta alkarri ahal dogun guztian lagunduz.

Danok bakearen alde. Gure gizarteko bake-ezaren aurrean ezin dogu esan. "Eta niri arazo honegaitik zer?". Ezin gaitekez bakarkerian geure "txokoan" sartu, eta ardura barik bizi.

Geure "txokotik" urteten ikasten ez dogun bitartean, ezin dogu Kristoren jarraitzaile garala esan...

Erlinjinoan, politikan eta ekonomian bakotxak bere eritziak izango ditu. Hori gauza ona da, besteen eritziak errespetatzen dakigun bitartean...

Norbaitek guri, derrigorrean, bere eritziak harrago gura deusku-zanean, orduan guk jokabide oker honen aurka, ahalegin guztiz ekin behar dogu...

"Neuk bakarrik daukat egia" uste dauanak, bakearen oinarriak hondatzen ditu... Besteen pentsaerak errespetatzen ez dakigun neurrian, bakearen aurka gabilitza.

Kristinauen eginbeharra. Guk, kristauok, justizia eta bakearen alde beti lan egin behar dogu, ahal danik eta sufrimen gitxienaz gure artera bakea ekarteko. Baina beti maitasunaren bidetik alden du barik. Bakerako biderik zelaiena hau da: danontzat maitasuna.

Danok, gaiztoenak be, pertsonak gara. Eta gure fedea esaten deusku, danok Jaungoikoaren seme-alabak garala, eta senide lez, gorroto barik, alkarrekaz bakean bizi behar dogula".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Zeruan egoan Jaungoikoaren Seme ikusi-ezina, lurrean, giza-gorputza harturik, gure artean gizon eginik, agertu da.

Jesus Jaungoikoaren Semea dala sinistu eta onartzen dauana, Jaungoikoaren seme-alaba izatera helduko da. Eta seme-alaba dan ezkerro, baita zeruaren jabe be.

1 IRAKURGAIA: Sir 24, 1-4. 12-16

Jaungoikoaren jakituria zerutik lurrera etorri zan, guri zerurako bidean argi egiteko.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-6. 15-18

Bedeinkatua Jaungoikoa eta eskerrak Berari, fedearen bidez gure begiak argitu, eta bere seme-alaba egin gaitualako.

EBANJELIOA: Jn 1, 1-18

"HITZA ONARTU EBEN GUZTIEI, JAUNGOIKOAREN SEME-ALABA IZATEKO ESKUBIDEA EMON EUTSEN" (Jn 1, 12)

H O M I L I A

Joan ebanjelariak bere barri onaren hasieran esan deuskuna entzun dogu: "Hitza, hau da: Jaungoikoaren Semea onartu daben guztietiei, Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emon deutse"

Jaunaren Semea "onartzea" zer da?

"Onartze" hau zer dan hobeto ulertu daigun, homilia honetan pertsona batzuen berbak ekarriko dodaz, gai honetan zerbait argi egiteko.

Kristo onartu eta bere ikasle izateko, dino Ernest Renan-ek, ez da gauza handi eta gaxik ikasi beharrik...Gauza bat bakarra da beharrezko: Kristogaz bat egin eta Bera maitatu".

Eta Aita Pedro Arrupe bilbotarrak autortzen dau: "Jesusen Lagundian izen-emon neban ezkeroztik, Jesukristo izan da, eta orain be bada, nire bihotzeko ames bakarra. Bera izan da eta izango da beti, nire indarra. Honek zer esan gura dauan ez da asko argitu beharrik. Kendu eizue Jesukristo nire bizitzatik, eta ni nazan guztia jausiko litzateke, hazur-eskeletoa kendu deutzazun gorputzaren antzera.

Jose Antonio Pagolak bere "Nazareteko Jesus" izeneko liburuan dinosku: "Jesus onartzeak esan gura dau, Jesus egiaz eta benetan hartzea. Jesusen dotrina geurea egin, eta Haren antzeko izaten ahalegintzea. Jesus hain gizon on eta apala da! Pobreentzat hain maitagarria, eta pekatarietzat hain errukiz betea! Jesus honan ulertzen dauanak, bidea zabalik dauka, Jesus Jaungoikoaren Semea dala onartzeko".

Liburu Santuetan jakitun dan beste euskaldun idazle batek be esaten deusku:

"Jesus onartu gura dauanak hiru aukera honeek egin behar ditu: Lehenengo eta danen aurretik Kristo ezagutu. Gero bigarren Kristo maitatu eta maitasun hori bere inguruan zabaldu. Eta azkenez, munduaren aurrean Jesusen lekuko-testigu izan, geure pentsaera eta egiteetan Kristoren antzeko izaten ahaleginduz" (Periko Nuñez)

Eta honen antzeko zerbait esaten deuskue Belgikako gotzainak be: "Egiazko kristinau izateko ez da nahiko, historiak irakasten dauan lez, Jesus bizi izan zala sinistea. Kristinau fedea, horrezaz gainera, Jesusengan gure konfiantza osoa jartzea eskatzen dau, Bere dotrina onartu, eta Jesusen antzera lan egitea".

Eta ospe handiko Adolfo Harnack jakitunak, Jesusen dotrinaren mamia zein dan irakatsi nahirik, dinosku: "Jesusen dotrinaren muina hau da: Jaungoikoa gure Aita dala. Eta horregaitik gizon-emakume guztiok, haren seme-alaba izanik, gure artean senide garala, eta senide garanez alkar maite behar dogula. Hau egiten dauana Jesusen benetako jarraitzaile da".

Eta amaitzeko Paulo VI. aita santuak gazteei esandakoak gogora ekarriko dodaz:

"Gazteok, Kristo ezagutu eta maitatu eizue. Ez zaitue bizitza honetan aberats egingo. Baina Jesus bai gizon on eta maitagarria dala! Ez zaitue engainatuko, beti egia esango deusue. Jesusek ez zaitue zapalduko. Pekatuak parkatzen badaki, baita bihotzak alaitzen be. Beti bizitzako berbak Jesusek bakarrik ditu".

(C)

JAUNAREN AGERPENA

EPIFANIA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaunaren agerpena, Epifania edo Errege Magoen eguna ospatzen dogu gaur...

Magoak jentilak ziran, eguzki aldetik munduko Salbatzailea eza-gutzera etorriak... Belengo Umea ez zan Isarel Herria bakarrik salbatzera etorri, baita jentil Herria be... Gu jentilen ondorengoak gara. Jentilak ziran gure antzinako gurasoak...

Gaurko egun hau, horregaitik gurea dogu. Magoakaz batera goazen gu be Belengo Umeari oparirik ederrenak eskeintzera.

1. IRAKURGAIA: Is 60, 1-6

Isaias profetak dinosku: Jaungoikoaren huri Jerusalemene gainean argi handi bat sortu da, eta erregeak hara doaz opariak eskeintzera.

2. IRAKURGAIA: Ef 3, 2-3a. 5-6

Judeguintzat eta jentilentzat, danontzat dakar Jesusek bere salbamera.

EBANJELIOA: Mt 2, 1-12

"MAGO BATZUK ETORRI ZIRAN SORTALDETIK JERUSALENERA, ITAUNKA: NON DAGO JAIIO-BARRI DAN JUDEGUEN ERREGEA?" (Mt 2, 1-2)

H O M I L I A

(Agustin santuaren Epifaniari buruzko hitzaldietatik ideak hartuta)

Senideok:

"Orain egun gitxi Jēsus jaio zaneke eguna ospatu dogu. Gaur atzeritar-magoak Jesus umea aurkitu eben jaia dogu...

Lehengo egunean Belengo umea artzainak gurtu eben. Gaur magoak adorutzen dabe. Aingeru batek adierazo eutsen artzainei munduko Salbatzailea jaio zala. Eta gaur izar batek izar batek emoten deutse albiste hori magoei.

Artzainak eta magoak, biak, era batera nahiz bestera, zeruko argiaz, zeru-lurreko erregea ezagutu, eta lurrera bakea ekartera etorri zala jakin eben.

Artzainak judeguak ziran, eta magoak jentilak. Jesus Hautxoak herri bi honeek bat egin zituan. Lehen Israel Herria zan Jaungoikoaren Herri maitea. Gaurtik aurrera ez da judeu eta jentilak bereziko dituan mugarik. Danok gara Jaungoikoaren herri maite.

Magoak urrundik, eguzki aldetik, etorri eta berehala Jerusalemenean itaunka hasi ziran: "Non dago jaio-barri dan judeguen erregea?. Haren izarra ikusi dogu eguzki aldean, eta hemen gatoz Bera gurtzera".

Bila dabilta. Itaunka dabilta. Aurkitzen dabe. Sinisten dabe. Honeexek dira guretzat be sinismena lortzeko bideak.

Lehenengo Jaunaren egarria gure bihotzean sentitu. Bigarren, Jauna aurkitu arte Haren itaunka ibili. Eta aurkitutakoan Jaunarengan sinistu. Honexek dira federako bideak.

Magoak, Jaungoikoak lagundurik, izarren bidez munduko Salbatzailearen albistea hartu eben, baina halan da be, Jerusalemenean itaunka hasi ziran: "Non dago zuen Errege jaio-barria?".

Jerusalengo jakintsuak, Liburu Santuen bidez, Salbatzailea non jaioko zan ondo ekien, eta magoei halan adierazo eutsien, baina eurak ez ziran Mesias ezagutzera joan. Judu jakintsu hareek Liburu Santuak buruan baebezan, baina bihotzean ez... Besteei bideak erakutsiz, eurak sinistu barik gelditu ziran. Zenbat hobeto egingo eben eurak be magoekaz batera joan, eta juduen Erregea adoratu baeben. Baina jakintsu hareek besteei iturria non dagoan erakutsiz, eurak sinistu barik, egarriz ito ziran.

Bide-gurutzeetan ikusten diran "errepide seinaleen" antzekoak ziran. Seinale hauek handik igaroten direnei norabidea erakusten deutesie, baina eurak, lurrian beti geldi, inora joan barik gelditzen dira.

Magoak juduen erregea gurtzeko aurkitu gura eben. Erodes erregeak, osteran, hilteko. Baina Jerusalemengo judu jakintsuak, ez bata ez bestea, bien erdian gelditu ziran. Ez eben Belengo Umea hil gura, baina ezta haurra ikustera joateko gogorik agertu be.

Herodesek hil zituan Belengo umeak, osteran, ez ziran holarriak: berba egiten oraindino ez ekien, eta euren odolaz Kristo Mesias zala autortu eben...

Judegu maisuak, Liburu Santuetan jakintsuak, Kristo ezagutu eben, baina ez maitatu. Haurtxo errubakoak, osteran, ezaguerako adinera heldu barik, Kristoren alde euren bizia emon eben.

Jaunak emon deigula guri be betiko erreinua, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusen bateoko domeka honegaz Gabon-aldia amaitzen dogu...

Jesus, Nazareteko bere etxe eta ama itxi, eta Jordan ibaira doa Joanen eskutik bateoa hartzera.

Bateoa hartu ostean hasiko da Jesus Barri Ona zabaltzen: "Bihotz barritu zaiteze. Laster dator Jaungoikoaren erreinua"...

1. IRAKURGAIA: Is 42, 1-4. 6-7

Mesias, Jaunaren zerbitzaria, gizon apala izango da. Itsuak argitu eta lotuak askatu egingo ditu.

2. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 34-38

Jesusek bere bizitza osoa danei on egiten emon ebala dinosku Pedro apostoluak..

EBANJELIOA: Lk 3, 16-16. 21-22

"HERRI GUZTIA BATEOA HARTZEN ZIHARDUEN ARTEAN, JESUS BE BATEATU EGIN ZAN, ETA ESPIRITU SANTUA JATSI JAKON GAINERA USO IRUDIAN".
(Lk 3, 21-22)

H O M I L I A

Joan Paulo II. aita santuak, Vatikanoko basilikan, ume talde bat bateatu aurretik, bateoa zer dan argitzeko, honango hitzaldia egin eutsen haurtxoen gurasoei.

"Aintza eta gorespen zuri, Jauna!

Laster bateoa hartuko daben umetxo honeen aita-amak, aitabitxi eta amabitxiak, baita jai hau ospatzera etorri zarien beste guztio, Jaungoikoak bedeinkatu zaiezala.

Jesusen bateoko jai eder hau haurtxo talde bati bateoa emonaz Vatikanoko basilika honetan ospatu gura izan dot, Jesusen salbamen misterioa zer dan zuen begien aurrean ipinteko asmoz.

Haurtxo honeek euren aita eta amaren arteko maitasunaren frutu ederrak dira. Baita Jaungoiko Egilearen misteriozko lanaren ondorenak be.

Oraintsu lureko bizitzara jaiok izan dira, eta laster bateoadez bizitza barri batera jaioko dira. Zeruko bizitzara. Bizitza barri hau Kristok irabazi deusku, Berak Nikodemori esan eutsan lez:

"Espiritutik eta uretik jaioten ez dana, ez da Jaungoikoaren erreinuan sartuko. Haragitik jaioa haragi da. Espiritutik jaioa, espiritua" (Jn 3, 5-6).

Bateoa espirituz barriro jaiotzea da. Eta zeruko jaiotza hau, lurreko jaiotza bezain egiazkoa da...

Umetxo honeek laster, kristinau fedeak irakasten deuskunez, bateoaren bidez, Adanen jatorrizko pekatutik askatuak izango dira. Eta Espirituaren doez eta graziaz santu eginak.

Baita gehiago be, teologi birtutez, hau da: sinismen, itxaropen eta maitasunaz edertuak.

Laster Kristoren adiskide eta antzeko izango dira. Eta Jaungoikoaren seme-alaba egingo diranez, baita zeruaren jabe be. Kristoren gorputz mistikoa dan Eleizaren zati eta kide egingo dira...

Bateoko sakramentuaren bitartez orain emongo jaken zeruko bizitza honek, haurtxo honeen bizitzan zehar, hazi, garatu eta bere umotasunera heldu behar dau, bere osotasun betera etorri arte.

Vatikanoko kontzilioak dino: "Kristoren jarraitzaileak, bateoaren bidez, egiaz eta benetan Jaungoikoaren seme-alaba eginak dira, eta Jaungoikoaren antzeko. Horregaitik santuak dira. Beraz, Jaunaren laguntzaz, hartuko daben sakramentu hori, zaindu eta bere osotasun betera eroan behar dabe"(L.G. 40).

Jaungoiko seme-alaba laster eginak izango diran haurtxo honeei, zeruko bizitza zaintzen eta indartzen eleiztar guztiok lagundu behar deutsegu, baira euren guraso eta aita-amabitxiak batez be, ebanjelioak eskatzen dauan ledera biziz, euren umeentzat ikasbide ejenplo oneko izan daitezcan ...

Hau da zuen fedeak eskatzen deusuen... Gurasoak dira euren umeentzat fedean maisurik onenak. Kristinau familien etxeak seme-alabentzat eleiza txiki baten antzeko izan behar leuke. Umeak etxeak otoitz egiten ikusi deiela... "Aitaren" egiten, "Gure Aita" errezaten umeak etxeen ikasbidetik txikitatik ikasi deiela.

Lan eder hau zuen eskuetan ixten dot, ondo eta zintzo beteko dozuelakoaren uste onez".

"Jaunak bedeinkatu zaiezala".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka honegaz garizumari hasiera emoten deutzagu...

Garai santu hau Jesusen biztuera prestatzeko sasoa dogu.

Horretarako bideak honeexek dira: Otoitz gehiago egin. Jaungoikoa hobeto ezagutu eta alkar gure artean sakonago maitatu eta lagundu.

1. IRAKURGAIA: Deut 26, 4-10

Ejiptoko morrontza gogorretik atera ebalako, Israel Herriak eskerrak emoten deutzaz Jaungoikoari.

2. IRAKURGAIA: Erm 10, 9-13

Itxaropen osoa Jaunagan ipinten dauanak, betiko salbamena lortuko dau.

EBANJELIOA: Lk 4, 1-13

"ETA DEABRUAK JESUS TENTALDIAN IPINI EBAN"(Lk, 4,2)

H O M I L I A

(Aita Pedro Arruperen "Hambre de pan y de ebanjelio"tik hartuta)

Deabruak Jesus basamortuan tentatu ebanean, hiru gauzatan zirikatu eban:

Harriak ogi bihurtu.

Eleiza nagusiaren gailurretik bere burua behera bota.

Belaunikaturik Jaungoikoa balitz lez deabrua adoratu.

1. tentaldia. Harriak ogi egin.

Zeintsuk dira gaur guk ogi bihurtu gura ditugun harriak?

Aberastasunak. Baina lurreko ondasunak gero eta ugariago eukitzeak ez dau gizona eta emakumea zintzoago eta hobea egiten.

Halan ta be, alde guztietan jendea gehiago eta ugariago lurreko aberastasunak pilatzen ikusten dogu; gero gaurko aurrerapenak eskeintzen deuskuzan mila eratako tresnak erosi, eta holan gozago biziteko. Hobeto biziteko gurari hau, bere neurrian hartzen bada, ez da berez gauza okerra, baina honek apurka apurka eta gu konturatu barik "kontsumokeriara" eroran gaikez. Eta zerda "kontsumokeriara?" Askok irabazteko ase ezinezko gose-egarria, gero gauza asko erosi, eta geroago eta gehiago nahi izatea, beharrezko ez diran gauzetan be.

"Asko eukitzeko" gose-egarri honek gure arimetan kalte handiak egiten ditu, Jaungoikoak ereindako hazia, arantza artean lez, ito egiten daualako.

2. tentaldia. Bota eizu burua...

Eleiza nagusiko gailurretik behera botata, minik hartzen ez badozu, ikusten zaituenak Mesiastzat hartuko zaitue.

Gaur aginte-gura honek beste izen bat hartu dau: "aginte-burrukā" (Lucha por el poder). Bide onez edo txarrez agintari izatera heldu, gero menpekoei neure pentsaera eta legeak, nahitaez, derrigorrez, hartuazoteko.

Bidebako aginte-nahi honek gure gizartera injustizia handiak ekarri ditu: herri aberatsak herri pobreak zapaldu egiten dabez.

Nazino aberatsak gero eta aberatsagoak dira, eta estadu pobreak gero eta pobreagoak. Gu Europan gauza guztiekaz ase bizi garan bitartean, Afrikako jendea gosez hiltzen da.

3. tentaldia. Belaunikaturik adora naizu.

Sasi-jainkoak adoratzea antzinako gizon-emakumeen ohitura zan; baina badira gaur be gure artean beste sasi-jainko batzuk, antzina-koak baino finago eta maltzurragoak, guk belaunikaturik adoratzen ditugunak. Esaterako politikan marxismo edota liberalismoa, ekonomian efikazia eta irabazpideak. gure eguneroko bizitzan atsegina eta dan guztian eta gehien gozatzea...

Gizakiak, betiko Egia dan Jaungoikoa baztertzen dauanean, kea lez joaten diran beste jaungoiko txiki honeek gurtzen ditu.

Zelan garaitu zituan Jesusek tentaldi honeek?

"Gizona ez da ogiz bakarrik bizi...Zure Jaungoikoa bakarrik gurtuko dozu", esan eutsan Jesusek tentatzaileari.

Ondo jan-edateak, eta gorputzeko beste atseginak, eurak bakarrik, ez dabe gizakiaren bihotza beteten... Gure eguneroko bizitzan lujokeria asko kenduko bagendu, pozago biziko gintzatekezela, zalantzarik ez dago.... Gitxiagogaz biziten ikasi behar geunke, gero txiroei emoteko ugariago euki daigun... Gai honetan kristinauok esku-zabalagoak bagina, "erlijinoa herriaren opioa dala" ez leukie esango. Kristinauok badakigu, gizonak egoistagiak garala mundu zital hau konpontzeko; baina halan da be, ez dogu itxaropena galdu behar. Gure indarra ez da dirua edo politika, Kristoren ebanjelioa baino. Guk badakigu, mundu hau garbitze eta hobetze honetan, Kristo dogula laguntzaile".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gure pekatuak handiak badira be, Jaungoikoaren errukia handiagoa da...

Jaungoikoa zein samurra dan, eta zenbat maite gaituan konturatu-ko bagina, gure zeruko Aitagaz daukaguzan hartu-emonak konfiantza gehiagokoak izango litzatekez...

Gure egiazko aberria zerua da. Egia honek gure bizitzako neke-minak eroaten lagundu behar deusku.

1. IRAKURGAIA: Gen 15, 5-12. 17-18

Jaungoikoak Abrahamegaz Alkargoa (alkartasuna) egiten dau, esanaz: zure ondorengoei lur hau emongo deutsek.

2. IRAKURGAIA: Flp 3, 17. 4,1

Lur honetan ez gara betikoak. Gu zeruko herritarrak gara...

EBANJELIOA: Lk 9, 28-36

"JESUSEN AURPEGIA ANTZALDATU ZAN...ETA MOISES ETA ELIAS, JESUSEK JERUSALENEN JASAN BEHAR EBAN HERIOTZAZ BERBA EGITEN EBEN"

H O M I L I A

Heriotzea zerura sartzeko atea.

Hiru lekuko edo testiguen autortzak.

1. testigua. Karl Rhaner.

Laurogei urte bete zituanean alemaniako teologo ospetsu honi itandu eutsoen: Laurogei urtegaz betiko bizitzari buruz zer eritxi dozu?.

Zer uste dodan?. Jaungoikoaren erruki neurribakoan nire pekatuak garbizea. Jaungoikoa argi betean ikustea. Jaungoikoaren betikota-sun zorientzua gozatzea. Nik, Avilako Teresa Deunak lez, neure buruari esaten deutsat: Ez zaizala ezertxok be larritu, ezta ikaratu. Jaungoikoa bakarrik nahiko da...

Niri txikitan, Jaungoikoa gure epaile zorrotza zala irakatsi eusten. Eta heriotzako orduan berari gure bizitza guztiko kontu es-tu eta zehatza emon beharko geuntsala... Baina hau egia erdia ba-karrik da. Egia osoa beste hau da: Jaungoikoa gure Aita dala, eta heriotzako orduan, nik halan uste dot, Aita samurragoa agertuko ja-kula, epaile zorrotza baino.

Zer da zerura sartzea?

Aitak edo amak bere seme edo alabari, luzaroan alkarrengandik urrun bizi, eta etxera datorrenean, mosu handi bat emonaz, "ongi etorria" egitea.

2. testigua. Aita Pedro Arrupe, Jesusen Lagundiko buruzagia.

Kazetari batek itaun hau egin eutsan: Aita Arrupe, zuretzat zer da zerua?

Eta honek erantzun: Bizitza honetako bide neketsu eta aldatz gogorraren ostean, Jaungoiko Aitaren etxean atsedean hartzea.

Nik txikitan, eleizetako hitzaldietan entzundako gauza ikaragarriakaitik, Jaungoikoari maitasuna baino bildurra gehiago neutsan.

Baina orain badakit lur honetako bizitzaren ostean, zeruan Jaungoiko Aita errukiz betea aurkituko dogula. Eta nire bizitzako gaiztakeriak handiak izan badira be, damutzen banaz, zeruan Aita guztiz on bat aurkituko dodala.

Niretzat heriotzea, bizitza labur hau amaitu, eta beste bizitza hobe bat, inoiz amaituko ez dana, hastea da. Edo hobeto esateko, zeruko bizitza lur honetako bizitzaren jarraipena da; baina hemen goar baino beteagoa, osoagoa, eta batez be, zoriontsuagoa. Eta betikoa gainera.

Askok heriotzari bildur handia deutso, Jaungoiko gure Aita zerukoa zein ona dan ezagutzen ez dabelako.

3. testigua. Joan XXIII. aita santua.

Zer da heriotzea?

Ameriketara itsasoz joateko egiten dan bidaiaren antzekoa da heriotzea. Portuan negarrez eta bihotz-urratuz "agur" egiten deutsegu maite ditugunei. Baina badakigu, eta ziur gagoz, han itsaso zabaleko beste aldean, gure aurretik joan diran lagun maiteak, guri itxaroten aurkituko ditugula. Bai, gure etxeko maiteei "agur" egitea guztiz penagarria da. Baina gurea ez da betiko "agurra", gero arte labur bat baino. Eta azkenean gauza bat bakarra da inportantea: bizitzaren mugara bihotz garbiz heltzea.

Gue sinismena bai dala pozgarria! Gure fedeak, zeruko bizitza lur honetakoa baino askoz ederragoa eta zoriontsuagoa dala irakasten deusku. Baina hau orain ez dogu ikusten. Zeruko zoriona eta bakea zelangoak diran bagenkiz, beste modu batera berba egingo geunke.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Garizumako hirugarren domeka honetako ebanjelioan, Jesusek esango deusku: "Bihotz barritu zaiteze. Zuen pekatuen damurik ez badozue, guztiok galduko zarie".

Frutu onik ez dakarren zugaitza moztua izango da...

1. IRAKURGAIA: Ex 1-8a. 13-15

Jaungoikoak Moises aukeratzen dau, Ejiptora joan, eta hango israeldarrak askatzeko.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 10, 1-6. 10-12

Israeldar guztiak ez eben Jaungoikoarekin zintzo jokatu. Kristin角度ok be ez gara beti Jaungoikoak gura dauanaren antzeko izan.

EBANJELIOA: Lk 13, 1-9

"BIHOTZ BARRITZEN EZ BAZARIE, GUZTIOK BARDIN GALDUKO ZARIE" (Lk 1,5)

H O M I L I A

(Bihotz barritzeari buruz Suizako gotzainen eskutitza, laburtua)
(1971. urtean)

"Itun Zaharrean Israel herriak Jaungoikoari maitasuna baino bildurra gehiago agertzen eutsan. Baina Itun edo Lege barrian Jesusek, bere kurutzeko odolaz, kristin角度 herriagaz maitasunezko Alkartasuna egin dau. Eta orain bildurrez baino gehiago maitasunez Beregana ekarri gura gaitu.

Halan da be, badira oraindino kristin角度 herrian Jaungoikoaren bildurrez bizi diranak... Jesusek pekatari damutuentzat zelango erruki samurra agertzen dauan jakiteko, ebanjelioak zabaldu daiguzan:

Jesusek herriko emakume galduari, oinak usain gozoz eta negar-anguluz busti eutsazanari, esan eutsan: "Asko maite izan dozulako, parkatu be pekatu asko parkatzen jatsuz"(Lk 7, 46-50)

Eta ezkontza nahasketan harrapatu ebelako, harrika hil gura eben emakumeari be, Jesusek esan eutsan: "Non dira zu salatzen zinduezanak?. Inork be ez zaitu kondenatu?. Zoaz bakean, eta hemendik aurrera ez egin pekaturik" (Jn 9, 9-10)

Eta lapur onari be azken orduan Jesusek zelan parkatu eutsan inkusirik, Jaungoikoak partzatzeko daukan bihotz samurra, nork zalantza-dudan ipini leike?.

Gizaldietan zehar, dinoskue Suizako gotzainak, Elizan pekatuak parkatzeko moduak aldatu egin dira; baina oinarritzko gauzak beti bardin irauten dabe. Eta honeexek dira:

1. Bihotzeko damuak bakarrik parkatzen ditu pekatuak. Txarto eginda-koaren damurik ez badozu, alperrik zoaz abadearengana autortzera.
2. Pekatu txikiak edo arinak parkatuak izateko, ez lehen eta ez lehen eta ez orain, ez dago abadearengana joan beharrik.
3. Pekatu handi edo astunak be, bihotzeko damuaz parkatzen dira; bina gero, ahal danean, Jaungoikoaren ordezkoko dan abadearengana joan behar da. Pekatu astun horreek zeintsuk diran geroago esango dogu.

Pekatuak parkatzeko Elizan izan diran aldaketak.

1. modua. Hasieratik seigarren gizaldira arte.

Kristautasunaren lehenengo denporetan, pekatu arinen parkamena eskatzera abadearengana joateko ez zan ohiturarik. Kristauak, Eukaristia ospatzeko alkartzen ziranean, danak batera, orain guk mezaren hasieran egiten dogun antzera, Jaunari parkamena eskatzen eutsoen.

Baina bere kontzientzian pekatu astunak zituanak, ezin eban eukaristian parte hartu, harik eta penitentzia egin, eta gotzainaren bitartez, parkamena lortu arte.

Eta gotzainaren parkamena behar eben pekatu astunak honeexek ziran: fedea ukatzea, giza-hilketa, ezkontza-nahastea, lapurreta handiak egitea... Baita geroago honeen antzeko beste pekatu batzuk be: sorginkeria, gorrotoak, auzitegian guzurrezko testigantza egitea, gurasoak ez maitatzea, eta abar... Honango pekatuen parkamena bizitza guztian baten bakarrik emoten zan, ez birritan.

2. modua. Seigarren gizalditik hamabigarren gizaldira arte.

Pekatu arinak be abadeari autortzeko ohitura etorri zan... Eta pekatu astunak be, baten bakarrik ez, baina gehiagotan be parkatzen hasi ziran. Baina pekatu astunakaitik egin behar ziran penitentziak oso luze eta latzak ziran.

3. modua. Hamairugarren gizalditik gaur arte.

Gaurko Elizak gorputzeko penitentziari baino, bihotz barruko damuari gehiago begiratzen deutso. Orain pekatuakaitik emoten diran penitentziak oso arinak dira. Honek esan gura dau, guk orain damuari eta bihotz barritzeari sakonago begiratu behar deusagula. Azken batean, zelango damua, halango parkamena hartuko dogu Jaunagandik.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan fariseuei Jesusen aurka esaten entzungo deutsegu: "Honek pekatariak ondo hartzen ditu, eta jan be eurekaz jaten dau"...

Gure pekatuakaitik damutzen bagara, Jaungoiko gure zeruko Aita ona guri itxaroten daukagu, bere besarkada gozoa eta parkamen osoa guri emoteko.

1. IRAKURGAIA: Jos 5, 9a. 10-12

Israeldarrak Ejiptotik urten eta basamortua igaro ondoren, Palestina euren aberrian, lehenengo bider, pazko jaia pozez beterik ospatuten dabe.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 5, 17-21

Kristok gure pekatuak bere gainean hartuta, Jaungoiko Aitagaz adiskidetu gaitu.

EBANJELIOA: Lk 15, 1-3. 11-32

"SEME, JAI EGIN BEHAR GENDUAN ETA POZTU; ZURE ANAIA HILA EGOAN ETA BIZTU EGIN DA; GALDUTA EGOAN, ETA AURKITU DOGU" (Lk 15, 31-32)

H O M I L I A

Ebanjelioko parabola honetan hiru pertsona agertzen jakuz: Aita ona. Seme galdua. Eta seme leiala.

Seme galdua.

Lotsabakoa zan. Aitari modu txarrean dirua eskatzen deutsana. Hobeto esateko emonazo egiten deutso, berak irabazia balitz lez.

Esker txarrekoa zan. Aitari agurrik egin barik, diruak hartuta, etxetik alde egin eban.

Kontzientzibakoa zan. Aitak bere gaiztakerien barririk ez jakiteko, urrutira joan zan. Han ezezagunen artean, testigu barik, nasakerian biziteko.

Gazte galdua zan. Eukan diru guztia emakume galduetakaz alperrik gastau eban...

Seme galdu hau zelan hasi zan bide onera etorten?.

Goseak eraginda. Diru guztiak eralgi ebazanean, behar gorrian, goseak hiltzen aurkitu zan.

Lotseak eraginda. Txarrien antzeko egiteraino jatsi zan, baita beherago be: "Txarriak jaten eben ezkurrezak sabela bete gura eban, baina inork be ez eutsan emoten".

Bere zorakeria ezagutu eta damututa. "Aita, pekatu egin dot zeruaren eta zure aurka".

Apaltasunez. "Ez dot gehiago merezi zure seme izenik. Hartu nai-zu zure morroietako bat lez".

Baina batez be, Aitaren bihotz onean bere konfiantza osoa ipini-ta. Nik badakit gure aita on hutsa dala, eta ni beragaz hain txar-to portatu banaz be, oraindik maite nauala, eta parkatuko deustala...

Aita ona.

Hau da batez be Jesusek parabola honetan irakatsi gura deuskuna. Zein ona, zein samur eta errukiz betea dan Jaungoiko gure Aita, damutzen diran pekatarietzat.

Aita beti aita. Gaiztoa bada be, aitak beti bere semea maite dau. Horregaitik beti etxeko ate aurrean seme noiz etorriko dan begira dago. Bihotzak emoten eutsan, egunen batean semea aitaren etxera itzuliko zala. Horregaitik parabolak dino, oraindik semea urrun egoala, aitak ikusi ebal.

Aitaren bihotz ona. Aitak, bere semea ikusi orduko, bihotz samurturik, erruki izan eutsan. Eta pozaren pozez besarkatu, eta mosuka hasi jakon.

Aitaren parkamen osoa. Ostera be semetzat hartzen dau, eta morroiei agintzen deutse: Ekarri berehala soinekorik ederrena eta jantzi eiozue. Ipinia eraztuna eskuan, eta jantzi oinetakoak.

Aitaren poz zabala. Semearen etorrera ospatzeko, bazkari handi bat atontzen dau. Eta jai honetara herriko lagun guztiak deitzen ditu, danak bere pozaren partedun izan daitezana.

Seme zaharra.

Jesusek, seme zaharraren jokabidean hau irakatsi gura deusku: Jaungoikoaren parkamena zein oso eta betea dan, eta gizonena zein txiki eta makala.

Seme zaharrak honan pentsatzen dau: nire anaia honek gure etxeko ondasunak galdu ditu, gure etxearen izen ona zikindu... Eta orain etxera damuturik etorri dala, nork sinistu?. Ez ete dau goseak ekarri?...

Dana dala, gure aitaren jokabidea ez da zuzena: niri, beti leial beragaz izan nazanari, ez deust emon aitak aume bat be neure lagunekaz jateko; eta nire anaia galduari, etorri danean, zekorra hil deutso bazkari egiteko...

Seme zahar honi gauza bat ahaztu jako: Jaungoikoak ez deuskula guri parkatzen guk merezi dogulako, Bera ona dalako baino.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Garizumako igande honetan, ezkontza-nahasten aurkitutako emakume pekatariari parkatzen ikusiko dogu Jesus.

Jesusek alde batetik fariseu eta idazlarien itxurakeria agirian ipinten dau, eta bestetik emakume pekatariari bere erruki handia agertzen deutso...

1. IRAKURGAIA: Is 43, 16-21

Jaungoikoak antxina israeldarrak Ejiptotik atera zituan lez, orain be Babiloniako erbestetik euren aberrira ekarriko ditu. Itxaropen honegaitik poztu zaitezte, dinotse profetak israeldarrei.

2. IRAKURGAIA: Flp 3, 8-14

Paulo aldi batean Kristoren arerioa izan bazan be, orain Kristo da dana Paulorentzat, lurreko ondasun guztien gainetik.

EBANJELIOA: Jn 8, 1-11

"ZUEN ARTEAN PEKATURIK EZ DAUKANAK, BOTA DEIOLA LEHENENGO HARRIA: EMAKUME, HEMENDIK AURRERA EZ EGIN PEKATURIK" (Jn 8, 7-11)

H O M I L I A

("Erotismoari" buruz Frantziako gotzainen Pastoral Idazkia. 1971)

"Eleizak sexualitatea gauza ona dals beti irakatsi dau...

Hori agertzen dau Bibliak bere lehenengo zatian: Jaungoikoak Adan egin ebanean, esan eban: "Ez da egoki gizona bakarrik egotea, bere antzeko lagun bat egingo deusagu" (Gen 2, 18)

Jaungoikoak gizon eta emakumearen artean misteriozko maitasun lotura harrigarri bat ipini dau, Adanek Ebagaitik esateraino: "Hau xe bai dala neure hazurretako hazur, eta neure mamiaren mami... Horregaitik gizonak bere aita eta ama itxiko ditu, eta bere emazteagaz alkartuko da, eta biak haragi bat izango dira" (Gen 2, 23).

Eleizak, ezkontza gauza txarra dala irakasten dauan manikeoen dotrina, beti kondenatu izan dau.

Egia da oraintsu arte askorentzat "haragizko pekatua" pekatu rik astunena eta ia bakarra izan dala. Hau gehiegikeria izan da; benetan.

Badira injustiziak, gorrotoak, zapalketak, guzurrak, dirua egi teko bide okerrak, haragizko pekatuak baino kaltegarriagoak.

Baina, lehengo mustur honetatik, orain beste aldeko musturrera joan gara: haragizko pekaturik ez balitz lez.

Sexualitatearen kontrola.

Edozein gizonek, gizon izatea gura badau, eta fededun izanik Jaungoikoaren seme-alaba izan gura badau, autortu behar dau, sexualitatea, bide zuzenetik urten ez daiten, kontrolatu egin behar dala.

Bakotxak bere instintoak neurtu egin behar ditu bizioen amiltegian jausi ez daiten.

Kristinau bizitza geure barruko grina gaiztoen aurkako burruka da. Eta burruka honetan geure esperientziak makalak garala esaten deuskulako, Jaungoikoarengana laguntza eske jo behar dogu...

Emakumea izan da askotan burruka honetan gehien galtzen dauana. Emakumea sarritan gizonen jolasbide lez hartua izan da. Ahaztu egin da emakumea be gizakia dala, eta Jaungoikoaren alaba...

Sikologiak eta esperientziak irakasten deuskue honango lege hau egia dala: sexu instintoa kontrolatzen ez bada, gizakia morrontza gogor batean jausten dala, hausi ezinezko keteaz lotzeraino.

Ohitura makur honetan jausten danak dana galtzen dau: gaztetasuna, dirua, familia, seme-alabak, baita arima be. Holangoen bihotzetan ez da Jaungoikoarentzat tokirik.

Erotismoa negozio zikina.

Erotismoaren trafikanteak ondo dakie, zenbat-eta grina oker hau gehiago biztu eta zabaldu, hainbat-eta gehiago irabaziko dabela. Horregaitik sortu dira hainbeste errebista, publizitate, filma, toki bilera, instinto honi su emonaz, irabazi handiagoak lortzeko.

Sexualitatea kristinau begiz ikusita.

Paulo VI. aita santuak irakasten deusku:

"Gizona eta emakumea alkar maitatuz bat egitea Jaungoikoaren nahia da. Biak maitasunez bat eginik Jaungoiko hirutan bat danaren antzeko izan daitezana. Eta Jaungoikoaz batera maitasunez bizitza barri baten sortzaile izan daitezana..."

Ezkonduen arteko maitasun eta hartu-emonak, bere goratasunean, zeruko Ahalguztidunaren antzeko dira. Jaungoikoaz batera senar-emazteak bizitza barri baten iturri diralako".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusen azken afaria ospatzeko batu gara hemen Egun Santu honetan. Jesusek, hil aurretik, guretzat eukan maitasuna erakusteko, bere gorputza emon euskun gure arimentzat janari, eta bere odola edari... Ez da maitasun handiagorik bere bizia besteen alde emotea baino. Gu orain eukaristia honetan Jesusek azken afarian barritzera goaz. Misterio handi hau maitasunez eta bihotz beroz ospatu daigun.

1. IRAKURGAIA: Ex 12, 1-8, 11-14

Israeldarrak pazko afaria zelan ospatzen eben Itun Zaharreko irakurgai honek erakutsiko deusku.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 11, 23-26

Jesusek azken afarian bere gorputza jateko, eta bere odola edateko emon euskun. Eta gero apostoluei esan eutsen: egizue zuok be nik egindakoa nire oroigarri.

EBANJELIOA: Jn 13, 1-15

"JESUSEK; MUNDUAN EGOZAN BERETARRAK MAITE IZANIK, AZKENERAINO MAITATU ZITUAN"(Jn 13,1)

H O M I L I A

(Gaurko liturgiak homilia laburra izatea eskatzen dau. Beheragoko zatietatik bat edo bi aukeratu daitekez)

Joan Krisostomo santuak gaurko jaiari buruz hau dinosku:

"Kristok gu eukaristian hainbeste maite izan bagaitu, geuk be alkar maitatu behar dogu. Eta maitasun honek, familia bateko senideak lez, danok bat egitera, eta alkarri laguntzera eroan behar gaitu...

Ogi itxuraz estaldurik dagoan Kristoren gorputza benetan maite gura dozu?. Sedazko jantzi aberatsakaz ez da Jesus maitatzen... "Hau neure gorputza da esan ebanak, baita esan eban: Gosez nengoan eta ez eustazuen jaten emon. Bilusik nengoan eta ez eustazuen jantzirik emon. Eukaristiako Jauna hartzeko ez da sedazko jantzien beharrik, bihotz garbia baino. Jaungoikoak ez dauka urrezko ontziren beharrik. Gure Jaunak urrezko bihotzak gura ditu.

Joan XXIII. aita santuak esaten deusku:

"Kristinau batek esango baleu: gaur Eguen Santu da, eta debozi-
norik handienaz jaunartu gura neuke; baina gero txiroen alde, gose-
tu eta gaixoen alde, baztertu eta triste bizi diranen alde, ezer e-
gingo ez baleu, holango kristinau horrek eukaristia zer dan be ez
dau ulertu. Maitasuna falta jako.

Jesusek gaixoak, itsuak, lepradunak, txiro eta baztertuak maita-
tu zituan, eurei osasuna eta biziteko poza emoteko.

Jesusek pekatariak maitatu zituan parkamena emoteko...

Jesusek arerioak be maitatu zituan, kurutzean josten eben bitar-
tean euren alde otoitz egin, eta parkamena eskatzeko.

Guk be gaur, eukaristia hartzean, alkar maitatzen ikasi behar
dogu!"

Paulo VI. aita santuak dino:

"Eguen Santuz Eukaristiako mahaira etorteko maitasuna da, danen
gainetik, beharrezkoena...

Zergaitik gura izan dau Jesusek Eukaristiako sakramentuan gugaz
egon?. Gu maite gaitualako. Bere gorputz mistikoan danok maita-
sunez, bat egin daigun.

Eta zergaitik ogi itxuran?. Zerurako bidean gure janari iza-
teko... Eukaristia Kristoren kurutzeko oparia da, pekatuak par-
katzen dituna. Eukaristian Jesusen Kalbarioko oparia barriztau
eta gaurkotu egiten da...

Eukaristian ogi-ardao itxuran, biziaren eta heriotzaren jaun eta
jabe dana, gugaz daukagu. Kristok ez gaitu gu salbau besteen o-
dola isuriz, bere bizitza gugaitik emonaz baino!"..

Joan Paulo II. aita santuak dino:

"Kristinauentzat gizaki guztiak senide gara, sendi batekoak iza-
nik, mahai batean eta ogi bardinetik jaten dogulako. Horregaitik,
geure lanaz irabazitako ogia txiroen artean banatu behar dogu.

Eukaristiako ogia da mundura anaitasuna eta bakea ekarri lei-
kezanak. Jaungoikoak, ogi-ardao itxuran gure artean geratuz, gu
neurri guztien gainetik maite izan bagaitu, geuk be alkar maitatu
behar dogu".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Kristo biztu da! Kurutzean hil zana, bizirik dago!...Barri On honek pozez bete gaizala...

Urte guztiko jairik nagusiena ospatzen dogu gaur. Alleluia!.

1 IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 34a, 37-43

Pedrok bere herritarrei dinotse: zuok kurutzean josita hil egin zeduen Jesus, Jaungoikoak biztu egin dau, eta gu gara horren testigu.

2. IRAKURGAIA: Kol 3, 1-4

Kristo biztua orain zeruetan dago. Geuk be lur honetan bizi garen bitartean, gure bihotzak zeruetan euki behar ditugu.

EBANJELIOA: Jn 20, 1-9

"ORDURARTE EZ EBEN ULERTU LIBURU SANTUAK DINOANA: BIZTU EGIN BEHAR EBALA HILEN ARTETIK" (Jn 20, 9)

H O M I L I A

(Paulo VI. aita santuaren homilietatik ideak hartuta)

Kristo biztu da. Alleluia!. Gertakari honetan gure sinismenak ez dauka zalantza-dударik. Bai, Jesus, Jaungoikoaren indarrez, barrero be, biztu da. Baina ez lehen lez gorputz hilkorrean biziteko, zeruko betiko zorionean baino (1 Kor 15-47).

Kristo biztuaren testigu ikasle asko izan ziran. Paulok dinoanez bost ehun baino gehiago (1 Kor 15, 6). Egia da, bai, Kristo biztu dala.

Kristo biztu bazan, gu be biztuko gara.

Halan autortzen dau gure sinismenak: gu be Kristo lez biztuko garala. Gauza harrigarria da hau, baina, zorionez, egia. Kristogaz leialak bagara, berak ziurtatzen deusku, guk be, berak lez, heriotza garaituko dogula.

Bai, gu be biztuko gara, eta mirari honen hasiera Kristo bera da. Kristo da hildakoen artean lehenengo biztu dana, eta gu be Haren indarrez biztuko gara. Gure haragia, berez hilkor dana, Kristoren indarrez betiko biziko da. Hau da pazkoetako albiste pozgarria.

Kristinaua lurrean eta zeruan bizi da.

Kristinaua zati bat mundu honetakoa, eta beste zati bat beste mundukoa da. Aldi berean lurrean eta zeruan biziten ikasi behar dogu.

Paulo santuak esana gogoratu daigun: "Kristogaz berbiztu zarien ezkerro, zabilze goiko ondasunen bila, han dago eta Kristo Jaungoikoaren eskumaldean jarririk...Maite eizuez goiko ondasunak, eta ez lurrekoak" (Kol 3, 1-3)

Kristinauak beti pozik bizi behar dau.

Alleluia!. Hau da Pazko oihu alaia! Itun Zaharrean sarritan entzuten dan "Alleluiak" hau esan gura dau: Gora Jaungoikoa!.

Guk be Eleizagaz batera oihu pozgarri hau deadar egin daigun: Alleluia!. Gure fedea, gure kristinau bizitza bai pozgarri dirala, zeruko zorionean amaitzen diralako. Eta biztuko garan itxaropenez beti pozik bizi behar dogu. Baita nekeen artean be, Paulo apostoluak esaten deuskunez: "Pozez gainezka nago nire atsekabeen erdian".

Jesusek bere ikasleei hil aurretik esan eutsen: "Zuok orain triste zagoze, baina poztuko da zuen bihotza, eta zuen poza, eta zuen poza ez deusue inork kenduko" (Jn 16, 22-23)

Kristo biztua gugaz badago, gu zelan bizi gaitekez triste?. Jaungoikoaren pozak gure bihotzetan beti bizi behar leuke.

Nietzsche idazle famatuak kristinauei esaten eutsena gogoratu daigun:"Salbatuak izanik, zelan bizi zarie triste?". Egia da.

Guk kristinauok alai biziteko badogu motiborik asko: Kristok salbau gaitu. Zerura joango garan itxaropena badogu. Jaungoikoak maite gaituala badakigu. Betiko zorionean gure lagun maiteekaz barriro aurkituko garala sinisten dogu. Bai, kristinaua, biztuko darenaren itxaropen ederrean, zorioneko da.

Kristo biztuaren poza gure inguruan zabaldu behar dogu. Ez dogu gure barruan gordeta euki behar. Besteen aurrean be agertu behar dogu. Besteak be ikusi daiela gure bizitza Kristo biztuak argitzen dauala, eta gure fedea poz-iturri dala.

Bai, kristinauok beti eta alde guztietan pozik bizi behar dogu. Jaungoiko gure Aita onaren esku maitagarria gauza guztietan ikusten dogulako... Jaunagan sinisten dogunok, jazoten diran gauza guztiak Jaunak gure onerako erabilten dituala, badakigu.

Honek gure bihotzetara nasaitasuna, poza eta bakea ekarten ditu.

Alleluia!. Kristo biztuaren poza pazko egun alai honeetan gure inguruan zabaldu daigun.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Kristoren ikasle garanok, antxinako kristin角度ez, domeketan eukaristia ospatzeko batzen gara. Baita otoitz eginez danok batera gure sinismena biztu eta indartzeko be...

Gaurko ebanjelioan Jesus, hilen artetik biztuak, esango deusku: Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 5, 12-16

Jesus hil eta biztu ondoren apostoluak Jesusen Barri Ona zabaltzen eta mirariak egiten jarraitzen dabe.

2. IRAKURGAIA: Apk 1, 9-11a. 12-13, 17-19

Joan ebanjelariak larritasun gogorrean aurkitzen diran kristin角度ei dinotse: Ez bildurtu! Jesus biztuak heriotza garaitu dau.

EBANJELIOA: 20, 19-31

"JESUSEK TOMASI: IKUSI NOZULAKO SINISTEN DOZU?. ZORIONEKOAK IKUSI BARIK SINISTEN DABENAK" (Jn 20-29)

H O M I L I A

(Sinismen edo federa heltzeko bideak gizaki bakotxarentzat ezbardira.. Nik hemen Gironella-ren "100 españoles y Dios" liburutik hartuta, honen eta haren autormenak ipini dodaz, homiliariak gero berak gura dauana aukeratzeko)

Antonio Bienvenida. Toreroa.

"Nire lanean (zezenak toreatzen) arrisku handiak eroan dodaz, baina alde guztietan gure amagandik hartutako fedeak asko lagundu deust. Gure amak Jaungoikoagan jarrita eukan fedea ezin dot ahaztu.

Erlijinoko gauzak ez dira liburuetan ikasten. Nik neure bizitzan zehar gure amaren ejemplo onak beti neure bihotzean gorde dodaz. Gure amari eskerrak gaur kristin角度 nazala autortu daiket. Jaungoiko gure Jaunagan benetan sinisten dot!"

Salvador Dalí. Pintore ospetsua.

Gure aitaren bibliotekako liburuak danak ateoak ziran. Eurak irakurrita Jaungoikorik ez dala ikasi neban... Nietzsche irakurri nebanean, harek esandakoz harriturik geratu nintzan: "Jaungoikoa hil da! Geuk hil dogu Jaungoikoa!...Eta ni pentsatzen hasi nintzan: Jaungoikorik ez bada, zelan existitzen ez dan norbait hil daiteke?... Nietzsche ateoak biztu eban nigan Jaungoikoa ezagutzeko guraria.

Geroago Kurutzeko Joan santuaren poemak irakurri nituan. Eta Augustin santuak lez Jaunari fedea eskatu neutsan, baina esaten neutsan: ez orain, geroago baino...Gaur egun bide zuzenetik nabil, eta nire gogoia Jaungoikoagan sinisterra aldatu da.

Elisa Lamas. Idazlea.

Behin oso txarto gaixorik aurkitu nintzan. Niretzat zartada ederra izan zan. Mundu honetako gauza guztiak itxi egin behar. Baita gorputza be.

Ez dakit zelan, baina bizitza honen beste aldean zerbait bazala sinisten hasi nintzan. Orduan nire bizitzako gauza guztiak, tximista batek argituta lez, beste argi bategaz ikusten hasi nintzan...

Nire adimenaz argi ikusten neban, abere-animali baten heriotzea eta pertsonena, ezin zala bardina izan. Eta nire itxaropena Jaungoikoagan ipini neban...

Eduardo Tarragona. Politiko eta finantziaria.

Fedea eukiteko bakotzak norbere barruan erlijino giro bat sortu behar dau. Fisika nahiz kimika ikasi gura dauanak, zientzia horren zaletasuna euki behar dau. Erlijinoa be antzekoa da. Gizona ez da gorputza bakarrik, espiritua be bada. Jaungoikoak niri neure kontzientziaren bidez berba egiten deust. Gauza on bat egiten dodanean poz handia sentitzen dot. Baita alderantziz be: zerbait txarto egiten dodanean, barruko kezka sortzen jataz.

Migel Fisac. Arkitektoa.

Nire kontzientzian ez neban bakerik aurkitzen. Orduan gogo jardunak egitera bakartade batera baztertu nintzan. Han bost eguneko isiltasunean, neure kontzientziaren eta Jaungoikoaren aurrean bakarrik, beste gizon egin aurkitu nintzan. Neu be aldaketa honegaz harriturik geratu nintzan.

Joakin Ruiz Jimenez. Politikoa.

Nire fedea txikitan ohiturazkoa, suster gitxikoa zan. Baina Joan XXIII. aita santua eta Vatikanoko Kontzilioa ezagutu nituanean, nire fedea sakondu, indartu eta garbitu egin zan. Orain fedea poza emoten deust. Baina nire fedea ez da egonean egotekoa. Niri fedea bakearen, justiziaren eta askatasunaren alde lan egiteko indarra emoten deust.

Magda Castañer de Gironella. Etxeko andrea.

Fedearen azken mugaraino ez naz oraindik heldu. Baina sinistu gura dot. Jaungoikoak fedea eskatzen deutsanai emon egiten deust. Nik sarritan eskatzen deust, eta egunen batean fedearen argiak argi egingo deustala, itxaroten dot.

(C)

3. PAZKO DOMEKEA. (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA.

Senideok:

Oraindino pazko egun alaietan aurkitzen gara...

Jesusek biztu ondoren bere apostoluei egindako hirugarren agertaldia zelan jazo zan erakutsiko deusku gaurko ebanjelioak. Geneza-ret itsas bazterrean izan zan.

Apostoluak pozez beterik Jesusek etondutako arrain errea eta ogia jan eben...

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 5, 27-41

Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena, eta ez gizonena, e-sango deutse Pedrok Jerusalengo abade nagusiei.

2. IRAKURGAIA: Apk 5, 11-11-14

Indarra eta gorespina hartzeko bada nor hila izan dan Bildotsa, Jesus salbatzailea.

EBANJELIOA: jn 21, 1-19

"JESUS BIZTUA UR ERTZEAN AGERTU ZAN, BAINA IKASLEAK EZ ZIRAN KONTURATU JESUS ZANIK" (Jn 21, 4)

H O M I L I A

("Kristinau anonimoei" buruz Karl Rahner-en eritzia)

Gure inguruan sarritan pertsona zintzo, baina fede bakoak, aurkitzen ditugu. Benetan onak dira, baina ez dabe sinismenik. Honan-go pertsoneri buruz, guk zer pentsatu behar dogu?.

Gizakiak salbatzeko Jaungoikoak dituan bide guztiak guk ez ditugu ezagutzen. Baina hau da gure fedea irakasten deuskun oinarrizko egia: Jaungoikoak gizon eta emakume guztiak, egiaz eta benetan, salbau gura ditu, gure salbamenerako gurutzean bere Semea emote-raino.

Jaungoikoaren errukiak ez dau mugarik, ez zabalean, gizaki guztiak salbatzea gura daualako, ez sakonean, damutzen danari pekatu-rik handienak be parkatzen deutzazalako.

Egia honeek kontutan hartuz, guk fedea lagunduta, ahal dogun neurriraino, Jaungoikoaren salbamen bideak zerbait argitzen hasi gaitezana.

Teologian inork ukatzen ez dauan esakun hau egia da:
"Ahal dana egiten dauanari, Jaungoikoak ez deutso salbatzeko behar dauan laguntza ukatuko".

Esakun hau, behar bada, (agian=akaso) gertakizun honeetaraino luzatu daiteke:

1. gertakizuna.

Bere kontzientziak eskatzen deutsan legera, zuzen eta zintzo bizi danari, zeruko Aita onak, holangoari, zelan edo halan, la-guntza emongo deutso, bere azken helburua dan Jaungoikoa lortu daian. Kontzientzia gure barruan dogun Jaungoikoaren argia eta abotsa da. Eta argia maite dauanak, argi-emoilea be zelanbait maite dauala esan geinke.

Honango gizon zintzoa behar bada (agian) "kristinau anonimoa" izan daiteke. Hau da: bera konturatu barik zelan edo halan Jaungoikoa onartzen dauana.

2. gertakizuna.

Jaungoikoagan ez dauala sinisten berak esanda be, egia, justizia, maitasuna, danei on egitea eta abar maite dituenak, eta honeen alde lan egiten dauanak, Jaungoikoa be zelanbait onartzen dauala, esan daiteke. Jaungoikoa egia, justizia eta maitasunaren iturburua da. Eta iturriko uretik edaten dauanak, zelan edo halan iturburua be maite dauala, esan geinke...

Hau guztia, behar bada, agian, akaso, esaten dot. Inor ba ez da go seguru, fededuna izanda be, salbauko danik...

Oraindaino esandakoaz, guztiak salbau daitekezela eta, ez dogu gure salbazinoaren ardura itxi behar... Galdu gaitekezala be, beti egia izango da, Paulo apostoluak adierazoten deuskunez: "Lan egizue bildur ikaraz zeuon buruak salbatzeko" (Fil 2, 12).

Beste aldetik, Jaungoiko Aitak bere Seme Jesusen bitartez munda salbau gura dau, Pedro apostoluak Jerusalengo agintariei esan eutsenez: "Ez dogu beste salbatzailerik; eta ez jaku emon gizonei eguzkipean Jesus baino besterik, gu salbau gaikazanik" (Ap Eg 4,12)

Jaunaren errukiari eskerrak, badogu Berak salbauko gaituanaren itxaropenik. Poztu gaitez. Baina ez ziurtasunik loak hartu ez gaizan.

Apaltasunez, baina baita itxaropenez, geure ezereza ezaguturik, geure betiko etorkizuna Jaunaren eskuetan itxi daigun, Joan ebanjelariak dinoskuna gogoan hartuz: "Egiaz maitatzen badogu, nasaituko ditugu gure bihotzak Jaunaren aurrean. Geure bihotza baino handiagoa da Jaungoikoa, eta dana ikusten dau" (1 Jn 3, 18-20)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko eukaristian Jesus artzain onaren ebanjelioa entzungo dogu. Eleizak "artzain onaren" egun hau, abade eta erlijioso bokazi-noen alde ototitz egiteko aukeratu dau...

Aita Santuaren deiari erantzunez, gure gazteen bihotxetan Jesu-hurreragotik jarraitzeko gogo sortu eta hazi daiala, eskatu deio-gun Jaunari.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 13, 14. 43-52

Eleiza sortu barriaren lehenengo urteak zelangoak izan ziran erakutsiko deusku San Lukas ebanjelariak.

2. IRAKURGAIA: Apk 7, 9. 14b-17

San Joanek zerua zorientuz beterik ikusi eban. Han ez da gose-rik, ezta egarririk be, Jaungoikoaren poz betea baino.

EBANJELIOA: Jn 10, 27-30

"NI NAIZ ARTZAIN ONA; EZAGUTZEN DITUT NIRE ARDIAK, ETA NEUREAK BE EZAGUTZEN NABE NI" (Jn 10, 14)

H O M I L I A

(Ideak gehienak Martin Descalzoren "Vida y misterio de Jesus de Nazaret" liburutik hartuta)

Jesus "artzain ona" zelangoa da?

Gaurkoz, Jesusen jainkotasuna alde batera itxita, gizon zan aldetik zelangoa zan begiratuko dogu.

Jesus gizon apala.

Jesus Galilea lurraldeko Nazaret herri txikian bizi izan zan. Bere eguneroko ogia, beste edozein herritarrak lez, aroztegian lan eginez irabazten eban. Ez eban inondik be Jaungoiko zanik agertzen. Horregaitik, 30 urte bete eta predikatzen hasi zanean, bere herritarrak burua galdu ebala, uste eben.

Jesus gizon txiroa.

Jesus pobre izan eta pobre lez bizi zan. Baina ez miserian. Jateko eta biziteko behar zana, beti euki eban. Jesusek bihotzez pobreei zorionekoak esaten deutse, Jaungoikoaren erreinuaren jabe izango diralako. Jesus Belenen pobre jaio, Nazareten pobre bizi, eta Kalbarioan pobre hil zan, guri pobre biziten erakusteko.

Jesus beste edozein gizonen antzekoa.

Jesus ez zan Joan Bateotzailearen antzera, penitentzia egiteko gamelu narroz jantzi, ezta basamortuko bakartadean bizi be. Jesus bere inguruko gizonak lez jan, jantzi eta bizi izan zan, ezertan be aparteko jokabiderik hartu barik.

Jesus olerkari, poeta.

Jesusek, Jaungoikoak mundu honetan sortutako edertasunak begi argiz ikusten zituan. Zeruko txoriak, zelaietako lorak, artzainak eta ardiak, ezteguetako jaiak eta umeak... Danak maite zituan... "Begira landetako lorak zelan hazten diran. Benetan dinotsuet: Salomon bera be bere osperik ederrenean ez zan jantzi honetako bat baino bikainago" (Lk 12, 27)

Jesusen ikasleak.

Jesusek bere ikasletzat ez zituan Jerusalemgo jakitunak aukeratu, itsas bazterreko arrantzale apalak baino. Renan-ek dinoenez: "Jesusek ez eban, orduko filosofo baten antzera, pentsa-sistema harrigarri bat asmatu... Jesusen ikasle izateko nahiko zan Berari sinistea eta Bera maitatzea".

Jesusek bere dotrina parabolaren bidez, ipuinen antzera, errez-errez, irakasten eban, edozein eskolabakok ulertzeko moduan. "Bazan behin errege bat bere seme nagusia ezkontzen jakona... Bazan beste bahin iko arbola bat orriak ugari emoten ebazana, baina fruturik ez"...

Jesus eta emakumeak.

Jesusen garaian emakumea oso bazterturik egoan. Etxetik urtetean aurpegia estaldu egin behar eban. Sinagogan be otoitz egiteko bazter batean, gizonengandik aparte, egon behar zan. Jehuda Rabinoak honan egiten eban eguneroko otoitza: "Bedeinkatua Zu Jaungoikoa ni jentil egin ez nozulako, ezta emakume be".

Jesusek emakumeekaz beti hartu-emon normalak izan zituan. Jesusen inguruan maisuari laguntzen emakumeak aurkitzen dira: Maria Santiago eta Joanen ama, Salome, Maria Madalena eta abar.

Jesus batez be gizon ona.

Jesus benetan gizon on hutsa zan. Gizonik onena. Bere bizitza osoa guztiei on egiten emon ebana. Gaixo eta txiroen maitatzailea, pekatariarentzat errukiz bete^oa, lagunentzat adiskiderik onena, danentzat maitagarria.... Jesus lango gizon on, apal eta zintzoa, gizon aldetik bakarrik begiratuta be, nork ez dau maite izango?.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Pazko aldia anaiarteko maitasunari sutsuago ekiteko garaia dogu. Kristok guretzat dauan maitasuna, guk lagunurkoarengana zabaldu behar dogu. Hau da Jesusek gaurko ebanjelioan aginduko deuskuna: "Maitatu eizue alkar nik maite izan zaituedan lez".

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 14, 20-26

Kristinauen taldea ugaritu egin da. Paulo eta Bernabek Palestinatik kanpora, Asia aldeko herrietan Jesusen barri ona zabaltzen dabe.

2. IRAKURGAIA: Apk 21, 1-5

Zerua da Jerusalem barria, Jaungoikoaren zorion beteko erreinua. Han ez da heriotzarik, ez negarrik.

EBANJELIOA: Jn 13, 31-33a, 34-35

"AGINDU BARRI BAT EMOTEN DEUTSUET: MAITE EGIZUE ALKAR NIK MAITE IZAN ZAITUEDAN LEZ" (Jn 13, 34).

H O M I L I A

(Joaquin Jeremiasen "Teología del Nuevo Testamento"-tik hartuta)

"Zein da Jaunaren erreinuko agindu nagusia?.

Maitasun legea. Eta maitasun lege honek adar bi ditu: Jaungoikoa maitatzeaz batera, lagunurkoa be maitatzea. Hau da lehenengo agindua, dinosku Jesusek, maite eizu zure Jaungoikoa bihotz bihotzez, gogo gogoz eta zure indar guztiz... Bigarrena, barriz, hau da: maite eizu zure lagunurkoa zeure burua lez. Ez da honeek baino agindu handiagorik.

Maitasun lege hau da Itun Barriko "urrezko lege". Eta lagunurkoaren maitasun lege hau esaldi honetan mamitzen da: egin zuek beste-ei, hareek zuei egitea gura zeunkeen guztia.

Itun Zahar eta Barriko maitasun legea.

Itun Zaharrak, Moisesen legeak, lagunurkoari kalterik ez egiteko agintzen eban. Itun Barrian, ostera, Jesus aurrerago doa: danak maitatzea agintzeraino. Eta maitasun honen neurria hau da: Jesusek gu maite izan gaituan lez: Agindu barri bat emoten deutsuet: maite eizue alkar, nik maite zaituedan lez. (Jn 13, 34). Hau da nire agindua.

Eta ez dogu lagunurkoa bihotzez bakarrik maitatu behar, baita be, eta danen gaisetik, egitez.

Eskean datorkizunari emioizu, dino Jesusek (Mt 5, 42).

Eta zuen artean nagusi dana, izan bedi danen zerbitzari, Ni zuen artean zerbitzari nagoan lez. (Lk 22, 24-27)

Mateo ebanjelariak senideei laguntzeko sei era agertzen deuskuz: Gose diranei jaten emon. Egarri diranei edaten emon.

Arrotzak (kanpotarrak) etxean hartu. Biloizik dagozanak jantzi.

Espetxean dagozanak ikustera joan. Gaixo dagozanei lagundu.

(Mt 25, 34-40)

Maitasun mugabakoa.

Jesusek agintzen deuskun maitasunaren beste gauza berezi bat hau da: maitasun neurribakoa, mugabakoa izatea, baina batez be txi-roengana, pobreengana zabaldua: Bazkari bat emotean, dino Jesusek, ez deitu auzoko aberatsik. Dei egin txiroak, elbarriak, herrenak eta itsuak, eta zorionekoa izango zara. (Lk 14).

Baita gehiago be. Gure maitasuna gure arerioak diranenganaino zabaldu behar da: Neuk dinotsuet: maite eizuez zeuon arerioak be. (Mt 5, 44).

Judeguen artean esaera-zaharra zan: Zure aberrikoa maite izango dozu, baina ez kanpotarra. Baita gehiago be esaten eben: Pekatari-ari ez deutzazu ogirik emongo.

Jesusek, ostera, bere jarraitzaileei agintzen deutse: Maite eizuez zeuen arerioak. Egin on gorroto zaituenei. Egin otoitz erazoten zaituenentzat. (Mt 5, 44)

Jesusen garaian bazan "esenio" izeneko talde bat, basamortuko bakartadean bizi zana. Judegu honeek erlijino gaietan oso sutuak ziran, eta Jaungoikoaren legea beteten oso estuak. Honeek be esaten eben, pekatariak ez zirala maitatu behar, gorroto baino.

Jesusek, ostera, pekatariak maite zituan, eta honan hitz egitea egoki balitz, baita zintzoen gaisetik be. Horra hor, esaten eben Jesusegaitik bere arerioak, zergalari eta pekatarien adiskidea (Mt 11, 19)

Baina Jesusek erantzun eutsen: Ez naz ni zintzoei dei egitera etorri, pekatarietako baino. Osasunez dagozanak ez, gaixo dagozanak baino behar dabe osagile. (Mt 9, 12)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek azken afarian hil aurretik hitzaldi luze bat egin eutsen bere ikasleei azken aholku-kontsejuak emoteko.

Alkar maite egizue. Bakean eta batasunean bizi zaitezete...

Gaurko eukaristian Jaunaren bakea zer dan, eta zelan eskuratu geinken entzun eta ikasiko dogu.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 15, 1-2. 22-29

Moisesen lege zaharra gainditurik, Jesusek bere lege barria ekarri deusku. Orain Jesus Salbatzailea dala sinisten dauana salbauko da.

2. IRAKURGAIA: Apk 21, 10-14. 22-23

Zeruko Jerusalem barriaren oinarriak hamabi apostoluak dira, eta Jesus Jaungoikoaren bildotsa da, gau eta egun, hango eguzkia.

EBANJELIOA: Jn 14, 23-29

"BAKEA IXTEN DEUTSUET NEURE BAKEA EMOTEN; EZ DEUTSUET EMOTEN MUNDUAK LEZ" (Jn 14, 27)

H O M I L I A

(Bakeari buruz Frantziako gotzainak agertutako Agiria. 1983. urtean)

"Egiazko bakea ez da tirorik ez entzutea... Pertsonak eta herriak alkarren artean ondo hartu, eta danon eskubideak errespetatzea, hori da egiazko bakea. Bakea irabazi egin behar da.

Baina egiazko bakea lortzeko guk geure barrutik gorrotoak eta haserreak kendu, eta gure bihotzak garbitu egin behar ditugu...

Joan XXIII. Aita Santuak "Pacem in terris" enziklika ospetsuan, gizartera bakea ekarteko lau oinarri ipinten ditu: Egia, Askatasuna, Justizia eta Maitasuna.

Egia, gizarteko hartu-emonetan, negozioetan, politikan, irratian eta telebistetan. Egia egunkarietan eta alde guztietan. Guzuz, maltzurkeria, emondako berbea jatea, (baita ezkontzan be)... bakeren kontrako jokabide okerrak dira.

Askatasuna. Eritziak eta pentsaerak ezin dira gizonen buruetan diktadura gogor baten bidez, nahi-eta-nahiez sartu. Gizonak zapalduz, esklabo lez erabilten diranean, laster ezin-eroanak eta gerrak sortuko dira.

Justizia. Zuzenbideak eskatzen dau, nonahi eta beti giza esku-
bidak zaindu egin behar dirala; gizartetik ezbardintasun guztiak al-
denduz, eta bakotxari zor jakona emonaz, bakean bizi gaitez. "O-
pus justitiae pax", esaten eben antzinakoak. Bakea justiziak dakar.

Maitasuna. Baina guk kristinauok justiziagaz bakarrik ez dogu
nahiko. Guk goragoko mailara igon behar dogu: alkar maitatzera...
Gure maisu Jesusek irakatsi euskunez: "Hau da nire agindua: maite
eizuela alkar, Nik zuok maite zaituedan lez" (Jn 15, 12)

Bake osoa.

Jaungoikoak biblian eskatzen deuskun bake osoa hau da:
Bakea kontzientziagaz. Gure kontzientzia da zer dan ona eta zuzena,
eta zer gaiztoa eta okerra, irakasten deuskuna. On eta zuzen dana
egizu, eta okerreko bidetik aldendu zaitez, eta barruko bakea lor-
tuko dozu.

Bakea ingurukoakaz. Danak senide lez onartu, eta danei on egiten
ahalegiten bazara, zure bihotzean ikaragarritzko poza nabarituko do-
zu.

Bakea Jaungoikoagaz. Gure zeruko Aita onagaz seme-alaba zintzo
lez jokatu. Eta halan ez danean, Jaunari parkamena eskatu ondoren,
gure bihotza nasaituz.

Bakea kentzen daben gauzak.

Gizartean justiziarik ez danean, alkarri laguntzarik emoten ez
deutsagunean, familiako bizitza hondatzen danean, zintzoak menpera-
tuz maltzurak agintari diranean, kontzientziako eta erlijinoko
gauzak errespetatzen ez diranean... Holango gizarteak bere espiritu
eta arima galdu dau, eta aberria be laster hondatuko da.

Kristoren jarraitzaileok borondate oneko gizon eta emakume
guztiekaz bat eginik, lan egin behar dogu gure gizartetik gorroto
eta bengantza gose-egarri guztiak kendu, eta maitasunaren legea
gure inguruan ereiteko.

Mundu honetako, eta zeruko bakea.

Betiko bake osoa, bizitza honen beste aldean, Jaungoikoaren on-
doan bakarrik aurkituko dogu. Baina halan da be, lur honetako ba-
kea zeruko bake ederraren hazia lez da. Lur honetako bakeak, ze-
ruko bake betera eroango gaitu. "Zorionekoak bake egileak Jaun-
goikoaren seme-alaba izango dira eta" (Mt 5, 9)

Paulo VI.ak ONUko batzarre nagusian esana beti gogoan izan dai-
gun: "Alkarren artean haserre, ez dogu ezer irabaziko. Alkarren
artean adiskide, bakea irabaziko dogu".

SARRERAKO OHARPENA

(Bizkaieraz)

Senideok:

Gaur Jesus zerura igon zaneko jaia ospatzen dogu...

Lurreko bizitza itxirik Jauna zerura doa, bere Aita Jaungoikoaren ondoan biziteko...

Guk, kristinauok, mundu honetan bizi garan bitartean, oinak lur honetan, baina gure bihotzak zerura begira bizi behar dogu.

Zerua da gure egiazko aberria.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 1, 1-11

Jesusen zerura igotea zelan izan zan, Apostoluen Eginetako liburuak erakusten deusku.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 17-23

Jaungoiko Aitak bere seme Jesus hilen artetik biztu ondoren, zeru-lurreko jaun eta jabe egin dau, berari betiko nagusitza guztien gaintetik emonaz.

EBANJELIOA: Mk 16, 15-20

"GALILEARROK, ZERTAN ZAGOZE HOR, ZERURA BEGIRA?" (Ap Eg 1, 11).

H O M I L I A

(Pio XII. langileei egindako hitzaldia, 1953. urtean)

Langile maiteok: Gaur Eleizak Kristoren zerura igotea ospatzen dau, eta horregaitik gure barruko poza agertzeko, alleluia! abesten dogu.

Jesus goraka doala ikasleak maisuari begira begira dagoz, bihotzez euren irakaslearen atzetik zerura joan gura baleben lez. Baina aingeru bik, soineko zuriz jantziak, itanduten deutsee: "Galilearrok, zertan zagoze hor, zerura begira?"...

Jesus zerura joan da, baina aingeruak ikasleei agintzen deutsee, gora begira alperrik ez egoteko, oraindik lurrean bizi diralako.

Lurrean lan eginez irabazten da zerua. Lanak jasoko gaitu zerura.. Lana ondo egina, hori da zeruko bidea. Lurrean bizi behar dogu, baina zeruaz ahaztu barik.

Aingeruen berba honeek oker ulertuz, norbaitek guri be, Jesusen ikasle garanoi, esan leikigu: Zuok, kristinauok, zertan bizi zarie hor zerura begira?. Zerurako lanean alperrik zabilte. Zerurik ez dago. Zerua alde batera itxi, eta lurrera begira jarri zaitez!

Berba honeek gogorrak badira be, asko honan bizi dira: zerurik ez balego lez. Lur hau paradisu egin gura dabe. Eta hau bere neurri-
an gauza ona bada be, beti egia handiagoa izango da, mundu honeta-
ko ondasunak igeskorrak dirala, heriotzaz danak amaitzen diralako.

Oinak lurrean, bihotzak zeruan.

Kristinauak bere oinak lurrean ondo josirik euki behar ditu, mun-
du honetan egia eta justizia nagusi izan daitezcan lan eginaz. Baina
gu Jaungoikoak eginak eta salbatuak garan ezkerro, lurrera bakarrik
begira ezin gara bizi. Gure bihotzak Jaungoikoarengana jaso behar
ditugu. Berarengan aurkituko ditugu egia, justizia eta zorion betea.

Ezin dira lurra eta zerua aparte ipini, gizonak zati bitan apar-
te banatu ezin diran lez. Zerura begira jarri ezkerro, lur honetako
arazoak hobeto konpontzen dira...

Zergaitik, ba, ikusten ditugu lur honetan hainbeste gorroto, in-
justizia eta gaiztakeria?. Gizakiaren bihotz zikinetik sortzen di-
ra harrokeriak, diru-goseak, nikeria eta egoismo guztiak. Honeek
dira gatx eta kalte guztien suster ustelak.

Eta alderantziz, zintzotasuna, neurritasuna, alkar laguntza...
Honeek dira gizartera bakea eta zoriona dakarrezanak. Baina onbide,
birtute honeek ez dira munduko eskolan ikasten, Jaungoikoaren ikas-
tolan baino.

Zerura begira jarri gaitezcan.

Jesusek esana da: "Bila eizue lehenengo Jaungoikoaren erreinua,
eta haren zuzentasuna, eta beste gauza guzti horreek gehigarri e-
mango jatsuez" (Mt 6)

Gaurko aurrerapenak lana errazago eta arinago egiten laguntzen
deuskue, eta eurei eskerrak gu orain gure gurasoak baino gozoago
bizi gara. Baina, pozago bizi ete gara?. Hareek baino zintzoago
eta hobeak ete gara?.

Hareek Jaungoikoa eben helburutzat. Zeruko itxaropenean bizi
ziran, eta honan bizitza honetako neke-lanak gaintitzen ebezan...

Bai, autortu beharra dogu: mundu honetan sortzen diran arazoak
konpontzeko bide bat bakarra dala: Jaungoikoaren bila ibiliz, barri-
ro be zerura begira jartzea".

(C) PENTEKOSTE EGUNA: ESPIRITU SANTUA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Espiritu Santuaren PENTEKOSTE DOMEKA HONETAN Pazko jaiak amaitzen ditugu.

Jesusen ikasleak lez, gu be, Andra Mariagaz batera, otoitzean alkartu gaitez, Espiritu Santuak zeruko indarrez, gure arima makalak berotu eta indartu daizan.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 2, 1-11

Apostoluen Eginetako liburuak irakatsiko deusku zelan izan zan Espiritu Santuaren etorrera Jesusen ikasleen gainera.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 12, 3-7. 12-13

Espiritu Santuak bat izanda be, era askotara egiten dau lan arima zintzoen barruan; gure gorputzak, bat izan arren, atal asko dituan lez.

EBANJELIOA: Jn 20, 19-23

"HARTU EIZUE ESPIRITU SANTUA" (Jn 20-22).

"GUZTIAK ESPIRITU SANTUAZ BETE ZIRAN" (Ap Eg 2, 4)

H O M I L I A

(Paulo VI.ak Pentekoste egunean egindako hitzaldia, 1974. urtean)

Senideok:

Gaur, Espiritu Santuaren jai honetan, adierazo gura deusuek, Espiritu Santua poz-emoile eta poz-iturri dala...

Baina aurrera joan baino lehenago, itaun bat egin gura deusuet: kristinau askoren bizitza alaia ala tristea da?. Edo, beste modu batera esateko: kristinau izateak zoriontsu egiten gaitu, ala gure lurreko bizitza astun eta triste bihurtzen?.

Baina danen aurretik, zerk emoten dauan benetako zoriona, ikusi daigun. Batzuentzat ez da beste zorionik gorputzeko instintoak eskatzen dabena betetzean baino. Honangoentzat zoriona honetan dago: jan-edanetan, eta beste instintoetan gorputzari atsegina emotean.

San Paulok dinoanez: Holangoen jaungoikoa sabela da, eta honeen azkena, hondamendia. (Fl 3, 19)

Zenbat eta atsegin gehiago, orduan eta zoriontsuago. Hala uste dabe.

Baina, gorputzari emondako atsegin horreek ez dira bihotz barruraino sartzen.

Azal-azalean gelditzen dira, eta atsegin hori pasatu eta gero, garrastasuna eta kontzientziaren kezka gelditzen dira...

Horregaitik, barriro be, itaun hau egin gura deusuet: kristinau egiazkoaren bizitza alaia ala tristea da?

Itaun honi Jesusek emondako erantzuna garbia da: "Hori dinotsuet, nire poza zuengan izan daiten; eta bete-betea izan daiten zuen poza" (Jn 15, 11).

Bai, benetako kristinauaren bizitza alaia da, Espiritu Santuak gizon-emakume zintzoei emondako poza eta zorionez bete.

Kontzientzia garbiaren poza.

Jaungoikoaren adiskidetasunean bizi danak bere barruan dauka zorionaren itur-burua, mundu honetako nekeak ezin agortu daben poza... Kontzientziagaz bakean bizitea, hau da egiazko zorionaren susterra. Hobeto esateko: Jaungoikoaren grazian, Jaungoikoagaz bakean bizitea, hau da egiazko zorionaren iturri garbia, agortu ezina.

"Jaungoikoaren erreinuak ez dauka zerikusirik jan-edanakaz; bai, oster, Espiritu Santuaren dohe diran zuzentasun eta alaitasunaz" (Er 14, 17).

On eginaren poza.

Pedro apostoluak Jerusalemgo entzuleei Jesus zelangoa zan berba gitxitan biribildu gurarik, esan eutsen: "Nazaretoko Jesus, danei on egiten igaro zana" (Ep Eg 10, 38).

On egiteak bihotzean emoten dauan poza ezin da berbaz adierazo, nabaitu dauanak bakarrik esan lei zer dan zorion hori.

Baita alderantziz be, txarto eginaren kontzientziako kezka, ezin da mundu honetako atseginez ito.

Kristinauok pozik bizi behar dogu.

Pentekoste egun honetan, senideok, apostoluaren berba honeekaz esan gura deusuet: "Zagoze beti pozik, barriro dinotsuet, zagoze pozik. Laster dator Jauna" (Fl 4, 4).

Eta halan da. Kristoren ikasle garanok lehenengo gu geu pozik bizi gaitez, eta gero geure inguruan poza hori zabaldu daigun.

Honan munduaren aurrean Kristok irabazi eta Espiritu Santuak e-mon deuskun pozaren testigu izango gara".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka honetan Hirutasun guztiz Deunaren jaia ospatzen dogu... Aita eta Semea eta Espiritu Santua, hiru pertsona izanik, Jaungoiko bakarra da... Misterio sakona, guk giza-buru kaskar honegaz ulertu ezin doguna...

Senideok: Gaurko eukaristia Hirutasun guztiz santua goratuz hasi daigun: AITAREN ETA SEMEAREN ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN:

1. IRAKURGAIA: Es Zar 8, 22-31

Zeru lurrak sortu aurretik bazan Jaungoikoa... Jaun ahalguztidunak eginak dira itsas-mendiak, eta bertan bizi diranak...

2. IRAKURGAIA: Erm 5, 12-15

Jesukristo gure Jaunak, fedearen bidez, Jaungoiko Aitagaz baketu gaitu, Espiritu Santuaren maitasuna gure bihotzetan isuriz.

EBANJELIOA: Jn 16, 12-15

"ESPIRITU SANTUA DATORRENEAN GORATUKO NAU. AITAK DAUKAN GUZTIA NEUREA DA" (Jn 16, 13-15)

H O M I L I A

(Handik eta hemendik hartuta)

Hirutasun guztiz Santua, kristinau erlijinoko misteriorik sakone-na: Aita Jaungoikoa, Semea Jaungoikoa, Espiritu Santua Jaungoikoa, baina ez hiru Jaungoiko, Jaungoiko bat bakarra baino... Misterio ulergatxa gure buru motelentzat.

Jaungoikoari buruz berba egitean, Agustin santuak dinoana beti go-goan euki behar dogu: "Gure buruaz zerua baino gorago igongo bagendu be, Jaungoikoa oraindik harantzago dago... Eta Jaungoikoaren misterioak zerbait ulertu dozuzala uste dozunean, hori ez da Jaungoikoa".

Guk Jaungoikoari buruz dakigun gitxi hori Jesusi zor deutzagu.

Jaungoikoa zer dan Jesusengan eta Jesusen bidez agertu jaku. Eta nor dan Jaungoikoa Jesus maite dauanak bakarrik ulertu lei.

Gauza honeek gogoan harturik, Hirutasun guztiz Santuari buruz, zerbait esan daigun.

Antxinako kristinauak misterio hau euren bihotzetan ondo josita gordeten eben...

Luzia martiri santuari Erromako epaileak itandu eutsanean: "Zuok, kristinauok, zeuon barruan Jaungoikoa bizi dala uste dozue?. Non dozue, ba, gordeta daukazuen Jaungoiko ezkutu hori".

Luziak, heriotzaren aurrean bildur barik, erantzun eutsan: "Garbi eta zintzo bizi diran kristinauen bihotzetan Espiritu Santua bizi da. Eta guk gure barruan Jaungoikoa daroagu".

Polikarpo santuak be, 86 urtekan, Kristogaitik martiri heriotzara joala, laster bera erreko eban suaren aurrean, honan otoitz egin eban: "Aingeruen Jaungoikoa, pekatarien parkatzailea, eta zintzoen zaindaria, martirien koroia emoten deustazulako nik bedeinkatzen zaitut. Eskerrak Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun horri, Jesukristo zure Semearen bitartez, Espiritu Santuaz batean, nire bizitzaren oparia onartu dozulako... Aintza zuri Aita, Jesus zure Semearen bitartez, Espiritu Santuarekin batean, goratua izan zaitez orain eta betiko gizaldietan".

Eta Antiokiako Inazio martiri santuak, Erromako zirkuan piztien erpeetan hil aurretik, Trajano enperadoreak itandu eutsanean: "Zu nor zara, deabrukume hori, nik emondako legeak ez beteteko?".

Inaziok bake-bakean erantzun eutsan: "Ni ez naz deabruaren semea, ni Jaungoikoaren semea naz, eta Jaungoikoa daroat neugaz".

Eta Trajanok: "Jaungoikoa daroazula zeugaz?".

Eta Inaziok: "Bai, halan da. Kristogan sinisten dauanak Jaungoikoa dauka bere barruan".

Bai, antzinako kristinauak ondo ekien, eta zalantza barik sinisten, guk gaur bat ahaztuta daukagun egia eder hau: fededunen arimetan Jaungoikoa, hirutan bakarra, bizi dala.

"Ez dakizue", dinotse Paulo apostoluak Korintoko kristinauei, "Jaungoikoaren etxe zariela, eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dala?". (1 Kor 3, 16-17).

Aintza Aitari, eta Semeari eta Espiritu Santuari.

Hiru pertsonetan Jaungoiko bakarra dan ahalguztidunari.

(C)

JESUSEN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Kristoren Gorputz-Odol santuen jaia ospatzen dogu gaur...

Jesusek azken afarian bere gorputza ogi itxuraz, eta bere odola ardu itxuraz, emon eutsen janari eta edari bere ikasleei...

Eta gero esan eutsen: "Egizue hau neure oroigarri".

Jesusek agindutako hau beteteko batu gara gaur batzarre honetan, Eukaristi santua ospatzeko gogo beroz.

1. IRAKURGAIA: Gn 14, 18-20

Melkisedek abade eta erregeak ogi-ardauak eskeindu eutsazan oparitzat Jaungoikoari... Eskeintza hau eukaristiaren ezaugarri lez hartu daiteke.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 11, 23-26

Paulo apostoluak esango deusku, Jesusek azken afarian bere ikasleei, bere gorputza janari, eta bere odola edari, emon eutsela.

EBANJELIOA: Lk 9, 11-17

"HAU NEURE GORPUTZA DA, ZUONTZAT EMOTEN DANA... EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI" (Kor 11, 24).

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak "Eukaristiako misterio eta kultura" eskutitzatik ideak hartuta)

Eukaristia maitasun eskola

Kristinau benetakoaren bizitza agindu bi honeetan batez be agertzen da: Jaungoikoa maitatzean eta lagunurkoa maitatzean. Eta agindu bi honeek Eukaristian dabe euren iturria. Horregaitik arrazoiz Altareko Sakramentu honi "Maitasun Sakramentua" esaten jako.

Eukaristia lagunurkoaren maitasun eskola da, benetan, Jaunak irakatsi euskunez: "Honetan ezagutuko dabe guztiak nire ikasle zariela; alkar maite badozue"(13, 35).

Jesus eukaristikoa maite dauanak, senideakanako daukan maitasuna gehiagotu egin behar dau; guztiak dira eta Jesusen maitasunak salbatuak...

Jesus eukaristikoa hartzen dogunean, gu jaungoikotuta lez geratzen gara. Eta pentsamentu honek gizon-emakume guztiak maitatzera eta laguntza emotera eroan behar gaitu.

Eukaristia ogi eta arda, janari eta edari.

Mundu honetako atzerrian bizi garan bitartean, Kristok bere gorputz-odolak emoten deuskuz janari eta edaritzat zerurako bidean gosez eta egarriz, indar barik hil ez gaitez.

Eukaristiak baita be gure bihotzak garbitu egiten ditu. Gure Jauna hartu ondoren, Jaungoikoaren aurrean aurkitzen garanean, gure bizitza okerra hobeto ezagutzen dogu. Eta ezagutze honek Jaungoikoari gure pekatuen parkamena eskatzera berez lez eroaten gaitu.

Jaunaren mahai biak.

Antzinako eleiz-gurasoak Jaunaren mahai biei buruz sarritan hitz egiten deuskue: Jaunaren hitzaren mahaia lehenengoa, eta Eukaristia-ko ogiaren mahaia bestea.

Eukaristia ospatzeko batzen garanean, mezaren lehenengo zatian, Liburu Santuetako bi edo hiru irakurgai entzuten doguz. Eta zati bakotxaren azkenean, "Jaunak esana" dino irakurleak. Jaunaren hitza entzutea, hori da eleiz-gurasoak dinoskuen lehenengo mahaia.

Eta Jauna altarera etorri ostean gure Jauna hartzea, hau da bigarren mahaia.

Horregaitik jaunartu aurretik abadeak esaten deusku: Hona hemen Jaungoikoaren bildotsa...Zorionekoak Jaunaren mahaira deituak".

Jaunaren mahaiko hitza da gure arimen argi.

Jaunaren mahaiko ogia da gure arimen osasungarri.

Ez estuegi, ezta nasaiegi.

Eukaristia ospatzera batzen garanean, badira batzuk, euren kontzientziak pekatu astunik euki ez arren, jaunartzera ausartzen ez diranak. Hau estuegi da.

Baina badira beste aldetik, jaunartzea zein gauza handia dan asko pentsatu barik, mahai santura inguratzen diranak. Hau, oster, nasaiegi da. San Paulok dino: "Aztertu bei aurretik bakotxak bere burua, eta jan bei ogia, eta edan kalizatik" (1 Kor 11, 28).

Mezako zati guztiak: otoitzak, irakurgaiak, goralpenak eta abestiak jaunartzeari begira dagoz. Eta ondo jaunartzeko prestakizunik egokiena hau da: zati honeek gogo onez jarraitzea.

Ahalegin apur bat egin daigun, Eukaristi santua guretzat argi emoile, eta bizi iturri izan daiten... Eta eleizan batzen garan fedunen alkar-tearentzat Eukaristia izan bedi batasun eta maitasun lokarri.

(C)

2. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gabonetako ospakizunak amaitu ditugu...

Gaurko ebanjelioan Jesus, bere amaren eskariei erantzunez, ura arda bihurtzen ikusiko dogu. Egite honen bidez Jesusek ezkontzako bizitza onartu eta bedeinkatu egiten dau. ..

1. IRAKURGAIA: Is 62, 1-5

Jaunak Israel herria asko maite dau, eta maitasun hori agertzeko, Isaias profetak ezkonduen maitasuna hartzen dau eredutzat.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 12, 4-11

Eleiztarren artean doe asko eta ezbardinak dirala esaten deusku Paulo apostoluak. Baina doe guzti horreen emoilea Jaungoikoaren es-
piritu bat bera da, batasunean bizi gaitezana.

EBANJELIOA: Jn 2, 1-12

"ESTEGUAK ZIRAN GALILEAKO KANAN, ETA JESUS BE EZTEGUETARA DEITU EBEN BERE IKASLEEKAZ" (Jn 1, 1-2)

H O M I L I A

(Sendi-bizitzari buruzko esaldiak Joan XXIII.aren "Mensaje Espiritual" liburutik "ad sensum" hartuak).

"Ezkontzatik sortzen dan sendi-familia, Jaungoikoaren doe-erregalu bikain eta eder bat da. Gizon-emakumeentzat bizitza honetako gauzarik ederrena familia da. ..

Kanako ezteguetan Jesusek ura arda bihurtu ebanean, sendikoen artean alaitasun giroak bizi behar dauala, irakatsi euskun...

Jesusek kristinuen arteko ezkontza, sakramentu izateraino jasoz, gorengo mailaraino igon eban. Eta berak be Nazaretoko sendian bizi bizi gura izan eban...

Aberastasunak eta handikeriak ez dabe familiako bizitza zoriontsu egiten, Jaungoikoa maitatu eta alkar maitatzeak baino. Alkar maitasunak eta etxeko bakea, honeek dira sendietako egiazko aberastasunak.

Maitasunak etxeko penak eta nahigabeak arindu egiten ditu...

Maitasunak aitaren aginduak gozotu egiten ditu...

Amaren maitasuna ikusiz, seme-alabak pozago esanak egiten dabez.

Etxeko guztiak alkar maitatuz eta lan eginez bizi badira, gure herriak eta aberriak sendo eta indartsu iraungo dabe.

Familiako fede giroan ikasi behar dabe umeak, apur-apurka gazte jatorrak izaten, gero gizon-emakume helduak egiten diranean, Jaungoikoaren seme-alaba zintzoak izan daitezcan.

Haurtxoak etxeko alaitasun eta irribarre dira...

Ba ete da gauza ederragorik, ume txikiak berbaz hasten diranean, "Aitaren" egiten, edo "Gure Aita" eta "Agur Maria" errezatzen ikustea baino?...

Gurasook, Zuen umeak ondo zaindu eizueez!...

Seme-alabak ondo hezi eta edukatzeko, berba askorik ez, baina biguntasuna eta gogortasuna, biak batera, erabili behar dira...

Aitak asko agindu baino hobe da, bere eredu eta ejemplo onaz, etxekoentzat ikasbide izatea...

Ama, emakume ona eta maitagarria bada, etxekoak zigorren behar barik, pozik obedituko deitsoe...

Bai pozgarri dala gurasoentzat, euren seme-alabak, euren haragiaren haragi diranak, herritar jator eta kristinau zintzoak dirala ikustea!

Amaren esanak seme-alabaren bihotzetan betirako josita gelditzen dira, eta ez dira bizitza guztian ahaztuko.

Etxeko amak bere senarragaz gozo eta maitagarri izan behar dau. Eta gurasoak, biak batera, euren seme-alabei bide zuzenetik ibiltzen irakatsi behar deitsoe... Eta seme-alabaren batek bokazinoa daukala agertuko baleu, Jaunaren deiari erantzuten lagundu behar leuskioe.

Eta zuok, seme-alabok, ez ahaztu mundu honetan ama bat bakarra dozuela. Eta zaharra egiten danean be, ama beti ederra eta maitarria dala.,,

Maria da etxeko andreentzat eredurik ederrena; eta Nazareteko Jose, langile apal eta zintzoa, etxeko jaunarentzat. Seme-alabak, Jesusek Maria eta Joseri lez, euren gurasoeri obeditu behar deitsoe.

Kristinau ezkonduok, ahalegindu zaitezte zuen etxeko baratzean hiru frutu gozo honeek loratu daitezcan: Aita eta amaren alkar maitasuna; guraso eta seme-alabaren arteko ontasuna; eta etxeko guztien arteko bihotz beteko anaitasuna eta bakea. Mundu honetan ez da zorion handiagorik".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka guztietan mezaren lehenengo zatian irakurgaiak entzuten ditugu, eta hirugarrena beti ebanjelioetatik hartutako zati bat izaten da. Ebanjelioa entzutean, begirunez, zutundu egiten gara...

Lau idazle dira Jesusek esan eta egindakoak guretzat liburuetan idatzirik itxi ebezanak: Markos, Lukas, Mateo eta Joan.

Gaurko ebanjelioan San Lukasek ebanjelioaren hasiera entzungo dogu.

1. IRAKURGAIA: Ne 8, 2-4a. 8-10

Israeldarrak Babiloniako erbestetik euren aberrira itzuli ziranean, Jerusalemgo eleiza nagusia hondatuta aurkitu eben, eta barrero jaso eben. Esdras abadeak Liburu Santuak zabaldu, herriari Jaungoikoaren legea irakasten deutso.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 12, 12-30

Korintoko kristinauak euren artean zatiturik dagoz. Paulok esaten deutse, bateoaren bidez, danok, Kristo buru dala, gorputz bat bakarra osotzen dogula. Eta eritxi askotakoak izan arren, Jaunaren maitasunean bat egin behar dogula.

EBANJELIOA: Lk 1, 1-4, 14-21

"NIK BE HASIERATIK (Jesusek egindako eta esandako gauza) GUZTI HONEEK, ARRETA HANDIZ AZTERTU ONDOREN, DANAK HARI EGOKIAN ZURI IDAZTEA ERABAGI DOT" (Lk 1-3)

H O M I L I A

Gure fedea oinarritu eta sendotzeko, gure erlijinoko kultura apur jasotea egoki izango jaku, ebanjelioak zelan idatziak izan ziran argituz....

Jesusek berak ez eban ezer idatzita itxi. Jesusek bere dotrina berbaz eta agoz irakatsi eban...

Gero, Jesus zeruetara igon zanean, bere ikasleak mundu guztira zabaldu zira, Maisuaren Barri Ona iragartera...

Baina apostoluak ez ziran betikoak, eta honeek, hil aurretik, Jesusek irakatsitakoa ahaztuta galdu ez eitean, liburuetan idatzita jartea on izango zala erabagi eben.

Lau ebanjelari: Markos, Mateo, Lukas eta Joan.

Lau dira Jesusen ebanjelioa idatzi ebenak: Markos, Mateo, Lukas eta Joan. Bakotxari buruz zerbait esan daigun:

Markos:

Markosen familia Jerusalemgo handikien artekoa zan. Markosen amak Jerusalemgo lehenengo kristinauak bere etxean hartzen zituan.

Ebanjelari hau Paulo eta Bernabegaz Asia Hurbilean eta European zehar Jesusen barri ona zabaltzen ibili zan. Geroago Erroman San Pedrogaz alkartu zan. Honegaitik Markosen ebanjelioak, Pedrok Erroman irakatsitako katekesiak ditu oinarritzat.

Jesus hil eta 30 edo 40 urte geroago idatzi eban Markosek bere ebanjelioa: "Jesusen hitzak eta egintzak zehatz idatzi zituan, berak gogoratzen zituanez", dino antzinako tradizinoak.

Mateo.

Zergalaria zan, eta Jesusen hamabi apostoluen artekoa. Kafarnanen zerga (kontribuzinoa) batzen ziharduela, Jesusek dei egin eutsan. Eta Mateok berak kontatzen deusku: "Jesusek bidez joiala, Mateo izeneko gizon bat ikusi eban zergalari-mahaian jesarrita, eta esan eutsan: zatoz neugaz. Eta Mateok zutundu eta jarraitu egin eutsan" (Mt 9).

Lukas.

Siriako Antiokian jaio zan. Osagile eta goi-mailako eskoladuna zan, eta historia ikerketan ondo jantzia. Antzinako tradizinoak dinoanez, Greziako Akaiian idatzi eban bere ebanjelioa, baita geroago "Apostoluen Eginak" be. Lukasek berak gaurko ebanjelioan dinoskuzenez, "Nik hasieratik Jesusen barri onaren gauza honeek guztiak ardura handiz aztertu ondoren, danak hari egokian idaztea erabagi dot".

Joan.

Laugarren ebanjelioaren idazlea Jesusen apostolu maiteena zan. San Ireneok dino: "Joanek, Jaunaren ikasleak, azken afarian Jesusen bularrean atsedean hartu ebanak, ebanjelioa idatzi eban, Efeson bizi izan zan bitartean". Joanen ebanjelioa lauretatik teologian sakonena da.

Labur bilduz.

Lau dira Jesusek esan eta egindakoak idatzi ebezan ebanjelariak: Markos, Mateo, Lukas eta Joan. Honeen arteko bi, Mateo eta Joan, Jesusen apostoluak ziran, Jesusen ondoan hiru urte egindakoak. Markosek Pedrori entzundakoak idatzi zituan, eta Lukasek, esan dudun lez, testigu asko ardura handiz aztertu ondoren, idatzi eban bere ebanjelioa. Honeek dira gure fedearen oinarriak.

(C)

4. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesus, Nazareteko sinagogan predikatzen hasi zanean, bere herri-tarrak ez eben onartu. Ez ete da ba hau Jose arotzaren semea?, esaten eben. Arotz baten semeak zer jakin lei?

Eta herritik kanpora bota eben...

1. IRAKURGAIA: Jer 1, 4-5. 17-19

Jaunak Jeremias profeta aukeratu ebanean Jaunaren lana egiteko, hau ikaratu egin zan, arerio asko sortuko jakozalako. Baina Jaunak dinotso: Ez izan bildurrik, nik lagunduko deutsut.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 13, 4-13

Sinismena, itxaropena eta maitasuna, hiru birtute handiak dira. Baina hiruren artean nagusi, maitasuna.

EBANJELIOA: Lk 4, 2i-30

"HAU (Jesus) EZ ETE DA BA JOSE (arotzaren) SEMEA? Lk 4, 22)

H O M I L I A

Zer dino Bibliak lanari buruz?.

(A. Apaolaza. "Jaunaren Deia". 1970. 30. zbk)

Adan, gure lehenengo gurasoak pekatu egin ez baleu be, gizonak lan egin beharko eban. Baina orduan lana ez zan neketsu izango, orain guretzat dan lez. Lana nekegarri izatea jatorrizko pekatuak ekarri deusku. Jaunak Adani esan eutsan: "Nik galerazo neutsun zugatzetik jan dozulako, madarikatua izan bedi lurra, eta nekearen nekez aterako dozu jatekoa lurretik.(Gen 3, 17).

Lanaren mesedeak:

Lana Jaungoikoaren aintzagarri eta lagunurkoaren zerbitzari da. Lanak Jaungoikoaren lankide edo lan-lagun egiten gaitu...

Jaungoikoa bakarrik da zeru-lurren egilea, eta ez gizona. Baina gizonak zientziaren bidez, Jaungoikoak izadian ezkutaturako sekretuak aztertu, bideratu eta gizonaren zerbitzurako ipinten ditu.

Gizonak, Jaungoikoak egina, osotu, hobetu eta burutu egiten dau. San Paulok Korintoko kristinauei dinotse: "Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten dozuela, egizue dana Jaungoikoaren aintzarako" (1 Kor 10, 34).

Gizona Jaungoikoaren lankide edo lan-lagun izatea guretzat mesedegarri da, eta Jaungoikoarentzat aintzagarri. Eta gai honi jarraituz, Paulok Miletoko kristinau alkartearen arduraduneari dinotse: "Nik erakutsi deutsuet, lan eginez, laguntza emon behar deutsezuela txiroei" (Ap Eg 20, 5).

Lanak Jesusen antzeko egiten gaitu.

kristok, mundu honetara zerutik jatsiz, ez eban lanaren nekea guztiz kendu. Jesusek berak be lan egin eban, eta esku-lan neketsua, egin be. Lan egitea Jaungoikoaren Semeari ez jakon lotsagarri iruditu. Nazareteko herritarrak harriturik esaten eben: "Ez ete da hau arotza Mariaren semea?" (Mt 6, 3). "Ez ete da hau Jose gure herriko arotzaren semea? (Lk 4, 22).

Lana gure salbamena da.

Orain gure eguneroko lana, esan dogunez, neketsu egiten jaku, jatorrizko pekatuaren frutu ustela dalako. Baina orain zigor hau, Kristori eskerrak, guretzat salbamen-bide da. Kristogaz batera bere nekeetan bat eginik bizi bagara, gure lanaren oraingo nekea, gero zeruetako erreinuan sari pozgarri bihurtuko jakulako.

San Paulok Erromako kristinauei idazten deutse: "Nekeetan Kristoren kideko eta lagun bagara, zeruko aintzan be, Haren kideko eta lagun izango gara" (Er 8, 17).

Lanik gorengoena zeruko erreinua lortzeko egiten dan lana da.

Baina, halan izanda be, Jesusentzat lanik bikainena eta beharrezkoena, zerua lortzeko egiten dogun lana da.

Jesusek basamortuan ogiak ugaritu ondoren bere jarraitzaileei esan eutsen: "Nire bila zabilte ogia jan dozuelako eta ase zarielako. Egizue lan hondatzen ez dan janariagaitik, betiko bizirako irauten dauan janariagaitik baino" (Jn 6, 26, 26-27).

Berba gitxitan.

1. Lanaren bidez biziteko behar dogun eguneroko ogia irabazten dogu.

2. Lanaren bidez Jaungoikoari aintza eta lagunurkoari laguntza emoten deutsagu.

3. Lanaren bidez Kristoren nekeetan lagun egiten gara, gero zeruko erreinuan Baragaz batera biziteko.

4. Lanik bikain eta beharrezkoena Jesusentzat, zeruko erreinua eskuratzeko egiten dogun lana da.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek, Pedro eta beste apostoluei lez, guri be beragaz joateko dei egiten deusku...

Kristoren ikasle garanok, bakotxak geure bizi-modu eta bizi garan lekuan, lan egin behar dogu, Jesusen antzera bizi eta bere ondotik ibilteko.

1. IRAKURGAIA: Is 6, 12a. 3-8

Isaias, pekatari izan arren, Jaungoikoak profeta izateko aukeratu eban.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 1-11

Kristo, hilen artetik biztu ondoren, lehenengo apostoluei agertu jaken, baita gero bostehun eta gehiago ikasleei be.

EBANJELIOA: Lk 5, 1-11

(" Jesusek Pedrori) HEMENDIK AURRERA GIZA-ARRANTZALE IZANGO ZARA: ETA HAREEK (Pedro, Santiago eta Joanek) DANAK ITXITA (Jesusi) JARRAITU EUTSOEN" (Lk 5, 10-11).

H O M I L I A

Jesusi jarraitzeko hiru era.

1. era. Idazlari jakintsuarena. (Mt 8, 18-2i)

San Mateok esaten deusku: "Orduan idazlari batek, Jesusen ondora etorrita, honan esan eutsan: Maisu, jarraituko deusut noranahi zozazela".

Eleiz-gurasoak dinoskue idazlari jakintsu honek Jesusegaz ibili gura ebela, halango profeta mirari-egileagaz alkarten bazan, bera be ospetsu egingo zalakoan.

Horregaitik Jesusek esan eutsanean: "azeriak badaukez zuloak eta zeruko hegaztiak habiak; baina Gizonaren Semeak ez dauka burua non itzunik", idazlari jakitunak bildurrez atzeraka egin eban. Aintza eta txaloetan Jesusi jarraitzeko prest egoan, baina ez pobretasun eta apaltasunean.

2. era. Gazte aberatsarena. (Mt 19, 16-22)

Gertakari hau be Mateok kontatzen deusku: Gazte bat etorri jakon Jesusi eta esan eutsan: Maisu, zer egin behar dot betiko bizitza lortzeko?.

Eta Jesusek erantzun eutsan: "On-ona izan gura badozu, zoaz, saldu dituzunak, eta emon txiroei, eta izango dozu girutza zeruan; eta gero zatoz, eta jarraitu niri. Berba honeek entzunik gaztea nahigabeturik joan zan, ondasun askoren jabe zalako".

Gazte hau mutil ona zan, Jaungoikoaren aginduak ondo beteten zituana, eta horregaitik Jesusek bihotz on eta maitasunez begiratu eutsan; baina aberatsa zan, eta bere lurreko ondasunak, zerukoak baino maiteago zituan.

Gazte honengan Jesusek ereilearen parabolan esandakoa bete zan: "Arantza artean ereindako hazia, hitza entzuten dabena da; baina mundu honetako aberastasunak hitza ito egiten dabe, eta frutua emon barik gelditzen da" (Mt 13, 22). Gazte jator honen bihotzean lurreko aberastasunak, Jaungoikoak ereindako hazi ona ito egin eben.

3. era. Pedro arantzalearena. (Lk 5, 1-11)

Gaurko ebanjelioan Pedro Jesusen benetako jarraitzaile lez agertzen jaku.

Pedro esaneko.

Gau osoan ez eban Pedrok, bere lagunekaz, itsasotik arrainik aterara. Baina Jesusek esan eutsanean: "Bota sareak arrantzarako", Pedrok berehala Jesusek esandakoa egin eban, eta "Zuk dinozun ezkerro, botako dodaz sareak" erantzun eutsan... Eta menpekotasun honen saritzat, "ikaragarritzko arrantzua egin eben".

Pedro apala.

Hori ikusi ebanean, Simon Pedrok, oinetan ahospezturik, Jesusi esan eutsan: "Zoaz, Jauna nire ondotik, pekataria naz eta". Jesusen aintzaren aurrean Pedro bildurdu zan. Ez da Jaungoikoaren aurrean handiagorik, bere burua txikia egiten dauana langorik...

Pedro bihotz handi eta zabala.

"Eta Pedrok dana itxi eta Jesusi jarraitu eutsan". Etxekoak, ondasunak, lagunak, ogibidea... dan-danak itxita, beretzat ezer gorde barik, Jesusegaz joan zan, eta betiko joan be.

Eta Jesusek, Pedro Galilea itsasoko arrantzale ezereza, gizonak zeruratzeke, giza-arrantzale egin eban.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Danok zoriontsu izan gura dogu. Danok zorionaren atzetik gabiltza.

Egiazko zoriona non aurkituko dogun, Jesusek gaurko ebanjelioan erakutsiko deusku: Zorionekoak beharstuak, zorionekoak bake-egileak, zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak...

1. IRAKURGAIA: Jer 17, 5-8

Bere konfiantza gizonengan jarten dauana, basmortuko zugaitz igararren antzeko da. Bere uste-ona Jaunagan ipintzen dauana, oster, ur ondoko landarea lez loratuko da.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 12. 16-20

Kristo da gorputz mistikoaren buru, eta gu gorputz horren zati. Horregaitik, Kristo biztu bada, gu be biztuko gara.

EBANJELIOA: Lk 6, 17. 20-26

"ZORIONTSU, BEHARTSU ZARIENAK, ZUENA DA ETA JAUNGOIKOAREN ERREInua. ZORIONEKOAK..." (Lk 6, 17-26)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak Rio Janeiro-ko Favela Vidigal-en esandako hitzaldia, 1980. urtean)

"Senide maiteok:

...Zuen artean behartsu-pobre asko dago...Brasil Eleizak pobreen Eleizak izan gura dau. Jesusek mendiko hitzaldian irakatsitako "zorionak", zuen artean egiazkoak izan daitezela gura dau...

"Zorionekoak gogoz behartsu diranak", honangoen bihotzak Jaungoikoa onartzeko zabalik dagozalako. Txiro-behartsu diranak badakie gauza guztiak, dan-dana, Jaungoiko onaren eskutik hartuta daukela. Eta horregaitik Jaunari beti eskerrak emoten bizi dira...

Gogoz pobreakaitik esan eban Jesusek, bihotz garbiak eta otzanak dirala. Zuzentasunaren gose eta egarri dirala. Bake egile eta errukitsuak dirala. Eta halan da.

Aberastasunak bihotza gogortu egiten dabe, lur honetako ondasunekaz itsuturik, Jaungoikoaz ez gogoratzeko, ezta lagunurkoaren beharrak ikusteko.

Gogoz pobreak dira errukitsuenak, Jaungoikoarentzat bihotza zabalik daukenak, baita gizon-emakume guztientzat be.

Gogoz pobreak dira beti senideei laguntzeko prest dagozanak, eta dauken gitxitik gogo onez emoteko bihotza beti zabalik daukenak.

Pobreak badakie, eurak be behartsu izan arren, gitxiago daukenei ogi zati bat emoten.

Pobreak bihotz eta esku-zabalak dira... Eta badakit zuen artean holango asko aurkitzen dala...

Baina txiro izanik be, ez gara gure pobretasunean egonean egon behar; aldērāntziz baino. Ahalegin guztiak egin behar ditugu gure gizartetik ezbardintasun guztiak eta injustiziak kentzeko, eta dānontzat gizaki lez biziteko behar ditugun etxe-bizitzak, eskolak, gaixotegiak eta lanbideak eskuratzeko.

Pobretasunak ez dau esan gura, ez dogula ezer egin behar bizitza hobeagora geure buruak jasoteko...

Horregaitik Jesusek aberatsei esaten deutse: "Zoritxarrekoak zuok aberatsok. Zoritxarrekoak zuok orain aserik zagozenok. Zoritxarrekoak orain barre egiten dozenok, negar egingo dozue ēta!...

Aberatsen āurka Jesusek esandako berba gogor honeek entzunda, nor ez da bildurtuko?.

Lurreko ondasunetan ugari bizi diranak, gitxiago daukenei laguntzeko beharrean dagoz. Eta nik orain Jesusen izenean dinotset: Aberatsok, pobreetaz arduratu zaitez. Gose diranei, etxerik ez daukenei, eskola eta sendagairik ez dabenei, lagundu eiezuē. Jesusen "zorionak" zuontzat ez daitezala "zoritxarrak" bihurtu.

Lurreko ondasunetan asko dabenei nik esaten deutset: begira zuon ingurura. Ez ete deutsue zuen bihotzak minik emoten?. Zuok gauza guztietatik hain ugari euki, eta honeek hain gitxi daukela ikusirik, ez ete deutsue zuen kontzientziak kezkarik sortzen?.

Zuek beti gehiago eta gehiago euki gura dozue. Zuen jaungoiko txikiak dirua eta atseginak dira. Jakin behar dozue, gizona ez dala berak dituan diruakaitik neurtzen, bere zintzotasun, jatortasun eta bihotz onagaitik baino.

Aberatsok, ez daizala urreak zuen begiak itsutu!

Jakin eizue, Jesusen jarraitzaile benetakoentzat beti egia izan go dala: Zorionekoak gogoz txiro diranak, eurena da eta zeruetako erreinua".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Jesusek arerioei parkatzea eskatuko deusku. Agindu gatxa da, baina kristinauentzat bete beharrekoa.

Jaungoikoak guri parkatzea gura badogu, geuk be parkatzen ikasi behar dogu...

1. IRAKURGAIA: 1 Sm 26, 2-23

Dabid gazteak bere arerio Saul erregea hil eikean, baina bizitza parkatu eutsan.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 45-49

Kristo da Adan barria. Kristoren seme-alabak zerukoak dira, gure lehenengo guraso Adanen seme-alabak lurrekoak ziran lez.

EBANJELIOA: Lk 6, 27-38

"MAITE EGIZUEZ ZUEN ARERIOAK; EGIN ON GORROTO DEUTSUENEI" (Lk 6)

H O M I L I A

(San Agustinen homilietatik ideak eta berbak hartuta)

Zer dan haserrea eta zer gorrotoa.

Haserrea eta gorrotoa ez dira gauza bardinak. Gu, gure seme-alabakaz gauza txarren bat egiten dabenean, haserretu egiten gara, baina horregaitik ez ditugu gorrotatzen, maitatzen baino.

Egin daigun, zure umea ibai ondoan jolasean dabilela uretara jausteko arriskuan. Zuk bizitza galtzeko zorian jarri dalako, agirika egiten deutzazu, baina horregaitik ez dozu umea gorroto. Maite dozulako haserre egiten deutzazu.

Gorroto dauanak ez dau maitatzen, mendekua-bengantza noiz hartuko luzaroan haserrea bihotzean gordeta eukiten dau.

Gorroto dauanaren bihotza kartzela bat da.

Kartzela iluna izaten da, eta han dagozanak ilunpetan bizi dira. San Joanez dino: "Senidea gorroto dauana ilunpetan bizi da, eta ilunak itsutu egiten deutsoz begiak" (1 Jn 2, 9)

Kartzeletan errubakoak be egon daitekez, antzinako kristinau martiriak lez. Hareen gorputzeko begiak ilunpetan egon arren, bihotzak argitan egozan, alkar maite ebalako. Gorroto dauanaren bihotza, ostera, maite ez davalako, betiko ilunpetan dago.

Kartzelan gaizkileak dagoz.

Horregaitik dino San Joanez: "Bere senidea gorroto dauana giza-hiltzaile da. Eta giza-hiltzaileak ez dauka beragan bizirik"

Kartzelakoak ez dauka askatasunik.

Gorroto dauana be bere pekatuen kateakaz lotuta dago, eta ezin dau maitatzeko bere burua askatu. Gorrotoa kate gogorra da.

Baina, zuk esango dozu: parkatzea gauza gatxa da.

Egia dinozu. Baina halan be gauza beharrezkoa, Jaungoikoak be gure pekatuak parkatzea gura badogu. Eta hau "Gure Aita" errezatzean garbi agertzen da. Jaungoikoak guri parkatuko deusku, guk geure arerioei parkatzen deutsegun neurrian. Parkatu gura ez badozu, Jaungoikoak esango deusku: "Zelan gura dozu nik zuri parkatzea, zuk zure arerioei parkatzen ez badeutsazu?". Zeure agotik galtzen zara".

Baina aurrera joan baino lehen, gauza bat esan gura deusku: Zu, zure arerioagaz bakeak egiteko prest egonik, berak ez badeusku parkatu gura, nasaitu zaitez, zuk zeure eginbeharra bete dozu... Zuk, zure arerioaren alde otoitz egizu, harek bere buruari egiten deusku kalteagaitik.

Zuk itanduko deustazu: Benetan parkatzen dabena hain gitxi bada, Kristoren artaldeko ardiak zelan dira hain gitxi?. Eta zuk zer gura dozu nik erantzutea?. Nik hau bakarrik esan neikizu: Jaunak agindua dala. Horregaitik parkatzen ez dakienak ez leuke "Gure Aita" otoitz egin behar, otoitz hori esatean guzurti agertu, eta bere burua galtzen daualako.

Parkatzen badozu zeruko Aitaren antzeko egiten zara.

Jesusen esana da: "Zeruetan dagoan zuen Aitak gaiztoentzat eta zintzoentzat ateraten dau eguzkia; eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten dau euria" (Mt 5, 45). Egin bardin zuok be, eta Jaungoiko Aitaren seme-alaba benetakoak izango zarie.

Parkatzen badozu Jesusen antzeko egiten zara.

Zure arerioaren burutik mendekua-bengantza hartu gura badozu, begira Jesus gurutzean jositakoari, eta zer dinoan entzun eizu: "Aita, parkatu eiezu, zer egiten dabena ez dakie eta". Eta ez eidazu esan Jesusentzat parkatzea erreza zala Jaungoikoa zalako. San Esteban martiriak be harrika emoten eutsenei parkatu egin eutsen, eta gizona zan. Senideok: "Eguzki sartzeak ez zaiezala oraindik haserreen aurkitu Ef 4, 26). Gaur etorri aurretik kendu zuen bihotzetatik gorroto guztiak. Kristo gure arimen argia da, eta gorrotoa ilunpea. Gorrotoa dagoan lekuan ezin da Kristo bizi. Parkatu eizu eta parkatua izango zara, eta Kristoren eguzkiak zure bihotzean betean argi egingo dau".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Besteen hutsegiteak ikusteko begi argiak ditugu. Geure akatsak ikusteko, ostera, itsuak gara.

Zugatz ona be ez da orrietatik ezagutzen, frutuetatik baino.

Zugatz onak frutu onak, eta zugatz txarrak frutu ustelak...

1. IRAKURGAIA: Sir 27, 5-8

Zugatza zelangoa dan bere frutuetatik da ezagutzen. Gizonaren bihotzean zer dagoan be, haren agotik ezagutzen da.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 54-58

Heriotzea pekatuaren frutu ustela da, baina Jesus biztuak gu be biztuko gaitu, eta bizitza honetako nekeak, sari handi bat izango dabe gero zeruan.

EBANJELIOA: Lk 6, 39-45

"ITSU BAT JARRI ETE DAITEKE BESTE BATEN ITSU-AURREKO?"

"ZUGATZ BAKOTXA BERE FRUTUETATIK EZAGUTZEN DA" (Lk 6, 39-45)

H O M I L I a

Jesusen entzuleen artean baziran gizon eta emakume zintzo asko, Jaunaren hitza apal-apalik eta gogo onez hartzen ebenak. Baina baziran beste gitxi batzuk be -fariseu eta idazlariak- Jaungoikoak ere indako hazia, harrokeriaz, ito egiten ebenak.

Jesusek bere ikasleei, lau-bost parabola laburren bidez, sasi-maisu honeekaz kontuz ibilteko esaten deutse, kanpotik itxura ederrak baina barrutik ustelak ziralako.

1. Parabola. "Itsu bat jarri ete daiteke beste baten itsu-aurreko? Ez ete dira biak zuloan jausiko?". Fariseoak sasi-maisuak ziran, bide zuzena inori erakusteko itsuak. Jesusek dinotse: "Zoritxarrekoak zuok, idazlari eta fariseo itxura-zaleok!. Edateko ontziak kanpotik garbitzen dozuez, baina barrua lapurkeriaz eta zikinkeriaz beterik daukazue. Fariseo itsua!. Garbitu eizu aurretik ontziaren barruko aldea, eta kanpoa be garbi geldituko da. Gidari itsuak. Eulia iragazi, eta kamelua iruntsi egiten dozue" (MT 23, 24-26).

2. Parabola. "Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago"

Maisuak baino gehiago dakiela uste dauan ikasle hoxroak, eskolan ez dau aurrerapen handirik egingo. Guk Jaungoiko maisuaren ikasle garanok, apal-apalik gure zeruko maisuaren ikaskizunak onartu behar ditugu.

3. Parabola, "Zertan zagoz anaiaren begiko lastoizpia ri gebira, eta ez zara konturatzen zeure begian daukazun habeaz?"(Lk 6, 41)

Besteak zuzendu gura badozuz, zuzendu zaitez aurretik zeu. Zelan gura dozu besteen etxea garbitzea, zeurea zikin badozu? Zuzendu eta garbitu zaitez aurretik zu, eta orduan besteak besteak be bide onera ekarri ahal izango dozuz.

Zeure akats handiak ikusteko itsua zara, eta besteen txikienak be begi zorrotzez ikusten dituzu.

4. Parabola. "Zugatz bakotxa bere fruetetatik ezagutzen da" (Lk 6)

Zugatz txarra orri ederrez jantzi daiteke, baina ezin frutu onik emon. Sasi-maisuak be berbe ederrak bai, baina frutu onik ez.

Egintza onak dituana maisu ona da. Egite txarrak dituen, kanpotik itxura ederrez jantzita agertu arren, maisu txarra da...

Eta frutu onak eta txarrak zeintzuk diran Paulo apostoluak irakasten deusku:

Frutu ustelak dira: haragikeriak, gorrotoak, eztabaidak, burrukak, alderdikeriak, ikusi-ezinak, mozkorkeriak, sabelkeriak eta hollangoak.

Frutu onak, barriz; maitasuna, poza, bakea, bihotz-zabala, ontasuna, zintzotasuna, samurtasuna, bere buruaren jabe izatea eta abar.

5. parabola. "Bihotzean ugari dagoanetik berba egiten dau agoak".

Santiago apostoluak dinosku: "Norbaitek bere burua erlijinozaletzat jotzen badau, baina mihinari eusten ez badaki, bere burua engainaten dau, eta holangoaren erlijinoak ez dau ezertarako balio.

Zaldiei menperatzeko agokoa ipinten deutsegu, itsasontziak be, handiak izan arren, lema (timoi) txiki batek hara eta hona erabiltzen ditu; mihinak be bardin, txikia izan arren, onerako ala txarrerako, eragin handia dauka.

Begira zelan su txiki batek baso osoa sutan ipinten dauan. Mihina be sua da. Txikia da, baina kalte handiak egiten dituana.

Era guztietako piztiak eta basa-abereak menperatzen ditu gizonak. Mihina, oster, ezin dau menperatu. Hizketan hutsik egiten ez dauana, bete-beteko gizona da"(St 1. 2. 3)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaunaren salbamena gizon-emakume guztientzat eskeindua izan da, ez judeguintzat bakarrik...

Jesusek gaurko ebanjelioan, Erromako ehuntari jentilaren morroia osatuz, hau irakatsi gura deusku: Itun Barrian Jaungoikoaren salbamena jentilentzat be -guretzat be- etorri dala...

1. IRAKURGAIA: 1 Erg 8, 41-43

Salomon erregeak Jerusalengo eleizan hau eskatzen deutso Jaunari: jentilen otoitzak be entzuteko.

2. IRAKURGAIA: Ga 1, 1-2, 6-10

Galaziako kristinauak Jesusen ebanjelioa itxi, eta beste ebanjelio batera aldatu ziran. Paulok horregaitik gogor hartzen ditu.

EBANJELIOA: Lk 7, 1-10

"EGIA ESAN, ISRAELEN BE EZ DOT AURKITU HOLANGO SINISMENIK"
(Lk 7-9)

H O M I L I A

(Karl Rahner-en "Homiliario Biblico"tik ideak hartuta)

Kafarnaun herria Filipino eta Erodes Antipas-en estaduen arteko muga-huria zan, eta horregaitik handik igaroten ziranei zergak eskatzeko "adua" bat egoan, erromako gudariak zainduta...

Gudari-talde honen buru ehuntari jentil bat zan, bihotz oneko pertsona, Israek herria maite ebana, eta judeguintzat herri haretan sinagoga bat otoitz egiteko eragi ebana...

Ehuntari honek ondo ekian, jentila izanik, ez zala bera Jaungoikoak aukeratutako Israel Herriko semea. Horregaitik apaltasunez eta lotsaz, ez da Jesusengana zuzenean joaten ausartzen. Eta bere lagun judeguen bitartez albiste hau bialtzen deutso Jaunari: "Jauna, asko maite dodan morroi bat gaixorik txarto daukat. Zatoz osatzera".

Eta ehuntariak etxerako bidea hartu ebanean, jentil honek apaltasunez eta fede biziz, esaten deutso: "Jauna, ni ez naz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esaizu hitz bat eta nire morroia osatuko da".

"Eta Jesus", dino Lukas ebanjelariak, "harriturik gelditu zan gizon haren fedez. Eta bere ingurukoei esan eutsen: Israelen be ez dot holango sinismenik aurkitu".

Guk, kristauok, Jaungoikoaren talde aukeratua garala, uste dogu. Eta halan da izan be. Guk ezer merezi barik Jaungoikoak fedea emon deusku, eta bizitza osoan gure fedearen argiagaitik eskerrak emon beharrean gagoz. Sinismena dogu Jaunak guri emon deuskun oparirik ederrena...

Baina baita be pentsatu behar geunke, badirala gure artean bihotz oneko gizon eta emakume asko, benetan egiaren, zuzentasunaren eta zintzotasunaren bila dabiltzanak, eta lagunurkoari laguntzeko prest dagozanak. Jaungoikoaren graziak ezkutuan, guk nondik eta zelan ez dakigula, alde guztietan arnas egiten dau. Eta guk be salbamen-bide guztiak ez ditugu ezagutzen.

Guk, fededunok, Jaunaren deiari gorrarena egin geinkio. Baita alderantziz be, gure ustetik Eleizatik urrun dagozanak, Jaunaren deiari zabaldu leikioe.

Fedearen argia hartu dogunok, besteak baino hobeak garalakoan, ez gaitez harrotu. Asko emon jakonari, asko eskatuko jako...

Gaurko ebanjeliotik atera behar doguzan ikaskizunak honangoak dira:

1. Jaunari gure sinismenagaitik bihotz-bihotzez eskerrak emoteko ez gaitezela ahaztu. Guk ezer irabazi barik, zeruko bidean ipini gaitu, eta Jaunaren laguntzaz betiko zoriona eskuratuko dogula, itxaropena dogu...
2. Jesusek lez, edonon aurkitu daitekezan egizaletasuna, ontasuna, zintzotasuna eta abar...begi onez ikusteko gure bihotzak zabaldu daiguzan. Jaungoiko onaren graziak ez dauka mugarik, eta Jaunaren doeak gutxien uste dugun arimetan ezkutauta egon daitekez.
3. Gu geure fedea eskatzen dauan bidetik beti zuzen ibili gaitez, eta inoiz baztertu bagara, damaturik gure hutsegiteak autortu daiguzan. Pekatari garala ezagutzeak zeruko erreinuaren ateak zabalduko deuskuz. Hala bedi.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoak ez dau heriotza maite...

Heriotzea Adanen pekatuak ekarri deusku mundura... Bizia, Kristok emon deusku...

Gaurko barri onean ikusiko dogunez, Jesusek alargun baten seme bakararra biztu eban, esanez: Mutil!, zuri dinotsut: jagi zaitez!

Eta Jesusek seme biztua ama alargunari emon eutsan...

Kristo da betiko bizia, hau da gaurko ebanjelioak irakatsi gura deuskuna.

1. IRAKURGAIA: 1 Er 17, 17-24

Elias profetak Sarepta-ko emakume alargunaren semea biztu egiten dau.

2. IRAKURGAIA: Gal 1, 11-19

Paulo apostoluak autortzen deusku: lehenago bera Kristoren arerio izan bazan be, orain Jaunak aukeratua izan dala, jentilei barri ona iragarteko.

EBANJELIOA: Lk 7, 11-17

"JAUNAK HILAREN AMARI: EZ NEGARRIK EGIN... ETA GERO GAZTEARI: MUTIL, ZURI DINOTSUK: JAGI ZAITEZ" (Lk 7. 13-14).

H O M I L I A

(J.A. Pagolak "El Diario Vasco"n idatzitakotik ideak hartuta).

"Hiru dira Jesusek biztutako hilak: Jairoren alabea, Naingo alargunaren semea, eta Betaniako Lazaro, Marta eta Mariaren nebea...

Heriotzea beti da negargarria, baina gaurko ebanjelioak dakarrenak samingarriago egiten dau, ama alarguna eta seme bakararra dalako.

Jesus, amaren negarrak entzunik, errukitu egin zan, eta ama alargunari dinotso: Emakume, ez negarrik egin!. Eta gero hilari: Gazte, zuri dinotsut: jagi zaitez!.

Eta lehen semearen heriotzeak amaren bihotza saminez bete baeban be, orain bere semea biztuta bere besoetan ikusteak, zelango poza emongo eutsan, nork esan lei?.

Guk be, Jesusengan sinisten dogunok, gure artera heriotza datorrenean, negar egiten dogu. Baina negarraren artean, zeruko itxaropenak gure bihotzeko atsekabea arindu egiten deusku.

Heriotzearen aurrean sinismenik ez dauanak, ez daki zer egin, eta zer pentsatu...

Batzuk ez dakie zertarako bizi garan, ezta zergaitik hil beharra dogun be. Ez dabe honetan inoiz ba sakondu. Honangoak heriotzea datorrenean bide guztiak itxita aurkitzen ditu. Eta egoera honetan ez jakinean, konturatu barik hiltea da onena.

Beste batzuk heriotzearen aurrean zalantzan-dudan aurkitzen dira. Honangoentzat heriotzaren beste aldean dagoena ilunpe argitu ezina da, idazle ospetsu batek bere azken orduan esaten ebanez: "Misterio handi baten bila noa" (F. Rabelais.)

Hang Kung teologo jakintsuak dinosku, fededunak hiltzen ikasi behar geunkela. Ez gorputzeko min barik, baina bai Kristo biztuagun gure itxaropen osoa ipinita...

Heriotzako orduan fededunok lehenengo eta aurren Jaungoikoari eta gure senideei gure bizitzan zehar egindako hutsegite guztiakaitik parkamena eskatu behar deutsegu. Eta gero Jaunari ordurarte emondako mesede eta bizitzagaitik eskerrak emon.

Gure sinismenak ez deuskuz heriotzaren ilunpe guztiak argitzen, ezta gugandik bildur guztiak aldentzen be. Baina ilunpeen erdian bada fededunentzat argi bat, Kristok biztutako argia. Eta argi honetan nik badakit, nire bizitza halan holangoa izan bada be, Jaunak maite nauala, eta parkatua izango nazala, bere ondoan biziteko.

Kristinauok gure hutsegite eta okerkeriak izango ditugu, baina gure gaiztakerien gaintetik, Jauna gure Aita dala badakigu, eta danok bere etxean bizitea gura dauala, ziur gagoz...

Horregaitik gure bizitza azken ordura etorten danean, eta mundu honetako gauza guztiak gure begietatik joaten diranean, oraindino gauza handi bat geratzen jaku, gauzarik handiena: geure burua uste osoz, konfiantza guztiz, Jaunaren besoetara emotea.

Jaungoiko Aita onaren erruki azken bakoan gure etorkizuna ipinita, gure begiak mundu honetarako itxi daiguzan, zeruan begi barriekaz itxartuteko"

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Sinismena, itxaropena eta maitasuna, hona hemen oinarrizko hiru birtuteak. Baina hiruren artean gorengoena maitasuna da.

Gaurko ebanjelioan agertuko jakun emakume pekatariagaitik Jesus-ek esan eban: Asko maite daualako, parkatu be asko parkatzen jako. Maitasuna da Jesusentzat parkamen-neurria.

1. IRAKURGAIA: 2 Sm 12, 7-10

Dabid erregeak bere pekatuak ezagutu, damutu eta Jaunaren parkamena lortzen dau.

2. IRAKURGAIA: Gal 2, 16. 19-21

Legea betetzeak ez dau salbatzen, Jesusengan sinisteak baino. Kristok bere bizia nigaitik emoteraino maite izan nau.

EBANJELIOA: Lk 7, 36-50

"JESUSEK EMAKUMEAGAITIK ESAN EBAN: ASKO MAITE IZAN DAU, ETA PARKATU BE ASKO PARKATZEN JAKO" (Lk 7, %)).

H O M I L I A

(Ameriketako Estatu Batuetako gotzainak "Moral Baloreak" izeneko pastoral eskutitzatik ideak eta esaldiak hartuta. 1977 urtean)

"Kristinau bizitza maitasunetik neurtu behar da: zenbat eta maitasun gehiago, hainbat eta kristinau zintzoago. Nikeria-egoismoa da gure gaiztakeriarik kaltegarriena. Hori ezagutzen badogu, eta lagun-urkoari laguntzen arduratzen bagara. Justiziaren alde, asko kostata be, geure indar guztiaz jokatzen badogu...orduan Kristogaz bat egin-ik bizi garala, esan daikegu.

Pekatu guztien suster ustela maitasunik-eza, egoismoa da. Jaungoikoaren seme-alabak gara, eta pekatu eginik, maitasuneko seme-alaba izate hori, ukatu egiten dogu, eta holan zeruko erreinutik aldendu egiten gara...

Mundu honetan bada gauza ederrik asko. Dana ez da okerra eta gaiztoa. Baina halan be, badira gehiegi maitasunik bako sendi-familiak, gizarteko injustiziak, giza-³eskübidēē aurkako gaiztakeriak, sufritzen dabenentzat laguntzarik eza, txiki eta makalen zapalketak. Berba gitxitan esateko maitasunaren kontrako egite gaiztoak...

Batzuk gehiegizko gastu eta lujokerietan bizi dira, besteak gosez miseri gorrian irauten duten bitartean. Honangoak dira gaurko gizarteko pekatuak astunenak. Maitasunik ezagaitik sortzen dira gure artean gaiztakeriarik kaltegarrienak...

Kristok bihotz-barrizera deitzen deusku.

Baina gure barrua garbitzeko Jaungoikoaren beharra dogu. Alde batetik mundu gaizto honen erdian jausteko mila arriskuren erdian bizi gara. Eta bestetik, geure barruko grina gaiztoak pekatuak makurtzen gaitue, Paulo Apostoluak dinoskenez: "Nire gorputzean beste lege bat ikusten dot, adimenaren legeari burruka egiten deusana, eta pekatuaren agintepean naukana": Eta Paulok burrukaldi honetan Jaunari laguntza eskatzen deutso: "Gizon zoritxarrekoa ni!. Nork aterako nau heriotz-gorputz honetatik?. Jaungoikoak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Eskerrak Berari".

Maitasuna sendian, herrian eta alde guztietan.

Maitasuna behar da gure familietan. Aitaren eta amaren maitasunak seme-alabetaraino igaro behar dau, etxeko guztiak maitasunean bat egiteraino.

Maitasuna behar da herrian eta aberrian, oinarri honeetan jasoa: Pertsonaren balioa, beste edozer balioren gainetik dago.

Justiziak danontzat bardinak izan behar dau.

Askatasuna behar da erlijino, politika, kultura eta gizarteko beste arazoetan.

Maitasuna behar da mundu zabaleko nazino guztien artean. Ez daigula ahaztu nazinoen arteko bakea lau oinarri honeen gainean sendotu behar dala: Egia, Askatasuna, Justizia, eta danen gainetik alkarren arteko Maitasuna...

Orain mundu igeskor honetako edertasunak engainaten gaitue. Baina gure bizitzaren azken aldean, ordurarte maite izan ditugun gauza asko, balore barik ikusiko ditugu. Baina halan da be, balore batek balio handia izango dau: Maitasunak.

Maitasunak garbituko ditu bizitzan zehar guk egindako gaizki eta okerkeria guztiak, Jesusek emakume pekatariagaitik esan eban lez: "Asko maite izan daualako, parkatu be asko parkatzen jako" (Lk 7,47)

Honetan be egia handia da Joan Gurutzeko santuak esandakoa: "Gure bizitzaren iluntzean Maitasunaz aztertuak izango gara".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gure bizitzan zehar, negarrak eta barreak, nekeak eta pozak. aurkitzen ditugu...

Jesusek be gurutzera eroan eban gero biztu eta zeruko zorionean sartzeko... Hastera goazen eukaristia honetan gure bizitzako neke-minen balioa ulrtzeko argia Jaunari eskatu behar deusagu.

1. IRAKURGAIA: Za 12, 10-11

Zakarias profetak Jaunaren zerbitzaria gurutzera josita, gugaitik untzez zulatua ikusten dau. Kristoren nekeei eskerrak salbatuak gara.

2 IRAKURGAIA: Gal 3, 26-29

Itun Zaharrean Israel herria beste herri guztien artean Jaunak aukeratua izan zan. Itun Barrian, ostera, Kristogan sinisten dogun guztiok, zerurako aukeratuak gara.

EBANJELIOA: Lk 9, 18-24

"JESUSEK ESAN EUTSEN: BEHARREZKOA DA, GIZONAREN SEMEAK NEKE HAN-DIAK EROATEA ETA HILA IZATEA; BAINA HIRUGARREN EGUNEAN BIZTUKO DA" (Lk 9, 22)

H O M I L I A

Vatikanoko Kontzilioak bere azken bileran txiro, gaixo eta sufritzen daben guztientzat mezua.

"Zuontzat, nekeetan aurkitzen zarien guztiontzat, gorputz nahiz ariman sufritzen dozuen guztiontzat, Kontzilio honek badauka zeresan berezi bat.

Badakigu zuen neke eta atsekabeen artean, zuen begi tristeak, nekez beteak, gugana jasorik, honango itaun hau egiten deuskuzuela: Guk zergaitik sufritzen dogu?. Noiz eta zelan etorriko jaku barriz be galdu dogun biziteko poza?.

Anaia-arreba maite-maiteok: guk, zuen arimen guraso eta artzain garanok, zuen negarrak entzuten ditugu. Eta gure pena handiago da, guk zuei gorputzeko osasuna ezin emon deusuegulako...

Baina badogu beste gauza sakonago eta ederrago bat zuei eskeintzeko. Eta hau da sufrimentuen misterioari erantzun ahal izateko, eta zuen nekeak arintzeko egia bakarra: Fedea.

Kristok ez ditu gure bizitzako minak kendu, ezta nekeen misteri-
oa guztiz agertu be. Baina halan da be, Kristok, Jaungoikoaren se-
mea izan arren, nekeak bere gain hartu zituan. Eta Haren jarraitzai-
leentzat hau da nahiko nekeen balioa guk be zelanbait ulertzeko.
Gure eguneroko nekeak onartuz, Kristo Jaungoikoaren Seme nekez bete-
agaz bat egiten dogu.

Oi, zuok, gurutzearen pisu astuna zeuon sorbalda gainean sentit-
zen dozuenok, Zuok pobre eta baztertuok. Orain negar dagizuenok.

Zuok, justizia maitatzeagaitik zapalduta zagozenok. Isilean su-
fritzen dozuen guztiok. Gora bihotzak! Jaungoikoaren erreinuan aurre-
nak izango zarie; itxaropen, ontasun eta bizitzaren erreinuan.
Kristo gurutzekoaren senide zarie, eta Beragaz batera, zuen nekeak
Berari eskeinduta, mundua salbatzen dozue.

Hau da bizitza honetako gure nekeak ulertzeko benetako kristinau
jakituria. Nekeen artean egiazko bakea emoten dauan gauza bakarra.

Txiro, gaixo eta sufritzen zagozen guztiok, ez zagoze bakartade-
an, balio ez daben gauzak lez, bertan erabat baztertu eta itxita.

Kristoren aukeratuak zarie, Bere antzeko eginak.

Kontzilio honek, Jesusen izenean, maitasunez begiratzen deusue,
eta zuen neke-minak Eleizaren alde eskeintzen dituzuelako, eskerrak
emoten.

Hartu egizuez Eleizaren maitasun, laguntza eta bedeinkapena.

(Kontzilioak esandakoa argitu gura dauanak Jose Luis Martin Des-
calzo-ren pasarte honegaz egin lei)

"Nekea, hau izan da Jaungoikoak niri bizitza honetan egin deus-
tan mesederik handiena. Gaixoaldiak samurrago egin nau. Askoz samu-
rrago. Ni lehen nahiko gogorra nintzan, eta inportantzia gitxiko
gauzetan denpora asko galtzen neban. Gaixoaldi honek maitasuna,
eta jendeen arteko onginahia baloratzen irakatsi deust.

Gaixoaldi honetako urteak nire bizitzako onenak izan dira.
Sufritzea ez jat gustaten. Baietz esatea zorakeria litzateke.
Dialisis makinari lotuta bizitea asko kostaten jat. Egun bitik bat
galtzea ez da erregalu polita.

Jaungoikoari nire minak pazientziaz eroateko indarra eskatzen
deutsat, baina kentzea eskatzea, ez jat burutik pasatu be"

(Mensajero 1990. urtean)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoak gizon-emakume bakotxari mundu honetan bere lana eta eginbeharra izentatzen deutso: batzuk ezkonduak, besteak ezkondu bakoak; batzuk hemen eta honan, besteak han eta halan.

Bizi garan bitartean, zerura joateko, Jaungoikoak bakotxari emondako eginbeharra, ahal danik eta ondoen bete behar dau.

1. IRAKURGAIA: 1 Erg 19, 16b. 19-21

Jaunak Eliseo, Safaten semea, profeta izateko zelan aukeratu eban erakusten deusku.

2. IRAKURGAIA: Ga 4, 31b-5, 1. 13-18

Jaunaren maitasun bidetik dabilena ez da bildurrez bizi. Haragiaren bidetik dabilena, ostera, pekatuaren morroi da.

EBANJELIOA: Lk 9, 51-62

"GAZTE BATEK JESUSI ESAN EUTSAN: JARRAITUKO DEUTSUT NORANAHI ZOAZELA" (Lk 9, 57)

H O M I L I A

Senideok: Gaurko ebanjelioan, entzun dagunez, hiru gizon agertzen dira, atxakia bategaitik edo besteagaitik, Jesusen "deiarri" uko egiten deutsoenak. Bokazinoa Jaungoikoak bakotxari, Bere lagun izateko, egiten deutsan "deia" da.

Gaurko homilian bokazinoa zer dan, eta abade edo erlijioso-erlijiosa izateko Jaunaren "dei" hori zelan sentitzen dan agertu gura neuke. Eta horretarako berba asko baino hiru adibide edo ejemplo hemen jartzea argiago izango dala, uste dot.

1. adibidea. Jesus Iribarren. Arabarra. 12 urtetan "Ecclesia" aldizkariaren zuzendaria.

"Nik, egia esan, txikitan ez neukan abade izateko gogorik. Baina egun batean ez dakit zelan eta zergaitik, nire osaba fraile bati gutun bat egin neutsan, esanaz: ez dot infernura joan gura. Eta horregaitik misio lurraldera joan gura dot hango arimak salbatzera. Jentil baten arima salbatzen badot, neurea ba salbauko dodala, uste dot. Nik hori garai haretan halan zala sinisten neban.

Nire osabak Kastillako lurraldean egoan ikastetxe batera eroan ninduan. Baina hango giroa ez jatan atsegin. Etxera etorri, eta Gasteizko seminariora joan nintzan, eta hemendik Komillasera.

Nire meza barria neure jaioterri Legution (Villareal) bonba eta ametrailadoreen artean emon neban.

Zergaitik egin nintzan abade?. Neuk be ez dakit. Jaungoikoari nik holangorik eskatu barik, dana berezko gauza izan zan. Jaunak horretarako aukeratu ninduan. Ez neukan abade izateko gogorik, eta abade naz. Gero misio lurretara joatea gura izan dot, eta hemen nago hara joan barik. Jaunak gauzak holan egiten ditu".

2. adibidea. Marco Martinez. Portugaldarra.

"Niri abade izatea ez jatan gustaten... Halango jantzi baltz luzea, tristea iruditen jatan. Sasoi haretako abadeak inogaz berbarik egin barik bizi ziran. Eta hau ez jatan gogoko.

Baina 14 urte nituala neure barruan zerbait arraroa sentitzen hasi nintzan: abade izango nintzala pentsatzen jarten nintzanean, nire bihotz barruan halango gozotasun baketsua sentitzen neban. Nire bizitzari zentzun garbi bat aurkiten neutsan. Halan bizitzeak balio eban. Danei on egiten bizitea oso ona eta betea zala ikusten neban.

Eta abade ez-izatea pentsatzen nebanean, ostera, nire burua hutsik eta balore barik, fruturik emoten ez dauan arbola lez, ikusten neban.

Egun batean, ez dakit zergaitik, nire lagun batek esan eustan: Hi, Marco, Jaungoikoaren aurka jokatzeari gauza gogorra dok. Ulertzen dok?. Nire lagun honen berbak Jaungoikoak esandakoak lez hartu nintuan, eta abade izatea erabagi neban".

3. adibidea. Hirugarren ~~honetan ez da bere izenik~~ emoten.

"36garren urteko gerra etorri arte ni, beste asko lez, moltzoko mutila nintzan. Ez ona eta ez gaiztoa. Gerran asko sufritu neban. Egunero nire bizitza arriskuan ikusten neban. Gerra amaitu zanean, ikasi eta karrera bat egitea erabagi neban. Injinari izan gura neban, diru asko egin eta ondo biziteko.

Behin nire lagunekaz "erretiroa" egitera joan nintzan. Han Jaungoiko eta neure kontzientzientziagaz bakarrik, abade izan neintekela pentsatu neban. Jaungoikoa nire bihotzeko atean jo eta jo ebilen, baina nik ez neutsan zabaldu gura. Jaunak behin eta barriz esaten eustan: bizitza osoa dibertitzen bakarrik pasatu behar ete dok?. Holan heriotzako orduan esku hutsik aurkituko haz. Bizitza osoa alperrik galdu behar ete dok?.

Azkenean jokoa Jaungoikoak irabazi eban. Orain nire abade-bizitzaz oso pozik nago. Eta ez neuke zorion hau ezergaitik aldatuko".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan entzungo dogu, Jesusek hirurogeita hamabi ikasle bialdu zituala inguruko herrietara barri ona zabaltzera...

Pozez beterik itzuli ziran Jesusengana, deabruak be menperatu ditugu, esanaz.

Geuk be, Jesusen jarraitzaile garanok, geure bizitza zuzen eta zintzoaz, Jesusen barri ona geure inguruan zabaldu behar dogu...

1. IRAKURGAIA: Is 66, 10-14c

Israeldarrak Babiloniako erbestetik euren aberrira, pozez beterik itzuli ziran. Poztasun hori irakurgai honetan agertzen da.

2. IRAKURGAIA: Gal 6, 14-18

Paulo apostoluarentzat Kristo gurutzean jasia da bere eredu eta maisu. Jaungoiko Aitak bere Seme Jesusengan sinisten dabenei, bakea eta errukia emongo deutse.

EBANJELIOA: Lk 10, 1-12. 17-20

"JESUSEK HIRUROGEITA HAMAIRU AUKERATU ZITUAN, ETA BERE AURRETIK BIALDU, HURREAN DOZUE JAUNGOIKOAREN ERREINUA HOTSEGITERA". (Lk 10,1)

H O M I L I A

(Vatikano-ko "Apostolicam actuositatem" dekretotik ideak hartuta)

(Vatikanoko bigarren kontzilioak badauka "Apostolicam actuositatem" izeneko dekreto bat, sekularrak eleizaren aldeko lanetan zelan lagundu behar daben irakasteko. Gaur dekreto horren mamia eta laburpena emongo dogu.

Apostolutza zer da?, itanduten dau kontzilioak. Eta erantzuten: Kristoren erreinua mundu honetara ekarteko egiten diran lan guztiei, apostolutza esaten deusagu; mundu honetako gauza guztiak Kristorengana eroateko lan egin behar dogu, guztiak salbau daitezcan.

Era askotako lanak dira Eleizan. Kristok gotzain eta abadeei, kristinau herria argitu, zuzendu eta santu egiteko eginbeharra emon eutsen. Sekularrak, ostera, munduaren erdian biziz eta lurreko arazoak zuzenduz, munduaren aurrean Kristoren testigu izan behar dabe, gizaki guztiak zeruratu daitezcan.

Jaungoikoaren maitasunak eraginnik, sekularrak, bakotxak bere bizi moduan, batzuk ezkonduak, ezkongai eta alargunak besteak, danak bat eginik, Jaungoikoaren erreinua lur honetara ekarteko gogo beroz lan egin behar dabe.

Gaiztakeria guztiak bazterturik, mundu honetako arazo guztiak Ebanjelioaren espirituaz gozatuak izan daitezcan. Jesus lez, aberasta sunen egarri barik, biziteko dogunen artean, konforme bizi gaitzean.

Jesusen antzera, munduko harrokeriak baztertu, eta apaltasunean bizi gaitzean. Baina batez be, danak maitatuz eta danei on eginez, danon artean mundu barri bat egin daigun...

Familien arteko arazoak, eta mundu honetako beste gauza guztiak Jaungoikoaren erreinura begira ipini behar ditugu. Apostoluak esan eban lez: "Edozer esaten edo egiten dozuela, egizue dana Jesukristo Jaunaren izenean"(Kol 3, 17)

Hau da sekularren benetako lana: mundu honetan oker dagozan gauzak zuzentzea; danak zerura bidean jartzea, gizon-emakume guztietan Kristoren irudia ikustea...

Sekularrak mila modutara Jaungoikoaren erreinuaren alde lan egin leikie. Baina batez be, Kristoren jarraitzaile zintzo, eta herritar jator izanik; ejemplo on honek, sinisten ez dabena fedearen argira ekarteko asko balio dau, Jaunak esan euskun lez: "Bego bizturik zuen argia gizonen aurrean, zuen egite onak ikusi, eta zeruetan dagoan zuen Aita goratu daien" (Mt 5, 16).

Sekularrak zerua eta lurra, Jaungoikoa eta mundua, lotzen ikasi behar dabe. Kristinau familiak Nazaretokoaren antzeko izaten ahalegindu beitez, seme-alabak kristinau giroan hazi eta heziz.

Baita gehiago be, benetako kristinauak ahalegin guztiak egin behar dabez, egoki danean, sinisten ez dabenei Kristoren barri ona emoteko; fedean koloka dabizenei lagguntza emoteko; eta eleiz-batzarretan, batez be domeketako eukaristian, parte hartuz, alkarren artean fedean berotu eta indartzeko...

Jaungoiko Aitak, Kristoren bidez eta Kristo buru dala, mundu barri bat egin gura dau, lur honetan hazi eta zeruan amaitzen dana...

Gure apostolutzak zelangoak izan behar dauan Andra Maria Jaungoikoaren amak irakasten deusku. Bera da apostoluen erregina...

Ama Birjina, mundu honetan bizi izan bitartean, gure antzera eguneroko etxe-lanetan lanpeturik bizi izan zan. Bere Semeagaz bat eginik, gizon-emakume guztien salbamenerako lan egin eban.

Eta orain be, zeruetara jaso izanik, bere Seme Jesusen senide garanon alde, amaren maitasunez begiratzen dau, mundu honetako arriskuen artetik, zeruko aberrira zorionez heldu gaitzean.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka guztietan eukaristia ospatzeko alkartzan gara. Ongi etorriak.

Jesusek gaurko ebanjelioan itaun hau egingo deusku: nor da zure lagunurkoa?. Eta erantzuna emoteko samariar errukitsuaren parabola eskeintzen deusku... Jaungoikoa maite dauanak lagunurkoa be maite behar dau.

1. IRAKURGAIA: Dt 30, 10-14

Itun Zaharreko Deuteronomio liburuan Moisesek esaten deusku: entzun Jaunaren hitza, eta Haren aginduak bete eizuz bihotz-bihotzez.

2. IRAKURGAIA: Kol 1, 15-20

Jesukristo da zero-lurretako sorkari guztien egile eta oinarri. Bera da guztien bake eta salbatzaile.

EBANJELIOA: Lk 10, 25-37

"NOR DERITXAZU AGERTU ZALA LAPURRAREN ESKUETAN JAUSI ZANAREN LAGUNURKO?...HARENTZAT ERRUKI IZAN EBANA...ZOAZ ETA EGIN ZEUK BE BESTE HORRENBESTE" (Lk 10, 36-37).

H O M I L I A

(Joan Paulo II.aren "Salvifici Doloris" Carta Apostolica-tik ideak hatuta. 1984. urtean)

"Samariar onaren parabola entzun dozue. Parabola honetan Jesusek lagunurkoa nor dan irakatsi gura deusku....

Jerusalendik Jerikora joan zan bidelaria lapurren eskuetan jausi zan; eta honeek eukazan guztiak kendu eta zauritu ostean, bide bazterrean erdi hilik itxi eben...

Hiru pertsona igaro ziran zaurituaren albotik. Lehenengo biak, ondotik igaro arren, zaurituari ez-ikusia egin eutsoen, eta laguntzarik emon barik, bidean aurrera jarraitu eben.

Hirugarrena samariar atzerritarra zan. Eta honek zauritua halango egoera larrian ikusirik, errukitu eta zauriak lotu eutsazan. Eta bere abere gainean ostatura eroan, eta han zaindu eban.

Jesusek samariar parabola honetan zera irakatsi gura deusku: ezin dogula besteen sufrimentuak ikusi, eta guk itsuarena egin. Alderantziz baino; samariar onaren antzera, geratu, errukitu eta ahal dogun neurrian laguntza emon, Jaunaren izenean.

Baita gehiago be. Besteen sufrimentuen aurrean erruki izatea ona da, baina ez da nahiko. Errukitu ondoren lagundu be egin behar dogu. Eta lagundu be, ez hotz-hotzean eta urrundik limosnatxo bat emonda, laguntzagaz batera geure bihotza emonda baino. Geu garean oso-osoa preminean aurkitzen danaren alde eskeinduta.

Eta ez daigula gure buruak zuritzeko honango atxakiarik ipini, e-sanaz: nik ez deusat inori kalterik egin. Preminean aurkitzen danari laguntzarik ez emotea, kalte egitea da eta.

Jerikora joazan lehenengo biak, abadea eta lebitarra, ez ziran zaurituaren arerioak, honeek biok ez eutsoen zaurituari kalterik egin, baina lagundu barik aurrera jarraitzea nahiko kalte egitea da.

Eta era askotara lagundu geinkio lagunurkoari. Etxean, auzoan, herrian, munduan, badira gaixoak, tristeak, ezinduak, gorputz nahiz arimako nekepean bizi diranak. Era betera edo bestera gure laguntza beharrean aurkitzen diranak. Holangoentzat gure bihotzak zabaldu daiguzan, Jesusek gaurko parabolaren eskatzen deuskun lez, gure laguntza euki daien, Jaunaren izenean.

Jesus samariar ona.

Eta honetan Jesus bera dogu "samariar onena", Pedro apostoluak autortzen dauanez: "Nazareteko Jesusek bere bizitza osoa danei on egiten emon eban" (Ap Eg 10, 38). Gaixoak osatu zituan, gosetuei jaten emon, itsuak argitu eta tristeak alaitu...azkenean bere bizitza emon arte...

Azkenez, Jesusek berak irakatsi euskun lagunurkoari egindako mesedea, Jaunari berari egiten deusagula: "Gose nintzen eta jaten emon zeunsten, gaixorik nengoan eta ni ikustera etorri zinien... Nire senide honeetako bati egina, neuri egin zeunsten... Zatoze nire Aitaren bedeinkatuok, hartu eizue munduaren sortzetik zuontzat prestaturik dagoan erreinua" (Mt 25, 35-43)

Eta samariar onaren parabolaren azken aldean, Jesusek geuri be honango itaun hau egiten deusku: "Hirurotatik nor deritxazu lapurren eskuetan jausitakoaren lagunurkoa izan zala?"

"Erruki izan jakona".

Eta Jesusek orduan: "Zoaz, eta egin zeuk be beste horrenbeste".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan agertuko diran Marta eta Mariaren antzera, guk be gure bihotzak zabaldu daiguzan, Jesus gure salbatzaileari, maitasunez ongi etorririk beroena egiteko.

Horretarako batzen gara domeketan eukaristia ospatzera: Mariak lez Jaunaren hitz entzun, eta Martak lez lagunurkoari, Jaungoikoagaitik, laguntza emoten ikasteko...

1. IRAKURGAIA: Gn 18, 1-10a

Abrahamek pozik hartu zituan bere txabolan bidez joiazan hiru gizonak. Baita Jaunak egite on hau ugari bedeinkatu be.

2. IRAKURGAIA: Kol 1, 24-28

San Paulok espētxean bere nekeak Jaunari eskeintzen deutsoz gizaki guztiak, Kristoren bidez, salbau daitezcan.

EBANJELIOA: Lk 10, 38-42

"MARIAK JAUNAREN OINETAN JESARRITA, JESUSEN HITZA ENTZUTEN EBAN, MARTAK, BARRIZ, NAHIKO LAN BAEBAN ETXEKO ZEREGINETAN"(Lk 10. 38-40)

H O M I L I A

(Pedro Arruperen "Gaurko eta Geroko Eliza" liburutik ideak hartuta)

Marta eta Maria biak ahiztak dira, eta biak pozik eta maitasunez Jesus maisua euren etxean hartu eben.

Maria, Jesusen oinetan jesarrita, Maisuaren dotrina entzuten zoratzen egoan. Marta, ostera, etxeko lanetan Jesus eta honen ikasleentzat janari gozoa prestatzen urduri ebilen. Maria da otoitzaren eredu, eta Marta lanaren irudi. Kristinauok otoitza eta lana, zerua eta lurra, Jaungoikoa eta gizona buztartzen ikasi behar dogu, Jesussek irakatsi euskunez.

Lana beharrezkoa da, bizitzan aurrera egin gura badogu, baina Jaungoikoaren laguntza barik, gure lanak alperrikoak dira. Lan egin behar dogu mundu anaikorragea egiteko, eta Jaungoikoari horretarako laguntza eskatu, gure ahaleginak helburu bete bat izan daien.

Lana behar da gure eguneroko bizitzari eusteko, eta otoitza behar da osasuna, bakea eta alkarri laguntza emoteko. Pertsonak egoista handiegiak gara geure artean anaitasunean biziteko. Otoitzaren bidez Jaungoikoaren laguntza lortu behar dogu, gure arteko nikeriak alde batera itxi, eta lagunurkoa geure burua lez maitatzeko.

Otoitza eta lana, Maria eta Marta, biak buztartuten ikasi behar dogu. Zerura begira otoitza, eta lurrera begira lana. Zerua eta mundua, otoitza eta lana, Jaungoikoa eta gizona, hiru bikote honeek euren artean hain lotuta dagoz, guk ezin geinkez zatitu. Jaungoiko Aitak zeru eta lurrak, otoitza eta lana, Kristogan izaki barri egitea gura dau. Orain aldi honetan erdizka bakarrik, baina munduaren azkenean bere bete-betea.

Jesusen salbamen-asmoa orain eta hemen hasi da frutu emoten. Mundu honetan otoitz eta lanaren bitartez Jaungoikoaren zeruko erreinuari hasiera emonaz, eta geroko betiko zorionean bete-betea Jaungoikoaren biziz eta gozatuz.

Askotan entzun dot, dino Aita Arrupek, Jesus ez zala mundu honetara etorri politika "iraultza" (erreboluzinoa) egitera, gizakiak salbatzera baino. Jesusen dotrina erlijinozkoa izan zala. Eta hau ondo ulertzen bada egia da.

Baina guk kristinauok, geroko bizitza (transzendentea), eta mundu honetakoa (inmanentea), biak zaindu eta bizi behar ditugu. Ezin da bata bestegandik askatu. Mundu honetan otoitz eta lan eginez, betiko zoriona, Jaungoikoari eskerrak, lortuko dogu.

Mariak lez danok salbau gaitezan otoitz egin daigun, eta Martak lez, Jaungoikoal lagunduta, bizitza honetako lanak eta nekeak eskeindu daiguzan, egun batean zeruko errenuan danok aurkitu gaitezan.

Geure buruak salbau, eta betiko pozaren jabe izan gaitezan, hau da gure lehenengo eginbeharra: gure bihotzeko ateak otoitzaren bidez, Jaungoikoaren maitasunari zabaltzea. Eta gero gure eguneroko lan eta nekeen bidez, Jaunaren ereinuaren jabe egitea.

Baina beti be ez daigula ahaztu, betiko zorionaren jabe egitea, ez dagoela gure eskuetan, Zorion hori Jaungoikoak egiten deuskun opari (erregalu) bat dala, eta horretarako otoitz egin behar dogula, Jaunari eskerrik asko apaltasunez esanaz.

Marta eta Mariak lez, otoitz eta lan eginaz, bizitza honetan betiko zorionaren hazia lur honetan erein daigun, gero zeruetako erreinuan betiko pozetan Jaunaren ondoan atsegin hartu daigun".

(C)

17. DOMEKEA URTEAN ZEHAR (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan zelan otoitz egin behar dogun irakatsi gura deusku. Otoitza Jaungoikoagaz berba egitea da.

Seme-alabak euren aita eta amagaz konfiantzaz berba egiten daben lez, guk be geure zeruko Aitagaz uste osoz hitz egiten ikasi behar geunke.

1. IRAKURGAIA: Gn 18, 20-32

Abrahamen otoitzari eskerrak, Jaungoikoa Sodoma eta Gomorrari parkatzeko prest dago.

2. IRAKURGAIA: Kol 2, 12-14

Kristo gurutzean josiak, geure pekatuakaitik galduta gengozanok, salbau gaitu.

EBANJELIOA: Lk 11, 1-13

"JAUNA, IRAKATSI EIGUZU OTOITZ EGITEN...JESUSEK ESAN EUTSEN: OTOITZ EGITEAN ESAN: GURE AITA::" (Lk 11, 1-2)

H O M I L I A

(Jochin Jeremiasen "Teología del Nuevo Testamento" liburutik ideak hatuta)

Jesusek zelan egiten eban otoitz.

Jesus israeldarra zan, eta israeldarren artean bizia. Eta bere Aita Jaungoikoagaz hitz egiteko bere herritarren otoitz legeak ikasi eta erabilten zituan. Hemendik, zati batean behintzat, Jesusek zelan otoitz egiten eban jakin geinke.

Israeldar zintzoak egunean hiru aldiz egiten eben otoitz: goizean eguna argitzean, arratsalde erdian, eta iluntzean lotarakoan.

Goizean "sema" izeneko otoitza errezatuz hasten eben egun barria: "Entzun, Israel, Jaun bakarra da zure Jaungoikoa...Maite izango dozu zure Jaungoiko Jauna, bihotz-bihotzez, zeure arima guztiaz, eta zeure indar guztiaz" (Dt 6, 4)

Arratsaldeko hirurak aldean, Jerusalengo eleizan opariak eskeintzen ziran bitartean, jauretxeko (tenpluko) turuta soinua entzutean, barriz be israeldarrak otoitzean ipinten ziran "tephila" zeritxan bedeinkapen otoitz esateko.

"Bedeinkatua Zu, Jauna, Isaak eta Jakobena Jaungoikoa, Jaun ahalguztiduna, zeru-lurren egile, gure eta gure gurazoen zaintzailea... Bedeinkatua Zu, Jauna"...

Eta iluntzean, gorputz nekatuari atsedena emoterakoan, barrira hona egiten eban otoitz: "Jaungoikoak agindutako gauza guztiak gogoratu eta beteko dituzu, eta zure Jaungoikoari eskeinduta biziko zara... Zu bakarrik zara gure Jaungoiko Jauna, Ejiptoko menpetik gure askatu ginduzuzana..." (Dt 15, 40-41)

Bazkal aurretik mahaia bedeinkatzean esaten eban: "Gora Zu, Jauna, gure Jaungoikoa, munduko erregea, ama lurraren sabeletik guri jaten emoteko ogia sortu dozulako..." Eta jan ostean be beste otoitz labur bat egiten eban, Jaunari eskerrak emoteko...

Guretzat domekea lez, larunbata (zapatua) zan israeldarrentzat Jaunaren eguna. Astero egun honetan otoitz egiteko sinagogan batzen ziran...

Eleizkizunaren lehenengo zatian, alkarri bakea emonez, gizonzkoak eta emakumeak aparte, salmoekaz kantuan otoitz egiten eban. Gero Itun Zaharreko liburuetatik zati bi irakurtzen ebezan. Eta gero "Kadis" izeneko irakasle batek irakurritakoari buruz, hitzaldia egiten eban...

Azkenez, bakarka eta taldeka otoitz eginez eleizkizuna amaitzen zan. Jesusek, israeldar jatorra zanez, zalantza barik, otoitzaldi guzti honek zehazki beteko zituan...

Baina Jesus, otoitzaldi guztien gaineratik, bere bizitza osoan ototzari lotuta bizi izan zan.

Markos ebanjelariak esaten deusku: "Jesusek arratsaldean, eguzkia sartu zanean, gaixo asko osatu zituan, eta gero goizean-goiz, oraindik ilunpetan, jagi eta leku bazter batera joan zan, eta han otoitz egiten eban". Eta San Lukasek gehiago esaten deusku: "Jesus mendira joan zan otoitz egitera, eta han gau osoa Jaungoikoari otoitz egiten emon eban" (Lk 6, 12),

Jesusek geuri be atertu barik otoitz egiteko eskatzen deusku: "Eskatu eizue eta emongo jatsue; bilatu eizue eta aurkituko dozue; jo atea eta zabalduko jatsue" (Lk 11, 9).

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaunaren aurrean Eukaristia ospatzeko domeka honetan batu gara.

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: alde eizue ondasun gose guztietatik. Lur honetako ondasunetan ez zuen bihotzak lotu. Heriotzako orduan, nahitaez, aberastasun guztiak itxi egin beharko dituzue.

1. IRAKURGAIA: Koh 1, 2; 2, 21-23

Itun Zaharreko jakitun batek esango deusku: mundu honetako gauza guztiak hutsak dirala. Dan-dana huskeria dala.

2. IRAKURGAIA: Kol 1-5. 9, 11

Zeruko ondasunen bila ibili gaitezaz. Pekatuzko jantzi zaharra itxi, eta zeruko graziazko soineko barria jantzi daigun.

EBANJELIOA: Lk 12, 13-21

"ALDEGIZUE GOSE GUZTITIK...GAUR GAUEAN DATOZ ZURE BIZIAREN BILA; ETA NORENTZAT IZANGO DIRA PILATU DITUZUNAK? (Lk 12, 13-21)

H O M I L I A

Aberatsak eta txiroak.

(Homiliarako zuk nahi dituzun textoak aukeratu)

Alejandriako Klemente santuak dinosku.

"Jaungoikoak mundu honetako aberastasunak guztientzat egin zituan. Horregaitik ezin dau aberatsak esan: Ondasun ugari daukat, eta zergaitik ez, neureak badira, nik ahal dodan guztian eurekaz gozatu?

Ez, kristinaua bazara, beste holan pentsatu behar dozu: Nik gehiegi daukadana, zergaitik ez txiroei emon?. Pobreei emotea da zerrurako balio dauan ondasun bakarra.

Ezin dau Jaunak onartu, batzuk danetatik ugari eukitea, besteak miseri gorrian bizi diran bitartean. Zergaitik behar dau aberatsak horrenbesteko lujokeria?. Zuk mahaian ogia ebagiteko erabilten dozun aiztoak, ez ete dau bardin ebagiten bere kirtena, marfilezkoa izan beharrean, burdinezkoa bada?. Eta gauaz zure etxeko argi-ontziak, ez ete dau bardin argi egiten, ontzia zidarrezkoa izan beharrean, buztinezkoa bada?. Ala urrezko ohean nasaiago lo egiten da, besteetan baino?. Halango nagusi harroari bere zaldi, urre eta beste lujokeriak kendu eiozuz, eta ez dau, eta ez dau bere menpeko morroiak baino gehiago balioko, edo behar bada, gitxiago.

Poitiers-ko Hilario santua. (315-367)

"Aberastasunak gizona harrotu egiten dau. Eta bere poza lurreko ondasunetan ipinten dauana, Jaungoikoagandik urrundu egiten da.

Zoro hori!. Zure ondasun guztiak beste mundurako zer balio dabe?. Aberatsak eta pobreak jaiotza bardina daben lez, heriotza be bardina izango dabe":

Basilio santua. (330-379)

"Aberatsak esango dau: Nik neurea dana, kapritxokerietan gastaten badot, nori kalte egiten deusat?.

Zuk, antzoki batera bazoaz, eta zeure aulkian jesarri beharrean, aulki bi zuretzat hartzen badituzu, bigarren aulki horretan jesarri behar zanari, ez ete deusazu kalterik egiten?.

Aberatsak sobra dabenetik txiroei emongo baleusie, ez litzateke mundu honetan hainbeste miseria ikusiko. Jantzita dagoanari soinekoak kentzen deusazanari lapurra esaten badeusazu... Era berdinean bilutsik dagoanari jantzirik emoten ez deusanari, lapurra esan beharko.

Zuk sobran dozun ogia, gosez dagoenarena da. Zure kutxa barruan gordeta daukazun soin-gainekoa bilutsik dagoarena da. Zuk usteltzen daukazuzan narruzko oinetakoak, ortozik dabilenarenak dira.

Badakit nik, zuk isilean zeure kolkorako ebanjelioko aberatsaren berbak esango dozuzala: "Ia, mutil, jan, edan eta egik jai". Berba horreek zuk isilean esan arren, zeruan entzunak izan dira, eta goi haretatik datorkizu erantzuna: Zoro hori!, jan-edanean ipinten dok hik eure zoriona?. Arimadun pertsona izanik, abereen parera jatsi haz":

Nazianzoko Gergorio santua. (330-390)

"Jaungoikoak mundua bertako edertasun guztiekaz: iturri, itsaso, hegazti, arrain eta lur azaleko abereekaz, gizon guztientzat egin eban. Baina gizonak, urrea, zidarra eta beste ondasunak, bakoitzak beretzat bakarrik pilatu eta gorde zituanean, lur honetara haserrea eta gerrea ekarri ebazan. ..

Jaunaren hasierako legea munduko gauza guztiak, danentzat izatea izan za. Zuk gizonen legea ez bada be, Jaungoikoarena bete eizu, eta daukazunetik, ez daukenentzat emon eizu".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Kristinaua zeruko itxaropenean bizi dan fededuna da...

Jaunak guretzat, zintzoak bagara, zeruko erreinuan toki zoriontsu bat atondurik dauka, bere ondoan bizi gaitezana...

Zorionekoak gu, Jaunaren erruki handian, zeruko mahaian jesar-tea lortzen badogu...

1. IRAKURGAIA: Jak 18, 6-9

Israeldarrak Ejiptoko erbestean, euren aberrira itzultzeko itxaropenean bizi ziran. Jaunak, ejiptoarrak zigortuz, Israel herria bere aberrira ekarri eban.

2. IRAKURGAIA: Eb 11, 1-2. 8-19

Abrahan da gure sinismenaren eredu. Abrahan, Jaungoikoari sinistuz, seme-alaba ondorengo askoren aita izan zan.

EBANJELIOA: Lk 12, 35-48

"ZORIONEKOAK, NAGUSIAK, ETORTZEAN, ERNE AURKITZEN DITUAN MUTILAK!.
EGIA DINOTSUET: BERE MAHAIAN JESARRIKO DITU, ETA BERA HASIKO JAKE ZERBITZEN". (1K 12, 37)

H O M I L I A

(Franz-Josef Nocke-k idatzitako "Escatologia" liburutik ideak hartuta)

Zer da zerua?. Gizakiak ames egin leiken maitasun, poz, zorion eta atsegin betea. "Ez dau begiak ikusi, ez belarriak entzun, ez bihotzak somatu, Jaungoikoak atonduta daukana, Bera maite debenezat"(1 Kor 2, 9)

Gizakiak bere barruan, maitasun, edertasun, zorion egarri ase ezina sentitzen dau... Zeruan egarri hori guztiz eta betiko ase izango da... Mundu honetan aurkitzen ditugun edertasun eta zorion zati txikiak, zeruan, zatika ez, baina bete-betean eta oso-osoan gozatuko ditugu, eta gozamen hori betikoa izango da...

Mundu honetan mutil-neska gazte bik alkar maite dabenean, maitasunean murgildurik pozez zorutzen bizi dira. Zeruan maitasun hori askosaz be handiagoa, eta gainera betikoa izango da.

Zeruan Jaungoikoa aurrez-aurre, bere edertasun guztian ikusiko dogu. Eta Jaunak gu, eta guk Jauna, alkarren artean, bihotz osoaz maitatuko dogu.

Biblia santuak zeruko zoriona zein handi eta zein betea dan guri adierazoteko konparazino batzuk ekarten deuskuz:

Zerua Jaungoikoaren erreinua da.

Bake, poz eta zorion betearen erreinua: "Han ez da gehiago ez heriotzarik, ez negarrik, ezta atsekaberik izango" (Apk 21, 1) Jaunaren erreinuan dana bakea, zoriona eta atsegina izango da.

Zerua Jaungoiko Aitaren etxea da.

Jesusek Jaungoikoari "Aita" esaten irakatsi euskun, eta gu Haren seme-alabak gara. Zeruko gure Aita ona, bere erreinuko sarreran guri itxaroten dago, besarkada handi bat emon, eta zeruko bere etxean sartzeki.

"Zeruko nire Aitaren etxean", dino Jesusek, "bizi-toki asko dago. Nik neugaz hartuko zaituet, ni nagon tokian zuek be egon zaitez" (Jn 14, 2-3)

"Zeruetako erreinua ezteguetako bazkarri gozoa da".

"Zeruetako erreinua bere semearen ezteguak ospatzen zituan errege baten antzekoa da" (Mt 22, 2)

Ezteguetan ezkonbarrien alkar maitasuna eta mahai-lagunen alaitasuna nagusi izaten dira... Jaungoikoaren zeruko ezteguetan, betiko poza, maitasuna eta atsegina errege izango dira. "Heldu dira zeruko ezteguak. Zorionekoak Jaunaren ezteguetako mahaira deituak". (Apk 19, 7-9)

Zerua paradisia da.

Adan eta Eba, pekatu egin aurretik, bai pozik bizi zirala Jaungoikoak emondako paradisian... Ez hotzik ez berorik, ez gose ez egarririk, ezta heriotzarik be. Abere guztiak lagunak ziran, zugaitzak fruturik gozoenak eskeintzen eutsiezan. Atsedean toki haretan dana bake eta poza zan... Lapur onak, gurutzean egoala, Jesusi eskatu eutsanean: "Jauna, gogoratu zaitez nigaz zure erreinura sartzean". Jesusek gurutzetik berehala erantzun eutsan: "Gaur nigaz egongo zara Paradisian" (Lk 23, 43).

Homilia hau, Jauna lagun, Vatikanoko Kontzilioko berba itxaropentsu honeekaz amaitu gura neuke: "Eta eguna eta ordua ez dakigun ezkerro, Jaunak esan euskunez, beti itxaroten egon behar dogu, lur honetako bizitzaren azkena datorrenean, Jaunaren eztegu-mahaira sartzea merezi daigun, eta zerurako aukeratuen artean izendatuak izan gaitez" (L.G. 7, 48)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gizakiak bere barruan, "onaren" eta "txarraren" burruka gogorra sentitzen dau. Makalak gara, eta askotan "ona" egin gura dogu, baina "okerra" egiten dogu...

Eukaristia honetan Jesus gure Salbatzaileari gure barruko burruka honetan laguntzeko eskatuko deutsagu...

1. IRAKURGAIA: Jr 38, 4-6. 8-10

Jeremias profeta, herriari egia esan eutsalako, hil gura izan eben, baina Jaunak heriotzako arriskutik atera eban.

2. IRAKURGAIA: Eb 12, 1-4

Jesusek gu salbatzeagaitik, heriotzea eroan eban. Baina orain zeruan Jaungoiko Aitaren ondoan dago.

EBANJELIOA: Lk 12, 49-53

"LURRERA BAKEA EKARTERA ETORRI NAZALA USTE DOZUE?.EZ, HORIXE... BAKEA EZ, BANAKETA BAINO" (Lk 12, 51)

H O M I L I A

(Gaudium et Spes konstituzinotik "ad sensum" ideak hartuta)

Gaurko gizakiak bere barruan sentitzen dituan ezin-egon eta kezka larrien sustar gaiztoa bere bihotzean dauka.

Gizakiak bere barruan era askotako burrukak ezagutzen ditu, eta sorkari danez, bere burua mila modutara mugatua ikusten dau.

Baina halan be, mugarik ez daukan goragoko beste bizitza baten amesetan bizi da. "Onak" eta "txarrak" bakotzak bere aldetik gizonari tiraka egiten deutsoe, eta gizakia "onaren" eta "txarraren" aurrean, hau aukeratu, eta beste hori itxi beharrean aurkitzen da.

Baita gehiago be: gizakiak, makala eta pekatari danez, baten baino gehiagotan "ona" dana egin gura dau, eta ez dau egiten; eta egin gura ez dauan "txarra" egiten dau. (Er 7, 15). Horregaitik gizakia bere barruan zatituta lez aurkitzen da, eta barruko zatiketa honek gizartera be zatiketa eta burrukak eroaten ditu...

Asko dira materialismoz kutsatuta, burruka honen barririk jakin gura ez dabenak; edo eguneroko lan astunetan itota, honetan pentsatzeko astirik be ez daukenak.

Otoitza eta lana, Maria eta Marta, biak buztartuten ikasi behar dogu. Zerura begira otoitza, eta lurrera begira lana. Zerua eta munda, otoitza eta lana, Jaungoikoa eta gizona, hiru bikote honeek euren artean hain lotuta dagoz, guk ezin geinkez zatitu. Jaungoiko Aitak zeru eta lurrak, otoitza eta lana, Kristogan izaki barri egitea gura dau. Orain aldi honetan erdizka bakarrik, baina munduaren azkenean bere bete-betean.

Jesusen salbamen-asmoa orain eta hemen hasi da frutu emoten. Mundu honetan otoitz eta lanaren bitartez Jaungoikoaren zeruko erreinuari hasiera emonaz, eta geroko betiko zorionean bete-betean Jaungoikoarengan biziz eta gozatuz.

Askotan entzun dot, dino Aita Arrupek, Jesus ez zala mundu honetara etorri politika "iraultza" (erreboluzinoa) egitera, gizakiak salbatzera baino. Jesusen dotrina erlijinozkoa izan zala. Eta hau ondo ulertzen bada egia da.

Baina guk kristinauok, geroko bizitza (transzendentea), eta mundu honetakoa (inmanentea), biak zaindu eta bizi behar ditugu. Ezin da bata bestegandik askatu. Mundu honetan otoitz eta lan eginez, betiko zoriona, Jaungoikoari eskerrak, lortuko dogu.

Mariak lez danok salbau gaitezaz otoitz egin daigun, eta Martak lez, Jaungoikoal lagunduta, bizitza honetako lanak eta nekeak eskeindu daiguzan, egun batean zeruko errenuan danok aurkitu gaitezaz.

Geure buruak salbau, eta betiko pozaren jabe izan gaitezaz, hau da gure lehenengo eginbeharra: gure bihotzeko ateak otoitzaren bidez, Jaungoikoaren maitasunari zabaltzea. Eta gero gure eguneroko lan eta nekeen bidez, Jaunaren ereinuaren jabe egitea.

Baina beti be ez daigula ahaztu, betiko zorionaren jabe egitea, ez dagoela gure eskuetan, Zorion hori Jaungoikoak egiten deuskun opari (erregalu) bat dala, eta horretarako otoitz egin behar dogula, Jaunari eskerrik asko apaltasunez esanaz.

Marta eta Mariak lez, otoitz eta lan eginaz, bizitza honetan betiko zorionaren hazia lur honetan erein daigun, gero zeruetako erreinuan betiko pozetan Jaunaren ondoan atsegin hartu daigun".

(C)

21. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gure eguneroko arazoak aldi batekoz albo batera itxi, eta eukaristia ospatzeko Jaunaren aurrean jarri gaitezan...

Jaunak gizon-emakume guztiak maite ditu, eta danak salbatzea eta zorioneko izatea gura dau. Baina Jaungoikoaren borondate on horrek gitxi balio dau, guk geure buruak salbatzeko ahaleginik egiten ez badogu. Jaunaren laguntzaz zeruko bide zuzenetik ibili gaitezan.

1. IRAKURGAIA: Is 66, 18-21

Salbamen egunean Jaunak herri guztiak batera bilduko ditu, eta lurralde eta hizkuntza guztietakoak Jaungoikoa goratuko dabe.

2. IRAKURGAIA: Eb 12, 5-7. 11-13

Aitak, bere semea maite daualako, bide okerretik dabilenean, zuzendu egiten dauan lez, gure Aita Jaungoikoak be, askotan nekeak bialtzen deuskuz, bide zuzenetik ibili gaitezan.

EBANJELIOA: Lk 13, 22-30

"JAUNA, GITXI ETE DIRA SALBATZEN DIRANAK? (Lk 13, 23)

H O M I L I A

Asko ala gitxi ete dira salbatzen diranak?

Jesusek itaun honi ez eutsan erantzun zuzenik emon gura izan. Horregaitik geuk be ez dakigula esan behar. Jaungoikoak bakarrik daki misterio honen barri zehatzik.

Baina halan be, gure jakin nahia ahal daneraino asetzeko, arazo honi buruz eleiz-jakintsuen artean izan diran eritxiak agertuko ditugu. Baina, eztabaida honen aurretik, oinarri sendoak jarri behar ditugu.

1. oinarria: Jaungoikoak egiaz eta benetan gizon-emakume guztiak salbau gura ditu. Eta Jaungoikoaren salbamen borondate hori, hain benetakoa da, Bere Semeak gu salbatzearren gurutzean bere odola emon eban...

2. oinarria: Baina gizona bere buruaren jabe da, eta bide okerretik ibiliz, Jaungoikoaren salbamen-borondate hori okertu lei, bere burua betiko galduz.

3. oinarria: Baita egia da, gaiztoen tokia edo infernua badala, eta hara doazela Jaungoikoagandik aparte, pekatu astunean hiltzen diranak.

4. oinarria: Santu kanonizatuak betiko zerua eskuratu dabela ziur dakigu. Baina infernuan inor dagoanik ez dakigu, ezta Judas bera be.

Gitxi dirala salbatzen diranak, uste dabenak.

Agustin eta Tomas santuak, eta antzinako beste teologo asko, salbamenari buruz oso pesimista agertzen dira. Betiko zoriona oso gitxi lortzen dabela uste dabe. Eta hau da arrazoia: mundu honetan gaiztoak askoz gehiago dirala onak baino. Eta gaiztoen kondenazinoaren errudun Jaungoikoa ez dala erakusteko, adibide hau ipinten deuskue:

Epaile on eta zuzen batek auzian danak salbatzea gura dau, baina hiltzaile bat ekarten badeutsoe, bere gogoaren aurka bada be, errudun dala aurkituko baleu, zigortzeko epaia emon behar dau.

Jaungoikoak be, epaile horren antzera, danak salbatzea gura dau, baina heriotzako orduan inor pekatu astunean aurkituko baleu, holango hori betiko zorionetik aldendu egin behar dau.

Asko dirala salbatzen diranak, uste dabenak.

Karl Rhaner teologo ospetsuari itaun hau egin eutsoen:

Zuk, Karlos, salbauko zarala, uste dozu? Eta honek erantzun:

Teologi begiz ikusita, pertsona batek izan leiken zoritxarrik gaiztoena, betiko hondamendia da, guk infernua esaten deusaguna. Jaungoikoagandik aparte bizi beharra. Baina nik Jaungoikoari mila esker emoten deusadaz, orain arte bere grazian bizitea emon deustalako, eta niretzat zeruan zorion betea prest daukalako. Halan itxaroten dot, behintzat, Jaunaren erruki handian, Eta hortik aurrea ezin dot gehiago esan.

Badakit nik, dino teologo jakintsu honek. Agustin santuagandik hasi eta oraintsu arte, teologoen artean pentsatua izan dala, gitxi dirala salbatzen diranak. Baina guk itxaropena dogu, ziurtasunik ez, Jaungoikoaren bihotz zabaletik datozen grazia ugariak, pekatu guztiak baino gehiago balio dabela, gizaki guztiak salbatzeko.

Beste kristinau jator batek honan pentsatzen dau.

"Nire betiko salbazinoa nire aita edo amaren eskuetan balego, ez nintzateke betiko galduko ete nazan bildurrez biziko. Baina Jaungoikoak nire aitak eta amak baino maiteago nau ni, eta ni salbatzea gehiago gura dau, nik neuk baino". Dana dala, asko ala gitxi diran salbatzen diranak, Jesusek esandakoa beti egia izango da: "Ahalegin-
du zaitzeze ate estutik sartzen" (Lk 13-24)

(C)

22, DOMEKEA URTEAN ZEHAR (Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko eukaristian, harrokeria guztiak baztertuz, apalak eta humilak izaten ikasi behar dogu...

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: "Bere burua goratzen dauana, beheratua izango da. Eta bere burua beheratzen dauana, goratua... Apalaren otoitzak lainoak zulatzen ditu, eta Jaungoikoaren zeruraino heltzen da. Harroak, ostera, Jaunak gorroto ditu.

1. IRAKURGAIA: Sir 3, 9-21. 30-31

Gizaki apala Jaungoikoak maite dau. Harroa, ostera, danentzat nazkagarri da.

2. IRAKURGAIA: Eb 12, 18-19. 22-24a

Sinai mendiko Lege Zaharra bildurrezkoa izan zan. Jesusen legea, ostera, maitasunezkoa da.

EBANJELIOA: Lk 14, 1. 7-14

"EZTEGUETARA DEIZEN ZAITUENEAN, EZ ZAIÑEZ AURRENGO LEKUAN JESARRI...BERE BURUA GORATZEN DAUANA, BEHERATUA IZANGO DA; ETA BERE BURUA BEHERATZEN DAUANA, GORATUA" (Lk 14, 8-11)

H O M I L I A

Zer da harrokeria?

Norbera besteak baino gehiago dala, uste izatea.

Harroak bere burua goratu egiten dau, eta besteak beheratu.

Harrokeria sortu daiteke, edo diruagaitik. Aberatsak harrokeriara errez laban egiten dabe. Edo gorputzeko edertasunagaitik, laster zimeltzen dan lorea izan arren. Edo goi-mailako familia ospetsuan jaiotzagaitik. Edo beste mila gauzagaitik...

Jaungoikoarentzat harroa barregarri da, eta gizonentzat nazkagarri. Apala, humila, ostera, danentzat maitagarri da, eta danak goratzen dabe...

Jaungoikoak apalak onartu, eta harroak baztertu egiten ditu: "Zuk, Jauna, herri apala onik ateratzen dozu, baina begi harroa apaltzen". (Sal 17). Jaunak apalari begiratzen deutso, harroa, ostera, urrundik ezagutzen"(Sal 137). Eta Andra Mariak "magnificat" bere abestian di-no: "Jaunak bota ditu euren aulkitik handikiak, eta gora jaso eze-rezak"(Lk 1, 52)

Mila berbak baino ejemplo batek gehiago balio dauala irudituz, Joan XXIII. Aita Santuaren apaltasuna zein maitagarria zan orain agertuko deusuet:

Gitxi dirala salbatzen diranak, uste dabenak.

Agustin eta Tomas santuak, eta antzinako beste teologo asko, salbamenari buruz oso pesimista agertzen dira. Betiko zoriona oso gitxi lortzen dabela uste dabe. Eta hau da arrazoia: mundu honetan gaiztoak askoz gehiago dirala onak baino. Eta gaiztoen kondenazioaren errudun Jaungoikoa ez dala erakusteko, adibide hau ipinten deuskue:

Epaile on eta zuzen batek auzian danak salbatzea gura dau, baina hiltzaile bat ekarten badeutsoe, bere gogoaren aurka bada be, errudun dala aurkituko baleu, zigortzeko epaia emon behar dau.

Jaungoikoak be, epaile horren antzera, danak salbatzea gura dau, baina heriotzako orduan inor pekatu astunean aurkituko baleu, holango hori betiko zorionetik aldendu egin behar dau.

Asko dirala salbatzen diranak, uste dabenak..

Karl Rhaner teologo ospetsuari itaun hau egin eutsoen:

Zuk, Karlos, salbauko zarala, uste dozu? Eta honek erantzun:

Teologi begiz ikusita, pertsona batek izan leiken zoritxarrik gaiztoena, betiko hondamendia da, guk infernua esaten deutsalaguna. Jaungoikoagandik aparte bizi beharra. Baina nik Jaungoikoari mila esker emoten deutsaladaz, orain arte bere grazian bizitea emon deustalako, eta niretzat zeruan zorion betea prest daukalako. Halan itxaroten dot, behintzat, Jaunaren erruki handian, Eta hortik aurrera ezin dot gehiago esan.

Badakit nik, dino teologo jakintsu honek. Agustin santuagandik hasi eta oraintsu arte, teologoaren artean pentsatua izan dala, gitxi dirala salbatzen diranak. Baina guk itxaropena dogu, ziurtasunik ez, Jaungoikoaren bihotz zabaletik datozen grazia ugariak, pekatu guztiak baino gehiago balio dabela, gizaki guztiak salbatzeko.

Beste kristinau jator batek honan pentsatzen dau.

"Nire betiko salbazinoa nire aita edo amaren eskuetan balego, ez nintzateke betiko galduko ete nazan bildurrez biziko. Baina Jaungoikoak nire aitak eta amak baino maiteago nau ni, eta ni salbatzea gehiago gura dau, nik neuk baino". Dana dala, asko ala gitxi diran salbatzen diranak, Jesusek esandakoa beti egia izango da: "Ahalegin-
du zaiteze ate estutik sartzen" (Lk 13-24)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusi jarraitze bidean ezin da erdizka ibili. Jaunak bihotz osoa eta dauka-
gun guztia Berari emotea eskatzen deusku...

Jesusek gaurko ebanjelioan esaten deuskunez, "bere aita eta ama edo seme-ala-
bak ni baino maiteago dituanak ezin da nire ikasle izan. Bere gurutzea hartu eta
Nigaz ez datorrena, ezin da nire ikasle izan".

1. IRAKURGAIA: Jak 9, 13-19

Jaungoikoak gizaki guztien bihotzetan zeruko jakinduria maitatzeko egarria
sortu dau. Eta benetako jakituria hau da: Jaunari atsegin jakona egitea.

2. IRAKURGAIA: Flm 9a, 10. 12-17

Onesimo esklabuak bere nagusi Filemonen etxetik iges egin dau. Erromako lege-
ak eskatzen ebanez, gogor zigortua izatea merezi eban. Paulok Filemoni bere es-
klabuari parkatzeko eskatzen deutso.

EBANJELIOA: Lk 14, 25-33

"BERE AITA ETA AMA, BERE SEME-ALABAK, ETA BERE BURUA BE, NI BAINO MAITEAGO
BADITU, EZIN DAITEKE NIRE IKASLE IZAN" (Lk 14, 26)

H O M I L I A

("Actas de los mártires" B.A.C. 75 lib. Daniel Ruiz-ek egina)

Senideok: Gaurko homilia honetan Perpetua eta Felizitas emakume martiri santu-
en jazoera adierazo gura deusuet, Jesusi jarraitzea zer dan ikasi, eta martiri
honeen adorea ikusiz, gu be fedean indartu gaitzan.

Perpetuak, gaurko ebanjelioak eskatzen dauanez, bere aita eta ama, bere sena-
rra eta umea itxi, eta Jesusi heriotzaraino jarraitu eutsan.

Afrikako Kartago ondoan jazo zan, bigarren gizaldiko azken urteetan, Sebero
Erromako enperadore zala. Perpetua 22 urteko etxeoandra ezkondua zan, eta Fe-
lizitas honen zerbitzaria. Umetxo bat eukan Perpetuak hiru hilabetekoa, eta bere
etxeo guztiak kristinatuak ziran, aita izan ezik. Aita jentila zan.

Orain esango doguna, azken zatia kendu ezker, Perpetuak berak espetxean i-
datzitakoa da. Honan kontatzen dau:

"Bateoa hartu eta egun gitxi barru espetxean sartu ninduen, eta ikaragarritzko
bildurra sartu jatan. Ez neban ordurarte halango ilunperik ikusi. Hango be-
roa eta usain txarra! Jendea pilatuta egoan, eta soldaduak tratu txarra emoten
euskuen. Baina nik gehiago neure semetxoaren falta sentitzen neban.

Nuntzio zala, Paristik bere iloba Josefinari honan idazten deutso:

"Nire iloba maite Josefina:

Gütun honen barruan argazki bat bidaltzen deutsut, eta bertan ni Frantziako gobernuko lehendakariaren ondoan ikusiko nozu. Gure inguruan ministroak dagoz, eta atzeko aldean diplomatiko taldea...

Egia esango deutsut, Josefina, gizon ospetsu honeen artean baino gusturago aurkitzen nazala "Kolonbera" gure baserrian. Handikeria guzti honeek pozik itxiko neukez "Kanebe"ko Andra Mariaren eleizako kapelau izateagaitik. Baina kargu honetan Aita Santuak ipini nau, eta haren esana egin behar dot":

Eta bere arreba Asun-i idazten deutso:

"Mundu honetan goratua izateak ez dau ezer balio, eta aberatsa izateak gitxiago. Dirua arima salbatzeko arrisku handikoa da. Zurrumurruak ei dabilta hortik, ni Milango artzobisko egingo ete naben edo...Zuok ez sinistu... Dana dala, zuok Jaungoikoari eskatu eiozue, ni handikeria guztitik aldendu naiala. Gure amak batez be nire alde otoitz egin daiala, ni apaltasun eta humiltasunean bizi naiten.

Mundu honetako diru eta ohorerik ez neuke gura niretzat. Eta inork zurrumurru horreekaitik itanduten badeutsue, zuok honango zer-bait erantzun: Gu familia pobrekoak gara, baina daukagunagaz pozik bizi gara. Gure anaia berak merezi dauan baino goragoko karguan dago, eta ez dauka goragokoaren enbidirik".

Eta 1932 urteko azken egunetan Sofia-tik bere etxekoei idazten deutse: Gabon zoriontsuak!. Bai ederra dala Belengo Umearen pobretasun eta apaltasuna! Jesus haurtxoak bere ama Maria pobre eta apa egin eban. Nik honegaitik maite ditut neure gurasoak.

Liburuetan ikasitako gauza asko ahaztu egin dodaz, baina gure aitak eta amak etxean emondako ejemplo onak ez dodaz sekulan ahaztuko.

Aurtengo negu hotz honetan, gure aita eta ama hain pobre ikusteak pena handia emon deust. Badakit gure etxean gosea pasatzen dozuela. Eta ez gosea bakarrik, baita miseria ba. Hemen bialtzen deutsuedaz nire diru ahorro guztiak, ogitarako, behintzat, euki daizuen. Eta ez dozue niri eskerrik emon beharrik; sakrifizio hau gure etxekoen alde pozik egiten dot eta. Honen orde z nire alde otoitz eizue nagusiok, baina batez be etxeke iloba txikiok".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka honetako liturgiak Jaungoikoaren erruki eta parkamena zein handiak diran erakusten deusku... Jaunaren errukia azkenbakoa da, eta damutzen bagara, guk egindako gaiztakeriak handiak badira be, parkatuko deuskuzala, sinistu behar dogu.

1. IRAKURGAIA: Ex 32, 7-11. 13-14

Egiazko Jaungoikoaren ordezkorrek zekorrek adoratu, pekatu astuna egin eban Israel herriak; baina damutu ziranean Jaunak parkatu eutsen.

2. IRAKURGAIA: 1 Tim 1, 12-17

Paulo apostoluak eskerrak emoten deutsoz Jesukristo Jaunari, pekatari izanik, parkatu eta apostolu egin ebalako.

EBANJELIOA: Lk 15, 1-32

"HARA NIK ESAN: POZ HANDIAGOA IZANGO DA ZERUAN, BIHOTZ BARRITZEN DAN PEKATARI BATENGAITIK, BIHOTZ-BARRITU BEHARRIK EZ DABEN LAUROGEITA HEMERETZI ZINTZORENGAITIK BAINO" (Lk 15, 7)

H O M I L I A

Artzaina ez dago pozik, artegian laurogeita hemeretzi ardi euki arren, galdutakoa aurkitu arte. Honen bila dabil baso-zelaiak begiratu... Eta aurkitutakoan, ez dau iges egin daualako zigorrez josten, lepoan samurki hartu baino...

Eta etxeke-andrea be, ardura handiz dabil etxeke bazterrak begiratzen, galdutako drakma-dirua aurkitu arte.

Eta hirugarren parabolako aitak be, mosuka eta pozez beterik bere seme galdua hartzen dau, etxetik iges egin ondoren, damuturik, aitarengana itzultzen danean. Eta bazkari handia prestatzen dau aitak bere seme galduaren etxera itzultzea ospatzeko.

Baina oraindik harrigarriago da Jesusek dinoskuna:

"Poz handiagoa izango da zeruan bihotz barritzen dan pekatari bakar bategaitik, bihotz barritu beharrik ez daben laurogeita hemeretzi zintzogaitik baino".

Zelan da hori?. Aitak eta amak poz handiago hartzen dabe gaixotutako semea osatzen danean, osasun betean bizi diran beste semeengaitik baino...

"Memorias del Padre Arrupe" liburutik harturik, gertakari honek gure gogo argituko deusku.

Orduan Tertzio eta Pomponiok, gure kristinau lagunak, diru askoren truke, kartzelako patiora haizea hartzera urtetea lortu eusku- en, eta nik egonaldi hau neure ume gaixoari bularra emoteko apro- betxatzen neban, gosez erdi egoan eta.

Nik gure aitagaitik, sinismenik ez ebalako, negar egiten neban, eta gure ama anaiei nigaitik negarrik ez egiteko eskatzen neutsen, gure etxekoak negarrez ikusita nire barruko pena handiago egiten zan eta...

Azkenean umea neugaz kartzelan gelditzea lortu neban, eta holan niretzat espetxeko ilunpeak argitu ziran...

Handik egun gitxira epailearengana eroango ginduezala zurrumurrua zabaldu zan. Aitak hau jakin ebanean esan eustan: Alaba, nire zahartzaroaz errukitu zaitez. Begira zure neba bieie, begira zure ama eta izekoari. Begira batez be zure semetxoari; zu hil ezkerro, ez da biziko... Eta honan berba egiten bitartean, negarrez neure au- rrean belaunikaturik, nire eskuei mosu emoten eutsen, esanaz: Nik esku honeekaz zu txikitan zein pozik erabilten zindudazan gogoratu eizu...

Eta nik nire bihotzean pena handiagoa sentitzen neban gure aita- gaitik, jentila izanik, nik zergaitik hil behar neban ezin ebalako ulertu.

Hilario epaileak esan eustan: Zure ume txikiaz errukiturik gure Erromako jaungoikoak, eta gure enperadore Sebero jaungoikoa adoratu eizuz. Eta nik: Ez dodaz adoratuko. Eta berak: Orduan zu kristi- naua zara?. Eta nik: Bai, halan da, kristinaua naz.

Orduan gure aita epaileari erreguka hasi jakon, ni ez naiala heriotzara galdu, eskatuz. Hilario epaileak, orduan, gure aita egurraz joteko agindu eban. Eta, egia esan, nik gure aita koitaua holan jota ikusita, min handiagoa hartu neban, neuri egindako kal- te guztiak baino...

Honeexek dira niri jazotako gauzak heriotzaren azken egunera arte. Nik idatzitakoa gero beste batek jarraitu gura baleu, egin daiala"...

Heldu zan heriotzako martiri eguna. Kristinau martiriak es- petxetik anfiteatrora (jolak-zelaira) eroan ebezan. Perpetua kan- tuan joan zan. Besteak otoitzean. Gizonezkoak hartz, lehoi eta tigreen erpetan hil ziran. Emakumeak basa-behi izuen adarretan eu- ren bizia Kristogaitik emon eban.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eukaristia honetan Kristoren gurutzeko oparia barritu eta gaurko-tu egingo dogu...

Jesusek gaurko batzar honetan irakatsi gura deuskuna hau da: Ezin daitekeela Jaungoikoaren zerbitzari izan, eta aldi berean diruaren morroi bizi. Diru-goseak Jaungoikoa baztertu egiten dau, eta lurreko ondasunetara gure bihotzak makurtu...

1. IRAKURGAIA: Am 8, 4-7

Amos profetak aberatsen lapurreta eta diru-gosea salatzen ditu. Jaungoikoaren legea azalez eta itxuraz ondo beteten dabe, baina euren jaungoikoa dirua da.

2. IRAKURGAIA: 1 Tm 2, 1-8

Paulo apostoluak bere lagun Titori dinotso: eizu otoitz gizaki guztiak salbau daitezana. Gure salbatzaile bakarra Kristo da, Jaungoiko eta gizonen artean ararteko.

EBANJELIOA: Lk 16, 1-13

"EZIN DAITEKE ZERBITZARI BAT, BI NAGUSIREN MORROI IZAN...EZIN ZARIE IZAN JAUNGOIKOAREN ETA DIRUAREN MORROI" (Lk 16. 13)

H O M I L I A

(Katalunyako gotzainak 1974. urtean egindako txostenetik ideak hartuta)

... Kapitalismo liberalaren kalteak.

Kapitalismo liberala zer da?.

Dirua gizonaren gaintetik jartzea. Diruari, gizonari baino balio gehiago emotea. Hau da kapitalismo liberalaren helburu bakarra: ahal danik eta gehien dirua irabaztea; dirua egiteko pertsonak zapaldu eta hondatu behar badira be.

Kapitalismo liberalak gizona ekonomiaren menpe ipinten dau. Eta dotrina honen kalteak agirian dagoz: gitxi batzuk aberastasunez gainezka bizi diran bitartean, beste asko pobretasun eta miseri gorrian bizitea. Dotrina hau ontzat hartzen dabenak dana ekonomi begiz iturri kusten dabe, nonahi eta beti diru-irabaziari bakarrik begiratuz.

Pio XI, Aita Santuak "Cuadragesimo anno" enziklikan esaten dau:

"Mezabarria emon, eta laster Ipar-Ameriketara joan nintzan, handik gero Japoniara misiolari joateko asmotan. Ez nekian nire abadelana nondik eta zelan hasi. Norbaitek esan eustan: Zergaitik ez zoz az espetxera hango presoak ikustera?. Herri honetako espetxean badira bost ehundik gora preso ingles ez dakitenak, eta honeei ez deutse inork jaramonik (kasorik) egiten...

Kartzelazainak nire gogoak jakin ebanean esan eustan: barruan dagozan gehienak giza-hiltzaileak dira, basoko piztiak baino gaiztoagoak. Hortik ez dozu gauza onik aterako. Baina zuk halan gura badozu... Zein preso gura dozu ikustea?.

Eta nik: Edozein. Esaterako "279" gelan dagoena.

Eta kartzelazainak: Txarto aukeratu dozu. Gizon hori "txori txarra" dozu. Gaiztoenetakoa. Ez da inor jaiolehoi hori domatuko dauanik...

Botoi bat sakatu eta gelako atea zabaldu zan, eta ni sartu ondoren automatikoki itxi egin zan. Ohean etzunda egoana zutundu, eta niri begira begira harriturik geratu zan. Une batean biok, zer esan ez jakinik, mutu gelditu ginan. Apur bat baketu ginanean nik itandu neutsan:

- Zuk ez nazu ezagutzen, ezta? Hemen bakarrik azpeltu egingo zinalakoan, zugaz berbaldi bat egitera etorri naz...

- Zu abadea zara ezta?. Nire bizitza eta zuena ez da bardina...

- Halan da. Eta horregaitik gu alkarren lagun izan gaitekezala pentsatu dot, eta biok Jaungoikoarenak.

-Baina, aita, ni hainbeste urtetan Jaungoikoagandik aparte bizi izan ondoren, orain dana konpondu daitekeela?.

- Zuk gura badozu, bai. Damutzen bazara zeruko Jaun onak dana parkatuko deutsu.

- Gizon bat hil badot be bai?

- Baita hogei hil badozuz be. Gure Jaungoiko onak dana parkatzen dau, eta pozik parkatu be...

Biok isildu ginan. Eta geroago bera bere bizitza osoa, gauza on eta txarrakaz kontatzen hasi jatan. Berak esan eta esan, eta nik entzun eta entzun... Baina nik entzundakoa guztiz isilpeko-sekrettoa da.

Azkenean Jaungoikoaren parkamena emon neutsan. Azken agurra egitean bera han barruan geratu zan, eta ni kanpora joan nintzan...

Gizonak ez dabe parkatzen. Jaunak beti parkatzen dau...

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Domeka eta jai egunetan kristaun batzarrean batzen gara geure fedea alkarrekaz ospatu, eta Jaunaren hitza entzuteko.

Gizon bi agertuko jakuz gaurko ebanjelioan: aberatsa bata, eta txiroa bestea. Aberatsa, pobreaki lagundu gura ez eutsalako, galdua izango da. Lazaro pobrea, ostera, zeruko zorionera jaso...

1. IRAKURGAIA: Am 6, 1a. 4-7

Amos profetak dinosku, aberatsak euren ondasunetan poz-pozik txiroekaz ahatuta bizi dirala, baina honeen azkena betiko hondamen-izango dala.

2. IRAKURGAIA: 1 Tim 6, 11-16

Bateatuak Kristoren autorle eta testigu izan behar dau. Susentasun, maitasun eta iraupenaren bidez zerua lortzen dauana.

EBANJELIOA: Lk, 19-31

"BAZAN GIZON ABERATS BAT EGUNERO BAZKARI EDERRAK EGITEN ZITUANA: ETA LAZARO IZENEKO ESKALE BAT ABERATSAREN MAHAITIK IXURTZEN ZANAZ ASE GURA IZATEN EBANA, BAINA EZ EUTSAN INORK EMOTEN" (Lk 16, 19-"=)

H O M I L I A

(Joan Paulo II.ak Nueva York-o "Yankee Stadium"een esandako hitzal-ditik ideak hartuta. 1979 orteian)

"Baten baino gehiagotan aitatu dot ebanjelioko aberatsaren eta Lazaro pobreaken parabola: Bazan gizon aberats bat purpura eta linu finenez janzen zana, eta egunero bazkari ederrak egiten zituana

Lazaro izeneko eskeko bat, barriz, aberatsaren etxeke atarian e-goan zauriz josia. Aberatsaren mahaitik jausten zanz ase gura ebana, baina ez eutsan inork emoten. Aberatsa eta txiroa, biak hil ziran, eta biak Abrahamen aurrera eroanak izan ziran. Eta Lazaro pobreak atsegina aurkitu eban, eta aberatsak atsekabea.

Zuek uste dozue aberatsa kondenatua izan zala, ondasun askoren jabe izanik purpura eta linuz janzen zalako, edo egunero jatordu ederrak egiten zitualako?. Ez, horixe!. Ez zan horregaitik galdua izan. Kristok ez dau aberatsa, aberatsa dalako galtzen, beste honexegaitik baino: premia gorrian aurkitzen zan Lazaro pobreaki lagundu ez eutsalako.

"Kapitalismoaren neurri bako indarrak esklabo bihurtzen dau gizona. Eta dotrina honek nekeak, injustiziak eta azken bako burrukak ekarri ditu gizartera":

Dirua euki eta dirua irabaztea gizonarentzat eta enpresarioentzat beharrezko gauza da. Dirua irabazi barik ez geunke lanik egingo eta, ezta lantegi barririk eragingo be. Eta aberriko eta familiako ekonomia hondatzen bada, beste arazo guztiak be bide okerretik joango dira. Dirua beharrezko da etxeko gastuei erantzuteko, eta guztiok lana izan daigun lantegi barriak sortzeko.

Baina ekonomia ez daigula gizonaren gainetik ipini. Dirua goratu, gizona zapalduz.

Paulo VI, Aita Santuak bere "Populorum progressio" Enziklikan dino: "Gaurko egunean bada dotrina bat oso kaltegarria, dirua gauza guztien gainetik ipinten dauana. Honeen lege bakarra hau da: ahal dan eta irabazirik handiena lortzea...Baita Jaungoikoaren legearen gainetik be.

Dirudunak uste dabe euren ondasunekaz gura dabena egin leikela, preminan eta gosean aurkitzen diranei begiratu barik. Honangoak ez dabe jakin gura Jaungoikoak mundu honetako ondasunak gizaki guztientzat egin ebazala, danok pertsonari zor jakon duintasunean bizi gaitetzan.

Langileak bere eguneroko lanaz irabazten dau familia mantentzeko behar dauan lan-saria. Hortik kentzen badeutsazu, zelan biziko da?

Makina bat lanerako gauza ez danean txatarrara botaten dozu, eta beste barri bat erosten. Baina gizona, pertsona dalako, ezin da, lanerako balio ez dauanean, txatarra lez baztertu, eta laguntza barik itxi...

Eleiza katolikuaren dotrina, Jesusen ebanjelioan oinarriturik, beste hau da: Pertsonaren duintasuna ekonomiaren gainetik dagoala, eta Jaungoikoak lur honetako ondasunak gizaki guztien onerako egin zituala; honeekaz, egoki danez baliaturik, zeruko ondasun beteak lortu daiguzan...

"Ezin zarie Jaungoikoaren eta diruaren morroi izan" (Lk 16)
Eta diruaren morroi da dirua egitea beste amesik ez dauana. Dana diruaren begitik ikusten dauana. Dirua baino beste jaungoikorik ez dauana. Jaungoikoaren morroi da, ostera, Jaunaren legea eta giza-
eskubideak ekonomiaren gainetik ipinten dituana. Lur honetako ondasunak zerukoak irabazteko eran erabilten dituana.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaunaren etxean batu gara kristinatu alkertasunean Jesusengan dogun fedea biztu eta indartzeko...

Eukaristia honetan, gaurko ebanjelioko apostoluak lez, Jaunari eskatu daiogun: Jauna, gure sinismena indartu eizu...

1. IRAKURGAIA: Ha 1, 2-3, 2,2-4

Habakuk profetak larrialdian Jaunari dei egiten deutso. Eta Jaunak erantzun: zintzotasunean irauten dauana salbauko da.

2. IRAKURGAIA: 2 Tm 1, 6-8. 13-14

Bizitza honetako nekeak pazientziaz hartu behar ditugu, ez bil-durrezko espirituaz, maitasunezkoaz baino.

EBANJELIOA: Lk 17, 5-10

"APOSTOLUAK ESAN EUTSIEN JAUNARI: INDARTU EIGUZU SINISMENA" (Lk 17, 5).

H O M I L I A

(Karl Rhaner-en "Crees en Dios" liburutik ideak hartuta)

"Lehen gure inguruan danak, edo ia danak, fededun ziran. Baina gaurko egunean ez da holan jazoten. Horregaitik gaurko gure fedea oinarri sendoak behar ditu. Gure etxeak beti kristinatuak izan dira eta. Gurasoak txikitatik hori irakatsi euskuela eta... Honeen antzeko arrazoiak, gaurko egunerako oinarri makalak dira, eta edo-zelango haize bolada batek lurrera bota leiz.

Sinismena edo fedea zer da?.

"Zergaitik" sinisten dogun oraingoz alde batera itxirik, gaur eta hemen, "Zer" dan fedea, eta "Zelan" lortu eta indartu geinken aztertuko dogu. Sinismena edo fedea ez da guk geure ahaleginez eta indarrez eskuratu geinken zerbait. Ez da gizon santurik, ezta teologo jakitunik bere lan eta jakitez sinistera heldu daitekeenik.

Fedea, Jaungoikoak guri doan-gratis emoten deuskun opari-erregalu hutsa da. Baina, gizona izaki librea da, eta guk Jaungoikoak eskeindutako opari horri "baietza" edo "ezetza" emon geikio. Jaungoikoak ez dau inor nahitaez, derrigorrez, sinistera behartu gura. Fedea gura dauanak bakarrik onartzen dau. Eta behin hartutakoan Jaunari mila bider eskerrak emon beharrean gagoz, mundu honetako ilunpetan sinismenaren argia emon deuskulako.

Zelan sinisten hasi?

Diskuzino eta eztabaidakaz ez da inor fededun izatera heltzen. Bihotzeko harrokeria be oso kaltegarri da sinismena lortzeko. Benetan maitatzen dakienak, Jesusengan sinisteko atea zabalik dauka. Gizon zintzoak, bere kontzientziak erakusten deutson bidetik zuzen dabilenak, fede-bidean asko aurreratu dau. Norbere egoismotik urten, eta senideari laguntzen ahalegintzen danak, fedearen ateraino heldu dala pentsatu behar. Oraindino sinismenera heldu ez, baina fedea gauza guztiñ handitzat estimatzen dauana, ia ia fedea eskuetan daukala esan daiteke.

Jesusen bizitza aztertu, bere dotrina zoragarri ederra ezagutu, egin zituan mirariak ikusi eta gero, Harengan sinistea ez da gauza gatxa.

Fedea zertarako?

Niri fedeak laguntzen deust neure eguneroko eginbeharrak hobeto beteten, eta eguneroko nekeak pazientziaz eroaten.

Niri fedeak laguntzen deust, gure bizitzako larrialdi eta estualdietan, Jaunari laguntza eskatzen.

Niri fedeak laguntzen deust, batez be, azken ordua datorkidanean Jaungoiko Aitaren besoetan mundu hau bakez ixten.

Niri fedeak laguntzen deust, etxeko edo lagun bat mundu honetatik joaten jakunean, zeruan barrero alkartuko garan itxaropenaz, gure penak arintzen.

Gure fedea zelangoa?

Danentzakoa. Gizaki guztiak, bai fededunak, baita federik ez dabenak be, danak maitatzera eroango nauana.

Egitezkoa. Fedea ez da geure bihotzeko kutxan ondo gordeta euki behar dogun ondasun eder bat. Gure sinismenak, barrutik urten, eta danei on egin eta laguntzera eroan behar gaitu.

Apala, humila. Ez gaitezana lotsatu gure fedea besteen aurrean agertzeko. Baina ezta harrokeriarik be, fededunak besteak baino hobeak garala pentsatzeko. Gure fedea pozik, baina apal bizi behar dogu.

Esker onekoa. Sinismena Jaungoikoak guri ezer merezi barik emondako opari erregalua da, eta opariak "eskerrik asko" esanda apal-apal hartu behar dira...

Eta amaitzeko, lehengo dotrina zaharrak esaten ebana, beti gogoran euki daigun: - Kristinaua zara?. -Bai, jauna, Kristinauaz, Jaungoikoari eskerrak.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

"Eukaristia" hitzak grekoz "eskerrak emotea" esan gura dau...

Gaurko liturgiak Jaungoikoari bere mesede guztiakaitik eskerrak emotera deitzen gaitu..

Hamar lepradun osatu zituan Jesusek, eta bat bakarrik bihurtu zan Jesusengana eskerrak emotera... Gu Jaunarekin esker oneno izan gaitazan.

1. IRAKURGAIA: 2 Erg 5, 14-17

Eliseo profetak, Jaunaren izenean, Nahaman atzerritarra lepratik garbitu eban, eta honek esker onez Israelgo Jaungoiko bakarra eza-gutu eta gurtu eban.

2. IRAKURGAIA: 2 Tim 2, 8-13

San Paulok, hil aurretik, bere laguntzaile Timoteori espetxetik idazten deutso: Izan bihotz! Jesukristogaitik hiltzen bagara, Berak biztuko gaitu.

EBANJELIOA: Lk 17, 11-19

"EZ ETE DIRA HAMARRAK GARBITU? NON DIRA BESTE BEDERATZIAK?"
(Lk 17, 17)

H O M I L I A

Senideok:

Gaurko ebanjelioan, oraintxe irakurri dogunez, hamar lepredun izan ziran Jesusek garbituak... Eta hamarretatik bat bakarra bihurtu zan Jesusi eskerrak emotera. Eta Jesusek beste bederatzien esker txarra ikusirik, bihotz minez itandu eban: Ez ete dira izan hamar garbituak?. Non dira beste bederatziak?...

Guk be egunero eta beti, gure Jaungoiko onaren eskutik zenbat mesede hartzen ditugun, nork esan? Jaungoikoak guri egiten deuskuzan gorputzeko eta arimako mesedeak zenbatu ezinak dira... Gure Zeruko Aita onari eskerrak emoteko gogoratzen ete gara?.

Jaungoikoak guri egunero egiten deuskuzan mesede ugari harrigarriak, Nafsrroako seme Fray Diego Lizarrakoak bere hitzaldi sutsuan kontatzen deuskuz.

Adi entzun daigun.

"Jauna, zure eskutik hartutako mesede guztiak gogora ekarri gura banitu, nire bizitza guztia ez litzateke nahiko izango...

Nire gorputzeko zentzun eta atal guztiakaitik Zuri eskerrak emon beharrean nago... Ni, begi biak galduta, itsu geldituko banintz, barriro be ikustea emon deustanari, zelango esker beroak emongo neuskioz?. Orain,ba, nire begi bi honeek zuk emonak dira zeru-lur-
rren edertasuna ikusteko. Zenbat esker zor deutsudaz Zuri ikusmena emon deustazulako!. Eta gorputzeko beste zentzun eta atal guztiakaitik bardin pentsatu behar geunke.

Eta arimako ahalmen eta bizitzagaitik askoz gehiago zor deutsut. Nik burua galduko baneu, zelango eskerrak emon beharrean aurkituko nintzateke, burua eta adimena argitu deustanari?. Mila esker, Jauna, Zuri, nik ezer merezi barik, gorputza, arima eta bizitza emon deustazulako.

Zabaldu begiak, eta ikusi zeru-lurak. Begira itsaso zabalak eta mendi goiak, eta bertan bizi direnak: arrainak, abereak eta gizakiak. Zuk, Jauna, guretzat egin dituzu, gu hareen nagusi izanik, Zu maitatu, zerbitu eta Zuri eskerrak emoteko.

Eta arimako bizitzan Jaunak guri egindako mesede handiak nork ezagutzera emon?. Galtzeko arriskuan aurkitu nintzanean, Zuk, Jauna, ni gatxetik atera ninduzun. Jausi nintzanean, Zuk, Jauna, ni jaso ninduzun.

Eta zure erruki neurribakoan, danen gainetiko mesederik handiena egingo deustazula uste dot: zeruko zorionean, zure ondoan, betiko pozetan bizitea...

Adimenik ez daben abereak be, euren ongileari esker ona erakusten deutsoe. Eta gizona, Jaungoikoaren antzeko adimendun izanik, bere Egilearentzat abereak baino esker txarrekoagoa izango ete da?.

Jaunak, Isaias profetaren bidez, gizonen esker txarra salatzen dau, esanez: "Idiak bere nagusia ezagutzen dau, baina Israelek bere nagusi Jaungoikoa ez dau ezagutu gura.

Hamar lepradunak be, osatu aurretik, eskuak gora jaso eta arrenka Jesusi osasuna eskatzen eutsoen: Jesus, Dabiden seme, erruki zaviguz. Baina osatu ostean bat bakarra itzuli zan Jaunari eskerrak emotera. Non dagoz beste bederatziak?, itandu eban Jesusek. Hori ez eban itandu, beste bederatziak non egozan ez ekialako, hareen esker txarrak min emon eutsalako baino. Hamar ziran osasuna eskatzeko. Baina eskerrak emoteko bat bakarra".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jesusek gaurko ebanjelioan esango deusku: Otoitz egizue beti, eta eskatzen dozuena nire zeruko Aitak emongo deusue...

Eukaristia dogu otoitzik ederrena. Horretarako batu gara eleiza honetan: irakurgai, hitzaldi eta abestien bidez, Jaunari otoitz egiteko, eta Jaunaren eskutik geure onerako behar ditugun laguntzak eskuratzeko.

1. IRAKURGAIA: Ex 17, 8-13

Moisesek bere besoak gora jasota eukazan bitartean, israeldarrak burrukaldian, arerioen aurka, irabazi egiten eben.

2. IRAKURGAIA: 2 Tm 3, 14-4, 2

Kristo Jesusengan sinisteak dakar betiko salbamena. Eta guk, Kristogan sinisten dogunok salbamen hori gure inguruan zabaldu behar dogu.

EBANJELIOA: Lk 18, 1-8

JESUSEK (alargun aspergarriaren) PARABOLA HAU ESAN EUTSEN; BETI OTOITZ EGIN BEHAR DOGULA ADIERAZOTEKO" (Lk 18,1)

H O M I L I A

(Joan XXIII.aren "Mensaje Espiritual" liburutik hartuta)

"Otoitza Jaungoikoagaz, lagun bategaz lez, berba egitea da... Otoitza Jaunaren ondoan, honek esaten deuskuna, isil-isilik entzuten egotea da...

Otoitza, Jaunari, gure aitari lez, behar doguna konfiantzaz eskatzea da...

Otoitzean Jaunak bihotzera berba egiten deusku. Eta guk Jaungandik onak izateko laguntza hartzen dogu. Otoitz egitea erreza da. Otoitza arimaren arnasa da, eta arnas hartzea gatxa ete da?.

Zure eguneroko otoitzak egiten ez zaitez ahaztu.

Goizean, egun barria hasterakoan, egun haretako lan, neke eta pozak Jaungoikoari eskeindu eiozuz. Eta gaua datorrenean otoitz labur bat egizu. Zure kontzientzia aztertu egizu, eta egun hartan zerbait txarto egin dozula aurkitzen badozu, Jaunari parkamena eskatu. Eta bakean lo egizu.

Otoitzik eginbako eguna, eguzki bako zerua da. Lora bako baratza-
ren antzekoa. Otoitz luzerik ezin egin badozu, laburrak egizuz.
Arnasaldi batean be otoitz egin daiteke...

Jaunak zuk zer behar dozun otoitz egin aurretik be badaki. Horre-
gaitik otoitzean Jaungoikoari hau eta hori eskatu eta eskatu ez zai-
tez nekatu. Eta Jaunak zuri eginiko mesede guztiakaitik eskerrak
emoteko ez zaitez ahaztu.

Nekeren bat etorrita zure barruko bakea galtzen badozu, ez zaitez
gehiegi estutu. Baketu zaitez. Jaungoikoari otoitz egiozu, eta barru-
ko nasaitasun ederra eskuratuko dozu.

Otoitz egiterakoan ez zaitez prisaka eta lasterka ibili. Zure
otoitzak gitxi eta laburrak badira be, baketsu eginak izan daitezela.

Lagun bategaz, edo zeure aita edo amagaz lez, Jaungoikoari konfi-
antza guztiaz otoitz egizu, eta zeruan entzuna izango zara, eta zure
bihotzean gozamen handia hartuko dozu.

Otoitz barik gure eguneroko lanak eta izerdiak mami bako azalak
dira: kanpotik ederrak, baina barrutik hutsak.

Onak eta zintzoak izateko behar-beharrezko dogun zeruko indarra
otoitz eginaz lortzen da.

Otoitzik ederrena, danok alkaturik, eleizan Eukaristia ospatze-
an egiten dogun mezako otoitza da...

Otoitza, zeruetan entzuna izan daiten, penitentziaz alkartu behar
da. Eta hau da penitentziarik ederrena: bakotxak bere eguneroko e-
ginbeharrak ondo betetea, eta eguneroko nekeak Jaungoikoari eskein-
duta, pazientziaz eroatea...

Otoitza eta lagunurkoari laguntzea, biak lotuta dagoz. Otoitza
lagunurkoa maitatu barik hil egiten da, eta senideei laguntza emo-
teak otoitza berotu egiten dau...

Umetxo errubakoen otoitzak Jaungoikoaren bedeinkapena lur gaine-
ra ekarten dabe. Ba ete da gauza pozgarriagorik umetxoak "Aita
ren" egiten, eta "Agur Maria" errezatzen ikustea baino?. Zorioneko-
ak gure etxeetako amamak umetxoei lehenengo otoitzak irakasten deut-
sanak.

(C)

30. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Harrokeriaren kalteak eta apaltasunaren mesedeak geure begien aurrean ipinteko, Jesusek gaurko ebanjelioan fariseuaren eta zergalariaren parabola ekarriko deusku. ..

Jaungoikoak fariseu harroa baztertu egingo dau, eta zergalari apala goratu...

1. IRAKURGAIA: Sir 35, 15-17. 20-22

Jaungoikoak txiro eta zapalduen otoitzak entzuten ditu...

2. IRAKURGAIA: 2 Tm 4, 6-8. 16-18

San Paulok hil aurretik Timoteo bere lagunari azken gutuna idazten deutso: Ni zerura noa Jaunaren koroia hartzera.

EBANJELIOA: Lk 18, 9-14

(Fariseuaren eta zergalariaren) "PARABOLA HAU ESAN EBAN JESUSEK EUREN BURUAK ZINTZOTZAT ETA BESTEAK EZEBEZ LEZ EUKIEZALAKO HARRO-TURIK EBILTZANENTZAT" Lk 18, 9

H O M I L I A

(San Agustin eta San Krisostomoren homilietatik ideak hartuta)

Gizon bi joan ziran Jerusalengo eleizara otoitz egitera: fariseua bata eta zergalaria bestea...

Fariseuak honan otoitz egiten eban: Eskerrak emoten deusudaz, ene Jaungoiko, besteen antzeko ez nazalako: lapur, oker, ezkontzahnahasle... Ezta hor dagoan zergalariaren antzeko be...

Fariseu honek, dino San Agustinek, Jaungoikoari eskerrak emoten deutsoz, baina egiaz eta benetan bere burua goraltzen dau. Eta okerrago dana, zergalaria ezetsi-despreziatu egiten dau.

Fariseuaren gorputza eleizan Jaungoikoaren altare ondoan dago, baina haren arima eta gogoa Jaunagandik guztiz urrun. Fariseu harroak, bera zintzoa dala uste dauanean, Jaungoikoari lapurretan egiten deutso. Guk daukagun guztia Jaunak emondakoa da, eta Jaungoikoarena dana, guk geuretzat hartzen dogunean, Jaunari lapurretan egiten deusagu. Inor ez da zintzo Jaunak laguntzen ez badeutso.

Gizonak oker egiten dauana, dinosku Agustin Santuak, bere txarrieriaz egiten dau. Eta zuzen egiten dauana, Jaungoikoaren laguntzari zor deutso.

Fariseu harroak bere otoitza honan amaitzen dau: "Astean birritan barau egiten dot, eta ditudan guztien hamarrenak eleizari emoten deusadaz"... Ona da barau egitea, eta ona eleizari laguntzeko hamarrenak emotea be, baina itxura oneko azal horrek ez dauka barruan mamirik. Harrokeriaren harrak bihotza janda dauka. Orri ederreko zugaitz horrek ez dau fruturik emoten, eta alperrik dago lurra jaten, dino Agustik santuak.

Zergalaria, ostera, apala da, eta ez ditu bere pekatuak estaltzen. Jaungoikoaren aurrean errudun aurkitzen da. horregaitik eleizan altaratik urrun gelditzen da, bere barrua pekatuz beterik ikusiz, Jaunaren aurrera joatera ausartzen ez zalako. Ez eban zerura bere begirik jaso gura, bere kontzientziako pekatuen astunak, bere begirakunea lurrera makurtzen ebalako. Eta bular-joka Jaungoikoaren errukiari dei egiten eutsan, esanaz: Jauna, erruki zakidaz, pekatari naz eta. Apalaren otoitzak lainoak zulatzen ditu, eta Jaungoikoaren zeruko altararaino da heltzen.

Zergalaria benetan pekatari zan, baina apaltasunez otoitz eginez, bere pekatuak ezagutu eta Jaunari parkamena eskatu eutsanean, eleizatik santu eginik urten eban.

Fariseu harroaren eta zergalari apalaren jokabide hain ezbardinak aztertu ondoren, Jaungoiko epaile zuzenaren erabagia ezagutu daigun.

Jesusek dino: zergalaria zintzoturik joan zala bere etxera. Fariseua, ostera, ez.

Zergaitik, ba?. Jesusek berak erantzungo deusku: "Bere burua goratzen dauana, beheratua izango da. Eta bere burua beheratzen dauana goratua.

Agustin santuak dinosku: "Jaungoikoak gurago dau apaltasuna pekatuekaz, harrokeria egitza onakaz baino"

Kontuz! Harrokeriaz!, dino Joan Krisostomo santuak. Gure buruak santutzat harturik, ez daigula besteak baino gehiago garala uste.

Harrokeriak fruturik ederrena be usteldu egiten dau. Apaltasunak, ostera, pekataririk gaiztoena be, santu egiten.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan Zakeo pekatari damutua agertuko jaku Jesusi esaten: Jauna, nire ondasunen erdiak txiroei emongo deutsedaz...

Eta Jesusen erantzun pozgarria entzungo dogu: Gizonaren Semea galdua egoana bilatzera eta salbatzera etorri da...

Orain ospatuko dogun Eukaristia, gizon-emakume guztien salbame-nerako izan daitela...

1. IRAKURGAIA: Jak 11, 23-12,2

Jaunak guztiak erruki ditu, eta pekatuari ez-ikusia egiten deuto, bihotz-barritu daitezana.

2. IRAKURGAIA: 2 Ts 1, 11-2, 2

Paulo apostoluak Tesalonikako kristinuen alde otoitz egiten dau. Eta gero esaten deutse: Ez zaitez bildurtu, munduaren azkena ez da oraindik izango.

EBANJELIOA: Lk 19, 1-10

"GAUR ETORRI DA SALBAMENA (Zakeoren) ETXE HONETARA...GIZONAREN SEMEA GALDUTA EGOANA...SALBATZERA ETORRI DA" (Lk 19, 9-10.

H O M I L I A

(J.A. Pagolaren "Nazaretoko Jesus, gizon eta berri on" liburutik ideak hartuta)

Zergalariak Palestinako mugetan lan egiten eben, lurralde bate-tik bestera igaroten ziran merkatariei zergak edo kontribuzinoak kobratzen.

Zergalarien ogibide hau, arrazoi askogaitik, guztiz txarto ikusia zan judeguen artean.

Palestinako zergalariak Erromako agintarientzat eskatzen ebezan zergak. Eta erromatarrak ziran judeguen aberria, armen indarrez, zapaldua eukenak...

Baita askotan be zergalariak legezkoa zan baino zerga gehiago kobratzen eben, lapurretan honeen bidez irabazi handiak eskuratuz.

Horregaitik, dino ebanjelioak, Zakeo zergalaria oso aberatsa zala, oker-bidetik egindako diruaz aberastua...

Judeguentzat zergalariak eta emakume-galduak maila bardinekoak ziran: biak pekatariak. Nekezago zan emakume-galdu batek bere lana ixtea, zergalariak bere aberats-bidea baino.

Judegu jainkozale zana ez zan ezelan be zergalari baten lagun izango, eta gitxiago oraindik haren etxera sartuko. Holango pertsona eta etxea betiko zikinduak geldituko ziran.

Gutziz gatxa zan zergalari bat bide onera etortea. Horretarako bere betiko lana itxi beharko eban, eta lapurtutakoa itzuli. Eta hau benetan ezinezkoa zan.

Hau holan izanik ez da harritzek, Jesus Zakeoren etxean sartu zanean bazkaltzera, danak marmarka hastea pekatari baten etxera sartu zalako. Baina Jesus ez zan Zakeoren etxera sartu zergalaria zein gaiztoa zan aztertzeko, eta gitxiago oraindik hari gogor egiteko, lagun antzera baino, Jaunaren parkamena eskeindu, eta galduta egoana salbatzeko.

Bazkalaldian zer moduzko hizketa izan eban Jesusek Zakeogaz, ez dakigu. Ebanjelioak ez deusku ezer esaten. Baina baeukan zergalariak Jesus ezagutzeko gogoia: "Jesus nor zan ikusi gura ebilen". Eta hau da benetan bihotz barritzeko emon behar dan lehenengo pausua: Jaunaren egarria sentitzea. Eta gero Jaunari bihotzko atea zabal-zabalik edegitea: "Zakeok pozik hartu eban Jesus bere etxean.

Eta Zakeoren onbideratzea hain oso-osokoa eta benetakoa izan zan, Jesusi esateraino: Jauna, nire ondasun erdiak txiroentzat izango dira, eta inori ezer ostu badeutsat, lau halango bihurtuko deutsat.

Eta ardi galdua aurkitutakoaren poza Jesusen berba honeetan agertzen da: "Gaur heldu da salbamena etxe honetara, gizon hau be Abrahamen semea eta" (Lk 19, 10). "Egoki da poztu eta jai egitea aurkitu dogu eta galdutako ardia" (Lk 15, 6).

Lukas ebanjelariak Zakeoren gertakari honetan hau da irakatsi gura deuskuna: Jaunaren errukia pekatari damutuentzat azken bakoa dala, pekataririk gogor eta gaiztoena be bigundu eta salbatzeraino...

Horregaitik guk Jesusek esandako hau gure bizitza osoan gogoan euki behar geunke: "Gizonaren Semea galduta egoana bilatzera eta salbatzera etorri da" (Lk 19, 10).

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaunak batzar honetara dei egin deusku Eukaristia ospatzera... Eukaristia ospatzen dogun bakotxean Jesusen heriotza eta biztuera barritzen ditugu.

Gaurko irakurgaietan albiste pozgarri bat agertuko jaku: Hilda-koen biztuera. Gure sinismenaren oinarria Kristo hil eta biztua da. Horregaitik Jesusengan sinisten dogunok, badogu itxaropen, Kristoren antzera gu be biztuko garala...

1. IRAKURGAIA: 2 Mak 7, 1-2: 9-14

Hilen biztueran sinisten ebalako, prest egozan makabear anaiak, euren amagaz batera, Jaungoikoaren legeagaitik bizia emoteko.

2. IRAKURGAIA: 2 Ts 2, 15-3, 5

Paulok Tesalonikako kristinauei dinotse: Jaunak zeruko itxaropenez zuen bihotzak bete daizala. Berak zainduko zaitue betiko bizitzarako. Nire alde otoitz egizue.

EBANJELIOA: Lk 20, 27-38

"HILEN BIZTUERAN PARTE IZATEA GURA DABENAK:::HIL BE EZIN HIL DIRA...JAUNGOIKOAREN SEME-ALABA, BERBIZTEAREN SEME-ALABA DIRALAKO"
(Lk 20, 35-36)

H O M I L I A

Kristinaua itxaropenez pozez beterik bizi dan gizakia da... Zeren itxaropenean?. Jaungoikoari eskerrak zerura joango garan itxaropenean. Eta zer da zerua?. Guk amestu be ezin dogun maitasun, atsedeen eta zorion beteak. "Ez dau begiak ikusi, ez belarriak entzun, ezta bihotzak somatu be, Jaungoikoak prestaturik daukana Bera maite dabenentzat"(1 Kor 2, 9)

Kristinauok honango itxaropenaz bizi behar dogu pozez beterik: Zerua geure eskuetan dogu, baina oraindik ez, gerotxoago. "Zerua bai, baina oraindik ez". Itxaropen honegaz biziteko eskatzen deutse San Paulok Filipoko kristinauei: "Zagoze beti pozik Jaunagan; barrero dinotsuet, zagoze pozik. Laster dator Jauna.

Eta Vatikanoko Kontzilioak gauza bardina irakasten deusku.(G.S.39)

"Mundu honetako itxura, pekatuak zikindua, badoa. Baina Jaungoikoak esaten deusku zeruan guretzat beste etxe bat prestaturik daukala.

Eta hango zorionak gizakien bihotzetan sortu daitekezan bake eta atsegin guztiak aseko dituala, eta gainezka ase be.

Orduan heriotzea garaiturik, Jaungoikoaren seme-alaba diranak, Jesusengan biztuak izango dira...

Eta honan, mundu honetan haragi makal ustelean erein dana, zeruan beti biziteko hilezkortasunez jantziko da...Eta maitasunak eta egite onak lagundurik, mundu honetako izaki igeskorren menpetik askatuak izango dira...

Jesusek esandakoa gogoratu daigun: "Zertarako dau gizonak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen edo hondatzen badau?"

Baina lur barriaren itxaropenean biziteak ez gaitu orain bizi garan mundu hau hobetzeko lanetik aldendu behar. Alderantziz baino: lur hau hobe egiteko lanean bizkortu egin behar gaitu.

Lur honetan bizi garan bitartean, gizon-emakume guztiak anaitasunean, famili baten lez biziten ahaleginak egin behar ditugu. Mundu hau itxaroten dogun zeruaren zerbait antzeko izan daiten...

Mundu honetako gauza on guztiak: bakea, zoriona, askatasuna, atsegin poz eta edertasun guztiak zeruan barriz aurkituko ditugu, baina ez hemen lez pekatuak zikinduta, guztiz argi, garbi eta hobera aldatuak baino.

Orduan Kristok bere Aita Jaungoikoari betiko eta izaki guztien gainetiko erreinua emongo deutso, "egia eta biziaren erreinua, santutasun eta graziaren erreinua, zuzentasun, maitasun eta bakearen erreinua"...

"Kristoren erreinu hori orain be geure artean dago, baina ezkutatirik... Baina Jauna datorrenean bere betean agertuko da".

(Luzatu gura bada)

Luis Gonzaga santuak sarri esaten eban: "Zer da oraingo bizitza betikoaren aldean ipini ezkerro?".

Eta Inazio Loiolakoak udako gau garbietan izarrei begira etxeko eguteran (azotean) jarriz, esaten eban: "Bai kaskarra dala mundu hau zerura begira jarri ezkerro".

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Gaurko ebanjelioan, Kristo epailearen etorrera munduaren azkenean zelangoa izango dan, agertuko jaku...

Zintzoentzat egun pozgarria izango da, baina gaiztoentzat galgarria. Egun haretan, hilak biztuta, Kristo zeru-lurren jabe eta epaile dala, izadi guztiaren aurrean, aintzaz beterik agertuko da.

1. IRAKURGAIA: Mal 4, 1-2a

Jauna zintzoak eta gaiztoak epaitzera etorriko dala dino Malakias profetak. Zintzoak eguzkiak lez argi egingo dabe, eta gaiztoak galduak izango dira.

2. IRAKURGAIA: 2 Ts 3, 7-12

Tesalonikako kristinau batzuk, munduaren azkena laster etorriko zalakoan, lanik egin barik bizi ziran. San Paulok dinotse: lanik egin gura ez dauanak ez daiala jan.

EBANJELIOA: Lk 21, 18-19

"ZUEN BURUKO ULE BAT BE EZ DA GALDUKO; ZUEN IRAUPENEZ ONIK ATERAKO DOZUE ZUEN BIZIA" (Lk 21, 18-19)

H O M I L I A

Munduaren azken eguna santzinako kristinauentzat guztiz pozgarri zan. Kristo zeru-lurren epailearen aintzazko eguna zalako, itxaropenez betetako eguna zan...

Azken egun haretan Kristok hilak biztu eta epaituko ditu, eta bere adiskideei esango deutse: "Zatoze nire Aitaren bedeinkatuok; hartu eizue munduaren sortzetik zuontzat prestaturik dagoan erreinua; eta zintzoak betiko bizitzara joango dira". (Mt 25, 46)

Horregaitik Lukas ebanjelariak bere garaiko kristinauei Jaunaren azken etorreraren begira pozez beterik egoteko esaten deutse: "Gizonaren Semea indartsu eta aintza handitan etorten ikusiko dozue... Eta guzti hori jazoten danean, zutundu zaitezte, eta jaso zuen buruok, laster da zuen askatasuna".

Baina orain Agustin Deunak munduaren azken egunari buruz egindako homilia entzun daigun.

"Jaungoikoak munduaren azken eguna noiz izango dan ez deusku argitu gura izan. Etorriko dala ziur jakinik sinistu daigun. Noiz etorriko dan, ostera, ez jakinik beti prest egon gaitezan.

Gure bihotzak garbi baditugu, ez gara Jaunaren egun handi horren bildurrez biziko, baina bai pozez Kristoren aintza eta garaipen egun handia dalako. Eta geu be Kristok egun horretan betiko bizirako bizituko gaitualako. Geure bizia dan Kristo agertuko danean, geu be agertuko gara aintzaz beterik Haregaz batean (Kol 3,4)

Mundu honetan askotan gaiztoak goian eta zintzoak behean zapaldurik ikusten ditugu. Baina salmogileak dinosku: Ez sumindu gaiztoakaitik... Bedar ezea lez igartuko dira...Zuk Jaunagan itxaron egizu, eta egizu on. (Sal 36)

Egun handi haretan pozez ala bildurrez epailearen eskuma ala ezker aldean egongo garan orain egin behar dogu aukera, geroago, behar bada, berandu izan daiteke...

Neguan zugaitzak, izotzak jota, orriak galduta, jilda lez ikusten ditugu; baina udabarrian loraz jantzi, eta udagoienezan frutu ederrak emoten dabez. Gu be orain mundu honetan, neguan lez, mila nekeren artean bizi gara. Baina munduaren azkenean Kristo aintzaz beterik agertzen danean bizi gara. Baina munduaren azkenean Kristo aintzaz beterik agertzen danean, geu be lora ederrez jantziko gara, eta gero zeruan frutu gozoak ekarriko...

Gure itxaropen osoa Jaunagan ipini daigun. Bizi garan bitartean ez gaitezan on egiten aspertu. Ez daigula gaiztoen enbidirik izan. Jaungoikoa izan bedi gure ondasunik bikainena.(Sal 72)

Kristok hilak epaitzera datorrenean bakotxari merezi izan dauana emongo deutso: Jaunak zintzoen bideak ezagutzen ditu, baina gaiztoen bidea hondamendian amaitzen da (Sal 1, 6)

Eta ez daigula esan: munduaren azkena guztiz urrun ikusten dot. Orduan Kristo epaileak emongo dauan erabagia bakotxaren heriotzean emondakoaren bardina izango da. Bakotxaren epaiketa heriotz ostean, eta danen epaiketa munduaren azkenean. Halan dago erabagita...

Kristo egun handi haretan zeru-lurren epaile, aintzaz beterik agertuko da, eta geu be Kristogaz batera zerura jasoak izango gara.

Zatoze nire Aitaren bedeinkatuok, hartu eizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua. Hala bedi. (Mt 25, 34).

(C)

34. DOMEKEA URTEAN ZEHAR

(Bizkaieraz)

JESUKRISTO GURE JAUNA, DIRAN GUZTIEN ERREGEA

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Eleiz-urtearen azken domeka honetan Jesukristo Erregeren jaia ospatzen dogu...

Jesukristo gure Jauna, Jaungoikoaren Semea dalako, zeru-lurren jaun eta errege da. Jesusen izenean belaun guztiak makurtu daitezana, zeruan, lurrean eta lurpean. Eta guztiak autortu daien: Jesukristo jauna da, Aita Jaungoikoaren aintzarako...

1. IRAKURGAIA: 2 Sm 5, 1-2

Dabid artzaina aukeratu eban Jaunak Israel Herriaren errege izateko. Dabid erregea Jesukristo gure artzain eta erregeren irudi da.

2. IRAKURGAIA: Kol 1, 12-20

Eskerrak emon behar deusaguz Aita Jaungoikoari bere Seme Jesusen erreinuko jabe egin gaitualako. Kristo da zeru-lurreko izaki guztien Nagusi eta Lehendakari.

EBANJELIOA: Lk 23, 35-38

"GURUTZE GAINAN IDAZKUN HAU IPINI EUTSOEN, GREKOZ, LATINEZ ETA HEBERKERAZ: HAU DA JUDEGUEN ERREGEA" (Lk 23, 38)

H O M I L I A

(Homiliaren zatirik handiena Cornelius A Lapidere "Commentarium in Scripturam sanctam" liburutik hartuta)

Jesus Errege da gurutzetik.

Pilatok Jesusi itandu eutsanean: Zu judeguen errege zara?. Jesusek erantzun eutson: Bai, ni errege naz, baina nire erregetza ez da mundu honetakoa...

Esan gura eban: Ni, bai, errege naz benetan, baina nire erregetza ez da mundu honetako erregeen antzekoa. Mundu honetako erregeak euren urrezko eta marfilezko aukietatik agintzen dabe, baina ni gurutzetik naz errege...

Zelan dan Jesus gurutzetik errege, ez da gauza erreza ulertzeko, baina halan dala sinistuko dogu lapur onari jazotakoa ikusi eta ikasten badogu.

San Lukas ebanjelariak dino: "Kalbario deritzan lekura heldu ziranean, han josi eben Jesus gurutzean; eta gaizkile bi Harekin batean, bata eskumatan eta bestea ezkerretan. Eta lapur batek esan eutsan Jesusi: Jauna, oroituz zaitez nitaz zure erreinura heltzean. Eta Jesusek berari: "Benetan dinotsut: gaur bertan izango zara Nigaz paradisuan"(Lk 23 - 43)

Agustin santuak dino: harrigarria izan zan Maria Madalakoaren biozbarritzea, baina askoz harrigarriagoa lapur onaren onbideratzea. Maria Madalakoak Jesus mirariak egiten: geisoak osatzen, itsuak argitzen, hilak biztuten, ikusi eban...eta honan biotz barritu zan. Baina lapur onak Jesus gaizkile lez gurutzean josita ikusi eban. Eta halan be bihotz-barritu zan.

Lapur onak Jesus bere inguruan lagun barik, arerioak barre eta burlaka ikusi ebazan...Eta danen gainetik Jesus errege zala autortu eban:" Jauna, gogoratuko zaitez nitaz errege izatera helduko zaranean. Eta autormen horregaitik zeruko paradisia eskuratu eban: "Gaur neugaz egongo zara paradisuan", erantzun eutsan Jesusek.

Lapur ona izan zan Kristok gurutzetik irabazitako lehenengo frutua.

Orain gurutzeko Errege honen bihotz errukiz betea zein samurra dan ikusi daigun. Lapur onak ez eutsaj Jesusi zerura eroateko eskatu. Ondoegei ekian harek bere gaiztakeriakaitik ez ebala holango mesederik merezi. Bakar-bakarririk eskatu eutsan zeruan aurkitzen zanean beragaz ez ahazteko: "Jesus, gogoratu zaitez nitaz zure erreinura heltzean"(Lk 23, 42). Eta berehala entzun eban Jesusen agotik erantzuna:"Benetan dinotsut, gaur neugaz egongo zarala paradisuan". Ez bihar, ez laster. Gaur bertan Nigaz egongo zara errege atsegin tokian.

Bikain esan eban Agustin Doneak: Lapur ona aldi bitan izan zan lapur: bere bizitzan lapurretan egin ondoren, azken unean zeruko erreinua lapurtu eutsan.

Eta San Ziprianok lapur honi "martiri" esaten deutso, bada, gurutzean josita egoala Errege autortuz, bere odolaz bateatua izan zan. eta honan martirien koroia irabazi eban. Lapur onak gurutzean gaizkile bere azken eguna hasi eban, eta martiri lez lez amaitu...

Kristoren arerio zana une labur batean adiskide egin zan; gaizkile zana, santu; galduta egoana, salbatu, eta Kristo Erregerekin batera zeruetako erreinura jaso...Lapur onari begiraturik, nork ez dau zerura joteko itxaropenik biztuko?.

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoaren ama Maria Sortze Garbiaren jai honetan batu gara gaur eleiza honetan eukaristia ospatzera...

Andra Maria, Jaungoikoaren ama izan zalako, izaten hasi zan une beretik, Adanen pekatutik garbi aurkitu zan, eta Jaungoikoaren graziaz bete. Jaungoikoaren Semeak ezin eban bere ama izango zana, edozelango pekatuaz zikinduta itxi.

1. IRAKURGAIA: Gen 3, 9-15. 20

Adan eta ~~E~~bak paradisuari pekatu egin ondoren, Jaungoikoagandik Salbatzaile baten promesa hartu eben. Salbatzaile horren ama Maria izango zan.

2. IRAKURGAIA: Ef 1, 3-6. 11-12

Jaungoikoak geu be, bere erruki neurribakoan, bere seme-alabat-zat aukeratu gaitu, baita gero Beragaz zeruan biziteko be.

EBANJELIOA: Lk 1, 26-38

"AINGERUAK MARIARI ESAN EUTSAN: POZTU ZAITEZ, GRAZIAZ BETE HORI; JAUNA ZUGAZ" (Lk 1, 28)

H O M I L I A

(Andres Pardo, liturgi idazkaritzako zuzendariak esandako homilia)
("ECCLESIA" 1985. urtea, 1535 orr.)

"Senideok:

Abendualdia Jesusen jaiotzarako gure bihotzak prestatzeko garaia da. Horregaitik abendua Mariaren garaia da, bera izan zalako, beste fededun guztien artean Salbatzailearen zain egon zan lehenengoa eta gartsuena...

Abenduko jairik ederrena Maria Sortze Garbiaren eguna da. Maria, birjina gaztea, guztiz ederra eta garbia, ezelango pekatu zikin barik sortua...

Jaungoikoaren Semea Mariaren errain garbietan gizon egin zanean, Jaunaren "etorrera" edo "abendua" hasi zan.

Eta gabonetan guregana etorriko da, bere ama Maria aurretik dau-ala. Maria, Salbatzailea dakarskulako, argia bezain ederra, edur ikutu bakoaren antzekoa da. Maria egun barri baten aurrelari dan goizeko izarra da. Eta egun barri hori Kristo da.

Jaungoikoak munduaren hasieratik Mariagan pentsatu eban...Itun Zaharra Mariaren oroigarri bat da...

Mariagan pentsatzen eban Jaungoikoak, Adanek paradisuari pekatu egin ondoren, Jaunak subeari esan eutsanean: "Haserrea sortuko dot zure eta emakumearen artean. Zure ondorengo eta emakumearen ondorengoaren artean" (Gen 3; L5)

Mariagan pentsatzen eban Jaungoikoak, bere herri Israel arerioen menpetik askatzeko Judit lango emakume kementsu, gazte eta ederra aukeratu eban.

Mariagan pentsatzen eban Jaungoikoak, gure antzinako gurasoei, Sara eta Rebeka bezalako emazte maitagarri, samur eta zintzoak emon eutsezanean.

Mariagan pentsatzen eban Jaungoikoak, Asuero erregearen emazte izateraino Ester lango neskatxa gazte, eder eta bihotz onekoa jaso eban.

Hasieratik Jaunak Maria bere amatzat aukeratu eban. Eta horrexegaitik Jaunak Nazareteko neskatxa pobre eta gaztea, hain ederra, hain garbia eta hain santu eta sortzez pekatubakoa egin eban.

Pio IX.ak Maria sortzetik guztiz garbia izan zala irakatsi eben buldan, esaten dau: "Maria birjina, ezelango pekatu barik, hain santutasun betera heldu zan, Jaungoikoaren ondoren ez da besterik haren antzeko danik..."

Maria guztiz garbiaz hitzegitean Jeronimo santuak esaten deusku: Mariari Sortze Garbia esaten deusagu, ezelango ustelkeri barik sortua izan zalako. Eta egia da. Mariagan, santutasun eta beste birtute guztien edertasunak, bat eginik aurkituko ditugu. Mariaren birjintasun zikinbakoak, ezelango kerizpe barik, argi egiten dau. Ur garbien txukuntasuna dauka...

Salbatzaileari itxaroten gagozan abenduko garai honetan, gure begiak Jesusen amarengana jaso daiguzan... Eta Jaungoiko Aitak bere Semearen ama Mariari Sortze Garbiari egindako doeak begiraturik, gure bihotzak pozez bete daiguzan, fedez gure ama be badalako.

Maria, Nazareteko neskatxa garbia, Jaungoikoaren ama dalako, sortzetik ezelango pekatu barik, guztiz garbia da, graziaz eta santutasunez betea; emakume guztien artean bedeinkatua.

(C)

ANDRA MARIAREN ZERURA JASOTEA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jaungoikoaren ama, Andra Mariaren zerura jasotea ospatzeko, batu gara gaur altara inguru honetan...

"Graziaz betea" sortua izan zanaren gorputza, ezin eikean hilobiko ustelak galdu. Andra Maria orain gorputz eta arimaz zeruetako erreinuan bere Seme Jesusen ondoan dago, gure alde eskatzen.

1. IRAKURGAIA: Apk 11, 19; 12,1. 3-6.10

Irakurgai honetan eguzkiz jantzirik, eta hamabi izarrezko koroia buruan agertzen dan emakumea, Andra Maria da, Jaunaren Eleizaren atalik bikainena.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 15, 20-26

Adanek ekarritako heriotza Kristok bere biztueraz garaitu dau... Kristo zerura igon zan biztutakoen hasikin lez. Gero Andra Maria. Geroago baita geu be zerura jasoak izango gara, Kristoren bitartez.

EBANJELIOA: Lk 1, 39-56

"BEDEINKATUA ZU, MARIA, EMAKUMEEN ARTEAN, ETA BEDEINKATUA ZURE SABELKO FRUTUA" (Lk 1, 42)

H O M I L I A

(DAMASKOKO Joan santuaren homilia. 675-749 urtetan bizia)

Gorputz eta arimaz zerura jasotako Andra Mariaren jai honetan Damaskoko Joan santuaren hitzak eta goralpenak gogora ekarri daiguzan. Santu hau Andra Mariaren maitatzaile gartsua zan, baita hizlari bikaina eta bertsolari ospetsua be. Andra Mariaren omenez hitzaldi eta olerki bikainak asmatu zituan. Santu honek Andre Mariaren gaurko egunean, honango sermoi ederra egin eban.

"Andra Maria, Jaungoikoaren ama, bere zerura jasotze egun honetan goratzeko eta ospatzeko, ni ez naz inor. Ni isilik egotea hobe litzateke, eta bihotzez bakarrik zuei nire alaitasunaren poza aditzera emotea.

Baina ez. Gaur Andra Maria bere lurreko etxea itxita, bere Semearen besoetan zerura jaso izan da. Zelan ustelak Mariaren gorputza hartu eikean, bera betiko bizia dan Jesusen ama izanik?.

Jaunak Adan, paradisuan pekatu egin ebalako, atsedan lekutik kanpora bota eban. Zelan,ba, Jaunak ez dau paradisuan hartuko pekatu txikienik be egin ez dauan Maria emakumerik zoragarriena?.

Eba, subeari sinistuz, galerazotako frututik jan ebalako, heriotzaren ama egin zan. Maria, ostera, Jaungoikoari sinistu eutsalako, betiko biziaren iturri egina izan da...

Nork goralduko behar dan bestean Andra Mariak bere heriotzako orduan zerurako batuta eukazan santutasun ugari guztiak?

Apostoluak eta aingeruak eta zeruko bizilagun guztiak han egongo ziran gaurko egunean Andra Mariaren inguruan, zelan zeruetara jaso izan zan harriturik begira... Eta Jesus Mariaren semeak, zelan hartuko ete eban bere amaren arima besoetan zerura jasoteko?...

Jaungoikoak laugarren aginduan aita eta ama maitatzeko legea eman euskun. Zelan,ba, semerik onenak bere amaren arima pozez eta maitasunez hartuko ete eban, gero lainoetan gora zerura jasoteko?

Misterio honi heriotza esango deusagu?. Ez, horixe. Heriotza ez, loa baino. Andra Mariaren gorpu-hila hilobian ipini eban, baina haren haragiak ez eban ustelik ezagutu...

Eguzki argiak, laino baltzez estaldurik egon arren be, han goian argi egiten dauan lez, Mariaren gorputza be bardin, hilobian egon arren, ez zan usteldu. Bere semeak biztu egin eban, zeruetara bera-gaz batera eroateko.

Ez, Andra Mariarena ez zan izan heriotza, loa baino. Lur ilun honetatik betiko zorionera igotea baino...

Milaka aingeruk lagundu eutsoen Andra Mariari bere gorako bidean, Jaungoikoaren aulki santuraino. Eta zerutar guztiak, profeta, martiri, birjin eta santuekaz, euren erreginaren edertasun bardinbakoa ikusiz, pozez beterik kantuan hasi ziran:

Zu zara aingeruen erregina.

Zu, gure gurazoen poza.

Zu, zintzoen alaitasuna,
eta zu, profeten gozamina.

Zu, zeru-lurren bedeinkapena...

Hala bedi Andra Mariaren aintzarako, Jaungoikoaren gorespenerako, eta gu guztion onerako".

(C)

JOSE DEUNA.

(Bizkaieraz)

ANDRA MARIAREN SENARRA

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Jose Deunaren jaia ospatzen dogu gaur...

Jose Deuna Mariaren senar garbia da. Jesusen aita ordekoa.

Langileen zaindaria, heriotza onaren emoilea, eta Eleiza Ama Deunaren babeslea. Guztion arartekoa.

1 IRAKURGAIA: 2 Sam 7, 45a. 12-14a. 16

Jaunak Dabid erregeari egindako agintzaria (promesa): "Zure erri-
nuak betiko iraungo dau", Dabiden odoleko San Jose Deunarengana lu-
zatu eban.

2 IRAKURGAIA: Erm 4, 13. 16-18. 22

Jose Deunak ,Abrahamek lez, itxaropen guztien aurka, Jaunari si-
nistu eutsan.

EBANJELIOA: Mt 1, 18-21

"MARIAREN SENAR JOSE GIZON ZINTZOA ZAN" Mt 1, 19

H O M I L I A

(Joan XXIII. eta Paulo VI.aren hitzaldietatik hartuta)

"Jose Deuna, Mariaren senar garbia, Nazaretoko sendiaren buru eta
zaindaria handia, benetan gizon zintzo eta maitagarria da.

Josek gorde eban Jesus umea Herodesen esku gaiztoetatik.

Josek irakatsi eutsan Jesus gazteari Nazaretoko aroztegian lan
egiten.

Josek izan eban heriotzarik gozoena Jesus eta Mariaren besoetan.

Jose izan zan, Mariaren ondoren, Jesusegaz alkartasunik gozoenak
euki zituana.

Apaltasuna, isiltasuna eta zintzotasuna izan ziran Jose Deunaren
birtuterik ederrenak. Ebanjelioak ez deuskue guri Joserren berba ba-
kar bat be adierazoten, baina Mateo ebanjelariak dinosku Jose gizon
"zintzoa" zala, eta honegaz guretzat nahiko da.

Josek baekian ondo Jaungoikoak lur honetan izan daitekeen egin-
beharrik ederrena emon eutsala: Jesus eta Maria zaintzea. Eta Jose
zintzoak bere eginbehar hau ahalik eta ondoen bete eban.

Nazaretoko Jose, gizon isil, apal eta zintzoa da guretzat ikasbi-
derik argiena, gure harrokeria eta handikeriak bazterturik, haren
antzeko izan gaitezana.

Han goiko zeruetan hiru pertsonetan Jaungoiko bakar dan Jaun ahalguztiduna dago. Hemen gu bizi garan lurrean beste hiru pertsona santuak aurkitzen ditugu: Jesus, Maria eta Jose.

Gure eskariak zeruko Aitaren aurrean entzunak izan daitezcan hau dogu biderik egokiena: lurreko Jesus, Maria eta Joserengana joatea.

Jesus da gure salbatzailea bere gurutzeko odolaz erosi gaituana.

Maria da Jesus Jaungoikoaren ama, emakumerik ederren eta maitagarriena.

Jose da Jesus eta Mariaren zaintzailea, eta gu be zainduko gaituana".

(Joan XXIII. hitzaldia 1963. urtean)

"Maite daigun Jose Deuna, Mariaren senarra, Jaungoiko Aitak bere Semearen zaintzaile izateko aukeratu ebana.

Jose Deunak emon eutsan Jesusi etxe bat biziteko. Aroztegian lanbide bat eguneroko ogia irabazteko. Sendi maitagarri bat, bertan bizi, hazi eta gizon egiteko.

Zelango atsekabea izango eban Josek, bere emazte Maria, emakumerik ederrena eta maitagarriena, eta bihotz osoaz maite ebana, laster ama izateko haurdun egoala jakin ebanean!

Baina Jose, ezin ulertu eban misterio honen aurrean, isildu egin zan, eta gizon zintzoa zanez, bere emazte Maria salatu barik, misterio honen urtenbidea Jaungoikoaren eskuetan itxi eban: "Emaztea itxita joatea erabagi eban".(Mt 1, 19)

Baina gero Jaungoikoak Joseren sinismena, Abrahamena lez, aztertu ondoren, ondo saritu eban: "Dabiden seme Jose, ez izan bildurrik Maria zure etxean hartzeko, sabelean daroan umea Espiritu Santuagandik dator eta" (Mt 1, 20)

Jose Deuna lur honetan bizi izan zan bitartean, Jesus eta Mariaren zaintzaile arduratsua izan zan; eta orain zeruetan be, Jesusen gorputz mistikoa dan Eleizaren zaindari da. Eta guretzat, kristinatu herria osotzen dogunontzat, zintzotasun eta apaltasunaren eredu izan behar leuke.

Nazaretoko Jose arotz-langile santua, zeruan Jaungoikoaren aurrean gure ararteko izan daitela, gu be, haren antzera, isil, apal eta zintzoak izan gaitzan".

(Paulo VI.aren homilia)

(C)

SANTIAGO APOSTOLUA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Santiago apostoluaren jaia ospatzen dogu egun honetan...

Santiago bere anaia Joan eta aita Zebedeogaz Galileako itsas-bazterrean sareak konpontzen ebilen. Eta Jesusek handik igarotean esan eutsan: Zatoz neugaz.

Eta Santiagok eukan guztia itxi, eta Jesusi berehala jarraitu eutsan. Eta heriotzaraino jarraitu be. Santiago izan zan apostoluen artean lehenengoa Jesusen alde bere bizia emon ebana.

1. IRAKURGAIA: Ap Eg 4, 33; 5, 12

Apostoluak kementsu emoten eben Jerusalemene Jesus biztuaren autormena. Eta horregaitik Herodes Agripa erregeak Santiagori ezpataz burua moztu eutsan.

2. IRAKURGAIA: 2 Kor 4, 7-15

Jesusegaitik bere bizia emoten dauana Jaungoikoak biztuko dau, gero zeruan Jesusegaz bizi daiten.

EBANJELIOA: Mt 20, 20-28

"EGUN HAREETAN, HERODES ERREGA GOGOR ERASOTEN HASI ZAN ELEIZTAR BATZUEN AURKA, ETA JOANEN ANAIA SANTIAGORI EZPATAZ BURUA MOZTU EUTSAN" (Ap Eg 12, 1-2)

H O M I L I A

Jesusek, zerura igon aurretik, bere ikasleei esan eutsen: Zoaze mundu guztira, eta gizaki guztiei barri ona hotsegin: (Mk 16, 15)

Pedrok pentekoste egunean Espiritu Santuak indartuta, jerusalendarrei honan berba egin eutsen: Zuok gurutzean hil zenduen Jesus hori biztu egin dau Jaungoikoak; eta geu gara horren testigu. Bihotz-barritu zaitez, eta bateoa hartu Jesusen izenean. Eta egun haretan hiruren bat mila lagun Kristoren ikasle egin ziran. (Ap Eg 2, 32.38)

Eta apostoluak herrian egiten ebezan mirariak ikusita, Pedroren bigarren hitzaldian bost mila gizonak bateoa eskatu eben. (Ap Eg 4)

Harritzekoa zan, benetan, lehenengo kristinau haien alkar maitasun bizitza: Guztiak bat ziran bihotzez... Ondasunak saldu eta danen artean zabaltzen ebezan. Eta egunero fededunen taldea ugaritu egiten zan (Ap Eg 2, 43. 4,32):

Baina laster hasi ziran Jerusalemgo agintariak Jesusen ikasleen aurka esku latza erabilten.

Apostoluak espetxean sartu ebezan, eta Esteban diakonoa harrika harrika hil. Tarsoko Paulo zan kristinauen areriorik gogorrena.

Erasoaldi honetan kristinau asko Samaria, Fenizia, Txipre eta Antiokiaraino sakabanatu ziran, lurralde hareetan "Jesus Jaunaren barri emonez, eta asko bihotz barritu eta fededun egin ziran" (Ap Eg 11, 20). Apostoluak arriskuen artean Jerusalemenean geratu ziran.

Gero lau-bost urteko bakea etorri zan, eta kristinau taldea "gero eta handiago egiten zan, Espiritu Santuak eraginda" (AP Eg 9)

Baina 42garren urtean Herodes Agripak, Belengo umeak hil zituanaren bilobak, barriz sua biztu eban, eta "judeguei poz emoten eutsela ikusirik, Joanen anaia Santiagori ezpataz burua moztu eutsan (Ap Eg 12, 1) Eta Pedro kartzelan sartu eban Pazko ondorenean hilteko asmoz, baina aingeru batek Herodesen eskuetatik atera eban.

Orduan apostoluak eta beste ikasleak munduko lau aldeetara zabaldu ziran Kristoren barri ona predikatzeraz.

Apostolu guztien barri garbirik ez da gureganaino heldu, baina orain adierazoko dodanaren antzekoa izan zala esan daiteke.

Pedro Erromaraino joan zan, eta han Neron enperadorearen agindupean gurutzean josita bere bizia Kristoren alde emon eban.

Joan, Jesusen ama Mariagaz, Efeso hurira baztertu zan, eta azkenean Patmos uhartean erbesteturik, zahartzaro ederrean hil zan.

Andres, Europako Danubio ibai aldean Kristoren sinismena zabaldu eta gero, Patras hurian gurutzean josita hil eben.

Matias Afrikako Etiopiaraino heldu ei zan, martiri hila izanik.

Bartolomek, Arabia, Persia eta Armenian predikatu ondoren, martiritza gogorra jasan izan behar eban.

Tomas Indiaraino joan zan, eta han lantzaz zulaturik Kristoren alde bere bizia emon eban.

Judas Tadeo eta honen anaia Simonek, Sirian, Mesopotamian eta Persian Kristoren barri ona zabaldu eben. Biak martiri hil xiran.

Mateo zergalari eta ebanjelariak, batzuen ustez, Persia aldean predikatu eban, bertan martirien koroia irabaziz...

Apostolu honeek dira gure fedearen oinarri, Kristo bizituaren testiguak. Kristogaitik euren bizi eta guztia emon ebenak.

Eta apostoluen artean lehenengo martiria, bere bizia Jesusen alde emon ebana Santiago apostolua izan zan.

(C)

LOIOLAKO INAZIO SANTUA

(Bizkaieraz)

SARRERAKO OHARPENA

Senideok:

Euskal Herriko santu ospetsu, Gipuzkoa eta Bizkaiko zaindari, Loiolako Inazio santuaren jaia ospatzen dogu gaur...

Inazio 30 urterarte pekatari handia izan bazan be, Loiolako bere dorre-etxean zauriturik egoala, Jaunarengana bihurtu zan.

Eta Jesusen Lagundia sortu ondoren, 65 urte zituala, Erroman gaurko egunez hil zan.

1. IRAKURGAIA: Dt 30, 15-20

Bide bi ditu gizakiak bizitza honetan bere aukeran: zerukoa ala betiko hondamendikoa. Loiolako Inazio gaztetan bide okerretik ibili bazan be, gero, Jaungoikoaren laguntzaz, bide zuzenetik abiatu zan.

2. IRAKURGAIA: 1 Kor 10, 31-33; 11, 1

Jesusen ikasleak, euren maisuaren antzera, guztiei on egiten bizi dira, guztiak salbau daitezana.

EBANJELIOA: Lk 9, 18-26

"ZERTARAKO DAU GIZONAK MUNDU GUZTIA IRABAZTEA, BERE BIZIA GALTZEN ETA HONDATZEN BADAU?" (Lk 9, 25)

H O M I L I A

Loiolako Inazio Santuaren heriotza.

1556. urtean gagoz. Erroman Paulo IV.a da aita santu. Loiolako semeak sortutako Jesusen Lagundiak ia mila lagun ditu, mundu guztira zabalduak. Inaziok bere bizitzako lana bete dauala ikusten dau... Eta orain Erroman gaixorik ohean dago.

Paulo IV. aita santua eta Espainiako errege Felipe II.a alkarregaz haserre, gerran dagoz. Erroman, soldaduz beterii, ez da entzuten besterik arma, danbor eta gerra soinuak baino. Giro galgarri honek Inazioren osasuna makaldu egin dau, eta bere bizitzako azken egunak etorri jakozala konturaturik, Aita Polanko bere idazkariari esaten deutso: Zoaz Vatikanora eta Aita Santuari esaiozu, ni lur honetan biziteko ia itxaropen barik aurkitzen nazala, eta apal-apalik bere bedeinkapena eskatzen deustdala.

Osagilea etorri zan, eta ez eutsan Inazioren makalaldiari halango arriskurik aurkitu. Aspalditik urdaileko minaz beti txarto ebile, eta orain be aldi txar hori joango jakola, uste eban.

Iluntzeko bederatzietan Inaziok, bere betiko gitxi jatean, nahiko ondo afaldu eban, eta gero afalostean bere lagunekaz aldi txiki batean berbetan jardun eban.

Oherakoan badaezbada be gaixozainari gauz gaixoa kontuz zaintzeko esan eutsoen. Eta honek dinosku gauzerdi aldera gaixoak tarteka "Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa" esaten ebala

Argi urratsean gaixozainak edari bizkorgarri bat eskeindu eutsan edateko, baina gaixoak erantzun eutsan: "Ez da horretarako ordua". Eta ez eban hartu.

Goizean goiz jesulagunak itxartu ziranean Aita Inazio azkenetan aurkitu eben. Eta bake-bakean ezelango dardara barik azken arnasa emon eban. Hirurogeita bost urte zituan.

Aita Polankok ederto dinosku: "Inaziok bere heriotzaren barri aurretik jakin arren be, ez zituan beste gizon santuen antzera bere semeak azken bedeinkapena eta aholkuak emoteko bere ohe ingurura deitu. Beste edozein kristinau lez mundu honetatik joan zan, bere heriotzako orduan mirari edo harrigarririk egin barik".

Eta Jose de Artetxe euskal historilariak dinosku: "Hamaseigarren gizaldiko fededunik handiena bakarrik hil zan. Eleizakoak hartu barik. Aita Santuaren bedeinkapen barik. Loiola bere azken orduan euskaldun jator lez agertzen jaku. Euskaldunak gara mundu guztian teatrozale gitxienak, eta Inaziok be ez eban azken-agur ikusgarririk egin gura izan. Hil beti bakarrik hiltzen da".

Inazioren hilobi gainean idazkun hau ipini eben:

"Bere lana bete ebanean hil zan".

Hil eta 53 urte geroago Paulo V. Aita Santuak Loiolako Inazio dohatsuen artean ipini eban, eta 13 urte geroago santuen altarara jaso izan zan.

Urte bi urte aurretik Gipuzkoako Batzarre Nagusiak, Zumaian baturik Loiolako semea Gipuzkoako zaindaritzat aukeratu eban.

Eta 1680. urtean Bizkaiko Batzarre Nagusiak be, Gernikan baturik, Loiolako Inazio santua Bizkaiko zaindaritzat izentatzea erabagi eban.

